

ernan ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Soziologia eta Gizarte-langintza saila

GIZARTE-ZERBITZUEN EUSKAL SISTEMAREN SAKONTZE KOMUNITARIOA

Nerea Zubillaga Herran

**Zuzendariak: Julen Zabalo Bilbao
eta Ainhoa Berasaluze Correa**

2023

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Soziologia eta Gizarte-langintza saila

Doktorego tesia

GIZARTE-ZERBITZUEN EUSKAL
SISTEMAREN SAKONTZE KOMUNITARIOA

NEREA ZUBILLAGA HERRAN

Zuzendariak: Julen Zabalo Bilbao eta Ainhoa Berasaluze Correa

2023

Doktorego tesi honek Eusko Jaurlaritzaren doktore aurreko laguntza jaso du, 2019ko urtarriletik 2023ko ekainera arte.

Gainera, Eusko Jaurlaritzak kanpo egonaldiak sustatzeko duen EGONLABUR laguntza ere jaso du, 2022ko ekaina eta iraila bitartean.

Utopia ez da amets eginezin bat, jarraitu beharreko bidea baizik

(Marco Marchioni)

Beste gizarte-langintza baten sinesten duzuen guztioi.

Etxekoei, lagunei, lankideei eta, modu batera edo bestera,

ibilbide honetan ondoan izan zaituztedan guztiei:

Eskerrik asko bihotzez bidea errazagoa egitearren.

*Lau urte luze bezain motz
igaro dira denean,
une gazi-gozo asko
atzera begiratzean.
Pertsona zoragarriak
topatu ditut bidean,
babesa eskaini didate
behar izan dudanean.
Ondoan izan zaituztet
estropezu bakoitzean
Eskerrik asko bihotzez,
guztiagatik finean.
Orain atsedean hartzea
dagokigu azkenean,
erronka berriei heltzeko
datorren udazkenean.*

AURKIBIDEA

1. IKERKETAREN AURKEZPENA.....	11
1.1. SARRERA	11
1.2. HELBURUAK ETA HIPOTESIAK.....	14
1.3. TESIAREN EGITURA	17
2. GIZARTE-ZERBITZUAK ETA HURBILKETA KOMUNITARIOA.....	21
2.1. GIZARTE-LANGINTZA KOMUNITARIOA.....	21
2.1.1. BILAKAERA HISTORIKOA	22
2.1.2. KONTZEPTUALIZAZIOA	36
2.1.3. HELBURUAK	45
2.1.4. EREDU TEORIKO-PRAKTIKOAK	47
2.1.5. METODOLOGIA.....	64
2.2. GIZARTE ZERBITZUAK.....	75
2.2.1. BILAKAERA HISTORIKOA	77
2.2.2. KONTZEPTUALIZAZIOA	93
2.2.3. OBJEKTUA, HELBURUAK ETA FUNTZIOAK.....	102
2.2.4. EREDU TEORIKO-PRAKTIKOAK ETA METODOLOGIA	107
2.2.5. EGUNGO EGOERA: GIZARTE-ZERBITZUEN KRISIA	120
2.3. GIZARTE ZERBITZUEN EUSKAL SISTEMA KLABE KOMUNITARIOAN.....	128
2.3.1. GIZARTE ZERBITZUEN EUSKAL SISTEMAREN MARKOA.....	128
2.3.2. GIZARTE ZERBITZUEN EUSKAL SISTEMAREN MARKOA KLABE KOMUNITARIOAN.....	139
2.3.3. GIZARTE ZERBITZUEN EUSKAL SISTEMAREN EGUNGO EGOERA KLABE KOMUNITARIOAN.....	143

<u>3. HAUTU METODOLOGIKOA</u>	<u>155</u>
3.1. DISEINU METODOLOGIKOAREN ABIAPUNTUA.....	155
3.2. ERABILITAKO METODOLOGIA.....	160
3.3. ERABILITAKO TEKNIKAK	163
3.4. AZTERGAIA (LAGINAREN AUKERAKETA)	167
3.5. GAUZATZE PROZESUA.....	171
3.6. INFORMAZIOAREN LANKETA	175
3.7. KRONOGRAMA	176
<u>4. ANALISIA: GIZARTE ZERBITZUEN EUSKAL SISTEMAREN</u>	
<u>DIMENTSIO KOMUNITARIOAREN GORABEHERAK</u>	<u>180</u>
4.1. MARKO ANALITIKOA: GIZARTE ZERBITZUETAKO PROPOSAMEN	
KOMUNITARIOEN ELEMENTU BALDINTZATZAILEAK.....	180
4.1.1. ARGIAK ETA ILUNAK: KOMUNITARIOA GIZARTE-ZERBITZUETAN ..	180
4.1.2. KOMUNITARIOAREN EGUNGO PROPOSAMENAK	192
4.1.3. KOMUNITARIOAREN ELEMENTU BALDINTZATZAILEAK.....	208
4.2. KASU ANALISIA: KOMUNITARIOA GASTEIZKO OINARRIZKO	
GIZARTE-ZERBITZUETAN.....	255
4.2.1. POLITIKARIEN IKUSPEGITIK.....	261
4.2.2. TEKNIKARIEN IKUSPEGITIK	287
4.2.3. ERAGILEEN DISKURTSOAREN IRAKURKETA KRITIKOA.....	323
<u>5. ONDORIOAK: ZER GERTATZEN DA GIZARTE ZERBITZUEN EUSKAL</u>	
<u>SISTEMAN KOMUNITARIOAN BEHAR BESTE EZ SAKONTZEKO?</u>	<u>334</u>
5.1 HAUSNARKETAK ELEMENTUEI DAGOKIENEZ.....	334
5.2. AURRERA BEGIRA	344
<u>6. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK-----</u>	<u>351</u>
Dokumentuak.....	351

Araudia.....369

7. ERANSKINAK-----374

1.Eranskina: Adituen elkarrizketen gidioia..... 374

2.Eranskina: Politikarien elkarrizketen gidioia.....376

3.Eranskina: Teknikarien elkarrizketen gidioia.....379

4.Eranskina: Gasteizko gizarte-etxeen zerbitzuen laburpena..... 382


IRUDIEN AURKIBIDEA

1. Irudia: Gizarte-langintzaren metodoa.....	32
2. Irudia: komunitateko gizarte-langintzaren bilakaera historikoa.....	36
3. Irudia: Metodologia komunitarioa.....	74
4. Irudia: Welfare Triangle.....	76
5. Irudia: Gizarte-zerbitzuen bilakaera historikoaren laburpena.....	92
6. Irudia: Gizarte-zerbitzuen prozesu metodologia.....	117
7. Irudia: Gizarte-zerbitzuetako metodologia.....	120
8. Irudia: Komunitarioa baldintzatzen duten elementuen dimentsioak.....	210
9. Irudia: Kanpo dimentsioko elementu baldintzatzaileen arteko eragina.....	217
10. Irudia: Dimentsio politikoko elementu baldintzatzaileen arteko eragina.....	227
11. Irudia: Dimentsio teknikoko elementu baldintzatzaileen arteko eraginak.....	247
12. Irudia: Dimentsio herritarraren elementu baldintzatzaileen arteko eragina.....	253
13. Irudia: Gizarte politiken, adinekoen eta haurren sailaren organigrama.....	258
14. Irudia: Gasteizko Udaleko Gizarte Politiken, Adinekoen eta Haurren sailaren aurrekontuaren banaketa.....	260
15. Irudia: Continuum komunitarioa eta sakontze komunitarioa.....	346
16. Irudia: Gizarte-zerbitzuen antolaketaren oinarriak.....	347

TAULEN AURKIBIDEA

1.Taula: Helburu nagusia, helburu espezifiko eta hipotesien laburpen taula.....	16
2.Taula: Eredu praktikoak edo esku-hartze ereduak komunitateko gizarte-langintzan.....	62
3. Taula: Pertsonan ardaztutako arreta ereduaren	111
4.Taula: Arreta sarearen hedapenaren hurbiltasun maila	134
5.Taula: Metodologiaren laburpena.....	166
6.Taula: Oinarrizko elementuak osatzeko elkarrizketak, pertsonen jatorri eta jardueraren arabera.....	168
7.Taula: Maila politikoan egindako elkarrizketak.....	170
8.Taula: Maila teknikoan egindako elkarrizketak.....	171
9.Taula: Elkarrizketen ezaugarriak.....	174
10.Taula: Ikerketaren kronograma.....	176
11.Taula: Oinarrizko gizarte-zerbitzuetako agertoki ezberdinetako helburu eta funtzio komunitarioak.....	202
12.Taula: Elementu baldintzatzailleen eta dimentsioen laburpen taula.....	254
13.Taula: Kanpo Dimentsioa eta elementu baldintzatzailleak.....	261
14.Taula: Dimentsio politikoa eta elementu baldintzatzailleak.....	264
15.Taula: Dimentsio teknikoa eta elementu baldintzatzailleak.....	272
16.Taula: Dimentsio herritarra eta elementu baldintzatzailleak.....	284
17.Taula: Kanpo Dimentsioa eta elementu baldintzatzailleak.....	287
18.Taula: Dimentsio politikoa eta elementu baldintzatzailleak.....	288
19.Taula: Dimentsio teknikoa eta elementu baldintzatzailleak.....	294
20.Taula: Dimentsio herritarra eta elementu baldintzatzailleak.....	319

1. IKERKETAREN AURKEZPENA



1. IKERKETAREN AURKEZPENA

1.1. SARRERA

Gizarte langilea izanik, beti izan dut komunitarioarekiko miresmen handia, gure egitekoen baitan esku-hartze maila konplexu eta zailena dela jakinda ere, gizarte errealitatearen benetako eraldaketa ekarri dezakeen dimentsioa dela konbentziturata bainago. Gainera, egungo Parte-hartuz ikerketa taldearen baitan kokatzen dut nire burua eta bertan, parte-hartzearen inguruko lanketen baitan, arreta berezia eskaintzen zaio komunitarioari. Bertan, ordea, ez dago gizarte-langintzaren ikuspuntu diziplinarretik egindako ekarpenik, eta honenbestez, ikerketa taldearentzat osagarria izan daiteke gizarte-langintzatik eta gizarte-zerbitzuetatik maila komunitarioaren inguruan egindako irakurketa.

Ez dut gizarte-langintza ulertzen ez bada eraldatzailea, eta horretarako, beste dimentsio eta lan batzuen artean, komunitarioa beharrezkoa da. Gizarte-arazoei “gizarte” dimentsioa duten heinean, nire aburuz, ez du zentzurik modu indibidualen soilik erantzunak izateak. Gizarte-arazoak, berez, arazo publikoak dira: guztionak, kolektiboak eta estrukturalak. Hori dela eta, errotik eragingo duten erantzun kolektibo zein estrukturalak behar dituzte, parte-hartzearen, antolakuntzaren, autogestioaren eta ekintza kolektiboaren bidez. Ikerketan zehar ikusi ahal izango den bezala, batak ez du bestea kentzen. Nik apustu hau egin beharra dagoela uste dudan arren, bizi garen koiunturan, gizarte-zerbitzuetan burutzen den esku-hartze indibiduala ezinbestekotzat jotzen dut, baina, bata bestearekin osagarriak izan beharko luketelakoan nago; edo are gehiago, arreta komunitarioa indibidualaren baitan integratu beharko litzakeela uste dut. Izan ere, gizarte-zerbitzuen sistemen bidez, gizarte-arazoen prebentzioa gauzatu eta kausen jatorrietan eragin nahi bada, oinarritzko gizarte zerbitzuak, gertuko eremuan kokatuak, espazio egokia dira lurralde jakin bateko lanketa komunitarioaren bidelagun gisa aritzeko.

Ikerketa honek gure gizartean egin dezakeen ekarpenarekin jarraituz, ondoren ikusiko dugun bezala, nire usteez haratago, bada gizarte-zerbitzuen baitan komunitarioaren aldeko apustua egin behar dela aipatzen duten hainbat ahots. Gaur gaurkoz, gizarte-zerbitzuetan erabiltzen den eredia agortutzat ematen ari dira adituak, lan honetan ikusiko dugun bezala, eta erantzunak aurreko paragrafoan aipatutakoaren haritik joan beharko luketela diote. Alegia, erantzunak, kolektibizatu eta egungoaren aurrean kapital sozialean; harreman eta babes sozialaren garrantzian; lankidetzan; elkartasunean eta autogestioan

oinarritutako alternatiba komunitarioak antolatzearen alde ageri dira. Gizartearen onurarako sareak eraiki eta indartuz, komunitateak ehuntzea garrantzitsutzat jotzen da, gizartearen joerak dakartzan mehatxuei aurre egiteko aukera bezala. Apustu hau egin beharra berretsi da Covid-19aren pandemiaren garaian, antolatutako komunitatea izan baita gizartearen zailtasunei aurre egiteko baliabide eraginkorrenetako bat, eta horrenbestez, posible dela ikusi ahal izan dugu.

Horretarako, gizarte-langintzak, duen izaera dinamiko eta holistikoagatik, betebeharrak garrantzitsua bete lezake lan komunitarioan, beste diziplina batzuekin batera. Hala ere, onartu beharra dago, gizarte-langintzaren baitan ahuldade teoriko handia dagoela dimentsio honi dagokionez: komunitateko gizarte-langintzari buruzko produkzio zientifiko-teorikoa urria da, eta beraz, sortu beharra dago. Batetik, diziplina aberasteko ezinbestekoa delako, eta bestetik, beharrezkoa delako arlo honek behar duen bultzada jardute profesionalen ere isla dadin.

Praktikoki, jardute profesionalari begiratzen badiogu, dimentsio honetan sakontzeko nahia dagoen arren, ezagutza beharra sumatzen dute jardunean ari diren gizarte langileek; beren jardun profesionala orientatuko duten pautak eta ezagutzen beharra, alegia. Metodologikoki eta teknikoki, dimentsio honi heltzeko esku hutsik sumatzen dute beren burua, eta beraz, sustatzeko apustua egin nahi badugu, ez dago beste biderik.

Aurreko guztiaz gain, berritzailea ere badela esan dezakegu, eta egungo beharrei emandako erantzunetan ekarpena egin dezakeela uste dugu. Askok dira gizarte-zerbitzuen sistema ezberdinen berrikuntzan komunitarioaren aldeko apustua egiteko bidean kokatzen diren gizarte-zerbitzuen sistemak. Beraz, gizartean dauden joera indibidualisten aurrean zein ematen ari diren krisi sozial anizkoitzei (besteak beste, indarkeria matxista, zaintzaren krisia, prekaritatea, etxebizitzaren arazoa, migrazioak etab.) aurre egiteko estrategiak eskaini ditzakeela ulertzen dugu. Hortaz, dimentsio komunitarioaren garapeneraren bide horri ekarpena egin nahiko lioke tesi honek.

Zehaztasunetara joz, tesi honetan, gizarte-zerbitzuetan dimentsio komunitarioa garatzeko ekarpena egin gura da, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren arreta berezia jarriz. Egun, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren markoak dimentsio komunitarioaren garapenerako aukerak eskaintzen baditu ere, ez da behar besteko garapenerik ematen eta hori gertatzeko arrazoia ezagutu gura da ikerketaren bidez. Horrela, etorkizuneko planteamenduetan, hau

da, sistemaren norabide orokorrak marraztu nahi direnean, lanketa komunitarioetara bideratutako proposamenen orientazio iturri izan daitekeela uste dugu.

1.2. HELBURUAK ETA HIPOTESIAK

Ikerketa lan honen helburu nagusia Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren dimentsio komunitarioaren garapenean sakontzeko ekarpena egitea da, hau da, dimentsio komunitarioa sustatzea. Gaur gaurkoz, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren marko orokorrek zein tokian tokikoek, dimentsio komunitarioaren garapenean sakontzeko aukera eskaintzen dute, eta hori ez ezik, indartzeko eta sustatzeko iradokizun zein gomendioak egiten dituzte. Aldiz, ez da garapen nahikorik ematen. Hori horrela, garapen ezaren motiboak ezagutu gura dira ikerlan honetan, ondorengo planteamenduetan erabili ahal izateko. Esanak esan, beraz, ikerlan honetan, nagusiki, garapen komunitarioa eza edo urria izatearen arrazoiak ezagutu eta aztertu gura dira.

Helburu nagusi hau lortzeko, hainbat helburu zehatz planteatu ditugu:

- Gizarte zerbitzuen Euskal Sistemako eragileek¹, gizarte-zerbitzuen baitan, komunitarioaren inguruan ulertzen dutena ezagutzea.
- Gizarte zerbitzuen Euskal Sistemako eragileen bidez, gizarte-zerbitzuetan komunitarioaren egoera aztertzea.
- Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako eragileek komunitarioaren nolako garapena nahiko luketen ezagutu eta horren arabera, gaur egungo egoeraz egiten duten balorazioa analizatzea.

Helburu nagusiak ikerketa galdera nagusia ere badu, baita lanaren hipotesia ere. Gainera, aipatutako azpi-helburuak aintzat hartuta, hainbat dira ikerketa galderak eta hurrengo lerroetan aipatuko dira, hurrenkera berdinarekin:

Helburu nagusiari lotuta: Zer gertatzen da Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren komunitarioan behar beste edo gehiago ez sakontzeko?

Hipotesi nagusia: Komunitarioa gai garrantzitsua da Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren, eta hala dago jasota legerian eta arduradunen adierazpenetan. Jakina da, ordea, praktikan gutxi erabiltzen dela. Zergatik gertatzen da teoria eta praktikaren artean dagoen aldea? Gure ustez, ildo horretan ez sakontzeko arrazoi nagusia gaiaren inguruan dagoen

¹ Gizarte-zerbitzuen Euskal Sistemako eragileei buruz mintzo garenean, sistemaren eragin zuzena izan dezaketen politikarien zein teknikari edo sistemako profesionalei buruz ari gara. Sistemarekiko duten ardura eta botereagatik eragin ezberdina izan dezaketen arren, Gizarte-zerbitzuen Euskal Sistemaren eragile klabetzat jotzen ditugu.

ezjakintasuna da, eta horrek interes falta eragiten du azkenean. Hala ere, eragileen interes jakinekin talka egin dezakeen planteamendua ere badela uste dugu.

Askotan, ez da nahita egiten den zerbait. Alderantziz, komunitarioan eragiteko borondatea erakusten dute askotan eragile guztiek, gutxienez diskurtsiboki. Baina egiten dena oso azalekoa da, komunitarioaren adiera baxuenean kokatu daiteke. Zenbait kasutan komunitatean kokatutako ekintza solteak egiten dira, eta hori lan komunitarioa egitearekin nahasten da.

Era horretara, bestelako biderik urratzeko ezezagutza dagoelako, batetik, edo erabakimen faltagatik, bestetik, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemari ez da komunitarioan behar beste sakontzen, teoriak dioenaren kontrara.

Goraxeago esan bezala, hauek dira helburu bakoitzari lotuta planteatzen ditugun ikerketa galderak:

Lehenengo helburuarekin lotuta: Zer ulertzen dute Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako eragileek lan komunitarioaren inguruan mintzo garenean?

Bigarren helburuari lotuta: Nola dago komunitarioaren egoera Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemari? Zer da egun egiten dena?

Hirugarren helburuarekin lotuta: Nola baloratzen da eragileen partetik Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema egiten den komunitarioa? Nola gustatuko litzaieke dimentsio komunitarioa garatzea?

Hurrengo taulan ikerketaren helburu, galdera eta hipotesiak biltzen dira:

1. Taula: Helburu nagusia, helburu espezifiko eta hipotesien laburpen taula

	Helburuak	Ikerketa galderak	Hipotesiak
	Adituek zein ebaluazio eta gomendio txostenek gizarte-zerbitzuen birplanteamendua planteamendu komunitarioetan sakontzearen bidez egin behar dela aipatzen dute, eta horretaz gain, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako marko legalak ere bide horretan doaz. Aldiz, gizarte-zerbitzuetan praktikotasunean ez da gertatzen. Hori horrela izatearen motiboak ezagutu gura dira.	Zer gertatzen da gizarte-zerbitzuetan planteamendu komunitarioetan ez sakontzeko?	Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako, komunitarioari dagokionez, teoria eta praktikaren artean dagoen aldea horretan sakontzeko interes faltagatik gertatzen da. Interes falta, zenbait kasutan, inboluntarioa da, hau da, ez da pentsatuta egiten den zerbait. Interes falta hau, gainera, eragile guztien partetik gertatzen da, nahiz eta arrazoi ezberdinak medio izan. Horretaz gain, alorraren inguruan dagoen ezjakintasunagatik eta beste hainbat faktoregatik ere gerta daiteke.
1	Dimentsio komunitarioaz Gizarte-zerbitzuetako eragileek zer ulertzen duten ezagutzea.	Zer ulertzen dute Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako eragileek lan komunitarioaren inguruan mintzo garenean?	
2	Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako eragileen bidez, komunitarioaren egoera zein den ezagutzea.	Nola dago komunitarioaren egoera Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako? Zer da egiten dena?	
3	Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako eragileek komunitarioaren nolako garapena nahiko luketen ezagutu eta horren arabera, gaur egungo egoeraz egiten duten balorazioa analizatzea.	Nola baloratzen da eragileen partetik Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako egiten den komunitarioa? Nola gustatuko litzaieke dimentsio komunitarioa garatzea?	

Iturria: Norberak egin

1.3. TESIAREN EGITURA

Doktorego tesi hau bost atal nagusitan egituratuta dago: sarrera, marko teorikoa, metodologia, analisia eta ondorioak. Lehenengo atalean, lanaren azalpena egiten da; horrela, sarrera, motibazioa eta ikerketaren helburu, galdera eta hipotesiak zehazten dira.


Bigarren atala marko teorikoari lotutako atala da eta hau hiru azpitaldetan banatzen da. Batetik, komunitateko gizarte-langintzaren inguruko lanketa egiten da. Bestetik, gizarte-zerbitzuen nondik norakoak aztertzen dira, eta azkenik, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zentratzen den atala dago, sistemari hurbilpen komunitarioa eginez.

Hirugarren atala metodologiaren atala da, eta hor, ikerketaren diseinu metodologikoa zehazten da, egin den hautu metodologikoa zein izan den, zergatik egin den, eta zein teknika erabili diren arrazoituz. Gainera, lagina ere zehazten da eta baita nola gauzatu den ere.

Laugarren atala, doktorego tesiaren atal nagusia izango litzateke, analisiarena. Atal honetan, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren baitan komunitarioaren inguruko gorabeherak aztertzen dira. Atal honek ere bi azpiatal ditu: alde batetik, aurre landa-lana bezala izendatua izan dena, eta bestetik, kasu azterketa. Lehenengoan, bigarrena egiteko marko analitikoa sortu da, eta bigarrenean, marko hori erabilita kasu azterketa egiten da.

Azkenik, berriz, ondorioen atala dago, eta izenak dion bezala, lanaren eta egindako analisiaren konklusio nagusiak azaltzen dira, baita aurrera begira egon daitezkeen ikerketa lerro zein proposamenak ere.

2. GIZARTE-ZERBITZUAK ETA HURBILPEN KOMUNITARIOA



2. GIZARTE-ZERBITZUAK ETA HURBILKETA KOMUNITARIOA

2.1. GIZARTE-LANGINTZA KOMUNITARIOA

Gizarte-langintza komunitarioaren inguruan hitz egingo dugun atal honetan, komunitateko gizarte-langintzaz edo gizarte-langintza komunitarioaz ari garenean, zeri buruz gabiltzan zehaztea gurako genuke. Horretarako, gizarte-langintza komunitarioaren inguruko marko teorikoa sortu dugu, gizarte-langintza baita komunitateko gizarte-langintzaren diziplina erreferentea. Hala ere, honen azterketan diharduten hainbat autore bat datoz berari definitzeko zailtasunetan, eta horren adierazgarri da gizarte-langintzaren bueltako erakunde batek ere definizio adostu edo unibertsala gauzatu ez izana; esaterako gizarte-langintzarekin egin izan den bezala (Twelvetrees, 1988; Escartín, 1998; Lillo eta Roselló, 2004; Hernandez, 2009; Ballester, 2015; Aguilar, 2020).

Honen harira, aipatzekoa da, gizarte-langintza komunitarioaren kasuan eragina duten elementuak asko direla, besteak beste, antolakuntza, lurraldeak, partaidetzak, testuinguru sozial, politiko eta ekonomikoak, tokian tokiko historiak, biztanleriak eta beren ezaugarriak, eta abar luze batekin jarraitu dezakegu. Hauetan arreta jarritz gero, osagai guztiak etengabeko eraldaketan daudela ohartu gaitezke, definizioa osatzea zailduz, finean, teorizazioa erabat zailduz. Gizarte errealitatea aldakorra den heinean, ekiteko forma berriak etengabe agertzen dira, gizartearen momentuko ezaugarrien arabera birsortuz. Halaxe, Hernandezen (2009) aburuz, gizarte-langintza eta ondorioz, baita komunitarioa ere, etengabeko definizioan egon ohi dira, etengabeko aldaketan egoten diren aldagaiekin (gizartea eta bere bilakaera, zein gizarte zibilari estatuak ematen dizkion erantzun tekniko-instituzionalekin) zuzenean erlazionatuta baitaude.

Gizarte-langintza, lehenago esan bezala, diziplina eta profesioa den heinean, alor teorikoan eta praktikoan garatzeko esfortzuak egin izan dira. Hala ere, Gizarte-langintza komunitarioaren kasuan, indibidual eta familiarrekin alderatuz, produkzio zientifikoa urriagoa da, maiz, eman izan diren praktiken sistematizaziorik egin ez delako, besteak beste. Gizarte-langintza komunitarioan, gizarte-langintzan orokorrean gertatu den antzera, jakintza instrumentalei zein metodologikoei kasu egin zaie, eta praktikari zentzua, justifikazioa eta orientazioa ematen dion teoria bigarren plano batean utzi da.

Ondorioz, komunitarioa ezaugarritzen duen beste zerbait gertatzen da, alegia, jardute profesionala edo ekintza komunitarioa ekintzaitetasunarekin lotu izana (Pastor, 2015).

Escartinek (1998) gizarte-langintza komunitarioa diziplina eta ogibidearen erronka nagusietako bat dela nabarmentzen du, izan ere, elkartasuna, parte-hartzea edo elkarbizitza bezalako baloreak nabarmentzen dira, komunitateko baliabide propioak suspertuz. Horrekin bat eginez, gizarte-langintza komunitarioa, ikuspegi sozialetik gizarte-langintza diziplinaren helburua gauzatzeko modu interesgarrienetakoa dela esango genuke, batik bat gizarte eraldaketa daramalako bere baitan, eta ondorioz, gizarte-langintzaren izaera politikoari eustea eskatzen duelako. Baina aldi berean, eta are gehiago, gizarte-langintza distortsionatu bat nagusitzen den garai honetan, dimentsio pobreenetakoa da, bai arlo akademikoan honen inguruan eginiko produkzioa eta lanketei begiraturaz gero, eta baita alor profesional edo praktikokoan ere (Sarasola, Gonzalez eta Rioz, 2019; Hernandez, 2009; Berasaluze eta Berri-Otxoa, 2008). Edonola ere, kapitulu honetan, komunitateko gizarte-langintzaren lan esanguratsuenetan oinarrituz, erabilgarria izango zaigun markoa osatu dugu.

2.1.1. BILAKAERA HISTORIKOA

Ander-Eggek (1982) dioen moduan, aspaldidanik eman izan dira ongizate komun edo kolektiboa bilatzeko saiakerak, halaber, historiaren momentu ezberdinetan horren adibideak ezagutu ditzakegu. Hauek ezagutu eta komunitateko gizarte-langintzaren historia marrazteko, aitzindari historikoak nola aurkitu behar diren zehaztu beharko genuke. Gure kasuan, lehentxeago aipatu dugun bezala, ez dago adostasunik lan komunitarioaren inguruan, ezta komunitateko gizarte-langintzaren inguruan ere. Maiz, modu berdintsuan egiten diogu erreferentzia, lan komunitarioari, komunitateko gizarte-langintzari, komunitateko antolakuntzari, komunitateko garapenari, ekintza komunitarioari edo esku-hartze komunitarioari, ondorioz, ez da erraza hauen aurrekariak jasotzea. Hala ere, Ander-Egg eta Marchioni erreferente nagusiek, aipatu izan duten bezala, komunitateko gizarte-langintzaren inguruan ikerketa lanetan diharduten adituek (Hernandez, 2009; Aguilar, 2010; Ballester, 2015) baieztatzen dute, nahiz eta beste eragin batzuk ere izan badituen, gure ikergai den komunitateko gizarte-langintza antzinako komunitate garapena eta antolakuntzaren arteko emaitza dela. Horrenbestez, hauek zehatz-mehatz ez identifikatzeak zaildu egin dezake garapen historikoaren azterketa.

Edozelan ere, badaude autore ezberdinak bat egiten duten hainbat ekintza eta momentu eta horiek jasoko ditugu hurrengo lerroetan.

Lehen ekintza komunitarioaren arrastoak, kutsu erlijioetsua dutela esan dezakegu, klase baxuenen bizi baldintzak hobetzea helburu, besteak beste, Juan Luis Vivesek² Brujasen egin bezala (Malagon, 1999). Lillo eta Roselloren (2004) ustez, gizarte-arazoak esku-hartze ezberdinen arabera gauzatu arren, lurralde jakin batean ekiteko nahia adierazten dute. Hala ere, autoreek garai berdinean kokatzen dute komunitarioarentzat interesgarri izan den Robert Owenen herri kooperatzaileekin zerikusia duen ideia. Bere azken proiektuek fruiturik eman ez zutela egia bada ere, bere ideia erabilia izan zela esango genuke. Esperientzia horrek komunitarioarentzat ekarri duen ikasgai nagusia testuinguruak norbanakoarengan duen eragin nabarmena azaleratu izana da. Hori horrela, herri kooperatzaileek testuingurua landu eta testuinguruan eragin beharra dagoela irakatsi dute, berau pertsonen zerbitzura jartzeko. Herri kooperatiboen bidez eta hezkuntzan oinarrituz, komunitate sentimendua edo zentzua garatuko litzakeela aipatzen zuen, kapitalismoak ezarritako kompetentziaz haratago, lankidetzeta eta elkar harremanak funtzionatuko lukeelako. Izan ere, kapitalismoa zen bere esanetan komunitateen suntsitzaile.

Nolanahi ere, eta esperientzia konkretuei jarraiki, aurreneko esperientziak COSi, Charity Organization Societyri lotuak daude. XIX. mendeko 60ko hamarkadan, iraultza industrialaren ondorioz eragindako krisiaren garaian, alegia. Asko ziren Ingalaterran pobrezia egoeran aurkitzen ziren langile industrialak, eta 1869an, zehazki, ordura arte aurrera eramaten zen ongintza antolatu, eta modernizatu zein profesionalizatu nahian sortu ziren, Octavia Hill³ bezalako garaiko filantropoen eskutik (Moix, 1991). 1877an, berriz, Londreseko ereduari segituz, New Yorken ere lehengo Charity Organization Societya sortzen da. Ingalaterran gertatu bezala, industrializazioan bultzatutako migrazio fluxu handiek sortutako muturreko pobrezia egoeretan aurkitzen zen jendearen beharrei

² Juan Luis Vives: 1492an jaio zen Valentzian, eta bertan formatu ostean, Parisera joan zen bere formakuntza osatzera. Ondoren Brujasera joan zen da bizitzera, eta bertan, humanismoaren erreferenteekin egin zuen topo. *De Subventionem Pauperum* lanean sozioasistentzialak diren kontuak lantzen ditu, zehazki, pobrezia egoeren aurrean gizarte esku-hartze publiko eta teknikoaren beharriari. Horretaz gain, erakundeen gain jartzeko duen ardura eta esku-hartze asistentzialez haratago, prebentiboez ere mintzo da (Casado eta Guillen, 2001).

³ Octavia Hill gizarte langile britaniarra izan zen, gizarte-langintzaren antzindarietakoa. 1838an jaio zen Cambridgeshiren eta 1912ko abuztuaren hil zen. 23 urte betetzean Londresko auzo batera joan zen bizitzera eta bertan etorri zen bere ekarpen nagusietakoa: Hill etxebizitzak, hau da, Londreseko langileentzako eraldatutako hiriko eraikuntza handiak. Pobrezia handiko auzoetan lan egin zuen eta honekin bukatzeko eta gizarte-langintza modernizatzeke asmoz, 1869an, Gizarte ongintzarako antolakundearen sortzaileetakoa bat izan zen. Esan bezala, bere ekarpen nagusien artean, etxebizitzak hauek daude, eta baita gizarte-langintzaren hain propioak diren etxez etxeko bisitak ere (Bastidas, Holguin eta Obando, 2020).

erantzuteko sortuak izan ziren. Mary Ellen Richmond⁴ izan zen hauetako izen ezagunenetako bat. Beraien lana, burgesiak eskaintzen zuen laguntza koordinatzea zen eta mugimenduetako kideak pobrezia egoeran aurkitzen ziren pertsonen etxetara joaten ziren banakako bisitak egitera, laguntza indibidualizatua eskaini asmoz. Urteak aurrera joan ahala, zientifikotasunari lekua egiten joan ziren, errealitatearen analisiak sistematizatuz, metodologiak sortuz, eta finean, teoria eraikiz. Mary Richmondeneke egindako ekarpen nabarmenena, Caseworken garapena izan zen, kasuko gizarte-langintzaren lehen harria, alegia (Duarte, 2017).

Hori horrela izanik ere, COSen garapena aurrera joan ahala, barnean iritzi kontrajarriak sortzen hasi ziren, teorikoki eta praktikoki eragina zuten kontraesanak. Esanak esan, bi joera identifikatzen hasi ziren. Batetik, indibidualizazioaren edo caseworkarekin lotua zegoena; hots, pobrezia eta gizarte-arazoak norbere arduraz eta norbanakoen ahultasunaren eraginez gertatzen zirela ziotenak. Bestetik, aldiz, sozializazioarekin eta komunitatearekin gehiago lotu zitekeena, hala nola, sufrimendu sozialaren erroa kanpo faktoreetan kokatzen zuena (Lillo eta Roselló, 2004). Lehenengoan, pertsonak aldatzeagatik egiten da, onuradunaren eta bisitak egiten dituen pertsonaren arteko harremanaren bitartez. Bigarreanean, kontrara, aldaketa estrukturalak proposatzen dira, gizartearen antolaketa baita pobrezia egoerak sortzen dituenak (Berasaluze, Mendia eta Aranguren, 2011). Aipaturiko bigarren ildo honen baitan aurkitzen ziren Henrietta Rowland eta Samuel Barnett (Londresko ekialde aldeko parrokia bateko kanonigoa) bikotea. Hauek, esan bezala, zalantzan jarri zuten jendartea aurkitzen zen pobrezia egoera larriaren aurrean eragiteko COSen metodologiak zuen gaitasuna, eta beste jardute modu bat abiarazi zuten, Settlements mugimendua. Senar-emazteak 1883an hasi ziren mugimenduan lanean, eta hauen proposamena, pobrezia egoera larrienak ematen ziren auzoetan auzotarrei hezkuntza eta aisia eskaintzeko guneak eraikitzea izan zen (Ballester, 2015).

Settlements Houses bezala ezagutu zen mugimenduaren lehen harria, Toynbee Hall-ekin jarri zuen bikoteak 1884an, Londres hiriko ekialdean aurkitzen zen parrokia batean, izen ez oso onekoa, gainera (Lillo eta Roselló, 2004, 37. or). Hauek, COSek bezala, zenbait

⁴ Mary Ellen Richmond AEBn jaio zen 1861ean. Mendearen bukaera aldera, Baltoreko COSen hasi zen, lehenengo diruzain bezala, eta ondoren, idazkari nagusi moduan. Bere ardura nagusia COSen lan egiten zuten langileen ezagutza maila haztea zen, eta gizarte-langintzako eskola baten sorrera proposatu zuen. New Yorken sortu zen bera irakasle moduan ariko den eskola, eta urte batzuetan, gizarte-langintzako diziplinarentzat ezinbestekoak diren bi lan argitaratu zituen; batetik, Diagnosi soziala deiturikoa, eta bestetik, "Zer da kasuko gizarte-langintza?" Izena zuen eta kasuko gizarte-langintzaren metodoa jasotzen duen lana (Travi, 2011).

printzipio jarri zizkioten praktika metodologikoari, eta besteak beste, Oxford eta Cambridgeko unibertsitateetako ikasleak, boluntario modura, auzotarrekin elkarbizitzan jarduten zuten. Arreta kolektibo eta zientifikoa bultzatzen zuten eta gazteek komunitate antolakuntza eta sustapen sozialeko ekintzak burutzen zituzten. Kutsu hezitzaileaz gain, gizarte-etxe bezala jarduten zuten guneez, eta zituzten ezaugarriek formazio politikoari eta hiritartasunari lotuak ere egon zitezkeen (Capilla y Villadoniga, 2004). Guneak zituen helburuak hauek ziren Lillo eta Rosellóren arabera:

- Pobrezia egoeran zeuden pertsonen hezkuntza eta garapen kulturala.
- Ikasleei pobrezia egoeran zegoen jendearen inguruko informazioa eta erreforma sozialak burutzeko behar larria helaraztea.
- Garaiko gizarte eta osasun arazoengatik inguruko sentsibilizazio herritarra gauzatzea (2004, 38. or).

Helburuak lortze aldera, ezinbestean zentroko pertsonen parte-hartze aktiboa beharrezkoa zela gaineratzen dute, hauen gaitasun indibidualak ere sustatuz.

Bestalde, Estatu Batuei dagokienean, Janne Addams⁵ estatubatuarra, Londresen egon zen Settlements mugimendua eta Toynbee Hall ezagutzen. Bi urteren buruan, zehazki, 1889ean Chicagoko Hull House inauguratu zuen Ellen Gates-ekin batera, hiriko langile auzo batean. Urte gutxitan, AEBn Settlements etxeak hedatu ziren, eta hauek, auzo langile eta industrialetan eraikitzen ziren, auzotarren beharrianak ezagutu eta horrela, proiektu komunitario ezberdinetan, beraiekin batera, lan egin ahal izateko (Weil eta Gamble, 2005; Miranda, 2003). Lan egiteko modu honek sekulako jakin mina piztu zuen orduko gizarte-langile eta soziologoaren artean, eta hiri ezberdinetan garatu bazen ere, modu esanguratsuagoan gertatu zen Chicagon, hiriaren berezitasunak medio.

Garapen gehientsuena teoriari dagokionez, hurrengo mende hasieratik aurrera eman zen arren, Chicagoko Eskola aipatu beharra dagoela esango genuke, XIX. mende bukaeran kokatuz. AEBn industrializazio garaia ziren, korporazioa handiak bertan kokatzen hasiak ziren eta migrazio fluxu esanguratsuak zeuden, arrazakeria, marjinazioa eta abar. bezalako arazoak nagusituz. Testuinguru horretan, Chicagoko eskolak (The Chicago School Sociology) 1892tik aurrera zeresan handia izan zuen, zehazki, Chicagoko hirian

⁵ Jane Addams 1860an jaso zen Cardavillen, AEBn eta 1935.ean hil zen Chicagon. Azken honetan egin zituen ekarpen nagusiak, AEBn Settlements mugimendua eraman baitzuen, eta Chicagoko Hull Houseko sortzaileetakoa izan zen. Politikan ere aritu zen, eta bere ekarpen nagusien artean, zientifikotasuna eta profesionaltasuna txertatu nahi izatea, gizarte-arazoengatik kolektibo eta estrukturala, eta gizarte-arazoengatik aurrean izan zuen jarrera militantea izan ziren (Zabalo, 2008).

gertatuko fenomeno ezberdinen behaketa metodikoaren bidez ekarpen teorikoa handiak egin zituelako. Interes berezia hartzen du gure aburuz ikerketa honetarako, izan ere, komunitate ikuspegiarekin lan egiten zuten eta norbanako eta gizartearen arteko harreman dialektikoa aztertzen zuten (Duarte, 2017). Ameriketako Soziologia erakundeak, zientzia mundutik emakumeak alboratu bazituen ere, Jane Addamsek kontrako testuinguru horretan zeresana izatea lortu zuen. Eskolan egiten zen soziologia oso maskulinizatua zen, emakumeak praktikotasunera, hau da, feminizatua zegoen gizarte-langintzara bideratzen baitziren. Edonola ere, ezin da ukatu Jane Addamsen pentsamenduak eta bere ekarpenek Chicagoko Eskolan eragina izan zutela, egun arte indarrean diharduten ekarpen teoriko eta metodologikoak medio (Duarte, 2017).

Lehenago aipatu dugun Hull Houseak, pertsonekin gizarte-langintza komunitarioa egiteaz gain, unibertsitateko kideek behatzea eta auzoan ematen ziren fenomenoak ikertzea ahalbidetu zuen. Horretarako, Addamsek (1895) dio gizarte-arazoak eta jendeak bizi zituen egoerak desantolaketa sozialak eragindakoak zirela, langileen isolamendua eta ahultasuna sortuz. Horren aurrean, ongizatea bermatu ahal izateko, komunitateko kideak edo langileak antolatzea nahitaezkoa ikusten zuen, egun sare lana bezala ezagutzen duguna gauzatuz. Honenbestez, ez zuen pertsona jakinekin lan egiten, baizik eta onura kolektiboa lortze aldera burutzen zuen bere jarduna. Kelleyrekin batera, 1895ean Addamsek *Hull House, Maps and Papers* publikatu zuen. Ikerketa ekintza enpirikoa egiteaz gain, Pico eta Serrak (2010) diotenez, lan politikoa ere egin zuen, egoera jakinen aurrean gobernuaren esku-hartzea aldarrikatuz.

Esperientzia hauetatik urte batzuetara, Ingalaterran 1919an National Council of Social Services eta tokiko gizarte-zerbitzuen kontseiluak sortu ziren (Ballester, 2015). Era berean gertatu zen AEBren kasuan ere; lehenik, 1908an Pittsburghen Council of Social Agencies deiturikoa sortu zen, eta hurrengo urteetan (hain zuzen ere 20ko hamarkadatik aurrera), herrialde osotik hedatu ziren komunitateko ongizaterako kontseiluak sortu ziren, 1960an zazpiehunetik gora izatera arte (Ander-Egg, 2003). Hauek ere, beren ekarpena egin zioten komunitateko gizarte-langintzari. Izan ere, komunitatearen ongizatearen eta kooperazioaren inguruan lan egiten zuten entitate publiko zein pribatuen ekintza eta zerbitzuen koordinazioan aritzen ziren, osasunaren, ongizatearen eta gizarte planifikazioaren garapenaren lidergoa hartuz. Horretaz gain, 1913an, “Komunitateko kutxak” sortu ziren, gizarte-langintza finantzatzeko helburuarekin. Zehazki, funtsak bildu nahi izaten zituzten, gero agentziek beren ongizaterako lanak egitean, diru iturriak izan

zitzaten. Horrela, entitate ezberdinekin elkarlanean, auzoen garapena ekarri zuten zenbait ekimen egin ahal izan zituzten (Friedlaner, 1969; Lillo eta Roselló, 2004).

Historian zehar emandako esperientzia jakinei erreparatuz gero, aurreko lerroetan jasotakoak, bai gizarte-langintzaren eta baita komunitateko gizarte-langintzaren lehen pausuak izan zirela esan daiteke. Horrenbestez, gizarte-langintza beraren hastapenak hauek izanik, esan daiteke, garai hauetatik aurrera, gizarte-langintzaren baitan bi ildo nagusitu zirela (batez ere AEBn), gero esku-hartze maila bezala ezagunak izan zirenak (Barbero y Cortés, 2005; Aguilar, 2013) eta gaur egun dimentsio (Pastor, 2015; Ballester, 2015; Blanco, 2019) bezalako terminoekin definitzen direnak. Batetik, banakako edo kasuko gizarte-langintza; bestetik, tartean aurkitzen den taldekoa, eta azkenik, komunitarioa.

Bereziki AEBn izandako ibilbidea aipatu da, lan komunitarioak Ingalaterran eta AEBn oso garapen ezberdina izan baitute. Ingalaterran hasi bazen ere, ez dira komunitateko lan hauek sekula gizarte-langintzarekin lotu nahi izan, bertan Gizarte-langintza banakako lanari oso lotua egon baita (baita orain ere, lan komunitarioa langile komunitarioen esku geldituz) (Ballester, 2015). AEBn berriz, lan komunitarioa gizarte-langintzaren baitan ulertua izan da, komunitate antolaketa metodoaren bitartez. Beraz, AEBn, XX. mendeko 20ko hamarkadan kokatzen da komunitateko gizarte-langintza sorrera (Velasco, 2018).

Horretaz gain, urte horietatik aurrera, XX. mende hasieran esperientziez haratago, bai teorikoki eta baita instituzionalki ere, komunitatearen bueltako garapenak aurrera ekin zuen. Aurrez aipatutakoak, beraz, komunitateko antolaketaren lehen harriak izan baziren ere, terminoa bera Lindermanek erabili zuen, horrela definituz:

“Community Organization is that phase of social organization which constitutes a conscious effort on the part of a community to control its affairs democratically, and to secure the highest services from its specialist, organizations, agencies and institutions by means of organized inter-relations” (1921, 171. or).

Ander-Eggek (2003) aipatzen duenez, 20ko hamarkadatik aurrera, komunitatearen antolaketa taldeen arteko koordinazioa bezala ematen da (lerro batzuk gorago aipatutako kontseiluen bidez), Ipar Ameriketako komunitateetako egoera espezifikoaren aurrean lan egiteko. Hamarkada honetan indartzen joan zen, eta 1925ean, Pettitek Ameriketako Gizarte-langintzako Konferentzia Nazionalean horrela definitu zuen: “Una forma de ayudar a un grupo de personas a reconocer sus necesidades comunes y resolverlas” (Lillo eta Rosellók jasoa, 2004, 26. or). 1934an Gizarte-Langintzako Konferentzia Nazionalaren

txostenean, komunitate antolaketaren helburua gizarte-ongizatearen beharrian eta baliabideen arteko doikuntza progresiboki eraginkorra sustatu eta mantentzea dela jasozen (Ander-Egg, 1982). Horren guztiaren eraginez, urte horietan zehar NASWen (National Association of Social Workers), komunitate antolaketa lantzeko sekzio bat sortuzen. 1939an, Reportek, *The Field of Community Organization* txostena argitaratu zuen, non esperientzia ezberdinen sistematizazioa egin ostean, komunitate antolaketaren ezaugarrietako batzuk jasotzen zituen. Besteak beste, prozesu, zein jardute eremu bati erreferentzia egiten dion kontzeptua dela zioen; prozesua gizarte-langintzaren baitan edo kanpo egin daitekeela, edo maila ezberdinetan eman daitekeen prozesua dela, herri, nazio etab. bezalako ideiak biltzen zituen txostenean (Ander-Eggek jasoa, 1992). Hamarkadan zehar gainera, esperientzia ezberdinak gauzatzen dira AEBn, eta komunitateko antolaketa gizarte-langintzaren metodo bezala jasotzen duen literatura ugari argitaratzen da (Ballester, 2015).

1947an, hain zuzen ere, NASWek berau gizarte-langintzako metodo espezifikotzat jasotzen du (Ander-Egg, 2003). Metodo hau, esan bezala, AEBn hasi eta loratu bazen ere, II. Mundu Gerrako egoerari erantzuna emateko ere izan zen erabilia Europan, nahiz eta metodoa zertxobait eraldatu (Duarte, 2017; Ballester, 2015). 50 eta 60ko hamarkaden artean, hainbat izan ziren lan komunitarioari lotutako esperientziak, eta Popple (1995) bezalako autoreek, komunitarioaren urrezko urteak bezala definitzen dituzte. Azkenik, honen inguruan aipatzekoa da, bi korrante ezberdin eman zirela, batetik, kontsentsuzko korrantea, eta bestetik, gatazkarena. Lehenengoa, Ipar Ameriketara erabilienera izan zen eta Rossek defendatzen zuen. 1955ean Murray G. Rossek *Community Organization. Theory, Principle and Practice* liburua publikatu zuen, eta ordura arte eginiko kontzeptualizazio zabalena eman zen (Fisher, 2005). Bigarrena, aldiz, Alinskyk bultzatu zuen, besteak beste 1960an *Rules for Radicals* publikazioaren eta beste korranteak pertsonaren adaptazioa bilatzen duela kritikatzeko. Hori horrela, gatazkan oinarritutako estrategia garatu zuen (Ballester, 2015).

Komunitate antolaketari dagokionean, 1962an NASWek gizarte-langintzako jardute eremu bezala izendatu eta definizioa eraiki zuen, metodoaren zehaztasunak adieraziz:

“Proceso de tratar con individuos o grupos que están interesados o pueden interesarse en los servicios u objetivos del bienestar social con el propósito de aumentar el volumen de tales servicios, mejorar su calidad y distribución, y participar en las gestiones para alcanzar tales objetivos” (Ander-Eggen jasoa, 2003, 53. or.).

Horrela, Lillo eta Rosellók (2004) metodoaren helburu espezifikoak hauek direla adierazten dute:

- “Proporcionar a la comunidad o a sectores de la misma, la oportunidad de movilizar sus recursos para resolver o prevenir problemas sociales:
 - ofreciendo a los ciudadanos medios para movilizarse, expresarse y para hacer frente a sus responsabilidades por el bienestar social;
 - proporcionando medios a las agencias sociales para cumplir eficazmente con sus responsabilidades respecto de la comunidad;
 - brindando medios a la profesión del trabajo social para cumplir con sus responsabilidades comunitarias.

- Proporcionar medios de interacción entre diferentes sectores de la comunidad entre:
 - diversos ciudadanos y grupos a quienes les concierne el bienestar de la comunidad;
 - especialistas dentro de la profesión y entre profesionales y el liderazgo de la comunidad;
 - especialistas e instituciones (sistema escolar, cuerpo médico, abogados, etc.);
 - la comunidad política y la comunidad del bienestar social.

- Proporcionar a la comunidad un servicio de planificación del bienestar mediante:
 - el desarrollo de planes de bienestar social
 - la realización de dichos planes
 - influjo en las políticas de bienestar social y otras políticas públicas relacionadas directa o indirectamente con el bienestar de la gente;
 - ayudar a la movilización de una financiación adecuada, gubernamental u voluntaria” (Lillo y Roselló, 2004, 27-28. or).

40ko hamarkadaren bukaera aldera ordea, beste korrante metodologiko-kontzeptual bat garatzen hasten da, komunitate garapena, alegia. AEBn erabiltzen hasi ziren, nahiz eta 1948an Kolonien Bulego Britaniarrak bere kolonietan egiten zuen gobernuaren jardun sozialerako martxan jarri zuen (Lilló eta Roselló, 2004). Ander-Eggek (1992) aipatzen duenez, lehengo Asia eta Afrikan erabiltzen hasi zen, ondoren Hego Ameriketara hedatuz, baita zenbait kasutan, Europara ere. 50eko. hamarkadan, zehazki 1955ean, komunitate garapena instituzionalizatzen da. Mundu mailan emandako gerrate ezberdinen ondorioz, garapena lortzeko estrategiak beharrezkotzat ikusten dituzte, eta hortaz, deskolonizazio prozesuak ere badute bere pisua estrategia honen baitan. Nazio Batuen Erakundeak (NBE) lidergoa eramanik, ECOSOC Gizarte eta ekonomia Kontseiluak definizio bat luzatzen du, teknika hau gizarte-langileek aurrera eraman behar dutela esanez (Duarte, 2017). “Komunitate garapena komunitate osorako aurrerapen ekonomiko eta sozialerako baldintzak sortzeko prozesua bezala definitzen dute, parte-hartze aktiboarekin, bere ekimenari ahalik eta tarte handiena utzi behar zaiola gaineratuz” (ECOSOC, 1955, 11. or). Ander-Eggek (1987) adierazten duenez, hauek dira lan komunitarioaren modu honen

ezaugarrietako batzuk: beharrianak eta nahiak komunitateak berak adierazten dituenak dira; jarrera aldatzeko lehenesten dira; parte-hartzerako formazioa eman behar zaie komunitateko kide guztiei; tokiko erakundeak beharrezkoak dira eta hauen parte-hartzea beharrezkoa da.

1956an ordea, aditu talde batek egindako “Desarrollo de la Comunidad y Servicios Conexos” izena zuen txostena argitaratu zuen NBEak eta horrela definitzen zuen:

“Aquellos procesos en cuya virtud los esfuerzos de una población se suman a los de su gobierno para mejorar las condiciones económicas, sociales y culturales de las comunidades, integrar estas a la vida del país y permitirle es contribuir plenamente al progreso nacional” (Ander-Eggen jaso, 1992, 150. or).

Hamarkada honetan zehar, mundu mailako erakunde ezberdinek, UNESCOk edo OMEk esaterako, jardura ezberdinak egin zituzten lan komunitarioaren eredu honekin, herrialdeetako beharrian sozial eta ekonomikoak ase, eta herrialdeak garapen bidean murgiltzeko (Lolli eta Roselló, 2004). Hala ere, bide instituzional edo ofiziala baino lehenago, Hego Ameriketako komunitate garapenaren lehengo definizioa aurkitu dezakegu, gizarte-zerbitzuen baitan kokatuz:

“La técnica o proceso que emplea el Servicio Social para suscitar la racional participación de los integrantes de una determinada zona o población, en una empresa de mejoramiento individual y de progreso colectivo, sobre la base de los propios recursos” (Lillo eta Rosellón jaso, 2004, 31. or).

Komunitate garapena eta antolaketaren artean, ezberdintasunak egon badirela ondoriozta dezakegu. Komunitate antolaketaren nondik norakoetan arakatuz, esan dezakegu, lurralde jakin batean dauden baliabide eta beharrianen arteko doiketan oinarritzen dela, ongizatea bermatzen duten zerbitzu eta baliabideak sortu, mantendu, sustatu edo eta antolatuz. Nahiz eta teorikoki parte-hartzea kontuan hartu, autore erreferenteen ekarpenekin ikusi ahal izan dugun bezala, betiere, pertsona bere ingurunera egokitzeko kutsu nabarmenarekin egiten da. Aldiz, komunitate garapena zerbait ezberdina dela esan dezakegu, gizarte antolakuntzarekin zerikusia badu ere, ekintza kolektiboa bultzatzen duen erakundeak berrorientatuz. Hezkuntzarekin lotuagoa ere badago, proiektuak bultzatzea baino garrantzitsuago baitira jarrera eta harremanetan ematen diren aldaketa kualitatiboak (Escartin, 1998). Hori dela eta, maiz, hezkuntzaren inguruko adituek ekarpenak egin izan dituzte azken metodologia honen baitan (Ballester, 2015).

Garapenarekin jarraituz, esan bezala, komunitateko garapena, deskolonizazio eta askapen nazionalen momentuetan hasten da ezagutarazten, baita modu garrantzitsuagoan

gauzatzen ere, bai Ingalaterran eta baita Hego Ameriketara, NBEak gomendatzen duen metodologia eta estrategia baita. Antolaketarekin duen aldaketa kualitatiboa, hezkuntzaren pisuarekin lotu dugun arren, ahots kritikoenek komunitate garapeneko prozesuak garapen ekonomikoarekin oso lotuta zeudela aipatzen zuten. Bultzatzen ziren prozesu ezberdinen helburua, herrialde horiek deskolonizazio momentuetan, garapen ekonomikoa bermatua zutela ziurtatzea zen, nahiz eta hau modu inplizituan egin (Duarte, 2017). Hain izan zen horrela, non proposamenak gizarte-langileen eskuetatik baino, ekonomista eta pedagogoen eskutik etortzen zirela, eta ondorioz, estrategia politiko globalak gizarte estrategiak izan gabe osatzen ziren. Hori dela eta, oso kritikatu izan zen (Aguilar, 2013). Esan dezakegu beraz, ahalduntzea baino gehiago, aldaketa planifikatu bat eman nahi zela. Kolonizatutako herrialdeetako askapen mugimenduek herrialde kolonialistentzat suposatzen zuten mehatxuaren aurrean, beren baloreen edo mugen barnean sartzen zen aldaketa planifikatu edo kontrolatutako estrategia bat gauzatzeko. Zentzu honetan, Pastorrek aldaketa planifikatu hau kontrolatua eta asistentzialismoan oinarritutakoa izan zela dio: “para de esta forma, no permitir transformaciones en características estructurales de un sistema que se desea mantener” (2004, 157. or). Kisnermannek ere, ildo beretik, zera dio:

“Una estrategia política, una respuesta paliativa al subdesarrollo y un freno a los movimientos de liberación nacional, desarrollada primero por los ingizarte-langintzaes hacia sus colonias y luego adoptada y más elaborada por los norteamericanos para afirmar su dominio económico en el mundo” (1998, 41. or).


Egoera honen aurrean altxatzen diren kritikoen ondorioz, gizarte-langintzaren historian, mugarrria izan den birkontzeptualizazio mugimenduaren hastapenak ematen dira. Nahiz eta gizarte-zientzien eremu osoan eragina izan, bereziki gizarte-langintzan izan zuen eragina, eta ordura arte sortu eta gauzatutako teoria, metodologia eta kontzeptualizazioa ezbaian jarriak izan ziren. Hego Ameriketara gertatzen da, batik bat, 60 eta 70eko hamarkadetan. Birkontzeptualizazioaren mugimenduak, ordura arte emandako komunitate garapena kritikatzeko, eta beren balioak eraldatzen ditu (Royo, 1997). Komunitateekin lan egitea izan zen apustua, banakako lanean jarri ordez, ekintza kolektiboetan indarra jarritz. Modu honetara, komunitatearen antolaketak zein garapenak zuten kutsu paternalistarekin amaitu gura izan zen, komunitatea bera subjektu aktibo bezala ulertzen hasteko. Horrela, komunitatea ekintza subjektu izatera pasatzen da, profesionalarekin batera beraien helburu propioak lortze aldera, kontzientziazioa, antolakuntza, eta aldaketa estrukturalen bitartez. Preseski, banakako gizarte-

langintzarekin apurtu gura zen, ulertzen baitzen gizarte-arazoak ezin direla modu indibidualean, hots, norbanakoa bere familia, talde edo komunitatetik baztertuta irauli. Honen inguruan Kisnermanek dio:

“si bien la probalema individual surge de un todo mayor al que también afecta, no puede descartarse que algunas situaciones demandan ese trabajo individual, sin perjuicios de que luego se encare en grupo y a través de la comunidad” (1998, 44. or).

Honen harira, birkontzeptualizazioak komunitateekin lan egiteko planteatzen zuen metodoak, metodo guztiak barne hartzen zituen oinarrizko metodoa (Barreix y Castillejos, 1997) deiturikoagatik egin zuen apustu. Hauen aburuz, gizarte-langintzako esku-hartze maila edo dimentsioetako bakoitzak pausu berak jarraitzen zituen, hots, beheko irudian ikus daitekeen gizarte-langintzaren metodoa: ezagutza fasea, diagnostikoarena, ekintza fasea, gauzatzea eta ebaluazioa. Hirurek metodo berdina partekatzen zutenez, hirurekin bakarra eta integratua gauzatzea proposatu zuten.

1. Irudia: Gizarte-langintzaren metodoa



Iturria: Ovejas eta Berasaluze, 2019, 116.o

Mugimenduaren apustua, beraz, metodologia integratuarena izan zen, errealitate konplexuarekin lan egiteko ikuspuntu klasikoa ikuspuntu fragmentatutzat ikusten baitzuten. Ikus daitekeenez, Parrak (2004) dioen bezala, etiko-politikoaren garrantzia azpimarratzen dute proposamen profesionalak eraikitzerako orduan.

Mundu mailan komunitateko gizarte-langintzaren aurrekariak edo mugarriak izan diren adierak eta mugimenduak ezagututa, Royok (1997) dionaren ildotik, komunitate garapena birkontzeptualizaziorari esker, komunitate antolaketa baino kontzeptu berritzaileagoa eta zabalagoa izan daitekeela esan dezakegu, nahiz eta azken hau ere, sorrerako adieran, mugatu izan.

Espainiar estatuari dagokionez, 1960ra arte apenas eman zen komunitateko gizarte-langintza, eta ordura arte egindakoa teorikoa izan zen, gehienbat. Horrela ba, birkontzeptualizazio mugimenduaren hasierarekin, NASWek komunitate lan komunitarioa gizarte-langintzaren metodo bezala jasotzearekin, edo nazioarteko erakunde ezberdinen baitan instituzionalizatutako komunitate garapenaren hazkundearen urteekin bat datorrela esan dezakegu. Hala ere, Espainiako egoera, egoera guztiak bezalaxe, bere testuinguruan ulertu beharra dago. Hori dela medio, mundu mailako potentzia ezberdinak gerra osteko garapenak gauzatzen ari ziren bitartean, Espainian frankismo garaia zen, horrek dakarren guztiarekin, noski.

Espainiar testuingurua jakinda beraz, 60ko hamarkadan komunitate gizarte-langintzaren hastapenak kokatzen dira. Marko horretan, komunitate garapena eta antolaketaren arteko nahasketa ematen da, eta maiz, animazio komunitarioaren adiera ere horrela kontuan hartua izan da (Cuenca, 2021). Autore ezberdinek adierazten dutenez (Ballester, 2015; Lillo eta Roselló, Heranadez 2009), hainbat izan ziren horretarako faktoreak. Batetik, lehen aipatu bezala, NBEa bezalako nazioarteko erakundeek egindako txosten ezberdinen bidezko ekarpen eta iradokizunetan, komunitate garapeneko esperientziak eta prozesuak gauzatzeko bultzada ematen da. Bestetik, nazioarte mailako hainbat adituk egiten dute Espainiarako bidea, tartean ezagunena den Marco Marchionik ere. Bere jarduna ezinbestekoa izan zen komunitateko gizarte-langintzaren hasera zein garapenean, batez ere, demokratizazioa edo gizarte zibilaren aktibazio zein parte-hartzearen alorrean. Azkenik, orduko gizarte-langileek lan egiteko molde berriak beharrezkoak ikusten hasi ziren, gizarteak egiten zituen eskari soziopolitikoei erantzuna eman nahirik. Funtsean, komunitate garapenetik eratorritako komunitateko gizarte-langintzaren ikuspegia txertatzen hasi ziren beren egunerokotasunean (Marchioni, 1983). Barberok (2009) gizarte-langileek beren jardutea profesionalizatzeko aukera bezala hartu zutela gaineratzen du, finean, gizarte-laguntzari zientifikotasuna emateko. Horren kausaz, beharrian nabarienak zituzten auzoetan gauzatzen zuten beraien praktika profesionala.

Hainbat autore eta lanetan oinarrituz (Manovel, 1972; Ander-Egg, 1992; del Pino, 1996), Lillo eta Rosellók (2004) hiru momentu nagusi bereizten dituzte: 1965era artekoa, 1965etik 1970era bitartekoa, eta azkenik, 1970etik aurrerakoa. Lehenengo denbora tartearen ezaugarri nagusia, estatuaren eta elizaren arteko harreman estua da. Hauek ziren baliabide ekonomiko eta teknikoak zituzten bakarrak, baina, autoreek beren indarrak ongintzara bideratzen zituztela diote, formaziorik ezta planifikaziorik gabe.

Gehientsuenetan, kausa sozialak kontuan izan bariko banakako gizarte-langintza gailentzen bazen ere, lehen esandako NBERen esperientziak gizarte-langileen parte-hartze profesionala komunitateko garapenerako proiektuetan, eta Marchioni bezalako teknikarien etorrerarekin batera, lehenengo iniziatiba jarri zen martxan; hain zuzen ere, Cáritasek sustatutako Plan Social Baza izenekoa. Plana bera jatorrian asistentziala zen, aldiz, promozio sozialerako bira eman zuela esan daiteke, eraiki ziren lantegi, hezkuntza zentro, etxebizitza, eta abarregatik. Ondorioz, helburuak behar gehien zegoen auzoetako garapen ekonomiko zein soziala izan ziren. Laburki, lehen denbora tarte honetan beraz, komunitate garapeneraren kontzeptuarekin lan egiten hasi zen Espainian, baina batik bat, maila teorikoan aurreratu zela esan daiteke.


Bigarren etapan, maila teorikotik praktikora ere salto egiten da, bi eremuetan aurrerapauso garrantzitsuak ematen direlako. Batetik, gizarteko errealitateen inguruko lehen ikerketak gauzatu ziren, esaterako, pobreziaren inguruko D. Casadoren txostenak edo Foessako ikerketak; eta bestetik, Caritasen esperientzien sistematizazioa ere eman zen. Komunitatearen inguruan denbora tarte honetan bi ulerkera eman ziren; bata erreformista, ezarritako sistema sozialaren gainean lan egitearen aldekoa, eta bestea, erradikala, ezarritako sistema soziala bera zalantzan jarri eta estrukturalak diren aldaketak egitearen aldekoa. Honen harira, komunitateko gizarte-langintzaren eskutik, norbanakoetan zentratutako gizarte sustapenerako estrategiatik, ekintza gizarte-langintza globalaren alde egin zen, arazoen sustraietara joz soluzio erradikala bilatzeko. Honenbestez, garai hau gizarte-langintza komunitarioaren zientifikotasuna haziz doan garaia bezala izendatzen dute autoreek. Komunitateko gizarte-langintza sutatzeko asmotan, nazioarteko adituek zuzendutako hainbat mintegi egin ziren garai honetan, eta hauen artean, mugarri izan zen *Desarrollo comunitario e investigación social*, NBEak bultzatuta. Hytten eta Marchionik eskaini zuten, gizarte-langileekin esperientzia praktikoak gauzatu zituzten, eta ordura arteko gizarte-langintzan aldaketa suposatu zuen, hiri industrializatuetako auzoetan arreta komunitariora bideratuta lanari hasiera eman zitzaielako. Azkenik, Marchionik Malagan abiatutako ikuspuntu erradikaleko proiektu batek ikusmira handia sortu zuen momentuko profesional zein boluntarioetan artean, une horretan eskatzen zen gizarte-ekintza politikoa baitzen. Hala egin zuen Marchionik, eta gizarte-beharrizan eta arazoei dimentsio politikoarekin aurre egitea planteatu zuen, nahiz eta testuinguru sozioekonomiko eta politikoagatik, bere horretan, ez zen aurrera eramaterik izan.

Autoreek izendatzen duten azken denbora tartean, hau da, 1970etik aurrerako tartean, hainbat ziren estatuan martxan zeuden esperientzia komunitarioak. Aldaketa garaia zen eta ilusioa nabarmena zen gizartean. Komunitate garapeneko esperientzia konkretuekin burututako sistematizazioa dela medio, metodoa eratorri zela esaten dute Manovel (1972) bezalako autoreek. Metodoak kontzientzia kritikoa garatzea, aukera askatzailea, eta aukera horri lotutako ekintzen berrikuspen eta ebaluazioa deituriko urratsak jasotzen zituen (Lillo eta Roselló, 2004, 56. or). Manovelek (1972) horretaz gain, metodologikoki ere proposamen konkretuak egin zirela gaineratzen du, egun ere indarrean daudenak; besteak beste, ikuspegi globaletatik arazoak lantzea, aldaketa erradikaletara bideratutako ekintzak burutzea edo konpromisoan oinarritutako errealitatearen eraldaketak bultzatzea. Ikus daitekeenez, urte horietan mundu mailako gizarte-langintzarentzat influentzia izan zen, birkontzeptualizazio mugimenduaren kutsua nabaria baita estatuko proposamenetan ere. Metodologia honetan oinarritutako hainbat ekintza eraman ziren aurrera, auzoetan, kultura munduan, esperientzia kooperatiboen bidez, eta abar (Manovel, 1972; Lillo eta Roselló, 2004). Tarte honetan eta metodologiaren harira, kongresu garrantzitsuak egon ziren eta Franco diktadorearen heriotzarekin zein 1978ko Espainiar konstituzioarekin batera, gizarte-zerbitzuen sistema publiko baterako oinarriak eraikitzen hasi ziren (guztiz baldintzatuz ordura arte egiten zen gizarte-langintza komunitarioa, bigarren kapituluan zehaztuko dugun bezala).

Hego Euskal Herriaren kasuan, ez da ezberdintasun nabarmenik ematen, komunitateko gizarte-langintzaren garapena testuinguru soziopolitikoak markatutakoa baita. Bigarren kapituluan sakonago ikusiko dugun bezala, gizarte-zerbitzuen baitan kokatzen dira komunitateko gizarte-langintzako esperientzia nabarmenenak, nahiz eta modu puntualean zenbait kasutan, hainbat esperientzia komunitario eman izan diren. Hasiera batean, industrializazioak sustatutako hirien hazkundeak ekarritako ondorioekin lan egiteko hainbat esperientzia garatu izan ziren, betiere, gizarte zibilarekin elkarlanean. Ondoren, esaterako, 80. hamarkadako koiunturak hala eskatzen zuelako, ikuspegi prebentiboarekin egindako hainbat ekintza egon ziren, eta ordutik, krisi garaietan batik bat, esperientzia komunitarioak ematen jarraitu dira. Horretaz gain, komunitateko gizarte-langintzaz propio hitz eginez gero, hots, herri ekimenez sortutako esperientzia komunitarioak alde batera utziz gero, egia da ez direla asko izan propio horretara bideratutako gizarte-zerbitzuen ahaleginak, ondorengo kapituluetan ikusi ahal izango dugun bezala. Hala ere, Hego Euskal Herriari erreparatuz, suertatu dira hainbat esperientzia, udal gizarte-

zerbitzuekin elkarlanean zuzenean gertatu direnak edo hauetatik aldenduago kokatu daitezkeenak (aholkularitza profesionalarekin betiere). Esaterako, horren adibide ditugu Donostian, Altzan burututako plan komunitarioa; Iruñerrian, Alde Zaharrean zehazki burututako Plana; Bilbao La Vieja eta Sanfrantziskon burututako lanketa komunitarioa edo Gasteizko Alde Zaharreko esperientzia (Donostiako Udala, 2002; Arrieta, 2005; Iruñeko Alde Zaharreko diagnostiko komunitarioaren talde motorra, 2006; Telleria, 2008; Bilboko Udala, 2013, Egin Ayllu, 2015).

2.Irudia: komunitateko gizarte-langintzaren bilakaera historikoa



Iturria: Norberak egina.

2.1.2. KONTZCEPTUALIZAZIOA

Hasieran aipatu ditugu komunitateko gizarte-langintza definitzeko dauden zailtasunak. Berau ulertzeko ikuspegi adina definizio daude. Horrenbestez, ez da kontzeptualizazio bakarra ematen, eta ez dago definizio unibertsal bat sortzeko behar adinako adostasunik (Sarasola, Gonzalez eta Rioz, 2019). Hori gertatzearen arrazoi nagusienetako bat, jada, honen erroan dagoen kontzeptu nagusia definitzeko dagoen zailtasuna izan daiteke.

Komunitatearen kontzeptua askotarikoa da, gainera, erabilera ugari dituen kontzeptua da, eta ondorioz, paradoxikoa bada ere, autore ezberdinen artean (Nogueiras, 1996; Hernandez, 2009; Llena, Parcerisa eta Úcar, 2009; Pastor, 2015; ...) adostasuna dago

honen inguruko desadostasunaren inguruan. Sanchoren (2009) ildoko autoreek definizio hertsia ez egitearen aldeko hautua defendatzen dute, komunitatea dinamikoa eta irekia den heinean, bere definizioa edo kontzeptualizazioak ere hala izan behar duelako. Esan daiteke, alor oso ezberdinetan erabiltzen dela, eta horietako bakoitzak, bere ikuskera propioarekin egiten duela. Gainera, historian zehar aldatzen eta birsortzen joan den kontzeptua dela aipatzen da, eta diziplina ezberdinetatik definitua izan dela. Pentsamendu sozial klasikoan jada, baditugu Tönnies, Marx, Weber, Durkheim... bezalako autoreek egindako definizioak, baina lan honetan, azken hamarkadetan eta gizarte-langintzaren eremutik eman zaion adieran jarriko dugu arreta.

Gizarte-langintza diziplinaren barnean, gehientsuenetan lurralde jakin bati erreferentzia egiteko erabili bada ere (Duharte, 2017), beste batzuetan, eta batez ere azken urteetan, harreman interpersonalei, afektibitateari, identitate edo pertenezia sentimenduari buruz hitz egiteko ere erabilia izan da. Zuñigak (2020) elementu ezberdinak barne hartzen dituen kontzeptua dela dio: lurraldea, elkarrekintza komunitarioa, osagai psikologikoa, parte-hartzea, taldea. Llena, Parcerisa eta Úcarek diotena konpartituz, komunitateak: “Denota y connota sentimientos y significados diferentes en función de las características concretas de la persona que lo utiliza” (2009, 20. or). Horrela, hurrengo lerroetan, komunitate kontzeptuaren inguruan autore ezberdinetan jasotzen dituztenak bilduko ditugu, honen bueltan dauden eztabaidak planteatu eta kontzeptua bera nolabait argitu eta ezaugarritzeko asmoz.

Historikoki, asko gertatu izan da komunitatea antzinako gizartearekin edo landa eremu idealizatuarekin lotzea. Badirudi, kontzeptuak lotura naturaletara, familiarrera, tradizioetara, emozionalera, zerbait elkarrekin eraikitze nahiera, esentzialismora, baita maiz, sakratura ere eramaten gaituela; eta hori ez denari, hots, industrialari, urbanoari, harremanak utilitaristei etab. gizartea kontzeptua egokitzen zaiola. Horri jarraiki, Barbero eta Cortesek (2005) diote, komunitate kontzeptuak sarri, egungo gizarteei orduko landa “komunitate” idealizatuetakoa ezaugarriak gainjartzeko arriskura eramán gaitzakeela, eta komunitateak kontzeptu bezala behar duen konplexutasuna sinplifikatzeko arriskua daukagula erantzen dute (41. or). Navarrok (2004) ikuskera idealizatu eta erromantiko horrek ere komunitatearen kontzeptualizazioa asko mugatzen duela dio. Baumanek (2003) ere, lehenengoaren ildotik, komunitatea babes lekuaren tankeran irudikatu daitekeela aipatzen du, ona den zerbait moduan, kanpoaldean dagoen arriskuaren aurrean gotorlekua balitz bezala, baina, askatasuna ken diezagukeela ere aitortzen du, askotariko

komunitate ezberdinak aztertu eta definitzen ditu bere lanean. Navarrok (2004) idealizatutako irudi hori gainditzeko beharra azpimarratzen du, eta komunitatea sinpletasunetik eta mugagarria diren kontzeptualizazioetatik haratago eraiki behar dela, gure praktika bide onetik joan dadin.

Beraz, egun ordea, ez da idealizatutako komunitate hori agertzen, honen inguruan geneukan irudi hori desitxuratu da (Ballester, 2015), eta Pastor bezalako autoreek horren harira gertatzen dena komunitatearen gainbehera bezala ere izendatu dute. Berak dionez, orain artean, espazio geografiko jakin baten bizi eta berau partekatzea izan da identifikazio kolektiboaren, kohesioa sortzearen, elkartasunaren edo gatazken sorreren eragile nagusia; hau da, gu komunitarioaren eragile nagusia. Pertinentzia sentimendua eta bizipen kolektiboaren “gu” hori, bizi garen lurraldean sortzen diren gizarte estruktura eta harremanengatik sortzen dira, eta egun aldatu den arren, azpimarratzen du ez duela esan nahi egingarria ez denik.

Egun, “gu”aren sorrera gatazkatsuagoa, dinamikoagoa eta konplexuagoa da, hala ere, norbanakoa bere testuinguruarekin identifikatzen da, garatzen diren eta berresten diren errealitateak eraikitzen dituzte eta hauek dira komunitateko gizarte-langintzaren abiapuntu. Hori gertatzeko hainbat dira ematen dituen arrazoiak. Barnekoen artean, lehenik, komunitateen izaera trantsitorioa, bizilekuen etengabeko aldaketak lurraldearekin identifikatzeko, antolatze edo beharrezane aurre egiteko zailtasunak baitakartza. Bigarrenik, beldurra jasotzen ditugun etengabeko mezuak direla eta, ezezaguna denaren aurrean zehurtiaz jokatzeko joera baitugu, eta azkenik, muturreko individualismoa komunitatearen etsaia dela dio, bere desintegrazioa areagotzen du (Godàs, 2021). Kanpo faktoreen artean berriz, batetik, lehen komunitatearen irautea bermatzen zuten erakunde jakin batzuen (sozialek, osasunekoak eta abar.) gaitasuna ematen da (Zuñiga eta Arrieta, 2021). Bestetik, ordea, norbanakoaren boterearen galera eman da, besteak beste, norbere eta familiaren oinarrizko beharrezan asek ez dituen pertsona batek ez baitauka lehentasuntzat komunitatea (Godàs, 2021). Gainera, honek ez du sinesgarritasun ez influentziarik, beraz, polarizazio sozialak deslotura sozial eta komunitarioa areagotzen dituela dio. Azkenik, gizarte-langintza indar global eta teknologiek ere, orain artean komunitatearekin identifikatzen genuen irudi idealizatu horren haustura ekartzen dutela aipatzen du (Pastor, 2015, 41. or).

Hori horrela, komunitatea gauza ezberdin bat da orain, konplexua eta askotarikoa, eta hori lantzen da egungo lanetan. Hala ere, erreferenteak diren bi autorek duela urte batzuk

egindako definizioak jaso izan nahi ditugu lehenengo, egungoen aldean, lurraldean eta espazioan gehiago zentratzen direnak. Batetik, Andel-Eggek halaxe definitzen du komunitatea:

“Agrupación organizada de personas que se perciben como una unidad social, cuyos miembros participan de algún rasgo, interés, elemento, objetivo o función común, con conciencia de pertenencia, situados en una determinada área geográfica en la cual la pluralidad de personas interacciona más íntegramente entre sí que en otro contexto” (1987, 45. or).

Marchionik (1987) urte gutxi beranduago, lau elementuz (lurraldea, biztanleria, eskaera eta baliabidea) osatuta dagoen lurralde berean bizi diren, eta lotura eta interes komun batzuk partekatzen dituzten pertsona taldea dela dio. Aurreko autoreen antzera, Jaraízek (2011) ere, bere ikuskera propioa du komunitatearen inguruan eta bizi kalitatea bermatzeko giza eta gizarte-beharrizanen asebetetzea gobernatzeko aukera ematen duen espazio bezala definitzen du. Izan ere, pertenezia sentimendua, interdependentziako harreman kooperatiboak, eta honetaz gain, bizi kalitatea bermatzeko beharrezko ekipamendu eta baliabide kolektiboak bermatzeko gunea bezala adierazten du.

Komunitatea definitze aldera jaso ditugun egungo definizio gehienetan, espazio fisiko edo lurralde jakin batean bizi diren pertsona multzoaren ezaguera sinplizatzen jotzen da, eta hori baino askoz gehiago dela azpimarratzen da (Navarro 2004). Esaterako, antolakuntzaren dimentsioak eta dimentsio kulturalak, sozialak, ekonomikoak eta psikoafektiboak ere beraien artean elkarreaginean baitaude, eta hauek ere komunitatea osatzen dute. Esan bezala, autore gehientsuenak komunitatearen “komun” erroaren oinarrian dagoen kolektibotasunean, konpartitzean edo zerbait elkarrekintzan izatean jartzen dute arreta (Llena, Parcerisa, Úcar, 2009). Baina, ez da adostasun bera ematen nortzuk, noiz, nola eta zergatik konpartitzen duten azaltzerakoan. Polemika kontzeptuak dituen bi dimentsioen artean eman daitekeen tentsioagatik gerta daitekeela gaineratzen dute, bata arrazionala baita (mugak, kokapenak, zenbakiak...), eta bestea, emozionala (sentimenduak, konexioak, afektuak...), maiz, uztarketa zailduz.

Sanchok (2009) ere, bere definizio propioa sortzen du, kasu honetan, mugetan azpimarra berezia eginez: “Lo que define la comunidad es la construcción mental (y por tanto no subjetiva) de los individuos, que hace que, al compartir un repertorio de símbolos, se definan unas fronteras que los separan de otros individuos. (...) fronteras construidas a partir de vínculos relacionales fuertes y también débiles” (72. or). Ildo berean, Aguilarrek (2020) ekosistema soziala bezala ulertzen du:

“Un contexto de vida cotidiana donde cada persona interanctúa con su entorno vital, de formas muy diversas, a través de redes de comunicación. Ya sean redes densas que cuidan y protegen la vida buena, o redes frágiles que fragmentan y deshumanizan. La comunidad es el ecosistema social donde desplegamos la vida cotidiana, integrado por subsistemas y relaciones ambientales. Un ecosistema que a su vez, forma parte de otros ecosistema más amplios, que, esos sí, exceden el marco convivencial y la vida cotidiana. (...) Es un campo interaccional generador de apoyos, recursos y oportunidades vitales. Un campo convivencial que puede construirse como espacio relacional de cuidado y hospitalidad, o de aislamiento y hostilidad” (234. or).

Pastorrek jasotzen duenez, gaur egun hainbat dira komunitateen ezaugarriak. Batetik, gizarte ereduetan eta esperientzia sozialetan emandako aldaketak direla medio, harreman sozialen intentsifikazioa aipatzen du komunitate eredu berrien sorreraren muinean. Izan ere, egun, posible da munduko hamaika punta ezberdinetan dauden pertsonekin batera komunitatea sortzea: “Una amalgama de transacciones en red, en la que todos los acontecimientos se relacionan y cruzan entre si, sin existir espacio ni tiempo que amortigüen estas complejas interdependencias” (2015, 17. or). Bestetik, eta aurrekoaren ondorio bezala har daitekeen beste ezaugarrietako bat, desterritorializazioa da, errealitate lokalek errealitate gizarte-langintza globalen aurrean galdu duten garrantzia, alegia. Ondorioz, gero eta lotuago gaude ezezagunera, urrunekora, eta gertukotik urruntzen ari garen bitartean, ukiezinak direnen (elkartasun antolakundeak, baloreak, kultura lokalak..) indartzea ezinbestekotzat jotzen du gizarte-langintzak globalizazioaren eragin negatiboak amortiguatu eta kapital sozial hazi zein komunitateen gainbeheraren aurka egin ahal izateko. Badirudi lokala eta gizarte-langintza globala bi errealitate kontrajarri direla, baina errealitate beraren bi dimentsio besterik ez dira. Autorearen aburuz, errealitate begiratzeko ikuspuntu berria beharrezkoa da, konkretuago enfokatzen lagundu eta pentsamendu gizarte-langintza globaletik, ekintza lokaletara doazenak, hau da: “una lógica “gizarte-langintza local” que integra lo global y lo local, lo individual y lo colectivo y donde se funden el espacio y el tiempo” (2015, 18. or).

Navarrentzat zera da komunitatea: “Un sujeto colectivo con vida propia y que interrelaciona actores sociales diversos, integrándolos en sus propios contextos de vida, generando intercambio, energía, capacidad y potencia en un sistema creador de nuevas realidades” (2004, 316. or).

Beste definizio batzuetan ere egiten da pertsonen arteko loturan azpimarra: “Se trata de una forma básica de estructuración social donde prevalecen los lazos primarios-afectivos-

de conexión interpersonal, el autorreconocimiento de grupo y el valor de la relación social en sí misma” (Godàs, 2021).

Zamanillok ere, komunitatearen planteamendu berri baten alde egiten du, baina aipatzen du, ez dagoela zertan bere erreforma bilatu behar. Batasunetik eta ordenaren logikatik askatu behar da, horrek dakarren ondorio identitarioetatik askatzeaz gain. Komunitate bere hitzetan, “bitxi” honek, komunaren zantzutik ihes egin beharra dauka, bestearen onarpenetik at egongo diren elkarbizitza guneekin loturak egin behar ditugu, eta kontrolik eta identifikaziorik gabe, ezezaguna denak eragin gaitzan utzi behar dugu. Horretarako, gu-beraiek harremanak dakartzan eztabaidak gainditu behar dira eta honen iritziak, komunitateaz hitz egitean, hiritartasun berriaren aniztasuna onartuko duen subjektu hausnarkorra ezinbestekoa da (2008, 234-235. or).

Komunitatearen definizioen inguruan egindako lanean, Zuñigak (2020) definizio anitz aztertu ditu. Orain arte aipatu duguna berresten da eta kontsentsuaren zailtasunean egiten da azpimarra. Autorearen bidez, egungo errealitatea islatzen duen definizioa falta da arestikoetan, eta sistematizazio zehatz baten bidez hainbat kontzeptu komun identifikatu ditu: lurraldea edo espazioa, elkarrekintza, osagai psikologikoa, ekintza komunetan parte-hartzea eta azkenik, pertsona taldea edo populazioa. Hori horrela izanda, bere proposamena luzatzen du, nahiz eta aurreratzen duen, ez dela zerbait hertsia izan behar eta marko interpretatiboa ahalbidetzen duten oinarritzko ezaugarriekin osatu du:

“Un proceso (o varios) de participación que se desarrolla en un espacio físico determinado en el que las personas y grupos que interactúan en el mismo desarrollan un componente psicológico de pertenencia /reciprocidad” (203. or).

Parte-hartzea identifikatzen du kontzeptu gakotzat, eta komunitatea egoteko parte-hartzea egon behar duela dio. Horrek ez du esan nahi ordea, beti parte-hartzea intentsitate maila berdinean eman behar denik. Ondorioz, komunitatea ere ez da zerbait egonkorra, mugitzen da eta eraldatzen joaten da, egin eta desegiten den zerbait da.

Komunitate kontzeptua, gizarte-langintzaren ikuspuntutik begiratuta, interes handikoa da. Aurreko guztiaren arabera ulertuz gero, norbanakoen beharrezkoak ezagutzeko, ezinbestekoa da komunitatean gertatzen diren elkarrekintzak ezagutzea. Besteak beste, komunitatearen baitan duten tokiaz jabetzea, erabiltzen dituen baliabideak ezagutzea, dituen harremanak edo konpartitzen dituen balore eta ohiturak kontuan izatea. Izan ere, komunitatea bezalako espazioetan sortzen diren emozioek, harreman motek eta pertenezia sentimenduak, talde kohesio eta elkartasuna sustatzen dituzte (Pastor, 2015,

38. or). Horrela ba, gizarte-langintzaren ikuspuntutik, pertsona, antolakunde, ohitura eta abarrean artean ematen den elkarrekintzan egon daiteke gakoa. Sanchok (2009) gizarte-langintzaren jardute profesionalari sekulako potentzial esplikatiboa eskaintzen dion kontzeptua dela dio, errealitate sozial jakin baten diziplina arteko begirada eskaintzen duelako, konplexutasuna aitortuz, eta norbanako eta komunitatearen arteko lotura egitea ahalbidetuz.

Barbero eta Cortesek (2005) lurralde jakin baten ematen diren harreman eta loturen aniztasuna, eta askotan, hauek lurraldearekiko duten independentzia dela eta, komunitatea, auzoa, lurraldea, kolektiboa etab. bezalako terminoengatik ordezkatzeari proposatzen dute. Sanchok (2009) berriz, komunitatea kontzeptua beldur barik erabiltzera bultzatzen gaitu, nahiz eta esfortzu gehigarria eskatuko digun. Izan ere, konplexutasun handiagorekin lan egitera behartuko gaitu, baina, bere ustez konplexutasun horrek berak lan egin beharko dugun errealitatea hobeto ezagutzera eramango gaitu.

Behin komunitate kontzeptuari behar beste aldetatik begiratu eta gero, gizarte-langintza komunitarioarekin antzeko zerbait egingo dugu, nahiz eta badakigun ez dela erraza honen inguruko definizioak aurkitzea.

Kontzeptualizazio honetan ikusiko dugun bezala, gizarte-langintza komunitarioa AEBn sortu zen, Ingalaterrako esperientzien bultzadarekin batera, eta bere sorrera aurreko mendeko hogeigarren hamarkadan kokatzen da. Halere, egun, gure testuinguruan ematen den gizarte-langintza hirurogeigarren hamarkadan emandako birkontzeptualizazio mugimenduaren eraginpean gauzatzen da, ikuspuntu kritiko eta iraultzaileagoarekin. Gero zehaztuko dugun arren, ordu arte, norbanakoaren arazoaren kausak indibidualak eta psikologikoak, hau da, bakoitzarenak zirela uste izatetik, gizarte-langintzaren bidez landu beharreko arazoaren jatorri edo kausak estrukturalak zirela pentsatzen hasi ziren eta hori da giltzarrietako bat.

Hurrengo lerroak irakurtzean, gizarte-langintza komunitarioaren teorizazio eta praktikaren inguruan eman den eraldaketa nabarmenaz ohartu gaitezke. Gizarte-langintza komunitarioa landu izan duten autore klasikoenetik egungoetara filosofikoki eta epistemologikoki eman den aldea esanguratsua da, eta jardute profesionalean ere izan du isla. Gizarte-langintza izan zen, Marchioniren (2014) hitzetan, komunitateko lana bere esku-hartze eremu bezala identifikatzen duen lehen diziplina, indibiduala eta taldekakoarekin batera (Malagon, 1999). Hala ere, mailaren edo eremuaren kontzeptuak

sortutako eztabaidak direla eta, ondoren, aurrerago landu izan duten autoreek, mailaz haratago, dimentsioz ere hitz egin izan dute (Pastor, 2015). Zenbait kasutan ordea, dimentsioena gainditze aldera, gizarte-langintza ulertzeko eta jardute profesionala aurrera eramateko filosofia edo izaera bezala ere definitua izan da, horrek dakarren guztiarekin. Navarrok (2004) banakako, taldeko eta komunitateko gizarte-langintzaren mailaketaren ideia zaharkitua gainditzeak dakartzan onurak ezagutzea gure buruko eskemak aldatuz soilik lortuko dugula dio.

Definizio batzuk ekarri ditugu lerro hauetara, zaharrenetatik berrienetara, eta bertan ere komunitate kontzeptua lantzean ikusi dugun bezala, lurraldea bezalako elementuek izan duten garapena ere ikusiko dugu, hasiera batean ezinbestekotzat jotzetik, egun indarra galtzera arte.

Malagonek (1999) gizarte-langintza komunitarioa ez dela banakakoa, familiakoa edo taldekoa bezala terapia modura hasten adierazten du, Moixen (1991) hitzetan oinarrituz, komunitateko kideek adostutako helburua lortzeko beraiek egiten dituzten ekintza kolektiboa bezala baizik.

De Robertis eta Pascalek (1993) berriz, azpimarra egiten du norbanakoek duten izaera kolektiboan eta komunitateak duen dimentsio indibidualean, bien arteko elkarreragin etengabearen arreta jarriz eta osotasun baten dimentsio bezala ulertzen du. Hori horrela, esku-hartze kolektiboaz mintzo da, taldeak erdi mailako elementutzat ikusi, eta hauen bitartez lan egin beharko litzakeela aldarrikatzen du.

Rosellek (1994) gizarte-langintza komunitarioa komunitatearen eremuan gauzatzen den esku-hartzea bezala definitzen du, pertsonaren ikuskera gizarte-langintza globala barne hartzen duena. Horretarako, indibidualki, taldeka edo antolakunde formal zein informaletan gauzatzen den parte-hartzearen bidez, taldearen eta bizilagunen gaitasunak sustatzera bideratuta dago, eta autolaguntza eta elkartasuna indartzea du helburu. Antzeko ildoan, zera diote Lillo eta Rosellók:

“Proceso que se realiza para la consecución del bienestar social de la población, con la participación activa y directa de ésta en el análisis, concienciación y resolución de los problemas que afectan a la comunidad partiendo por tanto, de la propia comunidad y de la utilización, potenciación o creación de recursos de la misma” (2004, 19. or).

Urte berean, Llobet, Cortés, Alemany eta Ainsa prozesu hauetaz mintzatzean, gizarte egoera jakin bat hobetu edo eraldatzeko sustatzen diren aldaketez ari direla azpimarratzen dute. Aldiz, Fernandez zeta Lopezek, hurrengoa proposatzen dute:

“Es una disciplina del trabajo social que parte de los valores de la ciudadanía democrática, se basa en una metodología científica, se aplica a través de un proceso de diagnóstico, planificación, organización, desarrollo y evaluación y conlleva un proceso de enriquecimiento (empowerment) personal y comunitario” (2008, 17. or).

Definizio ezberdinak ikustean, konturatzen gara, lehen esan bezala, batzuentzat, esku-hartze maila dela, beste batzuentzat diziplina bat, beste batzuetan dimentsio bat edo baita metodologia ere. Baina, adierazgarria den elementu komun bat azpimarratzearen, eraldaketa prozesuarena azpimarratu daiteke. Marchioni eta Pastorrek (2016) aldiz, eguneroko jardute profesionalaren eremu solidotzat jotzen dute komunitateekin egiten den gizarte-langintza, eta gertutasunean zentratuz, gure auzo, hiri edo herrien kapital sozialaren hazkundera eta mamitzea sustatzea dela diote.

Aguilarrek (2020) ere, esaterako, gizarte-langintza komunitarioa ez du gizarte-langintzaren metodo edo jardute profesionalaren dimentsiotzat jotzen, baizik eta komunitatetik bertatik (ez komunitatearentzat edo komunitatean), gauzatzen den eraldaketa prozesua dela dio. Horrek, ezinbestean, eraldatzen duen eta eraldatzen den komunitate horren parte izan, eta sentitzea zein sentitua izatea eskatzen du. Berak gizarte-langileontzat kokapen politiko ideologiko bat dela gaineratzen du, gizartea, antolakundeak eta gu geu ere inplikatzeko gaituena, eta ez dela soilik, taldean edo bulegotik kanpo egiten dugun lana. Bide beretik, urte batzuk lehenago Rolandek (2009) ere, horrela esan zuen, gizarte-langintza komunitarioaren baitan eman den garapenak, jarrera bat erakusten duela, jardute profesionala ikusteko modu jakin bat eta gizarte egoeretara gerturatzeko era bat. Hala nola, hari gidari bat dela aipatzen du, gizarte-langintzaren esku-hartze guztietan egon beharko litzatekeen orientazio bat. Honen ustez, komunitateko gizarte-langintzak, besteak beste, hiru metodoen ideiatik ihes egiten du, diziplina anitzen bidez, errealitatea modu holistikoa ikusteko aukera ematen duelako, testuinguru praktikoen analisi teorikoetarako instrumentu argigarria da.

Definizio gehiago ikusi eta gero, errepikatzen diren beste zenbait elementu ikus ditzakegu. Lehenik prozesuaz hitz egin dugu, orain aldiz, eraldaketaz, parte-hartzearen garrantziaz edo komunitatea bera baliabide nagusitzat hartzeaz. Prozesu hauetan, beraz, ezinbestekoa da komunitateko kideek duten parte-hartzea eta garrantzitsua da zehaztea,

prozesuan zehar gero eta protagonismo gehiago hartzen joan beharko lirakeela, Marchionik (2001) aipatzen duen bezala.

Azkenik, kontuan hartu behar da, gure testuinguruan komunitateko gizarte-langintza bera ere, modu askotara izendatzen dela. Komunitate garapena, antolaketa, ekintza zein animazio sozio-komunitarioa, esku-hartze komunitarioa edo lan komunitario bezalako kontzeptuen nahasketa ematen da, batzuetan kontzeptuak nahastuz eta beste batzuetan sinonimotzat erabiliz (Hernandez eta Braco, 2009).

2.1.3. HELBURUAK

Gizarte-langintza komunitarioa eta komunitatea beraren inguruan aritu eta gero, autore ezberdinen lanetatik abiatuz, komunitateko gizarte-langintzaren helburuak jasoko ditugu. Esan beharra dago, sarri helburuaren zein objektuaren kontzeptuak modu berdintsuan erabili izan direla autoreen lanetan, beraz, momenturen baten, hurrengo lerroetan ere horrela gertatzen da.

Gizarte-langintza komunitarioaren helburuen historiari erreparatuz, duela mende erdi Twelvetreesek (1988) jada, gero autore askok egingo duten ezberdintasuna egiten du, eta bi helburu identifikatzen ditu. Batetik, kanpora begirakoa, hots, testuinguruan aldaketak egitera zuzendua, eta bestetik, barrura gehiago begiratzen duen helburua, pertsonak jada dituzten gaitasun eta abileziak sustatzea gizarte egoera jakinen aurrean konfiantzaz erantzun ahal izateko. Zamanillo eta Gaitanek (1991) duela hamarkada batzuk, bere emantzipazioa lortzeko beharrezkoak diren aldaketa estrukturalak egin ahal izateko, subjektuak hausnarketa kritikoa egitea bezala definitu zuten. Gizarte-langintzaren objektua ondoez psikosoziala dela onartzen badute, hori norbanakoa eta bere testuinguruaren arteko intersekzio puntua izan daiteke, eta honenbestez, komunitatea testuingurua bezala ulertzen da.

Lillo eta Roselloren (1994) aburuz ordea, helburua komunitateak bere planteamenduko baliabideetara iristeko aukera berdintasuna izatea da. Horrela, komunitatearen elkarte bitzita sustatuz eta komunitate gisa integratuz, biztanleen oinarritzko premiak asebetetzeko, beren bizitzen zein bilakaeraren eragileak eta subjektu izateko (25. or). Barbero eta Cortesek (2005) kasu honetan, aurreko helburuak lortzeko bidean, prozesuan egiten dute azpimarra, prozesua bera helburu bezala izendatuz, emaitza garrantzitsuenak prozesuaren bidez eta prozesuan zehar ematen direla esaten baitute.

Fernandez eta Lopezek (2008) ere, bi ildotan banatzen dituzte helburuak. Batetik, komunitatean elkarrekintzarako pertsonaren gaitasunak suspertu nahi dira, eta bestetik, beren zailtasunak gainditzeko komunitatearen antolakuntza bultzatu behar da. Autore hauek diotenez, komunitateko gizarte-langintzak, ekintza komunitarioaren ezaugarriak eta dinamika aztertuz, pertsonak bultzatu nahi ditu parte-hartze komunitarioaren bidez, eta soilik komunitate antolatuaren ekintzaren bidez lor daiteke helburuak lortzea. Honen harira, Ballesterrek (2015) pertsonen bizi kalitatea hobetzearekin batera, lan egiteko modu honek dituen ezaugarriak direla medio, gizarte eraldaketako helburua ere baduela dio, beren ongizatea lortzeko bidean herritartasun proaktiboaren sustapenaren bidez.

Helburuekin jarraituz, Rolandek (2009) dio komunitateko gizarte-langintzak inklusio prozesuak aktibatu eta bazterketa prozesuak saihestu gura dituela. Helburu hori lortzeko, pertsonen parte-hartzea ezinbestekoa dela aipatzen du, hauen potentzial eta esperientzia zein komunitateko antolakundeek dituzten baliabideak iraunkorrak izango diren sakoneko aldaketak eragiteko erabiliz. Honen ustez, Navarro eta Aguilarren ildo berean, komunitatea pertsonak bere egunerokotasunarekin aurkitzen diren espazioa da, eta hori horrela izanik, gizarte-langintzarako espazio apropostzat jotzen du. Bertan, pertsonak aurre egin beharreko egoerak aurkitzen dira, eta egiten diren elkarreraginezko harremanak dira gako. Beretzat, gizarte-langintza komunitarioak ikuspuntu dialektikoa behar du eta bizitzako baldintzak, konexioak eta elkarreragin formak ulertu behar ditu. Pertsonak beraiek eraikitzen dituzten planteamenduekin lan egiten du, diagnostikatu eta formulatu dituztenak, eta beraz, pertsonak beraien ikaskuntza prozesu eta ekintzetan subjektu politikoki aktiboak izan daitezen bilatzen du. Ildo honetan, Úcar eta Llenak (2006) gizarte-langintzaren diziplinatik pertsonak boterea har dezaten eta gizarte-hauskortasunaren aurrean lan egin dezaten bilatzen dela diote.

Barberoren (2009) ustez, antolakuntzaren eta gizarte-ekintzaren bidez, egoera kolektiboen eraldaketa bilatzen du. Horretarako, komunitate eta gizarte garapena ekarriko duten proiektuak martxan jartzeko taldeak eutsi edo sortu behar direla dio. Marchioniren ustez ere, komunitateko gizarte-langintza pertsonen bizi baldintzak eta bizi kalitatea hobetuko duten prozesuak martxan jartzean datza, modu parte-hartzaile batean (Velasco eta Blanco, 2020, 1. or). Autore berak Pastorrekin (2016) egindako lanean, gizarte-langintza komunitarioa herritarren interesguneekin konektatzeko gai diren sensibilizazio, kontzientziazio, antolakuntza eta mobilizazioa prozesuak bultzatzeko jarduna da.

Hari honi jarraituz, gizarte-langintza komunitarioak gizarte-langintzak berak egiten duen bezala, esperientzia eta bizipen indibidualak erabili behar ditu, hauek kolektibizatu eta kontzientzia politikoa sustatzeko. Modu horretara, pertsonak modu autonomoan, eragiten dieten egoeren analisi kritikoa egin, ikusarazi eta horiek iraultzeko ekintza eta prozesuak martxan jarri ditzakete (Prat eta Simó, 2021).

Ikerketaren ikuspegira salto eginez gero, gizarte-langintza komunitarioa komunitatea modu esploratorioan aztertzeaz, izaera hausnarkorra duen diagnosis burutzeaz, planifikazioa teorikoa egiteaz, plana gauzatzeaz eta ebaluazioaz arduratzen da. Honi jarraiki, esperientziak sistematizatu behar ditu eta teoriak sortu (Sarasola, Gonzalez eta Rioz, 2019).

Ikus daitekeenez, autore hauen arabera beste helburu ezberdin egokitzen zaizkio gizarte-langintza komunitarioari eta horren harira, Navarrok (2004) helburuaren konplexutasuna azpimarratzen du. Armiarma gisara, egunero istorio txikiak isurtzen diren bizikidetzaz espazio bat espazio komunitario bat marraztuko duten sare sozialak harremanetan jarri, erlazionatu, lotu, sortu eta zabaltzean datza.

Jaso ditugun helburu hauek guztiak lortze aldera, Aguilarrek (2020) dio helburu ezberdinetako estrategiak planteatu daitezkeela, betiere, parte-hartuko duten eragileen arabekoak. Erakundeetako baliabideak eraldatzera edo partekatutako arazoan lanketa kolektiboa eustera bideratutakoak izan daitezke, besteak beste. Interes kolektiboak defendatzeko helburu horien arabera, intzidentzia (gizarte politikek interes komun eta kolektiboak babestu ditzaten), erresistentzia (posizio edo eskubide sozialak ez galtzeko) edo disidentzia (parte izan nahi ez duen sistematik irteteko) egiteko erabili dezakegula aipatzen du. Hori horrela, helburua prozesu kolektiboak martxan jartzea da, egoera jakin bera bizi duten, zaurgarritasun egoera partekatzen duten, norbanako edo familietatik eta testuinguru komunitarioan detektatutako beharretatik abiatuta, dauden esperientzia komunitarioen akonpainamendua egin eta esperientziak martxan jartzea, alegia.

2.1.4. EREDU TEORIKO-PRAKTIKOAK

Gizarte-langintza, hasieran aipatu dugun bezala, bere ahuldade teorikoagatik ezaugarritua izan da, eta are gehiago ematen da hori gizarte-langintza komunitarioaren kasuan (Pastor, 2015). Baina edozein praktikak edo jarduera profesionalek, berau sostengatzen duen

teoria behar du. Horretarako, komunitateko gizarte-langintzaren eragin teorikoak jasoko ditugu, praktika zertan oinarritzen den ulertu ahal izateko (Viscarret, 2009).

Komunitateko gizarte-langintzaren inguruko eraikuntza teorikoa zailtzen duten lau arrazoi identifikatzen ditu Pastorrek. Profesionalek praktikaturako pragmatismoa eta erabilitako aniztasun teorikoa; ekintza komunitarioen erregistro eza dela eta, praktika komunitarioaren inguruko oinarri teorikoaren urritasuna; egindako ikerketek eragile ezberdinen eraginak erakutsi ez izana eta herritarren eta erakundeen misioak bateratzeko zailtasuna (2015). Hau gainditzeko, komunitateko gizarte-langintzarentzat zaila izaten den zerbait egin behar da, teoria, ideologia eta baloreak ezberdindu. Profesionalek, jardutea sostengatuko duen teoriaren beharra duela azpimarratzen du, baita kokapen ideologikoa zein praktika orientatuko duten baloreak ere, eta elkarreraginean dauden elementuak diren arren, jardute profesionalaren oinarri teorikoak esplizitatzea garrantzitsua dela dio.

Ez da lan erraza dauden eredu eta ekiteko era guztiak batzea, izan ere, testuinguruaren ezaugarri espezifikoaren arabera sortutako eredu teoriko eta planteamendu metodologiko oso propioak daude (Pastor, 2015). Gizarte-langintzan eraiki izan diren ereduak, pluralismo teoriko metodologikoa partekatzen dute gizarte-zientzietako hainbat perspektiba paradigmaticoetan oinarrituz. Eredu hauek ulertu, interpretatu, aldatu edo eraldatu nahi den errealitate sozialaren ideologia, kultura, testuinguru politiko, ekonomiko zein soziala ere islatzen dute (Barranco, 2004).

Esan bezala, eredu bakoitza, hainbat teoriez osatuta dago eta guk komunitateko gizarte-langintzarentzat oinarri izan den eredu kritiko-erradikala landuko dugu, baina gainera eta modu arinagoan bada ere, beranduago agian, baina influentzia izan duten sustapen defentsa ereduak eta azken urteetan oso esanguratsua bihurtu den sare sozialen bueltako eredu ekologikoa ere landuko ditugu.

Gizarte-zientzietan aurkitzen diren hiru paradigma nagusien artean, hots, positibista, interpretatibo edo hermeneutikoa eta kritiko dialektikoaren artean, gizarte-langintzak, batik bat, azken bien barne agertzen diren teoriaren influentzia jaso du. Paradigmak teoria, tradizio, metodo eta metodologiak osatutako matrize diziplinarrak dira eta beraz, praktikak gidatzen dituzten joko arauak marrazten dituzte, ikerketa eta ekintzari, balorea, konpromisoak edo prozedimenduak eskainiz. Lehengoak, interes teknikoa duela esango genuke, zientzia enpiriko-analitikoekin lotzen da, eta testuingurua kontrolatu nahi du

oinarri enpirikoko legeen bitartez. Bigarrenak, interes praktikoa du eta zientzia interpretatiboekin lotzen da, errealitatea sozialki eraikitzen baita eta ulertzea du helburu, baina subjektibotasunari balioa emanez. Azkenengoak berriz, interes emantzipatzailea du eta talde eta norbanakoen gaitasunen sustatzean jartze du arreta, modu autonomo eta arduratsuan bere bizitzen jabe izan daitezten.

Gizarte-langintza azken bien artean kokatzen bada, komunitateko gizarte-langintzarekin gauza bera gertatzen da. Gure ustez, bi paradigma hauen artean kokatzen da, nahiz eta kritiko dialektikoaren influentzia gehiago izan duen. Bi hauetan zentratuz, aipatu dezakegu, epistemologia subjektibista dela bietan, ezagutza elkarrekintzan sortzen dela eta ezagutza partekatua dela “behatzailea” eta “behatuaren” artean. Kasu bakoitzean erabiltzen den metodologiari dagokionean, interpretatiboaren kasuan, hermeneutikoa erabili izan da, dialogikoa, talde txiki, norbanakoetan, kasuetan etab., oinarritutako, metodologia kualitatiboa gehientsuenetan. Kritikoari dagokionez, aldiz, metodologia parte-hartzaileak erabili izan dira, dialektiko eraldatzaileak, eta testuinguru sozio historiko konkretuetan gauzatzen direnak.

Teoriak, ereduak elikatzen dituztenak, Howesen hitzetan, mundua ikusteko forma ezberdinak dira eta pertsonak, objektuak eta egoerak, nola portatzen diren ulertzea dute helburu (Visarret, 2009). Ereduak berriz: “nos ayuda a pensar sobre lo que hacemos, a preveer posibles efectos de ello, a explicar nuestros fallos, a maniobrar estratégicamente y, lo que es importantísimo, a aprender e incorporar nuestro bagaje práctico en futuras acciones” (Navarro, 2004).

- *Eredu kritikoa*

Gizarte-langintza komunitarioaren baitan nagusi izan den eredu kritikoarekin hasteko, aipatzekoa da, asko direla barne hartzen diren teoriak eta birkontzeptualizazio mugimenduaren eragina ere nabarmena dela. Honela definitu daiteke:

“Se fundamenta en la necesidad de desarrollar un análisis teórico-práctico de la realidad social que persiga objetivos de transformación de las estructuras sociales que causan alineación en los individuos para lograr su emancipación. Es una metodología que plantea un diálogo constante entre la teoría y la práctica (praxis) y propone pensar en los fenómenos sociales según las interconexiones interdisciplinarias que los integran: ética, ideología, economía, política, psicología, jurídica, cultural, comunicativa y etc.” (Zamanillo, 2018,101. or).

Eredu honek, hainbat teoretatik edaten duela esan daiteke, besteak beste, marxista eta feministatik. Harreman dialektikoa berreskuratzen du teoria praxian eta esku-hartzea

arazoak sortzen dituzten estrukturak aldatzera bideratzen da. Hori dela eta, kasu honetan, berebiziko garrantzia hartzen du testuinguru politiko, kultural eta sozialak. Honetaz gain, Paulo Freireren pedagogia askatzailearen eragin nabarmena du, gizarte-langintzak bere egin baitu, besteak beste, ekintza hausnarketari lotuta joan behar denaren ideia. Izan ere, autore honek zioen bezala, ekintza hausnarketa gabe aktibismo hutsa bihurtzen delako, eta alderantziz, hausnarketa ekintzarik gabe akademizistegia delako. Gainera, eredu honetan ere, pertsonak bere zapalkuntza egoeraz kontzientzia hartzearen garrantzia nabarmentzen da, beren bizitzen kontrola har dezaten. Honetaz gain, gizarte-langintza komunitarioaren hastapenetatik, birkontzeptualizazio mugimendua baino mende erdi lehenago alegia, Jane Addams gizarte-langileak egindako ekarpenak ere aipatzekoak dira. Chicagoko Eskolaren testuinguruan, Addamsek gizarte-arazoen jatorria kolektiboa zela aldarrikatu zuen, muina gizartean kokatzen zela eta beraz, hauek iraultzeko, ezinbestean, gizarteko estrukturetan eragin behar zela (Barranco, 2004).

Kasu honetan gizarte-langintzari dagokionez, bezeroak artatzea baino gehiago dela defendatzen da eta efikaza izateko, helburutzat aldaketa estruktural erreala izan behar duela, nahiz eta diziplina/lanbidearen ikuskera klasikoak hori oztopatu. Ikuskera honetatik abiatuz, praktikak sektore popularrekiko konpromisoa eskatzen du, ordura arte isilduak izan diren kolektiboei ahotsa emanez, (askapen) prozesuaren protagonista bihurtzen dira. Esku-hartzearen baloreak, herritarrekiko errespetua, ekitatea eta justizia dira, eta pertsonak bere egoera eta kokapen sozialaren kontzientzia hartzeak garrantzi handia du (Viscarret, 2009).

Autore batzuk, ikuspegizat jotzen dute berau eta ikuspegi kritiko/erradikal, marxista feminista ere izendatzen dute (Pastor, 2015). Beste batzuek aldiz, tradizio kritiko bezala izendatzen dute, eta badaude eredu bezala jasotzen dutenak ere (Viscarret, 2009). Hala eta guztiz ere, denak bat datoz, eragina izan duten teoria edo autoreak izendatzerakoan.

Aipatu bezala, ikuskera marxista da eredu kritikoko iturrietako bat. Marxen teoriak, sekulako eragina izan du mugimendu politiko eta sozialetan eta gizarte-langintzaren kasuan ere, utzi du bere aztarna. Horrela, Viscarretek (2009) jasotzen duenez, Leonard eta Corriganen eskutik aipatzen da, pertsonaren esperientzia zein elementu indibidualak, produkzio harremanen eta hauen artean dauden kontraesanen islatzat ulertuak izan behar direla. Honenbestez, ez dira bakarrik dominazio ekonomikoko estrukturaen islatzat hartu behar, baizik eta, norbanakoak elkarrekintza duen edozein estruktura handirekin. Gizarte-langilearen analisia beraz, ez da estruktura bere horretan eta edo norbanakoa ulertzearen

sinpletasunean gelditzen, eta norbanakoak zuzenean, egoera sozialekin, bere esperientziekin, estrukturekin, harremanean ulertu behar dira, faktore indibidual eta estrukturelaren arteko erlazioa azaleratzen hasteko.

Autore hauek, hainbat iradokizun egiten dituzte gizarte-langileen jardute profesionalerako. Esate baterako, kolektibotasunean eta esfera komunitarioan lan egitea, talde komunitarioen zein ekintza kolektiboarekin jardutea, edo kontzientziazioa eta kooperazioa sustatzeko elementuak txertatzea proposatzen da. Ildo honetan, gizarte-langileak ere bere kokapenaren inguruan hausnartu behar du, izan ere, kontraesankorra izan daiteke. Gizarte-langileak langileak ere badira, eta bestalde, kapitalismoaren harreman sozialak erreproduzitzen dituen estatuaren baitan daude. Hori horrela izanik, ikuskera honen baitan, gizarte-langileek ez dute posizio neutroa izan behar, horrela balitz, estatus quoa mantentzearen alde egingo luketelako. Aldi berean, erresistentzia ideologikoa egin behar dute, klase politikoak estatuaren baitan duen hegemoniarekiko eta eskubide sozialen urraketa ekar dezaketek ekintzen edo araudien aurrean erresistentzia erreala egin. Gainera, sistema ongizate-estatuak eskaintzen dituen onurak instrumentalizatuz erabili behar dutela ere jasotzen da (Viscarret, 2009).

Eredu kritikoaren beste iturrietako bat, teoria feministak dira (Barranco, 2004; Pastor, 2015). Beste autore batzuentzat berriz, ereduaren azpi eredutzat jotzen da (Viscarret, 2009). Edonola ere, honen gakoak jasotzea garrantzitsua da, eredu kritikoaren ikuskera esanguratsuenetakoa baita. Bere jatorria hirurogeigarren hamarkadako emakumeen mugimenduetan ematen da, eta Dominelli edo Gilligan bezalako erreferenteak ditu. Borroka hau aurrekoa bezala, askapen mugimendu bat da, baina kasu honetan patriarkatuaren estruktura sozial, politiko eta sinbolikoetatik emakumea askatzeko prozesua bultzatzen da. Erresuma Batuan, AEBn, Kanadan edo Australian garatzen hasi bazen ere, bere eragina azkar hedatu zen ia munduko txoko guztietako gizarte-langintzara. Gure testuinguruaren kasuan, zehazki, ekintzailetasunean eta lan komunitarioan eragin zuen batik bat, nahiz eta orain, beste esparru guztietara ere hedatu izan den (Viscarret, 2009).

Gizarte-langintza feministaren barruan, feminismoan gertatzen den bezala, feminismo liberala, erradikala edo marxista sozialista daude eta bakoitzak esku-hartzea modu batera edo bestera enfokatzen du, bere errealitatearen irakurketaren arabera. Hala ere, Dominellik (1997) dioenez, ezberdintasunak ezberdintasun, badaude esku-hartzerako orduan guztiek partekatzen dituzten ezaugarri batzuk. Besteak beste, emakumeak bere

zapalkuntzatik askatzeko eskubidea dute; emakumeei ahotsa eman behar zaie, bere kabuz hitz egiten utziz; bizi eredu alternatiboak eraiki behar dira; beren teoria eta praktika integratu behar dira; emakume bakoitzaren originaltasuna errespetatuko duten erantzun kolektiboak bilatzea eta errealitate sozialari zentzua emateko emakumeen ekarpenak kontuan hartzea. Gizarte-langintza feministak, Viscarreten aburuz, ekarpen nabarmenagoa egin du filosofikoki edo baloreei dagokienean, berez teknikei dagokienean baino. Hainbat balore argi izan ditu eta hauek oso ondo hartuak izan dira gizarte-langintzako balore orokorrekin bat egiten dutelako. Hurrengoak dira praktika feministaren zutabeetako batzuk: Patriarkatuaren bukaera; empowerment-a; prozesua produktua bezain garrantzitsua da; pertsonala politikoa da; aniztasunean batasuna bilatu eta hausnarketari zein praxiari dagokionean kontzientziazioa sustatu (Bricker eta Hooyman, 1986).

Gizarte-langile feministak, prozesuan jartzen du arreta, eta herritarra eta profesionalaren arteko harreman parekidea bilatzen du, besteak beste, informazio guztia partekatuz. Harreman sozialen eraldaketa bultzatzea da helburua, harreman parekideak bilatuz eta herritar eta profesionalen arteko harreman ez zapaltzailatik hasi behar dela uste dute, sistemak eta antolakuntzak eragiten dituen zapalkuntzan lausotzen edo ezabatzen saiatuz (Viscarret, 2009).

Azkenik, eredu erradikalaren beste ikuskera garrantzitsuetako bat Paulo Freireren ekarpena da, kontzientziazioaren, herri hezkuntzaren edo askapenerako pedagogiarekin. Oro har, gizarte-langintzan izan zuen eragina, baina batez ere, komunitarioan izan duela aipatu daiteke. Berak pedagogia askatzailatzat hartzen du, izan ere, subjektua eta munduaren arteko ikuskera kritikoko prozesu jarraitutik ikasketa eta errealitatearen eraldaketa sustatzen baitu. Berak bereziki bazterkeria egoeran zeuden taldeen beharretan jartzen zuen arreta, uste baitzuen hezkuntza tradizionalak alde batera uzten zituela. Bere aburuz, hezkuntza hazkunde eta askapenerako bidea izan beharko lukeena, eredu tradizionalan pertsonak otzantzeko erabiltzen zen. Hori ekiditeko, pertsonak bere egoeraz kontzientzia hartzea bilatzen zuen, manipulazioa ekidin eta askatasuna bermatzeko. Finean, herri hezkuntzaren bitartez kontzientzia kritikoa esnatu edo hazten da, eta ondorioz, testuingurua eraldatzeko ekintzak burutzen dira, askapen prozesua gauzatzuz (Hernandez, 1990).

“Busca transformar la sociedad existente mediante el cambio de las estructuras que la integran, de forma que se permita la construcción de una sociedad que sea

más igualitaria y humana. Para conseguir este objetivo, Freire diseña y desarrolla una concepción pedagógica orientada a facilitar el desarrollo de actitudes críticas en los educandos que a su vez estimulen prácticas de compromiso social y transformación social” (Viscarret, 2009, 222. or).

Freirek planteatzen duen hezkuntza, kritikoa, dialogikoa, hausnarkorra eta askatzailea da. Kritikoa, errealitatearekiko konfrontaziotik eratortzen den kontzientzia kritikoaren garapena dakarrelako, kontzientziazioa izendatu zuena, kontzientziatu askatzeko, hain zuzen ere. Dialogikoa, hezkuntza komunikazioa delako. Eta azkenik, hausnarkor/askatzailea, norbanakoaren barruko lanketaren bidez, bere burua ezagutu eta ekintza zein erabaki subjektutzat onartzen duen askapen prozesua dakarrelako (Freire, 1978). Honen harira, bere alfabetizazio metodoak hurrengo printzipioak zituen: lehenik, denok dakigu zerbait; inork ez daki dena edo bat ere ez. Bigarrenik, elkarrizketa ez da erakusten, eta ordainetan ez gaude ikasteko prest. Hirugarrenik, ez da soilik ezagutzak transmititzea, baizik eta kontzientziaztea. Laugarrenik eta azkenik, pedagogia aktiboa. Hau da, besteari gatazkak konpondu ahal izateko ezagutzak bilatzen erakutsi eta ezagutza hori eraldatzeko erabili behar da, ekintza kolektiboaren bidez, errealitateko zailtasunak gainditzeko alegia (Barranco, 2004).

Viscarretek (2009) gizarte-langintzari egindako ekarpen nagusiak esku-hartze prozesuari zein gizarte-langilearen rol edo paperari zuzendutakoak izan direla dio. Lehengoaren kasuan, batetik, errealitatearen analisi kritikoaren bidez, eraldaketa prozesuetan azaleratzen diren faktoreen ulermen egokia sustatzen du. Bestetik, problematizazioaren metodoaren ekarpena dago, errealitate soziala problematizatzen bideratutako prozesua. Kontzientzia kritikoa, analisia eta gogoeta kritikoaren sustapenaren bidez, egoera hori gainditzeko ekintza bilatu behar da. Azkenik, ikerketa eta diagnosiari zuzendutako ekarpena aurkitzen du autoreak, metodologikoki, ikerketa ekintza parte-hartzailea proposatzen baitu. Autokontzientziaziotik abiatuta, beren bizitzetan eragiten duten elementu eta estrukturak ulertuko dituzte, ondoren, bertan modu arduratsuan aldaketak eragiteko beharrezko estrategia, gaitasun eta teknikak garatuz. Ez du ikerketa ekintza gabe ulertzen ezta alderantziz ere, eta ikerketan, ikertzaileez gain, ikerketa objektu direla suposatzen den herritarrek ere parte-hartu behar dutela dio. Azken ideia honetan azpimarra berezia egin nahiko genuke, hau baita komunitateko gizarte-langintzaren ekarpen ikusgarrienetako bat. Freirek komunitatearekin ikertu behar dela dio, kontzientzia hartzeko dinamikak (parte-hartzea) sortu eta eraldaketa prozesuetan (ekintza) bihurtu daitezkeen. Etengabeko komunikazio eta feedbacka proposatzen du ikerketaren subjektuen artean, planifikazioa,

erabakiak eta gauzatze konpromiso kolektiboaren parte direlako. Kritikoa izateaz gain, ikerketak gogoetatsua izan behar du, subjektuek bere egoerei aurre egin ahal izateko ezagutza sortuz. Horretarako, ikergaia, bere testuingurua eta subjektuen arteko harremanak zein egoera eta hauen kausen ezagutza, analisisa, interpretazio eta ebaluazioa dira garrantzitsuak (225-226. or).

Bigarrenaren kasuan, gizarte langilearen lan, rol eta jokatzeko duen paperaren inguruko ekarpena dago. Gizarte-langileak, bere jarduna gauzatzen duen estrukturan inguruko ikuspuntu kritikoa izan behar duela dio, honen konplexutasuna, dinamismoa eta egonkortasunaren ezagutzaren bidez. Gainera, gizarte-langilea ezin dela neutroa izan dio, eta eraldaketaren edo estrukturen mantentzearen artean aukeratu behar duela. Aukeraketa horrek berebiziko garrantzia du, izan ere, horren arabera, rola, metodoak eta teknikak aldatuko baitira. Azkenik, gizarte-langintza askatzaile eta eraldatzailearen alde egiten du, eta horretarako, hainbat elementu kontuan izan behar ditu. Lehenik, ezin du askapenaren beldur izan, ezin du preskribatu ez manipulatu. Bigarrenik, herritarrarekin batera lan egin behar du, ez herritarraren gainean edo herritarrarentzat. Hirugarrenik, ezin du aldaketa mehatxu bezala ulertu eta bere funtzioa problematizatzailerena izango da. Laugarrenik, esaten eta egiten duenarekin koherentea izango da. Bosgarrenik, argi izan behar du aldatu nahi duen estruktura osoa dela, elkarreraginean dauden parte ezberdinek osatuta. Azkenik, gizarte langilea ez da ekintzaile bat izango, izan ere, lan egiten duen herritarrekin batera ekin eta hausnartu behar du, gizartearen egoeraren kontzientzia hartzea helburu (Viscarret, 227-228. or).

Konklusio gisara, eta laburbilduz, gizarte-langintza kritikoak finean, eredu tradizionalari egiten dio aurre, hiru esparru nagusitan. Batetik, eredu tradizionala indibidualista gisa ulertzen du, arazoaren kausak norbanakoetan ezarriz; bestetik, eredu horretan, gizarte-langileak herritarrarengan duen posizio hierarkikoa kritikatzeko du eta azkenik, herritarrek baino gehiago jakitearen ideia, hots, beren arazoaren eta iraultzeko soluzioaren inguruan herritarrek beraiek baino gehiago dakitela uste izatea kritikatzeko du. Honenbestez, eraldaketa erradikala bultzatzen du, helburuei zein prozesuari dagokionean. Hori gauzatzeko, gizartearen errealitatea konprenitzean, estruktura sozialen garrantzia azpimarratzen da, eta zapalkuntza erreminta analitikoetatik hartzen da. Eredu kritikoak, azpimarra berezia egiten du gizarte-langileak herritarrarekiko duen botere harremana onartzean, eta hori horrela izanik, gizarte-langileak harreman parekidea lortzeko ahaleginak egin behar ditu, herritarrari parte-hartzaile boterea transferitzeko. Azkenik,

esku-hartzeari erreparatuz, bi estrategietan oinarritzen dela esan daiteke; batetik, kontzientziazioa, eta bestetik, identifikazio zein ekintza kolektiboen garapena. Kontzientzia kritikoaren garapenaren bitartez lortzen den kontzientziazioa aldaketarako elementu gakoa da, eta identifikazio kolektiboa, kontzientzia kolektiboa pizteko ezinbesteko elementua da ekintza kolektiboen bidean. Pertsonak protagonista bihurtzen dira, eta beraien interesak defendatzen dituzte. Beraz, gizarte-langintza kritikoaren helburua, ez da kolektibo jakinen beharrizan egoerarekin bukatzea, baizik eta eraldaketaren bitartez, gizartearen ongizate kolektiboa bermatzea. Aipatu beharra dago, badituela hainbat kritika, esate baterako, momentuko beharrizanez ahaztea, arazo emozionalekiko erantzunen urritasuna, prozedimendu metodologiko ahula, kritikotasun altua zein konpreziarako gaitasun gutxi, boterea kontrolarekin partekatzea edo aldaketaren bidean gizarte guztiaren interesak batzea ezinezkoa dela. Hori horrela, teoria bat baino, ideologia bat dela aipatzen dute askok (Viscarret, 2009; Pastor, 2015).

- *Sustapen defentsa eredua*

Hau guztia ikusita ere, gizarte-langintzaren kasuan, ikuskera kritikoaren barruan ere, paradigma interpretatibotik eratorritako hainbat zantzu aurkitu ditzakegu, besteak beste, elkarrekintza sinbolikoa edo Habermasen teoria (Barranco, 2004). Izan ere, gizarte-langintzak pertsonon arteko elkarrekintzan arreta berezia jartzen du, eta pertsonak errealitate soziala beren bizipenetatik abiatuta eraikitzen dutela ere barne hartzen du. Honetaz gain, psikologiatik datorren humanismo erradikalaren eraginak ere baditu, bere gain hartzen baititu ezberdintasun sozialak ezabatzeko helburua eta horretarako pertsonen garapena sustatzekoa. Humanismo dialektikoa, gatazkak lantzearekin erlazionatzen da, era gizatiar, arrazional eta solidarioan.

Ildo horretan kokatu daiteke, sustapen eta defentsa eredua, izan ere, ikuspuntu erradikala du, baina kutsu existentzial eta humanistarekin batera. Aurrekoa bezala, kritikoaren baitan dagoen heinean, sustapen eta defentsa eredua ere, ahalduntze komunitarioko estrategiatzat hartzen da, baina baditu bere berezitasunak.

Sustapen eta defentsa eredua, beharrizan eta ezaugarri espezifikoak dituzten pertsona taldeekin erabilia izan da, eta indibidualizatua edo ekintza makroa izan daitezkeenaren arteko zerbait bilatu nahi du. Hau defendatzen duten autoreek, gizarte aldaketa egiteko, lehenik eta behin, norbanakoek euren baitan, aldaketa eman behar dutela diote. Izan ere, sinistua dute, beraien ezaugarriengatik hauen ekintzak ez direla aldaketa eragiteko gai

izango. Sustapenak herritarrak komunitateetan gizarte aldaketak eragingo dituzten esfortzu kolektiboetan sartzea bultzatuz, norbanakoen gainean dauden balorazio negatiboak gainditzeko estrategiak sortzea du helburu. Aldi berean, defentsak beraien bizitzetan, herritarrek komunitatean eta onuradun diren zerbitzuetan duten kontrol eta parte-hartzea suspertu nahi ditu. Horrela, beraien kabuz egiteko gai ez diren kolektiboen interesak babestu gura ditu, zerbitzu eta eskubideen jabe izateko hauek pairatzen dituzten botere harremanak agerian jarritz, baita gizarteko kide subirano gisa parte-hartzeko eskubidea ere. Esaterako, hirugarrenen izenean aldarrikatu, idatzi edo hitz egitea dira horren adibide.

Indartzea eta defendatzea herritarrek dituzten eskubideak eskuratzera, bizimodu independenteak sustatzera, pertsonak beren bizitzaren subjektu gisa indartzera eta abarrera bideratutako ikuspegiak dira. Estrategia gogoetatsu, kritiko eta hezitzailea da (alde horretatik Freireren zenbait sustrairekin), herritarrekiko ezarria, non horiek mendekotasuna uzten duten eta gizarte-laguntzako sare kolektiboekiko interdependentzia prozesuetan iraultzen diren. Interdependentziaren prozesu horretan, gizarte-langileek herritarren errealitatean sartu eta ulertu behar dute (Pastor, 2015, 73-77 or.).

- *Eredu ekologikoa (sistemikoa)*

Aurreko ereduak modu xumean ikusi badugu ere, orain eredu ekologikora egingo dugu salto, batez ere, sare sozialen ikuskera ezagutzeko. Egun, gure testuinguruan Pastor, Navarro edo Aguilar bezalako autoreek lantzen dutena. Pastorrek (2015) dioenez, komunitateari erreferentzia egiterako orduan, nagia da egun soilik lurraldeari erreferentzia egitea, motz geratzen baita. Baina, aldi berean, delimitazio jakin bat edo lurralde bat kontuan hartu ezean, lan komunitarioa bidera ezina bihurtzen da. Proposatzen duena, analisi eta lan eredu berri bati buruz hitz egitea da, estrukturala eta erlazionala uztartzen dituen, modu horretara, komunitatea sareen sare bat bezala ulertuz.

Navarroren hitzetan, sareen ereduak gizarte-langintzako praktika berrietara eraman gaitzake, eraldatu egin ditzake, eta gizarte langilea bera ere eraldatu dezakeela dio. Izan ere, eredu honek azpimarra berezia egiten du profesionalaren posizio aldaketan, ezagutza eta boterea duena izateari utzi behar baitio berari komunitateri eskaintzeko. Horrela, zera egin beharko genuke: “Pasar a ser capaces de descubrir, de crear, de construir nuevas realidades con aquellos con los que formamos parte de la realidad comunitaria” (2004, 39. or).

Gizarte sareen ikuskerak, eredu ekologikoa du oinarritzat. Eredu honek, bere aurreko ereduari zor die, besteak beste, pertsonak bere testuinguruarekin harreman dialektiko eta etengabeen aurkitzen direnaren ideia. Bronfenbrenner da ereduaren teorizatzaile nagusia eta 70. hamarkadatik aitzina erabiltzen hasten den eredu da, gizarte-langintzaren kasuan, gehien bat, sare sozialen ikuskeran oinarrituz (Pastor, 2015). Ekarpene nagusia, pertsonak bere inguruarekin (“ambiente”) duen etengabeko elkarrekintzan dago. Bi sistema konplexu hauen artean, doitze, adaptazio eta akomodaziozko etengabeko harremana sortzen da, eta hortik abiatuz, bi sistemen garapena eman daiteke. Perspektiba ekologikoa bereziki interesgarri bihurtzen da, arazo gehientsuenak pertsona eta bere testuinguruaren artean ematen den harreman gatazkatsutik eratorriak diren gizartean. Egungo bizi estiloak eta aldaketa sozialek gizarte erlazioen desintegrazioa, harreman interpersonalen distortsioa eta laguntza sare naturalen haustura ekarri du. Ondorioz, gizarte-zerbitzuetara bertaraten diren pertsonak, orokorrean, harreman sare pobreak edo urriak izaten dituzte, eta horrela ezinezko bihurtzen da hauen babes funtzio zein funtzio solidarioa gauzatzea (Navarro, 2004, 40. or).

Testuinguruko faktoreek pertsonen garapena eta jarrera baldintzatzen dute. Hala ere, eredu honetatik aitortzen da, baldintzatzailea bada ere, ez duela determinatzen, ondorioz, pertsonak berak testuingurua eraldatzeko gaitasun eta potentzialitateak ere garatu ditzakeela. Arreta berezia jartzen du giza garapeneko prozesu horretan, inguruarekin elkar eragiten dugun hurbileneko testuinguruak eta ingurune zabalenetan sortzen diren kanpo faktoreen arteko interkonexioak duen eraginean. Ingurua osatzen duten lau maila adierazten dira, makrosistema, exosistema, mesosistema eta mikrosistema⁶. Azkenik, laguntza interpersonalak hartzen dituen forma ezberdinen inguruan ere mintzo da eredu ekologikoa.

Sare sozialen ereduaren zentratuz, garrantzitsua da sare sozialak aipatzean zeri burua ari garen jakitea:

“La red social es aquel entretejido formado por las relaciones sociales que, en los diferentes ámbitos de la vida, y con diferentes grado de significatividad, vinculan a un sujeto con otros. La red social a lo largo del ciclo vital se configura como un proceso permanente de construcción tanto individual como colectiva, y sus defectos sobre la salud y el bienestar de las personas son especialmente significativos y probados” (Navarro, 2004, 47. or).

⁶ Eredu ekologikoaren lau mailen inguruan informazio gehiago jakiteko ikus Navarroren *Redes sociales y construcción comunitaria, creando (con)textos para una acción social ecológica* (2004) liburuko 40. orrialdeko taula.

Harreman horiek isolamendu arriskua gutxitzera garamatzate eta integrazioa sustatzen dute. Sare sozial zabal, aktibo eta konfiantzazkoak pertsonen bizitza erraztu eta erosoago bihurtu badezake ere, garrantzitsua da kontuan izatea, beste funtzio negatiboago batzuk ere bete ditzakeela, hala nola, kontrol edo presio funtzioak. Esku-hartzean kontuan izan behar da hau guztia positiboak diren sare sozialak sustatzeko asmoz.

Komunitatea norbanakoek bere nahien arabera egiten dituzten lotura maila ezberdinetako harremanen multzoa da. Ongizate maila gorena lortu nahi da eta norbanakoak kolektiboetatik haratago doan lotura eta elkarreaginaren hautaketa propioa egiten du, helburu komunak lortzeko. Hala eta guztiz ere, askatasun mailak gatazkak sor ditzake, nahiz eta hauek positiboki ulertu eta aldaketen pizgarri bihurtu. Gauzak horrela, elkarrekintza eta elkar harremaneko sare konplexua da, eta ekintzen bidez, hauek bere dinamika eta jarrera markatzen dute. Hori dela eta, lotura soziala naturalen eta hauen rolen inguruan burutu nahi den edozein ekintzak, harreman sozial horien eta sareen ezagutza izan behar du. Horretarako sareak, eta hauen patroia estruktural zein eraginak aztertu behar dira. Batetik, ezaugarri estrukturalak dagokionez, hots, tamaina, dentsitatea, dispersio geografikoa etab., eta bestetik, elkarrekintzakoei dagokionez, hau da, edukia, aniztasuna, homogeneitatea, elkarrekikotasuna etab. Hori eginda, pertsonentzat hauek duten esanahi subjektibo eta eraginaren inguruko gakoak ezagutu ahal izango ditugu (Navarro, 2004, 48. or).

Modu honetara, gizarte-langintzaren barruan, gizarte-langileen ekintzaren erdigunean norbanakoa kokatuz eta bere testuinguruko harreman sareen abiapuntutzat hartuta, maila individual eta komunitarioaren artean egon daitezkeen kontraesanak gainditzen dira. Komunitatea sare sozialen baitan ulertzea, ez dator bakarrik norbanako edo familiak lan eta analisi subjektu moduan ulertzetik, antolakunde, talde, harreman formal eta informalak ere komunitatearen baitan dauden subjektuak direla ulertzetik baizik. Hauetako kide bakoitzak sare bat baino gehiago izango ditu, eta aldi berean, elkarreaginean daudenak gainera (Pastor, 2015). Pertsonak hainbat babes sozialen iturri ditugu: sare naturalak, lagunak, familia bizilagunak...; babes informaleko antolakundeak, gizarte mugimenduak, mugimendu solidarioak etab. eta babes formala eskaintzen dituzten zerbitzuak, besteak beste, gizarte zerbitzuak (Navarro, 2004, 51. or).

Aurrekoaren harira, oinarrian komunitateak eskaintzen duen babes sozialak norbanakoaren ikuspegitik ere komunitatera gerturatzeko aukera ematen du. Horrela, komunitateak honen parte diren norbanakoaren zailtasun egoeren aurrean izan dezakeen

eragina baliotzen da. Izan ere, pertsona batek bere zailtasun egoerei aurre egiteko izan ditzakeen gaitasun edo baliabide propioez gain, komunitateko antolakunde, sare pertsonal eta gizarte sareetan sartu, hauetan kolaboratu, edo hauen parte den heinean, bere zailtasun egoerei aurre egiterako orduan eragin oso positiboa izan dezake, guztiz lagungarria bihurtuz. Faktore hauek guztiak, beraz, babes soziala osatzen dute eta ikuspuntu alternatibo eta eraldatzailea da, babes harremanetan oinarritzen delako modu parekideago bat proposatuz. Gizarte babesa hiru motatakoa izan daiteke (batak bestea kendu gabe bada ere):

- “Afektibo edo emozionala: Onartua, baloratua eta ulertua izateak suposatzen duen autoestimua da eta afektu eta zaintza positiboen bidez azaleratu eta indartzen da.
- Formatibo edo instrumentala: Sareetan sartu edo parte izatearen eraginez, norbanakoek dituzten perspektiba berriak; ikuspuntuak; informazioa edo orientazioa; konponbide posibleak eta pertsona, antolakunde... jakinengana heltzeko aukera da.
- Materiala: Laguntza konkretuaz, zerbitzuez edo baliabide ekonomiko zein bestelakoez osatzen da” (Pastor, 2015, 59. or).

Gaur egungo gizartearen dinamismo eta konplexutasunak aldaketak dakartza identitate pertsonal eta sozialetan, eta ondorioz, izan daiteke sare pertsonal, sozial eta komunitatekoak bat ez egitea. Gainera, hori guztia dela eta, norbanako bakoitzak sare bat edo gehiago izan ditzake, batak bestearekin elkarrekintza gehiago edo gutxiagorekin, bere bizitza egiteko moduaren arabera. Guztia kontuan izanda, komunitateko mugak gaindituko lituzkeen mapa bat osatuz, norbanako bakoitzaren sare sozial edo pertsonalek konexio ugari izan ditzake; baina, aldi berean, norbanako batzuk lotura urriak izan ditzakete, eta gainera, ez oso estuak. Kasu honetan, baina, lurraldea erreferentzia izan daitekeen arren, ez da beharrezko elementua (Velasco, 2018).

Ikuspuntu komunitario honetan, dimentsio kolektiboak garrantzia hartzen du, esku-hartze mailak gaindituz, eta hausnarketa egingarritasunak dimentsio hauek barnebiltzen ditu: indibidual zein kolektiboa; objektiboa zein subjektiboa eta estrukturala zein harremanezkoa. Dimentsio kolektiboak horrela, lan komunitarioan garrantzi handia hartzen du.

Helburutzat garapen integral, jasangarri eta orekatu bat duen ekintza komunitarioaren problematika aztertu eta horri ekiteko, ezinbestekoa da komunitatea beraren dinamika eta berezitasuna azaltzen edo ulertzen dituen elkar harremanen dimentsioen aniztasunaren ezagutza. Atalkako azterketa eginez, osotasunaren bertuteak galtzen dira eta ez litzateke

komunitatea estrukturala eta erlazionala integratzen dituen gizarte sareen sistema bezala ulertuko (Pastor, 2016).

Azkenik, komunitatea gizarte sareen baitan ulertzeak, gizarte-langintza komunitarioan aldaketa teorikoak ekartzeaz gain, operatiboak ere ekartzen ditu. Gizarte-langile bezala, komunitatean existitzen diren baliabide naturalak ezagutzean; baliabide hauen erabilera suspertzean, eta talde eta kolektiboek babes funtzioa burutu, eta baita agian baliabide berriak sortu ditzaten erraztatzaile lanak egitea ere. Erronka komunitatean dauden babes rolak artikulatu eta koordinatzea da, betiere, identifikatutako beharrezanekiko koherentzian. Horrela, beste eragile batzuekin batera babestuko gaituzten komunitateak koeraikiko ditugu, pertsonak beren bizitza modu autonomoan eta bizigarrian bizi ahal izango dituzten komunitateak. Horretarako, besteak beste, sare naturalen babesa indartzea; kolektiboen arteko konexioa erraztea; elkar babesteko sareak sustatzea edo baliabideak identifikatzeko komunitateko eragile klabea identifikatu zein liderren arteko loturak sustatzea bezalako estrategiak erabili daitezke (Navarro, 2004).

Gizarte-langileen jardun komunitarioa gidatu ditzaketen eredu nagusiak ezagutu eta gero, orokorrean, jardun profesionalan, aipatutako guztien eraginak izan ohi direla esnago genuke. Izan ere, gaur egun, inork ez du bere jarduna eredu bakarraren influentziaz egiten, eta praktikan norbere izaera profesionalaren arabera, eredu bakoitzetik elementu batzuk hartzen ditu.

Honi guztiari erantzuteko, Pastorren (2015) aburuz komunitateko gizarte-langintza tradizionala gaingitu eta garaikidera salto egin behar da. Lehenengoak eskaerei erantzuten die behin arazoa sortua izanik, eta babes sareek ezin dutenean bere funtzioa gauzatu. Aldiz, garaikidean babes sareak ekin eta eskaria planteatu baino lehenago hasten da. Tradizionalean gainera, ekintza profesionala araudiak eta erakundeek jarritakoak jarraitzen dituzte, eta programek eta erabiltzaileen problematikek definitzen dituzte. Bitartean, bizi baldintzen eta herritarren testuinguruarekin lotutako ekintza planteatzen du garaikideak. Azkenik, lehendabizikoan herritarretan jartzen da ardura, eta beraiei zuzendutako esku-hartzea gauzatzen da. Aldiz, lan komunitario garaikidean, ardura konpartitua da herritarren, profesionalen eta politikaren artean, eta ekintza gizarte sareei zuzendutakoa da.

Pastorrek bere proposamenean, analisi eta ekintza komunitarioan harreman profesionalak duen garrantzia azpimarratzen du. Inplizitua azaleratzea ezinbestekoa dela adierazten du,

testuingurua beste begirada batekin aztertzen ikasi behar dela, arreta bereziarekin, begirada berriarekin. Ikuspegi ekologikoa izateak lan egiten den pertsona, talde eta entitateen lekuan jartzera eramaten duela dio, guztien proposamenak eta haien arteko loturak identifikatuz. Bide batez, hauen gaitasunak ezagutu behar direla dio, konpartituak edo kontrajarriak diren interesak ikusiz, eta begirada errealista eta harremanezkoago bat eraikiz, identitate eta errealitate komunitario berritzaileetara orientatua. (Pastor, 2015: 89).

- *Eredu praktikoak*

Eredu teorikoak dauden bezala, komunitateko gizarte-langintzaren baitan ere eredu praktikoak daude. Autore bakoitzak bere sailkapenak egiten ditu, eta honenbestez, eredu ezberdinak izendatzen dituzte. Sailkapena gauzatzean erabiltzen den zehaztasun mailaren arabera, eredu gehiago edo gutxiago badaude ere, hiru dira nagusiki egun aurkitu daitezkeenak.

Bilakaera historikoaren atalean ikusi ahal izan dugu, hasera batean bi eredu teoriko praktiko eman zirela, batetik, komunitate antolakuntza, eta bestetik, komunitate garapena. Hala ere, Rothmanek (1970) egindako sailkapenean ekintza sozialaz, tokiko komunitatearen garapenaz eta planifikazio sozialaz mintzo da. Sailkapen hau izan da erabiliena, eta egungoak ere, horretan oinarritzen direla esan dezakegu. Horrela, sailkapen tradizionaltzat izendatu dezakegu, nahiz eta gainerako sailkapenak ere sailkapen horretan oinarrituak izan. Urteen poderioz jasotako eraldaketak barne hartzen dituzten hainbat autoreen lanetan oinarrituta (Rothman, 1970; Lillo eta Roselló, 2005; Pastor, 2015; Ballester, 2015; Velasco, 2018), hurrengo da eredu ezberdinak labur jasotzeko osatu dugun taula.

2. Taula: Eredu praktikoak edo esku-hartze ereduak komunitateko gizarte-langintzan

Elementuak	Planifikazio soziala (koordinazioa)	Komunitateko (tokiko) garapena	Gizarte ekintza (ekintza politikoa)
Helburua	Komunitateko oinarrizko arazoak konpontzea.	Komunitate gaitasuna areagotzea eta arazoan lanketa kooperatiboa egitea (autolaguntza, konpromiso kolektiboa sustatzea...).	Botere-harremanak iraultzea, zapalduetako taldeak baliabidez hornituz (aldaketa instituzionalak, normatiboak... eta botere harremanak iraultzea).
Gakoa	Ekintzetan zentratzen da.	Prozesuan zentratzen da.	Ekintzetan zein prozesutan zentratzen da.
Komunitatearekiko ikuspegia	Komunitate horri espresuki eragiten dioten arazoak dituen antolakuntza bezala ikusten da.	Gainerako gizartetik bereizten den eta errealitate geografiko, hots, lurralde jakin batean kokatzen den unitatea.	Komunitatea gizartea bezala, botere eta pribilegio hierarkia bati lotua dago, eta ondorioz, kide batzuk zapalduak daude, injustizia soziala pairatuz.
Komunitateko kideekiko ikuspegia	Komunitate osoa edo honen zati bat. -Kontsumitzaileak: komunitateko kideak zerbitzu eta baliabideen kontsumitzaile gisa ulertzen dira.	Komunitatea bere osotasunean. -Herritarak: komunitateko kideak herritar bezala kontsideratuak dira.	Komunitatearen zati bat. -Biktimak: Komunitateko buruek ekintzak zein helburuak erabakitzen dituzte, eta kideak elektoreak edo enpleatzaileak dira.
Subjektuen rola	Eraldaketara bideratutako ekintza zein politiketan ez dute inolako parte-hartzerik.	Profesionala eta herritarren artean ematen den prozesuaren parte-hartzaile aktiboak dira.	Ez dute erabakirik hartzen.
Botere egiturak	Ez dira komunitatearen parte gisa ikusten, babesteko eta kontrolatzeko figura baitira.	Prozesu kolektiboko eta komuneko kide bezala ikusten dira.	Ekintza helburua dira, izan ere komunitatetik at aurkitzen dira, kideak zapalduz eta oposizioa eginez.
Profesionalaren rola	Aditua.	Erraztatzailea, trebatzailea.	Ekintzailea.
Lan estrategiak	Beren arazo edo zailtasun egoeretan inplikaturiko den jende kopuru handiaren inplikazioa bilatzen da.	Arazoen inguruko datuak jasotzen dira eta ekintza logiko edo arrazionalena burutzen da.	Kideen mobilizazioa sustatzen da eta gatazka kolektiboko gakoak nabarmentzen dira.
Teknikak	Adostasuna bilatzen da, komunitateko kideen arteko komunikazio egokiaren bidez.	Kontsentsua edo gatazka, profesionalak egiten duen irakurketaren arabera.	Gatazka taktikak, ekintza zuzena, enfrontamenduak.

Iturria: Norberak egina.

Eredu tradizionaletatik haratago aldiz, badaude izendapen ezberdinekin jasotako bestelako eredu batzuk. Ballesterrek (2015) esaterako, gizarte mugimenduak, auzo antolakuntza, auzo ekintza edo koalizioak ere jasotzen ditu bere sailkapenean.

Beste autore batzuek (Navarro, 2004; Aguilar, 2020) eredu sistemikoa edo ekologikoa ere ikusten dituzte esku-hartze eredu bezala, baina, agian modu teorikoagoan azalduak izan ohi dira. Hala ere, aurrez aztertutako eredu teorikoak kontuan hartuta, eredu kritiko dialektikoari emandako garrantzia dela eta, ikerketa ekintza parte-hartzailea (IEP) bera ere eredutzat hartzea egoki ikus daiteke; finean, prozesu parte-hartzaileaz mintzo baikara. Parte-hartzea da goiko taulan aipatutako eruedetan alde baterantz edo besterantz mugitzen gaituen aldaera eta prozesu metodologikoa ere, horretan oinarritzen dela ikusiko dugu. IEPa beraz prozesu parte-hartzailea da eta objektua subjektu bihurtzen duen metodologia gainera. Ikerketa ekintzara bideratu behar dela dio, eta ekintzaren iturri izan behar duela, baita alderantziz ere, eredu teorikoetan Freire aipatzean esan dugun bezala.

Ikerketa ekintza parte-hartzailearen helburua beraz, subjektu aktibo izango diren komunitateko kideen artean partekatutako ikerketa egitea izango litzake gakoa (diagnostiko komunitarioa), ondoren ezagutza horiek, errealitatearen eraldaketara bideratuz eta ekintza hori bera, ikerketa eta ezagutzaren produkziara bideratuz. Errealitatea ezagutu beharra dago, honek duen testuinguru historiko eta kulturalaren baitan. Ondoren, komunitatearen egoeraren kontzientzia hartu eta modu progresiboan hau guztia gauzatzeko baldintzak hobetzen joan, parte-hartu nahi duen komunitateko kide ororen parte-hartzea sustatzeko baldintzak alegia. Profesionala eta komunitateko kideen arteko harremana horizontala da, eta komunitate guztiak, beren baliabide propioak dituzte errealitatea eraldatzeko eta bizi dituzten egoera espezifikoetara aurre egiteko (Ariño eta Ferran, 2009).

Modu laburrean ikusi badugu ere, argia da IEParen ikuspegia, egungo adiera praktikoko guztietan izaten dela kontuan, eta berebiziko garrantzia du eredu praktikoez mintzo garenean. Hala ere, ez gara honetan luzatu, izan ere, hurrengo atalean, metodologia azaltzen den atalean, berriz helduko baitiogu, zehaztasun gehiagorekin. Finean, gizarte-langintza komunitarioaren metodologia purua IEP prozesu bat bezala ulertu baitaiteke.

2.1.5. METODOLOGIA

Hurrengo lerroak, komunitateko gizarte-langintzaren prozesu metodologikoaren ingurukoak izango dira. Autore ezberdinek dituzte honen inguruko ekarpenak eta bakoitzak faseak edo etapak modu ezberdinetan izendatzen dituen arren, muinean antzeko ekarpenak egiten dituzte, eta guk bi landuko ditugu nahiz eta beste batzuei ere erreferentzia egin.

Pastorren proposamena landuko dugu, izan ere, egun tendentzia diren sare sozialen ikuspegia barneratzen du, baita tokiko garapenarena ere, beraz, berau lantzea interesgarria iruditzen zaigu. Bere ustetan, komunitateekin egiten den gizarte-langintzak osotasunean hartu behar du komunitatea, bere zailtasun, gabezi eta potentzialitateekin. Ikuspuntu estrategiko eta parte-hartzailea izan behar du, eta marko teoriko-kontzeptual eta metodologikoan oinarritua izan behar da. Pastorrek (2015) proposatzen duen metodoa, tokiko garapen estrategiko, integral eta jasangarrian oinarritzen da. Prozesua faseetan aurkezten du, baina etapak ez direla azpimarratzen du, izan ere, ez da prozesu lineala jarraitzen, zirkularra baizik, eta maiz, fase ezberdinak mugitu daitezke edo baita aldi berean eman ere. Ikuspuntu unitario eta integrala erabiltzen duela aipatzen du, eredu ekologikoan oinarritua. Honetaz gain, lehen esan bezala, prozesu zirkular bezala definitzen du eta hasiera daukan arren, bukaerarik gabea dela dio. Faseak edo “etapak” zirkulu irekitzat jotzen ditu eta beraien arteko eraginean elkar elikatu eta elkar eraikitzen direla gaineratzen du. Horren ondorioz, oso dinamikoa da eta etengabeko aldaketa eta berrikuntza dakar. Hauek dira bere aburuz pausoak: Komunitatearekin karakterizazioa eta bitartekaritza; analisi estrategikoa; esku-hartzearen formulazio eta formalizazioa; esku-hartze komunitarioaren proposamenaren inplementazioa eta esku-hartze ereduaren ebaluazioa, balidazioa eta birformulazioa.

Prozesu metodologikoa egitekoen eta prozesuan zentratutako helburuen arabera planteatzen da. Lehenengoa, emaitza hautemangarrietan zentratzen da, eta bigarrena berriz, autodeterminazioa bermatuko duen dinamika eta estruktura komunitarioak sustatzean. Azken hau “tokiko garapenaren talde / sare motorra” deitutakoaren bidez egingo da, eta gizarte-langilea beti talde horren atzean kokatuko da.

Honetaz gain, ezin dira alde batera utzi gizarte-langilearen lana kokatzen den erakundeen markoa, eta beraz, ezta erakundeek gizarte-langilearengatik espero dutena ere. Zentzu

horretan, alde batetik, erakundeek bultzatzen duten asistentzialismoarekin (familia eta norbanakoei bideratua) egiten dugu topo, eta beste batetik, herritarrek gure lanarekiko duten pertzepzioarekin, praktikaren bidez aldatzen joan daitekeena. Ondorioz, badago bi aspektu horietan zeregina, hau da, zerbitzuaren antolakuntza eta dinamikan perspektiba komunitarioa txertatzen joatea, alegia. Taldeekin lan egitea ahalbidetzen duen antolakuntza bermatu, baita politiketan eta tokiko erakundeetan eragiteko ahalmena eta parte-hartze mekanismo berriak sustatuz, beharizan indibidualak beharizan kolektibo sentituera eraldatzeko aukera emango duen espazio edo egitura sortu behar da. Horretarako, ezinbestekoa da gizarte-zerbitzuetako profesionalak dimentsio indibiduala zein kolektiboa barne hartzen dituen praktika profesionala ulertu eta garatzea.

- Komunitatearekin karakterizazio eta bitartekaritza

Komunitate bateko errealitate sozial, erlazional eta indibiduala barne hartzen dituen ikerketa ekintza prozesu sistematiko (sekuentzia logikoa duen prozesu ordenatu eta josia), sortzaile (erlazioak, ahotsak, ikuspuntuak, diskurtsoak eta abar integratzen dituen prozesu berritzailea) eta gogoetatsua (herritarrak protagonista izango diren prozesua) proposatzen da.

Ikerketa ekintza prozesu honek, diagnosia egiteko nahiko elementu eskainiko ditu, ekintza komunitarioko aukera posibleen diseinuan lagunduz. Komunitatea osatzen duten eragile guztiekin elkarlanean, moldagarriak izango diren lerro estrategikoak diseinatzen hasten da, elkarren arteko elkarrekintza, potentzialitateak, baliabideak, joerak, zailtasun edo erraztasun testuinguruak... barne hartuko dituen ikerketa eginda. Horrela, aktore ezberdinen ahotsak elkar elikatu egiten dira, eta errealitatearen azterketa erreal, anitz eta kritikoagoa lortzen da. Modu honetara, prozesuaren eta emaitzen benetako egile bihurtzen dira komunitatea osatzen duten eragile sozialak, eta ikerketa, ekintza bihurtzen da. Prozesu berritzailea izateaz gain, diskurtso, pertzepzio, eraikuntza sozialak... hartzen ditu aintzat eta kideekin ekintza gaitasuna sustatu eta bermatzen da, komunitateekin egiten den gizarte-langintzan. Parte-hartze soziala nahitaezko elementua da proposamen honetan, eta honako ekintzak planteatzen dira: Komunitatearen miaketa eta delimitazioa; komunitatearen ezaugarritzea (profila); ikuspegi komunitarioa izango duen lan eta zerbitzuaren antolakuntza; pertsona klabeen, liderren, taldeen eta gizarte antolakundeen identifikazioa; baliabideak eta gizarte sareak barne hartuko dituen direktorioa osatzea;

sentitutako beharren identifikazioa eta ekintza komunitario honetan parte-hartuko duten pertsona eta entitateek osatutako sare zabal edo garapen sozialeko taldea sortzea.

Prozesuaren zati honek, bi lerro paralelo izango ditu. Batetik, informazioa modu ez zuzenean jasoz, komunitatearen deskribapena eta esplorazioa egitea. Eta bestetik, komunitatean sentituak diren beharrian kolektiboen eta harreman sareen identifikazioa, eragile ezberdinen diskurtsoetan oinarrituko dena.

- Analisi estrategikoa

Fase hau, komunitateak sentitzen dituen beharrak identifikatu eta kontzeptualizatzeko prozesua da. Hauen kasuan, garapena, baldintzatzen dituzten arrisku faktoreak edo tendentziak aztertu daitezke, baita garapen edo aldaketarako ahalmen eta gaitasunak ere. Gainera, atal honetan beharren hierarkizazioa eta lehentasunak ezartzen dira, geroko estrategiak diseinatzeko. Plan, proiektu edo programen gauzatzeak izan dezakeen bideragarritasuna ezagutzeko baliagarria da, dauden medioak, baliabideak, eragileak, ahalmena eta sortu daitezkeen oztopoak kontuan izanik. Hori bi estrategia parekaturekin gauzatzen da; batetik, lan komunitarioa ahalbidetuko duten beharren hierarkizazioa eginez, eta bestetik, hauek bideragarritasuna neurtuz.

- Lan komunitarioaren (esku-hartzearen) formulazio eta gauzatzea

Hirugarren fase honetan, talde edo sare motorrarekin, gako estrategikoan kokatzen diren plan, programa eta proiektu komunitarioak diseinatzea eta gauzatzea da helburua. Proposatzen diren egoerak eskuratzeko gauzatu behar diren ekintzak hautatu, ordenatu, eta diseinatu behar dira. Gizarte-langileak taldearen eraginkortasunaren arabera, subjektuekin lan komunitarioa gauzatuko du.

Gizarte-langilearen lana talde motorra indartzea da. Egin beharrekoetan zentratzen lagundu behar zaie prozesu ekintzak gauzatzean, hau baita ekintza komunitarioaren implementazio eta garapen unea. Guztia egoki joateko, planifikazioa konpromisoen edo adostasun programatikoen bitartez gauzatzea garrantzitsua da. Horretarako, ardurak konpartitzea ekarriko duen ebaluazio eta jarraipenerako bitartekoen bidez egitea ezinbestekoa da, gauzatu zein aurreikusitako ekintzak eta jasotako emaitzak batuz. Programazio lanetan zentratutako helburuaz haratago, tokiko liderrak, taldeak eta antolakundeek gaitasunak sustatzea ere bada helburu, agertu daitezkeen zailtasun egoerak zein edozein aldaketa modu autonomoan gauzatu ahal izateko. Talde motorrak argi izan

behar du ez dela erakundearekin edo profesionalarekin gauzatutako kontratu bat, baizik eta komunitatea berarekin eta hau osatzen duten talde eta antolakundeekin. Tokiko kideekin akordioak egitean datza, eta gizarte langilearen rola aholkulari teknikoaren rola izango da, behar izanez gero. Planifikazio eta gauzatzeak etengabeko ebaluazio eta berrelikatzea ahalbidetu behar du.

- Ekintza komunitarioko proposamenaren inplementazioa

Helburu orokorra prozesu eta kanal parte-hartzaileak, antolakuntza komunitarioa, instituzioen arteko koordinazioa, eta zailtasun egoeren aurreko esku-hartze eta kudeaketa kolektiboa sustatu, indartu eta finkatzea da. Eginbeharrak hurrengoak dira: lehenik, kideek planteatutako estrategia eta programa/proiektuak martxan jartzea; bigarrenik, komunitatearen zentzu eta identitate kolektiboa sendotzea; eta azkenik, auto trebakuntzaren bitartez antolatutako tokiko garapen sarea finkatu zein talde eta lider endogenoak indartzea da. Garapen prozesuak berriz, iraunkorra eta sostengatua izan behar du, betiere komunitatek antolatutako ekintzaren bidez, gizarte prozesuetan aldaketak txertatu eta integrazio soziala bultzatuko duena, erabaki instituzional eta politikoen prozesuetan eragingo duena.

Garrantzitsua da esku-hartze komunitarioa ekintza errazekin hastea, arrakasta bermatuko dutenak, izan ere, herritarren motibazioan, konfiantzan eragingo dute. Horrela, modu kooperatiboan helburuak lortzeko gai direla ikusiko dute, taldeen artean entzutea, eztabaidatzea eta deliberatzea bermatuz. Sormena indartuko dute, inizatiba berriak garatuko dituzte, eta ikasketa prozesu bat gauzatuko dute. Aipatutako guztiak parte-hartzea areagotuko du.

Akonpainamenduko, gainbegiraketako eta koordinazioko prozesua izango da, bikoiztasunak edo praktika deskonektatuak ekiditeko, besteak beste. Gizarte-langileak azpitaldeekin lan egiten du, baita talde motorrarekin ere, antolakuntza, planifikazio eta ebaluazioak beharrezkoa duen osagai tekniko-zientifikoa bermatzen dela ziurtatzeko.

Berebiziko garrantzia hartzen du gizarte-langileak taldeak gainbegiratzeak, eta baita taldeei beraien praktikaren sistematizazioa (bi zentzutan: egitekoei dagokienean eta taldeen arteko eta barneko prozesuei dagokionean) egitera animatzeak ere. Sistematizazio txostenetan jasotzen den informazioa oso baliagarria izan daiteke prozesuak berak eskatzen dituen aldaketen jabetzeko eta ebaluatzeko ere. Azpitaldeak arduraz larregi ez kargatzea zaindu behar da, eta profesionalak hauen hasierako motibazioa erretzea edo

porrot sentrazioan bilakatzea eragotzi behar du. Hori gertatuko balitz, aldaketa prozesuetan eragin handia izango bailuke.

Berrikuspen prozesu hauek pertsonak eta taldeak beraiek egindako lanen inguruan pentsatzea ekartzen dute, modu horretara egindako aurrerapausoengatik zorientzea ahalbidetuz. Hauen errekonozimendua garrantzitsua da modu indibidualean zein taldekakoan, izan ere, talde sentimendua eta harrotasuna sustatzen ditu. Aldiz, gutxiago aurreratu den kontuek azterketa zehatzagoa eskatzen dute, batez ere, zailtasunaren jatorria ezagutzeko. Profesionalak kasu horretan, galdera ez kritikoak luzatu beharko ditu, inor mindu ez dadin.

Objektua den zailtasun edo arazoa ere, ebaluatuz, periodikoki berrikusi beharko da. Horrek talde eta azpitaldeak helburuetan kontzentratzea eragingo du, izan ere, hainbatetan azpitaldeek hasierako helmugetatik haratago doazen ekintzak egiten joango dira, eta berrikuspenak, lortu direnak eta artatu gabe geratu diren esparruen inguruan hausnarketa egitera bultzatuko du taldea. Hasiera batean, zailtasunaren inguruan egindako azterketara bueltatzea eskatzen du berrikuspenak, eta garrantzitsua da, sarri, zailtasunak aldatu egiten direlako. Gainera, azpitaldeek helburuak eta misioak ebaluatzeak, helburuak hasieran proposatutako epe eta mugetan betetzen direla ziurtatu dezake.

Sustatutako ekintza guztiak, komunitate guztira zabalduak izan behar dute etengabe.

- Esku-hartze ereduaren ebaluazioa, baliagarritasuna edo birformulazioa

Atal honetan, hasierako eta lortutako egoerak aztertuta, esku-hartzea ebaluatzea da helburua, lan komunitarioko eredu iraunkor bat lortzeko bidean. Ebaluazioa prozesu metodologiko osoan egongo da presente, baina amaieran, helburuen lorpenen zein prozesuaren ebaluazioa egin eta bertatik eratorritako ezagutza komunitate osoarekin partekatzea da helburua, baita komunitate zientifikoarekin ere.

Azken ebaluazioak egindako aurreikuspenak eta lortutako emaitzak alderatzea dakar, prozesuaren arrakasta esperotako eta lortutakoaren arteko ezberdintasunen kausak identifikatuz, neurtuta. Ebaluazioak erabilgarria (hobekuntzarako elementu praktikoak eskaini behar dituzte emaitzek), praktikoa, errealista, parte hartzailea, kreatiboa eta objektiboa izan behar du.

Behin ekintzak amaituta, planteatutako neurtze eta erregistro instrumentuetatik ateratako informazioa batu, sistematizatu, sailkatu eta aztertzeke unea da. Erregistro dokumentuek

prozesua eta ekintzak jasotzen dituzte eta dokumentazioa eta informazioa sistematikoki jasotzea ahalbidetzen dute. Neurtze instrumentuek berriz, esku-hartzea baino lehenago eta gero, kualitatiboki eta kuantitatiboki objektua nola dagoen jasoko dute. Esaterako, hauek izango dituzte kontuan: aurrerapausoak, programaren koherentzia esku-hartze helburuekin, helburu bitarteko eta emaitzen arteko lotura, ekintzen garapenera herritarrak batzeko mekanismoak eta sortutako estrukturen funtzionamendua eta koordinazioa.

Horren harira, behin ebaluazioa eginda, parte diren sare ezberdinak etorkizunera begirako hausnarketa batean murgiltzea komeni da, prozesu berriak martxan jartzeko bidean. Ezinbestekoa da errekonozimendua, hau da, lortutako errekonozitzea, lorpena txikia izan bada ere. Horrela, komunitate sentimendua eta sentimendu kolektiboa areagotu egingo dira, lan eta prozesu berriak aurrera eramateko gogoia piztuko da, eta sentsazio positibo asko azalduko dira.

Talde motorrak prozesuaren “produktua” izango denaren aurkezpena egin beharko du, eta honek egindako ebaluazio prozesua, lortutako egoera eta jasotako emaitzak, ondorio nagusiak eta etorkizunera begira dauden iradokizunak jaso beharko ditu. Hau gauzatzeko, teknika ezberdinak erabil daitezke: bilerak, panelak edo komunikabideak. Emaitzen difusioa herritarrentzako beraiengandik eta beraiek sortutako informazioaren itzultzea izateaz gain, talde eta erakundeei beraien lana justifikatzeko eta prozesuan herritar berriak batzeko baliagarria zaie. Honetaz guztiaz gain, gizarte-langintzari, teoria berria sortzeko baliagarria izango zaio.

Behin ebaluazioa eginda sortuko diren hurrengo ekintzetan, gizarte-langilea prozesutik aldentzen joan beharko litzateke, prozesuan dauden kideei modu autonomoan lan egitea ahalbidetuz (Pastor, 2015, 157-188. or).

*Marchioniren eredu*a lantzea ere garrantzitsua iruditzen zaigu, izan ere, gure testuinguruan gehien garatu izan den eredu da. Pastorren ereduaren oinarrian ere badagoela esango genuke, eta horrela definitzen du berak hurrengo lerroetan landuko dugun prozesua:

“El proceso comunitario no es algo espontáneo, alguien tiene que tomar la iniciativa y siempre es trabajo profesional, aunque cuente con el voluntariado. Este trabajo será posible si hay voluntad política, por parte de las administraciones como de la población y voluntad científico-técnica, ya que la realidad actual es compleja y en el futuro será más compleja y diversa por lo que necesitamos conocimientos y ciencias aplicadas para la mejora de las condiciones de vida de todos, no solo de unos cuantos” (Marco Marchioni, 2015).

Bere ustetan, prozesu komunitarioak, hiru protagonista (erakundeak, teknikariak eta herritarrak) dituzten prozesu globalak dira. Prozesuak komunitate konkretu baterako erabilgarriak dira, kasu bakoitzean bere lurraldea, biztanleria, eskariak eta baliabideak baitituzte, baita lurralde horrekin bat datorren administrazioa ere. Prozesu hezitzailea dela dio, eta hiru eragileek identifikatutako hasiera puntu batean jartzen da lehen harria. Parte-hartzea ezinbestekoa da, eta kontuan izan behar da mundu globalean aurkitzen den eremu jakin bateko tokiko garapenarekin zerikusi duela.

Prozesu metodologikoaren giltzarrietako bat ekipo komunitarioa da, eta honen funtzio eremuak hurrengoak dira: komunitatearen antolaketa, koordinazioa, programazioa eta planifikazioa; garapen komunitarioa eta ezagutza zein ikerketa. Beste giltzarria aldiz, diagnosi komunitarioa da. Diagnosi hau, prozesuaren oinarria izango da, lehentasunak, edukiak eta helburu komunak identifikatzen lagunduko baitu, eta hiru eragileek partekatutakoa eta eraikitakoa izan behar du, hau da, kolektiboa. Hala ere, lan teknikoak bere pisua izango du, diagnostiko kolektibo, parte-hartzailea sortzeko ardura baitu, betiere, beste bi eragileei beren protagonismoa kendu barik. Horretarako, aurrelan bat egin behar da, monografia komunitarioa alegia, eta komunitatearen ikerketa globala izango da. Azken honek oinarrizko analisi estrukturala, analisi sektorialak, adin taldeetako analisia eta zeharkako gaien analisia hartzen ditu bere baitan. Ikusi dezakegunez, parekotasun handiak ditu Pastorren proposamenarekin, Marchioniren proposamena izan baita urteetan espainiar Estatuan egon den erreferentziazko metodologia bakarra.

Metodologia komunitarioari dagokionez, funtsezko kontzeptu batzuetan oinarritzen da, teknikarien eta ekipo komunitarioaren ekintza zuzenduko duten kontzeptuetan, alegia. Kontzeptuak parte-hartzea eta antolakuntza dira, herritarren parte-hartzerik gabe ez dagoelako prozesu komunitarioak. Prozesu komunitarioa ez da ekintza solteak eskaintzea, baizik eta erabakigunean eta neurri eta ekintza jakinen gainean erabakiak hartzeko parte-hartze aktiboa emateko aukerak sortu eta bermatzea da. Ekipo komunitarioaren eginkizuna, beraz, beren baliabide propioak zein berrien sustapenaren bidez, herritarrak antolatu daitezen teknikoki laguntzea da, denborak, ordutegiak eta antolakuntza sozial berriak kontuan hartuz. Antolakuntza berriak gertatu behar dira, gizarte eraldaketa eman ahal izateko, hau da, herritarrak beraiek antolatu beharra dute, ekipo komunitarioak denboraren poderioz gidaritzatza hauei emateko. Dauden talde eta elkarteak sustatzearen bidez, berriak sortu daitezen lan eginez eta komunikazioa,

kolaborazioa eta guztien artean prozesu komun eta globalaren ideia mantendu dezaten bermatu behar da. Profesionalen eginkizuna horrenbestez, eginkizun pedagogikotzat hartu daiteke, herritarrek prozesu hauen bidez parte-hartzen ikasi dezaten lan egin behar delako.

Metodologia komunitarioak elementu iraunkor batzuk dauzka eta horiek argitzea ere garrantzitsua da.

- Informazioa

Lehenik eta behin, informazioa dago bere dokumentazio sistemarekin. Informazioa prozesuaren ezinbesteko pieza bat da eta hiru eragileentzat da garrantzitsua, ekintza, proiektuak, programak, gaizki egindakoak, ondo eginak etab. jaso behar baitituzte. Informazioa eragile guztientzat bera izatea oso garrantzitsua da era parekidean parte-hartu ahal izateko, nahiz eta ulergarriago izateko, maiz hizkera ezberdinaz egin. Prozesu publikoa denez, ezin da informazio sekretu edo pribilegiaturik egon. Honetaz gain, informazio etengabe itzuli behar da, egiten diren ikerketa parte-hartzaileak sozializatuz eta zabalduz, eraldaketarako baliagarria izan dadin. Informazioa parte-hartzeko ezinbesteko erreminta bezala ulertuz gero, berau antolatzeke sistema egokia garatzea zeregin garrantzitsua da.

- Koordinazioa

Bigarrenik, koordinazioa ere ezinbestekoa da. Prozesu komunitarioak, ezin du jada komunitatean dagoena ordezkatu edo ezin da egiten den lan komunitarioaren gainetik jarri, izan ere, honekin integratu behar da. Hori horrela izanik, lehenik eta behin, aurrez dagoena balorean jarri behar du, aldaketak edo hobekuntzak behar izanez gero, jada lan komunitarioa egiten ari den jendeak aipatu eta onartu beharko lituzke. Komunitate jakin bateko baliabide ezberdinen arteko koordinazioa lan komunitarioaren helburu edo epe motz-ertaineko emaitza bezala ikus daiteke, baina hau ere prozesua da, eta ondorioz, hainbat fase izan ditzake: informazio trukaketa eta elkar ezagutza; uneko kolaborazioa edo kolaborazio egonkorragoa; egoera edo kolektibo jakinen aurrean lan egiteko baliabide ezberdinen arteko kolaboraziorako protokoloak burutzea, eta diagnosi komunitarioa bera edo programazio komunitarioa.

- Autoezagutza: entzun eta ezagutzea

Hirugarrenik, entzutea eta ezagutzea nahitaezko elementuak dira, komunitateak ezin baitu aldaketa eta hobekuntzarik egin auto-ezagutzarik gabe. Komunitateak bere baliabide, egoera, arazo, gaitasun eta abarren ezagutza izan behar du, eta hori prozesuaren une ezberdinetan gertatuko da (monografia komunitarioan, diagnosian, ikerketa espezifikotan, aldaketa demografikoak gertatzean etab.), unean uneko beharren arabera eguneratu beharko dena. Errealitatearen ezagutzarako edozein ikerketa ekintza da baliagarria, beraz, horien emaitzak jende guztiak eskura izan behar ditu, aldaketaren mesedetan erabili ahal izateko. Horretarako, ezagutzaren sozializazioa eman behar da hiru protagonistentzat, parte-hartze parekidea bermatu eta eztabaida objektiboagoa burutzeko. Hau guztia aurrera eramán ahal izateko, edozein ezagutza lan modu parte-hartzailean gauzatzea da garrantzitsua, eta oinarriko metodologia bihurtzen da ikerketa ekintza parte-hartzailea. Metodo egokiena entzutea da, hots, hiru protagonistekin entzute aktiboa praktikan jartzea. Entzutearen prozeduran, berdin izan behar dira kontuan informazio objektibo zein subjektibok, horrela bakarrik lortuko baita aldaketa ahalbidetuko duen errealitatearen ezagutza.

- Programazioa eta ebaluazioa

Azkenik, programazioa eta ebaluazioa ere beharrezko elementuak dira. Ekintzak era planifikatuan burutu ezean, isolatutako ekintzak izango dira, ez besterik, eta hori ekiditeko programazioa garrantzitsua da. Egiten ez bada, maiz, helburuak bistaz galtzen ditugu, momentuko emaitzek epe luzekoak desitxuratu ditzaketelako. Horretarako, hiru maila ezberdin aurkitzen dira: batetik, prozesuaren ekintza zentralak, erro eta lehentasun komun eta globalak barnebiltzen dituenak; bestetik, programazio sektoriala eta adinkakoa, eta azkenik, programazio eta proiektu espezifikoak. Horrela programazio komunitarioa egin dezakegu, betiere hainbat irizpide betez gero: metodologiak epe luzekoa izan behar du; epe motz, ertain zein luzeko helburuak ondo definituak izan behar ditu; etengabeko ebaluazioa burutuko du eta bokazio globala, sektoreartekoa eta zeharkakoa izan behar du. Programazio komunitarioa, protokolo ezberdinekin, ekintza anitzekin eta mahai sektorialekin osatu daiteke. Ikus daitekeen bezala, oso konplexua da eta aurrez aipatutako elementu eta gako guztiak hartu behar ditu bere baitan. Azkenik, ebaluazioa burutu behar da eta prozesuaren dokumentazio egoki batean oinarritzen da. Bi motatako ebaluazioak daude; batetik, barne ebaluazioa, hausnarketa autokritikoa alegia,

ekintza-hausnarketa-ekintzaren bidez egiten dena, eta bestetik, ordea, kanpo ebaluazioa edo ebaluazio publikoa dago, hiru protagonisten artean gauzatutakoa. Ebaluazioek gainera, etengabekoak eta jarraituak izan behar dute, eta helburua gaizki eginak zuzentzea denez, aurrez sortutako ebaluazio sistema malgua edukitzea eskatzen du. Honek guztiak, programazioa ere malgua izan behar dela ohartarazten digu, izan ere, momentuko egoerei moldatu behar da.


Bukatzeko, Marchioniren proposamenarekin amaitze aldera, garrantzitsua da hiru zirkuluen teoriari tartea egitea, bere aburuz, praktika komunitario eta parte-hartzaileetatik eratortzen dena. Izenak dioen bezala, hiru zirkulu daude: lehenengoa, nukleoa da, hau da, inizatiba izan dutenak gehi prozesua partekatu eta guztiz babesten dutenak osatzen dute. Bigarrena, kolaboratzaile partzialek osatzen dute, hau da, proiektua babesten dutenak, baina era puntual batean soilik parte-hartu dezaketenak. Hirugarrenik, aldiz, zirkulu informatiboa dago, parte-hartu ezin edo nahi ez duten pertsonak osatzen dutena. Hiru zirkulu hauek ez dira hertsiak, hau da, badago batean hasi eta hirugarrenean bukatzen duen jendea edota alderantzizko bidea egiten duena ere. Mugimendu horiek bermatzeko, prozesuan zehar, hiru zirkuluetara iritsiko den eta informazio berak osatzen duen fluxu informatzaile konstantea behar da. Hori horrela izanik, prozesuaren jarraikortasunean jarri behar da arreta, eta ez hainbeste pertsonen jarraikortasunean. Izan ere, egoerak aldakorak izan ohi dira, eta ezin da beti berdina eman. Autoreak gaineratzen du, herritarren egoera edo aukera pertsonalez haratago, osasun demokratikorako ona dela pertsonen mugimendua egotea.

Laburbilduz, Marchioniren proposamenak hurrengo eskema jarraitzen du. Hasiera batean, irekiera fase bat ematen da, ezagutza objektibo eta subjektiboa jasotzen aldera. Behin hori eginda, lehenengo itxiera ematen da, eta bertan monografia komunitarioa osatzen da. Berau egin eta gero, irekiera ematen da berriz, informazioa bueltatu behar da diagnosi komunitarioarako ezagutza biltzeko. Ondoren, bigarren itxiera baten, diagnosi bera egiten da eta gero, irekiera berri bat ematen da partekatzeko, eraldatzeko eta osatzeko helburuarekin. Azkenik, itxiera berri bat ageri da, programazioa, esku-hartze komunitarioa zein ebaluazioa egiteko itxiera da zehazki, segidan irekiera berri bat agertuz. Horrela, prozesuak etengabeko irekiera eta itxierak burutzen ditu, behin eta berriz osatu eta eraldatuz (Marchioni eta Morin 2016).

Landutako bi proposamenak aztertuz, bakoitzak bere izendapen propioak eta faseen antolaketa ezberdinak egiten baditu ere, komunak diren hainbat elementu eratorri

daitezke. Lehenik, beheko irudian ikus daitekeen laburpena kontuan izan eta aurrez azaldutako gizarte-langintzako metodoaren irudiarekin alderatzen badugu, komunitateko gizarte-langintzaren metodoa gizarte-langintzako metodo orokorrean oinarritzen dela ikus dezakegu, nahiz eta komunitateko lanketarako beharrezko espezifikotasunak izan. Bigarren elementu komuna parte-hartzeak komunitarioko prozesu metodologikoan duen pisua da, hau da, parte-hartze errealik gabe, ez dago lan komunitarioa gauzaterik (prozesu metodologikoaren ezinbesteko elementua baita). Hirugarrenik, IEParen metodologian oinarritzen den metodoa da. Zamanilloren ustez, gizarte-langintzako metodoa IEPa da oinarrian (Zamanillo, 2008), baina guk gaineratuko genuke, hau bereziki horrela dela. Gizarte-langintza komunitarioaren prozesua, finean ikasketa prozesu bat da, elkarreraginean profesionalek zein herritarrek eta erakundeek ikasten dutena. Boterea partekatzean dago gakoa, eta horretarako, informazioa partekatzea ezinbestekoa da. Prozesuan zehar, IEParen itxiera eta irekierak sumatu daitezke, informazioen lanketa gauzatzen den bakoitzean, komunitate osorako irekiera egiten baita, etengabeko hausnarketa sustatuz.

3.Irudia: Metodologia komunitarioa Pastor eta Marchioniren proposamenetan oinarrituz



Iturria: Norberak egina.

2.2. GIZARTE ZERBITZUAK


Gizarte zerbitzuak definitzerakoan, gizarte-langintza komunitarioa definitzerakoan gertatu ohi den bezala, zailtasun nabarmenekin egiten dugu topo. Eremu ezberdinetan, erabilera ezberdina izan ohi du eta ez dira oso esanahi zehatzak eta espezifikokoak izaten. Anbiguotasuna da bere definizioen ezaugarrietako bat (Aguilar, 2017) eta egun, mundu zabalean, bi zentzu izan ditzake. Batetik, gizarte-zerbitzuen aldera edo zentzu zabala aurkitu dezakegu, ongizate estatuko babes politika guztiei erreferentzia egiteko erabiltzen dena, besteak beste, 1948ko Giza Eskubide Unibertsalen Adierazpeneko 25.1 artikuluan erabilia. Bestalde, gizarte-zerbitzuen zentzu hertsia daukagu, mundu anglosaxoian, gizarte zerbitzu pertsonalak bezala ezagutzen direnak. Azken hau da, guk erabiltzen dugun adiera, gizarte politiken baitan, gizarte-zerbitzuen sistema bezala ere ezagutzen duguna. Autore askok bat egiten dute, hauetaz hitz egin behar denean, zertaz ari garen azaltzeko esfortzua egin behar dela azpimarratzean (Anaut-Bravo, 2019) eta guk ere horrela uste dugu, batez ere, hobetze aldera planteamenduak egin gura badira. Beraz, lan honetan, gizarte zerbitzuen zentzu hertsia buruz arituko garela argitzea da lehengo eginbeharra.

Behin hori argituta, aipatzekoa da gizarte zerbitzuak ongizate estatuaren baitan kokatzen direla, hezkuntza, osasuna, gutxieneko diru sarrerak, etxebizitza etab. bezalako babes sistemekin. Aldiz, osasun sistemaren pareko planteamendua badu ere, behintzat egiturei dagokionean, ez da horrenbeste garatu izan eta adituen artean, sarri, sistema bezala kontsideratua izan daitekeen ere zalantzan jarri izan da, funtzioak, ekintza eremua eta objektua bera bezalako ezinbesteko gakoak definitzeko ezintasunagatik, besteak beste. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren kasuan gainera, administrazio maila ezberdinek partekatzen dituzte funtzio eta ardurak, hain zuzen ere, Eusko Jaurlaritzak, maila autonomikoan; foru aldundiak lurralde mailan eta udalek, udalerrri mailan (Arrieta, 2020). Horrek guztiak, beraz, zalantzan jartzen du gizarte zerbitzuak ongizate estatuaren sistematzat har daitezkeen edo horren orde, beste sistema batzuen hondarrez arduratzen diren zerbitzuak ote diren (Santos, 2012; Aguilar, 2017).

Gizarte-zerbitzuen barne ezaugarrietan sakondu aurretik, gizarte-zerbitzuen egitura orokorra ezagutzea ezinbestekoa da, esanak esan, babes sozialaren sare publiko garrantzitsuenetakoa baitira. Ongizatea eta segurtasuna dira Maslowen beharrianen piramide ezagunean, oinarrizko beharrianen osteko mailan agertzen direnak. Nahiz eta

gero praktikan, batez ere, oinarriko beharrezanetan zentratu, gure ulertzeko eraren arabera, ongizatea eta gizarte segurtasuna dira gizarte-zerbitzuen eta orokorrean, babeserako sistema publikoen erantzukizuna diren beharrezanak. Hori horrela, Esping Andersenek (1993) Welfare Triangle terminoa erabiltzen du beharrezan hauei erantzuteko ematen diren forma nagusiak azaltzeko.

4.Irudia: Welfare Triangle



Iturria: Esping Andersenren triangeluan oinarrituta, norberak egina.

Triangelua, goiko irudian ikus daitekeenez, estatua, familia eta merkatua (enplegua) osatzen dute eta beraz, hauek dira pertsonoi ongizatea edo segurtasuna bermatzeko estruktura nagusiak. Estruktura eta eragileen artean, estatua aurkitzen da, ongizate estatuaren formarekin eta bertan kokatzen dira gure aztergai diren gizarte zerbitzuak. Argitzekoa da, ongizate estatu eredu ezberdinak daudela eta ezaugarritzen dituzten faktoreen artean, hauetariko estruktura bakoitzak jokatzen duen rola dagoela. Gure testuingurua ongizate estatu mediterranearra⁷ deritzon ereduaren barruan kokatzen da, nahiz eta EA Eren kasuan, Europa Erdialdekoarengana hurbiltzeko ahalegina egiten den.

⁷ Europako ongizate estatu ereduaren artean egiten den sailkapenean ere ez dago modu bakar bat. Lau eredu nagusi daude, Nordikoa, Liberala/Angizarte-langintzaosaxoia, Erdialdekoa/Bismarkena eta Mediterranearra edo Hegoaldekoa. Eredu mediterranearrak ezaugarritzen dituen ñabardura garrantzitsuak ditu: arduraren eta erantzukizun nagusia familia dauka; baliabide eta zerbitzuak inklusio laboralarekin erlazionatuta daude; sistema selektiboa izan ohi da, unibertsalaren ordez, zenbait kasutan eta ondorioz, gizartearen eragiten duena ezberdintasun sozialen birproduktzioa da (Moreno eta Mari-Klose, 2016).

Eredu mediterranearraren kasuan ezaugarri nagusia, ongizatearen eta segurtasunaren hornitzaile gisa familiak duen pisua da, batez ere, emakumearen lan erreproduktiboaren bidez gauzatzen dena. Horretaz gain, familiak ere segurtasun ekonomikoa eskaini izan du egoera latzetan eta baita etxebizitzaren bermea ere (Sanchez, 2020). Esandako guztiaz bereiz, gure ereduan enplegua gizarteratzeko giltzarri gisa ulertzen dela azpimarratzea ezinbestekoa da, izan ere, enplegu politikei lotzen dira hainbat baliabide.

Laburbilduz, pentsatu dezakegu, gure gizarte zerbitzuak ideia hau kontuan izanda diseinatu direla eta ondorioz, triangelua osatzen duten beste bi estrukturek (enplegua eta familia) bere rola beteko dutela ulertzen da. Interesgarria da aipatzea, beste ereduetan estrukturen pisua ezberdina izaten dela eta gizarte babes maila altuena dutenen kasuan, estatuak hartzen du beharrianak bermatzeko erantzukizuna eta ardura nagusia.

Ikerketa lan hau, gizarte-langintzaren ikuspegitik egindako lana da eta gizarte-zerbitzuetan, beste profil profesional batzuk aurkitu ditzakegun arren, gizarte-langintzarena da nagusitzen den profila eta beraz, hamaika dira diziplina eta lanbide honek, gizarte-zerbitzuei egin dizkioten ekarpenak (Las Heras, 2019). Ildo horretan jarraitzea da asmoa ikerketan lan honekin eta horretarako, behin gizarte-zerbitzuen lehen testuinguraketa orokorra eginda, komunitateko gizarte-langintzarekin aurreko kapituluan egin bezala, gizarte-zerbitzuen inguruan erabilgarri egingo zaigun markoa osatu dugu.

2.2.1. BILAKAERA HISTORIKOA

gizarte-zerbitzuen bilakaera historikoaz hitz egiteko, paraleloki, gizartearen egoeraz hitz egitea ezinbestekoa da, finean, fenomeno sozialek sortutako zailtasunei aurre egiteko sortzen baitira. Gaur egungo gizartearen konplexutasuna azaltzeak eta ezaugarri nagusiak ulertzeak garrantzia du, izan ere, eragin zuzena dauka erakundeek gauzatzen dituzten politiketan, horiek artean, gizarte-zerbitzuetan. Gizartea etapa berri batean sartzen den bakoitzean, erantzun egokia bilatzea erraza izaten ez den ezegonkortasun eta aldaketa momentuak bizitzen dira, paradigma aldaketek bultzatuta bizitza soziala, erakundeak... antolatzeko modu berriak aurkitu beharra izaten dalako. Fase hauek ziklikoak izaten dira eta momentu horietan, gizarte gaien inguruko ardurak agertzen dira. Beraz, ikerketan lan hau osatuago egite aldera, gizarte-zerbitzuen bilakaera gizarte errealitatearen bilakaerarekin batera aztertu ditugu.

Gizarte errealitateari errepaso laburrekin hasiko gara bada, ondoren gizarte-zerbitzuen bilakaerari heltzeko. Lehenik eta behin, azken mendeetako gertakizun garrantzitsuenen artean, gizarte tradizionaletik gizarte industrialera emandako aldaketa aurkitu daiteke. Gertaera horren ostean, XIX.mendearen amaierarekin batera *Cuestión social*⁸ delakoa agertzen da, hau da, nahiz eta lan ordaindua izan gizartearen gehiengoa pobrezia egoeran bizitzeak edo landa eremutik hirietara emandako exodoak eraginda, hirietan deserrotuta eta sare komunitario gabe bizi zen jende kopurua handiak eragindako gizarte ezinegona. Egoera honen aurrean, modu berrietan erantzuteko premia pizten da, karitatearen erantzuna ez baita aski. Horrenbestez, *Cuestión social* delakoak eraginda, gizarte-langintzaren sorrera ematen da eta ondorioz, bilakaera bat ematen da: karitatetik ongintzara lehenengo eta ongintzatik gizarte babesaren erantzukizun publikora gero.

Lehen fase hau eta gero, Ongizate Estatuaren sorrera etorri zen II. Mundu Gerraren ondoren emandako egoerei erantzuteko asmoz. XX.mendearen amaieran, aldiz, kapitalismoa eta etengabeko hazkundean dagoen korrante neoliberalak modu sendoan ezarriko duten, jatorri ezberdinetako krisi andana agertzen hasten dira. Estatuak ordura arte, ekonomian esku-hartzeko zuten gaitasuna galtzen joaten dira, krisi ezberdinei emandako erantzunagatik areagotzen dena. Ekonomia globalizatuen eta elite ekonomikoen boterea haziz joan den bitartean, gizarteko klase apalenen arteko elkartasunaren haustura ematen hasten da (Jones, 2016), gizarte tradizionalaren amaieran edo XIX.mende bukaeran gertatu bezala. Azken urteetako krisiek, izaera birbanatzaile urria eta beharrezko zein bazterketa egoeren aurrean ekiteko gaitasun txikia duten garapen sozial eta ekonomikoetako ereduera eraman gaituzte. Eta horren aurrean, Rosanvallón (1995) edo Barba-Solano (2010) bezalako autoreak *Nueva cuestión social* terminoa erabiltzen hasi dira.

Kohesio sozialaren hondatzea da egungo gizartearen ezaugarrietako bat, bizi baldintza materialen okertzeak eta ondorioz eragindako ezjakintasun etengabeak sortua. Lan ibilbidea gauzatzeko bermerik ez dago apenas eta ezta bizitza ibilbide oparoak izateko ere, batez ere jende gaztearengan. Aipatutakoak ezberdintasun sozialak nabarmen areagotzen ditu eta milaka eta milaka pertsona bazterketa egoeran geratzen dira, interes

⁸ La Cuestión Social: XIX. mendean Europan sortutako adierazpena da, norbanakoaren erantzukizuna bakarrik hartu beharrean, desberdintasunen sorrera sozio-estruturala kontuan hartzen duena. "Sistema kapitalistaren garapenari loturiko desberdintasunen adierazpena da, harreman sozialen adierazpena eta kapitalaren eta lanaren arteko harremanaren emaitza" (Parra, 2002, 35. or).

kolektiboen gaintik, interes indibidualak lehenetsiz. 2019ko FOESSA txostenak gizarte-zerbitzuek kontuan izan beharreko hainbat aspektu jasotzen ditu, esaterako, etxebizitzari, lanari edo familiari lotutako ezberdintasun sozialen adierazpen berriak. Aldaketa demografiakoak ere aipatzen ditu, bizi itxaropena igo eta gizartean ematen ari den zahartze prozesuaren ondorioz. Horrek aldaketa handiak sorrarazten ditu lan erreproduktibo eta zaintza lanetan. Antolaketa berriak ematen dira etxebizitzetan eta familia eredu berriek, kolokan jarri dute orain artean sortutako antolamendua, non emakumeek zaintza eta lan erreproduktiboak bere gain hartzen zituzten (Zuñiga eta Arrieta, 2021). Horretaz gain, kalitate demokratikoaren galeraz ere mintzo da txostena. Esaterako, pobrezia tasa altuak dituzten auzoetako abstentzioa %75era ere iritsi izan da eta pertsona hauen beharizanak agenda publikoetan sartzeari zailtasunak denez, honek ere eragiten dio gizarte-zerbitzuei. Ezin aipatu gabe utzi noski, Covid-19aren pandemiak eragindako egoera. Aurrez aipaturiko egoera sozialari pandemiaren eragina batu zaionean, egoera sozial oso larriak ikusi ahal izan dira. Aurreko 2008ko krisi ekonomikoak eragindako egoerak gainditu gabe ere, pertsona askori eragin die berriro, eta gainera, jende gehiago dago kaltetua, gizarte-zerbitzuetara bertaratzen diren herritarren kopurua ia bikoiztuz (Fantova, 2020a). Milaka pertsona aurkitzen dira krisi berri honi aurre egin ezinik, genero, teknologia, soldata... arrakalak gehitzen zaizkiolako jada egiturazkoa den gizarte bazterketa egoerari eta baita aurreko krisialdietako ondorioei ere.

Hala ere, aipatzekoa da, oraindik elkartasunaren hausturari edo indibidualismoari buruz gizartearen ezaugarri bezala mintzo bagaitezke ere, elkartasun uholdea deiturikoa ere ekarri duela pandemiak. Gizarteko kide izatearen sentimendua, kontzientzia soziala eta sentsibilitatea areagotu ditu, modu honetara, ekintza kolektiborako espazio interesgarriak sortuz. “En relación a los servicios sociales, se puede observar que la crisis ha favorecido a que emerjan con fuerza los diferentes actores presentes en la acción social, sus intereses, su fuerza y sus debilidades” (Zamanillo y Nogués, 2020, 3. or).

Gizarte egoeraz aparte, ezinbestekoa da gizarte-zerbitzuen oinarrian dagoen Welfare Triangeluaren eskemako esturkturako bakoitzak bizi duten eraldaketa ulertzea. Edozein planteamendu egiterakoan, eragile hauetariko bakoitzean ematen ari den transformazioa kontuan hartu beharko genuke, esan bezala, eskema horren gainean eraiki izan baita

ongizate estatua eta ondorioz, baita gizarte zerbitzuak ere. Modernitate likidoa⁹ bezala izendatu du Baumanek eta lehen sendoak ziren estrukturek bizi izan duten hauskortasun eta biguntze prozesuari egiten dio erreferentzia.

Enpleguari dagokionez, beste gauza batzuen artean, eredu ekonomiko neoliberalaren eraginek edo bizitzen ari garen iraultza teknologikoak enpleguaren ezegonkortasuna ekarri dute. Gaur egungo enpleguaren ezaugarri nagusiak prekarietatea eta ezegonkortasuna izanik, zaila egiten da enpleguak segurtasun eta ongizatearen hornitzaile papera ondo bete dezakeela pentsatzea (Aznar eta Azorín, 2010). Honek, eragin handia du gizarte-zerbitzuetan, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak duen babes sozialeko politikak, sarri, enpleguarekin zerikusia duten beste politika batzuegatik baldintzatuak egoten baitira. Hau da, sistemak enplegua ulertzen du gizarteratzeko elementu nagusi bezala, aldiz, aipatutakoaren ondorioz, ez da arestian eskaintzen zuen egonkortasuna eskaintzeko gai. Are gehiago, harreman hori irauli egin dela esango genuke, askotan merkatuak sortutako ezegonkortasunei aurre egin behar izaten baitie gizarte-zerbitzuek.

Familiari erreparatzean, gizartean, kulturalki eta harremanei dagokienez ematen ari den aldaketa handiari heldu behar zaio. Familiak ere, triangeluaren beste estrukturetako bat denak eta gure testuinguruan garrantzi handikoa gainera, ez dauka ongizatea eta segurtasuna bermatzeko zuen gaitasuna. Emakumea izan da lan erreproduktiboaren bidez, bizitzaren etapa ezberdinetan zehar, zaintza beharrezkoa izan den uneetan, lan hori egin izan duena eta egun, lan merkatura salto egitean, gizartearen beste edozein erakunderi eusteko ezinbestekoa den estuktura hau, ezegonkortu egin da. Ekonomikoki ere, etxebizitzak ez dira lehen besteko babes eskaintzeko gai, etxeetako aurrezteko gaitasuna ia desagertu egin baita (Foessa, 2019; Sanchez, 2020). Honekin batera, babes eta segurtasun hornitzaile bezala, familiaren erpin berean kokatu izan da komunitatea edo gizarte zibila. Aldiz, neoliberalismoak lagunduta gure gizartean lekua egin duen beste aldaketa kultural edo fenomeno bat indibidualismoa izan da. Indibidualizazio prozesuen bidez, lehen mailako babes, herritar antolatu edo gizarte mugimenduen harremana eta sarea desitxuratzen ari da (Beck, 2006). Honen harira, esan beharra dago, XX.mendeko azken hamarkadetan, gizarte errealitateen inguruko erantzukizun sozial kolektiboaren

⁹ Modernitate likidoa: Teoria horrek aurretik gizartean zeuden errealitate eta egitura sendoak (enplegu egonkorra eta beharrak betetzeko gai diren diru sarrerak bermatzen dituen, familia eta bere forma tradizionala, etab.), egonkortasuna eta babes emateaz arduratzen zirenak, lehen bezain sendoak ez direla azaltzen du, likidoak eta hauskorak direla. Adibidez, lan ibilbide prekarioak eta aldakorak, familia ereduak, etab. ondorioz, gizartean sekulako ezegonkortasuna sortzen da horrek dakarren guztiarekin (Bauman, 2000).

irudipena finkatu bazen ere, gaur egun, norbanakoa bere egoeraren arduradun izendatzeko joera hazten ari dela berriz.

Azken estruktura estatua da, ongizate estatua barne hartzen duena, alegia, eta kasu honetan ere, beste babes bermatzaileak bezala, estatua ez da gai bere rola gauzatzeko. Estatua (politika) lehen, herritarren bizi baldintza hobetzeko asmoz, ekonomia arautu eta bertan esku-hartzeaz arduratzen zen arren, egun, joko kanpo geratzen ari da neoliberalismoaren eta globalizazioaren aurrean, ez baita, prozesu ekonomikoak kudeatzeko gai. Politika, lehen bezalaxe tokikoa da orain ere, aldiz ekonomia globalizatu da eta estatuz gaineko erakundeek kudeatzen dute. Erakundeak beraz, ez dira babes sistemak politika neoliberal eta murriztatzaileen eraginetik at mantentzeko gai, murrizketak aplikatzen dizkiete horiei ere eta funtsean, babes gaitasuna jaisten da (Lzar et al., 2019). Horren ondorioz, jendartea haserretu, despolitizatu eta ahuldu egiten da eta gizarte problematiken erantzukizun publikoaren inguruan duen kontzientzia ezaren gainean, zergen bilketaren legitimazioaren, fiskalitatearen edo estatuak egin ditzakeen inbertsioen inguruan duen kontzientziazioaren gainean eragiten du.

Hauxe da beraz, gaur egun, gure testuinguruan gizarte babesak duen agertokia eta honek eskaintzen duen idiosinkrasia barruan ulertu behar da gizarte-zerbitzuen hasiera eta baita bilakaera zein egungo egoera ere.

gizarte-zerbitzuen sorrera eta bilakaera historikoari dagokionez, kontuan hartzekoa da, gizarte-zerbitzuen eraikuntza, gehientsuena bezalaxe, koiuntura politikoagatik baldintzatua egon dela. 1945ean, II. Mundu Gerraren amaierarekin batera, Europako herrialde nagusienetan, “Welfare State” aren sorrera hasi zen, baina aldiz gure testuinguruan oso bestelakoa izan zen garapena diktaduraren ondorioz, eta hiru hamarkada atzerako kokatu daiteke sorrera hori. gizarte-zerbitzuen bilakaera aztertzeko, badaude ongizatearen eta gizarte ekintzaren bilakaeran garrantzitsuak izan diren hainbat gertaera zein fase, gizarte-zerbitzuen aitzindaritzat hartu ditzakegunak. Labur bada ere, hauek ezagutzeak gaur egungo egoera hobeto ulertzera eramango gaitu.

XVI. mendea bitartean karitatea izan zen gizarte ekintzarako forma nagusia. Sustrai erlijioso nabarmena zuen eta sekula kausetan eragin gabe, problematikek zituzten ondorio larriak gutxitzen saiatzen ziren. Ondorengo mendeetan, ongintzaren fasea etorri zen eta aurreko fasean baino era antolatuago batean, behar gehien zutenei debalde eta diskrezionalki, baliabide publiko edo pribatuez finantzatzutako prestazioak ematen

zitzaizkien. Fase honetako ezaugarri garrantzitsuenetakoa, eskubide eza izan zen, sekula ez baitzen prestazioak jasotzeko eskubiderik lortzen. XVIII.mendean, aldiz, gizarte laguntza agertzen hasten da, ahula izanda ere, badago gizarte erakunde eta zerbitzuek beharizan egoeran aurkitzen diren pertsona edo taldeei ematen dieten erantzun publikoago bat. Ongintza gainditzeko saiakera izan zela esan ohi da, izan ere, “ongintzaren ekintza koiunturalaz haratago joan eta indigentziak gain, oinarrizko beharizanak asetzea zuen helburu”. Hala ere, ongintza kutsua nabariegia zen garai horretan, gainditu zela esateko (Gizarte-langintzaren Kontseilu Orokorra, 2020).

XIX.mendean, ordea, momentu berean eman ziren ongintza zein gizarte laguntza eta gizarte ekintza ardura publikoa bezala ulertzen hasi zen. Industrializazioa, Europako gainerako herrialdeetan baino beranduago ematen da gure testuinguruan, batez ere, eliza katolikoak zuen indarragatik eta ondorioz, estatuak ere, gainerakoek baino finantzazio gaitasun txikiagoa du, ez baita hazkunde ekonomiko nabarmenik ematen. Industrializazioa hain urria izanda, langile mugimendua ere, gizarte alorreko eskubide eta zerbitzuen sorreran presioa egiten duen eragile gakoetakoa, oso txikia zen. 1812an Espainiako Konstituzioa onartu zen eta izaera liberaleko konstituzioa zen, horrenbestez, ongintza zein gizarte ekintzaren ardura publikoa onartzen hasten da. Hau da, estatuak ardura dauka zeregin horretan eta arestian ongintzaren ideiak zirenei, forma juridikoa ere ematen zaie zenbait kasutan. Aurrez aipatutako guztiaren ondorioz, 1822an Ongintzaren Legea onartzen da eta nahiz eta urtebetera indargabetzen den, 1836an behin betiko onartzen da. Aurreko mendeetako kutsua izaten jarraitzen du, baina legea garrantzitsua da, ongintza publikoa antolatzeko plangintza martxan jarri baitzen eta ongintzarako udal batzordeak sortu baitziren, besteak beste, laguntza etxeak edo amatasun etxeak. 1849an Ongintza Lege berria onartu eta aurrekoa berresten da, estatuak ongintzaren gainean zuen kontrola areagotu eta eskumenak hiru administrazio mailatan banatzen dira lege berriarekin. Estatuak arazo iraunkorrak bere gain hartzen hasten da, esaterako, diputazioek/probintziek ama eta umezurtz etxeak, eta berriz udalek, hasierako arreta (Gizarte-langintzaren Kontseilu orokorra, 2020; Zabalo eta Moreno, 2011).

Mende horren bukaera aldera, aurrez aipatu dugun, *La Cuestion Social* izendatzen da. Momentuan ematen diren arazo sozialen larritasunagatik, esku-hartzearen inguruko perspektiba edo exigentzia eraldatzen ditu eta elizako zein estatuaren babesetik haratago doazen esku-hartzeen beharra nabarmentzen da. Bada, 1883an Gizarte Erreformatarako Batzordea sortu zen eta besteak beste, gizarte errealitateen, egoeren, problematiken

inguruan azterketak egiten hasi zen. Horiei guztiei erantzuna emateko ekintzak bultzatzen dira, esaterako, astean behin jai eguna izateko eskubidea, Prebentziorako Kutxa Nazionalaren sorrera (1989) edo istripuak izandako langileen egoerak arautzea. Aipatzen da, horrenbestez, ondorengo gizarte laguntzaren araudiaren erroa zela. XX. mendearrekin batera, Gizarte Erreformatarako Institutua sortzen da, baita 1908an Aurreikuspen Institutu Nazionala ere. Lehenengoak hartu zituen neurrien artean, amatasun legea egin, langileentzat zenbait erreforma, seguru sozialak sortu, estatuko barne migrazioa arautu etab. aurki zitezkeen.

Urte horien eta etorriko diren frankismoaren urteen artean, Primo de Riveraren diktadura ematen da, hain zuzen ere, 1923an eta ordura arte gizarte-arazoen jatorrian zegoen klase gatazka ukatu eta langile eta enpresarien arteko elkarrekintza bultzatzen saiatzen da. Urte horietan zehar, langile mugimendua, anarkismoa eta ezkertiaragoak izan daitezkeen zenbait mugimendu indartzen dira eta aurreko sistemaren gainbeherarekin batera, 1930eko apirilean II. errepublika aldarrikatzen da. Gertaera horrek, 1931ko Konstituzio aurrerakoia onartzea ahalbidetzen du eta bertan gizarte babesaren inguruko hainbat neurri hartzen dira. Bozkatzeko gizon eta emakumeentzat eskubidea, jabetza pribatuaren gainetik interes publikoa jartzea edo gizarte segurantzaren arautzea, besteak beste. Alor sozialean garai aberatsa izan zenari Gerra Zibilaren hasierarekin ematen zaio amaiera (Zabalo eta Moreno, 2011).

Frankismo garaiaz orokorrean hitz egin badaiteke ere, fase ezberdinak nabarmentzen dira, lehenengoa 1936tik 50eko hamarkada bukaerara eman eta estatuaren ongintza bezala ezagutzen dena eta bigarrena, ordutik 1978ra ematen dena (Santos, 2019¹⁰; Aguilar, 2019¹¹). Lehenengo fasea, estatuaren ongintza bezala egin zen ezaguna. Tarte honetako gizarte ekintza gosea eta gerraren bestelako ondorioak erantzutera bideratu zen, gizarte sorospenaren eta benefizentziaren bidez. Bigarren fasea, aldiz, 1978ra artekoa, gizarte laguntzaren fasea moduan izendatua izan zen eta hazkunde ekonomiakoak baldintzatu zuen. Honek sortutako arazoei, adibidez, herrietatik industria gunetara eta hirietara ematen den mugimenduari, erantzuten zien gizarte ekintzak edo baita, txabolismo edo marjinalitate egoerei ere. Azken garaia deskoordinazioak ezaugarritu zuen garaia da, gizarte ekintzaren antolaketa faltak, alegia, heterogeneotasun handia ematen baitzen.

¹⁰ Joaquín Santosek, 2019-2020. ikasturtean, UPV/EHUK eskainitako Gizarte-zerbitzuen Berrikuntza eta Kudeaketako graduondokoaren saioan esana. Gasteizen, 2019ko urriak 10.

¹¹ Manuel Aguilarrek, 2019-2020. ikasturtean, UPV/EHUK eskainitako Gizarte-zerbitzuen Berrikuntza eta Kudeaketako graduondokoaren saioan esana. Gasteizen, 2019ko urriak 15.

Legeak sortu ziren baina, sarri kontrajarriak edo bikoiztuak, ez baitzegoen gizarte ekintza eredu ezta proiektu argirik ere. Gizarte ekintzari egokitzen zitzaizkion gaiak ministerio ezberdinetan sakabanatuak zeuden: Osasun mentala eta pobreak osasun ministerioan; adingabeak justizia ministerioan; sindikatuak eta emakumeen sekzioa kulturaren; gizarte segurantzaren lan ministerioan eta Gizarte Laguntzarako Funtz Nazionala (FONAS), Gizarte Laguntzarako Institutu Nazionala (INAS) etab. Gobernu ministerioan. Aurrez aipatutakoez gain, garai horretan, hainbat izan ziren, sorrera esanguratsuak, besteak beste, 1937an Gizarte Segurantzaren, 1938an Once edo 1942an Caritas (Casado eta Guillén, 2001).

Aurreko guztia dela eta, ikus daiteke, Europako estatu gehienetan, Ongizate Estatua egonkortua zegoen bitartean edo hobe esanda, jada ia hogeita hamar urteko ibilbidea zuen bitartean, espainiar Estatuan ez zegoela horrelakorik, ekintza puntualak baizik, frankismoak guztiz baldintzatu baitzuen egoera politiko eta soziala. Beraz, hurrengoak izan ziren ezaugarri nagusiak 70eko hamarkadara arteko tartean: elizak gutxitua zuen eragina berreskuratu zuen eta esku-hartzeak ondorioz, kutsu paternalista nabaria zuten; laguntza erabat indibiduala ematen zen; orientabide eta aurreikuspen falta nabariarekin; esku-hartzean testuingurua ez zen kontuan hartua; egoitzei beharrezane baino garrantzia handiago ematen zitzaien; esku-hartzea ez zen tekniko edo profesionala, borondate onean oinarritutakoa baizik; ekimen pribatuak, publikoan baino gehiago eta indartsuagoak ziren eta azkenik, ez zegoen esku-hartzeak gauzatzeko finantzazio iraunkorrik.

Hala ere, bigarren fase horretan, badaude garrantzitsuak izan ziren gertakariak eta autore ezberdinen ekarpenen bidez jaso ditugu. 50eko hamarkadara arte, ekintza asistentziala egiten duten hamaika erakunde pribatu (Gurutze gorria, Once, Cáritas...) daude espainiar estatuan zehar. Beren funtzio nagusia, frankismo garaia izanik, txiroenei arreta ematea da, oinarrizko beharrezan asetzeko, ongintzaren bidetik (Gallardo, 2011). Hala ere, hamarkada honen bukaera aldera, sektore pribatuaren bidez, hainbat ekintza planteatzen hasten dira, asistentzian oinarrituz txiroei zuzendutako ekintzekin bukatu eta herri sektore guztia erantzun zuzendutako ekintza promozionalagoi ekiteko. Gainera, kanpotik etorritako erreferentziazko pertsonen, Marco Marchionik esaterako, kanpo eraginak ekarri zituzten eta esan daiteke, momentuan egin ziren planetan birkontzeptualizazio mugimenduaren eragina ere nabaritu zela, nahiz eta denbora askoan ez iraun. Besteak beste, Caritasen lan batek, lehenengo gizarte-zerbitzuen sistema baten nondik norakoak jasotzen ditu eta aldi berean, 1957an, *Documentación social* aldizkaria sortzen da, esku-hartzeen inguruko analisia, hedapena eta lanketa sustatzeko. Aipatzekoa da, baina,

mugarri hauek garrantzitsuak izan baziren ere, sektore pribatuaren eskutik ematen direnez, ez daukatela eskubiderik sortzeko gaitasunik (Casado eta Guillén, 2001).

60ko Hamarkada bukaera aldera, gizarte gaien inguruko bilera, jardunaldi, diskurtso eta eztabaidak egiten hasten dira, batez ere ordura arte, beste lanbide batzuen gerizpean ziren gizarte-langileen artean. Bestalde, hamarkada honen hasieran, zehazki, 1963an gizarte zerbitzu hitza agertzen da lehenengoz, hori bai, gizarte segurantzaren barruan. Horren ondorioz, gizarte zerbitzu hauek ere ez dute eskubiderik adierazten, batetik, langileek egindako ekarpenei lotuak daudelako eta bestetik, gizarte segurantzaren aurrekontuaren araberakoak direlako. Gallardok (2011) ezaugarri hauekin definitzen ditu ordura arteko gizarte zerbitzuak, ondoren, eraldaketarako bidean jarri asmoz aztertuko diren gizarte zerbitzuak:

- Ongintzaren izaera eta orientazioa ematen da.
- Filosofia paternalista dute.
- Laguntza indibidualaren ideian oinarritzen dira.
- Orientazio prebentiboaren falta dago, autonomian zentratu gabe.
- Tokian tokiko bizitza komunitariorik at daude.
- Ezarpenaren ideiare erantzuten diote eta ez gizarte-beharrizanen ideiare.
- Borondate onean oinarritzen dira, gizarte-beharrizanen ezagutza teknikoan beharrean.
- Zentroak espezializatuak dira gehientsuenetan, informazio, balorazio eta bideratzeko funtziorik gabe.
- Sektore pribatuan ematen zen gehientsuenetan, publikoaren presentzia urria baitzen.
- Erakunde publikoen arteko isolamendua ematen da.
- Finantzazio eskasa, uste baitzen merezimendua zegoela prestazioen oinarrian.
- Planifikazio falta eta deskoordinazioa (27-28. or).

Aurreko ezaugarriak zituzten eta gizarte zerbitzu bezala hartuak ziren ekintzak bazeuden ere, 70eko hamarkadaren bukaera aldera, jada, gizarte-zerbitzuen sistema baten beharra aldarrikatzen da, ordu arteko karitateari eta ongintzari loturiko gizarte asistentzian zentratzen zen gizarte ekintza gainditze aldera (Jaraíz, 2011). Hori izan zen urte horietako ideia zein aldarrikapen nagusia eta horretan zentratu ziren indarrak, batez ere, hots, gizarte-zerbitzuen sistema unibertsalaren beharraren aldarrian eta egoera eskasenean aurkitzen ziren gutxi batzuei laguntzetik, herritar guztien ongizatea bilatzean. Subiratsek (2007) dio, gizarte-zerbitzuen sistema deszentralizatuaren aldeko apustua dela nagusi urte horietan, sektore publiko eta pribatuaren arteko elkarlanaren bidez, asistentzialismotik ihes egin eta ekintza prebentibo zein komunitate garapena bultzatzen duen sistemaren aldekoa, alegia. Gizarte-langileen Elkargoa, Gizarte Ongizaterako Komite Espainiarra

edo Gizarte-zerbitzuetako Talde Sozialista eragile esanguratsuak izan ziren gizarte-zerbitzuen sorrera sustatzeko, izan ere, 80ko hamarkadan zehar, lan eskerga egin zuten profesionalak eta erakundeak dinamizatzen eta informazio zein ezagutzaren difusioan.

Anaut-Bravok (2021) hainbat momentu esanguratsu biltzen ditu:

- 1977an, Iruñeko Gizarte Laguntzaileen jardunaldi nazionala egiten da. 1978an, Osasun eta Gizarte Segurantzako ministerioak orduko gizarte-zerbitzuen egoeraren inguruko txostena publikatzen du.
- 1979an, Las Heras eta Cortajarenak *Introducción al bienestar social* liburua argitaratzen dute.
- 1981ean, PSOEn Cuadernos de Política Sectoriales-en, *Cambio Social y Servicios Sociales* izeneko monografikoa argitaratzen da.
- 1983an, Gizarte Ongizaterako Komite Espainiarrak *Autonomia Erkidegoetako gizarte zerbitzu eta zerbitzu asistentzialen inguruko I. jardunaldia* egiten du.
- 1987an, *Gizarte-zerbitzuen Legeen aplikazioari buruzko V. Jardunaldiak* egiten dira.
- 1988an, Unibertsitateen Kontseiluak *Gizarte Ongizatearen garapenean ekarpenak egiteko helburua* ezartzen du, erakunde ezberdinak, pertsonak, taldeak eta komunitateak inplikatu.

Gertaera horiez gain, mugarri garrantzitsua da diktaduraren amaiera. Frankoren heriotzarekin batera, gaur egungo gizarte-zerbitzuen babes sistema eratzen hasten da. 1978ko Espainiar Konstituzioan, esplizituki gizarte zerbitzuak sistema publiko bezala ageri ez den arren, gizarte-zerbitzuen atalak artikulua ezberdinetan banatuta daude eta estatuak ongizatea bermatu behar duela ulertarazten da. Hasteko, 1. artikuluan, estatua Estatu soziala bezala definitzen da eta balore nagusi bezala justizia, askatasuna eta berdintasuna izendatzen dira. 41. artikulua botere publikoen ardura direla adieraziz gizarte segurantzaren eta prestazio sozialei egiten die erreferentzia eta 50. artikuluan gizarte-zerbitzuei, betiere, adinekoei lotuta. Honetaz gain, 9.2 artikuluan, hurrengo adierazten da:

“Botere publikoei baldintzak bultzatzea dagozkie askatasun eta pertsona baten eta taldea osatzen dutenena benetako eta eragileak izan daitezen; baita galarazi edo osotasuna zailtzen dituzten oztopoak eragitea hiritargoen parte-hartzea erraztea bai politika mailan, bai ekonomia, kultura eta gizarte mailan ere”.

Hainbat dira, egungo gizarte-zerbitzuetan kokatu daitezkeen aipamenak, esaterako, 25. artikuluan preso eta delitugileen birgizarteratzea, 39. ean familia eta haurren babesa,

42.ean etorkin eta aberriratutakoena, 48.ean gazteen parte-hartzea sustatzea edo 49.ean ezintasunak dituzten pertsonen inguruan egiten direnak. Beraz, egoera hauekin guztiekin lan egiteko gizarte zerbitzuak ezinbestekoak diren baliabide publiko bilakatuko dira. Eskumenen inguruan ere mintzo da konstituzioa eta 148.artikuluaren, zehatz-mehatz, 1.20.ean Gizarte Laguntza autonomia erkidegoen eskumen bezala aipatzen da.

Konstituzioaren harira, aipatzekoa da, gizarte-langintzak arau nagusiaren gizarte ekintzaren inguruko ikuskeran izan zuen eragina. Hasieran batean Diputatuen Kongresuan onartutako proiektuan, ongintza publikoa kontzeptua jasotzen zen eta FEDAASeko (Federación Española de Asocioaciones de Asistentes Sociales) kideek hori aldatzeko lanari ekin zioten. Inguruko konstituzioen analisia egin zuten eta gatazka hau komunikabideetara eramanez, Espainiar Konstituziotik ongintzaren kontzeptua ezabatzea lortu zuten (Las Heras, 2019).

Aurrez, gertakari garrantzitsuetan aipatu bezala, 1977an Iruñeko Jardunaldiak egin ziren eta bertan, gizarte ekintza, gizarte ongizatea eta gizarte-langintza izan ziren langai. FEDAASek jardunaldien ekarpen garrantzitsua ikusita, bertan jasotako guztiak bilduko zituen publikazio bat egitea babestu zuen eta Patrocinio Las Heras eta Elvira Cortajarenak hartu zuten horren ardura. 1979an ikusi zuen argia *Introducción al Bienestar Social*¹² liburuak eta orduko profesionalei erreferentzia gisa baliagarria izateaz gain, orduko erakundeetako arduradun politikoei ere hala suertatu zitzaie, izan ere, gizarte-zerbitzuen babes sistema martxan jartzeko ardura zuten. Liburuan, orduan zegoen gizarte baliabide eta zerbitzuen kaosaren aurrean, tokian tokiko gizarte esku-hartze profesionaleko eredu municipalista bultzatu zen, betiere, gizarte-langintzaren ikuspuntutik, gizarte-zerbitzuen babes sistemaren eraikuntzan ekarpena egiteko asmoarekin. Esan bezala, gizarte eskubideen unibertsaltasuna aldarrikatzen da bertan, pobreziaren aurkako lan prebentibo eraginkorra delako eta gizarte ongizatearen hurrengo definizioa jasotzen da:

El concepto de Bienestar Social lo entendemos desde el punto de vista del trabajo social como resultado de aplicar y promocionar recursos sociales, materiales, humanos e institucionales al carácter correspondiente de las necesidades sociales que, en cada etapa histórica, configuran las aspiraciones de los pueblos y en su seno de individuos, grupos y comunidades, en relación a sus condiciones de vida y relaciones de convivencia (Las Heras, 2019, 120. or).

Honetaz gain, gizarte ongizaterako babes sistemak martxan jartzerako orduan, kontuan hartu beharreko irizpideak ere azpimarratu zituzten: globalizazioa, gizarte ongizatearen

¹² Gizarte-langintzako profesionalen artean “Las Casitas” bezala da ezaguna liburuua, portadan duen irudiagatik.

orokortasuna, prebentzioa, autonomia eta parte-hartzea, garapen komunitarioa, integrazioa, humanizazioa zein lege, antolakuntza eta organo batasuna.

Liburu honen zabalkundea, udal hauteskunderen aurretik egin zen, udalek gizarte-zerbitzuen inguruan zuten hutsune legala gainditzeko prozesuan ekarpena egiteko asmoz. 80ko hamarkada hasieran, kasu askotan, gizarte langilearen esku geratu zen gizarte babeserako ekintza oro. Iruñeko jardunaldien ostean, orduko gizarte-zerbitzuen egoeraren analisiaren ondorio gisara zera dio Las Herasek:

“Sistema de Servicios Sociales concebido como un sistema de responsabilidad pública. Basado en el conocimiento de la realidad y en el tratamiento científico y técnico de las necesidades y problemáticas sociales. Un sistema preventivo, normalizado y dirigido a todos los ciudadanos; participativo y descentralizado. En base a estas premisas se fijaron las “bases operativas” para el bienestar social en los municipios, instituciones desde donde es posible abarcar el panorama concreto de las necesidades sociales de las personas, los grupos y la comunidad y crear los recursos básicos para satisfacer el conjunto de los intereses y aspiraciones ciudadanas” (2019, 125. or).

Konstituzioaren zehaztapenekin ikus daitekeenez, trantsizioak zakartzan gorabeherak medio Estatuak ez du gizarte-zerbitzuen inguruko ekarpen konkreturik egiten eta autonomia erkidegoen esku uzten du gizarte-zerbitzuen garapena. Hori horrela, ikusi berri ditugun gizarte-langintzaren ekarpenekin, lehenengo gizarte-zerbitzuen legeak sortzen hasten dira 80ko hamarkadan zehar, baina ez da estatu mailako arau edo lege zentralizaturik bultzatzen. Gizarte-langintzaren ekarpenean azpimarra berezia egiten dugu, gaiaren inguruko ezezagutza zelako nagusi orduan. Hamarkadako lehen urteetan, autonomia erkidegoetara, gizarte-zerbitzuen alorreko lehen transferentziak egin ziren eta hasierako urteetan, erkidegoak gizarte-zerbitzuen Lege propioak sortzen zituzten, ereduak, printzipioak, prestazioak etab. biltzen zituzten, *lehenengo belaunaldiko legeak*¹³ bezala ezagutzen direnak.

1985ean, Apirilaren 2ko 7/1985, Toki Araubideen Oinarrizko Legea onartu zen, honek gizarte-zerbitzuen hiritarrenganako gertutasuna areagotu zuen eta horrenbestez oinarrizko gizarte zerbitzu komunitarioen eredia lehenesten da. Udalei egokitzen die gizarte-zerbitzuen eta gizarteratzeko prestazio eta zerbitzuak eskaintzea, nahiz eta derrigortasuna 20.000 biztanle baino gehiago dituzten herrietara mugatzen duen. Hortik beherako biztanleria duten herrien kasuan, mankomunitateen bidez eskaintzeko aukera

¹³ Lehengo belaunaldiko legeak: 80ko hamarkadan zehar sortutako gizarte-zerbitzuen legeei eman zaien izena da, espainiar Estatuan egindako Gizarte-zerbitzuei buruzko lehen legeak dira, alegia (Arias, Murillo, Guillén eta Perez, 2004).

sustatzen du (Gallardo, 2011). Aldiz, gaineratzen du, udalaz gaindiko zerbitzuak diputazioei dagozkiela. Aurreko legea kontuan izanik, Autonomia Erkidegoek onartutako legeetan, gizarte-zerbitzuen sistema publikoak osatzeko oinarri nagusiak arautzen joan dira, printzipioak, ereduak etab. ezarriz. Besteak beste, lehen mailako arreta eta bigarren mailako arretaren arteko banaketa egiten da eta sistemak barne hartzen dituen zerbitzuak, prestazioak... agertzen dira, baita hauek arautzeko onartuko diren katalogoak ere. Lege hau izan zen ongintza gizarte-zerbitzuetatik ateratzeko mugarrietako bat, lehen mailako arretaren antolakuntza eta betebeharra ekarri zuelako legez, askoz lan komunitario eta prebentiboagoa ahalbidetzen zuen eredu (Las Heras, 2019).

Hori horrela, tokian tokiko gizarte-zerbitzuen sistemen garapena autonomia erkidegoen esku gertatzen da, eta zehatzago, aldundiek eta udalek egikaritzen dute. Esan bezala, bi egin behar nagusi izaten zituzten: lehenik, ordura arte mantendu diren ongintza eta asistentzialismoaren ereduak, ongizatearen diskurtsora egokitzea eta bigarrenik, bi mailatan egituratuko diren eta beste erakunde batzuetatik eratorriak¹⁴ diren zerbitzu eta baliabideen eraikuntza. (Jaraíz, 2011).

Lehen belaunaldiko gizarte-zerbitzuei buruz egindako lege autonomikoak, gizarte politiken inguruko kontzientzia, esperientzia eta ezagutza oso gutxirekin garatzen dituzte erkidegoetan eta hori nabaritzen da, esaterako, hiztegi teknikoan edo barne hartzen dituzten hainbat neurritan. Salbuespenak salbuespen, neurri gehientsuenak hainbat printzipio komun dituzte, nahiz eta hitz ezberdinekin definitu: Ardura publikoa; herritar orori gizarte-zerbitzuetarako eskubidea bermatzea; berdintasuna eta unibertsaltasuna; elkartasuna; integrazioa, deszentralizazioa; herritarren parte-hartzea eta planifikazio-globalizazioa. Horretaz gain, helburutzat dute, dauden programa eta prestazioak egituratu eta ordenatzea, betiere, herritar orori gizarte-zerbitzuetarako eskubidea bermatzeko (Casado eta Guillén, 2001).

Asko dira gizarte-langintzatik, gizarte zerbitzu zerbitzuen sistema berriari egiten zaizkion ekarpenak. Lehenik, gizarte-zerbitzuen sistema publiko profesionalizatuaren garrantzia azpimarratzen da. Bigarrenik, gizarte partaidetza, deszentralizazioa eta komunitateko gizarte-zerbitzuen eraikuntza sustatzen da. Hirugarrenik, dispersatu eta bikoiztutako erakundeen sare sozioasistentzialetik, konpetentzia eta estruktura integratuetarako saltoa

¹⁴ Gogoratu behar dugu, aurrez aipatu dugunez, espainiar Estatuan erakunde pribatuen esku zegoela gizarte ekintza guztia eta bestalde, gizarte zerbitzuak lehen aldiz, gizarte segurantzaren baitan agertzen direna. Hori horrela, gizarte-zerbitzuen sorreran, horietatik guztietatik eratorritako zenbait zerbitzu eta baliabide antolatatu behar izan ditu, oinarritzko mailan (gertutasuneko), udaletan garatuko diren gizarte zerbitzu komunitarioak, eta maila espezializatuan.

bultzatzen da, gizarte-zerbitzuen kontseilaritza, institutu eta zinegotzigoen bidez. Laugarrenik, finantziarioa estatu edo dagokion tokiko administrazioaren zergen bidez izatea planteatzen da. Bosgarrenik paternalismo eta diskrezionalitatekin, herritarren eskubidera ematen den bidea egitea sustatzen da. Eta seigarrenik eta azkenik, oinarriko baliabideen diseinu eta inplementazioa egiten da. Orokorrean esan daiteke, gizarte-langintza izan dela teoriko metodologikoki, gizarte-zerbitzuen diseinu eta inplementazioan nabarmenena izan den eta den diziplina (Las Heras, 2019).

Aurreko guztia laburbilduz, fase konstituzionala bezala izendatutakoan egiten diren lege hauetan, protagonismo berezia hartzen dute, udal eremuko komunitateko gizarte-zerbitzuek eta prozesu horretan gehiago zehazteko asmoz, Castilok (2011) hiru azpifase azaltzen ditu:

- 1983-89 bitartean Kontzeptualizazio eta inplementazioaren etapa:

Fase honetan, trantsizio garaiko gizarte-zerbitzuen analisia egiten da, eraldaketara bideratuta, delimitazioa, funtzioak edo edukiak bezalakoak zehaztuz. Hortik eratortzen da, bi mailetan egituraturako planteamendua non oinarriko edo komunitateko zerbitzuak eta espezializatuak dauden.

1985eko Gizarte eta ekonomia akordioan, prestazioen unibertsaltasuna aipatzen da, besteak beste pentsioetan edo osasunean, eta herritar guztientzako gizarte zerbitzuak ere aipatzen dira.

Udal askok, deszentralizazioaren prozesuaren baitan, beren herritarren bizi baldintzak hobetze aldera, komunitateko gizarte zerbitzuak eskaintzen hasten dira, batez ere, gizarte langile baten prestazio teknikoan oinarritzen direnak, tokian tokiko beharrian eta eskaera politikoei erantzuteko. Bigarren udal agintaldiaren garaian, udalei gizarte-zerbitzuetako eskumenak areagotzen zaizkie eta udal askok gizarte-zerbitzuen departamentuak sortzen dituzte.

Oso garai dinamikoa izan zen politikoki, aurrez zegoen zentralizazioa desagertzean, tokian tokiko zerbitzu asko eratu baitziren, udal eta komunitateak bizi egotearen ondorioz.

Hamarkada beraren bukaera aldera, zehazki 1987.urtean, sistemen aniztasunean berdintasun minimo bat ezartze aldera, Plan Concertado de Prestaciones Básicas de Servicios Sociales onartzen du Gizarte gaien Ministerioak eta horrekin markatzen du autoreak fase berriaren hasiera, nahiz eta Plana 1988.urtean egikaritzen den.

- 1990-1994 bitartean, Unibertsalizazioaren etapa:

Plan Concertadoa, gizarte zerbitzuak ongizate edo babes sistemen “seigarren zutabetzat” hartzen hasteko mugarria izan zen eta horrekin batera, unibertsalizazio prozesua ematen da.

Urte horietan, aurreko hamarkadan gizarte-zerbitzuen alorrean egindako lorpenak balioan jartzen dira. Prebentzioaren bidez, marjinazioa dakarten kausak ekidin daitezkeela eta, gizarte zerbitzuak lehentasun izatea ezinbestekotzat jotzen da eta horretarako, aurrekontu eta finantzazio garrantzitsua behar dutela aldarrikatzen da. Garapena eta kontsolidazioa eman behar dela aipatzen da, zentro eta talde profesionalak areagotuz, betiere, ulertuta tokiko edo udal eremua dela horretarako egokiena, herritarrengandik gertuen dagoen eremua baita.

- 1995-2005 bitartean, analisisia eta birdefinizioaren etapa:

Atal honen hasieran aipatu bezala, gizarte zerbitzuak sostengatzen dituen Welfare Triangeluko esturturetan emandako aldaketek zein krisiak zalantzan jartzen dute ordura arte garatutako gizarte-zerbitzuen planteamendua. Zenbait erronka dituela identifikatzen da eta ondorioz, analisisia edo ebaluazioa beharrezkoa ikusten du autoreak, berriz ere, birdefinizioa edo berrantolaketa bultzatzeko (28-36. or).

Autoreak 2005ean muga jartzen badu ere, gaur egun arte luzatu den egoera dela esan dezakegu. Ordutik aurrera, hirugarren belaunaldikoak¹⁵ bezala ezagutzen diren legeak onartzen hasten dira eta eskubide subjektiboa¹⁶ da hauen ekarpen nagusia. Horretaz gain, gizarte esturturetan emandako aldaketa hauek guztiak kontuan hartzen dituzte, baina hala eta guztiz ere, 2008ko krisialdi ekonomikoa medio, ez dira guztiz garatu eta alde handia ematen da legetan jasotzen denetik, praktikan gauzatzen denera. Egia da, espainiar Estatuan dauden azken belaunaldietako legeak, eta baita gure EAEko legea ere, oso

¹⁵ Hirugarren belaunaldiko legeak: Orokorrean, 2000-2005. urtetik aurrera onartzen diren legeak dira eta Gallardok (2011) bere hirugarren fasean aipatzen dituen gizarte esturturen aldaketak zein erronkak kontuan hartzen dituzten legeak beharko lukete izan. Kasu guztietan gertatu ez bada ere, EAEn, Nafarroan, Balearretan etab. onartutako legeek, eskubide subjektiboa aitortzen dute, gizarte-zerbitzuen garrantzian azpimarra eginez (Navarro-Perez, Botija-Yagüe eta Martinez-Reyes, 2018).


¹⁶ Eskubide Subjektiboa: Administrazio publikoak baliabide bat eskaintzean, baldintzak betez gero, emateko daukan derrigortasuna da. Eskubide bat subjektiboa izanez gero, hau ukatzea justizia epaitegietan erreklamatu ahal izango da eta baita administrazio publikoei exijitu, izan ere, berau emateko derrigortasuna baitute (Fantova, 2007).

aurrerakoiak direla, baina arrazoi ezberdinak medio, ez dira lege hauen garapenak eman, hots, legeek eman ditzaketan fruituak ez dira jaso (Zalakain, 2019).

Hirugarren belaunaldiko lege hauek martxan jartzen diren denbora tartean zehar, zehazki, 2006an, Ley de 39/ 2006 de Promoción de la Autonomía Personal y Atención a la Dependencia onartzen da. Lege hau, gizarte-zerbitzuen baitan jartzen da martxan, baina Estatuaren ardura da, gizarte-zerbitzuen sistemetako salbuespena bilakatuta. Esan bezala, bestelako gauza guztiak erkidegoen gain daude, azken hau izan ezik. Lege honek, bere izaera berezia dela eta, nahasmena sortzen du gizarte-zerbitzuen baitan, baina eskubide subjektiboari eta unibertsaltasun printzipioari erreparatuz, ekarpena ere egin duela esan daiteke.

Hirugarren belaunaldiko legeek, zentratu bariko objektuaren arazoari, unibertsaltasunari edo eskubide subjektiboa bezalako kontuei heltzen dien arren, legeak aztertu ostean, ikus daiteke, forman, antolamenduan eta estrukturan garatu dela batez ere eta ez hainbeste gatazkatsuak izan daitezkeen kontuetan (Arias, Murillo de la Cueva, Guillén eta Perez, 2004). Horrenbestez, gero eta ahots gehiagok aldarrikatzen dute egungo eredua agortu dela eta lege eta marko berriak behar dituzten gizarte-zerbitzuen berregituratzea eman behar dela (Anaut-Bravo, 2019; Fantova, 2020a).

5.Irudia: Gizarte-zerbitzuen bilakaera historikoaren laburpena



Iturria: Norberak egina.

2.2.2. KONTZEPTUALIZAZIOA

Kapituluaaren sarrerako atalean hurbilpen txiki bat egin badugu ere, gizarte zerbitzuak bezala zer ulertzen dugun zehaztea garrantzitsua iruditzen zaigu honen gaineko planteamendu eta azterketak ondo egin ahal izateko.

Gizarte zerbitzuak, gizarte politiken baitan kokatzen diren zerbitzuak bezala ulertzen dira orokorrean, baina adiera horretarako garrantzitsua da gizarte politika bezala zer ulertzen den adieraztea. Fantovaren (2014) aburuz, gizarte politikak kontzeptuaz mintzatzeko lehengo politika bezala ulertzen dena aztertu behar da; ondoren, gizarte hitzak eranstendiona ikusteko eta azkenik, gizarte politikaz berba egitean zer esan nahi dugun adierazteko. Bere ustez politika hitzak bost adiera ditu, hau da, politika estrategia, prozesua, sistema, sarea edo kontakizuna izan daiteke. Politika hauek publikoak direnean, Estatuak dauka interes kolektiboak nola kudeatuko direnaren ardura eta horrenbestez, zein neurritan eta nola egingo den erabakitzen du. Ardura publikoa bada ere, autorearen politikak ulertzeko eraren arabera, Estatuak ez da eragile bakarra eta horrela, zenbaitetan merkatuaren, komunitatearen edo beste eragileren baten gain utzi dezake beharrianak edo ongizatea lortzeko helburuak asebetetzeko lana.

Gizarte politikez mintzo denean berriz, politika publiko hauen zati konkretu batez mintzo da, gizarteari dagokion zatiaz, alegia. Gizarte politikei sarri, merkatuak sortzen duen banaketa ez ekitatiboari aurre egiteko duen baliabideen (ekonomikoak edo bestelakoak) birbanaketaren mandatua egokitzen zaio. Hala ere, autorearen ustez, beste zenbait kasutan, birbanaketan pisua jarri ordez, berdintasunean edo hobe esanda aukera berdintasunean edo ekitatean jartzen da arreta. Azken kasu honetan, gizarte politika prebentziora, arintzera edo egoerak iraultzera bideratuko da eta horrenbestez, pertsonen gaitasun individual zein kolektiboetan zentratzen da. Beste kasu batzuetan, ordea, gizarte-beharrianak asetzeko bideratzen diren ekintza, baliabide eta zerbitzuei egiten zaie erreferentzia eta kasu horretan gizarte eskubideaz egiten dugu berba. Honen ildo beretik, gizarte politikak kontingentzia edo arrisku jakin batzuen aurrean egiten diren esku-hartzei egiten die aipamen. Aipatutako zentzuez haratago, badago gizarte politika giza kapitalaren babesle eta sustatzaileratzat hartzen duenik ere. Horietaz gain, gainerako babes egiturek (merkatuak edo komunitateak) kale egiten dutenean botere publikoek egiten duten ekintza da, pertsonaren gizarte bazterketa egoera ekiditeko. Azkenik, ongizatea eta

gizarte kohesioa lortu zein bermatze aldera, harreman loturak eta lotura komunitarioak sustatzera bideratzen dena ulertu daiteke gizarte politika bezala. Gizarte politiken ikuskera ezberdinak aztertuta, kapitulu honetan lantzen ari garen gizarte-zerbitzuek adiera hauetatik guztietatik edo behintzat, gehientsuenetatik zerbait hartzen dutela ikus dezakegu.

Gizarte zerbitzuak beraz, gizarte politiken parte bezala ulertzen ditugu, zentzu hertsian, baina beste babes sistema batzuekin batera osatzen dute multzoa, besteak beste, hezkuntza, osasuna, justizia, errenta bermeak edo etxebizitzarekin. Hasieran aipatu dugun bezala, gizarte-zerbitzuen hitzarekin gure testuinguruan adierazten duguna, Europako beste herrialde batzuetan, gizarte zerbitzu pertsonalak hitzarekin ezagutzen da eta gizarte zerbitzuak hitza, zentzu zabalean erabiltzen dute. Ingalaterran jatorria duten hainbat lanek, gizarte zerbitzu pertsonalak bezalako hitzak erabiltzen dituzte guk esku artean duguna definitzeko eta gizarte zerbitzuak hitza, orokorrean, gizarte politiken multzoa adierazteko. Lan hauetan, azpimarra egiten da, gizarte zerbitzu pertsonalak erabiltzen den arren, herritar guztientzako zerbitzuei erreferentzia egiten zaiela (Aguilar, 2017).

Edonola ere, gizarte zerbitzuak ongizate estatuaren baitan kokatzen ditugu, aurreko atalean azaldu dugun bezala, batzuk 6. zutabe gisa eta beste batzuk 4. zutabe bezala (Las Heras, 2019; Santos, 2012, Gallardo, 2011). Kontua da, denak ala denak, ongizate estatuaren beste hankatzat hartzen dutela, nahiz eta, aurrerago sakonduko dugun bezala, gainerako sistemek besteko sendotasuna ez izan. Ongizate estatua, II.MGren ostean sortzen hasi zen Europan eta herrialde bakoitzak modu batera edo bestera garatu du. Garapen horrek eraginda, eredu ezberdinak ditugu Europan eta gure kasuan, eredu mediterranearreko gizarte zerbitzuak ditugula esango genuke. Eredu mediterranearrari buruz ari garenean, herrialde mediterranearren partekatzen duten gizarte zerbitzu edo ongizate estatuaren ereduari buruz gabilta hizketan. Ez da zentzu zurrunean hartu behar, baina eredu mediterranearraren ezaugarri nagusia, familiak gizarte babesarengan duen presentzia eta ardura da. Babes materiala eta afektiboa eskaintzeaz arduratzen den eragilea da eta joera hau, gizarte zerbitzuak ez diren eta ongizate estatua osatzen duten gainerako zutabeetan ere ematen da. Horretaz gain, enpleguak integrazioarako paper garrantzitsua jokatzen du eredu honetan eta unibertsaltasunaren zantzu batzuk baditu ere (herritar guztientzako zerbitzuak) esku-hartze selektiboak gauzatzen dira, esaterako, baliabide eta zerbitzu jakin batzuk eskaintzen dira, norberak gutxieneko dirua duen edo ez jakin eta gero. Azkenik, zenbait zerbitzu eta baliabideen merkantilizazioa ere bada

eredu honen ezaugarrietako bat, Estatuak merkatuaren esku uzten baititu (Moreno eta Mari-Klose, 2016).

Ereduak eredu, egun, gizarte zerbitzuak hainbat araudirengatik herritarron eskubide gisa definituta daude. Lehenetik eta behin, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsaleko 25.1.artikuluari jasotzen da eskubidea: “ toda persona tiene derecho a un nivel de vida adecuado que le asegure, así como a su familia, la salud y el bienestar, y en especial la alimentación, el vestido, la asistencia médica y los servicios sociales necesarios” (NBEko Asanblada Orokorra, 1948). Horretaz gain, Europar Kontseiluko Karta Sozialean ere agertzen da, geroxeago ikusiko dugun bezala eta Europa mailako azken aitortpena Europar Batasuneko Erreforma Tratatuari jasotzen da. Gure testuingurura hurbilduz gero, aurreko azpiatalean azaldu bezala Espainiar Konstituzioari jasotzen da eta horren ostean, autonomia erkidego bakoitzak bere legeak garatzen ditu, modu oso edo partzialago batean bada ere, gizarte zerbitzuak pertsona guztientzat aldarrikatuz.

Lehen testuingururaketa bat egin eta gero, gizarte-zerbitzuen definizioetan zentratuko gara, zertaz ari garen zehazte aldera. Aguilarrek dio (2013) gizarte zerbitzuak, jadanik bere sorreratik, anbiguotasunean eraiki direla eta noski, horrek, hasieran aipatu dugun bezala, asko zailtzen du definizioaren sorrera. Anbiguotasun horretan, hainbat dira sarri, gizarte-zerbitzuen terminoaren parekide gisa erabili izan direnak, besteak beste, gizarte ekintza (Anaut-Bravo, 2019). Gizarte-zerbitzuen definizioak sortzeko zailtasun handia dago adituen artean, baina badaude guztien iritziz partekatzen diren ezaugarri konkretuak (Las Heras, 2019).

Hasteko, Gizarte zerbitzuak sistema moduan definitzerik dagoen argitzea garrantzitsua da. Aditu eta aritu batzuk sistema dela aipatzen duten arren, gai honetan ere, ez dago adostasunik (Alemán, Alonso eta Garcia, 2011). Ez dago argi zeri egiten zaion erreferentzia, sistema bat ote den, ekintza multzoa edo definitu gabeko beste zerbaitekin. Hainbat autorek sistemari buruz hitz egiten duten bitartean, gizarte-zerbitzuen inguruko produkzio zientifikoan pisu handia duten beste zenbaitek, helburu sozialeko ekintzen adar bati egiten diote erreferentzia (Casado eta Guillen, 2001). Pisu handia duten aditu horien artean, badaude, herrialdeen arabera, sistema bat propio edo sistema ezberdinetan banatzen den ekintza multzoa izan daitekeela dioenik ere (Aguilar, 2017). Ondoren ikusiko dugun bezala, dituen berezitasunengatik, zalantzan jarria da etengabe sistema bat izateko behar beste egitura eta sendotasun baduen (Roldán, 2009; Arrieta, 2019). Adostasuna ordea, gizarte-zerbitzuen sistema, ongizate estatua edo gizarte politiken

multzoa osatzen duten gainerako sistemen garapen eta trinkotasuna ez duenaren ideian dago (Gallardo, 2011). Gai honek eztabaida pizten badu ere, zerbait zehazte aldera, hurrengo jaso daiteke:

“Los servicios sociales se inscriben en el ámbito de la política social, es decir, se identifican como instrumentos de intervención en los procesos de transformación social y tienen repercusiones directas en los modos de vida y en las oportunidades vitales de las personas” (Anaut-Bravo, 2019, 14. or).

Horretaz gain, bigarren ezaugarri nagusi bat ere badago. Hurrengo azpiatalean ikusiko dugun bezala, sistema beraren mugak ere ez dira bat ere zehatzak. Ez dago garbi zein den gizarte-zerbitzuen objektua eta zerekin lan egin behar duten. Gehientsuenetan, herritar guztientzako zerbitzuei egiten zaie erreferentzia marko normatiboen bitartez, baina gero, praktikotasunera joanez gero, bereziki, ezaugarri konkretuak dituzten herritarrekin lan egiten dela ikusten dugu (Aguilar, 2014). Lehen aipatu dugun bezala, honek unibertsaltasunaren printzipioarekin talka egiten du eta hondar sistema baten antz gehiago duen zeozer eraikitzen da.

Honek guztiak zaildu egiten du, hasieran aipatu ditugun gizarte politiken adiera batzuk bilatzen duten sustapen lana egitea eta horren aurrean, oinarrizko beharrianak ase gabe dituzten pertsonekin lan egin behar izaten da. Ondorioz, sarri, prebentzioa eta promozioa bezalako egin beharrak, bigarren edo hirugarren plano baten geratzen dira, ekintzen gehiengoa baliabideen kudeaketa hutsari eta egoerak arintzeko lan asistentzialari eskainiz (Arenas, 2016).

Gauzak horrela, ez da erraza adituen artean ere definizio esplizituak lortzea, baina lerro hauetan batzuk biltzen saiatu gara. Lehenik eta behin, Europako Gutun Sozialean jasotako definizioa dago eta zera dio: “Gizarte-langintzako metodoak erabiliz, gizabanakoek eta taldeek komunitatean ongizatea eta garapena izaten eta gizarte ingurunera egokitzen laguntzen duten zerbitzuak” (Europar Kontseilua, 1961). Hau izan zen Europa mailan egin zen definizioetan lehenengoa, baina gehiago zehaztuz, espainiar Estatuan ere egon zen onapen handiko definizio bat: “Conjunto de actividades técnicas de alcance estructural moderno, con fines de prevención, rehabilitación, facilitación de oportunidades o asistencia y de caracter interdisciplinar en muchos casos” (Casado y Guillén, 2001).

Definizioaren parte bat besterik ez dira aurreko lerroak eta Anaut-Bravoren (2021) aburuz, definizio horrek gauza asko zehazten ditu, besteak beste, ekintza tekniko eta

estrukturalak direla edo premiak eta frustrazioak estaltzeko gabezi egoeretan lan egiten dela. Gehitzen du, gainerako sistemek edo babes estrukturek landu ezin dituzten egoerekin lan egiten dela eta asistentziaz gain ere, badituela beste egin behar batzuk, esaterako, prebentzioa edo sustapena. Hala nola, ikus dezakegu, hau ez dela gizarte zerbitzuak izan beharko liratekeenaren inguruan berba egiten dugunean jasotzen duguna, definizio horiek askoz handinahitsuagoak izaten baitira. Aldiz, aurreko ezaugarriak ezagutu eta gero ikusi dezakegun bezala, aldea dago gizarte zerbitzuak izan beharko liratekeena eta beraiengandik espero denaren artean. Casado eta Guillenen definizioak era argi batean azaltzen du egungo gizarte-zerbitzuek betetzen duten lana, nahiz eta argi dagoen, hori baino gehiago izan behar dutela.

Ildo horretan, Aguilarrek dio eraldaketa prozesu bat bizi nahi duen sistema dela, alegia, asko kostatzen ari den eraldaketa dela. Ardura publikoko sareaz mintzo da, arestiko ongintza edo gizarte laguntzatik, oraingo ongizatearen dinamiketara aldarazi nahi dena, zehazki (Aguilar, 2014). Aldiz, Fantovaren hurrengo definizio honek, gizarte zerbitzuak izan beharko liratekeenari heltzen diola esango genuke:

“Gabeziak estaltzeko eta potentzialtasunak garatzeko, autonomia (edo mendekotasun) pertsonalarekin eta integrazio (edo bazterketa) orokor komunitarioari lotuta, laguntza eta babesa eskaintzen duten prestazio tekniko eta jarduerak dira, batez ere erlazionalak eta hurbiltasunezkoak” (2008, 35. or).

Elkarrekintzaz mintzo da Fantova (2008) eta elkarrekintza moduan zera ulertzen du: “Ajuste dinámico entre la capacidad de desenvolvimiento autónomo de las personas en sus entornos vitales y el apoyo social disponible a través de los vínculos familiares, convivientes, comunitarios o relacionales en general”. Definizio horrekin, ikusi dezakegun bezala, hondar sistemaren ideia gainditzen da, bere aburuz, gizarte zerbitzatuak pertsona, familia eta komunitate guztientzat baitira eta edozein momentutan edonork erabili ditzake. Gainera, bertan laguntza harremanak ematen dira eta baita, prestazio ekonomiko material zein teknikoak. Azkenik, ardura estrategikoa erakundeena eta publikoa izan behar duela dio, nahiz eta ekintza publiko, sozial edo pribatukoak izan daitezkeen.

Estatu mailako gizarte-zerbitzuetako legeetan jasotzen diren definizioak, azken ildo honi heltzen diote eta badaude definizio gehientsuenek konpartitzen dituzten hainbat gako. Hala ere, batzuk esku-hartzean eta helburuan jartzen dute arreta eta beste batzuk ordea, baliabideak dituen sistema edo antolakundearen egiten dute azpimarra (Roldán, García eta Nogués, 2013). Lehenik eta behin, gizarte zerbitzuak marjinaziora eramaten gaituzten

kausak ezabatu, landu edo prebenitzeaz arduratzen den baliabide multzoa direla adierazten da (Madrilgo Erkidegoa, 1984). Nori zuzentzen diren ere adierazten da maiz eta baita ardura nork duen ere. Esaterako, Nafarroako legean horrela jasotzen da:

“Gizarte ekintzako sistema globala, beren nortasunaren garapen duinerako beharrezkoak diren bitartekoak eta laguntzak pertsonen, taldeen edo komunitateen eskura jarriko dituena. (...) Gizarte-zerbitzuen sistema publikoa Nafarroako administrazio publikoek ematen dituzten prestazio tekniko eta ekonomiko, plan, programa eta lantalde tekniko guztien multzoa da” (Nafarroako Foru Gobernua, 1983 eta 2006).

Hala ere, azken lege honetan, beste legeetan gertatzen den bezala, ardura publikoaz hitz egiten bada ere, aipatzen da zerbitzu eta baliabide batzuk ez dituela administrazio publikoak eskaintzen, baizik eta hirugarren sektoreko elkarte pribatuek. Hala eta guztiz ere, sistema publikoaren parte direla adierazten du.

Legeek zein Fantova bezalako adituek egiten duten definizioa kontuan hartuz gero, gizarte zerbitzuak gertutasuneko eta tokikotasuneko zentzu garrantzitsua dute espainiar Estatuan, baina, legeak autonomikoak diren heinean ezberdintasun handiak daude, tokian tokiko erakunde, irizpide politiko eta baliabideen arabera. Hori horrela, orokorrean, gizarte zerbitzuak nola antolatzen diren ezagutzea garrantzitsua da. Oraintxe aipatutako gertutasun eta tokikotasunaren printzipioari jarraiki, Espainian berebiziko garrantzia hartzen dute gizarte zerbitzu komunitarioek, izan ere, bilakaera historikoari buruz hitz egitean ikusi dugun bezalaxe, hasiera batetik sortzen den ideia da. Ongintzaren garaitik, udalerrietan gauzatzen zen laguntza eta orduko gizarte-langileen erakundeek, gizarte-zerbitzuen estrategia ere bertan kokatu behar zela uste zuten, Konstituzioak jasotzen zuen ongintza gainditzeko strategiaren baitan. Ondorioz, udalerrietan oinarritutako gizarte-zerbitzuen sistemaren aldeko apustua egin zen, pertsonen interesak eta herritarren aspirazioak gauzatzeko leku aproposena zela pentsatuz. *Bases para la Acción Social Municipal dokumentua* sortu zuten eta bertan, beste gauza batzuen artean, hurrengoak jaso ziren:

- “La creación de Unidades de Trabajo Social de Base, para la atención individualizada y de grupo, así como para el desarrollo comunitario.
- Un Plan de Inversiones para la creación de Centros de Servicios Sociales Comunitarios y Centros específicos de asesoramiento (...)” (Las Heras, 2019, 125-126. or).

Dokumentu horretan jasotakoaren ondorioz, arestian esan bezala, 80.hamarkadan lehenengo gizarte-zerbitzuen legeak sortzen hasten dira, betiere, bokazio municipalistarekin:

“A partir de 1982 se configuraría en las leyes específicas de servicios sociales de las comunidades autónomas, en las que se reconocía la vocación municipalista del Sistema de Servicios Sociales, asentando en los municipios su intervención de acuerdo con el clásico criterio defendido por el trabajo social de llevar los recursos al nivel en que se producen las necesidades, es decir, al ámbito más cercano de la vida y convivencia de los/las ciudadanas” (Las Heras, 2019, 126. or).

Lehenago aipatu bezala, 7/1985 Tokiko Araubideen Oinarrizko Legeak behartu egiten ditu udalak gizarte zerbitzuak bermatzera. Gauzak horrela, autonomia erkidegoetako gizarte-zerbitzuen sistemen inguruko legeak arautzen dituzte sistemok, baina edozelan ere, euztura bera mantentzen da guztietan. Bi mailatan egituratuta daude, batetik, lehen mailako arreta izango litzakeena, hots, gizarte zerbitzu komunitarioak, udalen kompetentziapen eta bestetik, bigarren mailako arreta, hau da, gizarte zerbitzu espezializatuak, diputazioen edo erkidegoen kompetentziapen. Badira, banaketa binario horren aurka agertzen diren ahotsak ere, baina, esan daiteke, gure testuinguruan, onartua eta aplikatua izan den eredu dela (Casado eta Guillén, 2001). Bigarren mailako arretaren edo gizarte zerbitzu espezializatuen kasuan, edukia herritar taldearen edo “problematikaren” arabera osatzen da eta gai batean espezifikoa diren zerbitzuak dira, esaterako, babesgabetasun egoeran dauden haur eta nerabeentzat zerbitzuak, mendekotasun edo adinekoei zezendutakoak, indarkeria matxistaren biktimei zuzendutakoak etab. (Gallardo, 2011). Gizarte zerbitzu espezializatuetan, bere konplexutasun edo ezaugarri jakinengatik, oinarrizko gizarte-zerbitzuetan landu ezin diren egoerekin egiten da lan, betiere, oinarrizko gizarte-zerbitzuek bideratuta.

“Son servicios organizados con el fin de facilitar una respuesta especializada a situaciones concretas de determinados colectivos o sectores de la población con unas necesidades comunes que, por sus características o complejidad, precisan de unas prestaciones y recursos de atención especializada” (Velasco, 2018, 60. or).

Aldiz, lan honetarako interes berezia pizten digu, lehen mailako arretak edo komunitateko gizarte-zerbitzuek. komunitateko gizarte zerbitzuak, tokian toki izen ezberdina hartzen dute, besteak beste, gizarte zerbitzu orokorrak edo oinarrizko gizarte zerbitzuek izenak ere hartzen dituzte. Jaraízen (2011) iritziz, izenaren erabakia ez da ausaz egindako zerbaít, baizik eta sistema beraren eredu edo ideologiaren arabera eginiko zerbaít baizik. Modu horretara, bi eskema bereizten ditu. Batean, esku-hartzea edo lana gauzatuko den eremua da garrantzitsua, eta esan dezakegu, kanpora begira jarritako izena dela. Bestean, ordea, sistemaren baitako euzturan hartzen duten lekuan jartzen da arreta.

Gallardo ere (2011) bat dator izenak zoriz aukeratu ez izanaren ideiarekin. Honen ustez, lehen mailako arretaz hitz egitean, pertsonarekiko gertuen dagoen zerbitzua izatean egiten da indarra. Orokorrak hitza gehitzen zaionean, berriz, pertsona guztientzako zerbitzu izaera nabarmendu gura da eta oinarrizkoak esatean, herritar askori eragiten dien oinarrizko beharrezanekin egiten den lana azpimarratzen da. Azkenik, komunitarioak aipatzean, asko dira barnebiltzen diren kontuak, besteak beste, indibidual-asistentzialaren aurrean egiten den metodologian edo komunitate jakin bati egokitzen zaion lurraldean.

Edonola ere, lerro batzuk goraxeago aipatu dugun bezala, gizarte-zerbitzuek lana modu egokian egin ahal izateko gertutasunezko eremuaren lehentasuna, hasieratik egindako hautua izan zen. Herritar guztiok daukagu beraz, gertutasunean, oinarrizko gizarte zerbitzuren bat eta bertara joan gaitezke informazioa, asesoramendua edo laguntza bila (Velasco, 2018). Gure ikerketa lanaren kasuan, gizarte-zerbitzuen lehen mailako arretan eta bereziki, komunitateko edo oinarrizko zerbitzuen gainean egingo dugu lan, beraz, hauen inguruko zehaztasunak ezagutzea ezinbestekoa da.

Gizarte zerbitzu komunitarioen inguruan hitz egiten dugunean, gizarte zerbitzuak eta komunitatea edo komunitarioa elkarrekintzan jartzen dira. Aurreko kapituluan eta baita honetan ere, lerro batzuk gorago ikusi ahal izan dugunez, bi termino oso nahasi eta konplexuak dira eta ondorioz, bien artetik sortutako kontzeptuarekin ere gauza bera gertatzen da. Oinarrizko gizarte zerbitzuak bizitza kalitatea zein ongizatea bermatzeko formalki pentsatu eta osatu diren esku-hartzea egiteko gunea dira, baliabide ezberdinak dira, harremanak dira... eta horretarako prozesua edo bidea, lan komunitarioa izan litzakeela ulertzen dugu. Aurrekoa kontuan hartuz, jatorri erlazionaleko baliabideak dira, tokian tokiko eremuetan funtzionatzen dutenak, estatuaren eta komunitatearen printzipioetan murgilduta. Jaraizen (2011) aburuz, estatuaren printzipiotik begiraturaz, komunitatea, herritarren eskubideak gauzatu zein ongizatearen helburua lortze aldera, tokian tokirako eraikitako zerbitzuak eta baliabideak ezartzeko espazioa da, alegia, esku-hartzea gauzatzeko lekua. Komunitatearen printzipiotik so eginez aldiz, gizarte zerbitzuak sareak sortzeko, elkarbizitza sustatzeko, pertinentzia sentimendua eraikitzeko... gunea dira, erlaziozko lotura emateko erreminta.

Egunerokotasunerako bilbadura dira, kooperazioa zein gizarte parte-hartzea errazteko gailua.

“Se le otorga a la atención primaria la cercanía a la ciudadanía, la implicación con la comunidad, la prevención de las necesidades sociales y la universalización del sistema a partir tanto de una buena acogida y orientación tanto de una buena acción sobre el entorno” (Martinez eta Perez, 207, 334. or).

Kontzeptuez eta hauen esanahiez haratago, definizio osatuagoei begiratzen badiegu, hainbat definizio ekarri ditzakegu lerro hauetara, nahiz eta lehen aipatu dugun bezala, onarpen kolektiboa duen definizio unibertsalik ez egon.

Las Herasek (1983) herritar guztien oinarrizko ongizatea sustatzea helburu duten, izaera balioaniztun zerbitzuak direla dio. Definizio konkretuagoen artean aurkitzen dugu hurrengoa eta gizarte-zerbitzuen sarearen barruan, ardatz instrumentala direla aipatzen da, gizarte-zerbitzuen politika integrala ezartzea ahalbidetzen duen oinarrizko tresna. Horren bidez, herritar guztiei eta sektore espezifiko bakoitzari arreta ematera bideratutako programak garatuko dira, tokiko bizitzako baliabide ororen eta lurraldean egiten dituzten jarduera guztien konexioaren bidez (Corral, Díaz eta Sarasa, 1988). Honetaz guztiaz gain, definizio ezberdinetan hurbiltasunak garrantzia hartzen du eta batzuetan, gizarte-langintza dela hauen prestazio nagusia ere esaten da (Gallardo, 2011).

Hasiera batean, gizarte zerbitzu komunitarioetan tokiko garapena edo garapen komunitarioa gauzatzea zein bertako elkarte eta mugimenduekin lan egitea, sortze momentutik emandako ideia izan zen eta argi ikus daiteke hori aurreko definizioetan. Hala ere, denborarekin, community care kontzeptua erabiltzen hasten da, esparru soziosanitariotik eratorritako kontzeptua, aurrez komunitarioak zuen ikuspegia baino gehiago, komunitatean bertan ematen den asistentzia bezalako zerbait dena. Horrela, ordura arte propio bezala hartzen zen tokiko garapena edo garapen komunitarioa, bigarren mailara igarotzen da eta profesionalak erabili dezakeen metodo edo teknika bat besterik ez izatera pasatzen da. Urte batzuk beranduago, komunitate garapena, gizarte-zerbitzuetako egunerokotasunetik desagertzen da eta esku-hartze komunitarioagatik aldatzen da. Horrenbestez, gizarte-zerbitzuetako lege zein profesionalek, lehen mailako arretaren baitan, lurraldean dauden gainerako erakunde eta zerbitzuekin, elkarlanean aritzeko estrategia murrizten doa. Argiago esateko, elkarrekintzak

oinarritutako proiektu kolektibo gisara jaio zena, kolaborazioan oinarritutako zerbait izatera pasatzen da:

“Un nuevo sistema, una nueva institución que va a coexistir en el barrio, con los colegios, centros de salud, centros cívicos... En torno a los centros de servicios sociales se irán conformando plantillas cada vez más interdisciplinarias, que desarrollan en cada lugar los programas básicos: Información y orientación, Ayuda a domicilio, Atención a emergencias sociales, Cooperación Social, Convivencia y reinserción. Y como se encargan del bienestar social, acogen también todo problema que se escapa de las posibilidades de los demás: el vecino con Síndrome de diógenes que derivó el centro de salud, el niño absentista que derivó el colegio... Esto obliga a los servicios sociales a dedicarse al mismo tiempo a las integrales y a las derivadas. Otra complicación matemática más” (Jaraíz, 2011, 98. or).

Nahiz eta komunitarioaren lehengo adiera galdu den oinarrizko gizarte-zerbitzuetan, oraindik ere, erreminta baliotsutzat hartzen dira dimentsio komunitarioak:

“Sin duda son los servicios sociales comunitarios o de base los que de una u otra manera van a estar o deben estar presentes en todo proyecto comunitario que se quiera realizar con rigor, dado que constituyen el cauce institucional propio del desarrollo comunitario” (Velasco, 2018, 58. or).

Azkenik, aipatu beharra daukagu, gaur egun, gero eta gehiago direla oinarrizko gizarte-zerbitzuen dimentsio komunitarioaren alde egiten ari diren apustuak, bai profesionalen aldetik, baita erakunde edo adituen partetik ere (Ballester, 2020). Ildo horretan eta apustu horretan kokatu daiteke, esku artean daukagun ikerketa lan hau ere.

2.2.3. OBJEKTUA, HELBURUAK ETA FUNTZIOAK

Gizarte-zerbitzuen sistema beste helburuen zehaztapen aurkitu ditzakegu gure testuinguruan, baina, badira komunean dauden batzuk eta horiei egingo diegu erreferentzia. Hala eta guztiz ere, helburuak beraiek baino garrantzitsuagoa iruditzen zaigu gizarte-zerbitzuen objektuaren inguruko informazioa biltzea, finean garrantzitsua baita edozein proposamenetarako zerekin lan egin behar dugun argi izatea. Sistemaren objektua horrela definitu dezakegu Zubillaga-Herran eta Berasaluzeren (2021) definizioan oinarrituz:

Praktika profesional edo sozial batetik abiatuz eraikitzen den kategoriari erreferentzia egiteko erabiltzen da, lanbide edo subjektu batek objektuaren gainean eraikitzen baitu

bere identitatea. Finean, objektua sistema bati berariaz dagokion errealitatearen zati bat legez ulertu dezakegu, ekintza edo interes esparrua sortzen diona.

Aurreko kontzeptu eta aztergaiekin gertatu den bezala, honekin ere gauza bera gertatzen da, hau da, ez dagoela objektuaren inguruko adostasunik adituen artean. Hala ere, objektua zehaztea garrantzitsua dela uste dute eta onartzen dute gizarte-zerbitzuek ez dutela bat ere garbi zein den beraiena (Aguilar, 2014; Fantova, 2014; Anaut-Bravo, 2019).

Gizarte politiketan bi aldaera egon daitezke zereginak, helburuak edo azken batean, objektuak deskribatzeko. Bata, beharrianetatik eratorritakoa da eta bestea aldiz, pertsonetatik. Lehengoaren kasuan, gizarte osatzen duten pertsonak dituzten beharrianetan jartzen da arreta, ze pertsonekin lan egiten den begiratu gabe, hau da, ordaindu duena, baliabiderik ez duena etab. Aldiz, bigarren kasuan, pertsonen egoeran jartzen da arreta, esaterako, beharrian jakin batzuk asetzeko baliabiderik ez duen pertsonetara zuzentzen denean edo gizarte maila jakin batetik behera kokatzen diren pertsonekin lan egiten denean. Bigarren kasu horretan, ongintza publikoaz hitz egin beharko genuke eta ezinbestean, beharrian oso konkretu batzuk artatzen dira. Ez da argi geratzen gizarte-zerbitzuen sistemak bi aldaera hauetako zein tokitan kokatzen diren. Legeetan unibertsaltasunaren aldarriak egiten dira, baina sarri, ez dira zerbitzuetan edo lan egiteko eremuan islatzen. Era berean, objektuaren inguruko definizio lar zabalak egiten dira, adibidez, ongizatea edo bizitza kalitatea bezalako terminoak erabiltzen dira eta honek ez du zehazten horietako ze esparru konkretutan egin behar den lana. Azkenik, gehientsuenetan, ezaugarri jakin batzuk dituzten pertsona taldeei egiten zaie erreferentzia eta kasu askotan, pobrezia tasarik altuenak dituzten pertsona taldeekin bat datoz, esaterako, pertsona nagusiak, ezgaitasuna duten pertsonak edo gizarte bazterketa egoera dauden pertsonak (Aguilar, 2013).

Ongizatea eta bizitza kalitatea bezalako objektu zabalek, zaildu egiten dute gizarte-zerbitzuen egin beharrak zehaztea, izan ere, ongizatearen barruan, bereziki edo espezifikoki sozialak ez diren beharrianak ere barne biltzen dira, esaterako, etxebizitza, osasuna etab. Gainera, horri, jatorri ezberdinetako ekintza helburuak gehitzeak ez dio mesede egiten, izan ere gizarte-zerbitzuetan aldi berean egin behar izaten dituzte, bai problema konkretuen aurrean baliabide sozialak eskaini eta baita jada gertatutako zailtasunen aurrean erantzun erreaktiboak eman ere (Jaraíz, 2011). Anbiguotasun horrek, zerbitzu eta zereginak ematen dizkio sistemari, baina kendu ere egiten dizkio, horrek eragin dezakeenarekin.

Gizarte-zerbitzuen objektua, historikoki beharrianekin lotu izan da. Objektua zehazteko modu bat, beharrianen zain zatirekin lan egin behar den zehaztea izan liteke. Egia da, beharrianak aipatzen ditugunean, testuinguruaren arabera ulertu behar direla, izan ere, tokian tokiko errealitatearen eta pertsonaren izaera zein egoeraren arabera pertsona batek sentitu ditzaken beharrianak bere aspirazioen arabera dira. Adituen arabera, urteetan gizarte zerbitzuak teorikoki elikatzeaz arduratu den gizarte-langintzaren diziplina, ez da gai izan beharrian horiek zehazteko eta beraz, gizarte-zerbitzuek inertziatz, urteetan egin duten bezala, ezaugarri jakin batzuk eta klase sozial zehatz batetik behera aurkitzen den pertsona taldearekin lan egiten jarraitzen dute. Eta ez hori bakarrik, baita beste sistema batzuk bere gain hartzen ez dituzten egoerekin lan egiten ere. Beharrianen zehaztapenaren bideak ere ez du ematen beraz, objektuaren korapiloa askatzeko aukera emango duenik, definitzen saiatutako objektua ez baitator bat gizarte zerbitzuak direnarekin (Anaut-Bravo, 2019).

Beharrianak, gehienetan, norbere baliabideekin edo familia zein komunitatearenekin asetzen ditugu, modu pertsonalean edo ditugun harremanen bidez. Hala ere, badaude baliabide eta harreman horiek nahikoa ez diren kasuak eta beharrianak ase ezin direna kasuak, ondorioz, gabezi egoerak agertzen dira. Beharrianen matazaren aurrean, hori da zehazki, autore batzuek gizarte-zerbitzuen ekintza eremua bezala planteatzen dutena, hau da, ez dira beharrianak, baizik eta hauek asetzerakoan gertatzen diren gabezi egoerak. Gabezi horietako batzuen erroa, beste sistema batzuen objektuetan egon daiteke eta honetara mugatuko litzake gizarte-zerbitzuena:

“En sentido estricto se sitúa en las necesidades y aspiraciones relativas al núcleo general del funcionamiento humano; desde las exigencias materiales más básicas hasta las posibilidades espirituales más radicales. Las demandas más explícitas de intervención de los servicios sociales nacen de las carencias e insatisfacciones personales genéricas (...), dependencia, marginación, penuria material y/o afectiva, malestar psicoafectivo, déficit de autonomía personal, participación social etc.” (Casado y Guillén, 2001, 146. or).

Kasu hauetan guztietan esaterako, ez lirateke sartu beharko oinarritzko beharrianak asetzea, izan ere, horiek prestazio ekonomikoekin kudeatu beharko liratekeelako, baina errealitatean, ez dago hori landuko duen sistema alternatiborik eta sarri gizarte-zerbitzuek hartzen dute bere gain hasiera batean planteatutako objektuaren sinesgarritasuna distortsionatuz (Casado eta Guillén, 2001).

Autoreek planteatzen duten saltoa emate aldera, Aguilarek hurrengo planteatzen du:

“Si queda claro que «dar de comer al hambriento» no es tarea de los servicios sociales, sino del sistema de garantía de rentas, ¿cuál es la función propia de los servicios sociales? ¿Cómo definimos su ámbito, la *parte de las necesidades* que se ocupa? (...)

- Ofrecer cuidados personales a las personas que no puedan desarrollar sin la ayuda de terceros las actividades de la vida diaria. Es lo que llamamos habitualmente «atención a la dependencia» o «cuidados de larga duración». No es todo lo que necesitan las personas dependientes, que también necesitan atención sanitaria y de otro tipo.
- La protección, y la sustitución de la tutela cuando proceda, de las personas no plenamente capaces, como los menores y las personas adultas incapacitadas por razones de discapacidad o enfermedad.
- El acompañamiento del desarrollo personal y la integración comunitaria de las personas cuyas posibilidades de integración social, educativa, laboral o de otro tipo esté limitada por diversas razones. Entre ellas está la discapacidad, pero también haber tenido problemas de salud física o mental, haber sufrido conflictos personales o familiares graves, como la violencia de género, procesos de exclusión o padecer discriminación por cualquier causa. La tarea de los servicios sociales no es su integración educativa o laboral, sino acompañar el proceso de desarrollo personal, es decir, de (re)hacer su vida, en el que la persona puede necesitar de acceder, en un momento u otro, a dispositivos de integración laboral, educativa, de atención sanitaria o de otro tipo. También lo es su integración comunitaria, es decir, la integración en el espacio de relaciones del barrio o pueblo, en el acceso a actividades de ocio, etc.” (Aguilar, 2013, 161. or).

Objektu edo hobeto esanda, egin behar bezala honako hauek hartzen baditugu, autorearen aburuz, esku-hartzeak, prebentiboak, paliatiboak (asistentzia beharrezkoa den kasuetan) eta birgaitzaileak dira. Ondorioz, ez dira pertsona jakin batzuei modu eksklusiboan zuzentzen diren zerbitzuak izango, baizik eta egoera jakinekin lan egiten duten zerbitzuak. Beharrian sozialek gizakiaren errealizazio integrala hedatzen dute pertsonen elkarrekintzatik, lotura soziofamiliarretatik, gizartetik eta inguruntetik. Profesionalak gizarte-beharrizanak gizarte diagnostikotik abiatuta tratatzen ditu. Diagnostiko horrek izaera humano sozialeko kausen eta ondorioen faktore anitzeko azterketa dakar berekin, gizakiaren potentzialtasuna sustatuz gabezia eragiten duten baldintzen aldaketa pertsonal eta sozialetarako, eta pertsonen, taldeen eta komunitateen potentzialtasunen garapena erraztuko duten baldintzak aktibatuz, giza duintasunaren iraunkortasuna bermatuko duen giza garapenaren ikuspegitik (Las Heras, 2019)

Planteamendu honetan, erlazioaren, elkarrekintzaren pisua nabaria da eta ildo horretan egin izan dituzte ekarpenak gizarte-zerbitzuen objektuari dagokionez, bai gizarte-langintzak eta baita beste aditu batzuk ere. Diziplinatik elkarbizitza sozial eta pertsonalaren eremuan gertatzen diren oinarritzko premien estaldura proposatu izan da, objektua horrela identifikatuz: “La protección social de la ciudadanía ante las situaciones de necesidad social en el ámbito de la convivencia personal y social, mediante

prestaciones básicas garantizadas del sistema (...) al que se reconoce carácter de servicio público esencial “(Las Heras, 2019, 250. or).

Harremanaren eta elkarrekintzaren bidetik jarraituz, Fantovak egiten du honen inguruko proposamen garatuena. Objektua elkarrekintza dela aipatzen du, autonomia pertsonalaren eta integrazio erlazionalaren bidezkoa. Autonomia pertsonalaz mintzo denean egunerokotasunean moldatzeko pertsonok ditugun gaitasunez ari da hizketan, berriz, integrazio erlazionalaren kontzeptua erabiltzen duenean, pertsonok lehen mailako babes eta lotura iturrietan, hots, komunitatean, familian, taldeetan etab. ditugun gaitasunei buruz mintzo da.

“Los servicios sociales serían, entonces, las actividades que tienen como finalidad prevenir, corregir o paliar desajustes en lo relativo a la interacción de las personas, con sus dos caras o dimensiones: autonomía funcional para la vida diaria e integración relacional (familiar y, en general, comunitaria). Una autonomía funcional para la vida diaria que comprendería desde el autocuidado o cuidado en la ejecución de las actividades básicas, instrumentales y avanzadas de la vida diaria hasta la utilización de las funciones cognitivas y emocionales para la toma de decisiones sobre la propia vida y su futuro (autodeterminación, autoorganización o autogobierno), pasando por habilidades sociales para la convivencia cotidiana. Y una integración relacional que se referiría tanto a los vínculos familiares como a otras redes comunitarias presenciales o virtuales, actuales o posibles (todas ellas relaciones primarias), fuente primordial de apoyo social” (Fantova, 2019a, 7. or).

Harremanei, erlazioei, loturei...buruzko planteamendu hauek garatzeko, gertutasunezko eremua ezinbestekoa da, beraz, oinarrizko gizarte zerbitzuak eremu aproposena direla esan dezakegu.

Behin objektuaren inguruko hurbilpena eginda, gure ikerketarako interes berezia duten oinarrizko gizarte-zerbitzuen helburu edo funtzioei erreparatu nahi diegu. Fantovaren ustez (2014) badituzte, gainerako gizarte politikek bezala helburu birbanatzaile eta eraldatzaileak, baina horietaz gain, baita beste batzuk ere. Gizarte-zerbitzuek gogobetegarriak, interaktiboak eta kalitatezkoak diren bizitzak lortzeko, pertsona eta inguruneen gaitasunak suspertzeko lan egiten dute, bai pertsonekin beraiekin, baita inguruneekin ere.

Gizarte langileek hasiera batetik oinarrizko edo komunitateko gizarte-zerbitzuei esleitzen dizkieten egin beharrak hurrengoak dira:

- Abarcar toda la población superando el encasillamiento profesional.
- Integrar acciones preventivas y promocionales superando las meramente recuperadoras.

- Gestión local, reforzando la presencia de entidades locales de servicios sociales.
- Ser puerta de entrada a la red de servicios y clave en la estructuración de la intervención.
- Ser dinamizadores de las relaciones sociales y de la participación.
- Implicación con otras áreas como la económica en la generación de desarrollo local (Las Heras, 2019).

Aurreko atalean aipatu dugun bezala, gizarte zerbitzu komunitarioen definizioa eta ikuspegia urteen poderioz eraldatzen joan da eta aipatu berri ditugun funtzioekin ere antzeko zerbait gertatu da marko normatiboetan. Objektuaren definizio ezak zaildu egiten badu ere, badaude gizarte-zerbitzuen lege ezberdinek komunean dituzten eta oinarrizko gizarte-zerbitzuei bereziki egozten dizkieten funtzioak:

- Prestar información y orientación a todos los ciudadanos sobre sus derechos y recursos sociales existentes, recogiendo información para posteriores actuaciones.
- Facilitar la permanencia y autonomía en el medio habitual de convivencia, de individuos y familias, y posibilitar medidas alternativas para aquellos casos que lo necesiten.
- Establecer actuaciones de coordinación con otros servicios municipales de bienestar social y con servicios sociales especializados.
- Promover la inserción social de personas, familias, grupos en situación de riesgo y marginación.
- Fomentar la participación social de la comunidad, estableciendo vías de colaboración, impulsando el asociacionismo y el voluntariado
- Prevenir y eliminar las causas de los problemas sociales y de las situaciones de marginación, interviniendo en el origen de las mismas” (Gallardo, 2011, 19. or).

Hau guztia jasota, Gallardok (2011) dio funtzio hauek beharizan egoeren aurrean, komunitatea, komunitate bizitza eta erantzukizun soziala sustatu eta promozionatzeko helburuari erantzuten diotela. Prestazio ekonomiko eta materialak kudeatzea edo bigarren mailako arretara bideratzea bezalako egin beharrak ere egozten zaizkie oinarrizko gizarte-zerbitzuei, baina gure ikerketaren kasuan, aurreko zerrendan aipatzen diren azkeneko hirurak izan daitezke interesgarriak.

2.2.4. EREDU TEORIKO-PRAKTIKOAK ETA METODOLOGIA

Gizarte-zerbitzuen baitan egiten den lan teknikoa, gizarte esku-hartzea da: “Es así porque, en el uso, no se ha decantado el concepto de intervención social con la misma amplitud que el de política social sino más ajustado al ámbito de los servicios sociales” (Fantova, 2014, 222. or). Gizarte esku-hartzea formalizatua den jarduera da eta helburua (espero den efektua) pertsonen elkarrekintza osatzea eta hobetzea da. Esku-hartze sozialerako erreferentziatzko jakintza arlo edo diziplina nagusiak gizarte lana, gizarte hezkuntza (eta pedagogia) eta esku-hartze sozialaren psikologia dira (Fantova, 2021b). Gizarte esku-

hartzean hiru eragile nagusi aurkitu ditzakegu, batetik, erakundea; bestetik, prestazio teknikoak (profesionalak izan daitezkeenak) eta azkenik, pertsona, taldea edo komunitatea. Alabaina, gizarte esku-hartzea aurrera eramateko eredu teoriko praktikoa ezberdinak daude.

Aurrez objektuaren nahasmenari egin diogu erreferentzia eta horrek eragina dauka sistema guztiaren zehaztasunarekin, baita ereduaren aferarekin ere. Eredu ezberdinak erabiltzen dira gizarte-zerbitzuen baitan, egokitzen zaien lanaren arabera eraldatzen direnak, hau da, egokitutako objektuaren arabera eraldatu daitezkeenak: “Proveer bienes sociales ante problemas concretos y el generar actuaciones reactivas ante los riesgos sociales (...) requieren a menudo de modelos de intervención bien distintos (ya dijimos que la existencia de un modelo común consolida la visión de un sistema)” (Jaraíz, 2011, 88or).

Egoera hori aitortzen du Viscarretek (2011) ere eta egungo konplexutasunaren aurrean erduen aldarria egiten du, profesionalen lana errazteko:

“Son diversos los textos que recientemente señalan y destacan la relevancia que han tenido y tienen para el trabajo social las diversas teorías e ideas que han ido influyendo en la praxis, porque proporcionan a la profesional una guía, frente a la desorientación y caos que representan las nuevas problemáticas” (293. or).

Autore honek, gizarte-langintzako esku-hartzeen ereduak aztertzen dituen arren, garrantzitsua iruditu zaigu, gizarte-langintza baita, lerro batzuk gorago esan dugun bezala, gizarte-zerbitzuetako diziplina erreferenteenetakoa (Las Heras, 2019). Viscarreten aburuz, gizarte-langileentzat ezinbestekoak dira ereduak, hauek ulertu, aztertu eta ereduaren inguruan hausnartzeak, analisi eta praktika kritikorako gaitasuna ematen baitie:

“El modelo tiene incrustada la teoría o teorías de las que se sirve para dicha comprensión y predicción de la realidad, pero también tiene una parte práctica. El conocimiento de los modelos, sirve para orientar y guiar la práctica profesional, para que ésta se encuentre fundamentada en torno al problema sobre el que se va a intervenir” (Viscarret, 2011, 299. or).

Ereduak, esku-hartzerako ezinbestekoak diren teoria txikiak dira, profesionalek duten erreminta bat eta hainbat gako garrantzitsu hartzen ditu bere baitan: eusten duten elementu teorikoak; errealitate jakin batera aplikatzea azaltzen duten analisi elementuak; elementu metodologikoak, hots, teknikak; izandako emaitzekin eraginean dauden elementu funtzionalak eta azkenik, baita balore inplizituak, elementu filosofikoak eta ideologikoak ere (De la Red, 1993).

Behin ereduaren garrantzia azpimarratuta, gizarte-zerbitzuen sistemek jasotzen dituzten ereduaren inguruan sakonduko dugu. Salbuespenak salbuespen, azken belaunaldiko gizarte-zerbitzuen legeek Pertsonengan ardaztutako arreta ereduak dituzte erreferentzia eredu gisa (Ovejas eta Berasaluze, 2019). Hori horrela izanik, eredu horretan zentratuko gara hurrengo lerroetan, nahiz eta ondoren, azaletik bada ere, garrantzitsuak diren beste hainbat eredu edo berezitasuni helduko diegun, besteak beste, kasu kudeaketa, banakako lana edo asistentzialismoa. Azkenik, gizarte esku-hartzean erabiltzen den metodologia ere azalduko dugu.

- *Pertsonan ardaztutako arreta eredu*

Eredu honen jatorria adinekoen eta mendekotasunen esparruan dago eta lehenengo aldiz, Bradfordeko Unibertsitateko Tom Kitwoordek¹⁷ erabili zuen, dementzia zuten pertsonen eskaintzen zitzaizkien arreta ereduak berrikusi behar zirela uste zuelako eta bere planteamenduan, pertsona esku-hartzearen zentralitatea da (Rodriguez, 2013).

Hori dela eta, kutsu bereziak hartzen ditu gizarte-zerbitzuen munduan, batetik, garapen pertsonalaren kutsua eta bestetik, berriz, prozesuan pertsonaren parte-hartzea bermatuko duena. Rodriguez eta Vilà i Manceboren (2014) proposamenaren arabera, pertsonengan ardaztutako arreta ereduaren proposamena, adinekoen eta mendekotasunaren alorrean erabiltzen diren arreta integrala eta pertsonengan ardaztutako arretaren elkarrekintzatik dator. Autoreen ustez, biak ala biak eskaintzen dituzte gauza interesgarri eta ezinbestekoak, ondorioz, biak uztartutako dituen ereduak da hauen proposamena. Izenak dioen bezala, lehengoak, pertsona bere osotasunean, aspektu guztiak kontuan izanda lan egitea proposatzen du eta bigarrenak, pertsona erdigunean kokatzea dakar. Hauen ustez, zerbitzuetan zentratutako ereduetatik pertsonetan zentratutako ereduera pasatzeak, aldaketa sakonak eskatzen ditu, bai erakundeetan, baita baliabideetan eta profesioaletan ere.

Eredu hau gizarte-zerbitzuen kalitatearen bilaketa prozesuaren emaitza da eta pertsonari egokitutako esku-hartzea horretarako bidea dela sinistuta hautatua izan da. Pertsona bakoitza bakarra eta berezia da eta horrenbestez, bere egoera ere bakarra da. Prozedura uniformeek, administrazioaren zurruntasunak edo egunerokotasuneko lanak zaildu egiten duen arren, ereduaren apustua horren aldekoa da. Izatearekin zerikusia duten planteamendu filosofikoetan oinarritzen da eta baita bizitza kalitatean ere. Bi kontzeptuak

¹⁷ 1997an argitaratutako *Demencia Reconsidered: The person came first* liburuan azaldu zuen bere proposamena.

barne hartuz, praxis profesionalaren mundutik garapena behar beharrezkoa da, baliabide, erakunde eta zerbitzuak pertsonari egokitzeko prozesuan. Aipatutako bi kontzeptuez gain, pertsonaren ardaztutako arreta ereduak pertsonen duintasun printzipioa dauka oinarritzko elementu modura, pertsonaren ezaugarriak edozelakoak izanda ere. Duintasunak berak, pertsonaren borondateari errespetua izatea darama bere baitan eta azken honek, autonomia¹⁸. Aurreko oinarritzko printzipioez gain, pertsonaren ardaztutako arreta ereduak esku-hartzeak gidatuko dituzten beste hainbat printzipio ditu: indibidualtasuna, independentzia, osotasuna, parte-hartzea, gizarte inklusioa eta arreta jarraitua. Esku-hartzeak horretara bideratzen joatea ezinbestekoa da, izan ere, gizarte-zerbitzuetan heteronomiaz jokatzeko da sarritan. Pertsonok, berriz, bizitza proiektu propioak mantendu nahi ditugu eta eragingo diguten erabaki hartzeetan parte-hartu nahi dugun. Horrenbestez, soluzio bideak aurkitzen akonpainatuak izan nahi dugun arren, heteronomia asko erabiltzen diren eredu zaharrek ez dute egun balio (Rey, 2015).

“La persona desea ser el motor de su propio proceso de intervención. Aspira a que las intervenciones profesionales (que exigen conocimiento y pericia técnica) cuenten con su participación y la identifiquen como principal hacedora. Aspira a ver mitigada su fragilidad, a reforzar su autonomía personal y, de esta manera, controlar su vida” (Rey, 2015, 208. or).

Erraztu egiten du pertsonak bere bizitza hobetzeko zer helburu lortu nahi dituen identifikatzea, talde baten konpromisoan eta boterean oinarrituz hori gerta dadin, betiere bere historia pertsonala, metatutako esperientzien eta ezagutzen multzoa kontuan hartuta, bere istorioan, gaitasunetan eta desiretan oinarrituta. Osasunaren Munduko Erakundeak¹⁹ horrela dio: “Se pone a la persona en el eje sobre el que giran el resto de las dimensiones relacionadas con: la intervención basada en la evidencia científica, la organización del servicio, el equipo y la interdisciplinariedad y el ambiente”.

Hala ere, pertsonengan ardaztutako arreta ereduak asko ezberdintzen da gainerako eredu indibidualekin, pertsonaren parte-hartzeari eta erabakiaren indarrari ematen zaion garrantziak aldaketa sakonak planteatzen baititu arreta ereduak. Elkarrizketa zintzo eta enpatikoa nahitaezkoak dira, aukera guztiak aztertzeko, gizarte-zerbitzuen menpe egon edo ez. Gainera, arretaren pertsonalizazioa bilatzen da, betiere, kontuan izanik, pertsonok harreman, elkarbizitza eta komunikazio prozesuak egiten ditugula beste pertsona

¹⁸ Autonomia: “Capacidad de cada persona para hacer elecciones, tomar decisiones y asumir consecuencias. Es lo contrario de heteronomía. Lógicamente, una cierta autonomía funcional (de la que se ocupan, entre otras las disciplinas de la intervención social) es prerrequisito para la autonomía moral (que interesa, por ejemplo, a la ética o al derecho)” (Fantova, 2021b, 2. or).

¹⁹ MOEak 2010eko maiatzean, Ginebran egindako Ginebrako Hirugarren Konferentzian luzatutako definizioa.

batzuekin. Helburua, beraz, gizarte harremanaren bidez pertsonaren ahalduntzea da, norbere bizitza kudeatzeko eta erabakiak hartzeko gai izan gaitezten. Horretarako, ezinbestekoa da potentzialtasunen bilaketan lan egitea, ezagutzetan, gaitasunetan, abilezietan eta ez hainbeste gabezietan. Erantzunak, elkarbanatutako arduraren bidez hartu behar dira, bakoitzak ahal eta gura duen konpromisotik. Pertsonarekin egin bezala, komunitatearekin ere lan egin daiteke, kapitulu honen azken atalean ikusiko dugun bezala (Martinez, Díaz-Vega, -sancho eta Rodriguez, 2014).

Bukatzeko, goian aipatu ditugun printzipio bakoitzari zein esku-hartze mota egokitzen zaizkion jasotzen duen taula da hurrengoa, esku-hartzea irudikatzen lagundu diezagukeena.

3.Taula: Pertsonan ardaztutako arreta ereduaren printzipioak eta esku-hartze irizpideak

Printzipioak	Esku-hartze irizpideak
Autonomia	Aniztasuna eta ahalduntzea
Indibidualtasuna	Pertsonalizazioa eta malgutasuna
Independentzia	Gaitasunen identifikazioa
Osotasuna	Bizitza zikloa kontuan hartuta osotasuna
Parte-hartzea	Diziplinartekotasuna eta irisgarritasuna
Gizarte inklusioa	Komunitate ikuspegia eta gertutasuna
Arreta jarraitu	Koordinazioa, osagarritasuna eta babes informalekin elkarlana.

Iturria: (Rey, 2015, 212. or).

Esku-hartze irizpide hauek martxan jarri ahal izateko, profesionalak gakoa dira eta aukera pertsonal zein profesional handia izateaz gain, ardura handiz jokatzeko eskatzen duen eredu da. Gizarte langileek edo gizarte-zerbitzuetako gainerako profesionalak, pertsona gu besteko eskubide eta duintasunarekin ikusi beharra daukagu; etengabe, gure gaitasun eta gabezien inguruan hausnartu beharra daukagu; epistemologia berrikusi eta zabaldu behar da, emozioak ere, ezagutza iturritzat hartuz; lidergotza hartu gure influentziaren arduraz ohartuta; eta azkenik, ikuspegi murriztatzaile eta zaharkituak gainditu eta etika profesional partekatua sortzen lagundu. Hauek izan daitezke egin beharreko aldaketetako batzuk, baina, prozesu luze eta sakona suposatzen duen eraldaketa profesionala eskatzen duen eredu da (Bermejo, 2014). Ramosek (2016) gaineratzen du profesionala autentikoa izan behar dela harremanean eta benetakotasun horrek norbere sentimenduak onartzea dakar, ondoren, besteenak onartu ahal izateko. Paradigma aldaketa handia dakarren eredu da, bai plangintzan, baita baliabideetan eta baita esku-hartzean ere. Zehazki, printzipio etikoak eta komunikaziorako abilezia handia eskatzen du, pertsonari protagonismoa ematearen ekintza egikaritzeko, asko hutsean geratu ez dadin.

“La necesidad de replantear la práctica profesional nos hace ver realmente como sujeto al otro y no intentar hacerlo encajar dentro de las etiquetas que los sistemas de protección nos marcan para el acceso a los recursos. El trabajo social “teje vínculos”, los recursos pueden ser los hilos, pero las agujas que permiten que se cree esa trama están en la relación de ayuda y esta es imposible sin un trabajo de autopercepción, de posicionamiento, de definición de los campos en los que nos movemos y los fundamentos éticos y teóricos de los que partimos. Conocernos nos da la posibilidad de re-conocernos en el otro” (Ramos, 2016, 717. or).

- *Begirada komunitarioa*

Gizarte zerbitzuak espainiar Estatuan hartzen duten formagatik, arreta komunitarioa edo tokian tokikoa dela esan dezakegu, bereziki, guretzat garrantzia handia izango duten oinarritzko gizarte-zerbitzuetatik egindako lana. Ikuspegi edo izaera komunitarioa ez da berez aurrekoa bezalako eredu garatua, baina kutsu garrantzitsua ematen die, batik bat, oinarritzko gizarte-zerbitzuei eta berariaz, sistema osoari. Horregatik garrantzitsua da lerro batzuk eskaintzea.

Hasteko, esango genuke, aurrez aipatutako pertsonengan ardaztutako arreta ereduak ere, baduela kutsu komunitarioa. Gizarte zerbitzuak komunitarioak direla esaten dugunean, sistemak harreman pertsonal, familiar eta komunitarioetan era naturalean sortzen diren gaitasun, baliabide, lotura eta prozesuak sustatu behar dituela esan nahi dugu (Fantova, 2014). Pertsona soziala eta interdependentea da, eta horrenbestez, komunitatearekin loturak, bizitzako baliabide dira. Bizitza ibilerak esperientziak hartzen ditu kontuan eta esperientzia horiek bizitako testuingurua ere. Pertsonak bere osotasunean egoteko, bere komunitateagatik onartua eta errekonozitua izatea behar du izan eta horrela rol parte-hartzailea eduki bere bizitzan eta baita komunitatean ere. Eredu honek, pertsonen bere bizitzaren kontrola bueltatzeko beharra adierazten du eta komunitatearen baitan kokatzen diren bere bizitza proiektuen arabera lan egiteko beharra (Ramos, 2016).

Ikuspegi edo izaera komunitarioari bere horretan helduz, gizarte zerbitzu komunitarioak esatean, esku-hartze estruktura komunitatean lan egiteko dela esan gura da, hots, erreferentzia espaziala lurraldearekin lotuta dagoela. Lurraldea tokian tokikoa izango da, hedadura ez oso handikoa, egunerokotasuna eta harremanak gertatzeko bezain bestekoa. Nahiz eta dimentsio ezberdinetako (indibiduala, taldekoa edo komunitarioa) lana egin, beti gertutasuneko esku-hartzea izango da. Hori dela eta, ikuspegi komunitarioa hautu estrategikoa da, batez ere, lehen mailako arretan egiten den esku-hartzearena. Helburua, tokiko komunitatea indartzea izango litzake, beharrian edo zailtasunak, komunitateak berak, bere gaitasun eta baliabideen bidez lantzeko (Anaut-Bravo, 2019).

Beste autore batzuek berriz, hautu metodologikoarekin lotzen dute izaera komunitarioa, nola eta norekin lan egin behar den adierazten duena eta jomugatzat komunitatearekin batera gizarte esku-hartzea egitea duena. Kasu honetan, komunitateko talde eta gizarte mugimenduak beharizan edo arazoan aurrean eragile aktibo izan behar dute, baina sekula administrazio publikoaren erantzukizun, ardura eta funtzioak bere gain hartu gabe. Beraz, bi eragileak esku-hartzearen koprotagonistak izan behar dute. Batetik, esan bezala, ez da administrazioek bere ardura alde batera utz dezaten onartu behar, ezta komunitateko kideek gehiegizko lan kargan hartu ditzaten ere. Bestetik, komunitatearekin, talde eta elkarrekin edo pertsona indibidualekin lan egiteak sentzibiltate eta ikuspegi desberdineko komunitate batean dauden interesen aniztasuna onartzea dakar. Herritarrei inplikazioa eta ahalegina eskatzea negoziazio eskaintzarekin eta erabakiak hartzeko prozesuan parte-hartzeko bideen garapenarekin batera egin beharko da (Llobet, 2004).

“La atención primaria en servicios sociales tendrá como referencia comunidades locales concretas e irá dirigida al fortalecimiento de los lazos comunitarios a través de actuaciones conjuntas con la ciudadanía y las entidades sociales que en ese territorio se localicen. En suma, la atención primaria de servicios sociales ha de entenderse como atención comunitaria” (Anaut-Bravo, 2019, 244. or).

Hasieran aipatutako eredua, zein izaera edo ikuspegi komunitarioa gizarte-zerbitzuetako legeek jasotzen dituzten erreferentziazko eredua eta ikuspegia dira. Hala ere, praktikotasunera joanez gero, gizarte zerbitzuak eredu zaharkituekin lan egiten jarraitzen dutela ikusiko dugu, nahiz eta aurrerapauso txikiak eman gura diren eta kasu batzuetan, ematen diren (Aguilar, 2014) ondorioz, pertsonengan ardaztutako arreta eredua eta ikuspegi edo arreta komunitarioa, bigarren maila baten geratzen dira.

- *Asistentzialismoa (banakako eta familiako lanean oinarritua)*

Gizarte-zerbitzuetan, egiten den lanaren ehuneko altuena, banakako eta familiako dimentsioan zentratzen den lana da (Berasaluze eta Berri-Otxoa, 2008) eta egungo lan zamak, burokraziak eta prozedimendu astunen hazkundeak eta beste zenbait faktorek, gizarte-zerbitzuen lana asistentzialista eta burokratizatu izatera eramaten du: “La magnitud e intensidad de la demanda de este tipo (alimentación, vestido, alojamiento, suministro de energías) que está llegando y va a llegar a nuestro frágiles y ya castigados servicios sociales nos augura más atasco, más tensión y más insatisfacción para todas las partes” (Fantova, 2020a, 2. or). Ondorioz, gizarte langile askok, badakite beraien lana ez dela egun gizarte esku-hartzea egitea. Gizarte esku-hartzera bideratutako langile publiko askok kudeaketa lana egiten du, bai esku-hartzearen egin beharra externalizatu delako

edo baita prozedura administratiboek, egunerokotasunean, gizarte esku-hartzea ordezkatu dutelako, baina edonola ere, ez da argi ikusten kudeaketa lan horiek egin ezean, beren lanpostua mantentzerik izango luketen.

Hau guztia kontuan hartuta, ebidentea da, asistentzialismoak hartu dituela gizarte zerbitzuak eta legeek eta adituek horiek gainditzea proposatzen badute ere, egun, gizarte zerbitzuak ez dira kutsu asistentzialista horretatik ihes egiteko gai (Arenas, 2016). Eredu asistentzialaren gehiegizko erabilera hau azaltzeko, gizarte-zerbitzuen jatorri eta garapenean erreparatu behar dugu eta horren inguruan hitz egin dugu jada, bai bilakaera historikoaren atalean, baita kontzeptualizazioaren atalean ere. Birgogoratze aldera, gizarte zerbitzu modernoaren errealitatea espazio nahasian kokatua da, diru sarrera txikiko pertsonen beharren arretaren (ongintzaren eta asistentziaren funtzioa, edo ez ordaindutakoaren arabera, babesarena) eta pertsona guztien beharren zati baten arretaren artean (gizarte-zerbitzuen funtzioa). Alde batetik, “pobreei arreta emateko” nolabaiteko agindu soziala jasotzen jarraitzen dute (eta helburu horrekin prestazioak eskaintzeko, hala nola gutxieneko errentak, kotizazio gabeko pentsioak eta beste laguntza ekonomiko batzuk). Bestetik, gizarte ekintzarako agindua jasotzen dute zentzu espezifikoan, eta sarritan, baliabide nahikorik ez dutelako, diru sarrera txikiak dituzten eta eskubideak aitortu ez dituzten sektoreetara bideratzen dituzte. Horrek guztiak gizarte zerbitzu publikoak, modernizazio eta hedapen handia izan arren, lehengo ongintza ez sanitarioaren nahiko antzekoa den espazio batean kokatzen ditu (Aguilar, 2010).

Esan bezala, gizarte-zerbitzuen kantitatea eta kalitatea handitu diren arren, ezaugarri horietako askok errealitate izaten jarraitzen dute egungo esku-hartze eremuan. Hauek dira bada, trantsizio garaiko ongintzaren ezaugarrietako batzuk (Ruiz, 2014):

- Ongintzako izaera eta orientazioa nagusi izatea, grazia handiko zerbitzuak eta prestazioak emanez.
- Espiritu paternalista eta zuzentzaileegia eta beraz, herritarrek parte-hartze txikia edo eza izan dezakete beren arazoak konpontzeko.
- Lan eredia ia eskusiboki banakako laguntzaren ideian oinarritua da.
- Ez dago orientazio prebentiborik eta ez zaio autonomia pertsonalari laguntzen, erantzun instituzional estereotipatuekin eta ez oso berritzaileekin lan egiten baita.
- Kudeaketa burokratiko eta bizitza komunitarioarekiko loturarik ez duten zerbitzuak dira, zerbitzu publiko burokratizatuak, goitik antolatutako

talde sozialen parte-hartzerik gabe eta beharizanen azterketa espezifikorik gabeak.

- Arazoen gogoeta teknikorik ez duten zerbitzuak, prestakuntza eskasa eta profesionalen onarpen sozial txikikoa edo gabekoa.
- Deskoordinazio handia dago, sistema publikoaren planifikaziorik eta egituraketarik ez egotearren.
- Finantzaketa marjinala dute zerbitzuek: prestazioak ez dira herritarren eskubidetzat hartzen, hondar sistematzat hartzen baitira gizarte zerbitzuak.

Alayonek honela definitzen du asistentzialismoa: klase nagusiek historikoki sortu duten gizarte jardueretako bat da, sortzen zuten miseria minimoki arintzeko eta esplotazio sistema iraunarazteko. Asistentzialismoaren ezaugarria da pobrezia egoeraren ondorioetan jardutea, egoera hori eragiten duten erroko arrazoietan eragin gabe. Horretaz gain, ondorioen gaineko jarduera aringarri hori ez da nahikoa eta jatorri paternalista dauka, ongintzari lotua. Asistentzialismoaren ikuspegitik, gizarte desberdintasuna egitate natural gisa hartzen da, eta ez da sistema zalantzan jartzen. Arazo soziala kausa indibidual gisa ikusten da, eta ez du kontuan hartzen gizartearen funtzionamendu globalaren arteko harremana (Alayon, 1989).

Goian aipatutako zantzu horietako asko identifikatu ditzakegu egungo gizarte-zerbitzuen sistemetan eta Alayonen definizioarekin alderatuz gero, asistentzialismoaren oinarri direla ikusi dezakegu. Marbánek (2008) dioenez, gizarte-zerbitzuetako eragileen %80ak zerbitzuen prestazioa dute egin behar nagusizat eta Aguilarrek ere ikuskera bera dauka: “la beneficencia sobrevive de forma subrepticia en algunos elementos del actual sistema” (2010, 10. or). Eredu asistentzialista honen “jarduera nagusia baztertutako edo gizarte bazterkeria jasateko arriskuan dagoen biztanleriarekin garatzen da (...) beraz, arreta gizarte bazterkeriako arriskuan edo egoeran dauden biztanleei zuzenduta dago nagusiki, herritar guztientzat eta unibertsala izan beharrean. (...) Ondasunak eta zerbitzuak sortzen dituen funtzioak pisu espezifikoa handia du (...) eta erakundeen orientazio metodologikoa eredu asistentzialista hutserantz lerratzen da” (Marbán, 2008, 24-28-164. or). Askotan, horren alde egiten da baliabiderik eta finantzaketa nahikoa ez izatearen aurrean, herritar guztiengana iristeko premia handieneko egoeretan esku-hartzea lehenesten delako. Baina orientazio metodologiko horrek badu bere kostua: epe ertaineko kostu soziala handia izan daiteke, asistentzia bera aringarria bada ere, ez dituelako arazoak ez konpontzen ezta

prebenitzen ere. Beraz, banakako egoerei adabaki txikiak jartzen dizkiegu, arazo sozialei irtenbiderik eman gabe.

Bereziki, legeen bitartez, gizarte babeseko hainbat modutan izandako bilakaerak, prestakuntza eta praktika teknikoagoarekin, ez du asistentzialismoaren ikusmoldea atzean uztea lortu: “Hay que considerar el hecho de la simple formulación de derecho subjetivo en las leyes de servicios sociales, aún a pesar de ser significativamente importante, no es suficiente” (Carbonero, Caro, Mestre, Oliver eta Socias, 2012, 16. or). Batez ere, gaur egun bizi dugun egiturazko krisi garaian, neoliberalismoaren eskutik, nabarmen geratzen da nola gizarte ongizatean gehiago inbertitu beharrean, hasiera hasieratik, ahula eta gutxi finkatua izan den Ongizatearen Estatu ziztrin bat desegiten ari den.

Eredu asistentzial honek, prestazio eta baliabideen kudeaketa hutsarenak, burokratizazio handia gainjartzen die gizarte-zerbitzuei eta honek, gizarte esku-hartzerako espazioa jaten du. Hau da, burokratizazioa²⁰ ematen da gehienetan, gizarte esku-hartzea eman beharko litzakeenean, horrek dakarren guztiarekin. Gero eta prozesu administratibo astun eta nahasgarriagoak ematen dira eta ondorioz, lan asistentziala haztearekin batera, gizarte-zerbitzuen burokratizazioa ere ematen da (Martinez eta Perez, 2017). Kasuen kudeaketaren antza ere izan dezake erredu honek, izan ere, kasuen kudeaketa erredua, profesionalak baloratu dituen beharrezanean erantzuteko zerbitzuen antolakuntza, koordinazio eta monitorizazioa da (National Association of social workers, 1992).

Aipatutako guztiarengatik, gizarte-zerbitzuen esparruan, nahiz eta dimentsio komunitarioa garatzeko antolamendu aproposa eman, arreta erredu honekin batera, banakako eta familiarako erreduaren gailentzea gertatzen da (Sarasola, Gonzalez eta Roiz, 2019). Dimentsio guztiak aintzat hartu ordez, urteen joanarekin, gero eta ekintza indibidualizatuagoak ematen dira, banakako eta familiarako erredua nabarmenduz, betiere, asistentzialismoaren marka propioa den eskaera baliabide²¹ binomioarekin batera.

Zalantzarik gabe, intentsitate eta irismen horretako laguntza justifikatzen duten larrialdi edo konplexutasun egoerak egon daitezke, baina, oro har, esan daiteke jarduteko modu

²⁰ Burokratizazioa: “Prozesu horren arabera, pertsonen balioa ematen dieten prozesu operatiboak (gure kasuan, pertsonekin harreman zuzena edo ez hain zuzena duten esku-hartze sozialeko prozesuak), premia-koaren gainetik, administrazio jardueraz kargatzen dira (kontrola, ikuskapena, erabakia, koordinazioa, solaskidetzak edo beste batzuk)” (Fantova, 2021b, 2. or).


²¹ Eskaera-baliabidea binomioa: Gizarte-langintzan aski ezaguna den kontzeptua da, diziplinan eta baita lanbidean ere aspaldi erabiltzen dena. Esku-hartze urgenteen eta puntualaren nagusitasunari egiten dio erreferentzia, banakako eta familiarako esku-hartzeen bidez egiten denari, batez ere, pertsona edo familiak planteatzen duen premia bati gutxieneko iraupena bermatzeko, erantzuten diote bulegotik eta a posteriori (Zamanillo eta Gaitan, 1991).

hori dagoeneko gaindituta dauden arreta eredu, ongizate eredu eta gizarte eredu bati dagokiola, eta esku-hartze sozialaren abordatze edo ikuspegi hori ez dela egokia, kasu gehienetan, ezta hasierako etapa edo abiapuntu gisa ulertuta ere (Fantova, 2019b).

Metodologiari helduko diogu, behin ereduak ikusita, izan ere: “Eredua eta metodoa elementu osagarriak eta banaezinak dira jardun profesionalean, biak ezinbestekoak, baina urriak modu isolatuan erabiltzen badira (...) Bi elementuak elkarri lotuta daude, izan ere, garapen metodologikoko edozein prozesutan erreferentziatzeko eredu teoriko bat aintzat hartu behar dugu” (Ovejas eta Berasaluze, 2019, 113. or). Hori horrela izanik, gizarte-zerbitzuetako prozesu metodologikoa zertan datzan jasoko dugu, nahiz eta, ikusiko dugun bezala, gizarte-zerbitzuetako metodologia ez den gizarte-langintzako metodotik asko urruntzen.

Gizarte-zerbitzuen metodologia, gizarte-langintzaren metodoaren parekoa da, esan bezala. Legeen arabera, sistema bakoitzak izen ezberdinez izendatzen ditu azken finean berdinak diren faseak. Hurrengo irudian jasotzen da metodologia, nahiz eta azpimarratzen den, ez dela prozesu lineala, faseetako edozeinetatik edozeinetara itzuli baitaiteke.

6.Irudia: Gizarte-zerbitzuen prozesu metodologia



Iturria: Ovejas eta Berasaluze, 2019, 116. or.

Fase horietako bakoitzak hor aipatzen diren izenak erabili ditzake, baina horietaz gain, harrera, balorazio soziala, diagnosa, arreta pertsonalizatuko plana, jarraipena edo ebaluazioa moduko beste termino batzuk ere erabiltzen dira. Berezitasunak alde batera utzita, fase bakoitzaren zehaztasunak bilduko ditugu labur bada ere, Ovejas eta Berasaluzeren (2019, 116-122. or) eta Gomezen (2010, 175-182. or) lanetan oinarrituta.

- 0-Eskaera testuingurua edo harrera

Gizarte-zerbitzuetatik egiten den lanaren abiapuntua da, aurrefasea bezala izendatu dezakeguna. Pertsonaren beharrezko testuinguratu behar da, erakundeari, profesionali edo legeei dagokienez. Lehen informazioa da, beraz, nori aurkezten duen, zehaztasun maila eta edukia jaso behar dira. Beste gauza batzuen artean, konplexutasunari erreparatu behar zaio eta esku-hartzea nolakoa izango den irudikatu. Lehen kontaktua denez, harremana hasteko unea da eta berebiziko garrantzia dauka, entzute aktiboak eta baita enpatiak ere. Emandako informazioaren arabera, esku-hartzean garrantzi berezia izango duten eragile zein baliabideak irudikatu behar dira, hauekin kontaktu posibleak egin ahal izateko.

- 1-Ezagutza, informazioa jasotzea

Hau prozesu metodologikoaren lehen fasetzat hartzen dugu. Izenak aurreratzen duen bezala, informazio biltzeko unea da. Informazio iturri ezberdinak erabili ditzakegu eta erregistro tekniken bidez informazioa gorde. Egoera guztia era holistikoa eta ondo ulertu ahal izateko beharrezko informazio guztia ezagutu behar da. Horretarako, hitzezkoa ez den komunikazioari erreparatzea ezinbesteko lana da, baita esplizituki esaten ez den informazioa jasotzea ere. Informazioa izanda, azaldutako beharrezko gain egon daitezkeen beste beharrezko batzuk ere identifikatu daitezke eta horren arabera esku-hartzeak eraiki daitezke. Horiek eraikitzeko, dimentsio guztiak izan behar dira kontuan, bai individual familiarra, baita taldekoa eta baita komunitatekoa ere.

- Diagnostiko soziala

Bildutako informazio guztia analizatu eta interpretatu ondoren, hipotesiak eta esku-hartzeko estrategiak finkatu daitezke. Esan bezala, fase honetan, aurrez sistematizatutako datuen analisia egiten da, agertu daitezkeen behar edo egoerak lehenetsunaren arabera ordenatzeko. Gainera, hipotesiak formulatu behar dira eta gerta daitezkeenaren pronostikoak egin. Hainbat dira esku-hartzearen printzipioak, esaterako, pertsonalizazioa eta parte-hartzea. Ondorioz, berebiziko garrantzia du diagnostika pertsonaren eta profesionalaren artean eraikia izateak, betiere, pertsona protagonista izanda. Hori gertatu ahal izateko, pertsonaren denborak, onarpenak, usteak, kontuan hartuta egin behar da lan eta komunikazio etengabea eta egokia gakoak izango dira.

- Plangintza, lan plana, arreta indibidualerako plana

Lege beste izen har ditzaken fase honetan, diagnostikoaren fasean adostutakoaren araberrako ekintza plan bat diseinatu eta planteatzen da. Bertan, beharrezko aldaketak gauzatzeko helburuak, ekintzak, teknikak eta baliabideak zehaztuko ditugu. Prozesuak guztiz parte hartzailea izan behar du, hori dela eta, profesionalak planteamendu bat egingo duen arren, pertsonarekin eraldatu, egokitu eta adostutako emaitza izango da azken plana, autodeterminazioaren printzipioa bermatzearen bitartez. Aipatu bezala, plangintza honetan, adostutako helburuak eta esku-hartze eremuak espezifikatuko dira, horiek lortzeko metodologia argituko da, hau da, teknika zein ekintzak argituko dira eta baita baliabideak ere. Horretaz gain, eragile bakoitzaren erantzukizuna eta konpromisoak, iraupena, jarraipen prozesua eta ebaluazioa zehaztuko dira.

- Gauzatzea eta jarraipena


Izenak dioen moduan, fase honetan planifikatutakoa gauzatzeko unea da eta baita gauzatze prozesu horren jarraipena egitekoa ere. Fase honetan, enpatiak berebiziko garrantzia du, bestea ulertzeak, bere denborak onartzeak eta norberaren arabera egiten eta ekiten joatea. Hori gerta dadin, gauzatze zein jarraipen faseak ezin du direktiboa izan. Malgua ere izan behar du eta egon daitezkeen zailtasunei adi egon beharra dago, beharrezkoa bada moldatu ahal izateko. Hasiera batean ezarritako helburuak izan behar dute gauzatzearen gidari, baina gainerakoan, berrikusten joan behar da. Koordinazioa ere oso garrantzitsua da fase honetan, baina printzipiorik esanguratsuen, pertsonaren parte-hartzea, inplikazioa eta lankidetzak dira. Horiek sustatu behar dira “aldaketa positiboak eragiteko potentzialtasunak garatu eta gizarte baliabide zein pertsonalak sustatu” (Ovejas eta Berasaluze, 121. or). Egindako guztia sistematizatu behar da, horrela ebaluazioa egiten lagungarri izateko.

- Ebaluazioa

Faseen azken lekuan kokatua dago, momentu jakin honetan berriaz horretara zuzenduko baita lana, baina prozesu metodologiko osoan zehar egin beharreko ekintza da ebaluazioa. Egiten den esku-hartzearen eta prozesuaren balorazioa eta gogoeta kritikoa egitean datza. Ebaluazioan laguntzeko, helburuak bete diren ikus dezakegu, baina horretaz gain, badaude ebaluatu edo baloratu ditzakegun beste zenbait gauza: estaldura, efikazia, ondorioak, metodologia, erabilitako teknikak, baliabideak, parte-hartze maila etab. Adierazle ezberdinak erabili daitezke eta kualitatibo zein kuantitatiboen izan daitezke.

Ebaluazioaren emaitzak definituko du egindako lanarekin helburu ziren aldaketak lortu diren edo lana birformulatu behar den eta esku-hartzearekin jarraitu.

7.Irudia: Gizarte-zerbitzuetako metodologia



Iturria:Norberak egina.

2.2.5. EGUNGO EGOERA: GIZARTE-ZERBITZUEN KRISIA

Kapitulu honen azpiataletan zehar, gizarte-zerbitzuen nondik norakoak azaltzen saiatu gara egungo egoera errealak erakusten digunaren eta lege eta araudiek adierazten digutenaren artean. Ez da lan makala gizarte-zerbitzuen ingurukoak biltzea, izan ere, alde handia ematen da, egoera direnaren eta izan beharko luketenaren edo gehiago esanez, izan gura dutenaren artean. Gizarte-zerbitzuen inguruan murgiltzen diren aditu zein profesional gehientsuenak, denak ez esatearren, gizarte-zerbitzuen krisiaren inguruan mintzo dira. Bakoitzak bere modura izendatu badu ere, guztiak, egungo egoeraren jasangarritasuna ezbaian jartzen dute.

“La crisis de los servicios sociales modernos, en España viene de más atrás. Si la crisis económica ha agravado sin duda las dificultades de los servicios sociales, a nuestro juicio el periodo de expansión especulativa disimuló -sólo en una parte- una crisis más profunda del modelo” (Aguilar, 2013, 148. or).

Aguilarren interpretazioaren arabera, trantsizio garaitik, gizarte-zerbitzuen ereduak modernizazioa handia bizi izan du eta baita zerbitzuen garapena ere, baina, arestitik, hau da, ongintza publikoaren garaitik zekartzan gabezia edo arazoak kudeatu gabe egin da. Lehengoa ahanzi gura izan da, modernoa kontrajartzeko, baina, ahantzura horrek iragana ezkutatu gura du, ordutik orainera ematen den jarraikortasuna ikustea ekidinez.

Gizarte zerbitzuak gaur egun ez dira gai, bere eginbehar diren, zaintza, akonpainamendu edo esku-hartzeak era egokian gauzatzeko (Zuñiga eta Arrieta, 2021; Fantova, 2020a; SIIS, 2019) eta hainbat krisialdietan jasandako lermaketei, pandemia urteetan bizitako kolapsoa gehitu zaio (Las Heras, 2020). Hala ere, gizarte-zerbitzuen egiturazko krisiak hainbat elementu ezberdin jasotzen ditu, bata bestearekin elkarreraginean dauden elementuak, eta horietako bakoitza, gizarte-zerbitzuen ahulezia edo zailtasuna denez, aurre egin beharreko erronka gisa ere ulertu daitezke.

Lehenik eta behin, gizarte-zerbitzuen sistema sistema bezala izendatzeko besteko berme eskaintzen dituen zalantzan jartzen da etengabe (Arrieta, 2019; Roldan, 2009). Gizarte-zerbitzuen sistema, kapituluaren hasieran aipatutako bilakaera historikoagatik eta bere hasiera zein garapenean eragin duten hainbat elementugatik, esan dezakegu kontsolidatu gabeko sistema dela. Sistema gaztea da (Gallardo, 2011), urte gutxi eta zailak izan ditu eta gainera, eskumen eta erakunde ezberdinen menpe dago. Hori dela eta, ez dago ongizate estatua osatzen duten gainerako sistemen mailan, ez gero ikusiko dugun bezala iruditegi kolektiboari dagokionez, ezta lehentasun politikoei dagokienez ere (Hernandez, Echegayray, 2019). Ondorioz, sistema kontsolidatu gabea izateak ez du laguntzen hurrengo aipatuko diren zailtasun eta elementuetan.

Sistema bera, sistema bezala definitzen dutenen artean ere, “sistema caótico y acrítico” bezala izendatzen dute (Zamanillo eta Nogués, 2020, 3. or). Etengabe galtzen du zaintza, babesa eta esku-hartzean oinarritzen den edukia, izaera erlazionaleko ekintza eremua murrizten du eta gainez, beste sistema edo ekintza arloei interesatzen ez zaizkien egoerak gizarte-zerbitzuek asumitzen dituzte, azken sarea izatearen ezaugarria indartuz. Hori gertatuz gero, “va resultando cada vez menos realista el relato según el cual se iban a configurar como cuarto polar del Estado de Bienestar” (Fantova, 2020a, 4. or). Esaterako, gizarte bazterketaren kasuan, kausetara joanez gero, maiz, kausak, beste sistema batzuen

objektu dirennetatik eratorritakoak dira eta beraz, zalantzan jartzen da zeini dagokion horiek lantzea. Esklusiboki gizarte-zerbitzuen egin beharra izan gabe, egokiago da sistema askoren elkarlanaren bidez lantzea, nahiz eta historikoki horrela gertatu ez den (Jaraíz, 88. or).

Aurrekoarekin erabat lotuta eta horri tiraka, aurkitzen dugu erronketako bat, *objektuaren definizioa* zehaztea, alegia, momentu honetan gizarte-zerbitzuetako objektua erabat nahasia baita (Jaraíz, 2011; Aguilar, 2014; Fantova, 2017). Zehaztasun falta hori, are gehiago gertatzen da, bereziki interesatzen zaizkigun oinarrizko gizarte-zerbitzuetan. Daukaten izaera orokorrak, ez du behar beste zehazten benetako egin beharra eta hasieran planteatutako helburuak ahantzita geratzen dira (Anaut-Bravo, 2019). Ikusi ditugu objektuaren inguruko proposamen ezberdinak kapituluan zehar eta esan bezala, zehaztasunera heltzea garrantzitsua da, objektua baita sistemaren noranzkoa eta ekintza eremua markatuko dituen (Zubillaga eta Berasaluze, 2021). Objektuaren definizio ezaren erroetan gizarte-zerbitzuen sistema izan beharko litzakeena eta egun denaren arteko aldea kokatu dezakegu.

Unibertsaltasuna da aipatutakoaren gakoetako bat eta baita gizarte-zerbitzuek duten erronka garrantzitsu bat ere, zaila egiten baita unibertsaltasunaren bidean aurrerapausoak ematea. Urteak pasa dira, kasu batzuetan lehen belaunaldiko eta beste batzuetan, bigarren belaunaldiko legeek unibertsaltasunaren aldarria egin zutenetik, hala ere, oraindik egun, gizarte-zerbitzuen sistema ez da herritar guztiei arreta ematen dien desiratutako sistema hori (Carbonero et al, 2012). Unibertsaltasunaren printzipioa, karitatean oinarritutako ongintzaren eredu asistentzialista gainditu eta zerbitzuak herritarrengan hurbiltzeko helburuarekin txertatu zen legeetan (Martinez eta Perez, 2017), baina gaur gaurkoz, aldarritik errealitatetik baino gehiago duela esango genuke eta, noski, aldarrian geratzea ez da nahikoa (Carbonero et al.,2012). Izan ere, oraindik, ezaugarri konkretuak dituzten pertsonekin lan egiteaz arduratzen da batez ere, bazterketa egoeran dauden pertsonekin lan egiteaz, egoera larriez eta beharrianak ase ezin dituzten pertsonekin lan egiteaz. Horrek hondar sisteman bihurtzen ditu gizarte zerbitzuak (Godàs, 2022). Pertsonen zaintza unibertsalagoetan zentratzeko ezintasuna berresten da: “brindar cuidados y otros apoyos para la autonomía y la convivencia ha adquirido una dinámica cada día más incompatible con garantizar recursos económicos para la subsistencia material” (Fantova, 2020a, 1. or).

Objektuaren delimitazio egoki bat egiten bada, gizarte zerbitzuak beste sistemetatik zerk ezberdintzen dituen jakin ahalko dugu, zer den berea propio eta zertan den beste batzuekin osagarria. Horrela bakarrik utziko dio subsidiariorotasunari zein osagarritasunari eta horrela, kooperazioari emango dio pausu, ongi definitu eta errotutako sistema bat sortzeko bidean (Anaut-Bravo, 2019; Aguilar, 2013). Gainera, berebiziko garrantzia du, izan ere, objektua definitu gabe izateak, sistema izateko eta beraz, izaera zein arreta eredu propio eta konkretua izateko zailtasunak areagotzen ditu.

Gauzak horrela, legeek dioten pertsonan ardaztutako arreta eredua, ikuspegi komunitarioa eta beste zenbait aspektu eraldatzaile ere, unibertsaltasunaren pare, aldarri hutsean geratzen dira, eredu asistentzialistaren mesedetan:

“En línea del contexto de las sociedades postmodernas, más abocadas en principio a una supuesta satisfacción individualista de las necesidades, se ha ido perfilando un enfoque administrativista de la intervención, que en la bibliografía especializada también se ha definido como burocratización. (...) La lógica del recurso ha centralizado la intervención social en los servicios, antes que las personas” (Ramos, 2016, 717-718. or).

Egun, gizarte zerbitzuak ez dira *asistentzialismoa gainditzeko* gai, besteak beste, jasaten duten lan kargak eta honek bizi duen hazkunde esponentzialak (Hernandez, Echegaray, 2019); gehiegizko prozedura administratiboek eta eskaera baliabidean oinarritutako dimentsio indibiduala familiarraren nagusitasunak eraginda (Martinez, eta Perez, 2017). Ongintzaren herentziaz desagitea da honenbestez, beste erronketako bat. Gizarte zerbitzu publiko eta pribatuei eskatzen zaie familien eta gizabanakoen gutxieneko biziraupena ziurtatzeko (janaria, alokairurako dirua, besteak beste). Kasu indibidualaren inertziaren indarra, eta larrialdiko edo ez larrialdiko laguntza ekonomikoen bidezko laguntza harremana, esku-hartze sozialerako aukera ia bakarra dela baieztatzen da. Baina, banakako arreta hutsak ordea, neoliberalismoaren oinarriak errazten eta finkatzen ditu eta desberdintasuna ere bultzatzen du, horrela funtzionatzen den artean, gizarte harremanen narriadura eragiten duten arazo estrukturalak bizirik dirautelako (Zamanillo eta Nogués, 2020).

Aditu ezberdinek onartutako, sistemaren ezaugarriek dagokien krisi honetaz haratago, gizarte egiturazko krisi batean murgilduta dago azken urteetan eta horrek bete betean eragiten du gizarte-zerbitzuetan. Momentu jakinetan, krisi ekonomikoa, etxebizitzaren burbuilaren krisia, orain pandemia eta abarrek, egoera horiek mugaraino eramaten dituzte, baina krisia anizkoitza eta egiturazkoa dela esan dezakegu. Koiuntura politiko

ekonomiko sozial horrek gizarte ezberdintasunak areagotzen ditu, kohesio soziala jokoan jartzen du eta gizarte problematika konplexuagoak uzten ditu. Konplexutasun horren baitan, gizarte-zerbitzuek etengabe ikusten dute herritarren beharrezanen eta zerbitzuotara hurbiltzen diren pertsonen gorakada, hauen giza eskubideak zein eskubide sozialak murrizten diren bitartean. Pertsona asko eta asko dira krisi batek sortutako ondorioei buelta eman gabe beste krisiaren ondorioak gainjarri zaizkienak eta horrek gizarte-zerbitzuen lanean zuzenean eragiten du: “Se empieza a primar el trabajo social individual o de caso, (...) entendiendo que el trabajo social se mueve en un binomio de recurso necesidad” (Sarasola, Gonzalez, Rioz, 2019, 84. or). Gero eta gehiago dira, gizarte-zerbitzuetara oinarrizko beharrezanak asetzeko asmoz hurbiltzen direnak eta mota horretarako lan asistentzialista administratiboa areagotzen bada, baliabide pertsonalak areagotu gabe, esku-hartze sozialera bideratutako denbora murrizten da.

Gizarte zerbitzuak ez dira neoliberalismoaren atzaparretatik at geratu eta eredu politiko ideologiko hori sistemaren barreneraino sartu da: “El neoliberalismo trunca el proyecto de universalización de los servicios sociales” (Hernandez-Echegaray, 2019, 130. or). Aurreko egoera koiunturalaren aurrean, “Eredu liberal neofilantropikoa” hedatu da eta enpresa eta korporazio handiak arrazoi ezberdinengatik errentagarriak diren zerbitzu guztiak bereganatzen ari dira. Egoera honen aurrean, beste sistema batzuetan gertatzen ez den bezala, ez da zalantzan jartzen publiko eta pribatuaren arteko elkarlana eta badirudi, pentsaera horrek, gizarte-zerbitzuen identitatea difuminatzen duela (Zamanillo eta Nogués, 2020).

Gizarte-zerbitzuetan emandako diru hazkundeak ez du emaitzarik izan ez baliabide ezta zerbitzuetan ere (Asociación Estatal de Directores y Gerentes en Servicios Sociales, 2022, 9. or). Gizarte-zerbitzuek jasandako murrizketa nabarmena izan da, maiz bideratutako gastu publikoa igo bada ere, ez baita beharrezanak igo diren proportzio berdinean igo. Horrek ondorioz, zerbitzuan murrizketak eragiten ditu eta esku-hartze sozialerako tarte murrizten du, horrek dakarren guztiarekin. Horretaz gain, prestazioak jasotzen dituzten pertsonak, oso baldintzatuta jasotzen dituzte, gero eta eginbehar gehiago esleitu eta gero eta baldintza zorrotzagoan ezartzen baitzaizkie prestazioaren onuradun izateko.

Askok dira ongizate estatuari, eta bereziki, gizarte-zerbitzuei eragin dioten krisiak eta ondorioz, zerbitzuek zailtasun eta erronkak dituzte. Krisi puntualen eraginetatik haratago doan krisi kronikoa bizi dutela esan dezakegu. Krisi hori eragiten duen identifikatutako azken zailtasuna, *gizarte legitimazioarena* da. Ez dago proportziorik babes sistemei

eskaintzen zaizkien gastu publikoaren eta hauen inguruan egiten den eztabaida ideologikoaren inguruan, batez ere komunikabideetatik (Anut-Bravo, 2019). Gizarte zerbitzuak adibidez, ez dira ongizate sistema publikotzat kontsideratuak, esaterako murrizketei buruz mintzo direnean hezkuntza edo osasuna bezalako sistemak aipatzen dira eta ez ordea, gizarte zerbitzuak. Horretaz gain, komunikabideetan eta esfera publikoan, sarri, desprestigiazioa bizi dute, aurreiritziz eta datu faltsuz betetzen baitituzte titularrak.

Hori gutxi balitz, gizarte-zerbitzuetan ematen diren anbiguotasun hauek guztiak, iruditegi kolektibo ezegoki bat elikatzen dute eta gizarte zerbitzu eredu oso konkretu baten irudia sortzen da gizartearen parte handi batean. Horrek, eragina du, bere legitimazioan, gizarteak sistema bere egin eta sistema babestean, baina baita beste babes sistema batzuk gizarte-zerbitzuez egiten duten erabilera edo harremanean ere (Aguilar, 2013).

“Este riesgo al que nos referimos no se limita a la pura reducción de prestaciones, sino también a la posibilidad, observable ya en muchos casos, de que el crecimiento de ayudas de urgencia social y demandas vinculadas a la cobertura de necesidades básicas comporten el riesgo de reforzar la imagen asistencialista de los servicios sociales, acompañado esto por un creciente debilitamiento de enfoque comunitario y preventivo” (Carbonero et al., 2012, 16-17. or).

Azkenik, Covid-19aren garaiak azken urteetan izan duen garrantziaz jabeturik erreferentzia xume bat egitea egoki ikusi dugu. Pandemiaren ondorioz, aurrez gizarte zerbitzuak krisi egoerara eramaten dituztenak berretsi besterik ez direla egin ikus dezakegu, nahiz eta kasu batzuetan, nabarmenago geratu den.

Fantovaren ustez (2020), pandemia garaian, gizarte zertzuek sistema bezala funtzionatu ez dutela ikusi ahal izan dugu, han eta hemen, oinarrizko gizarte-zerbitzuek, tokiko udalaren arabera ekintza eta lan zeharo ezberdinak egin baitituzte. Agerian geratu da horrela, sistemaren fragmentazio eta desartikulazioa. Honetaz gain, gizarte zerbitzuak oso pertsona gutxiri arreta emateaz arduratu dira, bazterketa larrian zeuden pertsonen alegia. Gainera, kasu batzuetan, gizarte-zerbitzuen lana beste sistema batzuek egin dute eta horrek eragin handia dauka gizarte-zerbitzuen legitimazio sozial eta politikoan. Landu diren eremuetan, besteak beste, egoitzen eremuan, lanak zeharo deskonektatu ditu pertsonak beren testuinguru familiar eta komunitarioetatik eta zerbitzuek pertsonen bizi kalitatean eraginez, prozedimendu administratibo eta kontroletakoen bidez, erabat asistentzialki jokatu dute, gizarte esku-hartzerik ere egin gabe. Bazterketa larrian dauden pertsonen arretari dagokionez, azken sarea bezala posizionatzea ere estrukturaliki

ezinezkoa dela ikusi da: “Es cada vez más irresponsable, ineficiente y peligroso para la sociedad y para los servicios sociales mantener la ficción de que podemos ser esa última red” (2. or). Azkenik, gizarte-zerbitzuek ez dute eraginik izan gizartearen gehiengoan, eta beraz, hainbeste desiratutako unibertsaltasuna ez da ikusi krisialdi honetan ere. Zerbitzu asko geratu dira eta kasu gutxitan ezik (arreta telematikoaren bidez), ez dira zerbitzuak konpentsatu. Azkenik, zera dio:

“Salvo excepciones, no parece que profesionales de los servicios sociales hayan tenido que ver con las numerosas iniciativas comunitarias de ayuda, cuidado, acompañamiento y apoyo vecinal que han surgido. Supuestamente somos sistemas universales territorializados que nos encargamos de la prevención y abordaje de determinadas situaciones de cualquier persona, pero, en esta crisis, incluso cuando hemos podido y querido ejercer dicha responsabilidad, nos hemos encontrado con una gran carencia de información, tecnología y conexión poblacional. (...) En el conjunto de los servicios sociales, hemos visto a muchas personas trabajando de forma esforzada y eficaz y salvando vidas. Muchas trabajadoras y trabajadores de los servicios sociales, seguramente, una gran mayoría, han trabajado y siguen trabajando con intensidad, conocimiento, compromiso e inteligencia, demostrando entrega, empatía, profesionalidad y vinculación con muchas personas y entornos (...) Y frecuentemente lo han hecho y lo siguen haciendo con insuficiente protección y reconocimiento” (2. or).

Laburbilduz beraz, gizarte-arazo estrukturalak gizarte-zerbitzuetan eragiten duten kolapsoaz gain, gizarte-zerbitzuek zailtasunetatik eratorritako honako erronkak dituzte:

- Hondar sistema izateari utzi eta unibertsaltasuna aldarri hutsa izatetik errealitate izatera pasatzea.
- Horretarako, objektuaren zehaztasun egokia egitea.
- Asistentzialismoa bere ezaugarri guztiekin (lan indibiduala, lan erreaktiboa, burokratizazioa etab.) gainditzea.
- Gizarte-zerbitzuen iruditegi kolektiboa aldatzea, legitimazioa lortzea eta ondorioz, gizarteak babestu beharreko sistematzat sentitzea.

Ikusitako gizarte-zerbitzuen egoerak zerbait egin behar dela adierazten du eta alorreko aditu gehientsuenak datoz bat, gizarte-zerbitzuen berrantolaketaren unea iritsi dela aitortzea (Fantova, 2020b; Anaut-Bravo, 2019), baita oinarritzko gizarte zerbitzuak birpentsatzekoa ere (Jaraíz, 2011).

“No cabe esperar más, ya nos urge, el sí o sí se ha impuesto por la fuerza de las circunstancias, nuestras resistencias al cambio han llegado al límite. (...) Nos encontramos ante una encrucijada en la que no hay otra posibilidad que la de disponer desde ahora a emprender nuevos caminos que, en muchos casos, supondrán un cambio muy radical. (...) Tenemos que mutar muchas de nuestras actitudes y cambiar muchos de nuestros comportamientos profesionales (...) Hoy

no hay otra posibilidad de hacer un trabajo creativo si no es con los otros, con los pares profesionales y con las y los sujetos de la acción social que son los pobladores de los barrios” (Zamanillo eta Nogués, 2020, 8. or).

Berrantolaketa horren baitan, aurreko autoreez gain, asko dira gizarte-zerbitzuen eta batez ere, oinarrizko gizarte-zerbitzuen berrasmatze prozesuan dimentsio komunitarioak berebiziko garrantzia eta pisua izan behar duela uste dutenak eta ikerketa lan hau ere, bat dator. Hori dela eta, gizarte-langintza komunitarioa deituriko kapituluan, estrategia horren lanketa egingo da, landa lanaren marko erreferentea izango dena.

“Los Servicios Sociales se encuentran en un momento histórico para el abordaje de lo comunitario, con un replanteamiento de su objeto y funciones: una oportunidad para liderar su papel vertebrador en cuanto a la acción social en los territorios” (Santás, 2022, 1. or).

2.3. GIZARTE ZERBITZUEN EUSKAL SISTEMA KLABE KOMUNITARIOAN

Ikerketa lan honetan Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren (Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema) eremua aztertuko dugunez, garrantzitsua da, bereziki, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren markoa eta berau marrazteko dauden arau eta dokumentu ezberdinak aztertzea. Kapitulu honen helburua, EAE mailan komunitarioan sakondu ahal izateko gizarte-zerbitzuek eta bereziki, oinarrizko gizarte-zerbitzuek eskaintzen duten aukera ezagutzea baita. Horretarako, lehenik eta behin, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemari eragiten dioten marko legal, plan eta dokumentuak aztertuko ditugu. Ondoren, dokumentu horiek berak landuko dira, baina kasu horretan, klabe komunitarioan. Horrek esan nahi du, komunitarioari egiten dizkioten erreferentziak edo komunitarioarentzat interesgarriak izan daitezkeen gakoei erreparatuko diegula. Hurrengo aldiz, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema egoera aztertuko da, horretarako publikoak diren hiru dokumentu erabilita eta azkenik, Gasteizko Udaleko gizarte-zerbitzuen markoaren hurbilpena egingo dugu.

2.3.1. GIZARTE ZERBITZUEN EUSKAL SISTEMAREN MARKO NORMATIBOA

Marko normatiboari edo esan bezala, sistema marraztea ahalbidetzen duten arau eta dokumentuei begiratu aurretik, lehenik eta behin Autonomia Estatutuan jasotzen dena ikusiko dugu. Ondoren, zehazten joango gara, gizarte-zerbitzuen legeen bilakaera eta egun indarrean dagoen legea aztertuz eta azkenik, plana, mapak eta interes berezia daukaten bestelako dokumentu aztertu ditugu.

Lehenago aipatu bezala, 78ko Konstituzioak, 148.1.20 artikuluan, Euskal Autonomia Erkidegoari “gizarte-langintza, adingabeak zaindu eta babesteko erakundearen antolaketa, araubide eta funtzionamendua, komunitatearen garapena, berdintasuna eta haur, gazte eta adinekoen aldeko politikak” garatzeko eskumen eskusiboa ematen dio. Hori horrela izanda, EAEko Autonomia Estatutuaren 3/1979ko abenduak 18, Lege Organikoan, 9.2 artikuluan jasotzen da Euskal Herriko hiritarren oinarrizko eskubideak eta betebeharrak Konstituzioan jasotzen diren berberak direla eta euskal botere publikoek:

“Dagozkien alorretan: Hiritarren oinarrizko eskubide eta betebeharren erabilpen egokia zaindu eta bermatuko dute; bizitzeko eta lan egiteko kondizioen hobekuntza ekar dezaketen politika bultzatuko dute bereziki; (...)

gizabanakoaren eta berori sartuko den taldeen askatasuna eta berdintasuna zinezkoa eta egiazkoa izan daitezen, diratekeen oztopoak erauzteko eta aldeko kondizioei eragiteko neurriak hartuko dituztela eta Euskal Herriko politika, ekonomia, kultura eta gizarte alorretako bizitzan hiritar guztien parte-hartzea erraztuko dutela” (9.2artikulua, 2. or).

Behin Autonomi Erkidegoek gizarte-zerbitzuen eskumena izanda, lehenengo belaunaldiko lehen legea onartu zen EAEn, zehazki, 6/1982ko Legea, maiatzaren 20koa, gizarte-zerbitzuei buruzkoa. Legeak, arestian aipatu bezala, lehenengo belaunaldikoa denak, koherentzia eta ikusmolde moderno bat eman zion gizarte-zerbitzuen Sistemari eta zerbitzuok herritarren eskubidetzat aitortu ziren.

Lehenago gizarte-zerbitzuen legea onartua bazegoen ere, Azaroaren 25eko 27/1983 Legea, Autonomia Elkarte osorako erakundeen eta bertako lurraldeetako Foruzko ihardutze-elkarteen arteko harremani buruzkoa indarrean sartu zen eta bertan, foru erakundeei esleitu zitzairen, EAEko arauak bere lurraldean betearazteko lana eta beste gauza batzuen artean, bere zerbitzuen antolaketaren eskumena. Azken honek eta aurrez, gizarte-zerbitzuen kapituluan, aipatu dugun 7/1985 Toki Araubideen Oinarriari buruzko Legeak eragin handia izan zuten eta sistema publikoetan aldaketak ekarri zituzten. Horrenbestez, eta hamarkada hauetako aldaketa zein egoera sozialak (biztanleriaren hazkundeak, emakumeen lan merkaturatzeak, krisi industrialak eta honek eragindako ondorioek, adibidez, langabeziaren hazkundeak) bultzatuta lege berri bat onartzeko bidea hasi zen. Lehenengo legea baino hamarkada bat beranduago onartu zen 5/1996ko Legea, urriaren 18koa, gizarte-zerbitzuena eta erantzukizun publikoko gizarte-zerbitzuen Sistema osatu bat antolatu eta egituratzea zuen helburu, herritar guztiek gizarte zerbitzuak jasotzeko duten eskubidea sustatuz eta bermatuz. Helburu hirukoitza zuen legeak “marjinazio sozialaren eta ezberdintasunaren kausak aurreikusi eta ezabatzea; pertsonak eta taldeak gizarteratzen laguntzea eta haien garapen osoa eta librea sustatzea”. Horretaz gain, oinarritzko gizarte zerbitzuak “sistemaren oinarritzko unitate gisa eta zerbitzuetara irizpidea izateko gune gisa” eratu zituen, hauei “komunitatearentzako arreta antolatzeko funtsezko eginkizuna” ezarri eta udal guztiei, banaka edo ez, baina aurreko biak betetzeko zerbitzu bat emateko betebeharra ezarri zitzairen. Horretaz gain, unibertsaltasun printzipioa, arreta pertsonalizatuarena eta ekimen pribatuarekiko lankidetzaren formulen inguruko ekarpenak ere egin ziren legean.

Esan daiteke beraz, komunitateko gizarte-langintzaren ikuspuntutik, EAEn bigarren lege hau dela, lan komunitarioaren oinarri edo erroak finkatzen dituena. Egoera sozial larria

bizi zen une horretan, besteak beste, krisi industrialak bultzatuta, baina heroinak sortutako eraginak bezalako beste hainbat errealitate ere begi bistakoak ziren. Zuzenean edo zeharka, gizarte osoari eragiten zien errealitateak ematen ziren eta hauekin guztiakin lan egiteko beharra zegoen. Lege honek, kausak aurreikusi eta ezabatzea bezalako ideiak planteatzen ditu eta horiek, ezinbestean era komunitarioan landu beharrekoak dira. Gainera, aipatu dugun bezala, oinarrizko gizarte-zerbitzuei garrantzi berezia ematen die, baita, komunitatearentzako arreta antolatzeko eginbeharra esleitu ere, eta noski, komunitateko gizarte-langintzaren ikuspuntutik oinarrizko gizarte zerbitzuak lanerako eremu pribilegiatua izanik, legearen ekarpen hau mugarriztat jo daiteke.

Gizarte errealitateak, aldaketa nabarmenak izan zituen hurrengo hamarkadetan eta lau multzotan banatu zituzten arrazoiak. Lehenik eta behin, arestian aipatutako krisi ekonomikoa gaindituztat ematen da “egoera ekonomiko ona” dagoela nabarmenduz eta are gehiago, langabezi tasa “teknikoki, enplegu betekoa” dela aipatzen da. Bigarrenik, bere autonomia mugatuta duten pertsonen hazkundera zein beren izaera aldatu egin dela. Mendekotasun egoerei aurre egiteko eskaerak hazi eta orain arte ez bezala, gizarte laguntza informala ahuldu egin dela dio, emakumeak lan merkatuan sartzearekin batera, gizonezkoek zaintza lan informalak bere gain hartu ez dituztelako. Hirugarrenik, aipatzen du ahultasun eta bazterketa egoeren kronifikazioak areagotu direla, bereziki talde ahulenen artean, besteak beste, etxebizitza izateko zailtasunak dituztenak, lan prekarietatean bizi direnak etab. gehientsuenetan, emakumeak, gazteak, etorkinak... izaten direnak. Gizarte babes nahikorik ez dutenak eta beraz, isolamendu egoeran bizi direnak gero eta gehiago dira eta baita gatazka egoera edo babesgabatasun egoerak pairatzen dituztenak ere. Azkenik, “gizon eta emakumeen arteko berdintasunera hurbildu ahala gertatzen diren aldaketa sozialei egokitu behar zaizkie gizarte zerbitzuak”. Esaterako, bazterkeriari, babesgabatasunari, tratatu txarrei aurre egiteko jarduera eta zerbitzuak antolatu dira, baita familiei gizarte sare sendoagoa egiteko neurriak ere. Testuinguru horretan, gaur egun indarrean dagoen legea 12/2008ko Legea, abenduaren 5koa, gizarte-zerbitzuei buruzkoa onartzen da. Lege hau, hirugarren belaunaldiko legea bezala izendatu daiteke eta gizarte zerbitzuak herritarren eskubide subjektibo gisa azaltzen ditu.

Aurrekari bezala 1982 eta 1996ko gizarte-zerbitzuei buruzko legeak izanda eta aurrez aipatutako arrazoiak medio, 2008an onartu zen, gaur egun EAEn indarrean dagoen, gizarte-zerbitzuei buruzko legea. Legearen prestaketa hasteko eman ziren aldaketez

mintzatu gara, baina, legea gauzatu, onartu eta indarrean sartu osteko lehen urteetan emandako testuinguruak ere badu bere garrantzia.

Batetik, planteamendua eta legearen prestaketa, alor ekonomikoari erreparatuz, hazkunde esanguratsuetako urteetan egin zen, horrek dakarren guztiarekin, besteak beste, legeak proposatzen dituen ekarpen berriei, eta ondorioz, sistemaren finantzaketari dagokionean, baita, egon daitezkeen gizarte errealitateei dagokienean ere. Kontuan izan behar da, legea onartu zen urte berean, higiezin burbuilak eragindako krisi ekonomikoaren hasiera izan zela eta zorpetze publiko handia eman zen. Administrazioek erakunde pribatuetan egindako diru injekzioak bultzatuta sortutako zorpetzea, herritarrenganako austeritate politiken bitartez orekatzen saiatu ziren, adibidez, sistema publikoetan egindako murrizketen bidez. Bestetik, lege berri baten beharra onartua zen, baina politikoki ere, egoera berezian gauzatu zen. Jaurlaritzan, hiruko gobernua zegoen agintean: EAJ, EA eta EB-IUk osatutakoa. Alderdi hauek, alor ekonomikoan edo sozialean izan ditzaketen ezberdintasunekin, jakina da, legeak berak ez zuela kontsentsu nahikorik izan, ez Eusko Jaurlaritzako gobernu barruan ezta erakundeen artean ere, alderdi eta erakunde bakoitzaren ikuspuntu eta jarrera ezberdinak eraginda. IU-EBk zuen kontseilaritza une horretan eta batik bat, beraiek bultzatutako legea izan zen. Horretaz gain, 39/2006, Legea, abenduaren 14koa, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoa onartu zuen Espainiako gobernuak eta eskubide subjektiboa agertzearekin batera, EAEko legea bezalako hirugarren belaunaldiko legeak agertzen hasten dira, gizarte zerbitzuak eskubide subjektibotzat izendatuz. Esan daiteke beraz egoera, gutxienez, berezian, eraman zela aurrera bai legearen prestaketa azkarra, onarpena, baita indarrean jartzea ere.

Edukiari erreparatuz, legeak lehen aipatu bezala, gizarte-zerbitzuetarako eskubidea subjektiboa izatea “osagai nagusi” bezala definitzen du, “herritartasunari dagokion eskubidea den aldetik”. Eskubide hori egikaritzeko ordea, nahitaezkoztat jotzen du erantzukizun publikoko Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema “moderno, aurreratu eta berritzailea” eraikitzea, ongizate estatuaren gainerako zutabeak besteko sistema garatu bat, “hiru administrazio mailak egituratzeko gauza izango diren kudeaketa eta koordinazio tresna batzuez hornituta, (...) prestazio eta zerbitzuen sare artikulatu bat ezarri, antolatu, garatu eta sendotzeko moduko egitura bat izango duena” (zioen azalpena). Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren helburua “herritar guztien gizarte

ongizatea sustatzea” dela zehazten da legean (6.artikulua). Printzipioei erreparatuz, aurreko legeak ezarritakoak mantentzen dira, nahiz eta honetan sakondu egiten diren:

- Erantzukizun publikoa
- Unibertsaltasuna
- Herritarrekiko hurbiltasuna eta deszentralizazioa
- Berdintasuna eta ekitatea
- Prebentzioa, integrazioa eta normalizazioa
- Pertsonari egokitutako arreta integral eta jarraitua
- Esku-hartzeen diziplina artekotasuna eta kalitatea
- Agenteen arteko lankidetzeta eta koordinazioa
- Gizarte ekimena eta herritarren parte-hartzea sustatzea (7.artikuluan).

Hauetaz guztiez baliatuz, arreta eta esku-hartzeko ereduari dagokienez, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema “komunitatea oinarri duen ikuspegiaren arabera jardungo da, alegia, zerbitzu eta prestazioen hurbiltasunaren ikuspegiaren arabera” eta horretarako, besteak beste, prebentzio ikuspegia txertatzea proposatzen da (8.artikulua).

Aurrerago zehaztaperen gehiagorekin aztertuko bada ere, esan behar da, lege honek aurreko legearen sendotzea dakarrenez, badaudela gizarte-langintza komunitarioaren ikuspuntutik mugarri interesgarriak. Zalantzarik gabe, ikuspuntu komunitarioari ematen zaion garrantzia eta berau txertatzearen ezinbestekotasuna horietako bi dira, nahiz eta badauden gehiago ere. Unibertsaltasuna eta herritar guztientzat izateko bokazioa ere, badira elementu garrantzitsuak, baita, gainerako sistemekin parekatzeko ahalegina ere.

Gaur egungo Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema aipatutako legeak arautzen badu ere, legeak berak honen osagarri izan beharko luketen hainbat arau, erakunde eta ekintza proposatzen ditu, nahiz eta guztiak bete ez diren. Horien artean, sistemaren funtzionamenduan eta eguneroko jardunean, bereziki eragiten dutenak dira, batetik, 185/2015 Dekretua, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa eta bestetik, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiken sailak (2016) egindako Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuen plan estregikoa 2016-2019 eta gizarte-zerbitzuen mapa²². Bi hauetaz gain, badaude dekretu

²² Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte-zerbitzuen Plan estrategikoaren dokumentuak, barne hartzen du Gizarte-zerbitzuen mapa.

bidez araututako beste zenbait erreminta, organo edo deklarazio, besteak beste, gizarte-zerbitzuen Erakunde arteko Organoaren ingurukoa, gizarte-zerbitzuen Goi Ikuskaritza zehazten duena, diagnostikoak egiteko tresnei buruzkoak edo erregistroei buruzkoa. Hala ere, araudian hutsuneak daude eta gizarte-langintza komunitarioaren ikuspuntutik, ez dago esaterako, oinarriko gizarte zerbitzuak erregulatuko dituen araudirik ezta, eskuhartze sozio-hezitzaileak arautiko dituenik ere, nahiz eta legeak berak gako bezala hartzen dituenak izan.

Osagarriak diren araudiaren artean dago Prestazio eta Zerbitzuen Zorroari buruzko Dekretua. Dekretu hau Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte-zerbitzuen plan estrategikoa eta mapa bezala, legea indarrean sartu eta sei urtetara onartzen da, horrek, sistemaren funtzionamenduan duen eraginarekin. Hauek sortzeko eta onartzeko momentuak testuinguratzea ere garrantzitsua da, batez ere, sei urteko atzerapena ulertzeko. Alor ekonomikoari dagokionean, lehen aipatu dugun bezala, atzeraldi ekonomiko batean murgilduta dago gizartea. Administrazio publikoen zorpetzea handia da diru publikoa erakunde pribatuen finantzazioa bermatzeko erabili delako eta ondorioz, sistema publikoek murrizketak jasaten dituztelako, austeritate politiken testuinguruan. Politikoki ere, aniztasun garaia da, batez ere, erakundeen artean, Foru Aldundi bakoitzeko gobernua alderdi politiko ezberdin baten esku baitago, Araban PPK, Bizkaian EAJk eta Gipuzkoan Bilduk aginduz. Agerikoak dira, alor gehientsuenetan, hauen artean dauden ikuspuntu ezberdinak, baita esparru sozialean ere, beren jardunetan ikusi zitekeen bezala. Egoera gorabeheratsua izan arren, 2015ean onartzen da Prestazio eta Zerbitzuen Zorroa eta horrela definitzen du bere xedea arauak:

“Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroa arautzea da, baita prestazio eta zerbitzu horiek lortzeko baldintzak, irizpideak eta prozedurak arautzea ere. Eta, bide horretatik, Lege horretan aldarrikatutako eskubide subjektiboa ez ezik, aipatutako Zorroaren prestazio eta zerbitzuak eskaintzeari dagokionez euskal administrazio publikoek dituzten betebeharrak mugatzea eta edukia ematea ere” (xedapen orokorrak, 1. or).

Prestazio eta Zerbitzuen zorroaz gain, kontuan hartu beharrekoen artean izendatu ditugu bai Mapa eta baita, Plana ere. Mapak (2016) egiten dituen ekarpenei erreparatuz, gertutasun graduari edo lurralde antolamenduari buruzko irizpideak ezartzen ditu. Gomendioak egiten ditu zorroan agertzen diren zerbitzuen gutxieneko estalduraren inguruan eta hau guztiori burutuz gero, sistemak izan dezakeen kostuaren aurreikuspena ere egiten du. Horren harira, mapak bost lurralde maila zehazten ditu:

“Katalogoko zentro mota bakoitzerako egokientzat hartutako hurbiltasun-mailak zehaztu dira, eta zentro bakoitzean maila horrek oso handia, handia, ertaina eta txikia izan behar ote duen finkatu da, bai eta zentralizatuak ere; faktore horien arabera, bost biztanleria-eremu zehaztu dira, biztanleria-bolumen jakin bat dutela, bai eta bost mugapen geografiko ere” (Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiken sailak (EJ-EGPS), 2016, 102. or).

4.Taula: Arreta sarearen hedapenaren hurbiltasun maila

Hurbiltasun-maila	Biztanleria-eremua (Biztanleriaren bolumena)		Mugapen geografikoa
Zentralizatuak	400.001-EAeko edo Lurralde Historikoko guztizko biztanleria		Lurralde Historikoa edo EAE
Hurbiltasun-maila txikia	200.000 - 400.000		Sektorea
Hurbiltasun-maila ertaina	50.001 - 199.999		Eskualdea
Hurbiltasun-maila handia	Gutxienekoa (15.001)/Ertaina (30.001)- 50.000		Area
Hurbiltasun-maila oso handia	Oinarrizko hiri-eremua ⁵³	5.000 biztanle.	Udalerrria edo udalerrri-elkartea
	Oinarrizko landa-eremua	3.000 biztanle.	

Iturria: EJ- EGPS, 2016, 102. or.

Horri dagokionez, beraz, EAE edo lurralde historiko guztietako biztanleei dagokien eremu zentralizatuez bereiz, beste lau eremu edo mugapen geografiko zehazten dira. Sektoreak dira handienak, hurbiltasun maila txikikoak izaten dira eta zerbitzu espezializatuei dagokie. Eskualdeek ere, hurbiltasun maila txiki-ertaina dute eta lehenengo mailako zein bigarren mailako arretari egin diezaieke erreferentzia. Hurbiltasun maila handia dutenak, Area bezala definitzen dira eta honek ere, eskualdeek bezala, bi arreta maileri egin diezaieke erreferentzia. Azkenik, Udalerrria edo Udalerrri elkartea (oinarrizko eremuak) definitzen du, hurbiltasun maila oso handiarekin. Guztietan, esan bezala, biztanleria eremua edo bolumena zehazten da, baina azkenengoan, hau da, bi azpiatal ezberdintzen dira, oinarrizko hiri eremua 5000 biztanle artekoa eta oinarrizko landa eremua 3000 biztanlekoa. Aipatutako araudi orokorra kontuan izanda, lurralde historiko bakoitza bere gizarte-zerbitzuen Lurralde mapa osatzen joan da²³.

²³ Gizarte-zerbitzuen Lurralde Mapak: Arabako Foru Aldundiaren (2016) <https://www.dataraba.eus/eu/ver-biblioteca-novedad/no-518610/> eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren (2018) http://www.behagi.eus/files/informes/gipuzkoako_gizarte_zerbitzuen_mapa_2018_2021.pdf mapak sortuak daude, aldiz, ez da berdina gertatzen Bizkaiaren kasuan, oraindik ere ez baitu gizarte-zerbitzuen maparik argitaratu.

Planean ostera (2016), beharrizanen diagnosia egiten da Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren xedea eta ikuspegia zehaztuz. Xedea horrela adierazten da:

“Pertsona, familia eta talde guztien gizarteratzearen eta autonomiaren alde egitea da –eta sustatzeko, aurreikusteko, babesteko eta laguntzeko eginkizunak betez gauzatu nahi du xede hori, funtsean pertsoneri eta harremanei buruzkoak diren prestazio eta zerbitzuen bidez; horretaz gain, gizarte-ongizatea lortzea ere badu xede, beste sistema eta politika publiko antzeko edo osagarriekin koordinatuta eta lankidetzan jardunda” (2016, 61. or).

Ikuspegia berriz, horrela definitzen da: “Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema sistema unibertsal eta erantzukizun publikokotzat sendotzea, sistema horretako zerbitzu eta prestazio ekonomikoak eskuratzeko aukera eskubide subjektibotzat bermatu ahal izateko. Eta legean aurreikusitako arreta-eredu komunitarioaren edo ikuspegiaren arabera hedatzea” (2016, 62. or). Horretaz guztiaz gain, 83 ekintza eta 32 helburu estrategikotan banatzen diren bost ardatz nagusi barne hartzen ditu planak. Ardatz nagusiak hurrengoak dira:

- Unibertsalizazioa, lurralde antolamendua eta ekitatea sarbidean
- Eredu komunitarioa eta, batik bat, prebentzio ikuspegia finkatzea eta garatzea, eta arreta pertsonalizatzea.
- Sistemaren barne egituraketa eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren gobernu eta kudeaketa sistema garatzea.
- Baliabideak optimizatzea, baliabideak premien arabera egokitzea eta eraginkortasuna eta efizientzia hobetzea.
- Beste sistema batzuekin lankidetzan jardutea.

Esan daiteke, beraz, legeaz gain, hauek direla Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemari forma eta edukia ematen dioten agindu edo dokumentuak eta hauen arabera eraikitzen dela gizarte-zerbitzuetako jardute profesionala. Klabe komunitarioari erreparatuz, ikus daiteke, mugari izan direla EAeko gizarte-zerbitzuei buruzko 5/1996 Legea, komunitate ikuspegia lehen aldiz txertatzen delako eta baita, 12/2008 Legea ere, ikuspegi hori bera berretsi eta horretan sakontzeko bidea ematen duelako, komunitarioaren helburu bezala finkatuz. Legean zehar, gero ikusiko dugun bezala, hainbat dira komunitarioari egiten zaizkion erreferentziak, baina modu berezian adierazten da hori oinarrizko gizarte-zerbitzuen eremuan. Hori horrela izanik eta gure aburuz, lan komunitarioan sakondu ahal izateko oinarrizko gizarte zerbitzuak nahitaezko eremu izanik, hauen inguruan aipatutako araudietan esaten dena modu zehatzagoan aztertzea garrantzitsutzat jo dugu.

Ikusi dugunez, oinarrizko gizarte zerbitzuak, ikuspegi komunitarioaren elementu gakoa dira. Mapak ezartzen duen eremuen artean, txikienari dagokio, hau da, oinarrizko eremuari edo udalerruari. Gertutasun “oso altuko” zerbitzua da eta gizarte-zerbitzuen atea denez, herritar guztientzako lan egiten du, horrela, autore ezberdinek berresten duten moduan. Pastorren (2015) aburuz adibidez, oinarrizko gizarte zerbitzuak “kokaleku pribilegiatua” dira gizarte-langintza komunitarioarako. Ikerketa honetan Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren dimentsio komunitarioaren inguruan arituko garenez gero, hauek ondo ezagutzea ezinbestekoa da: legeak nola arautzen dituen, zorroak zer dioen edo planak zein mapak zer aipatzen duten.

gizarte-zerbitzuei buruzko 12/2008 Legeak bigarren kapituluan aipatzen duenez, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren antolamendu eta egiturari dagokionez, sistema osatzen duten zerbitzuak bi mailatan egituratzen dira, lehen mailako arretan eta bigarren mailakoan. Lehen mailako arretaren eginkizuna, udal gizarte-zerbitzuei egokitzen zaie eta hurrengoa jasotzen da legean: “zerbitzu horiek bide emango diete erabiltzaileei gizarte-zerbitzuen sistema osora iristeko, eta autonomiaren, gizarteratzearen eta larrialdien edo babesgabetasunaren inguruko egoerei erantzungo diete, eta batez ere, arrisku egoeran prebentzioari erreparatuko diote” (27.artikulua). Aipatu bezala, legeak lehen arretarako esleitzen dituen eskumenak udaletako gizarte-zerbitzuen esku uzten dira, baina legeak udalak beraien artean elkartu eta antolakundeak eratuz, lehen mailako arreta eskaintzea ere posible dela jasotzen du, betiere, zerbitzu hobeak eskaintze aldera baldin bada. Udalen gizarte-zerbitzuen eginkizunak laguntza teknikoa ematea; beharren lehen balorazioa egitea; diagnosia egitea; arreta pertsonalizatuko planak garatzea; kasuak gainbegiratzea; irizpide teknikoak zehaztea eta erantzun osatua emate aldera, beste sistema batzuekin koordinatzea izango dira.

Lehen mailako arretan, oinarrizko gizarte zerbitzua da arreta unitatea udal gizarte-zerbitzuen barnean. Herritarrek Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema iristeko duten lehen sarbidea izanik, polibalentea eta diziplina askotarikoa da, nahiz eta lan taldeen konposizioa udalen arabera aldatzen den. Zeregin nagusiari dagokionez: “Dagokion lurraldean gizarte-zerbitzuen bidez erantzuteko moduko zer nolako beharrak dauden atzematea eta kargu hartzea, horretarako, dagokion lurralde horretan, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren baitako atal batera nahiz bestera norik noiz joan behar duen koordinatu eta kudeatzea” (29.artikulua) dela dio. Gaineratzen du udal guztiek, banaka ala elkartuta, oinarrizko gizarte zerbitzu bat izateko derrigortasuna dutela. Ildo beretik, lurralde osoan

lan egiteko aukera izango dutela bermatzeko, herriaren tamainaren arabera, oinarrizko gizarte zerbitzuak, unitateetan banatu daitezkeela jasotzen da. Ezartzen zaizkien eginkizunen artean, berriz, hauexek aurkitzen dira: “Gizarte premiei erantzuna emateko orduan zer nolako hutsuneak dauden igartzea; gizarte-zerbitzuei buruzko Informazioko Euskal Sistemaren esparruan, homogeneizatzea eta sistematizatzea lortzeko informazioa osatzea eta ezartzen zaizkien antzeko beste eginkizun guztiak egitea” (29.6 artikulua). Arreta unitate honek, lehen mailako arretari agintzen zaizkion gutxieneko lau zerbitzuak eman beharko ditu nahitaez:

- Informazio, balorazio, diagnostiko eta orientazio zerbitzua
- Etxez etxeko laguntza zerbitzua
- Gizarte eta hezkuntza arloan eta arlo psikosozialean esku-hartzeko zerbitzua
- Zaintzaileei laguntzeko zerbitzua

Hauetaz gain, besteak emateko ere lan egin beharko dute oinarrizko gizarte-zerbitzuen, hala nola, telelaguntza zerbitzua, eguneko arreta zerbitzuak, gaueko harrera zentroak, harrera pisuak, etxebizitza edo apartamentu babestuak eta etxebizitza komunitarioa emateko.

Kartera edo zorroari erreparatzen badiogu, bertan, gutxi aipatzen dira oinarrizko gizarte zerbitzuak eta bere barne duen zerbitzu eta prestazioei buruzko fitxetan, lehengoan bakarrik egiten zaie erreferentzia, hau da, informazio, baliospen, diagnostiko eta orientabide zerbitzuari dagokion horretan (1.1). Udal eremuari erreparatzen bazaio ordea, badaude udalen eskumena diren beste zerbitzu batzuk, lehen mailako arretaren bidez erantzun dakiekeenak:

- Etxez etxeko laguntza (1.2)
- Gizarte eta hezkuntza arloan eta arlo psikosozialean esku-hartzeko zerbitzua (1.3)
- Parte-hartzea eta gizarteratzea sustatzeko zerbitzua (1.5)
- Zaintzaileei laguntzeko zerbitzua (1.4)
- Eguneko arretarako zerbitzuak (1.7)
- Beste zenbait ostatu zerbitzu

Mapan berriz, lehenago aipatu dugun bezala, mugapen geografikoak, eremuak eta hurbiltasun mailaren inguruko gomendioak ematen dira. Hala ere, legean aipatzen da, udalek landa eremuan 3000 biztanletik eta hiri eremuan 5000tik aurrera, oinarrizko

gizarte zerbitzuak izateko derrigortasuna. Horren harira, mapan, batik bat, hurbiltasun maila handieneko zerbitzuen taulan egiten zaie erreferentzia oinarrizko gizarte-zerbitzuei. “Oinarrizko eremua izango da oinarrizko gizarte-zerbitzuen lurralde eremua (edo, hala badagokio, oinarrizko gizarte zerbitzu unitateena)” (104. or), horrela, “tokiko erakunde bakoitzak oinarrizko gizarte zerbitzu bat” izan beharko du.

Planean ere egiten zaie aipamena oinarrizko gizarte-zerbitzuei. Hasiera batean, diagnostia egiten da eta bertan, “eredu komunitarioa eta bereziki, ikuspegi sustatzaile eta prebentiboa indartzeko premia” azaltzen den puntuaren baitan, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren hainbat alderdi garrantzitsu, eredu komunitariora egokitu behar direla aipatzen da eta lehen erreferentzia azaltzen da:

“oinarrizko gizarte zerbitzuak (1.1 puntutik 1.4 puntura bitarte) eta horien kudeaketa deszentralizatua (hala badagokio, oinarrizko gizarte unitateen bitartez) garatzea, zerbitzuak komunitate bakoitzaren ezaugarrietara egokituta eta ikuspegi prebentiboa eta zerbitzuak ingurunera irekitzea aurreikusita (etxez etxeko bisitaldiak, talde lana, komunitatearen baliabideak ezagutzea eta haiekin lankidetzan jardutea indartuta)” (62. or).

Behin diagnosiaren atala pasata, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren ikuspegia azaltzen den unean, arreta eredu komunitarioa sustatzeko aurreikusten diren alderdi garrantzitsuen artean kokatzen dira oinarrizko gizarte zerbitzu. Bertako gizarte-langileen lana horretara bideratuko dela aipatzen da eta horretaz gain, udal eskumeneko zerbitzu guztiak zein eredu komunitarioa indartu behar direla zehazten da. Planaren azterketa egitean aipatu dugun bezala, bertan markatzen diren ardatzen artean, bigarrena, “eredu komunitarioa eta, batik bat, prebentzio ikuspegia finkatzea eta garatzea eta arreta pertsonalizatzea” (66. or) da.

oinarrizko gizarte zerbitzuak hogeita hamabi helburuetatik, hamahirugarrenean: “oinarrizko gizarte zerbitzutako lau zerbitzuak tokiko erakundeetan hedatuko direla bermatzea eta esku-hartze eta prebentzio komunitarioko zereginak indartzea” eta hamalagarrenean: “ikuspegi komunitarioaren eta pertsona xede duen plangintzaren printzipioaren arabera egokitzean aurrera egitea” ageri dira (66. or).

Azkenik, finkatutako ardatzak eta helburuak zehazte aldera ageri diren tauletan, eredu komunitarioa finkatu eta garatzeari dagokion taulan egiten zaie erreferentzia oinarrizko gizarte-zerbitzuei, hogeita hamabigarren helburu estrategikoaren barneko ekintzetan zehazki (2.4.2). Horretan berresten da beraiei dagokiela “eraginpeko eremuan fisikoki kokatutako ekipo eta zentroak izanik, dinamikak, plangintza eta beste baliabide

batzuekiko lankidetzaz” bezalako ekintzen bitartez, aurrez aipatutako helburuak betetzea (73. or).

Horrenbestez, Plan estrategikoa aztertuz, konfirmatu dezakegu, oinarrizko gizarte zerbitzu direla “arreta eredu komunitarioa” garatzeko Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren marko legalak aurreikusten duen eremua, horren inguruan mintzatzean egiten baitie erreferentzia gehien oinarrizko gizarte-zerbitzuei. Lehenago aipatu dugu, kokaleku pribilegiatua direla lan komunitarioak, beste gauza batzuen artean, ezartzen zaizkien ezaugarri eta egin beharengatik. Herritarrek sistemara iristeko, hauen autonomia bultzatzeko, gizarteratzea gauzatzeko etab. bezalako aipamenek, horretarako lan egin behar dela berresten dute eta hori gauzatzeko, lan komunitarioa ezinbesteko erreminta da. Prebentzioari ere, garrantzi berezia ematen zaio eta lurraldean dauden beharrak antzemateko edo tokian tokiko baliabideekin koordinazioan lan egiteko enkargua ematen zaie. Hauek bete ahal izateko, lan komunitarioa beharrezkoa da, oinarrizko gizarte-zerbitzuei erreferentzia egiteko orduan dioten bezala, gertutasun handia behar baita, besteak beste, tokian tokiko lurraldera egokitutako zerbitzuak planteatzeko. Argi ikusten da, komunitatea eta oinarrizko gizarte zerbitzuak eskutik doazela, baita Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren baitan ere. Azkenik, aipagarria da, lurraldeari edo komunitateari erreferentzia egitean, oinarrizko gizarte-zerbitzuekin gertatzen den bezala, herri txikietan herri osoari eta hirietan berriz, auzoei erreparatzen zaiela.

2.3.2. GIZARTE ZERBITZUEN EUSKAL SISTEMAREN MARKOA KLABE KOMUNITARIOAN

Behin Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren markoen azterketa orokorra eginda eta oinarrizko gizarte-zerbitzuei buruz esaten dutenean sakonduta, hauek guztiak klabe komunitarioan zer dioten aztertu dugu. Garrantzitsua da, modu teorikoan bada ere, sistemak horri erreferentzia nola egiten dion ikustea eta ondorioz, klabe komunitarioan aritzeko ze espazio ahalbidetzen duen ezagutzea azken finean, horrek markatu baititzake dimentsio komunitarioan sakontzeko planteamenduaren mugak.

gizarte-zerbitzuei buruzko 12/2008 Legeari dagokionez, aipatu dugu maiz, ikuspegi komunitarioa txertatzea izan dela helburu eta ekarpen nagusietako bat, baina badaude, horretaz gain, klabe komunitarioan eskaintzen diren beste zenbait elementu.

Hasteko, aipatzen da gero eta egoera konplexuagoak ematen direla gure gizartean eta beraz, aurre egitekotan, badela zer indartu. Hauek aipatzen dira indartu beharreko jardunen artean:

- Hirugarren sektorearekin elkarlanean aritzea
- Laguntza sare informalei eustea
- Parte-hartzea sustatzea
- Beste sistemekin batera elkarren arteko lankidetzak sustatzea
- “Politika sozial bat garatzea, herritar guztiei herritartasun osora irits daitezten, justizia soziala susta dadin eta bazterketaren egiturazko kauei ekin dakien” (zioen azalpena).

Horretaz gain, aurreko legean ezarritako arreta ereduak finkatzen du eta “komunitatea oinarri duen ikuspegia hautatzen du; ikuspegi horren arabera, pertsonak bizi diren ingurunean geratzea da lehentasuna” (zioen azalpena). Aipatutako eredu edo ikuspegia zehazte aldera, “proposatutako ikuspegi komunitariotik bideratuta, gizarte eta hezkuntza arloko esku-hartzea, funtsean, esku-hartze sozialaren oinarritzko elementu bezala ulertu behar dela” gaineratzen du, “prozesu izaera baitu, horrek, definizioaz, laguntza eginkizunak eta bidaltze eginkizunak gaiztatu eta lan esparru hezitzaile eta harremanezkoa ezartzen du helburuak lortzeko begira” zehaztuz (zioen azalpena). Gainera, komunitateari zuzendutako arreta, beste batzuen artean, bereziki, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren baitan, “Jarduera publiko eta pribatu, formal eta ez formal guztien koordinazioa eta herritarren parte-hartzea eta gizarte ekimena sustatzea” finkatuz lortu behar dela adierazten da (zioen azalpena).

Artikuluei dagokienez eta aurrez aipatutakoa osatze aldera, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema definitzean, aipatzen da “pertsona, familia eta talde guztien gizarteratzearen, autonomiaren eta ongizatearen alde egitea” duela xede eta “sustatzeko, aurreikusteko, babesteko eta laguntzeko” eginkizunak gauzatu nahi dituela, funtsean “pertsonei eta harremanei buruzkoak diren prestazio eta zerbitzuen bidez” (5.artikulua). Parte-hartzearen inguruan ere mintzo da legea eta zera aipatzen du: “Komunitateak gizarte-zerbitzuen esparruan arreta jaso dezaketenean gizarte-beharrizanei erantzuten parte-hartu dezaten sustatzea, bereziki erabiltzaileak eta gizarte-zerbitzuen eremuan jarduten diren erakundeek banaka eta elkartuta parte hartu dezaten sustatzea” (6.artikulua). Azkenik, prebentzio ikuspegia txertatzea ere garrantzitsua izan daiteke klabe komunitarioari dagokionez.

Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte-zerbitzuen plan estrategikoari (2016) helduz, lehenagoko atalean jaso bezala, etengabeak dira komunitarioari egindako erreferentziak. Hasiera batean, diagnosian bertan, “eredu komunitarioa eta bereziki, ikuspegi sustatzailea eta prebentiboa indartzeko premia” (2016, 36. or) adierazten da, hainbat baliabide eta zerbitzu eredu komunitarioa egokitu behar direla zehaztuz. Horretarako, beste gauza batzuen artean, komunitateko baliabideak ezagutzeko beharrari buruz hitz egiten da eta baita, esku-hartzearen harreman ikuspegia indartu beharraz ere. Xedeari dagokionez, azpimarra berezia egiten da Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema legean aurreikusitako arreta eredu /ikuspegi komunitarioaren arabera hedatzean, batez ere, oinarrizko gizarte-zerbitzuetan tokian tokiko errealitatera egokituz eta arreta eredu komunitarioa indartuz. Azken hau, aurrez aipatutakoarekin lotuz, ikuspegi estrategikoaren atalean, berriro ere esaten da “eredu komunitarioa eta, bereziki, sustapeneko eta prebentzioko ikuspegia indartzea” gura dela eta gaineratzen da “ahal den heinean, zerbitzu horiek deskontzentratuta, eta lehendik dauden baliabideen kokapena aintzat hartuta” (2016, 63. or) egingo dela.

Horren guztiaren arabera, beraz, planean, jada aipatu bezala, ardatzak eta helburu estrategikoak planteatzen dira. Bigarren ardatza, eredu indartzearen ingurukoa da eta zortzi helburu estrategiko finkatzen dira, esaterako, herritarren parte-hartzea edo esku-hartze eta prebentzio komunitarioko zereginak indartzea. Plana aurrez aztertzean esan bezala, tauletan jasotzen dira helburu eta ardatzen inguruan bultzatutako ekintzen xehetasunak. Aipatzekoa da, honen inguruan, klabe komunitarioan aipatzen diren ekintza guztiak lehentasun mailari dagokionez, “lehentasun handienekoak” direla eta erantzukizunari erreparatuz, guztiak ez badira ere, gehientsuenak, udal mailakoak direla. Adibidez, 2.1 helburu estrategikoaren baitan, lehentasunezko elementuei so eginez gero, esku-hartzearen harreman ikuspegia finkatzeaz egiten da berba eta 2.4.ean, bestelako baliabideekiko lankidetzak planteatzen da. Hori lurralderen ezaugarrietara egokituz, ingurune bakoitzerako diagnostiko zein plangintza egokia eginez eta komunitateko baliabideekin sarean egindako lana hobetuz egitea proposatzen da.

Aldiz, marko normatiboarekin jarraituz, praktikoagoa izan daitekeen Zorroari erreparatuz gero, komunitarioarentzat baliagarriak izan daitezkeen zerbitzu eta prestazioetan hutsunea dagoela ikusi daiteke. Sakontze komunitarioan lagundu dezaketen prestazio eta zerbitzuak ez daudela ikusi daiteke, besteak beste, gizarte langileek edo hezitzaile gauzatu ditzaketen baliabide teknikoaren gabezia baitago. 1.1 Informazio, balioespen, diagnostiko eta

orientabide zerbitzua; 1.3 Gizarte eta hezkuntza arloan eta arlo psikosozialean esku-hartzeko zerbitzua eta 1.5 gizarte-zerbitzuen eremuko parte-hartzea eta gizarteratzea sustatzeko zerbitzua izan daitezke lan komunitarioaren bidea urratzeko egon daitezkeen zerbitzu bakarrak eta esan beharra dago, 1.1 kenduta (eta berau ere soilik maila indibidualean lantzen da) beste biak ez daudela ia garatuta. Bestalde, etxez etxeko laguntza zerbitzua 1.2 ere hartzen dute adituek ikuspegi komunitarioa bermatzen duen zerbitzutzat.

Komunitarioan sakontzeko aukerak, legeak behintzat, bermatzen dituela ikusi daiteke. Gizarte errealitatearen kausak egiturazkoak direla aitortzen du, modu xumean bada ere, beraz, egituretan eragin behar dela ondorioztatu daiteke. Hori, erabat modu komunitario eta kolektiboan egin behar da, ez baita nahikoa gizarte-zerbitzuetatik, nagusiki modu indibidualean, egiten den banakako eta familiako esku-hartzearekin. Horretaz gain, sare informalak, gizarte ekimenak (formala zein informala) eta finean, antolatutako gizartearen parte-hartzea sustatu behar dela ere ulertu daiteke. Ikuspegi komunitarioa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren ikuspuntutik zer den adierazten da, baina horrek ere, komunitarioan sakontzea ahalbidetu dezake eta gainera, behin baino gehiagotan, prestazio eta zerbitzuei buruz hitz egitean, harremanezkoei edo erlazionalak diren prestazio eta zerbitzuei buruz mintzo da. Prestazio horiek gizarte-langintzaren ikuspuntutik, lan komunitarioaren oinarrian daudenak dira. Gaineratzen du, ikuspegi hori lantzeko, ezinbesteko erreminta direla sozio-hezitzaileak diren baliabideak eta horrek, maiz, kutsu kolektiboa izaten du, baita prebentiboa ere. Azkenik, parte-hartzearen inguruan mintzo da eta gizarte osoarentzat ongizatearen eta autonomiaren alde lan egiten duela dio legeak behin baino gehiagotan. gizarte-zerbitzuetatik, herritar guztientzako lan egiteko moduak, klabe komunitariotik etorri behar du ezinbestean, proaktiboagoak diren ereduetatik. Gauzak horrela, EAEn indarrean dagoen gizarte-zerbitzuei buruzko legeak eskaintzen ditu hainbat gako (komunitatea bera zutabeetako bat delako) klabe komunitarioan sakontzeko aukera eskainiz.

Laburbilduz, legean gertatzen den bezala, planean ere, hainbat dira komunitarioan sakontzeko aurki daitezkeen aukerak. Finean, ikuspegi komunitarioa indartzeko beharra azaltzen da plan guztian zehar eta hori lortze aldera, planteamendu garrantzitsutzat hartzen da lurraldera eta testuingurua egokitzea, bertako baliabideekin lankidetzaz sustatuz. Hori ere, gizarte-langintza komunitarioaren ezaugarrietako bat da eta beraz, komunitarioan sakontzeko bermea dago. Esku-hartzearen harreman ikuspegiari ere egiten

dio erreferentzia eta baita parte-hartzeari edo prebentzioari ere. Aipatu bezala, ezinbesteko gakoak dira hauek lan komunitarioan eta oinarri oinarrizko zerbait lantzen bada ere, ikus daiteke, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemarentzat garrantzitsuenak diren bi elementu teorikoak (legeak eta planak), bide horretan jartzen dutela sistema.

Aldiz, konturatzen gara, aplikatuena edo praktikoena den Zorroan, ez daudela aurreko bietan komunitarioa indartzeko beharrari erantzun ahal izateko, behar beste baliabide eta zerbitzu. Zerbitzu teknikoak (gizarte langileek beren ezagutza profesionaletik egin ditzaketen ekarpenak jasotzen dituzten zerbitzuak) ez dira ia garatzen zorroan eta horrek joko eremua nabarmen mugatzen du, zorroa baita derrigorrezkoak diren eta ez diren zerbitzu eta baliabideak zerrendatu eta arautzen dituen erreminta.

Araudi desberdinak aztertu ondoren, esan daiteke, orokorrenetan, 12/2008 Legea, Plana edo mapa kasu, lan komunitarioan sakontzeko aukerak aurkitzen ditugula. Berriz, araudiaren marko aplikatuagoetan murgilduz goazen heinean, aukerak oztopo bihurtu daitezkeela eta lan komunitarioan sakontzea zaildu egiten dela ikusten dugu. Horrenbestez, marko normatiboetatik, hau da, gizarte-zerbitzuen markoa izan daitekeenetik aplikagarritasunera, hots, gizarte-zerbitzuetan burutzen den jardun profesionalera eta ekintzetara aldea dagoela ikus daiteke.

2.2.3. GIZARTE ZERBITZUEN EUSKAL SISTEMAREN EGUNGO EGOERA KLABE KOMUNITARIOAN

gizarte-zerbitzuen egoera zein den ezagutzeko, hori ahalbidetzen duten dokumentuak aztertu dira (ebaluazio, analisi edo balorazio kutsua dutenak), betiere, klabe komunitarioan. Batetik, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako sailaren Estatistika Organo Espezifikokoak (OEE) eginiko gizarte-zerbitzuen eta Gizarte ekintzaren estatistikaren txostena (2019); bestetik, Gizarte-zerbitzuen I.Plan estrategikoaren ebaluazio txostena (2021) Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiken sailean egina; eta azkenik, oinarrizko gizarte-zerbitzuetan zentratuagoa den, Arartekoak (2016) egindako, Udal gizarte-zerbitzuen egoera EAEn aztertzen duen lana.

Batetik, egoeraren azterketa egin ahal izateko aipatutako lehen dokumentuak, gizarte-zerbitzuek duten zerbitzu eta prestazioei, gastu publikoari eta eremuan lan egiten duten profesionalen kopuru eta egoerari egiten die erreferentzia eta horietan, komunitarioarekin lotuago egon daitekeena aztertuko dugu. Zerbitzu eta prestazioei dagokienean, aipatzekoa

da datu gehientsuenak zerbitzu espezializatuei egiten dietela erreferentzia, izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte-zerbitzuen plan estrategikoan ageri den bezala, udal mailan ez daude sistematizazio bateratua egin ahal izateko erremintarik, horrek analisian, ebaluazioetan edota planteamendu berritzaileak egiterakoan dakartzan ondorioekin. Kasu honetan ere, zaildu egiten du gertutasun gehien eta lan komunitario gehien (lan prebentiboa, sozio-hezitzailea etab.) egiten duten oinarrizko gizarte-zerbitzuen azterketa. Hala ere, badaude txostenean, marko normatiboaren ikuspegitik komunitarioarako interesgarriak izan daitezkeen zerbitzuen inguruko datuak eta gure lanerako garrantzitsuak diren konklusioak ahalbidetzen dituztenak, beraz, horiei helduko diegu.

Etxez etxeko laguntza zerbitzuari, ikuspuntutik ikuspegi komunitario eta gertutasun handienetakoa duenari erreparatuz, ikus daiteke, 2014ra arte etengabe jaitsi dela, artatzen dituen pertsonen dagokionez, nahiz eta azken urteetan 2012ko datuetara (7,2 pertsona artatuak mila biztanleko) gerturatu izan den. Estaldura ez da zerbitzu honetan behera egin duen gauza bakarra, izan ere, intentsitateak ere beherakada izan du, 2006an (lau ordu asteko) bestekoa izatera heldu arteko beherakada, alegia. Nahiz eta datuak zenbakitan negatiboak ez izan, negatiboki irakurri daitezke, populazioaren zahartze prozesuarekin batera, zerbitzu honen beharra duten pertsonak nabarmen egin baitute gora (EEO- Eusko Jaurlaritza, 2019).

Ikuspegi komunitarioaren zerbitzu nagusia denak ez bezala, gora egiten dutenak prestazio ekonomikoak dira, bai dependentziaren ingurukoak, baita diru sarrerak bermatzekoak ere. Horri lotuta, txostenean herritarrek erabiltzen dituzten prestazio eta zerbitzu nagusiak zerrendatzen dira eta erresidentziak, eguneko zerbitzuak, etxeko laguntza, telelaguntza, prestazio ekonomikoak edo gizarte larrialdietarako laguntzak ageri dira.

gizarte-zerbitzuetan lan egiten duten profesionalen datuei erreparatuz gero, legearen aurreko datuekin alderatuta, hamarkada bat beranduago ia laurden bat egin du gora²⁴, baina datuak zehaztea komeni da. Guretzat interesgarrienak diren oinarrizko gizarte-zerbitzuei dagokienez ikus daiteke, legea onartu zenetik lehen mailako arretan lanean ari diren profesionalen kopurua ez dela hazi. Legean, eredu komunitarioa behin eta berriz aipatzen den arren, horretarako eremu pribilegiatua diren oinarrizko gizarte-zerbitzuetan, giza baliabideei erreparatuz, hazkunderik eman ez dela ikus daiteke. Egia da, zentzu

²⁴ 2006an, 26367 pertsona zeuden lanean gizarte-zerbitzuetan eta 2018an berriz, 40458 ziren. Esan behar da, datu hauetan, Enplegu Zentro Bereziakotako langilean barne hartzen direla.

honetan Diru Sarrerak Bermatzeko Errentak suposatzen duen lan karga eta batez ere, lan karga burokratikoak desagertu dela, baina uste zenaren kontrara ez du mugarri bat suposatu egunerokotasunean. Beste prestazio ekonomiko batzuen artean, 2006ko Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko legeak, lan karga administratibo handia ekarri die oinarrizko gizarte-zerbitzuei eta beraz, lege markoak barne hartzen dituen zerbitzu eta prestazioen kudeaketa eta tramitazio lanak, burokratizazio olatu berri bat ekarri du gizarte-langileen eguneroko lanera. Aipatu dugu aurrez, gizarte-zerbitzuetan prestazio ekonomikoak direla modu esanguratsuenan gora egin duten baliabideak eta oinarrizko gizarte-zerbitzuetako lan talde profesionalak handitu ez badira, pentsa daiteke, gizarte langileek gizarte-zerbitzuetan egiten duten lan burokratikoak ere, hazi egin dela. Kudeaketa eta tramitazio lan karga oso handia da eta beraz, beste lan batzuk gauzatzeko zaitasunak dituzte, besteak beste lan komunitarioa. Gizarte-langintzaren Kontseilu Orokorrak (2019) egin duen gizarte-zerbitzuei buruzko III. txostenean jasotzen den bezala, gizarte-langileen %62ak adierazten baitu, lan komunitario gauzatzeko zailtasuna denbora faltak eragina dela (68. or). Hau guztia ikusita, kontraesanak ageri dira komunitarioari dagokionez legearen eta egunerokotasun praktikoaren artean, ez baita erraza ulertzea eredu komunitarioa, gertutasunekoa, prebentzioa burutzen duena etab. sustatu nahi izatea (hori gauzatzeko interes berezia duen eremuan) ez bada gizarte langile eta lan taldeak osatzen dituzten gainerako profesionalen kopurua era esanguratsuan handitu, kontuan izanik, profesionalak propio direla lan hori garatu ahal izateko baliabide nagusiak.

Azkenik, gastuari eta gizarte-zerbitzuen finantzazio publikoari erreparatuz gero, datuek diote gastu publikoa azken urteetan, 400000€ baino gehiago hazi dela eta 2016an 2000 milioi euroko marra gainditu zuela. Hori hala da, baina komenigarria da, datu hauek zehaztea eta nola ez, lan honetan zentratzea, azpimarra berezia eginez komunitarioan. Aipatu berri ditugun kopuru horietan diru Sarrerak Bermatzeko Errenta, familientzako prestazioen bat eta babestutako enplegua barne hartzen dira, nahiz eta hauek ez diren gizarte-zerbitzuen baliabide eta zerbitzuen zorroan agertzen. Gastu guztia administrazio eremuen arabera begiratzuz gero, gastu nagusia, hots %50a foru aldundiei dagokiena da, %30a autonomikoa eta soilik %10a dela udalei dagokiena. Horretaz gain, aipatzekoa da, gizarte-zerbitzuei buruzko 12/2008 Legea onartu zenetik, zenbaki hauek izan duten garapena, izan ere, helburua eredu komunitarioan sakontzea bazen, gastu forala zein autonomikoa %100 eta %70a hazi dira, udalen gastua %16tik %10era pasa den bitartean

(EEO-Eusko Jaurlaritza, 2019). gizarte-zerbitzuen nukleoan²⁵ soilik erreparatuz gero, gastua hazi dela ikus daiteke, baina ez aldiz, zentzu zabalean ulertuta hazi den beste. gizarte zerbitzuak zentzu hertsian hartzen baditugu, 2012an 444,5€ erabiltzen ziren herritar bakoitzeko eta gaur egun, 525,9€ erabiltzen dira eta honek, gizarte-zerbitzuen nukleoan egiten den gastua, gizarte zerbitzu osoen %54a dela adierazten du. Gastu publiko honetatik, %12,5a da udal gastua eta gaineratu behar da 2012tik ia bi puntu jaitsi dela, gastu forala bi puntu igo den bitartean, gaur egun %71,6a izanik. Gastuaren bideraketan arreta ipiniz gero, 2017an, %17,7a estrukturara; %67a nagusiak, dependentzia eta ezgaitasunera; %11,6a infanzariara eta %3,7a gizarte bazterketara bideratzen da.

gizarte-zerbitzuen eta Gizarte ekintzaren estatistikaren txostenaren datuak aztertuz gero, atentzioa ematen du, gizarte-zerbitzuetako profesionalek modu teknikoan eskaintzen dituzten baliabideei, hau da, gizarte langileek edo gizarte-zerbitzuetako beste profesionalek beren esku-hartzeekin ematen dioten balio erantsiari lotutako baliabide edo zerbitzuak agertu ere ez egiteak. Sistemaren lehentasunak zeintzuk diren eta indarra non jartzen den adierazi ditzakete datu hauek eta esan beharrik ere ez dago, lan komunitarioaren kaltetan egindako apustua dela. gizarte zerbitzuaren ereduaren inguruan informazio garrantzitsua ematen du baldintzak betetzen dituen edonor, beraz, balorazio profesionalik behar ez duten baliabide ekonomikoen erabilera hain altua izateak.

Gastuari buruz aipatutako datu hauen azterketa egin eta gero, ondorioak ugari izan daitezke, baina badaude komunitarioari dagokionez argiak diren batzuk. Udal gastuari erreparatuz eta ondorioz, oinarritzko gizarte-zerbitzuetan egiten den gastua kontuan hartzen bada, ikus daiteke 2007tik 2017ra bitartean ez dela gastua igo, alderantziz pixka bat jaitsi da. Eredu komunitarioa eta beraz, gertutasun eredu eta prebentiboagoa beharko lukeena, 2008an sartzen da indarrean eta gastuarekin, pertsonalarekin gertatzen den gauza bera gertatzen dela ikusten da, hau da, ez dela hazten. Hori dela eta, oso zaila egiten da ulertzea, nola sakondu nahi den eredu batean, horretarako beharrezkoak diren baliabideetan indarra jarri gabe.

Legea onartu eta hamar urte baino gehiago pasatu eta gero, eredu komunitarioa nahi beste garatu ez dela, beraz, guri era berezian aztertzea dagokigun helburua behar beste bete ez

²⁵ Gizarte-zerbitzuen nukleoa: Gizarte-zerbitzuen eta Gizarte ekintzaren estatistikak gizarte zerbitzuak zentzu hertsian kontsideratzen ditugunari egiten die erreferentzia, hau da, DSBE edo enplegu babestua kontuan eduki gabe gizarte zerbitzuak osatzen dutenari.

dela esan daiteke. Eredu komunitarioa garatzeko, sarritan aipatu moduan, oinarrizko gizarte zerbitzuak dira funtsezko eremua, baina ez da esku-hartze eredurik garatu arreta maila honetarako eta honen hornidura, diruari zein giza baliabideei erreparatuz estankatua dago. Ez dira soziohezitzaileak diren esku-hartzeak indartu eta sistema bera ere, egoitzetara eta prestazio ekonomikoetara gero bideratuagoa dagoela baieztatu da. Ondorioz, zama burokratiko handiarekin jarraitzen dute gizarte langileek eta ez da garapenik eman, besteak beste, akonpainamendu sozialari eta harremanezkoak diren zerbitzu eta baliabideei dagokionean, ezta bestelako kutsu komunitarioa dutenen inguruan ere.

Bestetik, Gizarte-zerbitzuetako I. Plan estrategikoaren ebaluazio txostena aztertu dugu. Txosten honek, hainbat atal ditu, baina gure kasuan, komunitarioarentzat interesgarriak direnak bildu ditugu. Lehenik eta behin, zerbitzuen eta gastuaren balorazioa egiten da. Oinarrizko gizarte-zerbitzuen gastuari dagokien kasu gehientsuenetan, planean ezarritako aurreikuspenetatik gertu geratzen dira, nahiz eta ez diren betetzen. Horretaz gain, zerbitzuen kasuan, etxez etxeko laguntza zerbitzua (1.2) edo esku-hartze sozio-hezitzaile eta psikosozialeko zerbitzua (1.3), ez dira planak ezarritako aurreikuspenetara iritsi, ezta, parte-hartze eta gizarte inklusioa sustatzeko zerbitzua (1.5) ere. Bi datu hauek, aurreko txostenak ematen zuen informazio berresten dute eta oinarrizko gizarte-zerbitzuetan, izaera komunitarioena izan dezaketen zerbitzuak, ez dute beharko luketen lekua hartzen. Aldiz, ebaluazioan, honen inguruko iradokizunak ere egiten dira eta, arreta sarea kontsolidatzeko bidean, arreta piramidea irauli eta zaintzen birplanteamendua egin beharra aipatzen da. Arreta piramidea iraultzea ezinbestekotzat jotzen da “para que a medio plazo, no continúe aumentando la presión sobre el Sistema Vasco de Servicios Sociales. Se trata por tanto de un círculo vicioso, que requiere ser abordado, para no comprometer su sostenibilidad” (2021, 40. or). Arreta eredua iraultzeak ordea, proaktiboagoak eta prebentiboagoak diren ekintzak dakartza, lan komunitarioarekin ere landu daitezkeenak.

Horretaz bereiz, ebaluazioak planak markatzen dituen ildo estrategikoak edo ardatzak egin diren eta zenbateraino baloratzen da. Gure kasuan, bigarren ardatzean zentratuko gara, hain zuzen ere, eredu komunitarioa eta, bereziki, ikuspegi sustatzaile eta prebentiboa indartzeko premian. Kasu honetan, txostenaren arabera, Eusko Jaurlaritzak %80an bete du, Foru Aldundiek %100 eta Udalek berriz, %73,1ean. Datuak arreta ematen du, batez ere, udal eremua irudikatzen badugu, ildo estrategiko hau garatzeko espaziorik

aproposena. Kasu honetan, txostenak dio ildo estrategiko honek garapenean izan dituen zailtasun nagusiak, entitate pribatuen parte-hartzean, pertsonen edo familien parte-hartzean edo prebentzio zein promozioan eman direla. Hauek ere, kutsu komunitarioena izan dezaketenak dira eta aurrekoarekin batera, ezbaian jartzen du, ardatz estrategikoaren lorpenera gerturatzeko ari garen edo ez (Berdintasun, Justizia eta Gizarte politiken saila, 2021).

Azken atal batean, ondorioak eta iradokizunak ageri dira. Iradokizunetan zentratuz, ikerketa lan honetarako interesgarriena, eta moduren baten beste asko barnebiltzen dituen, eredu komunitario eta jasagarria sustatzen jarraitzeko premia da, besteak beste, zuzenean eragiten baitu prebentzioan, arreta eredu iraultzean, koordinazioan etab.:

“Las recomendaciones se centran en los servicios y prestaciones, así como en la gobernanza y gestión del sistema, incluyendo principalmente propuestas relativas a los factores que se consideran claves para impulsar un SVSS acorde al modelo comunitario y sostenible, atendiendo a los principios de calidad, innovación, eficiencia, y promoviendo la inversión de la pirámide de la atención y un nuevo equilibrio en los cuidados. (...) Buscamos así asegurar a las próximas generaciones un sistema de servicios sociales, universal, de responsabilidad pública, descentralizado, preventivo y orientado a la promoción de la integración social con la máxima autonomía posible de toda la población, que ofrezca una atención principalmente en la comunidad” (2021, 72. or).

Azkenik, gizarte-zerbitzuen egungo egoera aztertzeke erabili dugun hirugarren txostenak, hau da, Arartekoaren txostenak (2016), udal mailako oinarrizko gizarte zerbitzuak aztertzen ditu eta, ikerketa honetan zentratuago dauden, azken zerbitzu hauen informazio zehatzagoa eskaintzen du. Lehendabiziko atalean datuak eta legedia erabiltzen ditu, bigarren atalean, udal mailako gizarte-zerbitzuetako eragile, tekniko eta instituzionalen arabera aztertzen du egoera eta gomendio batzuk ere ematen ditu amaieran.

Lehenengo atalari dagokionez, jadanik landu ditugun hainbat gai azaltzen ditu: marko normatiboak, gastu publikoa edo eskaintzen dien zerbitzu eta prestazioak, baita gizarte-zerbitzuetan artatzen den pertsonen perfila ere, herritarrak gizarte-zerbitzuetara, bizirauteko oinarrizko beharrak asetzeko joaten direla baieztatuz (2016, 41-46. or). Ondorioei erreparatzen badiegu, beste batzuen artean, guretzat interesgarriak diren hainbat ondorio azaltzen dira. Lehenengoa eta ondorioz beste guztia baldintzatuko duena, “informazio nahikoa ez izatea eta adierazle homogeneorik eza” da, izan ere, zailtasunak daude udal erantzukizuneko zerbitzuak argi zehazteko eta gainera, ez dago oinarrizko gizarte zerbitzu “jarduerari loturiko erregistro eta adierazle homogeneorik jasoko litzkeen antolakuntza esparru komunik” (2016, 161 or). Datuak jaso eta biltzeko

baliabiderik egongo balitz ere, zailtasunek jarraituko lukete, izan ere, “lehen mailako arretaren arloan esku-hartze eredu” bateratua falta da. Sistema eraiki gabe dagoela eta, oinarrizko gizarte-zerbitzuei “lanabes, ekipamendu, prozedura, tresna eta lan jarduera komunak emango dizkien egituraketa” falta da, beraz, gizarte langile eta hezitzaileen jardun profesionala bideratu eta mugatzeko baliabide falta dago (2016, 162. or). Azkenik, aurreko bi gabeziak ikusita “sistema antolatzeke, eredu teorikoak eta tresna komunak izatearen garrantzia” azpimarratzen da. Kontzeptu esparruak, eredu teorikoak, tresna tekniko komunak lantzeko langileek burutzen dituzten “ikerlan, ebaluazio, ezagutzaren kudeaketa eta zientzia teknika alorreko gaikuntzari loturiko jardueretan” egiten den inbertsioa urria da eta honek sistemaren antolakuntzan, arauketa bigunean eta kohesioan erabat eragiten du (2016, 170. or).

Bigarren multzo batean egongo litzake “udal gizarte zerbitzuak politika-lehentasun bihurtzeko eta aurrekontuetan beharrezko lehentasuna emateko” dauden zailtasunak. Udal mailan, gizarte-zerbitzuek ez dute lortu “beharrezko protagonismorik politikan” eta beraz ez dira lehentasun izaten aurrekontuetan, sarritan, ez baitakite gaiari dagokionez tokiko bete beharrak ere zeintzuk diren. Aurrez aipatu dugun bezala, gastuari dagokionez ez diote eutsi ere egiten eta baliabide ekonomikoak “2002tik ez dira funtsean aldatu”, horrek esan nahi du “garrantzi erlatiboaren pixkanakako galera” eman dela, gastu publiko osoarekin alderatuz, gizarte-zerbitzuetan gutxiago gastatu baitute (162. or). Honi lotuta dago beraz, oinarrizko gizarte zerbitzutako profesional kopurua ere geratu izana eta horrenbestez, arreta ratioak jaisteko zegoen joerarekin amaitu izana, profesional askok adierazten dutenez, ez baitute bete behar profesionala berme guztiekin eta ondo egiteko astirik. Hori horrela, “udal gizarte zerbitzuak garatzea bermatuko lukeen finantzaketa eredu nahiko eta egokirik eza” azaltzen da (2016, 163. or).

Hirugarrenik, zerbitzuei dagokien atalean, zorroaren 1.1 Informazio, balioespen, diagnostiko eta orientabide zerbitzuan “pertsonekin esku-hartzeko prozesuak optimizatzeko beharra” adierazten da. Honetaz gain, 1.3 Gizarte heziketaren arloan eta arlo psikosozialean esku-hartzeko zerbitzua “zabaltzeko eta indartzeko beharra” ere nabari da (2016, 166. or). Beste gauza batzuen artean, honen harira aipatzen da, zorroan jasota ez dauden beste kolektibo batzuekin ere modu honetara lan egiteko premia dagoela eta beraz, indartzea ezinbestekoa dela. Azkenik, gainerako babes sistemekin koordinatzeko zailtasunak eta hirugarren sektorearekin harremanak hobetzeko tartea

dagoela dio esaterako, “herritarrek parte-hartzeko tresnak hobeto garatzea” sustatuz.

Bukatzeko, ikerlan honetarako interes berezia duen ondorioa agertzen da:

“Lankidetzan aritzea, Zorroaren Dekretuan ez dauden eta, beraz, eskubide subjektiboaren pean ez dauden, baina kohesio soziala eta herritar askoren bizitza kalitatea bermatzeko funtsezkoak diren zerbitzu guztiak emateko. Horrek gizarte ekintza publikoa osatzen duten eta tokiko mailan soilik zentzuzkoa den komunitatearen auto antolakuntza ekimenak bultzatzea eskatzen du” (2016, 171-172. or).

Gomendioak ere eskaintzen ditu txostenak eta aurreko ondorio guztiei erantzuteko hainbat planteatzen badira ere, horietatik batzuk interes handikoak dira ikuspuntu komunitariotik. Orokorrenetik hasita, sistema unibertsalaren sakontzea emateko, eskubide subjektiboaren, etengabeko laguntzaren printzipioari eta komunitateko esku-hartze ereduari “edukia ematea” gomendatzen du (172. or). Ondoren, “gizarte lanaren garrantzia eta norberaren ongizatea ez ezik, kohesio sozialean eta egungo eta etorkizuneko kulturen eta ekonomian ere duen eragina ardura politiko eta teknikoaren mailan onartu” behar dela gomendatzen da (172. or). Arduradun politiko eta teknikoei egiten die erreferentzia gomendio honek, gizarte-zerbitzuetako profesionalek gizartean egiten duten lanaren eragin nabaria onartu beharko luketela adieraziz eta adierazle egokiek informazioa herritarrei helaraztearen garrantzia gehituz, hauen ikuspuntua aldatze aldera, gizarteari ekartzen dizkien onuren kontziente eginez.


Erabaki politikoekin jarraituz, “profesional adituez osatutako diziplina anitzeko talde nahiko handiak eratu eta euren eginkizunak betetzeko baldintza egokiak sortzea” iradokitzen da, “eredu komunitarioari jarraitzen duen lehen mailako arretaren garapenak, harremanetan oinarritutako prestazioa ezaugarri duenak, motibazioa duten eta nahikoak diren profesional adituen lana duelako ardatz. Horretarako, diziplina anitzeko taldeak bermatzea, espezializazioan sakontzea, arreta egokia bermatuko duten denbora tartean aintzat hartzea, ratioak ezartzea edo lan baldintzak kontuan hartu behar dira. Horren harira aipatzen da, hausnarketarako eta prestakuntzarako informazio eta laguntza teknikoa eskainiz, esku-hartze eredu komunak garatu beharko lirakeela. Bestalde, parte-hartzea sustatu behar dela proposatzen da, zerbitzuetan pertsonen parte-hartze aktiboa sustatuz eta “gizarte-zerbitzuen inguruko udal politika diseinatu eta garatzeko prozesuetan, herritarren partaidetza antolatua lehenetsiz” (174. or). Aldiz udaleko gizarte-zerbitzuek garatu beharreko programei eta zerbitzuei dagokienez, “komunitate garapenerako eta bitartekaritzarako programak abiaraztea” plantatzen da (174. or) hurrengo nabarmenduz:

“Komunitate lanak (banakako lanaren osagarri denak) (...) komunitateko talde handi bati edo pertsona guztiei irekitzen die parte-hartzeko aukera. (...) beste batzuetan aldiz, komunitateko ikuspegitik lan egitea esaten da, komunitate horren harremanak eta dinamika parte hartzaileak sendotzeko xedeaz aritzeko. komunitateko ikuspegiak aniztasuna kudeatzea dakar (...) eta beste kontzeptu batzuk txertatzen dizkio iruditeria kolektiboari: hala nola, hurbiltasuna, sarean lan egitea. (...) Langile adituak eta programa sinesgarriak behar dira elementu berritzaileak eta esperimentalak dituzten espazio publikoetan. (...) Komunitate garapenerako programek herritarren garapen sozialari eta ekonomikoari laguntzen diote, horiek suspertuz, indartuz eta autolaguntza sareak sortuz, edo beste ekimen sozial edota ekonomikoetan, lankidetzaren proiektuen bidez” (2016, 175. or).

Honez gain, egoera soziala “gertatu aurretik egiten den esku-hartzea” egin behar dela azaltzen da, hau da, “prebentzio jarduerak areagotzea”, gertakizuna galaraziz edo atzeraraziz. Sarritan aipatu bezala, “lehen mailako arreta zerbitzuak, duten hurbiltasuna dela eta, kokaleku pribilegiatuan daude arretarik eman ez zaien egoerak eta beharrak hautemateko” (175. or). Horretarako, “Goiz hautemateko eta esku-hartzeko programa espezifikoak eta protokoloak abiaraztea; (...) hezkuntza edo osasun sistemekin zein tokiak tokiko beste sistema batzuekin koordinazioa egotea eta gizarte ehundurarekin, laguntza taldeekin, kaltetutako pertsonen elkarrekin edo antolakunde sozial eta solidarioekin lankidetzan lan egitea” ezinbestekoa da (175. or). Ildo beretik, esku-hartze sozio-hezitzaile eta psikosozialei bultzada eman beharra adierazten da. Besteak beste, eskola eremua aurreko guztiak garatzeko “espazio egokia” da eta beraz, hezkuntza sistemarekin horrelakoak burutzeko “lankidetzan sakontzea” egokia litzakeela gogorarazten du (181. or).

Azkenik, hirugarren sektorearen, tokiko erakundearen eta udal gizarte-zerbitzuen arteko “koordinazioa hobetzea” planteatzen da. Hemen ere, beste gauza batzuen artean aipatzen dira hirugarren sektorearen egin beharretako batzuk eta elkarlanean egin daitezkeen asko aipatzen diren arren, komunitarioaren ikuspegitik garrantzi berezia duena aipatuko da: “Batetik, zaugarritasun eta desberdintasun egoeran dauden pertsonen eskatzen dituzten informazioan, soziabilitatean eta baliabideen kudeaketan, zerbitzuetan eta prestazioetan babestea; bestetik, elkarrizketa politiko eta judizialak burutzeko eta azkenik, salaketa, sentsibilizazioan eta kontzientziazioan” lan egitea (181. or).

3. HAUTU METODOLOGIKOA



3. HAUTU METODOLOGIKOA

3.1. DISEINU METODOLOGIKOAREN ABIAPUNTUA

Hautu metodologikoaren inguruko azalpenak eman aurretik garrantzitsua da, ikerketa lan honen nondik norakoak markatu dituzten hainbat ezagutza printzipioez kontu ematea. Izan ere, hautu epistemologikoak eta enfokeak zein helburuek irungo dute ikerketaren aukera metodologikoa.

Ikerketa lan bat egitean, beti perspektiba jakin batetik gauzatzen da, horrela, hautu epistemologiko bat eginez. Lan honen enfokea, bi paradigmatatik elikatzen da, batetik, kritiko dialektikotik eta bestetik, paradigma interpretatibotik,. Horrenbestez, ikerlan honen aurrean nola kokatzen garen azaltzen dugu paradigma honen aukeraketarekin, ondorioz, eredu honi egokien erantzuten dioten termino teoriko metodologikoak hautatu ditugu.

Corbettak (2007) eta Hernandezek, Fernandezek eta Baptistak (2006) egiten duten sailkapenei jarraiki, paradigma interpretatiboan kokatzen garenean, epistemologikoki, ikerketan tradizionala izan den objektu-subjektuaren dikotomia ezabatzen da, subjektuek errealitateaz egiten den interpretazioa ikertzen baita. Hori horrela, ezagutza interpretatiboa da, errealitatea sozialki eraiki izan dela onartzen baitugu. Helburua, paradigma positibistarekin ez bezala, ez da gauzetara heltzea, ideietara baizik, hots, fenomeno sozialetara eta horretarako, esperientziek zein aurretiko ezagutzek, kokapen politikoak etab. eragina dute. Maila teorikoari erreparatuz gero, teoria orientatiboa, erreferentziala eta malgua izan ohi da, induktibitatea balioztatuz. Esperientziak indar handia dauka eta produkzio teorikoa, datu partikularretatik batzen da, tipologia eta zentzuzko kategoriak sortuz. Azkenik, ondorioak testuinguruaren araberrako fenomenoaren deskripzio zein ulermenaren bidez sortzen dira eta malguak, partikularrak eta askotan abstraktuak dira.

Ildo horretan, feminismoa eta epistemologia feministak izan dira zientzia klasikoari kritika osatuenetakoa egin izan diotenak, aurrekoaren haritik doan zientziaren ustezko neutraltasun eta objektibotasuna kritikatzeko baitute. Beste era batera esanda, ezagutza zientifikoaren ezaugarriak diren neutraltasuna, autonomia eta inpartzialtasuna gaitzesten dira. Hori horrela, ikerketa feministek erakutsi dute testuinguruarekin zerikusit dute

baloreak praktika zientifikoarekin elkarrekintzan daudela eta eragina dutela, bai ikerketaren gainean, baita ezagutza zientifikoaren aplikazio teknikoan inguruko erabaki politikoetan ere. Sarri, teoria-subjektu unibertsal horiek, testuinguru guztietarako orokortua direnak zein inpartzialtasunaren ideiak talde boteretsuen interesari erantzuteko partzialtasuna daramate ezkutuan, beste talde batzuen kaltetan, noski.

“El feminismo critica precisamente la idea de ese sujeto abstracto e incondicionado. No es real. Las científicas no están ni trabajan aisladas. Colaboran entre sí de manera socialmente organizada y desarrollan su actividad en contextos sociales, políticos e históricos concretos” (Perez, 2011, 37. or).

Horretaz gain, aurretik komentatu dugun subjektu eta objektuaren arteko dikotomiarekin amaitzea planteatzen da. Ikerketa honetan gure egiten ditugun ezagutza ulertzeko forma berriak planteatzen dira, epistemologia feministatik batik bat, subjektu eta objektuaren arteko harremana eta horren ondorioz, sortutako objektibotasunaren imajinarioa irauliz. Ikerketa hau lantzen dugun perspektibatik ezinezko ikusten dugu ikertzaileongandik independentea den ezagutza sortzea eta beraz, subjektibotasunaren aldarria egiten dugu. Ikertzaileok, ez dugu subjektu-objektuaren arteko harreman tradizionala jarraitzen eta, gure interesekoa den gaiaren inguruko ezagutza konpartitzen dugu ikerketa burutuko dugun subjektuarekin, hauek sortuko den ezagutzaren kosortzaile bihurtuz (Breuer, 2003). Hori horrela izanik, ikerketa prozesuetan, subjektibotasuna eta elkarrizketa hausnarkorra onartzen dira, interpretazioaren bidez (Wiesendfels, 2000).

Hori guztia dela eta, berebiziko garrantzia du, Harawayren (1995) “ezagutza kokatuaren²⁶” ideiarekin bat egiteak, hau da, aurrez ikertzaileok zein betaurrekorekin edo ze begiradatik ikertuko dugun aipatzea. Ikertzaileok, errealitate sozialarekin dugun harremana, koiuntura sozial eta politikoagatik baldintzatuta dago eta ondorioz, autoreak dio, gure ikerketan ez ezik, bertatik eratorritako produkzio zientifikoan eta ikertzen dugun testuinguruan eragina duela.

Hala ere, horrek ez du esan nahi, ezagutza edo begirada kokatua ez denik legitimoa ezagutza zientifikoaren produkzioarako. Kontrara, begirada kokatua eta partziala dela onartzen den unetik halaxe da, bere mugak gainditze aldera hausnarragoa eta konplexuagoa izan baitaiteke. Modu honetara, zientzia egiteko eta ikertzeko posizio neutralaren nagusitasunari (ezerk eragiten ezion posizioari) uko egiten zaio,

²⁶ Ezagutza kokatua: Epistemologia feministatik datorren kontzeptua da, Donna Harawayren eskutik. Kontzeptuaren bidez, ikerketa objektuei buruz hitz egitea proposatzen du, non abiatzen den agerian utziz; izan ere, erabilitako metodoa edozein dela, mundu guztia bere subjektibotasunetik eta testuingurutik abiatzen da, bai hitz egiteko edo baita ezagutza sortzeko ere (Haraway, 1995).

objektibotasuna zorrotasun/zehaztasunaren parametrotzat ulertuz, neutraltasunaren sinonimotzat hartzearen ordeztu. Gaiaren inguruan mintzo diren autoreek, auto kontakizuna erreminta egokia izan daitekeela diote, teknika kualitatiboen parte den enfoke biografikoan oinarrituz, izan ere, subjektu ikertzailea eta subjektu ikertuaren arteko topagune eta elkarrizketan gertatzen denaren analisi interpretatiboen bitartez sortzen baita ezagutza zientifikoa (Cruz et al., 2012).

Gauzak horrela, ezinbestekoa iruditzen zaigu, ikerketa hau burutu dugunon testuinguru eta posizioaren inguruan mintzatzea, ikertzaile bakoitzak duen interpretazio markoaren azalpena subjektibotasunaren nolabaiteko lanketa delako.

Gure posizioaren inguruan mintzo garenean, hainbat eremu ezberdinetatik egin daiteke irakurketa eta horixe egingo dugu. Lehenik eta behin, ikerketa lan hau gizarte-langintzaren eta gizarte langileon ikuspuntutik eginga dagoela esan behar da eta hori horrela izanik, gizarte-langintzaren balio eta printzipioak geure egiten ditugu. gizarte-langintza askatasunean, berdintasunean eta pertsonen duintasunean oinarritzen da. Halaber, Kode deontologikoak (2013), aurrez aipatutako balio unibertsal horietatik eratorritako hamazazpi printzipio orokor²⁷ jasotzen ditu, besteak beste, kategorizazioak gaituztea; pertsonen balio judizial eza izatea; autonomia; autodeterminazioa; aukera eta eskubide berdintasuna; justizia soziala eta gizarte eskubideak.

Horretaz bereiz, gizarte-langintzaren baitan ere, badaude ikuskera edo paradigma ezberdinak eta gure kasuan, hasieran aipatutakoaren ildotik, ikuskera kritiko dialektikoaren eta interpretatibo hermeneutikoaren artean kokatzen gara Esku-hartzeaz gain, ikerketa prozesuetan burututako teoria, analisisa eta metodologia ere, perspektiba horretatik gertu daude. Paradigma edo ikuspegi hauen baitan, zehazte aldera, errealitatea sozialki eraikitzen den zerbait dela uste dugu eta behatua eta behatzailearen arteko elkarrekintzatik sortzen dela. Metodologiari dagokionez, hermeneutiko eta parte hartzailetik gertu kokatzen gara, berau, elkarrizketan, dialektikan eta eraldaketan oinarrituz. Azkenik, gure interesak interpretatu eta ulertzea dira, baina begirada kritikotik prozesu emantzipatzaileak sustatzeko.

Ikerlan hau diseinatu, bideratu eta gauzatu den unetik, ikuspegi interseksionala erabili dela aipatu behar da. gizarte-langintza kritikoaren ildotik, garrantzitsua da gizarte-langintzan ere, perspektiba interseksionala erabiltzea, ezberdintasunak sortzen dituzten

ardatzen gurutzaketa konplexuaren aurrean, espazio publikoko harremanen azterketan erreminta bezala, alegia (Martinez-Palacios, 2020). Kasu honetan, gizarte-zerbitzuen sistemaren eraldaketa elikatu nahi da, finean gizarte eraldaketa gauzatzeko helburuarekin eta berau kontuan izatea ezinbestekotzat jo dugu. Davisek (2016) gogorarazten digu, egungo gizartean ematen diren bazterketa eta diskriminazio egoerek bereziak eta loturarik gabekoak badirudite ere, kategoria eta botere harremanak eragiten dituzten estrukturen artean sortzen diren loturak konplexuak direla. Horrela, gizarte-zerbitzuek gizarte problematika ezberdinek eskatzen dituzten aldaketa estrukturetan, konplexutasunarekin lan egin behar dutenez, ikuskera hau ezinbestekoa dela uste dugu. Gainera, aurrez aipaturik gizarte-langintzaren printzipioak betetzeko ere premiazkoa iruditzen zaigu. Horren ildotik, Platerok (2014) ezberdintasunak sortzen dituzten iturri estrukturen arteko elkar loturez kontziente egiteko baliagarria dela gogorarazten digu. Intersekzionalitateak gizarte eraldaketaren praktikan eragin dezake, gizarte ikerketa-ekintza guztia politiko bihurtzen duelako (Collins, 2000). Konplexutasunaren aurrean, bazterketa eta dominazio mota ezberdinak ikusarazteko zein kategoriak irauli ahal izateko erreminta politikotzat ulertzen du Gandariasek (2016) eta Platerok talde dominanteek beraien gailentasunetik diseinatzeko dituzten estrategiaz ohartzeko tresnatzat. Horri jarraiki, Cruellsek dio:

“El fenómeno de la interseccionalidad política: La necesidad de tener en cuenta la interrelación entre las desigualdades a la hora de definir estrategias de acción política, ya que las iniciativas dirigidas a la solución de una desigualdad no son neutrales hacia otras desigualdades” (2012, 54. or).

Azken honi lotuta, gizarte-zerbitzuen sistemaren kolapsoari buruz mintzo garenean, egungo gizarte-zerbitzuen sistema bera eta zenbait politika konkretu, sarri, adin ertaineko, gizonezko, zuri, heterosexual, klase ertain-altuko eta abarren ikuskeratik diseinatu eta egikaritzen dela diote adituek, baita ebaluatu ere. Ondorioz, gizarte-zerbitzuen inguruan dauden pertsona asko eta asko, zenbait politika publikoetatik at aurkitzen dira (Zamanillo eta Nogués, 2020). Gauzak horrela ikusiz, gure ekarpena, aukera ezberdintasun horiek gainditzearen ildotik planteatua dugu, justizia sozialaren ikuspegitik.

Horretaz gain, ikertzaileon esperientzia pertsonalek, jada egindako ikasketa prozesuek eta ibilbideak eragina daukate sortzen den produkzio zientifikoan. Zuzenean zeharkatzen dituzte sortutako teoria, burututako analisisia eta planteatutako konklusioak ere. Ibilbide eta arlo pertsonalarekin zerikusia duen honekin guztiarekin garatzen dugu ikertzen hasteko ikuspegia eta esan bezala, bertatik ikertzen da. Hori horrela, bizpahiru

paragrafotan zeresana izan dezaketenak aipatuko ditugu, ezagutza kokatuaren inguruko informazioa osatzeko asmoarekin.

gizarte-langintzako gradua burutu eta gero, gizarte-zerbitzuetan praktikak egiteaz gain, gizarte zerbitzuak barrutik ezagutzeko aukera izan nuen, gizarte langile bezala. Batetik, Gasteizko Udalaren Gizarte Larrialdietarako Zerbitzuan lan egiteko aukera izan nuen eta bestetik, Aretxabaletako udal gizarte-zerbitzuetan aritu nintzen. Esperientzia horrek, hainbat ikasketa eskaini zizkidan, esaterako, egiten zen lan guztia eginda ere, gizarte-zerbitzuek zeukaten funtzionatzeko ereduagatik eta baliabide urriengatik, egungo gizarte errealitateak sortzen zituen beharrak asetzeko zein egoera eraldatzeko gai ez zirela. Uste horrekin, sistemaren tripetan, zenbat eraldaketa egin beharko lirakeela pentsatzen hasi nintzen.

gizarte-langintza ikasi nuenean, komunitateko gizarte-langintza izan zen, gure diziplina eta lanbidearen baitan gehien erakartzen ninduen dimentsioa eta gizarte-zerbitzuetan hori ikasteko aukera izango ez nuela ikusita, Euskal Herriko Unibertsitateko Parte-hartuz ikerketa taldeak eskaintzen duen Partaidetza eta Garapen komunitarioko masterra burutu nuen. Bertan, ikertzen hasteko grina pizteaz gain, Ikerketa Ekintza Parte hartzailearen (IEP) metodologian sakontzeko aukera izan nuen. Bizipen eta esperientzia ezberdinek sortutako nahasketa horrekin guztiarekin hasi ginen ikerketa honen planteamenduarekin. Helburua beraz, eraldaketa prozesuan eragiteko asmoz, gizarte-zerbitzuetan komunitateko gizarte-langintzaren ikuspuntutik, dimentsio komunitarioaren garapenari ekarpena egitea da. Egun, Soziologia eta Gizarte-langintzako departamentuan ikertzen dihardut eta Parte-hartuz ikerketa taldeko kidea naiz. Azken honen baitan, ikerketa parte hartzailea da nagusi eta ikerketa honetan, IEPa bere horretan erabili ez bada ere, horren oinarriak gure eginak ditugunez, aipagarria dela deritzogu. Horretaz gain, ikerketa taldeak komunitarioaren inguruko marko propioa dauka eta printzipio norbatibo²⁸ batzuk kontuan hartzen ditu. Arestian aipatu moduan, gizarte-langintzaren ekarpena falta bazaio ere, ikerlan hau marko horren baitatik ere egiten dela onartzea ezinbestekoa da.

²⁸ Parte-hartuz ikerketa taldeak komunitarioaren printzipio normatibo hauek identifikatzen ditu:

- Gonbidapen mekanismoetatik, mekanismo horizontaletara.
- Logika sektorialetatik, logika integraletara.
- Logika sinbolikotik, burutze logikara.
- Objektu izatetik, subjektu izatera (agentzia politikoa).
- Ausenteen (urrunekoagoen) aktibazioa.

Azkenik, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren ezagutzan sakondu ahal izateko, Gizarte-zerbitzuen Kudeaketa eta Berrikuntzako graduondokoa gauzatu nuen. Hain zuzen ere, gizarte-zerbitzuetako profil ezberdin askotako hizlarien bidez, sistemaren eta bere funtzionamenduaren ezagutza areagotzeko aukera izan dut, aurrez neuzkan hipotesiak, osatu, eraldatu eta maiz, zalantzan jarritz.

Esandako guztiaren ondorioz, garatutako ikuspuntuaren edo begiradaren onarpena egitea ezinbesteko ikusten dugu, sortutako produkzioa eta egindako prozesuaren abiapuntua argitzean, besteak beste, ikertzaileon aukerak eta mugak argitzen baititu.

3.2. ERABILITAKO METODOLOGIA

Aurrez emandako azalpena abiapuntu hartuta, egindako hautu epistemologiko eta teorikoari erantzunez, ikerketa honetan metodologia kualitatiboa erabili da, hain zuzen ere, gizarte-langintzaren ikuspuntutik Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren komunitarioan behar beste ez sakontzeko gertatzen dena, sakonean aztertzea ahalbidetzen duena baita.

“Con la metodología cualitativa, se pasa de la descripción y explicación de los fenómenos y situaciones sociales desde la distribución de frecuencias y correlaciones (cuántos dicen, cuántas hay, cuántas veces ocurre...), al análisis e interpretación “subjetiva” de los mismos a partir del discurso. No se busca en el exterior del comportamiento humano, sino en la lógica de su interioridad” (Rubio eta Varas, 2004, 245-246. or).

Denzin eta Lincolnnek (2012) gaineratzen dute ikertzaileok eraldatu egiten dugula, lehenik eta behin, eraldatu gura dena ikusgai bihurtuz, elkarrizketa, behaketa edo beste hainbat tekniken bidez jasotakoa irudikapenetan bilakatuta. Honi jarraiki beraz, kasu honetan, gizarte-zerbitzuen sistemaren inguruan protagonista diren pertsonen zentzua ulertu gura da, gero berau aztertu eta interpretatzeko asmoz.

Metodologia kuantitatiboetan, kopuru handien inguruko informazioa biltzen da, baina aldiz, metodologia kualitatiboan, egoera, subjektu edo fenomeno kopuru txikiagoa lantzen bada ere, modu sakonagoan egiten da, ikerketaren protagonista den horren informazio zehatz eta konkretuagoa sortuz. Jakina da, subjektu gutxiago erabiltzeak emaitzak orokortzeko aukera gutxitu eta emaitzen konparaketa zailtzen duela, baina aldi berean, subjektu ezberdinek errealitate jakin bat nola ikusi edo konprenitzen duen ezagutzea ahalbidetzen du. Horrek ematen dio balio erantsi garrantzitsuenetakoa kualitatiboari, bakoitzaren subjektibotasunak ulertu eta aitortzea posible bihurtzeak edo

xehetasun askoz ohartzeak, alegia. Oso erabilia da gizarte-langintzaren eremuan, kualitatiboak daukan hausnarketarako ahalmenagatik (Morley eta O’bree, 2021). Prat eta Simók (2022) zera diote ikuspegi honi buruz gizarte-langintza komunitarioaren baitan:

“Este enfoque aporta a la práctica del trabajo social comunitario interesantes elementos para (re)visar la aplicación consciente, los límites y sus posibilidades de generalización preservando su alienamiento con valores éticos y perspectivas críticas, (...) imprescindibles ante los impactos neoliberales que instrumentalizan, burocratizan y fragmentan las prácticas profesionales” (99. or).

Metodologia kualitatiboak diseinu irekiagoak ahalbidetzen ditu eta ikerketa faseak elkar elikatu egiten dira. Gainera, ikerketaren eremua gizarte errealitate dinamiko eta aldakorra izanik, egokiena iruditu zaigu errealitate hori ulertu eta interpretatzeko. Aipatutako subjektu ikertua eta subjektu ikertzailearekin sortu gura den harremanagatik ere gauzatzen da hautua, metodologia kualitatiboak bi subjektuen arteko harreman enpatikoak sortzea ahalbidetzen baitu.

Ikerketa aplikatua dela esan dezakegu, bestalde. Ikerketa aplikatua “gizarte batean gertatzen diren gorabeherak hobeto ulertzeko ezagutza teorikoa handitzea” baino haratago doa, eta “beharrizan sozial bati erantzuteko” erabiltzen da. “Ikerketaren helburua, gizartean egon daitezkeen arazoak konpontzea da. (...) Aplikatua deitzen zaio, lortzen diren ondorioak erabilpen zuzena dutelako eguneroko bizitzan”. Kasu honetan, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak komunitarioari dagokionez izan ditzakeen gabeziak zergatik gertatzen diren ezagutu, eta ondorioz, alor horretan sistemari ekarpena egitea da asmoa. Beraz, gizartean orokorrean zein sistemaren eraldaketa eta hobekuntzan eragin gura da. Bi motibo nagusigatik dira garrantzitsuak horrelako ikerketak, batetik, arazoari ikusgarritasuna emanez, administrazio eta eragile ezberdinen inplikazioa sustatzen delako eta bestetik, arazoaren aurrean alternatiba posibleak planteatzen direlako (Juaristi, 2003, 25. or).

Ikerketa aplikatuaren baitan dauden ideiei dagokienez, guk aurrez aipatutako premisekin bat egiten dutela ikus dezakegu. Hasteko, praktikan dauden ezagutzen erabilera prozesuetan parte-hartzen duten taldeen eta orokorrean, gizartearen osotasunaren mesedetan erabilgarria da, gizarte-zerbitzuen sistema hobe batek, gizarte justuago baten eraikuntzan eragiten duelako. Kasu honetan gainera, oinarrizko ikerketarena propio den helburua ere betetzen da, hots, gizarte-langintzaren diziplina aberasten duten ezagutza berriak sortzen dira, batez ere, gutxien garatu den komunitarioaren dimentsioan. (Cívicos

eta Hernández, 2007). Gainera, helburu nagusia aztertutako errealitatean aldaketak egitea denez, ikerketa eta praktika uztartzen dira, aplikazioaren bidez.

Horretaz gain, ikerketa aplikatuaren baitan helburuaren eta metodoaren arabera sailkapenak daude. Universidad Tecnológica de Chile-Inacapeko gizarte-langintzako areak (2021) eginiko sailkapenari jarraituz, ikerketa honek baten baino gehiagotan izan dezake lekua. Lehenik, diagnosira bideratutako ikerketa praktikoen taldean sartu daiteke. Errealitate sozialeko fenomeno baten beharrak ezagutzeko prozesua egin eta politiken definiziorako, praktika politikoetarako edo garapenekoetarako erremintak, dokumentu edo proposamenak sortuz erantzuten delako. Bigarrenik, ikerketa ekintzaren multzoan sartu genezake fenomeno bat, kasu honetan, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren gauzatzen den dimentsio komunitarioaren garapenarekin gertatzen dena zientifikoki ezagutzeko prozesua baita, erabaki eta ekintzak ebaluatu eta hobetzeko asmoz. Gainera, praktikan aldaketak eragitea dugu helburu eta berau, praktikaren eta hautu teoriko metodologikoaren gaineko hausnarketarekin egingo dugu. Azkenik eta gure ustez ikerketa honi balio zientifikoa areagotzen diona kasu azterketa da. Izan ere, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema aztertzen da Gasteizko Udalaren oinarritzko gizarte-zerbitzuen azterketa sakonaren bitartez, egoera sozial jakin bati eragiten dioten faktoreak ezagutzeko asmoz.

Kasu azterketa XIX mendetik erabilia izan da eta zehazki, Harvarden eta beste unibertsitate batzuetan erabiltzen zen arren, gure esparruan, hots, fenomeno sozialen ikerketetan, 1900etik aurrera, Chicagoko Unibertsitateari estuki lotua ezagutzen da. Honela definitzen du Peñak:

“El Estudio de Caso se puede definir como un recurso metodológico de investigación científica, (...) especialmente se aplica al análisis científico, tanto con el ejercicio sistemático de descripción, explicación y comprensión de un fenómeno social, que comporta una organización, un rol, un conglomerado o grupo de personas. Por ser el fenómeno social un fenómeno complejo, se requiere así mismo, un tratamiento holístico, integral, que dé cuenta del todo y sus partes, sin descuidar detalle alguno” (186. or, 2009).

Autore honek gaineratzen du, dokumentazioaren teknika garrantzitsua izaten dela kasu azterketetan eta dokumentazioa beste teknika batzuekin elkarrekintzan erabili ohi dela, besteak beste elkarrizketak edo diskurtso analisiak. Esan dezakegu, adibide konkretu baten (pertsona, egoera, erakunde) azterketa osatu eta intentsiboa dela, fenomeno bat ezagutzeko asmoz. Honen bereizgarri nagusietakoa bere holistikotasuna da eta normalean, lau etapa ezberdinetan antolatzen da: etapa aztertzailea, deskribatzailea,

analitikoa eta sintetikoa. Etapa hauetako bakoitzean, esan bezala, teknika ezberdinak erabiltzen dira, ikerketaren planteamenduarekin ondoen egokitzen direnak, zehazki (Bujan, 2001).

Metodologiaren hurrengo zehaztasunetara joan aurretik aipatzekoa da, marko teorikoaz haratago egin dugun landa lanak bi azpiatal dituela. Batetik, aurre landa lana bezala izendatu dezakeguna dago, hots, gizarte-zerbitzuen baitan komunitarioaz hitz egiten dugunean zer esan nahi dugun zehaztuz, marko analitiko bat osatzea ahalbidetu digun atala. Bestetik, jada hautatutako laginarekin egindako kasu azterketa edo landa lana, helburua nagusiari erantzuteko asmoz egina.

3.3. ERABILITAKO TEKNIKAK

Ikerketa era egoki eta koherentean gauzatzeko asmoarekin, ikerketak dituen helburu eta hipotesien zein hautu epistemologiko, teoriko eta metodologikoarekin bat datozen teknika kualitatiboak erabili dira prozesuan zehar. Lehenik, berrikuspen bibliografikoa zein sakoneko elkarrizketak landa-lanaren lehenengo ataletan, eta bigarrenik, sakoneko elkarrizketak landa-lanaren bigarren atalean.

Landa-lana egiteko erabilitako teknikak azaldu aurretik, aipatzekoa da, gure ikerketaren kasuan dokumentazioaren errebisioak duen garrantzia. Ikerketa guztietan marko teorikoa osatzeko erabiltzen den teknika izan arren, gure kasuan, batez ere, landa-lanaren lehen ataletan, funtsezko teknika izan da, gainerakoen osagarri bezala.

Dokumentazioaren berrikuspena edo iturri ez zuzenez azterketa “beste batzuk sortu edo bildu duten materiala aztertzea da. (...) Beste pertsona edo erakunde batzuk sortu edota gorde dituzten estatistika, dokumentu, grabaketa, material pertsonal eta abarren azterketan oinarritzen den ikerketa teknika da” (Juaristi, 229-230. or, 2003). Modu honetan, ikertzaileak sortu ez duen informazioa eta beste modu batera lortuko ez lukeen informazioa lortzen du. Egia da, ordea, erabili aurretik kontrastatu beharra izaten dela eta iturrien fidagarritasuna berretsi. Materialak askotarikoak izaten dira, besteak beste, liburuak, egunkariak, txostenak, barne dokumentuak, ikus entzunezkoak, diskurtsoak, aktak... izan daitezke.

Ikerketa honetako dokumentazio berrikuspenaz ari garenean, bi fase bereizi ditzakegu. Batetik, ikerketa honen marko teorikoan egin dugun erabilera daukagu, ikerketa

gehientsuenetan gertatzen den legez. Aldiz, bestetik, gizarte-zerbitzuetako komunitarioaren marko analitiko propioa eratzeko, adituei egin dizkiegun elkarrizketez gain, beraien zein beste batzuen dokumentazioaren inguruan egin dugun errebisioa daukagu. Horretaz gain, kasu azterketaren testuinguraketa egiteko askotarikoa izan da aztertu den dokumentazioa: tokiko planak, legeak, dekretuak, eragileen barne dokumentuak, berriak, artikuluak, etab.

Sakoneko elkarrizketa izan da dokumentazio berrikuspenaz gain, bai marko analitikoa sortzeko, baita kasu azterketa gauzatzeko erabilitako teknika nagusia. Teknika kualitatiboen artean egokiena izan daitekeela pentsatu dugu, elkarrizketatutako pertsonak egoera edo fenomenoari buruz duen definizioa transmititzeko teknika baita. Finean, fenomenoaren inguruan elkarrizketatuarentzat garrantzitsua eta esanguratsua dena, duen esanahia edo perspektiba edo egiten dituen interpretazioak bilatzen ditu elkarrizketatzaileak (Ruíz Olabuenaga, 1996). Informazio aberatsa eman diezaguke sakoneko elkarrizketa batek, izan ere, gai baten inguruan pertsonak duen ikuskera sakontasunez aztertzea ahalbidetzen du. Pertsonarentzat garrantzitsua den horretan arakatu gura da beraz, eta horretarako, bere subjektibotasunak eta azalpenek protagonismo osoa hartzen dute (Blas, 2008).

Ikerketa honen kasuan, sakoneko elkarrizketak gauzatu ditugu komunitateko gizarte-langintzaren inguruan hainbat adituk egiten duten interpretazioa ezagutzeko, modu horretara gaia sakontasunez eta pertsona anitzen subjektibotasunak bilduz landu eta landa lanerako baliogarria den marko erreferentea sortu ahal izan dugu. Elkarrizketetan jasotako informazioarekin aurre landa-lana deritzoguna egin dugu eta guretzat dimentsio komunitarioaren denaren inguruko markoa osatu dugu. Ondorio gisa, gero ikusiko dugun bezala, elementu baldintzatzaileez osatutako analisirako markoa osatu dugu.

Landa-lanean ere, sakoneko elkarrizketak egin ditugu, kasu honetan, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sisteman Gasteizko Udalaren oinarrizko gizarte-zerbitzuen kasuan dimentsio komunitarioaren nondik norakoak aztertzeko. Horretarako, hurrengo atalean zehaztasun gehiagoz azalduko dugun arren, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren baitan dauden eragile ezberdinekin, hau da, politikari, teknikari edo profesionalekin elkarrizketak egin ditugu. Horrela, dimentsio komunitarioaren inguruan eragile hauen informazioa lehen pertsonan eta beren bizipen zein subjektibotasunetik jaso ahal izan dugu, beraiek baitute elementu baldintzatzaileetan eragiteko gaitasun gehien.

Elkarrizketa hauetan Juaristik (2003) aipatzen duen moduan, etxekotasun giroa lortu gura izan da. Etxekotasun giroa ezinbestekoa da elkarrizketatu eta elkarrizketatzailearen arteko konfiantza harremana sortzeko. Osterantzean, ez da sakoneko elkarrizketek eskaintzen duten sentimenduzko ez subjektibotasuneko informaziorik jasoko, eta zaila izango da gaiak sakontasunez tratatu eta aztertzea. Ikerketa honen kasuan, elkarrizketak elkarrizketatuen gertuko eremuetan egiten saiatu gara, esaterako, beraien lantokietan edo egunerokotasunean erabiltzen dituzten espazioetan. Covid 19aren pandemiaren edo egutegi kontuen ondorioz, aldiz, ezin izan ditugu elkarrizketa guztiak bertatik bertara egin, eta sarritan Webex, Zoom etab. bezalako aplikazioak erabili behar izan ditugu bideo-deien bidez elkarrizketak gauzatzeko, batez ere, aurre landa-laneko adituekin²⁹. Jakina da, aplikazio teknologiko hauek etxekotasun edo goxotasun giroa lortze aldera mugatuak izan daitezkeela. Nolanahi ere, izan Covid 19aren pandemiak edo izan iraultza teknologikoak bultzatuta, hauek erabiltzera ohitu garela dirudi eta ikerketako elkarrizketen kasuan, orokorrean, lortu dugu elkarrizketa mota hauek berezi egiten dituzten konfiantza giroa lortzea.

Elkarrizketen barruan sailkapen bat baino gehiago aurki ditzakegu, besteak beste, elkarrizketatzaileak elkarrizketa zuzentzen duen mailaren arabera edo elkarrizketaren orokortasunaren arabera. Egin ditugun sakoneko elkarrizketak fokatuak, hots, gai bakarraren ingurukoak izan dira, eta zuzentze mailaren arabera erdi zuzenduak izan direla esango genuke. Gure ikerketaren gai zentrala den dimentsio komunitarioari buruz mintzatu gara, baina aurrez gidoia prestatu badugu ere, malgutasunez jokatu dugu informatzaileek elkarrizketari eman dioten formaren arabera. Dena dela, aipatzekoa da malgutasun gehiagoz jokatu dugula elkarrizketa batzuetan beste batzuetan baino. Zehatzago esanda, lehenengo faseko elkarrizketak malguagoak izan dira bigarrenekoak baino, izan ere, bigarren kasuan, jada identifikatutako elementu konkretuen informazio lortzea izan dugu helburu.

Sakoneko elkarrizketa bezalako teknikak, berez dituen abantaila guztiak eta duen balio erantsia probestu nahi bada, elkarrizketaren gidoia ezinbestekoa da. Gidoiak elkarrizketan aztertu gura dugun gaiaren inguruko informazioa era ordenatuan jasotzea ahalbidetzen digu, alegia, gidoia elkarrizketan zehar ez galtzeko edo beharrezko informazio guztia jasotzen dugula ziurtatzeko daukagun tresna da. Hala ere, ez dago zertan zurruntasunez

²⁹ Gauzatze prozesuaren atalean (3.3), sakoneko elkarrizketen ezaugarri guztiak ikus daitezke, beste batzuen artean, gauzatu diren tokia.

jarraitu behar, elkarrizketaren joan etorrien arabera moldatzen joan gaitezke, bestek beste, gidoiaren ordena eta zenbait kasutan, baita edukia gehitu ere. Egin dugun elkarrizketa bakoitza, bakarra eta berezia izan da, eta gidoia modu batera edo bestera moldatu behar izan dugu.

Ikerketa honen kasuan, bi elkarrizketa gidoi mota nagusi egon dira. Batetik, aurre landa-lanean, informazioa biltzeko adituei egin dizkiegun elkarrizketen gidoia³⁰. Bestetik, behin markoa osatuta, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako komunitarioaren inguruko informazio jasotzeko, kasu azterketaren baitan, egindako elkarrizketen gidoia. Azken kasu honetan alabaina, ondorengo laginaren aukeraketaren atalean ikusiko dugun bezala, informatzaile klabeek ez dute gizarte-zerbitzuen sistemarekin harreman bera, eta horren arabera, bi maila ezberdinetan sailkatu ditugu informatzaileak: politikariak³¹ eta teknikari edo profesionalak³².

5.Taula: Metodologiaren laburpena

IKERKETAREN METODOLOGIA ETA TEKNIKA			
METODOLOGIA KUALITATIBOA			
IKERKETAREN FASEAK		TEKNIKAK	
MARKO TEORIKOA		Errebisio bibliografikoa	
ANALISIA	Marko analitikoa osatu	8 Sakoneko elkarrizketa eta errebisio bibliografikoa	
	Gasteizko oinarritzko gizarte-zerbitzuen azterketa	Kasu azterketa	11 sakoneko elkarrizketa

Iturria: Norberak egina.

³⁰ 1.eranskinean aurkitu daiteke, komunitateko gizarte-langintzan edo gizarte-zerbitzuen dimentsio komunitarioan adituei egindako elkarrizketen gidoia.

³¹ 2.eranskinean aurkitu daiteke, politikariei edo ardura politikoko postuan dauden pertsoneri egindako elkarrizketen gidoia.

³² 3.eranskinean aurkitu daiteke teknikariei egindako elkarrizketen gidoia.

3.4. AZTERGAIA (LAGINAREN AUKERAKETA)

Aurreko azpiataletan esan dugun bezala, ikerketa honetan bi lagin talde aurki ditzakegu. Batetik, lehenengo helburua bete ahal izateko (komunitateaz mintzo garenean zertaz ari garen zehaztea), hots, berrikuspen bibliografikotik ateratako informazioa adituen ekarpenekin osatzeko egin ditugun elkarrizketako lagina daukagu. Bestetik, behin marko analitikoa sortu eta osatuta, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren dimentsio komunitarioaren egoeraren arazoak ezagutzeko gauzatu dugun kasu azterketaren lagina daukagu, hau da, Gasteizko Udaleko oinarrizko gizarte-zerbitzuekin harremana duten politikari eta teknikari edo profesionalena.

Aurre landa-lanean elkarrizketatutako pertsonak, gizarte-langintza komunitarioan, lan komunitarioan, esku-hartze komunitarioa edo eta gizarte-zerbitzuetan adituak dira. Ibilbide profesionalagatik, jada egin eta egun ere egiten dituzten ikerketengatik edo egunerokotasunean duten jardueraren ondorioz, ikerketarako marko analitikoa osatzeko, lehen mailako informazio aberatsa eskaini dezaketelako aukeratu ditugu. Lagina, esan bezala, jardun ezberdinetako pertsonak osatzen dute: batzuk akademian ikertzen dihardute, eta beste batzuk gizarte-zerbitzuen sistemetatik gertuago kokatzen dira bere jardun profesionala bertan gauzatzen dutelako edo aholkulari gisa dihardutelako. Garrantzitsua iruditu zaigu esparru akademikoan diharduten pertsonen ikuspuntua ezagutzea, gaian etengabe ikertzen dauden heinean, ezagutza berritzailea dutelako. Hala ere, adituen multzoan, aholkulari gisa edo gizarte-zerbitzuetatik gertuxeago dauden pertsonak elkarrizketatzea markoa osatzeko ezinbestekoa ikusi dugu, esperientzia eta bizipenetatik eratorritako teoria izateko. Elkarrizketatutako pertsonak jatorri ezberdinekoak badira ere, gehienek eredu mediterranearraren baitan kokatzen diren gizarte-zerbitzuen sistemen perspektibatik lantzen dute dimentsio komunitarioa, beraz, jasotako informazioa, gure sistemarako aplikagarria izan da.

Beste lau elkarrizketa gauzatu ditugu, Hego Ameriketako gizarte-langintzaren esparruan komunitarioa lantzen duten eta erreferente diren pertsonekin. Elkarrizketa hauek komunitarioak Hego Ameriketara, orokorrean, duen tradizioagatik beraien ezagutza batzuk baliagarri izan daitezkeela uste dugulako egin ditugu³³. Nahiz eta, esan bezala,

³³ Elkarrizketa horiek *Facultad de Trabajo Social de la Universidad Nacional De La Platan* (UNLP) egindako egonaldiaren markoan gauzatu dira.

gizarte-zerbitzu eta politika sozialen markoa ezberdina den heinean ezingo diren zuzenean hemen aplikatuak izan, ikasketa interesgarriak bildu ditzakegulako hautatu ditugu. Hala ere, analisiaren atalean ikusi ahal izango dugun bezala, ez kuantitatiboki ezta kualitatiboki ere, Argentinako egonaldian egindako elkarrizketek ez dute lehenengo lau elkarrizketatuenak izandako garrantzi bera izan. Edozein modutan ere, guztira beraz, zortzi izan dira elkarrizketatutako pertsonak eta hurrengo laburpen taulan jasotzen dira gainerako zehaztasunak.

6. Taula: Oinarrizko elementuak osatzeko elkarrizketak, pertsonen jatorri eta jardueraren arabera

Kodea	Jatorria	Eremu profesionala	Hautatzeko arrazoia
E.1	Katalunia	Akademia + aholkularitza	Egun Kataluniako, dimentsio komunitarioaren inguruko planteamenduak egiten ari den sistema bakarreko diseinuaren bultzatzaileetako bat izan da.
E.2	EAE	Aholkularitza	Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren ezagutza maila handienetakoa duen pertsona da. Horretaz gain, komunitarioaren ikuspuntua landu eta aztertzen du, proposamenak ere eginda.
E.3	Sevilla	Ikertzaile-Irakaslea (akademia) eta ekintzailea	Komunitarioa aztertzen du, batez ere, oinarrizko gizarte-zerbitzuetako eremuan. Proposamenak ere egiten ditu eta auzoetako lan komunitarioaren ekintzailea da.
E.4	Katalunia	Gizarte-zerbitzuetako profesionala	Egun Kataluniako, dimentsio komunitarioarekin egiten du bere jardun profesionala eta proposamenak egiten ari den sistema bakarreko diseinuaren bultzatzaileetako bat izan da.
E.5	Buenos Aires (Argentina)	Ikertzaile-Irakaslea (akademia) eta ekintzailea	Gizarte-langintza komunitarioaren katedrako irakasle emeritua. Urteetan eta gaur egun ere, Hego Ameriketako komunitarioa lantzen dihardu eta erreferenteetakoa da.
E.6	La Plata (Argentina)	Gizarte politiken saileko gizarte-langilea eta irakasle-ikertzailea (akademia)	Gizarte Politiken sailean gizarte langilea izateaz gain, gizarte-langintza komunitarioaren katedrako irakasle doktorea. La Platako auzoetan fakultateak dituen proiektu komunitarioen arduraduna.
E.7	La Plata (Argentina)	Gizarte politiken saileko gizarte-langilea eta irakasle-ikertzailea (akademia)	Gizarte Politiken sailean gizarte-langilea izateaz gain, gizarte-langintza komunitarioaren katedrako irakasle eta ikertzailea da. La Platako Villa Elvira auzoko praktiketako irakasle arduraduna da eta esperientziatik eratorritako ezagutza handia du.
E.8	La Plata (Argentina)	Gizarte-zerbitzuetako komunitarioaren arloan gizarte-langilea eta irakasle-ikertzailea (akademia)	Villa Elvira auzoan gizarte-langilea da, gizarte-zerbitzuetako erreferente komunitarioa. Horretaz gain, alor komunitarioa ikertzen duen gizarte-langintza komunitarioko katedrako irakasle zein ikertzailea da. Ondorioz, ikerketetan bi ikuspegiak barnebiltzen ditu.

Iturria: Norberak egina.

Horretaz gain, behin komunitarioaren marko analitikoa osatuta, gainerako helburuei heltzeko, hau da, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren baitan elementu komunitarioaren gorabeherak aztertzeko, kasu azterketaren metodoa erabili dugu. Kasu azterketan, Gasteizko Udalaren kasua hartu dugu, zehazki, Gasteizko oinarrizko gizarte-zerbitzuen kasua.

ZERGATIK HAUTATU DUGU GASTEIZKO UDALA ETA GASTEIZKO OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUAK?

Gasteizko Udala hautatzea kasu azterketa egiteko, ez da ausaz egin den hautua eta beraz, horretarako hainbat izan dira zioak.

Analisiaren hasierako atalean ikusiko dugun bezala, Gasteizek gizarte-zerbitzuekin eta bereziki, komunitateko gizarte-zerbitzuekin zein komunitarioarekin izan duen tradizioa esanguratsua izan da. Hain izan da garrantzitsua non gizarte-zerbitzuen alorrean aitzindari izan diren eta oraindik ere diren zerbitzuak eskaintzen dituzten. Zerbitzu hauek erreferentzialtasuna dute antolamendu motan egindako apustuagatik, gizarte-etxeetan kokatzearen apustuagatik, alegia, eta orokorrean gizarte-zerbitzuek udal mailan historiko izan duten garrantziagatik. Gure aburuz, beraz, Gasteizko Udaleko oinarrizko gizarte-zerbitzuen bidez, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren baitan komunitarioaren adiera sakonenetakoa ezagutzeko aukera izango dugula konbentzituruta egin dugu hautua.

Behin lehen hautaketa hori eginda, hau da, lagin nagusia hautatuta, Gasteizko oinarrizko gizarte-zerbitzuetan komunitarioaren inguruko azterketa egiteko elkarrizketatutako pertsonen profila nola aukeratu dugun aipatzea garrantzitsua iruditzen zaigu. Esan dugu lan honetan zehar, lan komunitarioak, gizarte-zerbitzuen sistemek bezala, hiru eragile nagusi dituela; batetik, politikoak; bestetik, teknikoak; eta azkenik, lurraldea edo herritarrak. Horregatik, laginaren hautaketa egiterakoan, ezinbestekoa iruditu zaigu atal horietatik, zuzenean sistemako elementuetan eragin dezaketen bi eragileetako informatzaileak izatea. Hau da, eremu bakoitzean, atal bakoitzean, ahalik eta informazio osatuena eskuratzeko klabeak izan daitezkeen pertsonen ahotsak entzutea, azken emaitza, osagai guztien bidez osatua izan dadin. Horretarako, Gasteizko kasuan egon daitezkeen aldaera ezberdin gehientsuenak kontuan hartzen saiatu gara.

Aktore politikoaren informazio osatu bat jasotzeko asmotan, gobernuan dagoen eta arduradun zuzena den, oinarrizko gizarte-zerbitzuetako zinegotzia elkarrizketatzeaz gain,

udala osatzen duten gainerako alderdietako zinegotziak ere elkarrizketatu nahi izan ditugu³⁴. Gainerako zinegotzien kasuan, gizarte-zerbitzuetako edo behintzat, gizarte politiketako batzordeetan parte-hartzen duten zinegotziak elkarrizketatu ditugu, maila politikoan dimentsio komunitarioaren inguruan dagoen diskurtso osatua ezagutzeko asmoz.

7. Taula: Maila politikoan egindako elkarrizketak

Kodea	Kargua	Alderdia	Profesioa	Aukeratzeko arrazoia
E.9	Gobernuko kidea (Gizarte Politiketako saileko zinegotzia)	PSE-EE		Saileko arduradun politikoa izanik, sailaren eta gobernuaren ikuspegia ezagutu.
E.10	Gobernuko kidea eta udaleko zinegotzia	EAJ		Bere talde politikoaren ikuspegia ezagutu.
E.11	Udaleko zinegotzia	EH Bildu		Bere talde politikoaren ikuspegia ezagutu.
E.12	Udaleko zinegotzia	AP		Bere talde politikoaren ikuspegia ezagutu.

Iturria: Norberak egin

Tekniko edo profesionaleri erreparatuz ere, kargu edo ardura eta ondorioz, eginbehar ezberdinak dituzten profesionalak hautatu ditugu. Lehenik eta behin, Gizarte Politika, Adinekoen eta Haurren saileko arduradun nagusia, sailaren orokortasunetik dimentsio komunitarioaren nondik norakoak ezagutzeko. Konkretatuz, Ekintza Komunitarioaren ataleko burua elkarrizketatzea ezinbestekotzat jo dugu, finean, bere bitartez heltzen baitzaizkie enkarguak oinarritzko gizarte-zerbitzuetako langileei eta honek du ardura nagusia. Honetaz gain, oinarritzko gizarte-zerbitzuetako unitate bateko zerbitziburua elkarrizketatzea garrantzitsua iruditu zaigu, eta jardun profesionala arreta zuzenera bideratzen duten gizarte-langileekin beste hiru elkarrizketa egin ditugu. Azkenik, aipatu berri ditugun bi profilak barne hartzen dituen gizarte-langile batekin ere egin dugu elkarrizketa. Hau da, egun arreta zuzenean dagoen, baina orain arte oinarritzko gizarte-zerbitzu bateko zerbitziburua izan den gizarte-langilea, bi profilen ikuspegitik informazio osatuagoa eskaini dezakeela pentsatu dugulako. Esanak esan, guztira zazpi elkarrizketa izan dira.

³⁴ Gero ikusiko dugun bezala, Elkarrekin Gasteiz talde politikoarekin hiru aldiz kontaktatu eta gero, ezin izan dugu elkarrizketa egin.

8. Taula: Maila teknikoan egindako elkarrizketak

Kodea	Kargua	Profesioa	Hautatzeko arrazoia
E.13	Gizarte politiketako sailaren arduraduna	Gizarte-langilea	Sailaren ikuspegia teknikoki ezagutzea.
E.14	Jarduera komunitarioaren ataleko arduraduna	Gizarte-langilea	Atalaren ikuspegia ezagutzea.
E.15	Zerbitzu burua	Gizarte-langilea	Zerbitzu buruaren ikuspegia ezagutzea.
E.16	Zerbitzu burua (orain arte) eta gizarte-langilea (orain)	Gizarte-langilea	Zerbitzu burua eta arreta zuzeneko osagarritasunaren ikuspegia ezagutzea.
E.17	Gizarte-langilea	Gizarte-langilea	Zuzeneko arretaren ikuspegia ezagutzea.
E.18	Gizarte-langilea	Gizarte-langilea	Zuzeneko arretaren ikuspegia ezagutzea.
E.19	Gizarte-langilea	Gizarte-langilea	Zuzeneko arretaren ikuspegia ezagutzea.

Iturria: Norberak egina.

Laginketa ez probabilistikoa izan da gurea bi kasuetan, izan ere, laginketa ikertzaileon nahien, interesen eta aukeraketaren arabera osatu dugulako. Aurre landa-laneko elkarrizketetan, iritzi laginketa egin dugu, gure kasuan, gizarte-zerbitzuetako dimentsio komunitarioaren inguruan egin daitezkeen ikuspuntuak sakonean ezagutzeko talde txikia aukeratu ditugulako, elur bolaren teknikaren bidez osatuta (Juaristi, 2003). Landa-lanean berriz, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaarekin zerikusi eta harremana duten pertsonak aukeratu ditugu. Laginketa estrukturala burutu dugula esan dezakegu, estrategia elkarrizketatutako pertsonak Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemarekin, konkretuki Gasteizko oinarrizko gizarte-zerbitzuekin, duten harremanaren inguruko irizpideetan oinarritu dugulako (Rubio eta Varas, 2004). Oro har, esan dezakegu, gure ikerketa helburuak betetzeko metodologia, teknika eta lagin egokiak erabili ditugula.

3.5. GAUZATZE PROZESUA

Ikerketan erabili ditugun teknikak beraz, dokumentazioaren analisia, sakoneko elkarrizketa eta eztabaida taldeak izan dira. Horietako bakoitza egiteko prozesuak berriz, ezberdinak izan dira.

Aurre landa-laneko elkarrizketak egiteko, gure inguruan gizarte-langintza komunitarioan gizarte-zerbitzuetan edo lan komunitarioan esperientzia eta eskarmentua duten pertsona adituekin harremanetan jarri gara. Aurrez aipatu dugun bezala, beren esperientzia

profesionalagatik (izan akademian, ikerketan edo gizarte-zerbitzuen sisteman bertan) informazio interesgarria eta garrantzitsua eman diguten pertsonekin harremanetan jarri gara. Horretarako, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHUko Gizarte-langintza eta Gizarte-zerbitzuen ezagutza alorreko hainbat irakaslerekin harremanetan jarri gara, elkarrizketarekin duten harremana probestuz, adituekin lehen kontaktua errazago egiteko. Kontaktua egin eta gero, lehendabizi, bi pertsona elkarrizketatu ditugu, eta ondoren, elur bolaren teknikaren bitartez heldu gara tresna analitikoak sortzeko egin ditugun beste bi elkarrizketak egitera.

Landa lana elikatzeko erabili ditugun elkarrizketak egiteko, berriz, Gasteizko Udala osatzen duten talde politikoekin harremanetan jarri gara, baina baita Gizarte Politika, Adinekoen eta Haurren sailarekin ere. Bertan lehen kontaktua egitean, gure ikerketaren muina azaldu dugu eta saileko arduradunekin harremanetan jartzea eskatu dugu. Alde batetik, eragile politikoetan, kasu batzuetan, telefonoak eskuratu ditugu eta beste kasu batzuetan, berriz, helbide elektronikoak. Esan beharra dago, hasieratik erakutsi dutela ikerketaren inguruko interesa eta talde gehientsuenen kasuan, lana erraztu digutela. Hala ere, Elkarrekin Gasteiz talde politikoaren kasuan, ezin izan dugu elkarrizketarik egin. Denbora falta dutelako elkarrizketa idatziz bidaltzeko eskatu ziguten, hala egin genuen baina ez diote gure eskaerari erantzun.

Bestalde, teknikarien esparruan, sailarekin harremanetan jarri gara, eta berriz ere, gure ikerketa azaldu dugu. Kasu honetan ere, interes handia piztu du ikerketak eta horregatik erraztasunak izan ditugu lan egiteko. Hasera batean, oinarrizko gizarte-zerbitzuei buruz egon daitekeen dokumentazioaren inguruan galdetu dugu (plan estrategikoak, memoriak, buletin ezberdinak etab.) eta hala, dokumentu ezberdinak eskuratu ditugunez, oinarrizko gizarte-zerbitzuetara lehen hurbilpena egin ahal izan dugu. Behin hori eginda, harremana berreskuratu dugu, eta gure aburuz, elkarrizketatzeko interesgarriak izan daitezkeen pertsonen kontaktuak eskatu ditugu, hautua arduradunekin kontrastatu eta gero, noski.

Aurreko lerroetan azaldutakoa elkarrizketa egiteko lehenbiziko pausoa da eta pauso garrantzitsua gainera. Hala ere, elkarrizketei dagokienez, hiru atal nagusitan banatzen direla esango genuke: batetik, elkarrekintza; bestetik, informazioa jasotzeko prozesua, eta azkenik, informazio gordetzeko prozesua (Ruiz Olabuenaga eta Izpizua, 1989). Lehengoa

oso garrantzitsua da, azken finean, elkarrizketatuarekin konfiantza³⁵, enpatia eta etxekotasun giroa sortzean baitago elkarrizketaren arrakastaren gako nagusienetako. Atal honetan, Juaristiren (2003) gomendioak jarraiki, hainbat izan dira kontuan hartu ditugunak: Hasteko, elkarrizketatuarekin harremanetan jartzean, ikerketaren muina, bera elkarrizketatu nahi izatearen arrazoia eta elkarrizketaren nolakotasuna zein estimatzen den iraupena azaldu zaizkio. Behin onartuta, berak erabaki ditu data, ordua eta elkarrizketaren lekua³⁶, garrantzitsua dela ulertzen baitugu bere erosotasunerako. Behin elkarrizketa eguna iritsita, lehen pausua gure burua aurkeztea izan da, ondoren, elkarrizketaren helburu eta nondik norakoak azaldu ahal izateko. Bere anonimotasuna mantenduko dugula ziurtatu diogu elkarrizketatuari, eta horren ondoren, zalantzarik ote duen galdetu diogu, elkarrizketa modu garbian hasi dugula bermatzeko. Gero, grabatzeko baimena eskatu diogu elkarrizketatuari, gure lana errazteko besterik ez dela azalduz eta kasu guztietan onartu denez, elkarrizketari hasiera eman diogu. Elkarrizketetan zehar, ez dira galdera zuzenegiak egin. Horretaz gain, ez ahozko komunikazioak duen garrantzia kontuan hartu dugu eta balorazioak, iradokizunak edo aurreiritzi estereotipatuak saihestu dira, giro goxo eta lasaia mantentze aldera.

Bukaeran, elkarrizketaren laburpen txiki bat egin dugu berriro, elkarrizketatuari ea zerbait gaineratu nahi duen ere galdetu diogu eta elkarrizketa onartu eta bertan parte-hartu izana eskertu diegu.

Hurrengo taulan jasotzen dira elkarrizketen ezaugarriak:

³⁵ Elkarrizketa guztiak banaka egin dira, arreta zuzeneko teknikarien hiru elkarrizketak ezik. Gizarte-langileen erosotasuna bermatu eta ondorioz, parte-hartzea sustatzeko binaka egin dira, teknika honetan adituak diren pertsonen aholkuak jarraituz.

³⁶ Kasu batzuetan, distantziagatik baliabideak optimizatzeko eta Covid-19agatik, segurtasuna bermatzeko, elkarrizketak online egin dira.

9. Taula: Elkarrizketen ezaugarriak

Kodea	Noren bitartez kontaktatu	Kontaktua	Tokia
E.1	Errebisio bibliografikoaren bitartez	Email bidez	Online
E.2	UPV/EHUko Gizarte-langintzako lankideen bitartez	Email bidez	Online
E.3	E.1en bitartez	Email bidez	Online
E.4	E.2ren bitartez	Email bidez	Online
E.5	Egonaldiko arduradunarez bitartez,	Zuzenean	UNLPko Gizarte-Langintzako Fakultatean
E.6	Egonaldiko arduradunaren bitartez	Zuzenean	UNLPko Gizarte-Langintzako Fakultatean
E.7	E.6ren bitartez	Zuzenean	UNLPko Gizarte-Langintzako Fakultatean
E.8	E.6ren bitartez	Zuzenean	UNLPko Gizarte-Langintzako Fakultatean
E.9	Gizarte Politika, Adinekoen eta Haurren saileko arduradunaren bitartez	Email bidez	Gasteizko Udalean
E.10	Gasteizko Udaleko web orriaren bitartez	Email bidez	Gasteizko Udalean
E.11	Gasteizko Udaleko web orriaren bitartez	Email bidez	Gasteizko Udalean
E.12	Gasteizko Udaleko web orriaren bitartez	Email bidez	Gasteizko Udalean
E.13	UPV/EHUko Gizarte-Langintzako lankideen bitartez	Telefonoz	Gasteizko Udaleko Gizarte Politika, Adinekoen eta Haurren saileko bulegoetan
E.14	Gizarte Politika, Adinekoen eta Haurren Saileko arduradunaren bitartez	Email bidez	Gasteizko Udaleko Gizarte Politika, Adinekoen eta Haurren saileko bulegoetan
E.15	Ekintza Komunitarioko arduradunaren bitartez	Email bidez	Teknikarien oinarrizko gizarte-zerbitzuko bulegoan
E.16	Oinarrizko gizarte-zerbitzuko zerbitzuburuaren bitartez	Email bidez	Teknikarien oinarrizko gizarte-zerbitzuko bulegoan
E.17	Ekintza komunitarioko arduradunaren bitartez	Email bidez	Teknikarien oinarrizko gizarte-zerbitzuko bulegoan
E.18	UPV/EHUko Gizarte-Langintzako lankideen bitartez	Email bidez	Teknikarien oinarrizko gizarte-zerbitzuko bulegoan
E.19	UPV/EHUko Gizarte-Langintzako lankideen bitartez	Email bidez	Teknikarien oinarrizko gizarte-zerbitzuko bulegoan

Iturria: Norberak egina.

3.6. INFORMAZIOAREN LANKETA

Behin elkarrizketa guztiak eginda eta transkribatuta, hauen analisia egin dugu, bertatik ateratako informazioa landuz. Helburua, beraz, teknika ezberdinen bidez jasotako datu enpirikoen sorkuntza teorikoa da.

Ikerketa honen kasuan, informazioaren lanketa eta analisia diskurtsoren analisiaren bitartez egin dugu, hots, elkarrizketatu ditugun pertsona ezberdinen diskurtsoetan zentratu gara. Rubio eta Varasek (2004) diotenez, lehenik eta behin, ezer azaldu aurretik, diskurtso soziala zer den argitu behar da. Hauentzat sorkuntza eremu batean bi subjektuen arteko elkarrekintzan birproduzitzen dena da, teknika jakin batetik ateratakoa, elkarrizketa edo talde eztabaidatik, alegia. Lengoia da sozialaren edukia eta bere bitartez azaltzen da. Hori horrela, subjektu bakoitzak bere kondizio sozialetara erantsi edo txertatzen du diskurtsoa eta teknika kualitatiboen bidez diskurtso latentea, diskurtso konkretu batean bilakatzen da, aztertu daitekeen diskurtso konkretuan. Analisia egiterakoan, diskurtsoan agertzen zaizkigun kontzeptu elkartu edo ezberdinak aurkitu behar ditugu, diskurtsoa egituratzen dutenak hain zuzen ere. Kontzeptuen bidez pertsona bakoitzaren logika aurkitu behar da, kontzeptuen arteko aurkakotasuna, konkordantzia edo botere harremana aztertuz.

Diskurtsoren analisia, analisi sakon eta zehatzaren bidez gauzatzen da, korpusean jasotzen diren eduki elementu guztiak kontuan izango dituen, eta berau egiteko, bi fase ezberdin proposatzen dituzte. Batetik, materialaren zati esanguratsu bat hartu, landu eta lanerako hasierako eredu sortu. Bestetik, aldiz, eredu hori egiaztatu beharra dago, gainerako material guztia modu sakon eta zorrotzean aztertuz. Gainera, behar den guztietan hasierako eredu hori, aurkitzen ditugun elementu berri guztiekin eraldatu eta osatu beharra dago (495-498. or, 2004).

3.7. KRONOGRAMA


Egindako lanak hainbat izan dira ikerketa urte hauetan zehar. Azpiko taulan, ze egin behar nagusi izan diren agertzen da era sintetikoan eta baita horietako egin behar bakoitza ze ikerketa urtetan zehar eraman den aurrera.

10. Taula: Ikerketaren kronograma

Zeregina	2019	2020	2021	2022	2023
Ikerketaren diseinua eta gaiari hurbilpena	X				
Ikerketako gai nagusien inguruko bibliografiaren azterketa	X				
Marko teorikoa sortu		X	X	X	
Diseinu metodologikoa		X	X		
Landa-lana			X	X	
Analisia				X	X
Azken txostena idatzi					X
Tesia aurkeztu eta tesiaren defentsa					X

Iturria: Norberak egin.

4. ANALISIA: GIZARTE-ZERBITZUEN EUSKAL SISTEMAREN KOMUNITARIOAREN GORABEHERAK



4. ANALISIA: GIZARTE ZERBITZUEN EUSKAL SISTEMAREN DIMENTSIO KOMUNITARIOAREN GORABEHERAK

Ikerketaren nondik norakoak azaldu ditugunetik adierazi dugun bezala, lan honen analisia bi fase ezberdinetan edo bi azpiataletan banatzen da. Batetik, aurre landa-lana bezala izendatu dezakegun lehenengo lanketa bat, alegia. Atal horretan zehar lehenengo helburua lortu nahi izan dugu, eta hori dela medio, kasu analisian zehar erreferentzizat erabili dugun marko analitikoa sortu dugu. Marko analitiko hori sortzeko, segidan ikusiko dugun bezala, hasteko, gaur egun gizarte-zerbitzuen baitan dauden planteamendu komunitarioak bildu eta horiek oinarri gisa erabili ditugu, ondoren, adituen elkarrizketekin informazioa osatuta elementu baldintzatzaileak identifikatu ditugarrik. Bestetik, helburu nagusiari eta gainerako helburuei erantzuteko asmoz, analisiaren fase nagusia gauzatu dugu. Gasteizko Udaleko oinarrizko gizarte-zerbitzuen kasu azterketaren bidez egin dugu, eta geroago ikusiko duzuen bezala, informazioa eragileen ezaugarrien arabera landu dugu.

4.1. MARKO ANALITIKOA: GIZARTE ZERBITZUETAKO PROPOSAMEN KOMUNITARIOEN ELEMENTU BALDINTZATZAILEAK

Landa-lanaren lehenengo atal hau, berriki adierazi dugun bezala, elementu baldintzatzaileak identifikatuz amaitzen da. Aldiz, horretarako, komunitarioaren inguruan gizarte-zerbitzuen baitan egiten diren proposamenen lanketa egin da, hurrengo lerroetan ikus daitekeen bezala.

4.1.1. ARGIAK ETA ILUNAK: KOMUNITARIOA GIZARTE-ZERBITZUETAN

Gizarte-zerbitzuetan dimentsio komunitarioaren garrantzia azpimarratu gurako genuke, eta horretarako, ezinbestekoa da komunitarioaren apustua argudiatzea edota zer ekarri dezakeen adieraztea. Aurreko atalean gizarte-zerbitzuen erronkak aztertu ditugunez eta horiei aurre egiteko gizarte-zerbitzuen berrantolaketan dimentsio komunitarioaren aldeko apustua egiten dugunez gero, hasteko eta behin, erronka horiei nola lagundu diezaieken

ikusiko dugu. Horretaz gain, neoliberalismoaren eta, horren ondorio den, indibidualismoaren aurrean balazta zapaltzen zein planto egiten lagundu dezakeela ere ikusiko dugu, hala nola, horren ondorioz sortzen den prekaritate testuinguru konplexu honi aurre egiteko modu bat ere izan daitekeelako. Gainera, modernitate likidoaren errealitateari ere, erantzun dakioke horrela.

Egungo gizartean, aski ezagunak dira neoliberalismoa eta bere aurpegi zein ekintzak. Jada, ideologia dominanteaz hitz egin dezakegu, eta aurrez aipatu izan dugun moduan, gure bizitzak erabat harrapatu ditu. Zirrikitu guztietatik sartu da eta guri interesatzen zaizkigun gizarte-zerbitzuetan ere eragiten du, noski. Hori kontuan izanda, dimentsio komunitarioan sakontzearen planteamenduek hainbat ekarpen positibo egin ditzakete.

Neoliberalismoak sortutako muturreko gizarte egoera konplexuen aurrean edo krisi egoera baten aurkitzen garenean, lehenago diruz ordaintzen genituen zerbitzu eta baliabideak lortzeko logika berritzaileak erabiltzen ditugu, ohikoen ezberdinak. Erantzun horien artean aurkitu daiteke logika komunitarioen erantzuna, koprodukzioan oinarritua, partekatua, elkarrekintzatik sortua eta hartu emanean sostengatua. Logika komunitarioek, hau da, komunitatea bera ahalduntutako eragiletzat eta subjektu politikotzat kontuan hartzeak, eta ondorioz, parte-hartzearen bidez, berreraikitze demokratikoaren bidean jartzeak, talka egiten du, berez, neoliberalismoak eta indibidualismoak berezko dituzten logikekin. Gizartearen ahalduntzea bultzatu daiteke, eta kolektibotasunaren zein saretzearen bidez, gizarte egoeren kolektibizatzeko prozesuan jartzera eraman gaitzake. Azken hau kontuan hartuta, lehenago aipatutako gizarte konplexuaren zailtasun batzuk gainditzea ere ahalbidetu dezake. Kohesio soziala igo dezakeenez, babes sareak eta ehun soziala indartuz, gizarte egoera larria izateko arriskua gutxitu dezake, eta parte-hartzearekin batera solidaritatea sustatuz, garapen pertsonal zein soziala eman daiteke. Beste era batera esanda, gizarte-arazoak sortzen dituzten estroktoretan eragitea, kolektiboa balioan jartzea, harremanari eta interpedendentziari erreparatzea eta tokian tokikoa bultzatzea, aurrez aipatutako aldaketa txikiekin hasten da.

Berezkoa du indar hori komunitateak eta, gizarte-zerbitzuetatik ere, begirada hor jartzen bada, hots, pertsona eta familiekin hori guztia kontuan hartuta lan eginez gero, posible da suspertze eta indartze hori egikaritzea.

Pertsonok norbanakoak garen arren, eragile soziala gara eta elkarrekintzatik, sistema sozialetan parte-hartzetik etab. egiten gara pertsona: primarioenetatik,

urrunagokoetaraino (Navarro, 2020). Edozein gizarte likidok ere ez du pertsonen arteko hartu emanak, antolaketak, autogestioak, harreman “militanteak” edo konfiantzako harremanak sortzen duten zapore ezberdin eta bakarra ezabatu (Fantova, 2020e.). Hori horrela, dimentsio komunitarioaren aldeko apustuaren garrantzia berretsi dezakegu, izan ere:

“Las redes familiares y comunitarias, las unidades de convivencia y los vecindarios, las iniciativas solidarias y colaborativas tienen también un papel importante ante este impresionante desafío. Su capital de reciprocidad, capilaridad, confianza, compromiso, y proximidad ha de ser potenciado por todas las instancias en innovación social. No tanto para hacer lo mismo que los otros agentes, sino como para generar dinámicas en las que las personas que tienen alguna necesidad de subsistencia sin cubrir y otras personas cercanas pueden empoderarse e implicarse conjuntamente: en la respuesta, comunitaria y local, solidaria y colaborativa (con bancos de tiempo, monedas sociales, mercados de trueque u otras iniciativas) a dichas necesidades y en la denuncia reivindicativa de las estructuras y actuaciones injustas que impiden su satisfacción adecuada y sostenible” (Fantova, 2020d).

Finean, komunitarioak bere kapital sozialaren hazkundearen eta gizarte sarearen indartzearekin, lurralde erresilienteak sortzen laguntzen du, baita jasagarriak ere, ekonomikoki eta erlazionalki bizigarriak izango diren bizitzak eraikitzeko gunea izango direnak.

Bigarren kapituluan, ongizate estatua Welfare Triangelaren eskema kontuan izanda eraiki zela ikusi dugu. Gaur egungo gizarte likidoaren eraginez, babesa eta ongizatea bermatzeko ditugun hiru estruktura nagusien (estatua, familia eta enplegua) gaitasuna mehattuz doa, eta triangeluari laugarren hanka bat gehitu diezaiokegula uste dugu, hots komunitatea bera, lurralde jakin bateko jendartea. Dimentsio komunitarioaren indartzearen bidez, beraz, babesa eta zaintza eskaintzen duten estrukturen eskema hauskor horri sendotasuna eskaini dakiok. Hain zuzen ere, azken urteetako krisietan eta egoera latzenetan, modu ikusgarriagoan nabaritu ahal izan dugu momentu askotan komunitatea izan dela bizitzari eta egoera sozial jakinei eusteko erantzun duen behar beharrezko estruktura. Komunitatea gainera, bere antolaketa modu ezberdinei esker, elkarteak, gizarte mugimenduak, eskubideen (sozial, politiko, giza...) defentsan aritzen diren antolakundeak etab. baino lehenago heltzen da beharizanak hautematera, baita hauen lanketara ere. Tokian tokiko etengabeko presentziak eta ekintzen dinamikotasunak hori ahalbidetzen dute, eta kontrata, erakundeen zurruntasun eta, kasu askotan, urruntasun zein deskonexioak oztopatu egiten dute bat-batekotasuna (E.7 Aditua).

Egun gainera, *governantza*³⁷ terminoa ezagun egin da eta gobernuak beren agintzeko gaitasuna eta erabakitzekeo duten boterea partekatzeaz hitz egiten da. Parte-hartze prozesuak ezagun egin dira azken hamarkadetan, eta maiz, horren aldeko apustua egin da teorikoki eta diskurtsiboki gutxienez. Marko horren baitan, gizarte-beharrizanen eta egoera sozial konplexuen aurrean, erakundea edo familiak soilik eragin gabe, badago komunitatearentzako tartea ere era parte-hartzaile eta kolektiboan. COVID-19aren krisiak edo aurrez bizitako krisi ekonomiko sakonak erakutsi izan ziguten badagoela era komunitarioan, besteak beste, zaintza partekatua edo elkarren arteko zaintza egiteko aukera (Ferrer-Aracil, Giménez-Bertomeu eta Cortés-Florin, 2022). Orain artean aipatutako guztiagatik, gizarte-zerbitzuetatik egin behar den dimentsio komunitarioaren aldeko apustuarekin, praxi profesional osatuago eta eraginkorragoa lortu daitekeela ikus daiteke. Hori ordea, ezinbestean, erlazioetan, harremanetan oinarritutako biladura komunitario aberatsak dakarren elkarrekintzan, elkar laguntzan, egunerokotasuneko martxan dagoen elkarreraginean, interdependentzian, ehun sozialean, kolaborazio eta kooperazioan zimendatuko den apustuz soilik lor daiteke (Fantova, 2020c; Departament de Drets Socials (DDS), 2022).

Estrukturalagoak izan daitezkeen erronkei dimentsio komunitarioak egin diezazkiokeen ekarpenei errebasoa egin eta gero, gizarte-zerbitzuenak propio diren erronkei egin diezazkiokeenak ikusiko ditugu. Kontuan izatekoa da, kasu honetan, gizarte-zerbitzuenak diren egiturazko erronka hauek azaldu berri dugun testuinguruarengatik erabat baldintzatuta daudela, aurrekoek zeharkakotasunez eragiten baitute mundu globalizatuaren erakunde eta aspektu guztietan. Bestalde, gogoan izan behar da, gizarte-zerbitzuen erronka hauek guztiak ere beraien artean elkar eraginean daudela eta beraz, batentzat onuragarria izan daitekeena, modu batera edo bestera, positiboa izango dela gainerako erronkentzat.

Hasteko eta behin, unibertsaltasunaren erronkari buruz hitz egin dugunean, objektuaren definizio ezaz mintzatu gara. Bada, planteamendu komunitarioek objektu espezifiko bati buruz hitz egiten lagundu diezagukete. Fantovaren (2017) hitzetan, lotura komunitarioak, bere horretan, gizarte-zerbitzuen objektu gisa definitu daitezke. Horrela eginez gero,

³⁷ Governantza elkarlanean oinarritutako gobernu modu kolaboratiboari deitzen diogu, non, erakunde publikoek, erantzun guztiak ez dituztela onartu ondoren, beste eragile batzuekin ikasten eta ekiten duten (Brugué, 2022).

hondar sisteman oinarritutako asistentzialismoa atzean uzteko zein sistema unibertsal bilakatzeko prozesuari ekarpen eskerga egingo zaiola aipatzen du.

Lan komunitarioa komunitatearekin batera (auzo mugimenduak, gizarte mugimenduak, hirugarren sektoreko elkarteak, taldeak, etab.) egiten den lana izanik, herritar guztiei erantzuten dien esku-hartzea da, egoera soziala edo pertsonala edozein dela ere. Beraz, ez die bakarrik gizarteko pertsonarik ahulenei, gizarte premia handienak dituztenei edo gizarte klase baxuenetan daudenei erantzuten. Lurralde jakin bateko gizarte ehunarekin eta haren baliabideekin lan egiten da eta, funtsean, harreman klabea egiten da. Halaxe, gainera, konplexutasunak zeharkatutako gizarte egoerei erantzun osoago, proaktiboago eta sustatzaileagoa eman dakieke. Pertsonok bizitza zikloko momentu ezberdinetan izan ditzakegun beharrak kontuan hartu eta gizarte-zerbitzuetatik momentu horietan ondoan egon ahal izango ginateke. Erlazionalean oinarritutako akonpainamenduaren bidez, jendearen ondoan egoera larriak eman aurretik egon ahal izango gara, eta egoerak larritu zein ematea ekidin ahal izango da, bide batez, oraingo logika irauliz. Horrela, gizarte osora iristea lortuko lukete, bizitza zikloaren osotasunaren klabea eta unibertsaltasunaren printzipioa egikaritze bidean.

Zentzu horretan, dimentsio komunitarioaren garapenaren bidez, egun gizarte-zerbitzuen objektuaren zehaztasun ezak dakarren zulo beltza³⁸ edukiz bete dezaketen programa sorta sortu, indartu, artikulatu edo dinamizatu daitezke.

“La intervención social cada vez más preventiva, personalizada, comunitaria, integrada vertical y horizontalmente, es capaz de conectar con una mayor diversidad y complejidad de agentes y entornos. Es como si las estudiosas y profesionales que se encontraron con las personas en situaciones en las cuales aparecían etiquetadas, consideradas clasificadas y tratadas sólo como miembros de un colectivo especial, fueran invitadas a ir, metafóricamente, aguas arriba, en busca de situaciones anteriores (o posteriores) de dichas personas en las cuales fueran miradas, encontradas, evaluadas y atendidas como personas con diversas dimensiones y relaciones, como miembros de una comunidad, como ciudadanas con capacidades y poder.” (Fantova, 2019d)

Gizarte-zerbitzuek duten hondar sistemaren itxura irauli eta unibertsaltasunaren bidean urrats praktikoak emateko ezinbestekoa da dimentsio komunitarioa garatzea, izan ere, gizarte-zerbitzuen ikuspegi parte-hartzailea, prebentiboa eta promozionala komunitarioan sakontzearen bidetik etorriko dira. Denboran iraun dezaketen eta jasangarriak izango diren gizarte-zerbitzuak izateko eta baita ongizate estatuaren baitan beren funtzioa

³⁸ Fantovak gizarte-zerbitzuei buruz hitz egitean sarri erabiltzen duen adiera.

betetzeko ere ezinbestekoa da. Gainera, komunitateak ez du inongo ardurarik, betiere printzipioz eta teorikoki, pertsonen oinarrizko beharrianak asetzeko (Fantova, 2020b), eta ondorioz, beste logika batzuetan jarri dezake gizarte-zerbitzuen estruktura bera, oinarrizko beharrianetatik aurrera dauden beharrian sozialen logikan, alegia. Erakundearentzako, gure kasuan gizarte-zerbitzuentzako, herritarrekiko dagoen botere harremanarekin amaitzeko aukera ekarriko luke, boterea herritarrari eman edo gutxienez herritarrekin partekatuz, herritartasun oso, osasuntsu eta konplexuagoak sortzen lagunduko luke (Rodriguez, 2015). Ideia horrek guztiak, hurrengo erronketako bati ere aurre egin diezaioke, inertzia asistentzialistarekin amaitzekoari, alegia. Finean, planteamendu komunitarioa prebentzioan eta proaktibitatean oinarritutako lana hazteko baliagarria da, zehazki, baliabide teknikoek zein esku-hartze sozialaren indar eta ahalmenean sinistuta egin beharrekoa.

Berriki aipatutakoak, esan bezala, ezinbestean ekarriko luke arreta eredu baten aldaketa, edo gutxienez, egungo arreta ereduaren osatzea, gizarte-zerbitzuetan nagusiki egiten den praxi profesionalaren ikuspegia aldatuz. Alde batetik, gaur egun gizarte-zerbitzuetan eskera-baliabide binomioan oinarrituta egiten den lanaren kutsu asistentzialistarekin amaitze bidean aurrera egiten lagunduko luke. Aldi berean, dimentsio komunitarioari eskaintzen zaion denbora urria haziko litzateke, egiten den banakako eta familiako lanaren baitan ere noranzko komunitario hori bermatuko litzatekeelako. Dakigun moduan, esku-hartze eredu indibidual familiarak, era soilean eginez gero, asistentzialismoa eta binomioa sustatzen laguntzen baitu. Dimentsio komunitarioaren aldeko apustuarekin, gizarte gaien dimentsio kolektiboa berreskuratzea lortzen da, ekintza kolektiboan sakonduz eta interes orokorrari, gutxienez, norbanakoen interesei besteko balioa emanez. Hori guztia, oinarrian, nagusiki prebentzio lana da eta pertsonen eta komunitateak berak jadanik propio dituzten gaitasunak sustatzean datza. Pertsonen bizi zikloan zehar, bakoitzarengan modu ezberdinetan gerta daitezkeen zailtasun eta gizarte premia egoerei erantzuteko, sareak eta harremanak suspertzea da gakoa, edo gutxienez, gure jardun profesionala klabe horretan ere pentsatzea. Pertsonak arrisku eta egoera sozial jakin batzuen aurrean hornituta zein prestatuta egon daitezzen pertsona, talde eta komunitate bakoitzak dagoeneko dituen babes faktoreak sustatu behar baitira (DDS, 2022).

Dimentsio komunitarioak fokatze proaktiboa dauka, eta gizarte-ekintza, kasu honetan praxia, promoziora eta sustapen lanera bideratzen du, betiere, baliabideen kudeaketaren

printzipioaren gaintik pertsonarekiko eta komunitatearekiko errespetua jartzen dituelako (Complutense, 2021). Horrela, politika publiko zein estrategia goranahikoagoak lortuko genituzke, lehentxeago hitz egin dugun lotura aberatsen bilbadura komunitarioa babestu, indartu, sustatu eta kasu batzuetan birsortzeko ere (Fantova, 2020c).

Gizarte-zerbitzuek prestazio ekonomikoen eta beste zenbait zerbitzuren bidez, modu indibidual eta erreaktiboan soilik erantzun beharrean, dimentsio komunitarioaren osagarritasunarekin eginez gero, norabide berriei begira jarri daitezke. Zaintzaren hornitzaile izan daitezke eta gainera, bizitza autonomo baina interdependentea bizitzeko ditugun gaitasun indibidual zein komunitarioen osagarri modura hartu daitekeen babes, sustapen eta zaintzara zuzendutako jardun profesionala ekar dezake. Baliabidearen logikak eta horrek dakarren burokratizazioak, esku-hartze sozialaren erdigunea zerbitzuetan zentralizatu du, pertsonengan baino lehen eta botere guztia jartzen du gizarte-langilearengan, honek diskrezionalki erabakitzen baitu sarritan, jendea berauen onuradun izateko nahikoa pobrea den ala ez (Navarro, 2022). Gaur egun, gizarte-zerbitzuek sustapen komunitarioa eskatzen dute, horrela bakarrik lortu baitaiteke pertsona guztien gaitasunak identifikatu, sustatu eta eguneratzea. Era berean, hurbiltasunaren begiradan jartzen da arreta, jarrera profesionaletatik abiatuta. Jarrera horiek aukera ematen baitute zaurgarriagoak diren eta erakundeetatik urrun dauden herritarretara hurbiltzeko, harremanetan jartzeko eta loturak izateko (Ramos, 2016).

“Superar el acto profesional individual que nos resuena tras las propuestas que hablan de prescripción como si se tratase de recetar una prestación, sólo será posible si superando la visión tutelar del otro se crean espacios de intervención grupal y comunitario. (...) Es en la intervención con grupos para desarrollar proyectos comunitarios donde se puede encontrar nuestro espacio de creatividad, porque en él podemos trabajar con las otras personas que desean crecer y desarrollar su vida en fraternidad, en amistad, con solidaridad y gozo por vivir, a la vez que pueden hacer proyectos de mejora en los barrios donde transcurren sus vidas. Es una contestación crítica al trabajo social de casos al que vienen sometidas muchas trabajadora sociales (Zamanillo eta Nogués, 8-9. or)”.

Azken erronka nagusia gizarte-zerbitzuen inguruan dagoen legitimazio faltarena da. Kasu honetan ere, goragoko lerroetan aipatu berri ditugunen ondorioz, dimentsio komunitarioa sustatzeak, eragin positiboa izan dezake. Gizarte-zerbitzuek duten estigmari buruz hitz egiten da sarri, teorikoki horrela ez bada ere, praktikotasunean, batez ere, ezaugarri jakinak dituzten pertsonekin egiten baita lan. Lantzen ari garen norabide aldaketa honekin berriz, edozein herritarrekin egingo genuke lan eta edozein herritarrek izango luke gizarte-zerbitzuekin hartu emanean aritzeko parada, bere ezaugarri sozial, ekonomiko,

etniko etab. edozelakoak izanda ere. Gertutasun horrek, hartu emanak edo elkarlanak, lerro hauetan jaso ditugun beste gauza positibo askoz gain, bide batez, gizarte-zerbitzuekiko dagoen iruditegi kolektiboa eraldatzea ekarri dezake (Santás, 2022). Laburbilduz, komunitarioaren bidez, unibertsaltasunean sakontzen da, eta ondorioz, herritar gehiagorengana heldu. Herritarrek gizarte-zerbitzuak beren azaletan bizitzen dituztenean (zerbitzuren bat erabiltzean, ekintzaren baten parte-hartzean edo baliabideren batera gerturatzean) edo parte direla sentitzean, (herritar antolatu edo antolatu gabeko gisa komunitarioaren sakontzea ahalbidetuko duen artikulazioen baten parte izatean) honekiko duten ikuspegia aldatu dezakete eta ideia hori, gutxika gizartean zabaltzen eta hedatzen joan daiteke, orain dagoen iruditegia irauliz.

Ildo beretik, Fantovak (2022) gogorarazten digu herritarrek eska ditzaketan eskubideak eta onurak zehaztasunez operatibizatzeak zein gure jardueren ezinbesteko izaera komunitario, unibertsal, prebentziozko, interseksional, sektore arteko eta zeharkakoak, beren komunitatearekin eta lurraldearekin lankidetzan arituko diren eta zerbitzu publikoekin pozik eta harro sentituko diren auzotarrak lortzen lagundu dakigukeela.

Aurreko orrialdeetan, ikusi dugu nola erantzun dakiekeen gizarte-zerbitzuek dituzten erronkei, hauen birpentsatze horretan klabe komunitarioetan sakonduz gero edo gutxienez, klabe komunitarioetan sakontzeak gizarte-zerbitzuentzat gatazkek dakarten ondorio negatiboak lausotu daitezkeen.

Komunitarioak gizarte-zerbitzuen hobekuntzan eskaini dezakeenaren errepassoa egin eta gero, gizarte-zerbitzuetako misiori ere ekarpen zehatzak egiten dizkiola esango genuke, zehazki hurrengoetan laburbildu daitezke (DDS, 2022):

- *Pertsonak bere testuinguruan duen inplikazioa aktiboa eta inguruarekin duen lotura sustatzea:* elkarrekikotasun loturak erresilientzia gaitasuna handitu zein zaugarritasuna bizitzeko aukerak gutxitzen baditu, gizarte-zerbitzuen konektore rola, lotura horiek sortzearen bidez, sustatu dezake. Inguruarekin harremantzeak eta dauden eremuetan parte-hartzeak pertsona baten sarea handitu dezake eta askotarikoagoa bihurtu.
- *Pertsonaren ahalduntzea sustatu:* pertsonen autonomia handitzen du, testuinguruak aldatu eta hobetzeko pertsonaren gaitasunetan zentratuz. Lehengo pausua da ahalduntze komunitarioarentzat eta pertsonaren eraldaketa eta sustapena dakar. Ahalduntzea ezin da ulertu kolektibotasunik gabe eta ondorioz,

pertsonen kontzientzia kritikoa eta dimentsio kolektibo zein politikoen kontzientzia hartzea sustatu behar dira.

- *Parte-hartzerako gaitasun eta abileziak garatzea:* Herritartasuna sortzen du, pertsonen garapenerako ezinbestekoa dena eta politika publikoetan eragin daitekeela erakutsi. Horretarako, espazio irisgarri eta seguruak sortzen dira eta partaidetza komunitarioa areagotzen da. Ondorioz, etorkizun batean, espazio formalagoetan ere parte-hartzea erraztu daiteke.
- *Akonpainamendu kolektiboetan elkar babes eta kooperazio harremanak sustatzea:* gizarte-zerbitzuek egunerokotasunean egiten dituzten lanetan, lurralde jakin bateko beharrian komunak zein askotarikoak dituztenen eta antolatutako pertsonen arteko konexioak sustatu ditzake komunitarioaren bidez. Era isolatuan gizarte-zerbitzuetara bertaratzen diren pertsonak saretu eta gizarte ehunarekin harremandu. Ekiteko gaitasuna sortzen da, izan ere, zailtasun komunek elkartasuna eta kontzientziazioa areagotzen dituzte eta etorkizun bateko antolakuntza kolektiboa erraztu dezakete.
- *Antolakuntza ahalduntze prozesuen akonpainamendua:* Kanpo zein barne ikuspegiz egiten laguntzen du komunitarioak. Barne mailan, prozesuan arreta jartzen laguntzen du, kideen zaintzan eta pertsonen garapenean zentratuz. Kanpo mailan ordea, testuinguruan eragiteko gaitasuna ezagutzaren, kontzientziazioaren eta erreminten bidez lortzea. Horrela, lurraldean dagoen ehun soziala ezagutu eta loturak egin behar dira, ikusezinak diren errealitateak bultzatuz eta indartuz, ahalduntze komunitarioaren bidean.
- *Komunitateen erresilientzia gaitasuna eta elkar babesa sustatu:* Pertsonak bizitza zikloan dituzten zailtasun egoerei aurre egin eta ongizatea bermatzeko gizarte babesak duen garrantziaz jabetuta pertsona, talde zein komunitateek dituzten baliabideetan zentratzen diren erantzunak bilatzen dira. Gizarte-zerbitzuek beraz, komunitatea bera baliabidetzat dute akonpainamenduetan. Babesa bilatu, sortu edo sustatzeko estrategietan komunitatearekin harremanetan jartzen da, bai babes natural, formal edo informalaekin. Horrela, pertsona babestu daiteke, egoera zailenetan ere bere testuinguruan mantendu eta honekin batera egoerak eraldatzeko.

- *Aniztasunarekiko inklusiboak eta sentsibleak izango diren lurraldeak eraiki:* Gizarte-zerbitzuek komunitateetan ere eragin behar dute, egon daitezkeen egoera baztertzailerekin bukatzeko. Komunitatea bazterketa eragiten duten kausak iraultzeko subjektua bada, gizarte-zerbitzuek ehun sozialarekin lan egin behar du hau sentsibilizatu eta zaugarritasun eta bazterkeria egoerek sortzen dituzten erronken ardura ehunari ere eman.
- *Profesionalek elkarrekin ekintza estrategiak sortzea:* Gizarte-zerbitzuek beste sistema eta zerbitzuetako profesional batzuekin batera lan egiten dute eta hor ere, komunitarioa txertatzeak logika aldatu dezake. Tokiko zailtasuna, zaugarritasun edo bazterketa egoeren aurrean, dauden baliabideekin ekintza edo estrategia komun eta kolektiboak sortzea, alegia. Etorkizunean, antolaketa eta lan eredu berriak ekar ditzake.
- *Ahalduntze komunitariorako baldintzak sortu:* Beren misioari erantzuteko, gizarte-zerbitzuek sare komunitario sendoa behar dute, eta sare horri hainbat mailatan lagun diezaiokete: beren ezagutza emanaz eta kontzientzia sortuz, gizarte zaugarritasuna eta errealitate ikusezinak ezagutarazteko aukera emango duten diagnosi komunitarioko prozesuetan; sare bat sustatuz; kalteberatasun handieneko pertsonak komunitatean parte har dezaten lagunduz edo ekintza kolektiboa erraztuz.
- *Ekipoen gaitasun hausnarkorra eta estrategikoa sendotu:* Estrategia komunitarioan sakontzeak banakako eskariak maila anitzeko esku-hartzeetan itzultzea dakar, dinamika errektibotik urrundu eta prebentibo zein komunitarioak sendotuz. Dimentsio analitikoa eta kritikoa bereganatzen laguntzen du, sistematizaziotik ezagutza sortuz. Eskubide sozialen ikuspegitik lan egitearen bidez, ezberdintasuna sortzen duten egoerekiko zein bestelako gizarte egoerekiko ikuspegi kritikoa sustatzen da. Horrela, gizarte-zerbitzuen tokiko talde bakoitzak bere lurraldean duen edo izan nahiko lukeen presentzia eta inplikazioa definitu ditzake

Errepaso honekin, ikus dezakegu, dimentsio komunitarioan sakontzeak badituela eragin positiboak gizarte-zerbitzuentzat. Are gehiago, esan dezakegu, aditu eta profesionalak dioten bezala, gizarte-zerbitzuen etorkizuna bermatu nahi badugu, bide egokia dela komunitarioaren aldeko apustua. Betiere, hau lan egiteko modu bat bezala hartuz eta ez

ordea, orain egiten den eta, egoeraren konplexutasunagatik, hain beharrezkoa den inongo beste lanen ordezeko.

Hala ere, horrela adierazita, badirudi dimentsio komunitarioa panazea dela, gizarte-zerbitzuek dituzten erronkak magia balitz bezala gainditzen lagunduko lukeela, baina ez, ez da horrela. Dimentsio komunitarioak, eguzkiak jotzen duen edozein lekuren legez, gerizpeak ditu eta iluntasunak ere bai. Alderdi positibo asko dituen arren, zailtasun eta arriskuak ere baditu eta horien inguruan hausnartzea ezinbestekoa da, apustu zuzena eta egokia egin nahi badugu.

Lehenik eta behin, lurraldearekin egon daitezkeen gorabeherak garrantzitsuak dira. Komunitatea aurrez aipatu bezala, balore kolektiboei, identitate jakin bati eta lotura zein sare bati lotua egon daiteke, eta hori bera, administratiboki banatuta dauden bi lurralde unitateen artean sortu daiteke, izan bi herrien artean, bi auzoetako zati batzuk eta abar. Beste era batera esanda, komunitate bezala izendatzen den eremu batek eta eremu administratiboak ez dute ezertan bat etorri behar. Banaketa administratiboek alegia, ez diete beti errealitate komunitarioei erantzuten, eta batzuetan gainera, hainbat erakundek, komunitatea bera ere gainditu ditzakete, erakundeen arteko elkarlana zailduz. Azkenik, zerbitzuak, elkarteak edo erakundeak konpartitzen dituen auzo edo lurraldean, errealitate ezberdin ugari egon daiteke, baita komunitate bat baino gehiago ere.

Aipatutakoaz gain, dimentsio komunitarioen aldeko aldarriek, batez ere gizarte-langileon artean, duten arriskutsuenetakoa komunitarioa erromantizatzeko daukagun joera eta abilezia da. Gizarte-langintza kritikoaren eredutik gogor egiten da banakako eta familiako ereduaren aurka, gizarte-langintza kritikoaren ikuspegitik egin ezingo balitz bezala. Joera horretan, badirudi, komunitarioa dela gizarte-langintza kritikoaren giltza eta gainerako gizarte-langintza ez dela eredu kritiko horretan sartzen, tradizional eta kontserbadorean baizik (E.5 Aditua). Hala ere, argi izan behar dugu ez dela horrela, bi kasuetan egon daitezkeela praxi askatzaileak edo kontrara, botere harreman eta mendekotasunean oinarritutakoak. Komunitarioa egitearren beraz, ez du esan nahi, eredu kritiko baten oinarritutako lana egiten ari garenik. Horrenbestez, gure komunitarioaren aldeko apustua, dikotomia horiek gainditzetik dator, egiten den lana egiten den eran eginda ere, komunitarioak eskaintzen dizkigun erreminta eta hausnarketetan pentsatuta egitea (E.4 Aditua).

Horretaz bereiz, dimentsio komunitarioan sakontzerakoan, kontuan izan behar da komunitatea edo tokian tokiko gizarte antolatua ez dela sekula administrazio publikoak, eta gure kasuan, gizarte-zerbitzuek pertsonen eskubideak bermatu daitezkeen duen ardura eta eginbeharraren ordezkari. Neoliberalismoaren eraginagatik, sarri, administrazioak bizi dituen murrizketen testuinguruetan, estatuaren arduragabetze prozesu bat ematen da, eta zaintzaren, babesaren ardurak komunitatearen edo familiengan jartzen dira. Nabarmenagoa da hori mediterranean kutsuko gizarte-zerbitzu ereduetan, eta oso kontuan izan beharreko arriskua da. Komunitatea eta gizarte-zerbitzuen arteko harremana egon behar bada ere, ezin du batak bestea sekula ordezkatu (E.6 Aditua). Zentzu horretan, gizarte-zerbitzuen sorreraren arrazoietakoa bat, sekula baino garbiago edukitzea ezinbestekoa da: “Los servicios sociales nacieron (...) creando recursos sociales para que los problemas sociales, que eran atendidos por las familias, fueran socializados y se convirtieran en responsabilidad pública y colectiva” (Hernandez-Echegaray, 2019, 138. or).

Komunitatearen kapituluan honen inguruan hitz egin bagenuen ere, komunitatea bera, kontzeptu eta fenomeno gisara idealizatzea ere arriskutsua da. Komunitateetan, nahiz eta oso aurreratu eta aberatsak izan, gizartean erreproduzitzen diren patrioiak islatzen dira, besteak beste: patriarkatuaren arauak, indarkeriak, individualismoak, tratu txarrak, aniztasunaren aurkako praktikak, ezberdintasunak, kontrol soziala, arrazakeriak etab. Komunitatea hauskorra da, eta gure gizartea bezala, kontraesanak eta gatazkak bete ere badago. Hori iraultzeko beste klabe batzuk erabiliz birpentsatu beharko dugu, besteak beste, aniztasuna, kooperazioa edo ekitatea (Fantova, 2019b.). Dimentsio komunitarioarekin lan egitean beraz, kontuan hartu eta hasieratik identifikatu ezean, lagundu baino kaltetu egin diezaguketuen ekintza edo jarrerak eman daitezke: “Tener una visión esencialista de la comunidad y dotarla de una entidad ética superior representa, en nuestra opinión, un claro error, ya que la comunidad puede ser tanto buena como mala” (Zuñiga, 2020, 204. or).

Gizarte esku-hartzeetan pertsona baten bizitza bere komunitatearen baitan ulertzen dugunean, pertsonak horretarako jarrera positiboa izan behar duela aurreuposatzen dugu, bere arazoak kolektibizatzeko prest dagoela pentsatzen dugu, eta tokian tokiko bilbadura horren parte izan nahi duela asumitzen dugu. Baina, kontuz ibiltzea garrantzitsua da, izan ere, komunitatetik atera izan den pertsona bat izan daiteke (gizarte-zerbitzuek ateratakoa), komunitatearen baitan esperientzia negatiboak bizi izan dituen pertsona izan daiteke

(komunitatean sarri espazio itxiak, zurrinak eta ez irisgarriak bilakatzen baitira) edo dena delako arrazoiagatik, ikuspegi negatiboa izan dezake. Hori horrela izanda, ezin dugu inor prozesu komunitarioen parte izaten behartu. Horrenbestez, gure lana kontu handiz eginda, horrek izan ditzakeen onura pertsonak zein kolektiboak ezagutaraztetik abiatu daiteke.

Azkenik, komunitarioaren erritmoak erakunde publikoenen ezberdinak diren beste erritmo batzuk dira. Komunitatea, finean, su txikian egosten den zerbait da (Fantova, 2020c). Komunitarioaren logikek, merkatuaren eta produktibitatearen logikak gainditzen dituzte orokorrean, eta horrek talka egin ohi du elkarlanean aritzerakoan. Prozesuan dago gakoa, egunerokotasunean josten den sare handi, baina aldi berean txiki horretan, eta ez du ez epe, ezta denbora muga jakinik ere. Administrazioetik dimentsio komunitarioarekin lan egin gura dugunean, eta batez ere, artikulazioan lan egin nahi dugunean, erritmo ezberdinak onartu behar dira, eta horrekin lan egiten ikasi. Bateriaezintasunak saihestu eta osagarritasunak bilatu behar zaizkio ziurtasunez agertuko den koska horri, su txikian egosten baitira konfiantza, elkarlana, ezagutza, eta horrenbestez, egunerokotasuna.

Zailtasunak zailtasun, gizarte-zerbitzuei egin dakiekeen ekarpenaz jabeturik, dimentsio komunitarioa indartzeko apustua egitearen garrantzia berresten dugu:

“Las respuestas vecinales (ante el Covid-19) ponen de manifiesto la necesidad de recuperar algunas de las vinculaciones personales y familiares que habían sido sustituidas por relaciones mercantiles e impersonales y profesionales. Los servicios sociales representan un escenario magnífico para poder vincular todas las aportaciones de la comunidad en la que se desarrolla la acción social que tienen encomendados” (Zamanillo y Nogués, 2020, 6. or).

4.1.2. KOMUNITARIOAREN EGUNGO PROPOSAMENAK

Komunitarioaz hitz egitea gertutasunaz hitz egitea da, tokian tokikoaz mintzatzea, lurraldeko baliabideak dira komunitatea, jendea, eragile ezberdinak, elkar loturak, interdependentziak, harremanak eta babesa. Hori nahitaez gertutasunean ematen da. Herritarren eta gai publikoen arteko gertutasuna ezinbesteko oinarria da tokiko erabaki publikoetan herritarren parte-hartzea sustatzeko, eta hori nonbait gertatzen bada, tokiko erakundeen baitan gertatzen da (Castel, 2010). Prat eta Simók gogorarazten digute komunitarioaren baitan, “la localidad, la calle, el barrio geográfico ocuparán un lugar central, al entender que el espacio urbano es producto de sus relaciones sociales” (2022, 97. or).

Tokikoaren garrantzian sakonduz, gogorazi behar da ez dela herritartasun osorik egongo herritarrek ezin badute beren beharrezkoen detekzioan zein asebetetzea lortzeko prozesuan parte-hartu. Hori gerta dadin, prozesua eguneroko bizitzaren esferan hasi eta garatzen da, eta bertatik heltzen da unibertsalera, aldi berean, pertsonak eta komunitatea ahaldundu, emantzipatu eta aberastuz (Harvey, 2003).

“Es preciso reconocer que el contexto local/municipal proporciona un ámbito privilegiado para revitalizar la participación y la democracia, ya que es el ente más descentralizado, cercano. (...) Es, por tanto, un enfoque de cercanía, desde donde lo municipal puede ejercer mayores desarrollos de dinamización de lo comunitario” (Santás, 2022, 5. or).

Gure kasuan, tokian toki garatzen diren gizarte-zerbitzuen esparrua, oinarrizko gizarte-zerbitzuak dira, udalerrietan edo hirien kasuan auzoetan kokatzen direnak. Aurrez ikusi dugun bezala, horiek daukate bertako idiosinkrasiaren arabera antolatu eta ekiteko betebeharra, ondorioz, esparru egokiena izan daiteke dimentsio komunitarioa indartzeko.

“Las instituciones locales son hoy y aquí un terreno de juego (o campo de batalla) fundamental entre élites (u otras capas sociales) extractivas que quieren valerse del derecho y la autoridad para rematar la faena de polarización social, la segregación urbana y la privatización de los recursos y activos comunes, por una parte, y, por otra, movimientos y agentes muy diversos (muchas veces desarticulados) que, dentro y fuera de las estructuras administrativas, cooperan en la construcción de capacidades compartidas, relato emancipatorio y estructuras de la comunidad” (Fantova, 2022-3-30a).

Sarritan esan dugu lanean zehar oinarrizko gizarte-zerbitzua dela herritarrengandik gertuen dagoen erakundea, beraz, hurbiltasun handiena duena, eta gainera, gizarte-zerbitzuetarako sarbidea ere bada. Horren guztiaren ondorioz, behatoki pribilegiatua dira bai behatzeko, ezagutzeko eta ikertzeko; bai banakako eta antolatutako herritarrekin batera lan egiteko; eta baita, presio herritarra, soziala zein politikoa egiteko ere. Bestalde, lehen mailako arretak dituen printzipioak komunitatearekin bat datozen printzipioak direla esan daiteke, izan ere, gizarte-zerbitzuen unibertsaltasuna; eskubide subjektiboa; berdintasuna eta ekitatea; bizitza zikloaren perspektiboa izatea; prebentzioa eta promozioa baitira (Buesa, 2020)³⁹. Aipatutako fundamentuak gizarte-zerbitzuetako edozein mailatan egikaritu behar badira ere, lehen mailako arretak egiten ditu edo egin ditzake nagusiki, esan bezala, komunitarioa lantzeko eremu baliotsua baitira. Buesak (2020) ere, halaxe nabarmentzen du: “gure praktika profesionalaren dimentsio

³⁹ Sara Buesak orduan Gasteizko Udaleko Gizarte Politiketako saileko arduradunak, 2019-2020. ikasturtean, UPV/EHUK eskainitako Gizarte-Zerbitzuen Berrikuntza eta Kudeaketako graduondokkoaren saioan esana. Gasteizen, 2020ko urtarrilak 7.

erlazionalak garrantzi berezia du. (...) Esku-hartze sozio-hezitzaile eta psikosozialak, eta parte-hartzearen eta inklusioaren suspertzea, pertsonak eguneroko bizitzan zehar era autonomoan moldatu daitezzen eta maila familiar eta komunitarioan integrazioa erlazionala errazteko ezinbestekoak dira”. Esaterako, Kataluniako Plan estrategikoan ere adierazten da eta dokumentuaren ardatzetako batean honela jasotzen da: “buscar el encaje del trabajo social comunitario dentro de la red social de atención primaria (Departament de, Treball, Afers Socials i Famílies, 2021, 34. or).

Velascok (2018) gogorarazten digu oinarritzko gizarte-zerbitzuak direla arlo komunitarioa garatzeko ardatza. Honako alderdi hauek medio:

- Esku-hartze sozialaren baliabide komunitario propioa dira.
- Herritarrengandik hurbilen dagoen gizarte baliabidea da.
- Komunitatean esku-hartzen duten eragileen koordinazioa erraztu dezakete.
- Ezarrita dauden lurraldeetako eragile ezberdinen antolaketa erraztu dezakete.

Oro har, adierazi behar da komunitatearen kohesioaren elementu garrantzitsuenetako bat izan daitezkeela eta izan beharko luketela eta, horregatik, edozein proiektu komunitariok, arrakasta izan dezan, uneoro eduki behar dituela presente oinarritzko edo komunitateko gizarte zerbitzuak.

“Lo comunitario, se puede desarrollar desde diferentes entidades y agentes, pero sin duda son los servicios sociales comunitarios o de base los que de una u otra manera van a estar o deben estar presentes en toda propuesta comunitaria que se quiera realizar con rigor, dado que constituyen el cauce institucional propio del desarrollo comunitario” (58. or).

Ildo beretik, Santásek gizarte-zerbitzuen sistemaren osotasunean dimentsio komunitarioa helburua izan behar dela onartzen badu ere, honakoa aipatzen du dimentsio komunitarioaren inguruan:

“Este mandato es especialmente relevante en el caso de los servicios sociales de primer nivel (conocidos como generales, comunitarios, de base o de atención primaria) haciendo preciso establecer planes comunitarios liderados por los servicios sociales con la participación de otros agentes comunitarios, de la misma y otras administraciones, como la iniciativa social y el tercer sector y no solo acotados en aquellos barrios desfavorecidos, sino de manera general” (2022, 5. or).

Dimentsio komunitarioaren sustapena emateko oinarritzko gizarte-zerbitzuak dira, beraz, adituen usteetan aproposak. Horren zalantzarik ez badago ere, gure gizarte-zerbitzuen

ereduan kokatzen diren planteamendu komunitario zehatzetan sakondu nahi izanez gero, konturatuko gara ez dagoela zehaztasun osoz, eskuliburu gisara, sortutako ezer. Hainbat dira gai hauen inguruan mintzo diren adituak, eta ekarpen interesgarriak egin izan dituzte, besteak beste, hausnarketak, gakoak edo landuagoak izan daitezkeen proposamenak ere. Hurrengo lerroetan, horietako batzuk jasoko ditugu, ikuspegi ezberdinetatik egindako proposamenak diren arren, gure ikerketarako esanguratsuak izan daitezkeela deritzogulako. Planteamendu teorikoenetatik-epistemologikoenetatik konkretuagoetara joango gara.

Esaterako, gizarte-zerbitzuetan eta bereziki alor komunitarioan aditua den Fantovaren iritziz (2021a), ekintza komunitarioa herritarrak eta tokiko erakundeak inplikatur, komunitate aktibo, inklusibo eta solidarioaren eraikuntza da, pertsonen askatasun eta eskubideak bermatuko dituena. Hori horrela izanik, parte-hartzailea, elkarlanean oinarritua eta eraldatzailea behar du izan. Parte-hartzailea izan behar da, pertsonen aktibazioa zein eragina behar dituelako eta bidez batez, gainera, hauen ahalduntzea sustatu behar duelako. Elkarlanean oinarritua da tokiko erakunde publiko eta gizarte zibil autoantolatua eskuz esku lanean jartzen dituelako. Azkenik, berriz, eraldatzailea da, pertsonen testuinguruan, gizarte egituretan eta arau juridikoetan aldaketa estrukturalak bilatu nahi dituelako. Horrenbestez, hiru bektore nagusitan hedatzen da. Lehenik eta behin, prebentzio eta promozio komunitarioan: herritarrei zuzendutako difusio, formazio edo sentsibilizazio ekintzen bitartez. Bigarrenik, parte-hartzearen sustapenean: tokiko herritarren onurarako eta ongizatera zuzendutako gizarte-antolakuntza azpiegitura, diru laguntza, hitzarmen edo besterik gabe, errekonozimenduaren bitartez sustatuta. Hirugarrenik eta amaitzeko parekidetasuna eta aniztasunaren bidean behar den eragin transbertsalean: mekanismo, mahai, foro, gobernantza sare, protokolo edo inizatiba ezberdinen bidez. Orokorra da lehen hurbilpen hau, baina hiru bektoreen ekarpena, interesgarria da edozein planteamendurentzat.

Lehen planteamendu orokorra eta gero, erreminta metodologikoekin zerikusia duen planteamenduren bat jasotzea ezinbestekoa ikusi dugu. Horregatik, gizarte-langileak zein teknika eta zeri erreparatuta hautatu behar dituen jasotzen duen proposamena aztertu dugu. Auzoetan egindako ikerketa bitartez sortutako proposamena da Prat eta Simók (2022) aurkezten dutena. Gizarte-langile batek lurraldean egindako proiektu profesional batetik ondorioztatutakoak biltzen dituzte; erabilitako metodologia, teknika eta estrategien inguruan hausnartuz ondorioztatutakoak, alegia. Proiektuan, IEPa, herri

hezkuntza eta beste metodologia kolaboratibo batzuk erabiltzen dira, eta mapeo kolektiboa, inkesta parte-hartzailea, zirkulu hausnarkorrak etab. bezalako teknikak. Egileen iritziz, tokian toki, helburuen, taldeen ezaugarrien, parte-hartzeko erabilitako edo hartutako lekuaren eta beste hainbat faktoreen arabera aldatu daitezkeen teknikak dira, baina edonola ere, gizarte-langileak dimentsio politikoa, soziala eta hezkuntza dimentsioaren intersekzio naturala bermatu behar ditu, lehenago aipatutako faktoreen arabera hautatutako tekniken bidez. Horretarako, lehenago gakoak gizarte-langilearen baitan dago, prozesuaren intenzionalitatearen inguruan hausnartzea eskatzen baitu, baldintzatzaile etiko-politikoak kontuan izanda. Errespetuan eta aniztasunean oinarritutako aplikazioak malguak behar du izan, garapenaren arabera doitzen joango dena. Tekniken hautua baldintzatuko duten dimentsio bakoitzaren baitan hurrengoak biltzen dituzte:

- *Hezkuntza dimentsioa:* Taldea eta kideak indartu behar dira, lan prozesuaren bitartez. Prozesu guztian zehar (pentsatu, planifikatu, ekin eta ebaluatu), balio erantsia eman behar zaie parte-hartzaileei, norberak bere potentzialtasunak identifikatu eta ekarpena non egin dezakeen erabakitzeke ezagutzak, adibidez. Horren bidez hiru ekarpen nagusi identifikatu dituzte: batetik, hausnarketan eta pentsamendu kritikoaren garapenean oinarritutako parte-hartzeko konpetentzien hobekuntza; bestetik, instrumentalagoak diren erreminten lorpena, eta azkenik, alderdi emozionala ireki eta ziurtasuna eskaintzen duen norbere subjektibotasunaren onarpena.
- *Dimentsio soziala:* Taldearen harreman oinarria kohesionatzea eta zabaltzean datza. Talde antolaketa kolektiboa babestuz, identifikatuz eta lidergo naturalen agerpena lagunduz, etorkizuneko autogestio kolektiboaren bidean egiten dena. Sarean hazteak auto antolakuntzarako dakarren ekarpenean oinarritutako bi gako aipatzen dituzte hemen ere. Batetik, lurraldean bizi diren, eta beraz, tokiko errealitateko parte diren beste pertsona batzuekin loturak jostea bermatzen du. Bestetik, espazio kolektiboen garrantzia azpimarratzen da, izan ere, beste pertsona batzuekin harremana egin eta esperientzia zein ikuspuntuak partekatzea ahalbidetzen dute.
- *Dimentsio politikoa:* Ulermen kritikoa sustatzea. Posizionatzea, ikusgarritasuna bermatzea eta eragin politiko handiagoa lortzea ahalbidetuko dien ezagutza

kokatua erraztea beren aldarrikapenak garatuz, betiere errealitatearen maila lokal eta globalekin lotuta.

Orokorrean gizarte-zerbitzuen eta, bereziki, oinarrizko gizarte-zerbitzuen eraldaketa planteatzen den testuinguru honetan zentratzen diren proposamenak ere badaude, oinarrizko gizarte-zerbitzuen testuinguruan, aurreko biak baino konketuagoak izan daitezkeenak. Marko horretan, Santásek (2022) hainbat puntu jasotzen dituen proposamena egiten du, iparrorratz bezala funtzionatu dezakeen proposamena, alegia.

Hasteko, gaiari lehenetasuna eta behar duen indarra emateaz mintzo da. Estatu espainiarrean gizarte-zerbitzuak ongintzaren markoa gainditzeko helburuarekin sortu zirela dio, aldiz, baliabide eta prestazioen etengabeko hazkundeak, lan komunitario eta prebentiboa bigarren planoan edo, are gehiago, etengabeko prokrastinazioan egotera eramán duela. Hala ere, kontraesankorra dirudien aren, ez da araudietatik edo egiten diren enkarguetatik desagertu, eta paperaren gainean soilik bada ere, hor jarraitzen du komunitarioak. Horren harira, gizarte-zerbitzuek komunitarioaren alorrean eskumena duten edo ez aztertzean, estatuan garatutako belaunaldi ezberdinetako legeek horrela jasotzen dutela baieztatzen du. Urteen poderioz komunitarioaren definizioa eraldatzen joan da, izan ere, hasiera batean planteatutako ikuspegia politizatuegia izateagatik, zerbait teknikoagoa izatera pasatu da, hots, garapen komunitariotik (kutsu politikoa) esku-hartze komunitarioa (kutsu teknikoa).

Nahiz eta hori guztia horrela izan, aurrez, marko teorikoaren atalean aipatutako ahuleziak direla medio, autoreak dio, gizarte-zerbitzuen sistemak, oinarrizko beharizanen asebetetzeko funtzioan zentratu direla, komunitarioaren kaltetan. Kontrara, proportzio berean, egun gizarte-zerbitzuak komunitarioa galtzen duela aipatzen du, gizartean erlazionalaren loratzea ematen ari dela, eta horren adibide garbiak direla beste zenbait alorretan egiten diren ekintza komunitarioak. Esaterako, hezkuntza, kultura edo osasuna aipatzen ditu, egun, beren araudietan komunitarioaren printzipioa txertatzen ere ari baitira. Ondorioz, komunitarioa gizarte-zerbitzuen eskumena dela onartzen du, baina ez era eksklusiboan, beste alor batzuekin elkarlanean baizik (Santás, 2022).

Ondoren, aurreko atalean aipatzen dugun bezala, autoreak egungo objektuaren inguruko proposamenek ere, gizarte-zerbitzuen objektutzat komunitarioa proposatzen dutela berresten du. Hala ere, gizarte-zerbitzuek izan duten garapenak publiko-pribatuaren arteko elkarlana sustatu duenez gero, tokian tokiko lanean edo, hobe esanda, lurralde jakin

bati loturiko lanean, sarri, hirugarren sektorearen presentzia nabarmenagoa izan da sektore publikoarena baino. Hori horrela izanda, zaildu egiten da publikoaren lidergo indibiduala, horregatik, sarean lan egitea da proposatzen duena. Covid-19aren pandemiak agerian utzi du tokian tokiko eragileen koordinazio falta, eta honen aurrean, gizarte-zerbitzuek gizarte-ekintzako eragileen koordinazioaren lidergoa hartu beharko luketela proposatzen da, bai beharizanen aurrean ekiteko eta baita gizarte problematiken lanketa oso eta efizienteagoa egiteko ere.

“Cobra mayor fuerza la necesidad de contar con un liderazgo comunitario de la acción social por parte de los servicios sociales locales. (...) La pandemia ha producido un shock en el que los servicios sociales han sentido la necesidad –y, a la vez, oportunidad– de reinventarse, y se han encontrado de bruces con, nuevamente el mandato comunitario para lo que estos deben conocer y reconocer el papel de los diferentes agentes, así como el dinamismo y flexibilidad que comporta el trabajo conjunto. (...) Los servicios sociales, competentes y oportunos para ello, deben organizar sus modelos de desarrollo en favor de la intervención social en un sentido amplio: individual-familiar, grupal y comunitaria, autoorganizando sus efectivos y dinámicas de manera que pueda desempeñar el mandato de la cobertura de necesidades individuales-familiares vinculadas con la autonomía, sin abandonar la otra para de su objeto: lo relacional” (4. or).

Honen guztiaren aurrean, eta gizarte-zerbitzuen birdefinizioaren bidean, objektua jomuga izanik, hauek dituzten markoak eta arautegiak ere bide horretan jartzea proposatzen du, bereziki oinarrizko gizarte-zerbitzuen kasuan.

Ekintza konkretuetan eta gizarte-zerbitzuen eguneroko funtzionamenduan praktika komunitarioak martxan jartzea ezinbestekotzat jotzen du. Elkarrekintza erraztuko duten espazioak sortzea garrantzitsua da, elkartu, bildu eta konektatzeko. Bere aburuz, herritarrei norbanakoeekin soilik lan egiten ez dela ikusten badute eta, are gehiago, hori praktikan jarritz gero, begirada kolektibo bat dagoela ikusiko dute. Besteak beste, erabilera anitzeko espazio komunitarioak jarri daitezke herritar antolatu zein herritar ororentzat, difusioak egin daitezke edo baita jardunaldi ezberdinak ere, horrela herritarrengan gizarte-zerbitzuen dimentsio komunitarioa ezagutzera emango da. Horretaz gain, taldeko esku-hartzea egiteko espazioak eraiki beharra aipatzen du: “La ciudadanía debe encontrar, también, en los servicios sociales, un lugar donde compartir y construir de manera colectiva (y con apoyo profesional) la solución a sus dificultades” (6. or). Azkenik, gizarte-zerbitzuek komunitatean bertan, auzoan edo herrian beren presentzia areagotzea ezinbesteko ikusten du. Horretarako, hainbat adibide gaineratzen ditu:

“Atender en sitios diferentes al habitual cuando las condiciones lo requieren, ofrecer sesiones informativas para entidades e instituciones del entorno o incluso la realización de visitas domiciliarias con una perspectiva territorial donde se visita a todo un vecindario y no sólo a aquel cuya situación debe valorarse” (7. or).

Dekalogoan jasotzen dituen proposamenekin bukatzeko, komunitate birtualei ere egiten die erreferentzia, izan ere, gaur egun komunitarioa ezin da soilik lurraldearekin lotu. Informazioaren garaian bizi garen honetan, berau nola kudeatzen den aztertzea garrantzitsua da. Gaur egun, komunikazio sareen bidezko interakzio, egituraketa eta antolaketa modu berriak daude, espazioaren eta denboraren kontzeptuak gainditzen dituztenak eta lurraldekakoak ez diren partaidetza sare asinkronoak sortzen dituzte. Sare horietan, birtualki, garapen teknologikoa bizi aurretik komunitate gisa ulertu genitzakeen elementuak identifikatzen dira, adibidez, parte-hartzen duen interes taldeetako edo gizarte sareetako kide izatearen sentimendua. Hala, bere lurraldeari buruz ia ezer jakin gabe, norbait komunitate bateko kide gisa identifikatu daiteke.

Gizarte-zerbitzuen helburua harremanena ere bada, kontuan hartu behar du teknologia berriak gai direla pertsonen harreman kapitala handitzeko, eta, desberdintasunak sortzen dituen arren, haien kontra ere erabil daitezkeela. Beraz, komunitatearekin lan egiteari buruz ari garenean, teknologia berrien erabilera sustatzeko edo horietan egoteko kanpainak egiteaz gain, parte-hartzea, integrazioa eta lankidetzaren inguruneak eraikitzea erraztu behar da, baita birtualean ere.

“ Es necesario poner en el centro a la persona y al entorno en el que ésta se relaciona de manera central, asumiendo que la interacción es la esencia de los mismos y elaborando planes de acción comunitaria en colaboración con los agentes y ciudadanía del territorio, físico y virtual. (...) Es necesario, tras las experiencias vividas, hacerlo desde el desarrollo de marcos normativos y modelos que permitan la consolidación de la intervención comunitaria para que no quede, como ya pasó, en algo efímero o localizado: formando parte del hardware de los servicios sociales y las comunidades en que se encuentran insertos” (78. or).

Gizarte-zerbitzuetako dimentsio komunitarioaren inguruko egungo hausnarketan artean ere, badaukagu Morín eta Blancok (2022) Marchioniren proposamenetan oinarrituta eta urteetan izan dituzten esperientzia ezberdinetatik eratorritako ezagutzaren bidez sortutako estrategia eta agertokiaren inguruko lana. Honako hau jasotzea garrantzitsua da, dimentsio komunitarioaren sakontasun ezberdinen inguruan mintzo delako, eta oinarri oinarrian, sakontasun ezberdinak emanda ere, dituzten puntu komunen inguruko hausnarketak jasotzen dituelako.

Hasteko hiru agertoki ezberdintzen dira, mikroenetik makroeneraino, zehazki, egunerokotasunean gehiago zentratzen denetik praktika integraletaraino. Ekimen komunitarioa da sailkapenean lehenengoa, hots, mikroena. Kasu honetan, epe motzeko ekintza konkretuei buruz mintzo dira. Gehienetan, beharrian, arazo edo egoera kolektibo jakin bati erantzuteko izaten direna, nahiz eta kasu batzuetan, epe ertain luzeko estrategia makroago batean kokatuak izan. Kasu honetan, ez dira prozesuak izaten, baina lan egiteko era izaten da komunitarioa. Hain zuzen ere, tokian tokiko eragile ezberdinen parte-hartzearen eta protagonismoaren bitartez identifikatu, diseinatu, egikaritu eta ebaluatzen baitira. Kolektiboan dago gakoa, harremantzeko moduan, lan egiteko moduan, erabakiak eta botereak partekatzean eta inplikazioan. Bigarrena, orientazio edo ikuspegi komunitarioa da. Horrekin, ez diote erreferentzia egiten kolektibo konkretuei, bai ordea, esku-hartzeak interes orokorrari erantzuteko duen asmoari zein lan indibidual eta asistentzialetik haratago doan, eta tokiko ahalik eta eragile gehien inplikatur egiten den lanari. Ez da beraz, lan indibidualaren aurkakoa, lan estrategia integral eta konpartitua baizik. Hirugarrenik, eta azkenik, prozesu komunitarioa dago. Komunitate jakin bateko ongizatea sustatu eta bizi baldintzak hobetzera bideratutako epe ertain luzeko prozesu zikliko eta globala da. Prozesu eraldatzailea da tokiko errealitatearekin egiten dena eta etengabe tokiko errealitatearen arabera moldatzen dena. Hiru agertoki ezberdin hauek ordea, badituzte oinarrian komunak diren gakoak, eta horiek jasotzeak berebiziko interesa du ikerketa honetan:

- Kohesio soziala eta komunitatearen protagonismoa sustatzeko lotura eta harreman kolaboratiboak indartzen dituzte.
- Praktika parte-hartzaile eta demokratikoen sakontzea dakarten ekintza kolektiboen bidez egiten dira.
- Pedagogian, ezagutzan eta antolakuntzan oinarritzen dira (119-120. or).

Komunitarioan sakontzeko bost dira, lehen esan bezala, Marchioniren lanetan oinarrituta autore hauek aipatzen dituzten gakoak: Antolakuntza komunitarioa; helburua eta ezagutza konpartitua eraikitzeke mekanismo eta metodoa; narratiba komunitarioa; tokiko formazio agenda eta ekipo komunitarioa.

- Antolakuntza komunitarioa

Edozein eraldaketa prozesutan nahitaezkoa da antolakuntza eta komunitarioan ere horrela gertatzen da. Kasu honetan, hiru protagonisten arteko harreman, elkarrekintza eta parte-hartze esparruak sortzea behar da. Are garrantzitsuago bihurtzen da hau egungo gizarte

konplexu, injustu eta zaugarrietan, non eskuineko mugimenduen gorakadak ematen ari diren. Komunitateetatik komunitateak eraikitzeke proposamenak beharrezkoak dira, parte-hartzea zein antolakuntza erlazionalarekin uztartuz estrategiak gauzatzea. Osterantzean, egiten den lana dependentzia areagotzean eta asistentzialismo hutsean geratuko da. Honen baitan hiru prozesu bereizten dira:

Batetik, *prozesu instituzionalak*. Agente ezberdinen arteko espazioak eraikitzeke ahaleginean zentratu beharko lirakeke, kooperazioan. Horretarako, egungo prozedimenduetan kultura aldaketa eman behar da, eta markoak eta antolakuntza forma berrietan zentratu. Tokiko administrazioa lehen protagonista bada ere, maila guztietako erakundeen logika aldaketak garrantzitsuak dira, eta aldaketa handiak egitea suposatzen duenez gero, nahiz eta poliki izan, tokiko gobernantza parte-hartzailearen korrontean sakontzea nahitaezkoa da.

Bestetik, *prozesu multidiziplinarrak*. Komunitate dimentsioa ez da soilik gizarte-langintzari edo gizarte-zerbitzuei dagokien zerbait, eta ondorioz, alor ezberdinetako profesionalen elkarlana ezinbestekoa da. Espazio jakin bateko errealitateari erantzuteke estrategietan sakontze komunitarioarako hainbat dira egin beharreko garrantzitsuak: lurraldea zehaztu, tokiko baliabideak ezagutu, metodologia eta helburuak zehaztu, antolakuntza modu operatiboagoak eraiki edo ekintza konpartiturako erremintak sortu, besteak beste. Azkenik, lan komunitarioaren errekonozimendua eman behar da, horrela bakarrik lortuko baita estrategia egonkor bat, eta ez ordea, boluntariotzan oinarritutako zerbait. Lan horren errekonozimenduak lurralde jakin bateko baliabide eta sareak aztertzea ahalbidetuko du, parte-hartzean eta motibazioan oinarritutako estrategia iraunkor eta konpartituak diseinatu eta egikaritzeko.

Azkenik, *prozesu eta dinamika integratzaileak*. Harreman horizontaletan, elkarrizketan, kontsentsuan eta elkarren (eragile ezberdinen) arteko errekonozimenduan oinarritutako estrategia parte-hartzaileak izan behar dute nagusiki. Jakina da egungo gizarte konplexuetan hainbat direla parte-hartzea baldintzatzen duten faktoreak, hala nola, sozialak, ekonomikoak eta baita politikoak ere, baina aldi berean, parte-hartzea gero eta handiagoa izan, ardura eta botere banaketa ere hazten dela badakigu. Hori dela eta, gizarte batean parte-hartzeke borondatea eta ahala duten pertsonekin lan egin behar den heinean, zuzenean edo modu berean parte-hartzen ez duten pertsonekin etengabeko harreman espazioak gauzatu behar dira. Horrela, prozesua edozein unetan parte-hartzaile berriei irekita egon daiteke, arestian aipatutako hiru zirkuluen teoriaren ildotik. Metodologikoki

garrantzitsua da errealitate pertsonal, indibidual zein kolektiboek soilak, baita aukera eta oztopoak ere.

- Lan metodologiarako ildoak

Alor artekoak izango diren harreman eta antolakuntza proposamenetako *lidergo indibidual zein kolektiboak sustatu* beharra nabarmentzen da. Pertsonen borondatearen arabekoak izango dira, eta faktore ezberdinen arabera akonpainamendu edo lidergo papera izan dezaketenak sustatuko dira. Beraz, estrategia komunitarioak martxan jartzean eta prozesu osoan zehar herritarren parte-hartzearekin kontatu ahal izateko, komunitatea, bere ezaugarri partikularrak, ehun sozial, politiko eta kulturala zein bilakaera historikoa ezagutzea ezinbestekoa da.

Herritarren eta teknikari edo profesionalen artean *harremana sustatuko duten prozesu berritzaile eta interaktiboak* behar dira. Hauek erakundeek babesa izan behar dute, eta maiz, jada tokian toki sustraituta dauden ekintza kultural eta sinbolikoen bidez lortu daiteke, legitimazioa izango baitute. Parte-hartzea plurala izan dadin dimentsio zein errealitate ezberdinetan aurkitu behar dira protagonistak, eta prozesuak jendea engantxatu eta konprometitu behar du. Horrela lortuko baita indar eraldatzailea.

Prozesuan zehar lortutako emaitzak ezagutarazteko eta *elkarbanatzeko espazioak sortzeko* ere garrantzia du. Hauek toki, egun eta momentu ezberdinetan izan beharko lukete, errealitatea eta ideosinkrazia errespetatuz.

Aipatutakoaz gain, *prozesuaren nukleo edo motorra* izango den pertsona taldea eratzea interesantea da. Helburuak lortzea erraztuko duten baldintzak lortzeko, kolektibotasuna indartzeko eta informazioa transmititzeko balio du, prozesuen kalitatea eta irimotasuna dakarren bitartean.

Estrategiak eta esku-hartzeak modu integratu eta konpartituagoan egiteko, beharrezanen arabera eta protagonisten elkarlanean oinarritutakoak *lan mahai eta protokoloak* diseinatzea ere garrantzitsua izango da.

Azkenik, *lan komunitarioaren aldeko akordio eta aliantzak* sustatu behar dira. Akordio edo aliantzak formal edo informalak izan daitezke, baina ezagutzera eman behar dira eta prozesuei indarra emateko baliagarri bihurtu.

- Ezagutza eta helburu partekatuak sortzeko mekanismo eta metodoak

Prozesu komunitarioa elementu metodologikoak sortu eta egonkortzen doan zikloa da. Zikloa horrela laburbildu daiteke: lehenik, harreman eta topaleku izan daitezkeen espazioen sorreran, eta ondoren, ezagutza, diagnosi, programa eta ebaluazio partekatuan. Zikloak etengabeko informazioaren bidez inklusiboa behar du izan, eta hiru protagonistak barne biltzea garrantzitsua da. Jasangarria izateko, aipatutako zikloaren parteek zaintza, eguneratzea eta berritze etengabea egon behar dute, eta hori gertatzeko, ebaluazio jarraitua gakoa da. Pertsonak, errealitatea, testuinguruko ezaugarriak etab. aldatzen diren heinean, prozesua eta zikloa ere aldatu behar dira.

Ezagutza partekatua sortzeko informazioak datu objektiboak eta komunitateko kideen subjektibotasunak barnebildu behar ditu. Hori lortzeko, ikerketa ekintza parte-hartzailea da bidea, eta teknika garrantzitsuena entzutea da. Entzutea kasu honetan, komunitateko kideez osatutako lan taldeak egingo du, eta horrela, informazioa ikertzeko soilik izan gabe, ekiteko ere badela bermatuko da. Hemendik diagnosis eratorriko da, lehen proposamen bati komunitateak egiten dizkion etengabeko eraldaketa eta osaketan bidez.

- Narratiba komunitarioa

Informazioa eta dokumentazioa komunitarioaren osagaiak ere badira, baina honekin ez da gizarte-langileok gure bulegoetan izaten dugun dokumentazio edo informazioari soilik erreferentzia egiten. Komunitateko erakunde eta eragile bakoitzak bere bizitza historia propioa izaten du, bere informazio eta dokumentazioarekin. Horiek partekatzeko bidea izan behar du komunitarioak, guztien arteko informazioarekin elkar loturak eta helburu komun zein kolektiboak identifikatzeko. Estrategia integrala sortzea da modua, komunitateko narratiba eta informazioaren bitartez, identitate kolektiboa eraikiz eta parte-hartze komunitarioa indartuz.

- Tokiko agenda formatiboa

Tokiko eragileen formazioa, ahalduntzea eta gaitzea lan komunitarioaren aspektu garrantzitsua da. Ezagutza eta esperientziez gain, estrategia eta ekintzak ildo komunitarioa jarrai dezaten beharrezko formazioaren eskuragarritasuna beharrezkoa da, teknikoki babestuak eta zientifikoki fundamentatuak izan daitezen. Horizontala behar du izan eta tokiko eragile guztiei zuzendua. Esan bezala, eragileek beren motibazioaren arabera ezagutzak partekatu ditzakete eta ezagutza kolektibo horretan beren ekarpena

egin. Horrela, errekonozimendua gertatzen da, eta horrek motibazioan zein gogobetetasunean eragiten du. Aurrekoa gertatuz gero, inplikazioa eta konpromisoa areagotzen da, eta horrek ere eragina du prozesu komunitarioaren arrakastan, noski.

- Ekipo komunitarioa

Egun egon daitezkeen baliabide eta zerbitzu asistentzialez haratago, harremanezko eta antolakuntzazko lanean zentratuko diren profesional teknikoak behar dira. Betebehar asistentzialista hutsetatik beharizan komunitarioak erantzuteko funtziotara arteko bidea egitea izango litzake helburua, baina, bide horretan sakontzea eta funtzio horiek zehaztea jada pausua da. Orain artean, berriz, diru-laguntzen araberako ekintza puntualak eta konkretuak izaten dira orokorrean egiten diren lanketa komunitarioak. Praxi sozial profesionalizatua da bilatu behar dena, eta horretarako medioak izatea ezinbestekoa da, bai teknikoak, bai ekonomikoak eta baita pertsonalak ere (Morín eta Blanco, 2022).

Azkenik, egun egin den azken lanetako bat kontuan izatea eta lantzea behar beharrezkoa iruditzen zaigu. Lehen aipatu dugun moduan, ez dago eskuliburu bat edo metodologikoki zerbait zehatza, baina, hala eta guztiz ere, gaur gaurkoz dagoen lanketa garatuena izan daitekeela esan dezakegu, ezagutza oinarritzko gizarte-zerbitzuetako esperientzietatik abiatutakoarekin osatuta baitago. Batetik, lanaren sakontasuna da berau lantzeko arrazoietako bat, baina bestetik, gure ikerketa abiatu genuenean, hau da, duela lauzpabost urte pentsatutako hipotesien planteamenduarekin eta lan ildoekin bat datorrelako.

Kataluniako Geneneralitatearen Departament de Drets Socialerako (DDS) egindako lanak sistema kataluindarrarentzako orientazio gisa balio dezake, eta komunitarioa nola indartu daitekeen jasotzen du gizarte-zerbitzuek zer egin dezaketzen adieraziz: “Les pistes i propostes que es presenten en aquest document volen ser un punt de partida per començar a caminar” (DDS, 2022, 11. or). Honetaz gain, saiatzen eta ikertzen jarraitzeko atea ireki dezake.

Dokumentuan aurkezten den komunitariorako “ereduak” bi elementu gakoaren gainean egiten ditu proposamenak. Batetik, esku-hartzeko agertokiak jasotzen dira, hots, gizarte-zerbitzuak beren misioa egiten duten esparru erlazionalak: pertsona familia eta taldeekin egiten den zuzeneko arreta; komunitatearekin egiten den lana (elkartegintza, gizarte mugimenduak etab.) eta lan taldearekin zein lurraldeko gainerako profesionalekin egiten den lana. Bestetik, sakontzeko komunitariorako mailak daudela aipatzen da, aurreko

proposamenaren ildotik, edozein eremuetan intentzionalitate komunitarioekin maila ezberdinetan jardun daitekeela azpimarratuz.

- Esku-hartze komunitarioarako agertokiak

Agertoki bakoitzak bere helburuak ditu, jakinik, agertoki bakoitza ez dagoela isolatuta eta hiruren arteko mugak ez direla gardenak, elkarreraginean daudela baizik. Ondorioz, arreta komunitarioago batek horiek difuminatzea ekarri beharko luke, ikuspegi global, estrategiko eta erlazionala nagusitzearen bidez. Talde lana eta profesionalen sarearekin egiten den lana da pertsonak besteekin eta ingurukoekin harremana izateko dagoen lotura. Askotan, taldeekin egiten den lanaren bidez, pertsonak harreman eta partaidetza trebetasunak eskuratzen dituzte eta taldeek ekintza kolektiborako gaitasuna indartzen dute. Laguntza profesionalak aurrera jarraituko du pertsonak eta taldeak sare komunitarioarekin lotzea lortu arte (hala nahi badute), edota lurraldearen premiei erantzun eta ingurunean eragiteko estrategia bateratuak sortzeko beharrezko aliantzak sortu arte. Hona planteatzen den adibidea:

“Así lo hacemos, por ejemplo, cuando configuramos un grupo con mujeres atendidas por haber sufrido violencia de género y lo ponemos en relación con un espacio de trabajo en red donde realizarán una actividad conjuntamente con entidades del barrio en el marco del 25N. O cuando implicamos a un grupo de jóvenes que atendemos a raíz del trabajo conjunto con el instituto en el acompañamiento de las personas usuarias del centro el día de las personas mayores en una actividad compartida o a participar en la mesa de jóvenes del barrio donde sólo acuden profesionales. En ambos casos, sólo si incorporamos la intencionalidad comunitaria en los distintos ámbitos de intervención, estaremos haciendo posible que se produzca la cadena de eventos que permitirá llevar a cabo las acciones comunitarias propiamente dichas” (DDS, 2022, 34. or).

- Sakontze komunitarioko mailak

Aipatu bezala, agertoki bakoitzean maila ezberdinetako sakontasunarekin egin daiteke lan komunitarioa, eta agertokietako bakoitzean planteatzen diren funtzio eta egin beharrek esku-hartze komunitarioaren unibertso posiblea osatzen dute. Maila ezberdinak zerbitzu bakoitzaren ezaugarrien arabera izango dira, eta horiek funtzio eta eginbeharrak anbiziotsuagoak izango dituzten edo ez baldintzatuko dute, zerbitzu bakoitzari hasierako puntu eta jomuga ezberdinak marraztuz.

Mailarik apalena begirada komunitarioa da, eta ikuspegi komunitarioa zeharkakotasunez erabiltzean datza. Ez da lan komunitarioa, baina etorkizunean prozesu kolektibo edo ekintza komunitarioak sor daitezen baldintzak eraikitzen dira, testuinguruarekin,

pertsonekin eta lan taldearekin elkarrekintzarako elementu berrien bidez. Aldiz, esku-hartze komunitarioa pertsonen besteekiko eta ingurunea berarekiko dituzten gaitasunak jokoan jartzea, askotariko eragileekin batera lurralde estrategia partekatuak zehazten parte-hartzea edo akonpainatzea da, baita artatutako pertsonen indar kolektiboa aktibatzen duten ekintzak gauzatzea ere.

Bien arteko lotura graduala izanik, honek erakutsi gura du, batetik, nola gizarte-zerbitzuek elementu komunitarioak txertatu ditzaketen, eta bestetik, lan komunitarioa egiteko bide hori egun egiten dutena baino luzeagoa dela.

- Oinarrizko gizarte-zerbitzuetako esku-hartze komunitarioaren agertokiak, helburu eta funtzioak

Aurreko bi puntuetan aipatutakoak elkarreraginean jarritz, oinarrizko gizarte-zerbitzuetan komunitarioan sakontzeko ereduaren baitan, maila bakoitzerako hainbat eginbehar eta ekintza zehazten dira⁴⁰ eta hurrengo orrialdeko taulan laburbiltzen dira:

Taula horretan aipatutakoez gain, gizarte-zerbitzuak mandatu komunitarioa eduki dezaketen gainerako ekipoekin (izan espezializatuagoak edo ez) osagarriak dira. Zentzu horretan, sistema komunitario eta ekosistema profesionalaren barne daude, perspektiba komunitarioaren lan egin dezaketen eremu ezberdinetako profesionalekin (osasuna, kultura, hezkuntza etab.) edo lan komunitario espezifikoa helburu dutenekin.

⁴⁰ Dokumentuan modu sakon eta ulergarrian azaltzen dira taulan laburbidutako helburu eta ekintzak.

11. Taula: Oinarrizko gizarte-zerbitzuetako agertoki ezberdinetako helburu eta funtzio komunitarioak

	Pertsonak eta familiak	Taldeak	Komunitatea
Helburua	Pertsonak beren harreman eta komunitate egituran hobeto errotzen laguntzea, eta ahalduntzeko zein parte-hartzeko baldintzak sortzea.	Elkarrekikotasun harremanak sustatzea; akonpainamendu kolektiboa eta elkar babesa sustatzea, eta inguruneari lotutako antolaketa kolektiborako baldintzak sortzea.	Lurraldearen bizi kalitatea hobetzen eragitea, eta pertsonak, taldeak zein komunitateak ahalduntzea.
Funtzioak	<ul style="list-style-type: none"> -Komunitatea baliabide gisa ulertzea pertsonari akonpainatzeko prozesuan. -Pertsona bere testuinguruarekin lotzea akonpainatu. -Pertsonaren ahalduntzea sustatu. -Zerbitzuaren garapenean herritarren parte-hartzea bermatu. -Pertsonak komunitatearen inplikazio aktiboan akonpainatu. 	<ul style="list-style-type: none"> -Eskaera indibidualei erantzuteko talde lanketak sustatzea. -Taldeko kideak indartu eta zaintzea. -Antolakuntza kolektiborako baldintzak eta abileziak sortzea. -Taldeen parte-hartze komunitarioa indartzea. 	<ul style="list-style-type: none"> -Komunitatearen parte izatea. -Komunitateen erresiliientzia, zaintza eta elkar babeseko gaitasunak indartzea. -Lurraldeko beharizanei erantzun kolektiboen sustapenean parte-hartzea. -Tokiko espazio komunitarioetan parte-hartzea. - Aniztasunaren aurrean inklusiboagoak eta sentiberagoak izango diren lurraldeak sortzea laguntzea.

	Sare profesionala	Ekipoa
Helburua	Lankidetzaren harremanak eraikitzea, gizarte zaugarritasun egoerei buruzko ezagutza emanez estrategia partekatua bultzatzeko.	Ezagutza sortzen duten eta dimentsio analitiko, kritiko eta estrategikoa barne hartzen duten talde hausnarkorrak sustatzea.
Funtzioak	<ul style="list-style-type: none"> -Programa, zerbitzu eta esku-hartzeak hobetzeko helburuarekin errekonozitu eta elkar eragitea. -Diagnosi eta ekintza konpartituetan parte-hartzea sustatzea. -Bultzatzen ditugun ekintzetan pertsona "onuradunen" parte-hartzea sustatzea. -Gizarte zaugarritasun eta bazterketa egoeren inguruan sentsibilizatzea eta ikusaraztea. 	<ul style="list-style-type: none"> -Ezagutzaren behatzaile eta sortzaile izatea. -Detektatutako egoera eta zailtasunen kudeaketan ikuspegi estrategikoa txertatzea. -Gizarte ezberdintasun eta bazterketa dinamiken analisi eta hausnarketa kritikoa egitea. -Zerbitzu/zentroaren planetan estrategia komunitarioa txertatzea.

Iturria: Kataluniako Generalitateko Departament de Drets Socials, 2022, 36. or.

4.1.3. KOMUNITARIOAREN ELEMENTU BALDINTZATZAILEAK

Momentura arte komunitarioaren ekarpen eta proposamenetan ikusitakoarekin gizarte-zerbitzuen baitan komunitarioa garatzea zertan datzan marrazten has gaitezke. Hala ere, komunitarioan adituek dioten beste ez sakontzeko zioarekin, hasiera emateko ezinbestekoa iruditu zaigu marko analitiko bat osatzea. Horretarako, gizarte-zerbitzuetako planteamendu komunitarioetan adituak diren pertsonen elkarrizketatik zein orain arteko berrikuspen bibliografikotik hainbat elementu gako atera eta berreskuratu ditugu. Ondoren, Gasteizko oinarrizko gizarte-zerbitzuetako kasu analisia egitea ahalbidetuko diguten elementuak, alegia. Modu horretara, bigarren fase batean, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaan komunitarioan behar beste ez sakontzearen arrazoiaren inguruko ondorioak atera ahal izateko. Esan bezala, hurrengo lerroetan adituen bitartez jaso dugun informaziotik eratorri ditzakegun elementuak landuko ditugu batik bat, berrikuspenaren bidez jasotako oinarria osatze aldera. Hori horrela, garrantzitsua da elkarrizketatu ditugun adituek dimentsio komunitarioa gizarte-zerbitzuetan nola ikusten eta ulertzen duten azaltzea, batez ere, elementuak testuinguruan jartzeko.

Lehenik eta behin, bi aldaera ezberdin daudela ikusi ahal izan dugu, eta nahiz eta horretan aurrerago sakonduko dugun, elementuak aztertzen ditugunean, orain ere azpimarratzea garrantzitsua da. Batak zerikusia du antolaketa ereduarekin, eta besteak ordea, funtzio edo egitekoarekin.

“En servicios sociales hay como dos grandes miradas a este tema de lo comunitario y que tienen que ver también con la propia visión de la intervención social. (...) ¿Cómo pueden organizarse las políticas públicas? Desde esa concepción, lo comunitario, digamos, es en sí, el nivel básico de servicios sociales, una estructura de proximidad. De hecho las leyes, en algunos casos utilizan esa denominación, lo cual no significa que se haga trabajo comunitario. Y luego hay otra concepción que entiende que el papel de los servicios sociales comunitarios no es sólo estar en la proximidad, sino construir y generar dinámicas de proximidad, de capital social, en el territorio, ¿No?. Entonces, para mí está en esas dos concepciones, la que entiende que lo comunitario tiene que ver con la atención de base esencialmente y la otra, que entiende que lo comunitario tiene que ver con la construcción de comunidad y después la generación de capitales y dinámicas de empoderamiento de autogestión de la comunidad” (E.3 Aditua).

Bi aldaera hauek egoteak zaildu egiten du sarri dimentsio komunitarioari buruz mintzo garenean zeri buruz ari garen zehatzeko aukera, horregatik, elementuak azaltzean landuko dugu zehazki. Nolanahi ere, aditu gehienek ahotan entzun ahal izan dugunez, gizarte-zerbitzuen eta bereziki oinarrizko gizarte-zerbitzuen esentzia da komunitarioa.

“Desde mi punto de vista más bien tiene que ver con la esencia, con la finalidad y con el sentido profundo de lo que se hace. (...) Estás haciendo comunitario cuando trabajas con la comunidad, con el conjunto de la comunidad y de alguna forma estás fortaleciendo ese funcionamiento comunitario, porque en ese caso, evitas que se complique la situación (...) intervenir construyendo comunidad, es protector” (E.2 Aditua).

Kasu honetan, fokoa gizarte-zerbitzuen oinarrian jartzen da, eta honako hau, adituen artean errepikatu eta berresten den ideia dela ikus dezakegu, hots, dimentsio komunitarioa, finean, oinarritzko gizarte-zerbitzuen funtsa edo zimendua dela. Hala ere, badaude, gu bereziki lantzen ari garen aldaera honetan sakonduz, dimentsio komunitarioa zer den gehiago zehazten dutenak ere:

“El trabajo comunitario es desde la mirada profesional, acompañar a generar procesos organizativos con la población, en relación a unos objetivos o una motivación que estas personas puedan tener y compartir. Es acompañar a generar procesos de organización colectiva, generar el protagonismo de las personas que están afectadas por una situación, siempre trabajando esta doble dimensión de lo comunitario: por una parte, la promoción social, ganar calidad de vida y por otra parte, la dimensión relacional, es decir, aumentar la relaciones sociales de cooperación entre estas personas” (E.4 Aditua).

Ikus dezakegunez, hainbat dira definizioak eskaintzen dituen gakoak akonpainamendua, prozesu kolektibo eta antolakuntzakoak, pertsonen ahalduntzea eta protagonismoa, harreman sozialak edo bizitza kalitatea aurkitu ditzakegu. Adituen artean errepikatzen diren hitzak dira horiek, eta aurreko definizioan jasotako esentziaren ideia ere berresten da, definizioa sakonagoak jasotzen ditugun elkarriketetan ere:

“La dimensión comunitaria en los servicios sociales básicos, no es algo añadido, que digas, hay esto y esto y luego encima, la dimensión comunitaria, sino que es la esencia de los servicios sociales de base. Es esta abertura y permeación, una permeabilidad con la comunidad en la que se ubican, para dar respuesta junto con la comunidad a las necesidades que hay en el territorio, de forma colectiva. Entonces, la dimensión comunitaria para mi, es entender a la persona en su contexto, además de entender el contexto como una articulación y suma de personas que pueden estar articuladas o no y que como servicios sociales, tenemos el rol de articular, en la medida de lo posible para dar respuesta a las necesidades relacionales, de integración, de cohesión, de resiliencia de la comunidad, que es nuestro ámbito” (E.1 Aditua).


Ikusi dezakegunez, ez da hain erraza dimentsio komunitarioa zehaztea, baina adituen hitzetan jasotako definizioa hauen bidez eta aurrez egindako errebisio bibliografikotik bildutakoen bidez, zertaz ari garen zehazten lagundu digu. Ikerlan guztian zehar, behin eta berriz errepikatu dugun moduan, komunitarioan sakontzeko edo komunitarioa egiteko ez dago modu bakar bat, hots, ez dago formula egokirik. Tokian tokira egokitutako lanketak egin behar direla ikusi dugu, hori gorabehera, aldiz, egindako berrikuspen eta

elkarrizketetan identifikatu ditugu dimentsio komunitarioa baldintzatzen duten elementu komun batzuk.

“Dependerá de las fortalezas y oportunidades para ponerlas en marcha, de su adecuación a las necesidades detectadas, del tiempo disponible y de los recursos existentes (profesionales dedicados a su implementación y desarrollo, pero también, recursos y apoyos normativos, económicos y organizativos)” (Morín eta Blanco, 2022, 120. or).

Azken lerroetan, sarri esan bezala, gizarte-zerbitzuen baitan lanketa komunitarioa ahalbidetzen duten, eta ondorioz, hau guztia erraztu edo oztopatu dezaketen elementuak identifikatu ditugu, ondoren Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren egoeraren analisia egiteko oinarri izango direnak. Azpiko irudian ikusi daitekeen bezala, elementu horiek bi talde nagusitan sailkatu ditzakegu: batetik, kanpo dimentsio bezala identifikatu ditugunak, eta beste batetik, barne dimentsio moduan izendatutakoak. Gainera, barne dimentsioari dagokionez, azpimultzo edo dimentsioak daudela ikusi dugu, gizarte eskuhartzea osatzen duten hiru eragile nagusien arabera: dimentsio politikoa, teknikoa eta herritarra edo gure kasuan, tokiko lurraldeari dagokiona ere badela, esan genezake.

8. Irudia: Komunitarioa baldintzatzen duten elementuen dimentsioak



Iturria: Norberak egina.

Kanpo dimentsioa bezala izendatu dugun lehen multzoa, oinarrizko gizarte-zerbitzuen orbitatik kanpo dauden faktore edo elementuek osatzen dute. Beste era batera esanda, globalak, estrukturalak edo orokorrak diren faktoreak izango lirateke; esaterako, gaur egungo gizartearen ezaugarriekin, eredu ekonomikoarekin edo bizitza nolabait arautzen duten ideologia dominanteekin lotutakoak. Kanpo izena jarri diogu, bereziki, zuzenean oinarrizko gizarte-zerbitzuetako eragin esparrutik kanpo geratzen diren elementu edo faktoreak direlako, hots, guk kontrolatu ezin ditugunak direlako. Azkenik, dimentsio nagusi honen baitan kokatzen diren faktoreek, goiko irudian ikus daitezkeen bezala, zuzenean eragiten diete barne dimentsioaren baitan dauden azpi dimentsioetako bakoitzari. Barne dimentsioa ordea, oinarrizko gizarte-zerbitzuen testuinguruan dauden hiru dimentsio nagusiek osatzen dute, alegia, esku-hartzearen hiru eragileetako bakoitzak osatutako dimentsioak. Hauetan modu batean edo bestean eragin dezakegu, eta tokian tokian aldakorrak izan daitezke: Dimentsio politikoa udalean dagoen botere politikoaren arabera; dimentsio teknikoa oinarrizko gizarte-zerbitzuetako lan talde teknikoaren eta antolaketaren arabera, edo azkenik, dimentsio herritarra edo lurraldearen dimentsioa tokian tokian dagoen komunitatea eta bere ezaugarrien arabera. Barne izena jarri diogun multzo nagusiaren azpian dauden hiru dimentsio hauetako bakoitzak baditu soilik bereak izan daitezkeen elementuak, baina, kontrara, elementu batzuk dimentsio baten baino gehiagotan ere aurki ditzakegu. Bukatzeko, goiko irudiari so eginez gero, dimentsio guztiak beraien artean elkarreraginean daudela ikusi dezakegu. Era berean, barnebiltzen dituzten elementuetako bakoitzak ere beste elementu askotan eragiten duela ikusiko dugu aurreraxeago, maiz, hauek baldintzatzen arte. Behin sailkapen nagusiaren azaleko azalpena eginda, dimentsio bakoitzak zer barne biltzen duen azalduko dugu, eta bidez batez, elementu baldintzatzaileak bezala izendatu ditugun elementuetan ere sakonduko dugu.

Kanpo dimentsioa

Kanpo dimentsioak egungo gizartea guztiz zeharkatzen duten ideologia zein bizitzeko modua eta gizarte bezala ditugun ezaugarriek osatzen dute. Guzti horretan zehar eman den aldaketa eta gaur egungoak dituen ezaugarriak jaso ahal izan ditugu, izan ere, zuzenean eragiten dute gizarte-zerbitzuetan: “los servicios sociales son, en sí, una característica de la sociedad actual” (E.3 Aditua).

Ezin da ukatu lehengo gizartetik gaur egungora aldaketa handia eman dela, eta beraz, baita komunitateetan ere. Lehengoa erromantizatu gabe, adituek diote lehengoak homogeneoagoak zirela, jendea estrategia ezberdinen bidez “integratzen” zela, eta egun ordea, ez dago homogeneotasun ezta ia komunitate bezala identifikatu dezakegunik. Diruaren bidez ematen da integrazioa, enpleguaren edo beste zenbait prestazio ekonomikoren bidez saiatzen da sistema integrazioa gauzatzen. Egoera honek, printzipioz, zaildu egiten du komunitarioa eta epe ertain luzerako izan daitekeen edozein planteamendu egitea, finean, komunitaterik existitzen ez den lurralde askotan planteatzen ditugulako estrategia komunitarioak. Gainera, hurrengo aipatuko ditugun faktoreek eragin zuzena dute egungo gizarte eredu honen egonkortze prozesuan, eta are gehiago, eredu hau sustatzen dutela esan dezakegu.

- Neoliberalismoa

Sistema ekonomikoa baino haratago doan eta gizartea erabat markatzen duen elementu bezala identifikatu dugu. Globalizazioa tokikotasunaren baloreari gailentzen zaio, eta beraz, gizartea osatzen dugun pertsonok gure beharrianak asetzeko hautatu dugun strategiaren parte da:

“En los años 90 se empieza a instaurar el neoliberalismo y con ello, cada vez más, el individualismo. Hoy en día tenemos interiorizada la ideología neoliberalista que influye en distintas cuestiones, se puede decir que ha ganado el neoliberalismo en las sociedades y nosotras lo reproducimos, porque también abrazamos esa ideología de una manera u otra. (...) De la mano de las políticas neoliberalistas, se da una estigmatización de las políticas sociales y de los sujetos con los que se trabaja en los servicios sociales. (...) El neoliberalismo ha dañado lo público en general y ha transformado nuestras cabezas, hay una falta de interés social en las personas y también en las trabajadoras sociales y ahora hay que ver como se crea. Según Bordeau, se crea desde el interés común y el interés de las personas y las trabajadoras sociales también se debe transformar en interés común y colectivo, de todas las personas” (E.5 Aditua).

“tiene que ver con el surgimiento del nihilismo y el terminar con el modelo de localismo. (...) las lógicas, sean del tipo que sean, todas son elementos de diferenciación de los sujetos, (...) verdaderamente, buscamos estrategias para resolver los conflictos, mas diferenciadoras y cada vez mas individualistas” (E.3 Aditua).

Honekin batera, eguneroko bizitzak orokorrean eta egunerokotasuneko gauza txiki handiek zuten balioaren galera etorri da, alegia, kapital sozialaren galera etengabea, baita kapital komunitarioaren eta auzoen bizitasunarena ere: “son nodos que se van cortando, lazos que se cortan de relaciones comunitarias (...) Se está produciendo un descenso, una reconfiguración de determinadas formas de relaciones” (E.3 Aditua). Neoliberalismoak

eta egungo eredu ekonomikoak krisi bat beste baten atzetik ekarri dizkigu, eta horien aurrean, gure gizarte muskulua desagertzeko prozesuetan sartu da. Kapitala bizitzari⁴¹ nagusitzen zaio, globala tokikoari, epe motzekoa zein azkarra epe ertainekoari, banakakoa kolektiboari, eta horrekin bat egiten ez duten estrategiak bizirauteko zailtasunak dituzte: “Es una pena que tampoco se haya adquirido conciencia de que ese tipo de proceso y dinamismo, hacía que la sociedad tuviera mas músculo cívico para soportar las inclemencias de los ciclos económicos” (E.3 Aditua).

Egungo gizartea aberastasunaren eta ondasunen banaketa ezberdintasunen sinonimo da, eta gutxi batzuen eskuetan dago aberastasunaren gehientsuena. Diruak politika kontrolatzen du, eta demokrazian eta botere politiko zein erakundeetan herritarrek daukagun konfiantza etengabe jaisten ari da, merkatu kapitalistaren gidalerroek ezberdintasuna eta injustizia soziala areagotzen dituzten bitartean. Ezberdintasunak eragindako bazterketa, zaurgarritasun egoera edo zailtasun oro, kapitalismo eta neoliberalismoaren ikuspuntutik arazo moral, pertsonal eta indibidual gisa ikusten dira. Gizarte-zerbitzuetan ere argi ikus daiteke diruaren eta merkatuaren nagusitasuna, lehen erabili zitezkeen beste edozein lan estrategiari gailendu baitzaie, eta egun: “La menesterosidad se intenta abordar sobre todo con dinero” (E.2 Aditua). Argia da hurrengo lerroetan Navarrok (2022) gogorarazten digun bezala, elementu honek negatiboki baldintzatu dezakeela komunitarioaren inguruko edozein planteamendu:

“Algunas pinceladas sobre el actual sistema de servicios sociales, completamente atravesado por el paradigma neoliberal:

- Porque los programas que se implementan son el producto de atribuir causas individuales a la exclusión social.
- Porque las iniciativas se centran en el empleo como herramienta de salida de la exclusión.
- Porque las prestaciones se diseñan desde una actitud de sospecha permanente hacia las personas empobrecidas y el supuesto uso fraudulento que hacen de ellas.
- Porque hay un intencionado desinterés (e incluso rechazo) hacia el trabajo social comunitario, una vía para la emancipación y defensa de los derechos de clase” (Navarro, 2022 -11-13).

Halaber, logika neoliberalistak bere barnean badakar adituen hitzetan, behin eta berriz errepikatu den fenomenoak: hurrengo lerroetan landuko dugun indibidualismoa. Elementu

⁴¹ Bizitza kapitala gatazka, beste feminista batzuen artean Amaia Perez-Orozok (2015) planteatzen du, eta egungo sistemak erdigunean kapitala edo merkatua jartzen duela dio, pertsonon bizitzak eta bizitzaren jasangarritasuna jarri ordez.

bakar bezala adierazi dugu, ikerketarako daukan garrantziaz ohartuta, baina, argi ikusi dezakegu, elementu honekin zein beste askorekin guztiz lotua dagoela.

- Egoera estrukturalak eta prekarietatea

Orainsu azaldutako prozesu sozioekonomikoak ondorio latzak uzten ditu gure gizarte errealtatean eta ezberdintasun egoera estrukturalak modu esponentzian areagotu ditu.

“Vienen de grandes problemas estructurales, pero se reflejan en cosas pequeñas de las vidas de las personas. No es algo abstracto y analítico solamente, sino que es algo que tiene una expresión significativa en la vida de las personas. (...) Hoy en día la cuestión social y las necesidades sociales se están complejizando y se está dando una precarización de la vida social. (...) La precarización significa más que puestos de trabajo inseguros, más que una cobertura social insuficiente. Es incertidumbre y exposición al peligro. (...) Esto conlleva que la intervención social se remita a dar recursos para cubrir las necesidades más básicas de las personas. Lo urgente y necesario suele ser lo material” (E.6 Aditua).

Egun, prekarietatearen bertsio konplexuena ezagutzen ari gara, eta gizarte-arazo estrukturalak gaindi, oinarrizko beharrianak asetzeko ezintasuna duten pertsona kopurua nabarmen hazi da, eta areago, gero eta askotarikoagoa da gainera. Zaurgarritasun egoeran dauden pertsonak ere gero eta gehiago dira, eta zaurgarritasuna, gizartea bera bezala gero eta konplexuagoa da: “con esta precariedad, se escurre la seguridad y la protección social” (E.5 Aditua). Egoeraren berezitasunak eta gero eta nahasiago zein korapilatsuago izateak, horren aurrean erantzunak eta gizarte politikak diseinatu eta aurrera eramatea nekezagoa bihurtzen du “estamos comprometidas con esa complejidad, pero en algunos momentos estamos atrapadas y hay que cuestionarse de base ese sentido reproductivo neoliberalista e individualista” (E.5 Aditua). Afera horretan, gizarte-zerbitzuei teorikoki ezarria duten misiotik erabat aldendu eta unean uneko konponbide azkarrak ematea eskatzen zaie.

“en cada momento de crisis, se espera de los servicios sociales que se de una respuesta a todas las necesidades básicas y a una crisis estructural que está pasando y que de poco en poco se está repitiendo de alguna manera, y que para mí, es un poco el punto débil, dificultad o reto más grande para poder trabajar la dimensión comunitaria” (E.1 Aditua).

Momentu “atomizatu” batean bizi gara eta norbanakook ditugun gizarte-arazoez duten erro sozial eta kolektiboaren ikuspegia galtzen ari gara:

“es un paradigma en el que operamos hoy en día muy individualizado de los problemas que tenemos, de las soluciones que debemos dar y de las relaciones en la sociedad: como bueno... los otros tienen ese problema, no va conmigo y yo no tengo nada que ver con eso. (...) Esa parcialización frente a lo que no es una suma

de necesidades individuales sino que es un problema social. Hay necesidades sociales colectivas y ahí entra una dimensión más sociopolítica” (E.1 Aditua).

- **Indibidualismoa**

Aurreko bi elementuak azaltzean gertatu den bezala, elkarrizketetan behin eta berriz errepikatzen den ideia da indibidualismoarena. Aipamenen bidez neurtu dezakegunez, aurreko biek in estuki lotua dago. Neoliberalismoaren ondorioz gertatzen dela ere aipatzen digute:

“No somos conscientes de hasta qué punto hemos llegado: hemos roto comunidades, hemos individualizado la vida y lo hemos hecho mucho. (...) La comunidad se ha destruido, se ha fragmentado y se ha desvinculado, por un cambio social, en parte voluntario” (E.2 Aditua).

Segurtasuna eta babesa bermatzeko gure sistemak duen oinarritzko eskemari erreparatzen badiogu, familia da eskema horretako eragileetatik, lantzean behin, egoerari eusten dion bakarra, irauten duena, nahiz eta ikusi dugun bezala, gero eta likidoagoa den hori ere. Indibidualismoa askatasunaren, intimitatearen eta kontrola kontzeptuaren adiera arriskutsuak barne biltzen dituen elementua da hau.

Lehenago eta oraingo gizartei buruz hitz egin ostean eta indibidualismoaren aferan zentratuz, itxuraz, erronka komunitateak egun nola berregin ditzakegun pentsatzea izan daiteke. Izan ere, deskribatu berri dugun gizarte eredu hori, dena eros daitekeen gizartea, kreditu txartel edo pasaporteak bere baitan eskubideak dakartzan gizartea, kontratu sozial mota bat da, gizarte eredu jakin baten eskaintza. Bederen, badirudi indibidualismoaren elementu honek ere, negatiboki baldintzatu ditzakeela planteamendu komunitarioak. Adituen ustez ordea, ez da oso eredu jasangarria, finean, pertsonak, herrialdeak etab. interdependentek baikara (E.2 Aditua). Batak besteaz behar dugu, pertsona batzuk beste batzuk behar ditugu bizitzeko, eta are gehiago, gure bizitza zikloan zehar momentu konkretu batzuetan. Elkarrekintza eta loturak behar ditugu, beste batzuk behar ditugu egoera ezberdinen aurrean zein bizitzaren etapa ezberdinetan zehar. Beraz, printzipioz, egungo eredu nagusiak ez dirudi bereziki jasangarria.

Hari beretik, bizi berri dugun pandemia sinesgaitz honek, eragin handiak ekarri ditu egungo gizartean. Erakundeen erantzunak baino azkarrago antolatu den gizartea ikusi dugu, hots, gizarteko sare komunitarioak eratzen ikusi ditugu, bereziki, zaintza helburu zuten sareak, isolamendu egoerak identifikatzekoak etab. Pandemiaren aurrean eta beste zenbat gizarte egoeren aurrean hartzen ditugun jarrerak interdependentziaren isla dira, indibidualismoaren jasangarritasunaren eredu. Hortaz, komunitariorako ere zirrikitu

interesgarriak irekitzen direla aipatzen digute. Prekarietatearen aurrean antolatzen gara, sareak sortzen ditugu, baina sarri ez dugu iraunkortasuna emateko gaitasunik.

“Es verdad que ha podido ayudarnos a ver la importancia de lo común, de lo colectivo y de lo comunitario, pero en el fondo seguimos siendo las mismas personas individualistas que éramos antes de la pandemia (...) no fuimos capaces de mantenerlo” (E.2 Aditua).

Aurreko elementuak ikusita, egungo sistemaren inertzia nagusiak, printzipioz, ez dira estrategia komunitarioak sustatzeko lagungarriak. Hala ere, badaude olatu handiaren aurrean jaiotzen diren esperientziak, badaude dinamikak. Orokorrean, ez da erraza deskribatu berri dugun eszenatoki politiko, ekonomiko eta sozial horren baitan bestelako proposamenak aurrera eramatea, baina, aldi berean, egungo planteamendu dominanteek ez dirudite jasangarriak, ez gutxienez, bizigarriak izan daitezkeen bizitzetarako. Hori dela eta, garrantzitsua da, sistemako estruktura askotarikoetatik egon daitezkeen alternatiba ezberdinei erreparatzea, hauek sustatzea, indartzea eta martxan jartzea. Laburbilduz, korrontearen kontra egitea eskatzen dute ikerketa honetan gaitzat duguna bezalako planteamenduek, baina, egingarriak eta ez hori bakarrik, jasangarriagoak direla esan dezakegu:

“Vivimos en un proceso, al que se llama, alienación de las relaciones sociales, o sea que, verdaderamente, estamos en un proceso de descomposición progresiva de las relaciones sociales, por lo tanto, la construcción comunitaria, ahora mismo, es casi un elemento contracultural” (E.3 Aditua).

Kanpo dimentsioa osatzen duten elementu baldintzatzaileei amaiera emanez, sarritan adierazi bezala, elementuek beste elementu batzuegan eragin zuzena dutela ikus dezakegu. Lerro hauen azpian daukagun irudian dimentsioa osatzen duten elementu baldintzatzaileak biltzen dira, eta horietako bakoitzak, batez ere, beste zein elementuregan eragiten duten ikus dezakegu. Bukatzeko, barne dimentsioaren elementuekin hasi aurretik, garrantzitsua da gogoraraztea kanpo dimentsioko guztiek zuzenean eragiten dutela horiengan.

9. Irudia: Kanpo dimentsioko elementu baldintzatzaileen arteko eragina



Iturria: Norberak egina.

Barne dimentsioa

Behin kanpo dimentsioko elementu eta faktoreak ezagututa, barne elementuak landuko ditugu. Kanpoko elementu horiek hainbatetan aipatu dugun bezala, ezin dira egun batetik bestera eraldatu eta korrante handia suposatzen dute, baina lerro hauetan landuko ditugun elementu baldintzatzaileentzat ere.

Hala ere, bakoitzak bere eremutik txikian eragin dezake korrontearen aldaketan, eta guk geuk ere, bide horretan, gizarte-zerbitzuetan aldaketa edo birplanteamendua baldintzatu dezaketen elementuak landu ditugu. Hasieran esan moduan, hiru azpi dimentsiotan banatu ditugu elkarrizketetatik eratorritako elementuak: politikoak, teknikoak eta lurraldekoak edo dimentsio herritarrari dagozkionak. Kanpo faktoreekin alderatuta, elementu hauetako bakoitzean eragitea gure esku egon daiteke edo, gutxienez, aukera izan dezakegu hauetan modu batera edo bestera eragiteko. Bukaeran sakonago helduko badiogu ere, aipatzekoa da dimentsio politikoak teknikoa baldintzatzeko duela ez bairik gabe, baina teknikoak ere politikoan eragin dezakeela ikusiko dugu. Horretaz gain, lurralde dimentsioak bietan eragiten du, eta baita beste biek dimentsio honetan ere. Azkenik, esan beharra dago dimentsioetan egin dugun sailkapen hau zein bere mugak ez direla zurrinak, eta ondorioz, badaudela bat baino gehiagotan dauden elementuak ere.

Dimentsio politikoa

Dimentsio politikoa bezala izendatu ditugun elementu baldintzatzailer multzoa, orokorrean, tokian tokiko udal gobernuaren menpe egon daitezkeen elementu multzoa dira. Horietan eragitea, hasiera batean behintzat, tokiko agintariei edo botere postuetan dauden pertsoneri dagokie, nahiz eta badakigun sarri udaleko teknikariek beraien ezagutzatik zein herritarrek eskaera edo herri presioaren bidez, agintarien erabaketan eragin dezaketela. Horrenbestez, udalaren eta udal gobernuaren eraginpean dauden elementuak landuko ditugu, izan ere, dependentzia administratibo eta politikoa handia da. Hauek duten borondatearen edo ematen dituzten erraztasunen arabera, lehentasun politikoen arabera, finantzazioaren arabera etab. oinarrizko gizarte-zerbitzuek errazago edo zailago izan dezakete planteamendu komunitarioak garatzea.

“Los servicios sociales en función del punto de partida de estos elementos previos, de estas condiciones previas que pueden cambiar en función de su mandato político, podrán aspirar a hacer más intervención comunitaria o se quedarán con el mínimo que es la mirada” (E.4 Aditua).

- Komunitarioaren kontzeptualizazioa

Eremu politikoaren eta gizarte-zerbitzuen artean beti egon izan da distantzia handia. Gizarte-zerbitzuek, orokorrean ikus dezakegunez, ez dute lehentasuna suposatzen agenda politikoetan. Gizarte-zerbitzuei buruz hitz egiten dugunean, gastu sozialari buruz hitz egiten dugu, eta ordea, azpiegitura handiei buruz mintzo garenean, inbertsioez. Hori ez da kasualitatea, eta askotan, gizarte-zerbitzuekiko politikariek izan dezaketen interesa txikia izaten da. Hori horrela izanik, orokorrean, gizarte-zerbitzuen sailtako buruak, zinegotziak edo goragoko markoetan, sailburuak ere, ez dira gizarte-zerbitzuetako profesionalak izaten. Oro har, beste diziplina batzuetakoa izaten da, eta ondorioz, arloaren inguruko ezezagutza handia sumatzen da. Are gehiago gertatzen da hori komunitarioaren inguruan ari garenean. Ez dago definituta zer diren gizarte-zerbitzuak eta are gutxiago, zer izan daitezkeen gizarte-zerbitzuen baitan estrategia komunitarioak gauzatzea. Komunitarioa entzutean, ekintza sorta bat irudikatzen da, eta ez aldiz, tokiko herritarren ahalduntze prozesua, lerro batzuk gorako jaso dugun bezala:

“Sigue sin entenderse muy bien la dimensión comunitaria de los servicios sociales, la gente dice: si, si, tenemos que hacer comunitario, pero sigue sin entenderse en profundidad y nos quedamos con hacer acciones comunitarias y no es eso, es cambiar la orientación del servicio” (E.1 Aditua).

Ikus dezakegu beraz, honek langileekiko sortu dezakeen mesfidantza, izan ere, komunitarioa askotan zenbakiekin neurtu ezin denez, zaila da komunitarioa egiten dugunean zer egiten ari garen irudikatzea. Hori are gehiago gerta liteke arloaren eta profesionalen lana ezagutzen ez bada.

“Entender los servicios sociales como un lugar más de generar oportunidades y de encuentro y abertura al territorio. Aunque la gente tiene que tener su espacio de atención individual, hay que tener espacios para la atención colectiva, para salir al barrio, para generar oportunidades (...) Esa parte me parece importante a nivel político, reconocer muchas veces, que lo que pasa es que no se conoce la profesión y qué es lo que puede aportar, y ahí hace falta confianza, porque no se puede explicar con moldes habituales, quizá muy bien, qué estamos haciendo cuando estamos en una plaza hablando con la profesional que está trabajando con un colectivo. (...) Me parece muy importante a nivel político, entender bien qué es y en qué consiste la profesión, cuál es el encargo o lo que realmente puede aportar una profesional” (E.1 Aditua).

Esanak esan, dimentsio komunitarioaz ari garenean, komunitarioa estrategikoa dela ulertu behar da, operatiboa izateaz gain: “Lo comunitario es el análisis, la prevención, los procesos estratégicos de intervención de un territorio, la coordinación entre distintos profesionales y agentes” (E.4 Aditua).

- Borondate politikoa-apustu politikoa

Gizarte-zerbitzuen baitan tamaina honetako aldaketa bat eman ahal izateko Apustu politiko eta instituzionalak behar beharrezkoak dira. Hasiara batetik, udal gobernuen apustuak izan daitezke edo baita beste maila batzuetako gobernuetakoak ere. Nahiz eta oinarritzko gizarte-zerbitzuetan, modu zuzenean eskumenik ez duten, bide hori urratzen hasteko baliabideak eskaini ditzakete, besteak beste, legeak (DDS, 2022). Demokraziaren eta gobernantzaren aldeko apustua ezinbestekoa da dimentsio komunitarioa garatu ahal izateko. Egun, tokiko erakundeek boterea egikaritzeko eta agintzeko duten eredia aldatzea eskatzen du, bertatik egiten diren politika eta ekintzen jasangarritasuna bermatuz gura bada: “Supone un contexto de diálogo y concertación de los diferentes actores sociales para adecuar el diseño, la implementación, ejecución y evaluación de políticas públicas a una realidad cambiante” (Complutense, 2021). Hain zuzen ere, parte-hartzeak eta komunitateko eragile ezberdinekin ere boterea partekatzeak ahalduz eta boterearen banaketa orekatuagoa dakar. Ariketa demokratikoaren zati da, eta beraz, araudiak, hura gauzatzeko organoak, partaidetzaz esleitutako aurrekontuak, borondateak eta abar behar ditu, baina, batez ere, gobernuaren eta herritarren arteko harremanean elkar onartzea. Ildo horretan, gizarte-langintza postmodernoa zein praxi komunitarioaren erreferentzia

esparruan, funtsezkoak dira inplikatuak erabaki prozesuetan, botere transferentzian eta zeregin zein prozesuetan parte-hartzea (Howe, 1994).

Apustu politikoak egiteko egingo dugun horrek ekarriko lukeen inpaktua erakusteari garrantzia eman ohi zaio, batez ere, agintaldia, oro har, errentagarritasun politikoak ekarriko diguten ekintzetan zentratzen badugu. Baina, komunitarioa estrategikoa da, hots, epe ertain luzera planteatzen diren prozesuak dira, horrek dakarren guztiarekin. Legegintzaldi baten epeak ez dira nahiko horrelako estrategien fruituak eskuratzeko, eta egun, ebaluazio kuantitatiboetan oinarritutako zerbitzuen eta proiektuen errentagarritasun zein efizientzien neurketa moldeek, ez dute bere horretan dimentsio komunitarioaren balorazio egiteko balio.

“A lo comunitario se le piden muchas explicaciones, ¿no?, ¿cómo demuestra que esto tiene un impacto? A la atención individual no se le pide eso. ¿Por qué? Porque cuantificas. Pues he hecho tantas entrevistas, ¿no?, y he dado tantos recursos, tanto dinero o he derivado tanto a tantos recursos y ya está. Eso se considera que ya explica y ya justifica la atención individual (...) porque no mides, por ejemplo, esa ayuda qué autonomía ha generado. (...) Es un poco perverso, porque, en cambio, a la atención más comunitaria se le pide que demuestre que bueno... que esa reunión tendrá un impacto en no sé cuanta gente... pero bueno, justamente, lo comunitario tiene ese componente más de proceso a largo plazo” (E.1 Aditua).

“Además el neoliberalismo instaure también en las instituciones esa visión de eficiencia, que hace, por ejemplo, en el ámbito de las políticas sociales, rendir cuentas a los profesionales sobre el número de intervenciones, el tiempo de atención y etc. En vez de poner el foco en el tipo de respuestas. Esto nos lleva a un puro asistencialismo, ya que las profesionales cada vez cuentan con menos tiempo para la intervención o el acompañamiento” (E.7 Aditua).

Hori dela eta, dauden desabantailak edozelakoak izanda ere, maila guztietan erakutsi behar da norabide aldaketarako borondatea: “Hay que trabajar en eso, si quieren hacer un cambio hacia un modelo más comunitario”. Ezin da diskurtso hutsean geratu: “me da miedo que haya quedado como el título de moda, como pasa a menudo, que se fagocita el concepto, pero luego en realidad no ha cambiado nada” (E.1 Aditua). Eta gainera: “como cualquier tema importante, tiene que estar en la agenda” (E.2 Aditua).

Esandako guztiari lehentasuna eta behar duen besteko garrantzia ematea izan daiteke klabea: “de momento parece que no tiene el sentido de prioridad que debiera de tener” (E.3 Aditua). Horretarako, horrela antolatu eta planifikatu behar da, administrazio publikoak dituen erremintak erabiliz, gizarte-zerbitzu publikoak eta baliabide publikoak elikatutako bestelako gizarte-zerbitzuek komunitariotik gertuago dauden estruktura sustatu ditzaten.

“El trabajo comunitario tiene que generar compromiso político y que los políticos cuando están en el poder favorezcan el trabajo comunitario (...) que haya una concejala, un director general o una viceconsejera que se lo cree y que ponga presupuesto” (E.2 Aditua).

- Enkargua

Beharrizanak gero eta gehiago badira eta oinarrizko beharrizanak gora egiten badute, zailagoa bilakatzen da estrategia komunitarioa abian jartzea. Izan ere, gizarte-zerbitzuetako enkargua horiek betetzera mugatzen denez, gero eta beharrizan gehiago dauden heinean, errazago bilakatzen da estrategia komunitarioa bigarren mailako eginbearra (DDS, 2022).

Teorikoki argia da marko legalek adierazten duten mandatua, aldiz, praktikotasunean, hori horrela ez dela gertatzen ikusten dugu, finean objektuaren deskonexioa dago, arestian aipatu bezala, teoria eta praktikaren arteko distantzia handia dago. Direna izan beharko luketenera gerturatzea, ezinbesteko eginbearra da egungo ereduaren baitan. Komunitarioak izan beharko luketenarekin primeran enkajatzan du, baina ez ordea egun jardunean direnarekin (E.1 Aditua). Egunerokotasuneko inertziak goian landutako kanpo eraginek baldintzatuta, komunitarioaren ikuspegia lausotzen dute:

“Aunque hoy más que nunca se hable de lo comunitario como un elemento decisivo para cualquier avance social, corremos el riesgo de dirigir las estrategias y políticas sociales, que se están trazando para esta etapa de recuperación, hacia un diseño incremental y agregativo con la luz corta enfocada en lo urgente, lo sectorial, lo asistencial e individual” (Morín eta Blanco, 2022, 121. or).

Horrek bere arriskua du, baina adituen ustez, argi egon behar da gizarte-zerbitzuei egin beharreko mandatua zein markotan kokatu behar den: “La mirada comunitaria en la intervención individual (...) mirada de continuum de la atención entre la atención más individual y la participación de la comunidad”. Gizarte-zerbitzuek prozesuen akonpainamendua egin behar dute, komunitatearekin lan egin. Komunitateak beharrizanei erantzuteko duen eragina eta ardura onartu eta subjektu aktibo gisa ulertu behar da: “Ahí es donde se mueve el marco (...) en ese nexo que tiene el servicio social entre las personas y la comunidad”. Enkargu hori gainera, gizarte eskubideen testuinguruan mugitu behar dela gogorarazten dute adituek, eta maila politikoan zeregin bezala adierazten dute zera:

“A nivel político intentar delimitar bien el encargo de los servicios sociales y separar todo lo que es la cobertura material de las necesidades materiales de la intervención social, los derechos sociales y la garantía de esos derechos sociales, de lo que es el trabajo social o el trabajo socioeducativo” (E.1 Aditua).

Horretaz gain, mandatuaren aferan, garrantzitsua da udal mailako gobernuek egiten dituzten tokiko plan integral eta estrategietan ere gizarte-zerbitzuak egon behar dutela adieraztea, argi utziz, gizarte-zerbitzuek ere badutela zeregin komunitarioa eta lurraldean eragina izango duten erabakiak hartzen diren botere guneetan ere egon behar dutela:

“Situat a los equipos de servicios sociales en, por ejemplo, que tienen y deben participar en el plan local de juventud, porque eso también es facilitar su tarea comunitaria, ¿no?, en entender que tienen que participar de espacios estratégicos de coordinación de un territorio, eso también es facilitarlos. Entonces, se tienen que dar estas directrices y consignas a los equipos de servicios sociales, para que tengan un rol activo en los espacios profesionales y territoriales donde se toman decisiones sobre lo que está pasando, se hacen diagnósticos y se diseñan estrategias conjuntas. (...) tienen que saber que pueden aportar y esto es una consigna política también” (E.4 Aditua).

- Marko legal zein metodologikoak, aginduak eta planak

Elementu honetan, baliabide legal eta normatiboez mintzatuko gara, eta bi maila ezberdin identifikatu ditzakegu. Gizarte-zerbitzuen marko orokorrak definitzeko eskumena duten gobernu autonomikoen rola, eta oinarrizko gizarte-zerbitzuen ardura eskusiboa duten udal gobernuena. Lehengoaren kasuan, marko orokorra ematea da lana, horrek baldintzatu baitezake, esaterako, profesionalen gutxieneko ratioak, egon behar duten giza baliabideak etab. Horrek guztiak lan asistentzialaren kargan du eragina, eta baita gizarte-zerbitzuen antolaketa eta funtzionamenduaren birplanteamenduan ere. Beraz, marko orokorra, hots, gizarte-zerbitzuen legea norabide horretan, era ausart batean, jartzeak baldintzatzen du. Finean, aurreko elementu guztiak barnebilduko dituen marko komunak eraikitzeak berebiziko garrantzia du. Hala ere, udal mailan marko orokor hori lurreratzeko erremintak sortu daitezke, lana egiteko moduak, funtzionamenduak eta antolaketak horren mesedetan jarriz, plan estrategiko edo barne araudien bidez.

Parte-hartzeko eta komunitarioan sakontzeko mekanismoak jarri behar dira, pertsonen ongizatea sustatzera bideratuta dauden esperientzietan, alegia. Administrazio, sistema eta eremu ezberdinak planak, programak, legeak... sortu ditzakete orientazio komunitarioarekin, behin horiek sortuta, baliabideak eskaintzeko. Testuinguru eta baldintza instituzional egokiak bermatu behar dira horrelako estrategia bat martxan jartzeko, eta bide batez, aurreko elementuarekin lotuz, gizarte-zerbitzuek sistema bezala ere, bere rola identifikatua izan beharko lukete: ¿Cuál es la misión de los servicios sociales?, ¿Qué es lo que deben hacer? Y... ¿el plan estratégico y la ley así lo define?” (E.4 Aditua). Behin hori zehaztuta, politika publikoak eta gizarte politikak horretara

bideratu eta noranzko horretan sortu behar dira estrategia komunitario kolektibo eta partekatuak eraikitze aldera: “Los tiempos burocráticos que provocan que la aprobación de presupuestos, acuerdos marco, protocolos, etc. se dilaten perdiendo fuerza y la confianza de los actores participantes o promotores” (Morín eta Blanco, 2022, 122. or).

Komunitarioan sakontzeko estrategiak bultzatzeak maila normatiboan ere aldaketa batzuk ekarri beharko lituzke (Martinez eta Perez, 2018). Lege teorikoenetatik praktikoenetaraino, hori bermatu eta sustatzea garrantzitsua da, eta profesionalentzat baliabide izan daitezkeen zenbait euskarri sortzea ere ezinbestekoa. Beharrezkoa da, beraz, gizarte-zerbitzuen izaerari heltzea, beren xedea jada onartuta duten definizioan, zerbitzu horiek komunitatean duten zeregina sendotzeko sistemak eta arau esparruak ezarriz (Santás, 2022). Gure kasuan, legeak komunitarioan sakontzea babestu dezakeen arren, ikusi ahal izan dugu ez dela berdin gertatzen zerbitzu zorroarekin, eta horrenbestez, gisa horretako marko normatiboak eraldatu eta estrategia honetara egokitzea ezinbestekoa da.

“El constreñimiento del marco administrativo-institucional y de los procedimientos impiden el desarrollo de estrategias complementarias o el impulso más comunitario de las políticas públicas y la intervención social” (Morín eta blanco, 2022, 122. or).

Lehenagoko atalean ikusi dugun bezala, legeak ez dira behar besteko konketuak komunitarioari dagokionez. Legeak oso orokortuak dira eta zaildu egiten du zer eta nola egin behar den ulertzea (DDS, 2022). Gainera, ez dira oinarritzko gizarte-zerbitzuetarako espezifikoak diren eta hauen ezaugarri propioak kontuan hartuta estrategia komunitarioa marraztuko dituzten markoak sortzen. Marko legalen, plan estrategikoen edo euskarri metodologiko teknikoen sorrera ezinbestekoa bada ere, orokorrean ditugun markoak teorikoki ez dira hutsak, badute dimentsio komunitarioan sakontzeko aukera, baina ez dituzte prozedurak eskaintzen, beraz, erremintarik ez dagoenez, asko zailtzen da garapena:

“La mayoría de las leyes, yo diría que casi todas, tocan algo, pero ninguna plantea, qué es, en concreto, la red comunitaria. (...) No tienen estructuras relacionadas cotidianas con el resto de actores que están en el territorio para el análisis, diagnóstico, planificación, ejecución y evaluación de procesos de intervención que hacen los servicios sociales, ¿no?. Entonces, yo creo que aunque todo esto está enunciado en las leyes, no se plantean estructuras sólidas de trabajo, como podrían ser, por ejemplo, las referencias comunitarias o cuestiones de este tipo” (E.3 Aditua).

- Baliabideak

Ezinbesteko kontua da inbertsioarena, inbertsiorik gabe eta apusturik gabe ez baitago lan komunitarioa egiterik (Morín eta Blanco, 2022, 123. or). Benetan sinetsita, esfortzu handia, gogoia eta aurrekontua behar ditu horrelako apustu batek. Baliabide pertsonalez hitz egin dezakegu, zehazki, baliabide pertsonalak zenbat eta zeren mesedetan jartzen diren; baliabide tekniko metodologikoak, elkarlanerako estrukturalak edo legalak, aurreko elementua aipatzean zazaldu ditugunak; baina baita baliabide materialak ere: espazioak, guneak etab.

“Hay que delimitar bien el encargo y hacerlo explícito”. Horrek hainbat baliabide norabide horretan jartzea eskatzen du, eta hori ahalbidetzeko ekintzak egitea, esaterako, “aligerar de esa carga burocrática a las profesionales” (E.1 Aditua). Aldaketa eman nahi bada ordea, erakundearen partetik, ezinbestekoak dira gizarte-zerbitzuei baliabideak eta akonpainamendua eskaintzea. Baina, hemen elementuak elkar eragiten dutela onartuta, arriskua dago, izan ere, ez bada dimentsio komunitarioz mintzo garenean konkretuki zertaz ari garen zehazten, baliabideak ere nahasi egingo direlako. Aldaketa estrukturalak eskatzen ditu horrelako planteamendu batek, eta baliabide material edo pertsonal konkretu batzuk baino, hauen funtzioen eta antolaketaren eraldaketa eskatzen du, gero, dimentsio tekniko elementuetan gehiago zehaztuko dugun bezala.

- Ideologia

Kolore politikoaren arabera aldatu daitezkeen faktoreak dira aurreko guztiak. Izan ere, ideologia batzuk beste batzuk baino enpatikoagoak dira horrelako estrategiekin, hauen baloreekin bat egin dezaketelako: “Depende el color político se está viendo un avance o un retroceso” (E.1 Aditua), hala ere, toki eta unean boterean dagoen pertsonaren ideologiaren arabera ere baldintzatzen da komunitarioa (E.4 Aditua).

Orokorrean, ildo politikoak baldintzatzen duela esan dezakegu, izan ere, eskuina edo ezkerraren artean egiten dugun bereizketa, beste gauza batzuen artean, gizartea eta bere funtzionamendua ulertzeko paradigmaren arabera egiten dugu, egiten den analisi sozialaren arabera, alegia. Paradigma kritikoetatik hurbilago dago komunitarioa, eta hori horrela izanik, egiten den analisiak eragina dauka:

“¿Cómo entendemos al otro, a la otra y qué visión del mundo tenemos?, ¿Lo entendemos desde esa visión más colectiva o desde una visión más individualista? El mundo y también los problemas sociales, la configuración de las

desigualdades, ¿no? (...) Si estás pensando, de alguna manera, que una situación de vulnerabilidad, es de alguna manera, porque no han sabido tomar buenas decisiones en su vida... y eso, estás entendiendo que los problemas sociales son personales e individuales y se interviene como si lo fueran o si tienes claro que el problema es social, porque viene de causas sociales y se incorpora también esa visión en la intervención” (E.1 Aditua).


Errealitatea irakurtzeko hautatzen dugun paradigmaz haratago, komunitarioan sakontzeko estrategiek norbanakoa harreman sarean ulertuz egin behar da: “En el fondo nos remite a que el ser humano es individuo, pero es siempre relacional, comunitario o social” (E.2 Aditua).

Ildo ideologikoak zerikusia duela ikusi dezakegun arren, garrantzitsua da komunitarioaren aldeko apustua adostutako eta konpartitutako apustua izatea, bestela, udalaren ildo politikoarekin bat etortzen ez bada, erortzeko arriskua izango du agintaldi batetik bestera. Udaletan kontsentsu bidez erabakitako apustua izatea komeni da, eta baita gainerako sarearekin ere, Marchionik aipatzen zuen entzuteko ariketaren bidez (E.3 Aditua).

“La gestión de los cargos electos, que al actuar con perspectivas partidistas, normativistas, clientelistas, etc. impiden el funcionamiento de medios o canales para la colaboración interinstitucional o para incorporar procesos de debate y participación amplios” (Morín eta Blanco, 2022, 123. or).

Aurreko guztia ikusita, amaiera bezala, azpimarra egin gurako genuke elementuetako bakoitzak beste elementu batzuetan daukan eraginean. Azpiko elementu baldintzatzaileen laburpena biltzen duen irudian ikusi daitekeen bezala, elementuak elkar eraginean daude. Hala ere, gezien kolorearen eta norabidearen bidez, elementuetako bakoitzak zein beste elementuetan eragiten duena argitzen da, nahiz eta gezien kopurua eta gurutzaketen matazagatik antzematen den asko direla elkarren arteko influentziak. Bide batez, dimentsio politikoak, bere osotasunean, dimentsio teknikoan eragiten duela gogoraraziz bukatuko dugu atala.

10. Irudia: Dimentsio politikoko elementu baldintzatzaileen arteko eragina



Iturria: Norberak egina.

Dimentsio teknikoa

Dimentsio teknikoa barne dimentsioaren hiru dimentsioetako bat da. Honetan eragin daiteke, hein baten soilik bada ere. Honela bada, ekipo profesionala osatzen dutenengan eta gizarte-langileengan ere egon daiteke elementu edo faktore batzuk komunitarioa ahalbidetzeko bidean jartzea. Kasu honetan, aurrekoetan bezala, elementu baldintzatzaileak elkarerraginean daudela ikus dezakegu, batak bestearengan zuzen zuzenean eragiten duela. Ez hori bakarrik, baizik eta dimentsio politikoko zenbait elementu errepikatu ere egiten direla ikus dezakegu, nahiz eta kasu honetan, beste ñabardura batzuetan azpimarra egin. Esan bezala, beraz, dimentsio teknikoa oinarrizko gizarte-zerbitzuetako talde profesionalaren baitan eta tokian tokiko oinarrizko gizarte-zerbitzuen baitan mugitzen diren elementuen multzoari jarri diogun izena da. Ondorioz, presezki, elementu hauen garrantzia azpimarratu gura dugu, izan ere, “los servicios sociales no solo tiene que salir de sus centros y edificios sino de su estructura mental” (Santas, 2022, 7. or) eta horrenbestez, profesionalki edo teknikoki egiten dugun guztiak erabat baldintzatu dezake edozein planteamentu komunitario egitea.

- Komunitarioaren kontzeptualizazioa

Lehenengo elementu teknikoari erreparatuz, ohartu gaitezke, kasu honetan ere, komunitarioaren kontzeptualizazioaren faktorea identifikatu dugula. Atal teorikoan zein lan guztian zehar aipatzen gabiltzan bezala, gizarte-zerbitzuetako profesionalen artean ez dago argi zer den dimentsio komunitarioa indartzea eta ezta ere zer den, zehazki, komunitateko gizarte-langintza. Elementuen atal honen hasieran aipatu dugun bezala, gutxienez, bi ikuspuntu badaude: batetik, indibiduala eta taldekoarekin batera egin daitekeen esku-hartze motan oinarritu daitekeena, eta bestetik, prozesu itxura duen ahalduntze ildo estrategikoa (E.2 Aitua).

Gizarte-zerbitzuetako komunitarioaz mintzo garenean ez gara ari ekintza soilez, errezeta itxura duten mintegi solteez edo taldeko kutsu batekin oinarritzko gizarte-zerbitzuetatik eskaini daitezkeen baliabideez, baizik eta prozesu estrategikoez, zeharkakotasunez egiten diren prozesuez: “La intervención comunitaria no es una mera, dijéramos, un mero formato o metodología, sino que es un verdadero enfoque, una verdadera visión filosófica” (E.2. Aitua).

Ez dago argi zer den komunitarioa, ez dago profesionalen arteko adostasunik ezta hiztegi komunik ere. Beste era batera esanda, ez dago kontsentsu bat, komunitarioari buruz hitz egiten dugunean zeri buruz ari garen zehatzeko. Egun, estrategia komunitarioa bat garatzea bulegoetatik kanpo egiten den lan soila baino askoz gehiago da, eta hala ere, oraindik ikuspegi horrekin jarraitzen da. Egiten diren hainbat lan ez dira komunitario bezala kontuan hartuak, aldiz, egiten diren beste batzuk hala hartzen dira, nahiz eta horrela ez izan: “hay el riesgo de asociar lo comunitario con desarrollar proyectos y actividades y no verlo también como una estrategia de intervención en el territorio, planificada y coordinada” (E.4 Aitua).

Komunitarioaz mintzo garenean zeri buruz mintzo garen adostea eta hiztegi komun bat eraikitzea garrantzitsua da. Horren inguruko talde lanketek imajinario kolektibo bera eraikitzea eramaten du, eta komunitarioako lan marko eta ekintzak zehaztera. Begirada ezberdinen arteko lanketa izanik, komunitarioari buruz dugun ikuspegia zabaltzea ekarri dezake, eta aukera eta estrategia ezberdinak egon daitezkeela ohartu gaitezke (DDS, 2022).

Orain arte komunitarioaren arloan egindakoaren autoanalisi eta hausnarketa egiteak lagundu dezake, modu horretara egindakoa baloratu baitaiteke. Komunitarioki lan egiten

ari garela diogunean, eremuak eta helburuak identifikatzeak daukagun maila komunitarioa edo intentzionalitateari buruz pentsatzea ahalbidetu dezake. Hausnarketa honek, ustez egiten dugun lan komunitarioa lan komunitario bezala izendatu daitekeen edo ez jakitera eramango gaitu, edo horren ordeztan, talde lana edo sare lana bezala definitu daitezkeen.

Aldi berean, garrantzitsua da egin nahi duguna definitzea eta gure zerbitzuaren ezaugarriengatik noraino heldu gaitezken zehatzea. Horrela, lan plangintza bat garatu daiteke eta aurrerapausoak finkatu epe motz, ertain eta luzera, eta oinarri bat izan daiteke maila tekniko-politikoan adostasunak bilatzeko. Gainera, tokiko gobernuarekin eta beste departamentu batzuekin edo gizarte ehunarekin partekatzeak estrategiak aliatzera eraman gaitzake.

- Enkargua eta apustua

Enkargua da dimentsio politiko eta teknikoaren artean dagoen lehengo lotura elementua. Aurrez, dimentsio politikoan azaldu dugun bezala, apustua, legedia, baliabideak etab. enkargu komunitarioa sustatze bidean jartzea garrantzitsua da. Honen inguruan, oinarrizko gizarte-zerbitzuei enkargua argia egitea politikotik datorren, baina teknikoa erabat markatzen duen elementua da. Enkargu politikoaz gain, garrantzitsua da oinarrizko gizarte-zerbitzuetako ardura duen pertsonak, koordinatzaileak edo buruak, enkargu hori taldera helaraztea, sinestea eta noranzko horretan arraun egitea.

“Tienes que encontrar cuál es tu objeto, porque si los servicios sociales no sabes de qué se ocupan, no pueden hacer acción comunitaria (...) yo creo que los actuales servicios sociales, sin girar en su visión, no llegarán a hacer nunca nada comunitario (...) no es que no hay nada que hacer, pero hay que seguir intentándolo por todas partes: metodológicamente, formativamente, políticamente, legislativamente” (E.2 Aditua).

Mandatua, kanpo faktoreek asko baldintzatzen duten zerbait da. Politikoki errazagoa izan daiteke oinarrizko gizarte-zerbitzuek zer egin behar duten esatea, bai behintzat, era filosofikoago batean, baina gero, teknikoki, zuzeneko arretaren inertzian, kanpo faktoreek eta egoera soziopolitiko zein sozioekonomikoek guztiz baldintzatzen dute egin beharreko esku-hartzea eta jarduna. Hori dela eta, garrantzi berezia du enkargua argi izateak eta enkargu hori benetan bete dadin baliabideak jartzea eta ahalbidetzea. Aipatu berri duguna, kontzienteki egin beharreko lan bat da, osterantzean, inertzien beste norabide batera eramango dutelako oinarrizko gizarte-zerbitzua.

Komunitarioari heldu nahi izanez gero, enkargua hurrengoan izan liteke:

“Los servicios sociales tendrían que dedicarse a reconstruir desde la base las comunidades y experimentar nuevas reglas de juego (...) intentar nuevas comunidades, nuevas formas de vivienda, de convivencia, de espacio público, de relaciones (...) Hay que inventarlo todo, porque un mínimo de encarnadura relacional es necesaria para que funcione la sociedad (...) dejar de invertir tanto en labores que no tienen ninguna aportación de valor añadido e invertir en esto podría ser interesante” (E.2 Aditua).

Auzo batean, dinamika komunitario batean, plano politikora heltzen saiatzea da gakoa, eragin politikoa lortzea. Aitzitik, hurrengo elementuan sakonduko dugun bezala, arreta ereduarekin erlazionatuta dago. Izan ere, intzidentzia politikoa egitera edo eraldaketarantz bagoaz, ezin gara geratu soilik oinarrizko beharriaz asetzeko lan asistentzian.

“Diría que ahora tenemos que empezar por ahí abajo, o sea, que creo que las familias, los vecindarios, la gente que comparte un mismo problema, las familias que van al mismo centro educativo... ahí es donde tendríamos que estar, como a nivel muy básico, muy primario, muy micro, ayudando a hacer vínculos que de lo contrario no existen” (E.2 Aditua).

“El trabajar para acompañar y sensibilizar hacia la participación más comunitaria, haciendo incapié en que los problemas tienen una raíz social y colectiva” (E.1 Aditua).

Hitz gutxitan laburbilduz, halaber, maila politikoa eta teknikoa lotzen dituen lehen gauza mandatua da, hau da, tokiko erakundeetan agintean dauden politikariek gizarte-zerbitzuei egotzen dioten eginbeharra edo zein mandaturen ardura hartu behar duten adieraztea. Horren arabera eraikiko da ondoren datorren guztia, bai gizarte antolaketa, baita lan egiteko era, formazioa etab.

“Los servicios sociales nacieron con el objetivo de superar el marco de la beneficencia del periodo predemocrático y, por tanto, de incrementar un modelo de actuación preventiva y comunitaria. Sin embargo, el desarrollo incrementalista de recursos y prestaciones relegó el mandato comunitario a un segundo o, más bien, a ser un tema en continua procrastinación en muchos casos sin que éste haya desaparecido del encargo institucional, de la narrativa de sus principios rectores” (Santás, 2022, 1. or).

Gauzak horrela, gaur egungo gizarte egoeren konplexutasunak eta gizarte-zerbitzuen erronek bultzatuta, oinarrizko gizarte-zerbitzuen mandatuaren norabidea aldatu beharra sumatzen da, eta esan genezake adostasuna dagoela horretan. Talde lana bultzatuko duten ekintzen mandatu argia beharrezkoa da, hau da, esku-hartze kolektiboan eta gizarte-langintza komunitarioan oinarrituz praktika integralagoak ahalbidetuko dituen (Marinez eta Perez, 2018).

“La pandemia ha producido un shock en el que los servicios sociales han sentido la necesidad –y, a la vez, oportunidad- de reinventarse, y se han encontrado de

bruces con, nuevamente, el mandato comunitario (...) Los servicios sociales, competentes y oportunos para ello, deben organizar sus modelos de desarrollo en favor de la intervención social en un sentido amplio: individual-familiar, grupal y comunitario, autoorganizando sus efectivos y dinámicas de manera que pueda desempeñar el mandato de la cobertura de necesidades individuales-familiares vinculada con la autonomía, sin abandonar la otra pata de su objeto: lo relacional” (Santás, 2022, 4. or).

Komunitarioak sakontzeko, ezin zaie gizarte-zerbitzuei krisi estrukturalari edozelan erantzutea eskatu, eta esan dugun bezala, mandaturen noranzkoa aldatu behar da:

“Se ha esperado que se le diera desde los servicios sociales respuesta a una crisis estructural que era imposible que se diera respuesta (...) en lo comunitario se trata más de generar espacios de oportunidad, de escucha activa y colectiva de lo que pasa, de generar reflexión y aprendizaje colectivos, sobre todo eso. Concienciación y a partir de ahí generar respuestas y no estar dando, pues cheques, alimentos y todo eso, entonces, la dimensión colectiva no es algo añadido” (E.1 Aditua).

Aurreko guztia kontuan izanda, ezinbestekoa da berrasmatzea, bai gizarte-zerbitzuek dituzten baliabideen inguruan, baita beren funtzioen inguruan ere. Bide horretan, interesgarria da komunitarioarekin gure enkargua bete dezakegula ikustea:

“¿En qué te puede ayudar el trabajo comunitario, la dimensión comunitaria para dar respuesta a esa misión? Estamos haciendo un cambio de chip, en el sentido de no decirle a los servicios sociales que tiene que hacer comunitario, sino plantear algo distinto. ¿Cómo la estrategia de abordaje comunitario te puede ayudar a dar respuesta a tus objetivos de tu misión de servicios o de organización, junto con otros niveles de intervención? (...) Es más que entender lo comunitario como algo a parte y cómo lo integramos en ese continuum de intervención para dar respuesta a esa misión” (E.4 Aditua)

“Disponer de un encargo comunitario permite saber qué hacer cuando decimos que queremos “hacer comunitario”, garantizar que sea una estrategia de equipo y evitar que se trate de tareas inconexas repartidas a profesionales concretos y, lo más importante, identificar las implicaciones organizativas que habrá que atender si queremos hacer efectivos esos encargos” (DDS, 2022, 59. or).

Bukatzeko, nolanahi ere, argi utzi behar da hurrengo elementuetan ikusiko dugun bezala, enkargua tokiko beste eragile batzuenarekin osagarria izan daitezkeela eta izan behar duela, ez gizarte-zerbitzuena soilik:

“Para desarrollar esta estrategia en un territorio, hay como distintos profesionales y actores que tienen encargos comunitarios y hay que hablar de complementariedad de encargos, ¿no? Porque si la idea es que los servicios sociales tienen que desarrollar toda la tarea comunitaria... vamos mal” (E.4 Aditua).

- Arreta eredua

Enkargua norabide komunitarioan jartzearekin batera arreta eredua ere eraldatu behar da, aurreko elementu baldintzatzailea aztertzean hainbat alditan aipatu dugun bezala. Arreta eredua ere, komunitarioaren mesedetan jarri beharra dago. Hori dela eta, aurreko elementuan landu dugun mandatua teorikoki gizarte-zerbitzuak izan beharko luketen mandatu huts izatetik, praktikotasunean den mandatua izatera pasatzeko, arreta ereduan eragin behar da (E.1 Aditua). Gizartearen eraldaketarekin eta komunitateek lehen eta orain izan dezaketen roletik abiatuta, egun gizarte-arazoei erantzuteko modua ere aldatu egin da.

Gizarte-zerbitzuen atal teorikoan ikusi dugun bezala, egun, oinarrizko gizarte-zerbitzuetatik, gehientsuenetan, baliabide ekonomikoekin eta banakako zein familiako arreta mailaren bitartez erantzuten zaie askotan, eta gizarte-zerbitzuetako profesionalek teknikoki eskaini dezaketen balio erantsia bigarren maila batean geratzen ari da. Baliabideetan eta batez ere ekonomikoetan oinarritutako egiteko modu horrek, ezinbestean komunitarioan sakontzea oztopatu dezake:

“Entonces, la mayoría de las trabajadora sociales están haciendo un trabajo que no tiene ningún valor técnico, (...) Han ido deformando los servicios sociales a base de objetivación, burocratización, claro... en ese contexto, hablar de comunitario es una utopía, si ni siquiera se hace intervención o un cierto acompañamiento” (E.2 Aditua).

Kanpo dimentsioak aztertzean ikusi dugun bezala, testuinguru sozioekonomiko eta soziopolitikoak ez du laguntzen gizarte-zerbitzuen estrategia aldaketa honetan. Makro eskema horiek eragiten dituzten gizarte ondorioak direla eta, presio asistentzial zein burokratikoak, margen gutxirekin uzten ditu lan taldeak. Komunitarioak ordea, honen guztiaren aurka, pentsatzeko eta hausnartzeko espazioa beharrezkoa du, hots, gogoeta egiteko tartea edukitzea nahitaezkoa da:

“Requiere de un cierto tiempo de parar, pensar y analizar, qué es lo que te está llegando a tu despacho en el día a día y cómo puedes abordarlo de una forma distinta a la que lo estás haciendo habitualmente. Entonces, este tiempo mental y físico para parar es importante y como influye el día a día de la presión asistencial es crucial” (E.4 Aditua).

Mandatuari erantzungo dion arreta eredua aldatzea ordea, ez da soilik botere politikoan dauden pertsonen apustua izan behar. Hurrengo elementuan sakonduko dugun bezala, koordinatzailea edo oinarrizko gizarte-zerbitzuen buruz gain gainerako profesionalek ere

hori sinistu eta horretan ekiteko nahia izan behar dute, beren esku ez dauden beste gauza asko horren mesedetan jartzeaz gain:

“Yo si que pienso que del mismo modo que el tema del dinero se podría resolver mucho más fácil, por otro lado, el tema relacional, soledad, cuidados, sí requeriría más personal, más cualificado, es decir, que ahí hay futuro. Pero me llevé chasco porque ingenuamente yo pensaba que el día que sacamos la RGI de los servicios sociales, las compañeras iban a cerrar los despachos, iban a salir a la calle, iban a participar con la gente, pero no, siguieron en la misma hora, con la misma mesa, haciendo trámites”

“¿Todavía podría haber trabajadoras sociales que se acuerden de cómo era cuando no tenían prestaciones? ¿Los recursos en base al tipo de demanda que tienen? Pues yo creo que no, porque hay gente que ni siquiera lo ha vivido. Yo creo que en este sentido está complicado, porque además es un discurso, un poco de autoengaño el de: yo haría comunitario si tuviera tiempo” (E.2 Aditua).

Goiko esaldi horren bidez, ikus dezakegun, ez dela nahikoa baliabide horren guztiaren mesedetan jartzea. Elementu garrantzitsuak badira ere, eta noski, beste horren guztiaren mesedetan jartzea ezinbestekoa bada ere, profesionalaren hautuaren arabera, komunitarioan sakontzea posible izango da edo ez. Profesionalek ere apustua egin behar dute, sinetsi egin behar dute, eta egiteko nahia izan behar dute hurrengo elementuan sakonduko dugun bezala. Honek guztiak jarrera proaktiboa edukitzera eraman behar ditu gizarte-langileak eta eskari batekin datozen pertsonak artatzeaz haratago ere egitekoak daudela presente izan. Modu indibidual-familiarrean bakarrik lan egitetik jauzia eman behar da komunitarioan sakondu gura bada:

“¿Desde dónde está atendiendo la profesional? Como... ¿desde esa separación con la persona atendida? Pensando que es algo que a mí no me va a pasar (...) romper con eso y reflexionar sobre esto es importante y también sobre el propio equipo en relación con la comunidad, porque formamos parte de esa comunidad y somos un agente importante. No sólo estamos recibiendo a personas que vienen con una demanda, sino que podemos ser proactivos y debemos ser proactivos y articular. Creo que es muy propio de los servicios sociales, articular la comunidad alrededor de esas necesidades, de esa problematización que está pasando en el territorio, que no es una suma de necesidades. (...) Acompañar este paso de la visión individual del problema o de esa necesidad a una visión más colectiva y también más proactiva. (...) Eso también es acompañar a sensibilizar esa dimensión de que lo que pasa a uno nos pasa a todos, que lo que le afecta a uno, nos afecta a todas y las soluciones pasan por organizarnos entre todos y todas y aprender a funcionar colectivamente ” (E.1 Aditua).

Hari horri tiraka, nahiz eta kanpo faktoreek gizarte-zerbitzuen arreta eredua baldintzatzen duten, badaude modu komunitarioan beharizanak asetzeko moduak. Gainera, gizarte-eskubideak beramtuta egotea zein horien aldarrikapenerako espazio bat ere gure arduraren izan daiteke, gizarte-beharizanak asetzearen garrantzia ahaztu gabe (E.1 Aditua):

“no podemos dejar que la persona solo acuda a las instituciones, no se puede pensar así. Para ejercer derechos el nivel comunitario es clave, es lo que hace de enlace entre la persona y los recursos institucionales, que son su derecho. Si no hay trabajo comunitario, las personas más vulnerables se pueden quedar sin ejercer sus derechos por falta de recursos y accesibilidad” (E.6 Aditua).

Konklusio gisa, horrek zera adierazten digu: aurreko gakoak arreta ereduaren elementu baldintzatzailea zerbitzuaren eta lan taldearen elementuarekin erabat lotzen duela. Horrenbestez, komunitarioan sakondu eta praktikara eramanez bada, “hay que configurar el servicios desde que recibes la demanda hasta que cierras el caso”. Arreta eredu iraultzeak, gure jardun profesionalen aldaketa egitea suposatzen du, eta horretara egokitu behar dugu gure jarduna eta zerbitzua ere:

“Posibilitar que allí pasen otras cosas que no sean sólo entrevistas individuales, permitiendo que haya agentes, que los agentes del barrio y los recursos del barrio tengan algún tipo de incidencia por ahí o tú puedas informar o vincular a personas con personas concretas del barrio que sabes que están haciendo cosas que pueden ser interesantes para la personas, reconociendo las potencialidades de la misma y mirar cómo la puedes vincular o cómo puede aportar a la comunidad” (E.1 Aditua).

- gizarte-langintzaren ideologia eta hautu epistemologikoa

Ikusi berri ditugun enkarguan eta arreta ereduaren zein ondoren ikusiko ditugun gainerako elementuetan eraginez gero, komunitarioa errazteko ahaleginean jarri ditzakegu. Hala ere, nolabait gizarte-langilearen edo profesionalaren hautu ideologiko-epistemologikoen, borondatearen eta prestutasunaren menpe geratzen da hauek egikaritzea edo gauzak dauden moduan mantentzea.

“La intervención depende de tu intención epistemológica, técnica, metodológica e ideológica de para donde quieres enfocar tu trabajo y tu intervención. Ese nivel analítico de la realidad. La intervención se articula de manera relacional y crítica. Lo epistemológico, lo instrumental y lo ético-político son la base de la matriz que sirve para trabajar” (E.5 Aditua).

Dimentsio politikoaren atalean ideologiari buruz hitz egin dugunean zein marko teorikoan komunitateko gizarte-langintza lantzean, ikusi ahal izan dugu komunitarioaren zentzua, batez ere, paradigma kritikoaren baitan kokatzen dela: “en decisiones de los profesionales sobre el modo de conocer la realidad y de afrontarla” (E.3 Aditua). Honen baitan, planteamendu komunitarioak errazte aldera, garrantzitsua da arazoaren jatorriak indibidualak ez direla ikustea, erroa gizartean dagoela eta estrukturalak direla ulertzea. Izan ere, horrela bakarrik ikusi dakiogeko zentzua komunitarioki ere jarduteari. Analisi kritikoa komunitarioaren gakoetako bat da, eta arazoak estrukturalak direla konpartitzen badugu, modu horretara erantzutea ezinbestekoa dela ulertu dezakegu: “Acompañar a las

personas a la comunidad, a espacios más colectivos que permitan incidir en ese problema junto con otras personas que están en la misma situación o tienen capacidad de resolverlo”. Horretarako, norbere ideologia ezinbestekoa da. Maiz, ideologiaren aferak kutsu negatiboa izaten du, baina alderantziz ulertu beharko genuke, eta jakin, horri esker, komunitarioan sakontzeko eta beste era bateko praktika profesionala egiteko hauturako osagai garrantzitsua dela:

“Si no hay una reflexión crítica por parte de los profesionales es porque están mirando desde unas gafas determinadas, ¿no?. Si no incorporas esa dimensión ideológica en la intervención final, estarás haciendo una intervención reproductora de desigualdades, estigmatizadora, que estará reposnabilizando a la persona de lo que es un problema social, que en realidad es estructural” (E.1 Aditua).

Sinistu egin behar da komunitarioa estrategikoa dela, epe ertain luzeko gizartearen ahalduntze prozesua. Horrek boterea herritarrekin partekatzea dakar, eta ezinbestean, herritarra ahalduntzeko profesionalak bere posizioagatik duen boterea askatu, edo gutxienez, partekatu behar du. Finean, profesionalak bere inertziak deseraiki behar ditu, hein batean, boterea “galdu” behar du herritarrak hartu dezan, norbere bizitzan eragiten duten erabakiak hartzeko elkarlanetik hasi eta inguruan eragiteko gaitasuna eskuratu arte:

“Mientras la gente piense que su trabajo es como administrar unos recursos o prestaciones que ya están establecidos, esta valoración de dependencia, no sé qué y tal.. ¡no! Perdóname, si es que a ver, si tú piensas o entiendes cuál es tu contenido prestacional o sea, ¿qué pasa? ¿Qué tiene que aportar a esa persona? Podrás pensar en dinámicas comunitarias que hicieran que la vida de esa persona sea más rica”.

“Que la gente llegue a la política, a tener una ideología y a luchar por su comunidad partiendo de algún tipo de experiencia (...) Las metodologías de desarrollo comunitario van a eso, ¿no? A que la gente adquiera capacidad de agencia política, entonces, en el fondo, ¿qué es primero? Que el trabajo comunitario genere compromiso político” (E.2 Aditua).

Gainera, jada tokian toki antolatuta dagoen herritarrekin batera lan egitea eskatzen denean, ezin dugu gure boteretik hitz egin. Era parekide batean eman behar da elkarlana, horizontaltasunez eta guztiek botere eta legitimitate beretik ekin behar diogu: “tiene que haber una revisión personal importante sobre tu sistema de creencias, desde dónde estás hablando, cuestionarte desde dónde tú estás valorando cada situación” (E.1 Aditua). Gure parametroak alde batera utzi behar dira eta botere harremana elikatu dezaketen elementuez kontzientzia hartu (jatorria, kokapen sozioekonomikoa), posizio parekide batetik komunitarioa egin ahal izateko.

Hor ere, badago erakundeak herritar antolatuekiko (modu nabarmenagoan, gizarte mugimenduekiko edo elkartegintza informalekiko) izan dezakeen botere harremanaren isla, alabaina, lurraldeko gizarte-ongizatean subjektu aktibo gisa ulertu zein ahalduntze prozesuak eman behar dira boterea profesional instituzionaletatik herritarretara transferituz: “nuestro proyecto podría ser no tener proyecto y apoyar proyectos que estáis haciendo vosotras y vosotros” (E.3 Aditua). Bide horretan, ezin da aditu roletik agindu edo gidalerrorik inposatu. Kontrara, ondo ulertu behar da akonpainamenduaren figura, pertsona edo kolketiboi dagokien boterea eta autodeterminazioa gaitasuna errespetatuz. Gakoa hau izan daiteke: “cómo apoyar el espacio de informales para construir capital social” (E.3 Aditua).

Ezin da gizarte-langintzarik egon, protagonistek ezin badute beren bizitzaren eta komunitatearen garapenean zuzenean parte-hartu. Horrelako ikuspegi politiko-etikoekin lan egitea ezinbestekoa da dimentsio komunitarioan sakondu gura bada (Complutense, 2021), izan ere, “las profesionales también tenemos poder y por lo tanto, tener poder tiene una dimensión política” (E.3 Aditua). Komunitarioaren aldeko apustua gizarte-langilearena ere izan behar da, eskatzen duen inplikazioagatik, eskatzen duen esfortzuagatik eta indibidual asistentzialetik haratago joateak bere baitan hartzen duenagatik. Horretarako prest egoteak jardun profesionala eraldatzen du: “No es una cuestión de cómo hago esta cosa o qué metodología o nivel ¿no?, lo veo así porque sino es una palabra bonita, comunitario, suena bien, pero... usted, ¿esta dispuesta a lo que supone?” (E.2 Aditua). Konpromiso pertsonal ezinbestekoa da komunitarioa praktikara eramateko. Komunitarioarako motibaziorik gabe egin ezin daitekeen lana da eskatzen duen exigentzia dela eta (Santas, 2021).

“Es importante qué tipo de relación tenemos las profesionales con la gente (...) en los 80-90 a la gente que trabajábamos en los servicios sociales que no eran de nuestro barrio, no se nos ocurría no pasarnos por la velada del barrio donde trabajábamos, porque entendíamos que esa era una parte tuya (...) era muy característico y tener un momento informal de conexión con la gente con la que estabas trabajando, eso era un lazo que hoy es muy extraño. (...) Ahora, evitamos ir al barrio donde trabajamos, porque están los padres y niños del colegio y etc. Y justo lo comunitario va un poco en la lógica contraria. (...) Este es un indicador que tiene que ver con el modo en el que hemos construido también nuestra relación personal, nuestra identidad profesional, el diálogo entre nuestra identidad profesional y la identidad como sujetos que vivimos en el mundo, que ahora es diferenciadora. Hemos visto que organizamos nuestra mente y nuestra vida cotidiana en compartimentos cada vez mas estancos y desconectados unos con otros” (E.3 Aditua).

Eztabaida hau ere ematen da gizarte-zerbitzuetan eta komunitariorako garrantzitsua da, esan dugun bezala, inplikazioa erantsia eskatzen duelako. Hala ere, honek ez du esan nahi, komunitarioan sakontzen gabiltzalako lanerako bizi behar dugunik. Are gutxiago, hamarkada batzuek egiten den lana erromantizatuz, hori bera egitera joan behar dugunik:

“Es un debate interesante en los servicios sociales (...) la gente te dice: “tú qué me estás planteando, ¿que dedique toda mi vida a los servicios sociales?” y claro que no. Que vayas a tomar una cerveza o que un día tengas que ir por la tarde para hacer algo, no implica que tengas que estar hiper disponible, pero sí que tengas claro que tu trabajo no se ajusta a una jornada de una función, sino a un sentido de intervención social” (E.3 Aditua).

Bukatze aldera, ondorio gisa ikus dezakegu, estrategia komunitarioak apustu pertsonal handia eskatzen duela. Gainera, lan taldea osatzen duten profil ezberdinen aldetik, bai koordinatzailea, zuzendari eta gizarte-zerbitzutako profesionalen partetik ere. Borondatea, konstantzia eta esfortzua eskatzen du, izan ere, ez da beti aldeko bidea izaten. Ez da behar besteko babesa izaten, inertzien aurka egitea eskatzen du, eta horrek zaildu egiten du bidea (DDS, 2022).

“Dicha noción (planteamiento relacional) en las trabajadoras sociales fundamenta las decisiones en la relación con las personas y da cuenta de la reflexión que construye el eje ético-político de la profesión. Es decir, dicha construcción sólo es posible desde los procesos organizativos y reflexivos vinculados a estas acciones y con el apoyo epistemológico y metodológico de una selección de técnicas participativas que tampoco, por sí solas, son suficientes, sino están enmarcadas dentro del horizonte y las relaciones que posibilitan el trabajo social comunitario emancipador” (Prat eta Simó, 2022, 102. or).

Hautu ideologiko zein epistemologiko konzientea eskatzen du estrategia komunitarioan sakontzeak, dudarik gabe. Hori horrela izanik, kontraesanak eragiten dituen estrategia da, hala nola, kontraesanak gure egiteko ohiturekin, gure botere harremanekin eta posizioekin, guk lan egiten dugun erakundearen interesekin etab. Aldiz, estrategia komunitario horrek hauen inguruan hausnartzea eskatzen du eta horrelako esperientziak abian jartzean izan ditzakegun kontraesanak onartu eta gure posizio politikoa erakusteko beldurra kentzea garrantzitsua da:

“estoy trabajando aquí (en la institución), tengo un rol y evidentemente, me lo creo, porque sino qué hago aquí, pero... ¿a quién debo yo mi trabajo?, ¿para quién trabajo yo?, ¿Para la gente o para la institución? (...) y eso también lo tienes que tener claro tú como profesional social ¿para la gente o para la institución?, bueno, pues seguramente para los dos, pero a veces tienes que posicionarte de alguna forma” (E.1 Aditua).

- Lan taldearen eta zerbitzuaren antolaketa

Oinarrizko gizarte-zerbitzuen antolaketari erreparatzen badiogu, hainbat dira komunitarioa ahalbidetu dezaketen eta honen baitan aurkitu daitezkeen gakoak: nola antolatzen den zerbitzua, nola osatzen den profesionalen taldea, nola antolatzen diren agendak eta zertarako, ze ordutegitan lan egiten den, non kokatuta dagoen zerbitzua, nola egituratzen den agenda profesionala, hausnarketarako espaziorik sortzen den, komunitarioarako erreferentziazko profesionalik dagoen, lan ordutegia, zerbitzuaren kokalekua etab. Aipatutako zerrendako bakoitza planteamendu komunitarioen bidean jartzeko:

“En primer lugar, la figura de dirección o coordinación del equipo de servicios sociales es clave, que haya una figura que tenga esa mirada y que entienda que el equipo de servicios sociales es un agente clave en el territorio, que sepa dar directrices, que sepa dar encargos comunitarios, ¿no?, yo creo que esa figura es clave, cómo gestionar el equipo, la eficiencia e las tareas, el rol comunitario del equipo en el territorio y esta estrategia conjunta de intervención comunitaria” (E.4 Aditua).

Hori argituta ere, aipatzen dute komunitarioa erraztuko duten antolakuntza ereduak tokian tokiko errealitatearen arabekoak izango direla: “Yo cada vez veo más, que repensar los servicios sociales en su dimensión comunitaria no se puede hacer de manera independiente o aislada” (E.4 Aditua). Beste sistemak nola dauden ezagutzea garrantzitsua da, ia ekipo komunitarioak dagoen gizarte-zerbitzuez aparte, hots, oinarrizko gizarte-zerbitzuetan integratu gabe, eta horren arabera, modu batera edo bestera antolatu daiteke: “si no hay otros profesionales que estén haciendo comunitario, tal vez implicará que los servicios sociales asuman esa tarea comunitaria, como un gran eje dinámico” (E.4 Aditua). Baina horretarako, berezibiko garrantzia hartzen du agendaren egituraketak. Agenda profesionalean, banakako eta familiako arretatik haratago joango diren ekintzak eta jardute profesionala egiteko espazioak egon behar dira:

“La atención individual es un nivel, tienes que tener espacios a nivel de agenda para la atención colectiva, para salir al barrio y generar oportunidades (...) Tiene que haber un espacio en el que reflexionemos sobre demandas que están llegando individualmente, tener también un espacio para reflexionar sobre esas necesidades, pero también potencialidades que detectamos, un espacio de reflexión y de acción, espacios colectivos para intervenciones puntuales con agentes del territorio que pensamos que son interesantes, para el diseño de nuevas intervenciones. (...) en este rol de observatorio de los servicios sociales sobre novedades en un territorio, tener esa capacidad de flexibilidad, de no tener una estructuración tan rígida, sino permitir que pasen cosas y que tengamos espacios para hacer cosas distintas. Como equipo, es importante tener ese espacio de

reflexión vinculada al territorio a espacios de articulación territorial, de trabajo en red, porque solas tampoco vamos a poder... o sea que todo esto hay que llevarlo a algún lugar en el que junto con otros servicios y entidades y con participación de personas afectadas, podamos generar espacios de reflexión para generar respuestas compartidas” (E.1 Aditua).

Lan taldearen antolaketa eta rolen banaketa, zuzenean erlazionatzen da mandatuarekin. Badaude horretan komunitarioari garrantzia eman eta talde barruan zeregin oso konkretuak dituen pertsona bat izendatzen dutenak. Era berean, aldiz, figura edo lan hori jada banakako arretara zuzendutako profesionalen jardunaren baitan zati txiki bat izatea kontenplatuak dituenak ere badaude. Polibalentzia handia ematen da oinarrizko gizarte-zerbitzuetan, bereziki lan talde txikietan, eta polibalentzia hori aukera bat den arren, oztopo bat ere izan daiteke komunitarioan sakontzeko. Nahiz eta eredu ezberdinak egon, enkargu komunitarioa egikaritu gura bada, horretan jardungo duen lantaldeko kide bat izatea da egokien ikusten den eredu. Badaude erreferentziako profesionalak, baina ez komunitarioarako erreferentziako profesionalak, eta horretan bidea egitea garrantzitsua da: “no hay profesionales de referencia para apoyar procesos comunitarios (...) se necesitan trabajadores sociales de referencia para abordar con enfoque comunitario problemáticas y que estén implicados en los equipos” (E.3 Aditua).

Profesional batzuk liberatu behar dira horretarako, eta garrantzitsua da liberazio osoa edo ia osoa izatea (Martinez eta Perez, 2018; E.3 Aditua; E.4 Aditua). Badaude beste esperientzia batzuk⁴² non horretara bideratzen direnak kideen jardunen ehunekoak diren, baina, beti da egokiago pertsona bakarra horretan izatea. Izan ere, egungo egoeraren konplexutasunak eragindako urgentziek, burokratizazio prozesuek, gizarte-zerbitzuetako profesionalak duten lan zamak, etab. beste mota bateko lan batzuk lehenestera eramaten gaitu (DDS, 2022).

“Si un equipo cuenta con un referente comunitario dentro del equipo básico, probablemente, será mas fácil asignarle determinadas tareas asociadas a lo comunitario; mientras que habrá que velar por que el resto de profesionales del equipo incorporen la tarea de la mirada comunitaria en su trabajo cotidiano y realizar trabajo conjunto en aquellas intervenciones más comunitarias desde la complementariedad de saberes. Al mismo tiempo, habrá que cuidar que la existencia de esta figura provoque que, el imaginario colectivo del equipo, asocie el trabajo comunitario a este perfil y se delegue toda la labor e iniciativa” (E.4 Aditua)

⁴² DDSren (2022) dokumentuan jasotzen den bezala, badaude Katalunian mota ezberdinetako hainbat esperientzia. Sakondu nahi izanez gero, ikus dokumentua.

Erreferente komunitarioa esleitzerakoan kontu handia izan behar da ordea, eta lana bi norabidetan egin beharko du: lana egin beharko du lan taldetik kanpora, hots, lurraldean, baina baita lan talde barruan ere:

“Esta especialización y este rol específico lo facilita sin duda, pero alertas con esto, porque a veces puede darse que como ya tenemos la profesional que hace comunitario, el resto nos olvidamos de esto, ¿no?, entonces, es como que esta profesional está hacia fuera con la comunidad, pero sobre todo hacia dentro, facilitando que otras compañeras puedan irse poniendo estas gafas comunitarias en el día a día” (E.4 Aditua).

Honetaz gain, erreferente komunitarioa izan daitekeen pertsona hautatzeko, hainbat dira kontuan hartu beharreko irizpideak, eta hau, aurreko elementuarekin, hau da, profesionalaren hautu epistemologiko eta ideologikoaren guztiz lotua dago: “Hay que detectar muy bien los estilos profesionales, motivaciones profesionales y el saber”. Denok ez dakigu gauza guztiak egiten, eta denok ez gara gauza guztietan onak. Hori dela eta, garrantzitsua da lan taldea osatzen duten profil profesional ezberdinen identifikazio egokia egitea, eta ondorioz, “también hay que poner en valor las distintas habilidades profesionales”. Nahiz eta eraikitzen diren gauza guztiak bezala hau ere praktikarekin hobetzen joaten den, badaude profil komunitarioak barne biltzen dituen hainbat gako:

“Esto no debería significar que cualquier profesional pueda tener ese chip o esa mirada comunitaria, pero yo creo que hay personas que tienen esa habilidad comunitaria. Son personas que tienen esta capacidad, tal vez, te diría, como de pensar estratégicamente, de ver un poco más allá, de hacer sinapsis y muchas conexiones etc. (...) lo comunitario va mucho de relación y debe saber relacionarse, y relacionar. También creo que hay una necesidad de que sea una persona con valores de justicia social, realmente de querer entender que la intervención social va de transformar, va de generar procesos de autonomía y protagonismo de la gente. Entonces, también hay como una dimensión ética y de valores importate” (E.4 Aditua).

Printzipioz pentsatu dezakegu gizarte-langile edo profesional falta egon daitekeela, eta zenbait kasutan horrela ere izan daiteke, baina egiten den lana nola egiten den ere garrantzitsua dela ikusi dugu. Mandatu komunitarioa bete gura bada, horretarako espazioak sortu behar dira, eta lana bera egiteko modua ere horretara bideratu: “pensar en lógicas de trabajo, cómo podemos organizar esto (...) igual son formas organizativas y de conocimiento más transvesales y ver cómo coenctamos las decisiones políticas y las formas de intervención con la dinámica vecinal” (E.3 Aditua). Gaur egun, gizarte-langileek jarraitu behar dituzten egin behar administratiboetatik liberatzea ere garrantzitsua da, hots, karga burokratikoa arintzea, beste profesional batzuen gain uztzita. Modu horretara, gizarte-langileak denbora gehiago izan dezake beste egin behar batzuk

egiteko. Hori horrela, ezinbestekoa da agendetan komunitariorako espazioak egotea. Ez da soilik ekintza komunitarioa egiteko, baizik eta egunerokotasuneko kasuetan komunitarioa nola txertatu dezakegun hausnartzeko eta pentsatzeko. Finean, erreferente komunitarioa izan daitekeen pertsonarekin batera kasuak aztertzeko.

“Que los equipos incluyan en su día a día, en espacios, en el orden del día, de las reuniones para poder hablar de lo comunitario, que haya espacios para analizar las demandas individuales que nos entran. Estos espacios de reflexión acción, son súper importantes” (E. 4 Aditua).

Aipatutakoaz gain, oinarritzko gizarte-zerbitzuetako lan taldeek, orokorrean, izaten duten ordutegiak, goizeko ordutegiak zehazki, eta bestelako ordutegi erabat zurrunek ez dute laguntzen, aurreko elementua azaltzean aipatu dugun inplikazio komunitarioa ahalbidetzeko. Komunitatearekin batera lan egiteko komunitarioa eta tokian tokiko bizitza garatzen den momenturen batzuetan egotea garrantzitsua da. Baina orokorrean, erakunde publikoetako ordutegiak eta bizitza komunitarioa egosten deneko ordutegiak ez datoz bat (E.3 eta E.4 Adituak). Horrek ez du esan nahi, goraxeago esan dugun bezala, egun guztian lanean egon behar dugunik edo gizarte-langilea etengabe lanean egon behar denik, baina, malguagoak diren ordutegiak beharrezkoak dira planteamendu komunitarioak martxan jartzeko.

“El papel y la organización interna de los profesionales, cuya dedicación a la atención directa les impide dedicarse a abordajes más colectivos o comunitarios, a tener presencia en otros espacios y proyectos del territorio, a disponer de tiempo para sistematizar experiencias, aprender de la práctica, etc.” (Morín eta Blanco, 2022, 123. or).

Azkenik, oinarritzko gizarte-zerbitzuen kokapenak ere badu garrantzia. Izan ere, ez da berdina zentro isolatuak izatea edo berez, lurraldearen dinamikan oso errotuta egon daitezkeen tokiko baliabideren baten baitan txertatuta egotea. Ez da zerbait mekanikoa edo ondorioz zuzena, baina azken honek estrategia kolektiboak martxan jartzea eta pertsonen arteko saretzea ahalbidetu dezakete (DDS, 2022). Hala eta guztiz ere, espazio kolektibo eta normalizatueta kokatuta egoteak ez dakar berez, elementu isolatu modura, zuzenean lan komunitarioa egitea. Laguntzen du, noski, baina ez da aski:

“Esto influye claramente. Estar ubicados en servicios más normalizados de acceso, donde pasan cosas, donde se programan actividades facilita, ¿no?, pero también es cierto que a veces hay equipos de servicios sociales que están ubicados en un centro cívico y no se enteran de nada, entonces, es más una actitud y una predisposición a enterarte, aunque el espacio físico influye, claro. (...) No es sólo que estés ubicado en un centro cívico, porque si luego el despacho es un bunker, donde no hay espacios para generar dinámicas grupales o el equipo de servicios

sociales no puede ir a las salas del centro cívico y utilizarlas, no servirá” (E.4 Aditua).

- Artikulazio komunitarioa

Oinarrizko gizarte-zerbitzuetan estrategia komunitarioak planteatzeak komunitatearekin artikulatzea, batera lan egitea edo gutxienez, norabide berean ekitea dela ulertzen dugu. Hasiara batetik izan behar da kide gisa komunitatea eta horretarako diseinua komunitatearekin egitea garrantzitsua da: “Las formas organizativas y de misiones comunitarias tiene implicaciones en el despliegue del modelo de intervención comunitaria en los servicios sociales que proponemos, siempre hecho en diálogo con el tejido donde se pretende impulsar la labor comunitaria” (DDS, 2022, 54. or).

Komunitatearekin batera lan egitea eta elkar ezagutza garrantzitsua da orain arte komunitarioari buruz mintzatu garenean azaldu ditugun bi zentzu ezberdinentzat: alde batetik, artikulazioa egiteko eta ekintza kolektiborako komunitatearekin elkarlana errazteko bideak zein espazioak egotea ezinbestekoa da, baina, bestalde ere, garrantzitsua da komunitatearen ezagutza eta komunitatearekin elkarrekintza egotea, esku-hartzea komunitarioaren betaurrekoak jantzita egiteko, pertsonak komunitatearekin konektatzeko. Zehazki, gure praxi profesionala harremanezkoa den horretan edo loturetan zentratua izan dadin, premisa garrantzitsua da.

Modu berean, garrantzitsua da, tokian toki dauden baliabide ez formalez gain, baliabide publiko, proiektu, programa edo zerbitzu oro dinamika komunitario berean integratzea, sarea sortzea eta artikulazioa egotea (E.3 Aditua). Alegia, ikuspegi integratzaile eta globalarekin lan egitea eta ez modu sektorial isolatuetan. Zailtasun egoeren aurrean zeharkako era batean ekitea garrantzitsua da, eta horrek ikuspegi kolektibo edo komuna sortu edo areagotzea eragiten du.

“El quehacer comunitario de los servicios sociales está relacionado con un plan, un proyecto, con programas..., es decir, que los servicios sociales no vayan por su cuenta haciendo proyectos y actividades comunitarias, sino que realmente, esté conectada a la intervención comunitaria, con el plan comunitario o con una política pública del territorio a nivel comunitario, que tenga un sentido” (E.4 Aditua).

Komunitarioa egiteak eta honen inguruko zehaztasunek (nork egingo duen zer) lurraldearen ibilbide historikoa zein egungo errealitatea kontuan hartu beharko ditu, eta era berean, garrantzitsua da tokian toki lortu gura diren helburuen inguruko hausnarketa kolektibo baten emaitza izatea. Kolaboratiboki sortuko den eredu komunitarioa kideen

gaitasunak sustatzen dituen, herritarren aukerak hazten dituen eta beharrian jakinei ongien erantzungo diena izango da. Laburki esanda, tokian toki egokituko da.

Gizarte-zerbitzuen erantzukizun komunitarioaren eremua lurraldean zeregin komunitarioak dituzten beste figura batzuek baldintzatzen eta osatzen dute: “Tejer lazos para avanzar es importante. La lucha colectiva tiene otra fuerza y el trabajo en red es fundamental, porque genera muchos recursos y hay que darle el valor que se merece” (E.7 Aditua). Gainerako taldeek gizarte-zerbitzuak aliatu natural gisa ikusi behar dituzte esku-hartze kolektiboetan, taldeko esku-hartzeetan zein esku-hartze komunitarioetan, eta baita komunitateen eta haien kideen errealitate soziala ondo ezagutzen duten profesional gisa ulertu. Izan ere, “Las organizaciones que están bien implementadas en el territorio, logran una capacidad de acción conjunta” (E.3 Aditua).

Esan dezakegu, beraz, oinarritzko gizarte-zerbitzuetan dimentsio komunitarioa garatu ahal izateko auzoaren eta dauden elkarrekintza espazioen ezagutza gizarte-langilearen lanean nahitaezkoa da: “el espacio público es un catalizador para lo comunitario”:

“Que las trabajadoras sociales (...) consideren los grupos relacionales previos, que formaban núcleos de arraigo, reconocimiento y círculos de cuidado densos. La defensa de estos criterios nos habla de valor relacional que éstas daban al espacio público como constructor de identidades y protección, y constituyen un nicho de desarrollo de capacidades colectivas para afrontar la movilización en los barrios (...) para exigir un urbanismo amable, cuidador, que incluya servicios de cuidado, salud, educación (...)” (Prat eta Simó, 2022, 98. or).

Azken hamarkadetan ikusi ahal izan dugun bezala, elkartasun ekintza arrazionaltasuna, analisia, epe luzerako konpromisoa, ardurak hartzea, norbere burua eta inguruarekiko hausnarketa, egonkortasuna, estruktura eta abar luze bat beharrezkoak ditu, baina batez ere, antolakuntza kolektiboa du behar beharrezkoa. Horretarako, berriz, oinarritzko gizarte-zerbitzuek gizarte ehuna edo elkartasun ekintza antolatuaeren akonpainamendua egiteko gaitasuna izan behar du, eta bide horretan, ezinbestekoak dira pertsona kualifikatuak eta baliabideak, izan ere, prozedimentu tekniko metodologiko konplexuak eskatzen dira. Finean zera behar da: “Aportar criterios y estructuras de coordinación y colaboración en los territorios, con la comunidad” (Santás, 2022, 4. or). Hau gerta dadin, gizarte-zerbitzuetako profesionalek tokiko eragileak ezagutu eta aitortu behar ditu, baita hauekin lan egiteko beharrezkoak diren dinamismo eta malgutasunak onartu eta praktikan jarri.

“Compartir las necesidades que tú tienes con la red, de articular respuestas compartidas y dándole un espacio de escucha a las personas afectadas para que

también opinen y puedan participar realmente, en qué te ayuda, qué no te ayuda. Poder ir generando estos espacios de reflexión, de no juicio, porque ahí las familias también ven como un cambio de los servicios sociales que no sólo tienen pisos, unos servicios sociales que están pensando conjuntamente como proteger el bienestar. (...) A parte de tener espacios de reflexión, esos espacios de reflexión sobre lo que está entrando o está pasando, nos tiene que permitir ir al territorio a buscar alianzas con otros” (E.1 Aditua).

Jada hainbatetan aipatu dugun bezala, profesionalaren partetik dimentsio komunitarioa jardute profesionalaren baitan edukitzeko, ezinbestekoa da komunitatea ezagutzea, komunitatearekin kontaktua izatea, eta are garrantzitsuagoa, komunitateko eragile klabeekin hartu emana izatea. Janne Addamsek (2014) jada bere lanetan komunitateetako faktore “kohesionatzaileak” identifikatu behar direla adierazten zuen hauekin lan egin ahal izateko. Azken batean, ardura publikoarekin parte-hartzea onartzen duten lotura partikular, afektuzko lotura edo ardura formaleko lotura duten pertsonen elkarrekintzak baitira. Hau egiteko, gizarte-langilearen lan egiteko modua aldatzea komenigarria da, batez ere, esparru geografiko jakineko eragile eta baliabideekin aliantza bermatuko duen begirada irekiago eta ulerkorragoa erabilita (Prat eta Simó, 2022).

Azkenik, ezinbestekoa da honek guztiak duen prozesu izaera ulertzea. Prozesuak sortu behar dira eta etengabe hauek elikatu eta indartu, kapital sozial garrantzitsua direlako tokian tokiko kideentzat: “La cuestión es ir construyendo procesos que ayuden al fortalecimiento de los dinamismos comunitarios y de los capitales sociales comunitarios, sobre todo, de los capitales de diversificación y de integración que tienen los territorios” (E.3 Aditua).

- Formazioa

Behin oinarrizko gizarte-zerbitzuen mandatua norabide komunitarioan jarrita, apustua eginda, antolaketa aldatuta edo dimentsio komunitarioaz mintzo garenean zertaz ari garen zehaztuta galdera garrantzitsuetako bat dator. Nola egin dezakegu? Nola egiten da hori egunerokotasunean?

Erlazionalarekin lan egiteko eta komunitatearekin egindako lanean oinarritutako praxi profesionalerako formazioa behar beharrezkoa da, baita ekinaren ekinaz hartzen den esperientzia ere. Lan garrantzitsua bezain exigentea da, eta erremintak eskuratu beharko ditugu horretarako, bai teorikoak eta baita tekniko-metodologikoak ere. Finean, formazio teoriko metodologikoa ezinbestekoa da komunitarioan sakondu gura bada. Profesionalak jantzi egin behar dira, eta akonpainamendu eta aholkularitza egonkorra behar dute.

Egungo inertziak ez dituzte hor kokatzen eta praktikotasuna galtzean joaten denez, beste baliabide batzuen bidez eustea are garrantzitsuagoa bilakatzen da.

Formazioa beraz, bi eremutan eman behar da: batetik, unibertsitateko ikasketak egiten ari garen bitartean jasotzen dugunean, eta bestetik, jardute profesionalean ari garenean, eguneratu eta ikasketa prozesu jarraituaren baitan. Lehenengoak eragin zuzena dauka identitate profesionalaren eraikuntzan esaterako, zehazki, gizartean eta gizartearekiko nola kokatzen garen, gizarte-langile bezala egiten dugun hautu teoriko-metodologiko-ideologikoan, komunitatearekin egiten den lana nola egiten den ezagutzean etab. Bigarrenak, aldiz, eraikuntza hori egiten jarraitzen dela bermatzen du, eta beste gaitasun batzuekin gaitzen gaitu prozesuaren bitartean.

“Creo que la formación al final, tiene que ver con el modo en que tú construyes la relación con la comunidad, con cómo se coordina con las entidades, cómo nos relacionamos con las vecinas, ¿vale?, como encuentras tu espacio en un contexto en el que se están produciendo ese tipo de dinamismos” (E.3 Aditua).

Aurrez, analisi kritikoa egiteaz eta hautu ideologiko zein teoriko metodologiko konkretua egiteari buruz aritu gara. Hala ere, komunitarioan sakontzeko garrantzitsuak diren gako horiek praktikaren bidez landu beharrekoak dira, horretan ere formatuz. Kritikotasun falta, konplexutasuna ikusteko zailtasunak, bestearen lekuan ez jartzea edo beste zenbait ezinbesteko gako landu egin behar dira: “también es por desconocimiento o falta de referencias” (E.1 Aditua).

Gainera, komunitarioan sakontzeko ezagutzen diren klabeak edo egungo klabeak, gizarte eredu zaharrerako sortutako errezetetan oinarritzen dira eta eguneratzea beharrezkoa da: “existe una desactualización del propio concepto (...) no se actualizan las metodologías y hoy en día, casi no sirven de nada, porque ahora no tienes nada (comunidades con vida)” (E.2 Aditua). Horregatik, espazioak sortu behar dira, formakuntza eta hausnarketarako baliagarriak izango diren espazioak eraiki behar dira, profesionalen artean ezagutzak partekatu eta prestakuntza jarraitu bat bermatzeko, baita ibilbide profesional guztian zehar ere:

“Consensuar estrategias metodológicas, para saber cómo se hace esto a nivel metodológico (...) creo que la formación en trabajo comunitario, la supervisión, generar espacios de buenas practicas comunitarias. Estamos hablando últimamente de comunidades de prácticas, es decir, de juntar profesionales de distintos territorios para que puedan compartir instrumentos, buenas prácticas” (E.4 Aditua).

Laburbilduz, komunitarioan sakontzeko dauden zailtasunak ikusita, zerbitzuari akonpainamendua egingo dioten lan taldeak egotea, aholkularitza taldeak bultzatzea (profesionalak edo izan beste eremu batzuetan horrelako esperientziak martxan jarri dituzten kideek osatuak) beharrezkoak dira. Hauen helburua lan taldeei begirada eta “txip” komunitarioa ezartzen lagundu, eta berau sustatzea litzateke, honetan sakontzea, metodologikoki laguntza ematea; finean, formazio jarraitua bermatzea. Gainera, jardun profesionalean aipatu berri ditugun elementu gakoak eraldatzen ditugunean, formazioaz gain, gure jardunaren inguruko hausnarketa prozesuek, gainbegiraketa saioek, garrantzia hartzen dute. Honetan sakontzeko, agenda profesionaletan tartearak eskaini behar dira. Prospekzioa egiteko, gure jarduna analizatzeko zein elkarbanatzeko, eta nola ez, hauen analisi eta erregistro informatikoak ere estrategia komunitarioaren mesedetan jarri ahal izateko (E.1 Aditua).

- Sistematizazioa

Sistematizazioaren elementu baldintzatzailea dimentsio teknikoaren baitan kokatu dugu, baina, aldi berean, dimentsio politikoarekin zuzenean lotzeko gakoetako bat da. Esperientzien sistematizazioak esperientzien balorazioa ekar lezake eta komunitarioarentzat garrantzi berezia du. Esan bezala, ez da erraza justifikazioa, ez da erraza lana ezagutaraztea eta lortzeko bideetako bat izan daiteke.

Agenda politikoan sartu gura bada, agenda akademikoan egotea ere garrantzitsua da, honen inguruan ikertzea eta balorean jartzea. Bide horretan, pausu garrantzitsuena da sistematizazio egoki bat egitea, beste lan eremu batzuetan egiten den bezala, hots, jardute profesionaleko beste egin beharretako bat bezala hartzea:

“Hay que conseguir una especie de ecosistema de doctores y doctoras comunitarias, eso es muy importante, es importante también entrar en la agenda académica (...) hace falta ese rigor, el estudio (...) que de esa investigación salgan propuestas que se apliquen, que se evalúen (...) hace falta innovación metodológica, tecnológica” (E.2. Aditua).

“No es fácil, porque la academia y su funcionamiento no siguen la misma lógica los propios servicios sociales y hay que elegir (...) porque desde una lógica productora es muy difícil que encontremos elementos de conexión auténtica con lo comunitario” (E.3 Aditua).

Hori guztia ikusita, beste ikerketa eredu batzuen aldeko apustua egin behar da komunitarioa sustatzeko, eta IEParen eredua hots, ikerketa ekintza era parte-hartzailean egitea, ezinbestekoa da:

“El conocimiento que producimos en la academia, a mi juicio, está desajustado respecto al conocimiento que se necesita para la intervención social (...) no sirve de manera suficiente al trabajo social (...) porque no está en nuestra agenda apoyar o acompañar procesos y dinámicas comunitarias y cuando decidimos investigar, miramos a la realidad como ratas de laboratorio y es que en procesos comunitarios, no venimos sólo a investigar, venimos a ser vecinas y vecinos (...) esto es interesante, porque desde ahí podemos llevar a cabo proyectos de innovación” (E.3 Aditua).

Hitz egin dugu jada, alor honetan dagoen produkzio urriari buruz, baina gainera, aipatu beharra dago, ematen diren esperientzia bakarrak ere, gehientsuenetan, ez direla sistematizatzen (Prat eta Simó, 2022). Ezinbestekoa da, hain erreferentzia gutxi dauden alor batean, egiten ditugun ekintzak eta martxan jartzen ditugun esperientzien sistematizazioa egitea horietatik ikasi eta berriak martxan jarri ahal izateko. Hala ere, komunitarioaren kasuan, lanketa, hausnarketa ekintza espazio hauek, komunitateko gainerako kideekin konpartituak izan behar dute baliagarria izan daitezen (E.1 Aditua).

Sistematizazioaren beharra sumatzen da esperientzietatik sortutako ezagutza ez delako bildu, eta beraz, ezta transmititu ere. Hori eginez gero, beste gizarte-zerbitzuetako talde batzuetarako inspirazioa izan daiteke, motibazio bat edo noranzko horretan lanean hasteko oinarria. Gainera, lana balioan jartzeko, errekonozimendua emateko eta ikustarazteko ere oso baliagarria da, estrategia komunitarioa ezin baita kuantitatiboki neurtu, gizarte-zerbitzuetako elkarrizketak edo espedienteekin egin daitekeen bezala (DSS, 2022). “Como no seamos capaces de generar un espacio de conocimiento propio, difícilmente podremos tener una legitimidad” (E.3 Aditua).


Guzti honetatik ondorioztatu dezakegunez, zilegitasuna lortzeko bidea da sistematizazioa zalantza barik, baina, horretaz gain, garrantzitsua da praxi profesionalean dauden teknikariek emaitzak ikusteko. Sistematizazioa eta ebaluazioa emaitzak ikusteko era bat da, eta ezinbestekoa da honetan indarra jartzea, jakin badakigulako, komunitarioaren emaitzak ez direla kuantitatiboki neurtzeko errazak edo ohiko baliabideekin ikusteko errazak. Hori horrela, garrantzitsua da: “ver que desarrollamos proyectos que pueden tener resultados visibles para que nos anime a seguir” (E.4 Aditua).

“Tenemos que ser capaces de tener datos, recoger datos y darle importancia a esos datos, porque eso también sule ser un punto débil. Dar importancia a los datos y tener sistemas que realmente permitan explotarlos” (E.1 Aditua).

Dimentsio honen itxiera, aurreko biekin egin dugun bezala, elementuen arteko eraginean zentratuz egingo dugu. Dimentsio teknikoaren baitan identifikatu ditugu komunitarioan sakontzea baldintzatzen duten elementu gehientsuenak. Hori horrela izanda, beheko

laburpen irudian ikusi dezakezuen, gezi mataza are handiagoa da. Gezi kopuru altuak, kasu honetan ere, elementuen elkarreragin mailaren dimentsioa ikusarazten du, eta oso altua dela esan dezakegu. Dena den, gezi norabideek eta koloreek zehazten dizkigute eragin horiek nolakotasunak.

11. Irudia: Dimentsio teknikoko elementu baldintzatzaileen arteko eraginak



Iturria: Norberak egina.

Dimentsio herritarra edo lurralde dimentsioa

Dimentsio herritarra edo lurralde dimentsioa barne dimentsioaren baitan identifikatu dugun hiruretako azkena da. Dimentsio hau, barne dimentsioan kokatu dugu barnebiltzen dituen elementuak ez daudelako kanpo faktoreen maila berean. Hala ere, ez dugu dimentsio politikoan edo teknikoak dugun eragiteko gaitasuna edo eraldaketarako gaitasuna, baina bi hauek asko baldintzatzen dute, eta aldi berean, aipatutako beste bi dimentsio horiek baldintzatzen ditu lurraldeak eta tokian tokiko herritarrek. Hori dela eta, bere tokia ematea egokia ikusi dugu. Azpian identifikatutako elementu baldintzatzaileak,

aurreko guztiak bezala, beraien artean elkarreraginean dauden elementu bezala ulertu behar dira, eta onartu, esan moduan, beste elementu guztiak baldintzatu ditzaketela.

- Komunitatearen ezaugarriak

Komunitatea aztertzerako orduan, garrantzitsua da tokian toki dagoen errealitate demografikoa, sozioekonomikoa eta komunitate edo lurralde horretan dauden erakunde, eragile, elkarte eta zerbitzu publikoak ezagutzea, horrek erabat baldintzatuko duelako oinarrizko gizarte-zerbitzuetatik egin daiteken edo egin behar den lana. Dauden baliabide publikoak eta komunitateak bere esku dituen zerbitzuak bertako beharriari erantzuteko balekoak diren edo ez garrantzitsua da, baina kasu honetan, gehiago zentratuko gara komunitateko kideen ezaugarri eta egoeretan.

Sarritan prozesu komunitarioak martxan jartzen dira beharizan konkrituak detektatu diren edo ezaugarri konkrituak dituzten auzoetan. Aldiz, komunitarioa edozein testuinguru eta koiunturatan martxan jarri beharko litzakeen estrategia da, nahiz eta helburu ezberdinekin egin:

“Muchas veces, el proceso está en cómo apoyar espacios informales para construir capital. Y no sólo en la zona donde no hay tejidos, porque normalmente entendemos que el tema comunitario está para los y para las pobres, que hacemos trabajo comunitario en los barrio mas vulnerables, ¿Vale? Sin embargo, es fundamental la intervención comunitaria en cualquier tipo de espacios” (...)“En unos sitios, oviamente, la orientación puede ir mas decantada, por ejemplo, digamos, aunque el barrio sea de clase media alta, puede ser uno de los barrios mas envejecidos de la ciudad, con lo cual, hay un problema comunitario muy importante, común, que podía ser unitario, que tiene que ver con la situación de dependencia, y si es un problema transversal en el territorio. Pero, a su vez, algunos barrios tienen elementos de dinamismo respecto a otros barrios, porque... ¿en qué medida se genera integración cuando cada barrio vive de espaldas al otro? (...) los barrios que están en el centro, están mirando de espaldas a la periferia, por lo tanto, es necesaria esa intervención comunitaria en cualquier tipo de espacio” (E.2 Aditua).

Hala ere, esan dugun bezala, tokian tokiko pertsonen ezaugarriek baldintzatzen dute egin dezakegun estrategia komunitarioa edo, behintzat, estrategia horren nolakotasuna. Baldintza zaurgarrietan edo zaurgarritasun egoerak bizitzeko arriskuan dauden pertsonen artean, zailagoa izan daiteke estrategia komunitarioak planteatzea. Lehen momentu batean, pentsa dezakegu, pertsona horien lehentasuna oinarrizko beharriari asetzeko dela, eta ez inongo komunitateetan parte-hartzea. Aldiz, sarri komunitateen bidez eta gizarte ehunaren bidez eragin daiteke beharizan horietan, eta bide batez, beharriari asetzeko erabilitako estrategiak sareak josteko balio dezake:

“una persona que tenía un interés familiar y que se le ha ayudado a darle respuesta en un contexto comunitario, igual luego él mismo ofrece un recurso o es un activo para otras personas. Ahí, estás generando comunidad, todavía muy lejos de la autoorganización o del empoderamiento político, pero estás generando lazos” (E.2 Aditua).

Horretaz gain, gertatu ohi da, beharizan asegabeak dauden komunitateetan erantzun kolektiboak emateko antolatu beharra, aldarrikatzeko artikulatu beharra edo elkarrekintzan aritzeko esparruak sortu beharra. Edozelan ere, agentzia politikora heltzeko estrategia komunitarioak martxan jartzeko bidea erabat baldintzatzen dela, adibidez, oinarrizko beharizanak aseta dituzten edo ez dituzten pertsonen artean lehentasunak aldatzen direlako, noski. Ondorioz, gizarte-zerbitzuak bezalako erakundeei, arreta beste gauza batzuetan jartzea eskatzen zaie, gabezia horiek estaltzeko lan asistentziala egitean, alegia. Horrela, enkargu politikoa aldatzen da komunitarioa bigarren maila batean utziz (E.4 Aditua).

“Hay realidades estructurales, colectivos, poblaciones que no se pueden ni plantear el acceso a la participación en determinados espacios porque estas no tienen ni las necesidades sociales cubiertas. A la vez, en esos contextos están emergiendo dinámicas muy interesantes, por ejemplo, la plataforma de afectados por la hipoteca, sindicatos de personas que viven en alquiler y creo que se están dando movimientos muy interesantes de gente o colectivos vulnerabilizados que se están organizando y que, de alguna forma, yo creo que es una oportunidad para los servicios sociales, para generar alianzas con estos movimientos sociales y vecinales” (E.4 Aditua).

Azkenik, kontuan hartu beharreko gako garrantzitsuetako bat komunitatea edo lurraldea landa eremuko edo hiri eremuko lurralde bat den erreparatzea da. Izan ere, beharrak eragindako kontrako dinamikak sortu daitezkeen arren, orokorrean, landa eremuan jendea dispersatuago bizi da, baliabide publiko edo komunitarioak ere horrela egoten dira, eta printzipioz, honek zaildu egiten du estrategia kolektiboak gauzatzea: Este es un elemento de partida que nos puede modificar y así, nos estamos planteando si implica otras formas de entender lo comunitario en servicios sociales” (E.4 Aditua).

- Hirugarren sektorea

Hirugarren sektorea gure komunitateetan agertzen den beste eragile garrantzitsuetako bat da, eta estrategia komunitarioak diseinatzerako orduan protagonismo handiko eragilea izan daiteke, gainera. Hori dela eta, elementu baldintzatzaile gisa ulertu dugu.

Hirugarren sektorearen eginbeharra strategiaren baitan garrantzitsua da: “tiene el mismo deber y la misma responsabilidad de generar procesos comunitarios o bien de participar en ellos y normalmente, tiene mucho más margen”. Hori horrela, prozesuak martxan

jartzea errazagoa izan daiteke, izan ere, “no tiene tanta estructura burocrática ni tanta rigidez”, eta beharrak eta egoerak identifikatu eta detektatzeko erraztasuna izan dezakete.

“Es mucho mas fresco, más agil, está mucho más en contacto y sobre todo, me parece interesante esta posibilidad del tercer sector de trabajar realmente esta idea del protagonismo de las personas atendidas en procesos de cambio y en los proyectos” (A.4 Aditua).

Horrenbestez, barrura begira zein kanpora begira landu beharko lukete estrategia komunitarioa zein pertsonen ahalduntzea eta prozesu kolektiboen martxan jartzea. Hala ere, sarritan estrategia komunitario integral edo kolektiboaren parte izan beharrea, beren kabuz egiteko inertzia izaten dute, eta bakoitzak bere lorpenak ikusarazi nahi izaten dutela adierazten da. Ondorioz, ardura hurrengoa izan beharko litzake: “contribuir al proyecto del territorio” (A.4 Aditua), izan ere, sarri, tokian tokira egokitutako eragileak izaten baitira hirugarren sektorekoak eta horiek baitira indartsuenetakoak (E.3 Aditua).

- Komunitatearen izaera eta artikulazioa ardatza

Komunitatean bertan dagoen bizitza komunitarioak ere erabat baldintzatzen du guztia, izan ere, muskulu komunitarioa badago edo, kontrara, ez badago egin beharreko lanketa erabat aldatzen da. Horrexegatik, azken elementu baldintzatzaile moduan idetifikatu dugu, izan ere, aurreko guztia landu dugunean, komunitarioan eragiteak egunerokotasuneko gauzetan eragitea esan nahi duela ikusi dugu:

“La vida cotidiana es un espacio para todo (...) en ese entramado comunitario es donde se sostiene la vida. (...) es un espacio para encontrarse y construir alternativas participando en el territorio. La comunidad, construye ciudadanía, no sólo personas. Y la ciudadanía tiene poder de exigir, demandar y decidir, de crear agenda en definitiva” (E.8 Aditua).

Honen harira adituek bi baldintza ezberdintzen dituzte, batetik, hasiera batean ditugun baldintzak eta helmuga edo helburu izango diren baldintzak. Baina, dagoen heldutasun komunitarioak daukan baldintzatzeko gaitasuna nabarmentzen da, baita heldutasun komunitario horren ezaugarriek ere. Heldutasun komunitarioa badago, berau mantentzea eta bultzatzea izan daiteke egitekoa: “si tiene tejido asociativo, tú puedes ir vinculando a la gente a eso, que hay capacidad de respuesta a nivel comunitario y ahí tu rol puede ser conectar a las personas que vienen individualmente a todo ese tejido”. Batzuetan, ez da bestelakorik eskatzen, egiten uztea baizik: “hay que darles apoyo, simplemente dejarlos hacer e intentar tejer relaciones de colaboración en la medida de los posible, para potenciar y apoyar estos movimientos” (E.1 Aditua) eta helburua, jasa badagoen kapitalaren zaintza izango da (E.3 Aditua). Aldi berean, honen inklusibotasunean eragitea

ere egiteko bihurtzen da, askotan ikusten baitira pribilegiadun pertsonak edo posizio sozioekonomiko jakin bateko pertsonak bakarrik parte-hartzen dutela. Hori horrela izanik, gizarteko inertzia txarrak erreproduzitzen, eragiteko gaitasunetik at geratu daitezke ezaugarri konkretu batzuk dituzten pertsonak:

“Efectivamente, pues si la comunidad está más organizada, hay más red vecinal y hay más proyectos en marcha o... el municipio ha generado consejos de participación, pues claro, entonces es fácil canalizar la estrategia comunitaria de servicios sociales. Ahi, ¿cuál debería de ser la intervención? Detectar si en estos espacios comunitarios, vecinales, o institucionales de participación, están participando siempre los mismos, las mismas, las que tienen los privilegios, porque son de aquí de toda la vida y si la población más vulnerabilizada o vulnerable o con distinta trayectoria vital está participando en estos espacios” (E.4 Aditua).

Aldiz, heldutasun komunitariorik ez badago, berau sustatzea edo sortzeko baldintzak ahalbidetzea izan daiteke egin beharra: “si no hay tejido, si no hay nada, pues tu rol va a ser impulsarlo, abonarlo, promoverlo” (E.1 Aditua), “tendremos que ver cómo construimos ese tipo de dinamismo” (E.3 Aditua). Akonpainamenduaren bidez eta ahalduz estrategien bidez, dinamikak komunitarioak gerta daitezkeen erraztasunak eta baliabideak jartzea, zehazki: “si la comunidad no está articulada, pues claro, nos lo hace más difícil, pero a la vez, también yo pienso, pues tenemos que empezar a acompañar a que haya algo, no debería de ser una excusa” (E.4 Aditua). Kasu hauetan, pertsonak elkarrekin jarri eta loturak erraztu behar dira. Behin lehenengo pausuak eginda, kolektibotasunaren garrantzia balioan jartzea eta ahalduz kolektiborako estrategiak martxan jartzea ezinbestekoa da, pertsonen boterea emanaz, eragiteko gaitasuna balioztatuz (E.3 Aditua).

Aurreko guztia lurralde jakin bateko pertsonen duten historia komunitarioa, identitate komunitario edo kolektiboagatik baldintzatua izan daiteke. Identitate handiko auzoak zein herriak daude, edo baita pertenez sentimendu handikoak ere.


“La comunidad tienen sus saberes y experiencias, construye un saber práctico a través de dichas experiencias, sobre la práctica organizativa, sobre la lucha etc., hay todo un bagaje importante que también se nutre en términos de ese trabajo de transformación y crítico” (E.7 Aditua).

Sarritan, horrelako ezaugarriak dituzten komunitateak, gaitasun edo ehundura komunitario altuagokoak izaten dira. Aurrez aipatu dugun bezala, identitate hori interesgarria izan daiteke printzipioz, baina nolakoa den ezagutzea garrantzitsua da. Aniztasuna nola lantzen den ezagutu behar da, horren inguruan egiten diren praktikak arriskutsuak izan baitaitezke.

Esanak esan, bizitza komunitarioa edo dinamika komunitarioz hitz egitean, planteatu beharrekoa da lurraldetasunari ematen zaion garrantzia. Lurraldea eta eremua garrantzitsuak dira, tokian tokiko oinarrizko gizarte-zerbitzuek errealitate horri eragiten baitie, eta bertan, “es donde hay procesos organizativos, hay articulación y es el lugar donde las intervenciones sociales se articulan” (E.8 Aditua). Aldiz, gaur egun, ikus dezakegu, beste forma batzuen edo beste gai batzuen arabera ere sortzen direla dinamika komunitarioak, eta horiek ere gure estrategiak diseinatzekoan kontuan hartu beharrekoak dira. Esaterako, badaude online komunitateak, harreman edo bestelako lotura afektiboen bueltan sortutakoak, arduraren bati edo bizitza zikloko egoeraren bati lotutakoak, beharrez bati lotuta edo lurralde ezberdinetako pertsonen osatutako komunitateak, eta noski, hauek ere, komunitate sentimendua eta identitate propioa izan dezakete. Honekin esan nahi dena zera da, artikulazio ardatz ezberdinak egon daitezkeela estrategia komunitarioak sortzeko, guztiak baliagarriak.

Atal honi amaiera emate aldera ere, elementuak eta horiek elkar eraginak jasotzen dituen irudia daukagu lerro hauen azpian. Bertan, dimentsioaren baitan identifikatutako hiru elementu nagusiak daude, eta aurreko bi kasuetan egin bezala, honetan ere, gezien norabideak adierazten du, zein elementuk eragiten duen zein beste elementuetan.

12. Irudia: Dimentsio herritarraren elementu baldintzatzaileen arteko eragina



Iturria: Norberak egin.

Elementuen atalarekin amaitzeko eta konklusio gisa, identifikatu ditugun elementuak asko direla ikus daiteke, eta are gehiago dira elementuen artean dauden eraginak. Hori horrela izanda, zaila da elementu baldintzatzaileak dimentsioetan era zurrun batean

kokatu ahal izatea. Arrazoi hori medio, elementu batzuk bi dimentsiotan jaso ditugu. Beste gauza batzuen artean, kanpo dimentsioko elementuak eta baita barne dimentsioko azken multzokoak ere, hau da, dimentsio herritarrekoak, besteak baino gutxiago direla ikus dezakegu. Beste elementu batzuk egon daitezke horietan, baina gu, kasu honetan, oinarritzkoenetan zentratu gara. Ikerketa lan hau, guk, gizarte-langile edo gizarte-zerbitzuetako profesional bezala, “kontrolatu” ditzakegun elementuetan zentratzen da, hori dela eta, sakontasun gehiagorekin aztertu ditugu bai dimentsio politikoa eta baita teknikoa ere. Azkenik, eraginkortasuna bilatu eta erabilera errazte aldera, azpiko taulan identifikatutako elementu baldintzatzaile guztiak barnebildu ditugu.

12. Taula: Elementu baldintzatzaileen eta dimentsioen laburpen taula

DIMENTSIOAK		ELEMENTU BALDINTZATZAILEAK
Kanpo dimentsioa		Neoliberalismoa
		Egoera estrukturalak eta prekaritatea
		Indibidualismoa
Barne Dimentsioak	Dimentsio Politikoa	Komunitarioaren kontzeptualizazioa
		Borondate politikoa- Apustu politikoa
		Marko legalak, aginduak eta planak
		Baliabideak
		Ideologia
	Dimentsio Teknikoa	Komunitarioaren kontzeptualizazioa
		Enkargua eta apustua
		Arreta eredua
		Gizarte-langilearen ideologia eta hautu epistemologikoa
		Lan taldearen eta zerbitzuaren antolaketa
		Artikulazioa komunitarioa
		Formazioa
	Sistematizazioa	
	Dimentsio herritarra /Lurralde Dimentsioa	Komunitatearen ezaugarriak
		Hirugarren sektorea
Komunitatearen izaera eta artikulazio ardatza		

Iturria: Norberak egina

4.2. KASU ANALISIA: KOMUNITARIOA GASTEIZKO OINARRIZKO GIZARTE-ZERBITZUETAN

Laugarren puntuaren hasieran aurreratu dugun bezala, aurre landa-lanean sortutako marko analitikoaz baliatuz, atal honetan kasu azterketaren bidez egingo dugu Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren baitako komunitarioaren analisia. Hurrengo lerroetan, Gasteizko Udaleko oinarrizko gizarte-zerbitzuetan gertatzen dena aztertuko dugu, eta horretarako, oinarrizko gizarte-zerbitzuetan zuzenean eragiten duten bi eragileekin egindako elkarrizketetan jasotako informazioarekin; hau da, politikari eta teknikarienarekin. Zehazki, elementu baldintzatzaileen inguruan diotenaren bidez, egin dugu egungo egoeraren analisia. Modu honetara, ikerketako helburu guztiak erantzun gura ditugu. Batetik, komunitarioaz ulertzen dutena zein egun oinarrizko gizarte-zerbitzuen baitan dagoen egoera (2 eta 3. helburuak) elementu baldintzatzaileen inguruan jasotako informazioaren bidez landu ditugu. Bestetik, nahiko luketen egoeratik abiatuz, egungo egoeraren inguruan egiten duten balorazioa (4. helburua) ere analisi berean jaso dugu, baina kasu honetan zeharka. Izan ere, elementu baldintzatzaileen arabera, elkarrizketetan zehar egungo egoera zein den eta zein izan beharko litzakeen aipatzen joan baitira etengabe.

Hori dela eta, elementu baldintzatzaileen arabera antolatu dugu kasu azterketaren atala, nahiz eta gero, hiru helburuei erreferentzia egingo zaien. Halaber, politikarien eta teknikarien ikuspegiak banatu ditugu bakoitzaren berezitasunak hobeto identifikatzeko asmoz. Bi kasuetan, elementu batzuk beste batzuk baino garrantzi gehiago izan dute.

Agenteen diskurtsoetatik ateratakoa aztertzen hasi aurretik, garrantzitsua iruditzen zaigu elementu baldintzatzailetzat identifikatu ditugunak gogoraraztea, izan ere, marko analitiko horren arabera osatuko baitugu ikerketaren atal hau. Beraz, atal bakoitzean horiek gogoratuz hasiko dugu eragileen diskurtsoetatik eskuratutako informazioaren lanketa. Gainera, aipatzekoa da, informazioaren lanketari heldu baino lehen, informazio gehien elementu politiko eta teknikoan ataletan jaso dugula. Horiek dira elkarrizketatutako eragileen eragin eremuan aurkitzen direnak, eta horietaz mardulago aritu gara elkarrizketetan ere. Kanpo dimentsioa eta lurraldekoari erreferentziak egin zaizkie elkarrizketetan eta ideia horiek jaso ditugu, baina modu askoz azalekoagoan.

Aurreko atalean landutakoa oinarri hartuta, adituek planteamendu komunitarioak prozesu bezala irudikatzen dituztela oroitarazi gura genuke, komunitate jakin bateko kideen

ahalduntze prozesutat, alegia. Prozesu horietan, beren bizitzaren eta testuinguruaren inguruko agentzia politikoa eskuratzen dute herritarrek, eta kolektibotasunari aipamen berezia egiten zaio. Era labur batean sinplifikatu dugu, baina oinarrizko gizarte-zerbitzuetan dauden eragileek diotena aztertzeko izandako ikuspegia adieraztea oinarrizkoa deritzogu.

Azkenik, analisiari heldu baino lehen Gasteizko oinarrizko gizarte-zerbitzuetarako lehen hurbilpen bat egitea egoki ikusi dugu, antolamendua eta egoeraren inguruko zenbat datu eskainiz.

Hurrengo lerroetan Gasteizko Udalaren gizarte-zerbitzuen egitura eta plana aztertuko dira klabe komunitarioan. Ikerketa honetan Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema aztertzeko Gasteizko kasuaren azterketa egingo denez, interesgarritzat jo dugu Udalaren oinarrizko gizarte-zerbitzuen nondik norakoak biltzea.

Gasteizko Udalak, maila gorenean, hiriaren plan estrategikoa dauka, eta bertan, lehengo erronka bizitza kalitatea hobetu eta elkarbizitza egonkortzea da. Horretan sakontzeko, ildo estrategiko moduan, giza garapena eta gizarte kohesioa aipatzen dituzte:

“Hacer de Vitoria-Gasteiz la ciudad de la cohesión social, donde las diferencias son valoradas para dar un trato equivalente a todas las personas y superar las condiciones que mantienen las desigualdades sociales. En ese sentido, los servicios sociales municipales son protagonistas en la construcción de una sociedad solidaria, cohesionada e inclusiva” (Gasteizko Udala, 2015).

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren baitan, Gasteizko oinarrizko gizarte-zerbitzuak aitzindari eta erreferente izan dira, beste gauza askoren artean, izan duten tradizio komunitarioagatik. Gasteizko Udalak, apustu garrantzitsua egin zuen dimentsio komunitarioari dagokionez, eta ez bakarrik oinarrizko gizarte-zerbitzuetan, baizik eta, beren herritarren eguneroko auzo bizitzan eta parte-hartzean eragin zuena. 1979-83 legegintzaldian, Jose Angel Cuerda⁴³ alkatetzan zegoenean, proiektua prestatzen hasi ziren, eta 1983-87 legegintzaldian egikaritu zen, lehen gizarte-etxea 1985ean Sansomendi

⁴³ Jose Angel Cuerda: Politikari gasteiztarra, 1934ko martxoaren 17an Gasteizen jaioa.

Gizarte-langintzako Unibertsitate Eskolako irakasle gisa hasi zen lanean, eta alde batetik, Hiri Jabetzaren Ganberako abokatu gisa jardun zuen, eta bestetik, bere bulego partikularren bidez. Bi kasuetan bere ardurapean arduraldi osoa izateagatik utzi zuen ariketa hori, baina 1992ko urritik berriro ekin zion, partzialki, Gizarte-Langintzako Eskolan Zuzenbideko irakasle gisa jarduteari.

Bere bizitza politikoari dagokionez, José Angel Cuerda EAJ-PNVren Arabako diputatu izan zen 1979an, Estatuko Gorte Nagusien lehen legegintzaldian. Kargu horri uko egin zion Gasteizko Alkatetza hartu zuenean, eta alkate izan zen 1999ra arte, etenik gabe. Hiri gizatiarragoa, bidezkoagoa eta solidarioagoa lortzea izan da bere agintaldien ezaugarri nagusia. Hirugarren Munduari, Hirugarren Adinekoei, Haurtzaroari, Kontzientzia lortzeari, Ingurumenari, Hiri Plangintzari eta abarri laguntzeko politika aitzindarietan gauzatu da hori (Añamendi Eusko Entziklopedia).

auzoan irekiz. Orduan, baliabide soziokulturalak hartzen zituen bere baitan, eta 1989tik aurrera, Iparraldeko gizarte-etxearen irekierarekin kirol instalazioak ere, barne hartzen hasi ziren gizarte-etxe integratuen ereduaren eratu. Egun, Gasteizko “seña de identidad” edo “emblema” dira, eta herritarren artean baloratuena den udal zerbitzua. Bertan, gauza bat eta beste, adin, jatorri, ohitura, bizimodu, kultura, eta orokorrean ezaugarri ezberdinetako jendea batzen da, eta hauen arteko elkarrekintza sustatzeko espazio aproposa dira. Modu horretara, Gasteizko aniztasunaren ikur direla esan daiteke eta jende askorentzat, sare komunitarioa eta ehun soziala sortu eta eraikitze baliabidea dira. Zentro hauen helburua “elkarbizitza sustatu eta bere auzoan eta hiriaren bizitzan herritarren parte-hartzea areagotzea” da (Gasteizko Udala, 2000, 24 eta 64. or). Gizarte-etxeetan parte-hartzea eta bizitza komunitarioa errazteko lagungarri diren hainbat eta hainbat zerbitzu daude⁴⁴, eta hiru dira gizarte-etxe guztietan dauden zerbitzuak, hauen artean oinarritzko gizarte zerbitzuak. Horrela definitu zituen Gasteizko Udalak arestian gizarte-zerbitzuak:

“Integrado por un equipo de profesionales que atiende las necesidades de índole económico, personal o de convivencia que presenta la persona, la familia o la comunidad en su conjunto. Informa, valora y orienta sobre programas de prestaciones, programas de infancia y familia, programas de tercera edad, programas de inserción social, programas formativos de habilidades y recursos personales, programas de participación y apoyo social, etc.” (Gasteizko Udala, 2000, 38-39. or).


Oinarritzko gizarte-zerbitzuak hasieratik integratu ziren zentro hauetan, eta horrek garrantzia handia izan dezake zerbitzuen normalizazioan zein estigmatizazioaren gutxitzean.

Gasteizko gizarte-zerbitzuak aitzindari izan dira beti, batez ere, Udalaren baitan izan duten garrantzia eta presentziagatik, eta aspalditik gizarte-zerbitzuetan egindako apustuagatik. Oro har, ez da oso ohikoa gai garrantzitsutzat hartzea. 60. hamarkadan, ez zegoen udaletan gizarte-ekintzarik, ezta Gasteizko Udalean ere, eta zegoen apurra ongintza kutsuko lana zen. Baina Gasteizen, hamarkada horren bukaera aldera, Lejarreta alkateak, bi gizarte-laguntzaile kontratatu zituen, Gasteizko Udalako gizarte-zerbitzuak izango zirenen lehen harria jarritz. Orduetik, kutsu komunitarioa garrantzia hartzen doan da Gasteizen, kontratazio horiekin batera, gizarte-ekintzako komisioa sortu baitzen. Komisio horretan, auzo alkateak ere partaide ziren, tokian tokiko behar eta eskariak identifikatzeko asmoz. 1974-76an berriz, egungo gizarte-zerbitzuen ereduaren sorrera

⁴⁴ 4. Eranskinetako taulan ikusi daitezke zerbitzuak eta oinarritzko gizarte zerbitzuak azpimarratuta agertzen dira.

gertatu zen, Gasteizko Udaleko orduko lau zinegotziek horren aldeko apustua egin baitzuten, Auzo Bulegoak eta hauen komizioak sortzeko mozioa aurkeztu zutenean⁴⁵. Horri aurrez aipatutako gizarte-etxeen sorrera batu zitzaien 1979an, eta ordutik horrela funtzionatzen dute. Gaur egun ere, beren erreferentzia aipatzekoa da, eta Gasteizko udalaren Gizarte Politiken, Adinekoen eta Haurren sailari erreparatzen badiogu, hainbat atal ikus daitezke bertan.

13. Irudia: Gizarte politiken, adinekoen eta haurren sailaren organigrama



Iturria: Gasteizko Udala.

Organigraman ikus daitekeen bezala, Gasteizko Udaleko Gizarte Politiken, Adinekoen eta Haurren sailaren antolaketaren baitan, Komunitate Jardueren Zerbitzua izena duen atala dago, bere zuzendaritza propioa duena. Atal horretan sartzen dira oinarrizko gizarte-zerbitzuak, eta beraz, izenetik hasita, nola jasotzen den ikustea adierazgarria da, jarduera edo ekintza komunitarioak sailaren diseinuan duen garrantzia ikusteko. Oinarrizko gizarte-zerbitzuetako antolakuntza zehatza ikusten badugu, lehen aipatu bezala, hastapenetatik gizarte-etxeen barruan daude zerbitzuok gainerako udal baliabideekin batera, eta beraz, auzoei erantzuteko 14 oinarrizko gizarte-zerbitzu talde edo unitate daude, auzo edo lurralde jakin baterako tokian tokiko lana egiteko. Talde hauek profil profesional ezberdinetako profesionalek osatzen dituzte, gizarte-langileak, psikologoak eta kale hezitzaileak hain zuzen ere, eta oinarrizko gizarte-zerbitzu bakoitzak bere zerbitzu burua dauka, normalean gizarte-langilea izan ohi dena.

Ildo horretan jarraitzeko asmoz, egun ere badauka Gizarte Politiken Plan Estrategikoa, gizarte-zerbitzuei erreferentzia egiten diena, alegia, eta hemen ere, komunitarioaren garrantzia behin eta berriz azpimarratzen da.

⁴⁵ Informazioa hau, gizarte-zerbitzuen 40. urteurrenagatik egindako ekitaldian jasotako informazioa da. Horiei buruz gehiago jakiteko: https://www.vitoria-gasteiz.org/wb021/was/contenidoAction.do?idioma=es&uid=ab05935_15af6558234_7feb

Gizarte-zerbitzuen egitekoa: “Gasteizen bizi diren pertsonen autonomia eta gizarte ongizatearen alde lan egitea da, komunitatea eratuz”. Horretaz gain, ikuspegiari buruz ere mintzo da:

“Protagonista izan nahi dugu komunitate solidario, kohesionatu eta inklusibo baten eraikuntzan, gizartearen baitan parekotasunik eza ahalbidetzen duten egoerak gaindituta, eta desberdintasunak aintzat hartzeaz batera pertsona guztiei tratu ekitatiboa ematen zaien hiria izan dadin Gasteiz” (Gasteizko Udala, 2015, 6. or).

Xedea zein ikuspegia bermatu daitezen, balio eta printzipioak markatzen dira, betiere pertsonen duintasuna lehen lerroan jarriz. Balioen artean, komunitarioarentzat interes berezia duten bi aipatuko ditugu: batetik, elkartasuna, komunitate sareak eraikiz, eta bestetik, eragile sozial eta instituzionalenganako irekitasuna eta lankidetzaz, pertsonen artea integrala emateko espazio komunak sortuz.

“Esku-hartze pasiboetatik esku-hartze proaktiboetara eta prebentziozko esku-hartzeetara aldatuko da (...) Esku-hartze horiek ikuspegi komunitarioan berezkoak izaten dira, eta gu ikuspegi horri jarraikiz ari gara lanean jada, kalitatezko arreta bermatzen baitu, eta testuinguru berri batean ere eraginkorrak eta efizienteak direla egiaztatzeak aukera izango dugu” (8. or).

Gasteizko jarduera planak lehentxeago aipatu dugun Hiriko Plan Estrategikoarekin bat egiten duela aipatzen du, helburuak partekatzen baitituzte, nagusiki, bizikidetzaz sendotzea eta bizi kalitatea hobetzea, baina Gizarte Politiketako Plan Estrategikoak gizarte-zerbitzuen zentratutako ildoak finkatzen ditu:

- Herritarrei eskubide subjektiboko zerbitzu eta prestazioak baliatzeko aukera bermatzea.
- Eredu komunitarioa finkatu eta garatzea, eta, bereziki prebentzioaren ikuspegia eta arretaren pertsonalizazioa.
- Sortzen ari diren premia detektatu eta premia eta ahultasun egoeren aniztasunari eta konplexutasunari erantzutea.
- Udalaren gizarte-zerbitzuen egitekoa sendotzea, herritar guztientzako gertuko erreferente gisa (18. or).

Bigarren ildo horretan zentratzen bagara, planean aipatzen da esku-hartze komunitarioa garatuz, sareko lanaren eta komunitatearen gaikuntzaren bitartez lan egin ahal izango dela.


“Horrek koordinazio eta lankidetzaz maila oso handia izatea eskatzen du, artatzen ditugun pertsona eta familiekin, gizarte eragileen sareekin, baita irabazi asmorik gabeko ekimen sozial pribatuekin ere, gizarte-zerbitzuen eremuan. Gizarte arloko esku-hartze honen helburu nagusia komunitateari gaikuntza/prestakuntza ematea da, komunitatea bera gai izan dadin bere premiei bere baliabideen bitartez

erantzuteko. Herritarren parte-hartzea, elkartegintza, elkarrekiko laguntza... sustatzea eta dinamizatzea ere bai; azken batean, herritarren inplikazioa bultzatzea, gizarte kohesioa indartzeko eta sareko lana egituratzeko” (22. or).

Ikusi dezakegun moduan beraz, Gasteizko oinarrizko gizarte zerbitzuak ere, badaukate komunitateko dimentsioan sakontzeko aukera. Komunitateari dagokionez, anbizio handiko marko normatiboa daukate eta joko zelai egokia aurkezten dute, bai beren egitura eta kokapen fisikoagatik, eta baita izandako tradizio historiko eta jatorriagatik ere.

Gasteizko Udalaren inbertsioari erreferentzia xume bat egitearren, gure arloari dagokien zenbaki batzuk bilduko ditugu. Gasteizko udalaren 2022ko aurrekontu orokorra 411 847 292€koa da. Kopuru horretatik 78 492 872€bideratzen dira Gizarte Politiken, Adinekoen eta Haurren Sailera, hots, aurrekontu guztiaren % 19,05a. Hala ere, goiko organigraman ikusi ahal izan dugunez, asko dira sail honen baitan barnebiltzen diren azpi atalak, eta azpiko grafikoan kopuru horrek biltzen dituen kontzeptu guztiak jasotzen dira.

14. Irudia: Gasteizko Udaleko Gizarte Politiken, Adinekoen eta Haurren sailaren aurrekontuaren banaketa



Iturria: Gasteizko Udala.

Grisez ikusten den zatitxoa da oinarrizko gizarte-zerbitzuetara bideratzen den zatia, 1 755 684€ hain zuzen ere, eta guztira, Komunitate Jardueren Zerbitzuari 32 017 865€ bideratzen zaizkio, besteak beste, adinekoen zentro soziokulturalak aintzat hartzen baititu. Oinarrizko gizarte-zerbitzuetan arreta jartzen badugu, azken urteetan goranzko joerarik ez dela eman ikusi dezakegu eta 2015. urtetik, gutxi gora behera geldituta dago (Gasteizko Udala, 2022).

Gasteizi egindako hurbilpena eta gero, Gasteizko Udalak ere, komunitatean sakontzeko bermeak eskaintzen dituela esan genezake. Egun, gainera, bere markoengatik, helburu estrategikoengatik eta egituragatik, dimentsio komunitarioa garatuen duen oinarrizko gizarte-zerbitzuetako bat izan daiteke, EAE mailan erreferente izanda gainera.

4.2.1. POLITIKARIEN IKUSPEGITIK

Gasteizko Udalaren baitan oinarrizko gizarte-zerbitzuetatik gertuen dauden udal ordezkarien bitartez jaso dugu komunitarioaren inguruko informazioa. Ikus dezakegu, kasu batzuetan, beste kasu batzuetan baino gehiago ezagutzen dela komunitarioaren inguruan, eta horrek, erabat baldintzatzen du elkarrizketatuen diskurtsoa. Hala ere, ikuspegi edo kontzeptualizazio ezberdinak daudela begi-bistakoa bada ere, diskurtsiboki jarrerak norabide berean doazela esan dezakegu.

Kanpo dimentsioa

13. Taula: Kanpo Dimentsioa eta elementu baldintzatzaileak

Kanpo dimentsioa	Neoliberalismoa
	Egoera estrukturalak eta prekarietatea
	Indibidualismoa

Iturria: Norberak egina.

Kanpo dimentsioari dagokionez, neoliberalismoari, egoera estrukturalari eta prekarietateari zein indibidualismoari buruz hitz egin dugu aurreko atalean. Gasteizko Udaleko ordezkari politikoen artean ere aipatzen dira, nahiz eta zeharkako ere batean izan.

Neoliberalismoa gizarteko zirrikitu zein sistema guztietan sartu dela aipatzen digu elkarrizketatuetako batek, eta gizarte-zerbitzuetan ere hala gertatu dela dio, eskubideen eta ondorioz, zerbitzuen merkantilizazioaren bidez:

“En los servicios sociales, en general, y en los servicios sociales de base también, las derechas han descubierto, bueno, todo el mundo, pero creo que en este caso las derechas más, han descubierto un nicho de negocio muy interesante. Estuvieron en la burbuja inmobiliaria y antes invirtieron en ladrillo, los amigos de los políticos siempre eran constructores y ahora pasa con las residencias, por ejemplo. Y aquí en Vitoria está pasando, están entrando empresas muy potentes. En Gasteiz y en Araba también había una tradición muy potente de que los servicios sociales, de una manera natural, se gestionaban de manera pública y los

que no, con entidades del tercer sector, como la comisión antisida que tenían una vocación diferente, (...) que tiene unos beneficios sociales y de atención. Pero a la institución le genera una serie de prejuicios y ahora prefiere que lo gestionen empresas macro, para la parte burocrática, las altas y bajas, bolsas de trabajo enormes. Son multinacionales que soportan todo, incluso pueden tirar más los precios. Las demás entidades no pueden permitirselo. Es un problema porque creo que estamos en la tendencia al revés, están privatizando muchas cosas con el proceso típico: primero devaluas un servicio, cuando está devaluado y deteriorado ya tienes la justificación para privatizarlo y eso es lo que está pasando exactamente” (E.9 Politikaria).

Tendentzia horrek, ez du soilik erresidentzia bezalako eraikinetan eragina. Jaso dugunez, komunitarioagoak izan daitezkeen ekintzetan ere enpresa pribatuak azpikontratatzan dira, sarritan, enpresa handiak izanik. Komunitarioaren alorrean egiten diren ekintzekin inertzia hori jarraituz gero, planteamendu komunitarioak estruktura publikotik kanporatzeko arriskua dago. Aurreko kudeaketaren atzean dagoen ideia guztiaren erdian ekonomia eta dirua jartzea dela aipatu digu, eta egungo adibide bezala azaltzen du zaintzaren krisiari ethez-etxeko arreta zerbitzuaren bidez ematen ari zaion erantzuna, prekarietatean oinarritutako erantzuna, alegia:

“Los perfiles que están trabajando en el SAD y son las que están cuidando de nuestras personas mayores con el valor tan importante que eso tiene, son sobre todo mujeres, migradas la mayoría, sin mucha formación y lo hacen todo con el cariño y la voluntad que tienen, sin embargo, son servicios muy precarios económicamente, súper mal pagados y en unas condiciones laborales terribles (...) estamos viviendo la privatización de la crisis de los cuidados, dándole una respuesta desde el sistema capitalista” (E.9 Politikaria)”.

Gizarte-zerbitzuen joera merkantilizatzaileaz gain, elkarrizketetan ere identifikatu ditugu neoliberalismoaren beste eragin batzuei egiten zaizkien erreferentziak. Neoliberalismoak, lehenago aipatu dugun bezala, bizitza erritmoak azkartu ditu, eta egunerokotasuneko gauza txikien gaineratik jarri du kapitala. Tokikoaren gaineratik jarri du globala, beste era batera esanda, mikroaren gaineratik makroa:

“Vivimos de prisa y corriendo, (...) hay que darle una vuelta a lo que es la sociedad. (...) En las ciudades cada vez hay barrios más grandes y más dispersos, en los que hay mucha gente joven que vive de prisa” (E.11 Politikaria).

“Una composición de ciudades más compleja, en la que hay menos comercio local. (...) también aquí, tenemos una crisis con el comercio local” (E.12 Politikaria).

Neoliberalismoaren elementua, modu esplizituan, kasu gutxitan erreferentziatu bada ere, elkarrizketetan ideologia edo joera horren hainbat zantzu identifikatu ahal izan ditugula ikus dezakegu. Printzipioz, gizarte-zerbitzuetan merkantilizazioak, tokikoaren gainbeherak edota txikitasunaren garrantziaren beherakadak badirudi ez duela

komunitarioarekin zerikusirik. Aldiz, estrategia komunitarioak garatu ahal izateko, hauek lidergo publikoarekin eta tokian tokiko egunerokotasunean oinarrituta egitea garrantzitsua da. Horrenbestez, aipatu berri ditugunak eragin dezaketen joerak dira, erabat baldintzatuz.

Aurreko guztia dela eta, gizarte egoera berriak agertu eta *egoera estrukturalak zein prekaritatea* hazi egin direla ere gaineratzen dute. Kultura zein praktika neoliberalistatik eratorritako logikek eraginda, egoera larriagoak eta askotarikoagoak ematen direla aipatzen digute (E.9, E.10 eta E.11 Politikaria), eta horren adibide dugu esaterako hurrengoa: “Los problemas de desigualdad, son el principal problema de esta sociedad” (E.11 Politikaria). Duela ez askora arte ordea, diruarekin ordaintzen ziren sistemaren gabeziak, baina prekaritateak hori zaildu egiten du. Hori horrela, arazo estruktural horietatik eratorritako egoeren ardura eta zaintza, familiaren gain erortzen da, gehientsuenetan emakumeen gain. Ordea gaur egun, sarritan baliabide faltagatik, familiak ez dira erantzuteko gai (E.9, E.11 Politikaria).

Elementu honetan esanak laburbilduz, bizitza aldatu dela, egoera sozioekonomiko orokorrak okerrera egin duela eta horrek eragina daukala aitortzen dute: “la convivencia es complicada, las relaciones personales son muy complicadas, el trabajo es complicado, la vida, la situación económica... entonces, todo influye, ¿no?” (E.11 Politikaria).

Kanpo dimentsioko elementuen inguruan jasotakoekin bukatze aldera, aurreko bi elementuak baino askoz nabarmenagoa da *indibidualismoaren* pertzepzioa elkarrizketatuen artean. Elkarrizketa guztietan ikusi ahal izan dugu indibidualismoaren erreferentziaren bat, nahiz eta fokatzeko ezberdinetatik eratorria izan. Besteak beste, gizarteak bizi izan duen eraldaketaren, hots, lehengo gizarte ereditik gaur eguneko gizarte eredurako aldaketaren atzean, indibidualismoa sumatzen da. Gainera, ikus dezakegu ideia hau erabat lotuta dagoela neoliberalismoaren elementuan aipatu dugun tokian tokiko egunerokotasunarekin.

“En mi infancia cómo eran las relaciones con mis vecinos y vecinas, en mi entorno, en la calle y cómo es ahora. (...) nos conocíamos todos, íbamos con mis hermanas a la escuela y la ama nos mandaba a comprar a la tienda de al lado con sólo 10 años o los vecinos se quedaban a cargo nuestro mientras la ama salía a hacer algún recado. (...) esas redes ahora casi no existen, ese tejido social que antes de manera natural existía” (E.9 Politikaria).

“Vamos a una sociedad más individualista y desde luego, no es bueno ni es acertado (...) venimos de una sociedad en la que la vida era compartida y esto realmente choca (...) ese entramado (el comunitario) es muy importante a la hora

de que tú te sientas formar parte de una sociedad, que no vives de manera individual” (E.11 Politikaria).

Egungo gizartea indibidualismoaren ideiarekin araberaren arabera definitzen dute udal ordezkariak, eta hurrengo bezalako esaldiak elkarrizketa guztietan jaso ditugu: “esta sociedad individualista, esta sociedad que mira a su ombligo, a sus cosas” (E.10 Politikaria). Honek guztiak proposamen zein planteamendu komunitarioetan duen eragina nabarmentzen dute politikariak, eta ardura handiz bizi duten gaia dela gaineratu dute guztiek.

Nolanahi ere, bereziki Covid-19aren pandemiari lotutako bestelako ideiak ere agertu dira. Elkarrizketa batzuetan egin zaie erreferentzia horiei, nahiz eta, ez duen indibidualismoaren ideiak besteko tokia izan, eta kasu gehientsuenetan, denboran mantendu ezin izan den lotura edo sarea izan dela gaineratu dute (E.9 Politikaria). Hala ere, komunitarioarekin lotura duenez gero, pandemiaren eraginez elkartasuna areagotu dela aipagarria da:

“Yo creo que la pandemia ha aflorado un poco todo ese sentimiento de solidaridad (...) ese trabajo en red” (...) aunque tengamos una visión de primeras, muy individualista, yo creo, en realidad, que si rascas creo que hay un tejido potente por la cercanía, aunque el que igual no tiene una problemática social esté ajeno” (E.12 Politikaria).

Hitz gutxitan dimentsio honi bukaera eman asmoz, kanpo dimentsioko elementuak elkarrizketetan mintzagai izan direla ikus dezakegu. Udal ordezkariak oso kontziente dira hauetaz, eta baita planteamendu komunitarioetan duten eraginaz ere. Batzuk beste batzuk baino garrantzi gehiago eman dioten arren, guztiek partekatzen dute, batez ere, joera indibidualistaren nagusitasuna, horrek dakarren guztiarekin.

Dimentsio politikoa

14. Taula: Dimentsio politikoa eta elementu baldintzatzaileak

Barne Dimentsioa		Dimentsio Politikoa	Komunitarioaren kontzeptualizazioa
			Borondate politikoa- Apustu politikoa
			Marko legalak, aginduak eta planak
			Baliabideak
			Ideologia

Iturria: Norberak egina.

Dimentsio politikoaren baitan, aurreko atalean identifikatu ditugun elementuak ere mintzagai izan dira elkarrizketetan. Batzuk modu argiagoan azaldu dira, eta beste batzuk

inplizituagoan, baina, gehiago edo gutxiago, guztiak agertu direla ikusiko dugu hurrengo lerroetan.

Kontzeptualizazioa

Alor politikoan gizarte-zerbitzuen inguruko ezagutza, ez da beste gai batzuen inguruko ezagutza bestekoa, ezta alorraren ardura dutenen artean ere. Hala ere, kasu batzuetan, gaian oso kokatuak dauden udal ordezkariak elkarrizketatu ditugu. Edonola ere, jaso dugu informazioa. Hasteko, esan dezakegu, oinarrizko gizarte-zerbitzuak definitzerakoan, gizarte-zerbitzuen lehen ateari buruz mintzo direla kasu gehienetan, batez ere, baliabideetan arreta jarritz:

“Los servicios sociales de base, tal y como lo tenemos modelizados nosotros, son ahora la puerta de entrada a cualquier actividad de servicio social. (...) Se encargan, pues no solamente de preveer, sino de prevenir, de organizar y de estructurar la primera acción. (...) Hacen una labor de información y canalización de recursos. (...) los servicios sociales de base son fundamentales en el modelo que tenemos” (E.10 Politikaria).

“son la puerta de entrada al sistema de servicios sociales, es la primera atención, sobre todo de orientación, información y luego también de acceso a diferentes sistemas de las instituciones” (E.12 Politikaria)

Oinarrizko gizarte-zerbitzuak zer diren azaltzeko eskatzerakoan, ez dute komunitarioaren inguruko aipamenik egin. Ulertzen baldin badugu, definizioa bat osatzerakoan garrantzitsuenak diren elementuak aipatzen direla, ikus dezakegu, oinarrizko gizarte-zerbitzuak komunitarioak izan behar dutenaren ideia ez dela, gutxienez, hasierako burutazio batean etortzen zaiena.

Alabaina, elkarrizketak komunitarioaren kontzeptualizazioan gehiago zentratzean, oinarrizko gizarte-zerbitzuen eredia komunitarioa dela argi daukate, nahiz eta kasu askotan programa edo baliabide konkretuekin lotu duten.

“La dimensión comunitaria nosotros pensamos que es el modelo de los servicios sociales (...) un modelo inclusivo, autonómico, autónomo de autonomía personal y un modelo en el que la dimensión comunitaria es precisamente porque tiene que llegar a toda la comunidad. Precisamente, ese es el valor que tienen los servicios sociales. (...) Tenemos un modelo muy claro de asistencia a los mayores, a la inclusión, con un modelo comunitario, tenemos un servicio de comunitario que abarca el proceso desde la inclusión al servicio de domicilio, ayudas de emergencia, las redes, es decir, abarca todo. (...) Es una cadena a través de programas, la otra pata serían los programas” (E.10 Politikaria).

Aldiz, komunitarioaren inguruko zehaztapenak ematean, aurreko atalean definitutakoa baino azalekoagoa den kontzeptualizazioa agertzen da. Nahiz eta, prebentzioa edo

inklusioa bezalako hainbat elementu aipatu, kasu gehientsuenetan, ez zaio adituek azpimarra berezia egiten duten ahalduntzean, kolektibotasunean edo agentzia politikoan arreta berezirik jartzen. Ildo honetan jarraituz, komunitarioaz mintzatzean erabiltzen diren kontzeptuen artean, errepikatuenetakoa sare lana da, baina betiere pertsonaren arretari begira egiten dena. Esan moduan, ahalduntze dinamikei edo dinamika kolektiboek zuzendutako eragileen sare lanari buruz mintzatu ordez, batez ere, sistema formaletako eragileen arteko koordinazioari egiten zaio erreferentzia:

“Básicamente el trabajo en red, (...) tenemos la incidencia de otra serie de condicionantes y muchas veces el entorno es fundamental, el entorno de la familia, del barrio, el entorno del centro de salud, el trabajo en red nos da una visión mucho más amplia, de la situación que presenta cada persona”.

“el trabajo comunitario, sobre todo con los servicios de salud, es fundamental. (...) La coordinación estrecha con el sistema vasco de salud, con los centros de salud, realmente para compartir, (...) para detectar, que podamos tener una coordinación con el objetivo de atender mejor la problemática. El trabajo en red es fundamental y creo que es la forma de dar una visión más integral y aprovechar los recursos” (E.12 Politikaria).

Ikusi dezakegu garrantzia ematen zaiola testuinguruari eta sare lanari, baina, nagusiki, norbanakoa hobeto artatzearen helburuarekin. Klika bat egitea faltako litzateke, ahalduntze dinamiketara edo programa zein ereduetatik estrategia orokorragoetan pentsatzera jauzi egin ahal izateko. Kasuren batean ikus daiteke, komunitariorik erreferentzia egitean, gizarte ehunaz ari garela, harremanez, tokian toki, herri edo auzoetan sortzen den dinamika sozialaz, inplizituki bada ere, agentzia politikoaz eta antolakuntza kolektiboaz: “Lo comunitario, o sea, que la sociedad civil, las vecinas y vecinos del barrio de manera voluntaria y libre, vean necesidades, y se organicen para cubrirlas” (E.9 Politikaria).

Kontzeptualizazioaren inguruan beraz, koordinazioan, arreta ereduari edo programa konkretuetan arreta jartzen dela ikus dezakegu, kasuren baten ezik, beste guztietan. Hori horrela, epe ertain luzeko estrategia kolektiboek mintzo ez direla ondoriozta dezakegu, eta hortaz, zerbait lausoagoaz ari direla. Modu honetan, nahasmendua sortu daiteke eragile ezberdinek ulertzen dutenaren artean eta zuzenean eragiten du proposamen komunitarioak abian jartzerako orduan. Hala ere, ehunaren eta sarearen ideian oinarrituta, hurrengo elementua aztertzean ikusiko dugun bezala, planteamendu komunitarioen inguruko jarrera positiboekin aurkitu gara.

Borondate politikoa-apustu politikoa

Borondate politiko eta apustuaren ingurukoak, sarritan atera dira ordezkari politikoen elkarrizketetan, batez ere, Gasteizko Udalak 80 eta 90. hamarkadetan oinarrizko gizarte-zerbitzuen zein komunitarioaren alde egindako apustutik eratorrita: “se hizo una apuesta muy interesante al inicio, descentralizado, al unirlos a los centros cívicos y así ponerlos en cada barrio (...) se avanzó mucho”. Kasu gehienetan jaso dugu Cuerdaren garaiko erreferentzia hau, hala ere, elkarrizketetako baten nabarmendu denez, “luego se ha querido vivir de ese rédito, y aunque hay que aplaudirlo y hay que verlo, después se ha quedado así, no se ha desarrollado”. Oraindik apustu horretako oinarriak jarraitzen du, izan ere, “es cierto que cuando se hacen más centros cívicos, se ubica en ellos el servicio social de base”, baina aipatzen da ondoren ez dela behar besteko lanketa egiten jarraitu (E.9 Politikaria).

“Se ha hecho una apuesta por ese trabajo vecinal de cercanía. (...) En las personas mayores, con las ciudades amigables, se está trabajando mucho en red, por ejemplo con las farmacias, los locales comerciales... Entonces yo creo que sí, que hay un movimiento surgido desde la sociedad civil y ha habido un apoyo del ayuntamiento para aprovechar esas sinergias. (...) Hay una semilla de apostar por lo comunitario, (...) yo creo que cada vez se trabaja más en eso. Todos estamos de acuerdo que esa es la clave: que podamos trabajar en pequeñas comunidades dentro de la ciudad” (E.12 Politikaria).

Egoera aldatu da, baita errealitatea ere, eta horrek zuzenean eragiten du oinarrizko gizarte-zerbitzuen errealitatean. Dena den, lehen naturalki ematen zen hori (bizitza komunitarioa), gaur egun sustatu eta bultzatu egin behar dela sinesten da, eta horren aldeko apustuaren beharra sumatzen da: “hay que provocar esa parte comunitaria”, izan ere, lehen era naturalean egiten zena, egun “ahora teníamos que crear una red para cubrir esas necesidades”. Edozein modutan, argi dute kasu batzuetan beharizanak asebetetzeko ardura norena den: “políticamente yo creo que esas necesidades deben ser cubiertas de manera pública, es un derecho de la ciudadanía” (E.9 Politikaria).

Diskurtsiboki, gutxienez, planteamendu komunitarioen aldeko postura agerikoa da udal ordezkarien artean, denek, salbuespenik gabe, adierazten baitute elkarrizketetan honen aldeko apustua egiteko beharra. Horrelako adierazpenetan ikus daiteke:

“Me voy a atrever a decirte que sería un antídoto (la dimensión comunitaria y de participación) y es un antídoto contra el individualismo y contra esta sociedad personalista en la que cada una se mira a sí misma” (...) Esto es fundamental, no se puede tener una buena educación o sanidad, cuando tienes a gente excluida. (...) Los servicios sociales son una de las patas fundamentales de la sociedad, del bienestar y del Estado de bienestar” (E.10 Politikaria).

“El tema de asociaciones y colectivos que apoyan también en momentos distintos de los que puedas tener en la vida, pues.. creo que son indispensables, porque no se puede vivir de manera individual, necesitamos unos de otros, no podemos vivir solos” (E.11 Politikaria).

“Que cuando sociedad civil y administraciones trabajamos juntos ganamos todos. Porque la sociedad civil, tiene como ventaja esa frescura, esa cercanía, estar en el día a día, el ver los cambios que se producen en la sociedad y nosotros tenemos que estar adaptándonos a esos cambios. Para adaptarnos a esos cambios, necesitamos detectarlos cuanto antes, con lo cual si ese trabajo en red funciona bien, nos anticipamos o por lo menos somos menos lentos a la hora de dar la respuesta que nos exige la sociedad y las personas, algunas cosas que trabajamos” (E.12 Politikaria).

Aurreko hitzekin nabarmentzen den bezala, badago planteamendu komunitarioen aldeko jarrera elkarrizketatuen artean. Nolanahi ere, hasieran borondatea badago ere, lehentasunak markatzerako orduan argia da hobespena batzuen artean:

“La teoría es el trabajo en red, que es fundamental, pero luego hay que atender a personas con problemáticas, todas complejas, entonces al final en tu priorización de trabajo está la atención y la prestación de servicios, entonces eso a veces igual puede quitarte ese tiempo para explorar otras áreas de trabajo que son importantes. Aunque ya te digo, aquí se trabaja mucho con la clave transversal. (...) Si tú no tienes esa estructura ya creada, la tienes que crear, entonces si no tienes el tiempo de crearla, tienes que priorizar y lo prioritario de un servicio social de base, lo que tiene encomendado por ley y como funcion, es la atención de las problemáticas sociales” (E.12 Politikaria).

Esanak esan, printzipioz, borondatea erakutsi dute ordezkari politikoek, gutxienez beraien diskurtsoei erreparatuz. Aurreko atalean ikusi dugun bezala, ezin besteko elementu baldintzatzailea da hau, eta gainerako guztietan zuzenean eragiten duena. Hori dela eta, pauso garrantzitsuenetako batean, jarrera positiboa antzematen dugu. Gero, ordea, ikusi beharko da nola egikaritzen den hau guztia, horretarako zera behar baita:

“Los servicios sociales de base necesitan, por supuesto, un apoyo político (...) tiene que tener siempre un apoyo detrás, pues si no apoya, mal. Esto hay que exigirle al concejal de turno, al poder político. Que empuje esto para empezar” (E.10 Politikaria).

Marko legalak, aginduak eta planak

Aurreko borondate politikoa martxan jartzeko, udalak ez ditu legalki eta araudiei dagokionez eskumen handirik. Hala ere, hauen esku dago, besteak beste, udal mailan bada ere, oinarrizko gizarte-zerbitzuei garrantzia emanez, gizarte-langileen eskumenak eta esku-hartze eremua zabaltzea. Enkarguaren bidez egin daiteke hori, baliabideak handituz edo plan estrategikoak garatuz. Izan ere, elkarrizketetan jasotzen dugun bezala, legea hor dago, eta eredu zein ikuspegi komunitarioa jasotzen ditu, baina:

“La ley de servicios sociales plantea el trabajo en red, pero tampoco lo desarrolla. (...) Por lo tanto, el trabajo en red no está desarrollado. Creo que eso es parte del trabajo de la sociedad civil y del trabajo de las instituciones en el que tiene que haber una confluencia” (E.12 Politikaria).

Horretan zentratzeko, udalek plan estrategikoak izan ohi dituzte, aginduak edo bestelako eredu bidezko zehaztapenak. Gasteizko kasuan ere, testuinguraketa egin dugun atalean ikusi ahal izan dugunez, badago komunitarioan sakontzen duen plan estregikoa, Arartekoko txosteneko (2016) gomendioei jarraiki. Hala ere, elkarrizketetan jaso dugunez, zaharkitua geratu da, eta ez da berritu momentuz. Ordezkarien ustetan, udalen egin beharra da hau guztia, bere erakundearen baitan antolatzea: “hay que canalizar desde las instituciones todo ese trabajo que puede estar disperso para darle una una coherencia” (E.12 Politikaria).

Aipatutakoa kontuan izanda, behin borondate edo apustu politikoa egonda, horretarako baliabideak sortu behar dira. Baliabide material zein ekonomikoak egon daitezen, lehenik eta behin, joko arauak marraztuko dituzten markoen beharra dago, eta honetan, gabezia dagoela ikus daiteke. 12/2008 Legeak modu teoriko batean, eta Plan estrategikoak (2016) zein Arartekoko txostenak (2016) jasotzen duena lurreratzeko eta egikaritu dadin, tekniko metodologiko zehatzagoa den markoa osatzea garrantzitsua da. Elkarrizketetan jaso dugu oinarrizko gizarte-zerbitzuen egitekoak zehatzago adierazten dituen Zorroak (185/2015 Dekretuan) ez dituela apenas planteamendu komunitarioko prestazio edo zerbitzurik jasotzen, ez bere horretan behizat, ezta prozesu itxurako estrategiarik ere (E.9 eta E.12 Politikaria). Hori horrela izanda, komunitarioan sakontzeko oztopo nagusietako bat marko legalaren elementu baldintzatzailea izan daiteke. Preseski zera adierazten dute elkarrizketetan:

“Ahí hay un terreno de desarrollo enorme para que tu referencia sea el servicio social de base y tú vayas allí, en tu barrio y la trabajadora social te atiende en todo momento, incluso te acompañe muchas veces para las relaciones (...) No es lo mismo que te acompañe una persona de confianza, que para cualquier cosa tengas que cambiar de persona de referencia, tengas que ir a un sitio nuevo para ti, en otro entorno de la ciudad, otros profesionales” (E.9 Politikariak).

Baliabideak

Hasieran aipatutako apustu eta borondate politikoak markoak behar izateaz gain, berriki esan bezala, baliabideak ere behar ditu egikaritzeko. Ez da nahikoa komunitarioa egin gura dela esatea, baliabidez hornitzen ez bada, ezinezkoa izango delako. Gaur egun, Gasteizko Udalean ezkutuko murrizketak ematen direla aipatu digute, izan ere, aurrekontua igo da (bi milioi), besteak beste, Foru Aldundiko eskumen bat (erakunde

horretan sei milioiko balioa zuena) Gasteizko Udalak bereganatu duelako. Gainera, diru hazkundera esku-hartzera joan beharrean baliabideetara joaten dela gaineratu digute. Baliabide ekonomikoak arreta eredu aldaketa ahalbidetu edo sustatu dezaketen elementuetan inbertitu beharko liratekeela adieraziz: “hace falta más trabajadoras sociales, más personal administrativo e invertir en espacios, también merece la pena” (E.9 Politikaria).

Hala ere, badirudi ordezkari politikoaren artean, adostasuna dagoela aurrekontu beharraren zein baliabideen beharraren inguruan ere: “Evidentemente el visibilizarlo en los presupuestos yo creo que puede ser importante, ¿no?” (E.12 Politikaria). Modu honetan, aurrekontua handitu beharko litzakeela adierazten dute eta oinarrizko gizarte-zerbitzu planteamendu komunitarioagoak sustatzeko gehiago inbertitu beharko litzatekeela:

“Deberíamos de implementar presupuestación, presupuesto municipal o del que sea competente, de las diputaciones o del ayuntamiento. (...) Debe de pasar por aumento de presupuestación en todas las áreas de lo comunitario. (...) Tenemos agujeros que no llegamos a tapar, (...) hacemos todo lo que podemos, pero no es suficiente” (E.10 Politikaria).

Nolanahi ere, diskurtsiboki botere politikoak oinarrizko gizarte-zerbitzuen eta planteamendu komunitarioaren aldeko jarrera eta apustua adierazten badute ere, gero gastu bezala ikusten da bertara egiten den diru ekarpena, beste alor batzuetan inbertsio modura ikusten den bitartean. Hori zailtasun gisa adierazi dute elkarrizketatuetako batzuk, eta politikariek gainerako politikari eta arloetan gertatzen ez den bezala, asmo hau etengabe justifikatu behar izaten dutela esaten digute (E.10 Politikaria).

Baliabideen inguruan, gizarte-langileen beharra azpimarratu da elkarrizketaren batean, baina egia da, alderdien arabera, elkarrizketa guztietan ez dela eskaera errepikatzen. Batzuen ustetan, dagoen plantilarekin aski izan daiteke, nahiz eta berrantolaketa bat behar duten aitortu. Beste batzuen ustez, ordea, egungo baliabideak ez dira nahikoa bizi dugun errealitateari erantzuteko:

“Necesitamos recursos y también planificarnos” (E.10 Politikaria).

“La inversión económica sí, pero el capital humano es muy importante” (E.11 Politikaria).

“Cuando va, por ejemplo, una persona mayor a solicitar un recurso, lo que ellas transmiten es que detectan que detrás hay mucha historia para intervenir, pero sólo vienen a pedir un cambio de SAD porque se va de vacaciones al pueblo. Ellas anotan y gestionan pero no pueden acompañar en todo el proceso” (E.9 Politikaria).

Edozelan ere, akonpainamenduetan kanpora atera eta pertsonekin gehiago egoteko lanetan, harremanetan oinarritutako lana egiteko figurak indartzea ezinbestekotzat ikusten da, kasu batzuetan, oraingoa hankamotz ikus baitaiteke. Hala nola, aurreko adierazpenekin kontraesanak sortu daitezkeen arren, hurrengo adierazpenetan ikus dezakegu:

“Han puesto en algunos centros cívicos la figura de integradora social para acompañar (...) lo vemos muy positivo y en ese sentido creemos que hay una posibilidad de desarrollo enorme, pero en ese camino hay que dotar cada vez más, más dinero, hay que invertir más, aumentar las platillas, formación específica” (E.9 Politikaria).

“Deberíamos aumentar financiación? ¿Deberíamos aumentar personal? Por supuesto” (E.10 Politikaria).

Baliabideen inguruan esandakoekin bukatze aldera, beste mota batzuetako baliabideak ere beharrezkoak direla aipatzen dute. Udal ordezkari batzuen ustez, komunitarioaren alorrean egiten den ikusarazteak berebiziko garrantzia du. Dimentsio teknikoko sistematizazioaren atalean gehiago sakonduko dugun arren, hemen jaso izan gura dugu, ordezkariak ere bestelako baliabideen beharra ikusten baitute. Horretarako garrantzitsua da lana balioan jartzea: “Si luego todo el tema de sensibilización, de hacer jornadas, de dar a conocer” (E.12 Politikaria).

Ideologia

Dimentsio politikoaren baitako azken elementu baldintzatzaile gisa dugu ideologia. Ideologiari erreferentzia egitean bi aspektu ezberdin adierazten genituen elementuak azaltzeko atalean. Batetik, gaiarekiko izan dezaketen enpatia edo kontzientzia soziala, eta bestetik, aldiz, alderdi ezberdinen arabera egon daitezkeen aldaketa kontzientzia edo enpatia horretan.

Elkarrizketa hauetan koloreen araberako ezberdintasunak atzeman dira. Kontzientzia soziala ez dute ordezkari guztiek berdin garatuta, baina alde handiena, gaian ez dabiltzan udal ordezkarietako sentitzen dute. Ildo honetan, politikarien arteko elkarrizketetan gizarte alorrean, eta ondorioz komunitarioan, egiten diren inbertsioak gastutzat ikusiak direla aitortu digute, nahiz eta sarritan zer egiten duten ez jakin: “Los servicios sociales cada vez son más concebidos por los partidos, que de momento están en el poder, de que son un gasto, que los servicios sociales son un gasto” (E.9 Politikaria). Aspektu honetan, osoko bilkuretan edo gobernu batzordeetan, inbertsioak hazteko egin beharreko argudiaketa astunak aipatu dizkigute. Lehentxeago esan bezala, etengabe jomugan eta

justifikatu beharrean aurkitzen dute euren burua planteamendu hauek bultzatzen dituzten ordezkariak (E.9 eta E.10 Politikaria).

Laburbilduz, hori horrela izanik, pentsa daiteke, oinarrizko gizarte-zerbitzuetara bideratzen den dirua gastu bezala ikusten bada, eta beraz, bertan egin daitezkeen inbertsioak ez badira inbertsioztat hartzen, are gutxiago gertatuko dela hori planteamendu komunitarioekin. Aurrekoa ikusita, Gasteizko Udalaren kasuan, salbuespenak salbuespen, orokorrean, oinarrizko gizarte-zerbitzuen ardura duten alderdi ezberdinetako ordezkarien artean, kontzientzia soziala badago eta alderdien artean baino, pertsonen artean ematen dira ezberdintasun ideologiko nabarmenenak. Hala ere, ezkerrekoenak izan daitezkeen alderdien eta eskuinekoenak izan daitezkeen artean, alde nabarmena nabaria da diskurtsoan.

Dimentsio teknikoa

15. Taula: Dimentsio teknikoa eta elementu baldintzatzaileak

Barne Dimentsioa	Dimentsio Teknikoa	Komunitarioaren kontzeptualizazioa
		Enkargua eta apustua
		Arreta eredua
		Gizarte-langilearen ideologia eta hautu epistemologikoa
		Lan taldearen eta zerbitzuaren antolaketa
		Artikulazioa komunitarioa
		Formazioa
		Sistematizazioa

Iturria: Norberak egina.

Udal ordezkari politikoekin, dimentsio teknikoaren baitako elementu baldintzatzaileen inguruan ere egin dugu berba. Aurreko guztiaren arabera egikaritutako dira elementu hauek, baina elementu teknikoari egin dizkieten erreferentziak hemen jasota era argiagoan identifikatuko ditugu. Aipatzekoa da, kontzeptualizazioaren elementua ez dugula jasoko, dimentsio politikoan jasotakoaren berdina izango litzatekeelako.

Enkargua eta apustua

Gizarte-zerbitzuetan egin daiteken apustu komunitarioa enkarguaren bidez kanalizatzen da. Bide horretan, zehaztasun gehiagoko enkargua egin behar dela adierazten dute, oinarrizko gizarte-zerbitzuak komunitarioaren bidean kokatuta planteamenduak sustatuz. Gaur egungo egoera kontuan izanda, tokian toki dinamika komunitarioak suspertu egin behar direla diote. Sarri antolatuago egon daitezkeen auzoen baitan dagoena bultzatu, eta

baliabideen bitartez akonpainatzea litzateke gakoa. Beste kasu batzuetan ordea, dinamika hori gertatu dadin suspertzea izan daiteke lana (E.9 Politikaria).

Hori horrela izanda, udal ordezkari batzuen aburuz, oinarrizko gizarte-zerbitzuetako gizarte-langileek enkargua komunitariorantz bideratze aldera, auzoarentzat eta auzoarekin lan egin behar dute. Hori izan behar da enkargu nagusia: “ que las trabajadoras sociales del base se deban y sean del barrio, no sólo de la institución”. Orain erakundearenak soilik izango balira bezala dihardute lanean, eta begirada aldaketaren beharra nabari da:

“A mí la sensación que me da, es que lo que transmiten ellas, es que trabajan para la institución, y para mí la mirada hay que cambiarla. Tú trabajas para tu vecina o vecino, evidentemente, rindes cuentas a la administración de la institución, pero la mirada habría que cambiarla un poco” (E.9 Politikaria).

Aurrez dimentsio politikoaren atalean aipatutako elementu guztiek dute eragin handia hemen, batez ere, kontzeptualizazioak, apustuak eta marko legalaren atalak. Enkargua beti izan da era komunitarioan lan egitea, are gehiago Gasteizko oinarrizko gizarte-zerbitzuen kasuan, izan duten dinamika historikoagatik. Aldiz, gaur egungo testuingurua dela eta (lan karga, arreta eredia...), esplizituki enkarguaren eraldaketan azpimarra egingo duen udal mailako markoak sortzea are garrantzitsuagoa izan daiteke: “hay que hacer una apuesta profunda, implementar una apuesta profunda por la dimensión comunitaria, por estrechar redes, por entrelazar redes” (E.10 Politikaria).

Laburbilduz, apustua era zehatz eta esplizituan helaraztea beraz, garrantzitsutzat dute udal ordezkari politikoek, modu horretan lortu daitekeelako egiten den lan guztiari zentzua, koherentzia eta prozesu itxura ematea. Hitz hauetan ikus dezakegun bezala:

“En esa área se puede aportar mucho desde la gente, más allá de las instituciones, la gente y la institución lo que tenemos que hacer es favorecer ese trabajo y para eso, es muy importante los servicios sociales de base como una de las partes de ese trabajo en red. Para potenciar, para estar en contacto y para poder tener esa visión comunitaria, pero facilitándola, para que no se hagan cosas dispersas, sino que al final haya como una especie de estrategia integral de lo comunitario desde la base” (E.12 politikaria).

Arreta eredia

Gaur egungo gizarte-zerbitzuetako eredu asistentzialistak lan karga handia suposatzen die gizarte-langileei, gizarte esku-hartzerako denbora erabat mugatuz. Eskaera-baliabidea binomioaren eraginez, baliabideetan eta prestazioetan oinarritutako arreta ematen da maiz, eta horrek zama burokratiko izugarria eragiten die gizarte langileei.

“La carga de trabajo que tienen las trabajadoras sociales en algunos servicios sociales de base es brutal. Tienen más de 300 expedientes por trabajadora social y eso es inabarcable. No todas son así, pero la mayoría rondan los 200 y la recomendación del Ararteko es mucho menos” (E.9 Politikaria).

Ordezkeri politiko batzuen kasuan, ikusi dugu lan zama horren zein egiten den lan motaren fokua arreta ereduari jartzen dutela, eta berau errotik aldatzea proposatzen dutela:

“Les han obligado a convertirse o hacer más rol o más papel de meras gestoras de recursos que de todo el trabajo de acompañamiento y más comunitario. (...) tienen la atención muy delimitada y eso da para lo que da” (E.9 Politikaria).

Ildo beretik jarraiki, gizarte-langile batzuek ere arreta ereduaren inguruko erreklamazioak jasotzen dituztela diote. Egungo ereduari lan administratibo eta burokratikoan oinarritzen delako, erabat protokolizatua izanik, finean, asistentzialista delako egiten duten lana. Esan digutenez, baina, argitzekoa da, kasu batzuetan lan zama dela kexaren arrazoia eta ez arreta ereduak eta horrek gizarte esku-hartzean duen eragina. Beste kasu batzuetan, berriz, gizarte esku-hartzea egiteko aukerarik ez izateak eragiten die ezinegona eta hauen kasuan, ereduaren afera nabarmentzen da. Lan zamaren arazoa, hurrengo elementuan gehiago sakonduko dugun arren, administrari lanpostua duten langileen kopurua handituta aldatu daiteke. Horrela, beste era bateko lana egiteko aukera izango lukete profesionalak, harremanean oinarritutako esku-hartze lana eta baita lan komunitarioa ere. Adierazi digutenez:

“Nos transmiten que ellas hacen una parte del trabajo que es absolutamente administrativo, que quizá con más personal administrativo podrían dedicarse ellas más al trabajo social. Dicen: me paso la vida justificando prestaciones, respetando plazos y tal y cuál y luego muchas veces no puedo ir ni a acompañar a la familia, no puedo acompañarlas porque tengo que estar haciendo esto” (E.9 Politikaria).

Udal ordezkeri politikoei, egin gurako luketen apustuaren hariari tiraka, profesionalak bulegotik ateratzeko aukera ere izan beharko luketela uste dute. Bulegotik atera eta auzokideekin lan egiteko aukera izan behar dutela, alegia. Bide beretik, elkarrizketa batzuetan prebentzioaren aldeko baieztapenak jaso ditugu, egin ezean, oinarritzko gizarte-zerbitzuetara heltzen diren egoerak izan beharko luketenak baino askoz larriagoak baitira. Oinarritzko gizarte-zerbitzuek tokian tokiko eragileekin egin beharreko prebentzioaren alde agertzen dira elkarrizketa batzuetan:

“Toda la parte de servicios sociales de base ha quedado para cuando tienes problemas, aguantas y aguantas y ya no puedes más, vas a los servicios sociales de base y eso inherentemente, genera que baje la eficacia de la intervención porque toda esa parte preventiva, pues prácticamente se queda ahí. (...) La parte comunitaria debería ser también muy basada en la prevención en los barrios (...) de alguna manera, eso también debería ser un trabajo que se podría, por lo menos,

provocar o lanzar desde los servicios sociales de base en coordinación entre los diferentes agentes del barrio para tratar de llegar y de hacer un trabajo más preventivo” (E.9 Politikaria).

Ikusi dugunez, aldatetaren beharra sumatzen dute, izan ere, gaur gaurkoz lan egiteko erabiltzen duten ereduak ez baitu ahalbidetzen planteamendu komunitarioak sustatzeko aukerarik. Aurreko elementua aztertzean ikusi dugun bezala, apustua eta, ondorioz, enkargua komunitarioa sustatzeko bidean jarriz gero, ezinbestean arreta eredu aldaketak eman beharko lirateke. Izan ere, deskribatzen diguten arreta eredu honek ez du enkargu hori errazten.

Udal ordezkari batzuen ustez, egun dagoen arreta eredu iltzatuta dauden inertzia batzuetan benefizentziaren zantzuak agerikoak dira. Honela ba, komunitarioan eragiten ez bada, hots, oinarrizko gizarte-zerbitzuetan beharrianak eta hauen erantzunak beste era batera ere identifikatu eta lantzen ez badira, ongintzaren inertzietara itzultzeko arriskua egon daitekeela gaineratzen dute. Garrantzitsua da oinarrizko gizarte-zerbitzuak bezalako eragile instituzionalak mobilizatzea. Hain zuzen ere, beharrian esturkturalek erantzun publikoaren beharra dutelako, eta erakundeak dutelako horiek bermatzeko ardura” (E.9 Politikaria), “nosotros no hacemos caridad, no hacemos eso, los servicios sociales tenemos que hacer de otra forma, tenemos que planificar” (E.10 Politikaria).

Aurreko guztia dela medio, oinarrizko gizarte-zerbitzuen berrantolaketa bat ematen ari dela esan digute, funtzioak zehaztu eta egitekoak estandarizatzeko asmoz. Gero ikusiko dugun bezala, gizarte-langilearen hautuak erabat baldintzatu dezake arreta, eredu berriak martxan jartzea, eta hori horrela izanda, orokortze aldera, zerbitzu komunitarioetako profesionalen lanak definitzeko ahaleginean daude. Burokratizazioa eta bide batez, lanen zama gutxitu gura da “estamos intentando bajar el número de expedientes” (E.10 politikaria).

Dagoen egoera ikusita, esan genezake, berrantolaketa hori komunitarioaren aldeko apustua eta enkargua egikaritzeko bidean, urrats garrantzitsua izan daitekeela. Karga burokratikoak eta administrari lanak ezin du ekidin gizarte-langile batek, psikologo batek edo hezitzaile batek bere lana ezin egin izana. Gizarte esku-hartzeari, pertsonekin egiten den lanari, gizarte ehunari, harremanari garrantzia emango dion eredu bat helburu bada, horretarako denbora izan behar dute profesionalek. Oraingo arreta ereduak beraz, oztopatu egiten du proposamen komunitarioak garatzeko aukera, baina berrantolaketaren baitan, horretarako aukera agertu daiteke.

Gizarte-langilearen ideologia eta hautu epistemologikoa

Politikarien ustetan, langileen prestutasunak, egiten duten hautuak eta borondateak ere baldintzatzen dituzte planteamendu komunitarioak, nahiz eta, orokorrean, ez duten gaian gehiegi sakondu. Lehentxeago adierazi dugunaren arabera, badirudi, gizarte-langileen artean ere badagoela ezberdintasunik, eta batzuk, oinarrizko gizarte-zerbitzuen egungo egoerarekin beste batzuk baino deserosoago agertu izan direla.

Bestalde, politikarien hitzetan oinarrituz, ezberdintasunak ematen dira oinarrizko gizarte-zerbitzuen artean, eta hori, batik bat, profesionalen profil eta hautuarekin lotzen da (E.9 Politikaria). Langileen inplikazioaren arabera, lanketa ezberdinak egin izan dira auzoetan, baina bagaje komunitario handiko auzoetan, ohikoa da oinarrizko gizarte-zerbitzuetako profesionalak auzoko gainerako eragileekin batera lan egiteko motibazioa eta prestutasuna izatea: “estaba super implicada, iba a las reuniones del barrio y eso es riquísimo, porque tenemos muchos agentes”. Gasteizko udalak dituen baliabide komunitarioak asko dira eta aberastasun horri probetxu komunitarioa ateratzeko hautua egin behar dela gaineratzen digute (E.9 Politikaria).

Idea berari jarraituz diote, egun, oinarrizko gizarte-zerbitzuetatik egiten den lana profesionalen gain erortzen dela. Hala nola, planteamendu komunitarioen inguruan, marko ofizialetan, funtziorik definituta ez dagoenez, ez teknikoki ezta metodologikoki ere, bakoitzaren hautuaren eta motibazioaren arabera izan ohi da egin daitekeen lana. Lehen esan bezala, berrantolaketa bide horretan aurrera egiteko pausua bezala ere irudikatzen da (E.10 Politikaria).

Elementu honekin bukatze aldera, behin eta berriz errepikatuz ikusi dugu, gizarte-langileen gain geratzen dela pausuak emateko edo ez emateko ardura edo aukera hori. Hala ere, zehatzagoak izanda, ardura koordinatzailearen gain geratzen da, honek baitu gero ikusiko dugun bezala, enkargu komunitarioaren eginbeharra: “También depende de la configuración de cada una, de cómo plantear sus servicios sociales de base” (E.12 Politikaria).

Lan taldearen eta zerbitzuaren antolaketa

Elementu honetan, hainbat dira aztertzeokoak. Lan taldearekin hasteko, Gasteizko oinarrizko gizarte-zerbitzuen berezitasuna da, aspalditik, talde mutidiziplinarrak izatea. oinarrizko gizarte-zerbitzuetako lan talde profesionalak, gizarte-langileak dituzte

nagusiki, baina horietaz gain, psikologoa, administraria eta heziketa taldea ere izaten dute (E.12 Politikaria). Komunitarioari erreparatzen badiogu, arduradun nagusia, oinarrizko gizarte-zerbitzuetako koordinatzailea edo arduraduna da. Oinarrizko gizarte-zerbitzu bakoitzak bere koordinatzailea du, eta horren funtzioen artean dago egin behar komunitarioena.

Lan taldeei dagokienez hainbat gako agertu dira udal ordezkari politikoekin egindako elkarrizketetan. Batetik, espezializazio ezak aipatu dituzte. Orokorrean, oinarrizko gizarte-zerbitzuetako gizarte-langileek denetik egin behar izaten dute. Polibalentzia horrek bere gauza onak izan ditzakeen arren, zaildu egiten du lan mota konkretu batzuetan sakontzea, besteak beste, estrategia komunitarioetan. Adituek esanak gogora ekarriz, asko errazten du taldean komunitarioaz arduratuko den erreferentea izatea, betiere, profesional hori, banakako eta familiako arretan gehiago zentratzen diren lankideekin etengabeko koordinazioan badago. Honi jarraiki, historikoki izan duen funtzioagatik, Gasteizko kasuan, ordezkari politikoek lan komunitarioaren ardura ezartzeko profil egokiena gizarte-zerbitzuetako koordinatzailearena dela ikusten dute, nahiz eta beste profil konkretu batzuen beharra ere nabarmentzen den: “Una responsable de cada servicio social de base que pueda ejercer de coordinadora y luego pues... de alguna manera, que haya ciertos perfiles que estén más especializados” (E.9 Politikaria). Alabaina, koordinatzaileak dituen funtzio komunitarioak mugatuak dira, beste funtzio askorekin partekatuak gainera, eta beraz, Gasteizko oinarrizko gizarte-zerbitzu eredua, adituek planteatzen zutenaz urruti dagoela ikus dezakegu.

“Lo que pasa es que yo creo que en este momento en en los servicios sociales de base no hay una persona dedicada a la atención comunitaria expresamente, sino que la atención comunitaria es parte del trabajo, entonces es como algo transversal, es más que haya un equipo. Es verdad que ese trabajo de red descansa más en el responsable de servicio social de base. Es igual el que tiene un poco más las coordinaciones con su propio responsable del centro cívico, pero no hay una persona de cada servicio social de base o en la estructura del departamento de políticas sociales, encargada específicamente del trabajo de red en cada zona, sino que es una línea transversal de trabajo” (E.12 Politikaria).

Bestetik, gizarte-langile kopuruari, funtzioei edo rolari erreferentzia egiteaz gain, lanpostu publikoen egonkortasun ezak eragiten duen langileen mugikortasunaz mintzatu dira elkarrizketetan:

“La movilidad de las trabajadoras que puede haber en algunos barrios, porque en algunos casos, hasta que no sale una oposición no cogen plaza fija y entonces, pues hay un carrusel de cambios de trabajadora social que no permite hacer un trabajo más comunitario y basado en el conocimiento del barrio” (E.9 Politikaria).

Bestalde, lanaren antolaketak ere planteamendu komunitarioen aferan garrantzia duela ikusi dugu aurreko atalean, eta horrela esplizitatzen da kasu honetan ere: “El trabajo proactivo, que puedan salir de los despachos, que tengan un tiempo concreto y determinado, en las que, de manera bueno... no obligatoria, pero que puedan salir” (E.9 Politikaria), “yo creo que salir no, no les da (...) por la cantidad de trabajo, siempre, como los problemas, no se acaban nunca” (E.10 Politikaria).

Esan bezala, ikusi dugu lanaren antolaketaren inguruan, komunitarioako espazioak sortzea, agendan tokia egitea eta honek eskatzen duen hausnarketarako denbora ahalbidetzea ere garrantzitsua dela, bulegotik kanpo egin beharrekoaz haratago. Arestian aipatutako berrantolaketa ere, bide horretan joan daitekeela diote planteamendu komunitarioak ahalbidetzeko eta bultzatzeko: “estamos en un periodo de organización y de reorganización. (...) Estamos reorganizando los servicios sociales de base y la estructura, las funciones que tienen, incluso su cartera de servicios” (E.10 Politikaria).

Tokian tokiko lana egiteak, denbora eskatzen du: hausnartzeko, kasuak indibidualetik irakurtzeaz gain, betaurreko komunitarioekin irakurtzeko edo auzoa bera ezagutzeko. Hori horrela izanik, lan taldearen antolaketak, funtzioek, lanaren antolaketak, denborek eta rolek eragin zuzena dute planteamendu komunitarioak erraztu edo oztopatzeko. Gasteizko oinarrizko gizarte-zerbitzuen kasuan, asmoa norabide horretan sakontzea dela diote:

“Deberíamos reestructurar, reorganizando y asignando, eso me parecen las tres patas de estos servicios sociales de base”, “vamos a aumentar personal administrativo, eso nos permitirá descargar de asistencia telefónica y de tareas administrativas a trabajadoras sociales para poder implementar su trabajo en los servicios sociales de base (E.10 Politikaria).

“Tenemos que ir adaptando también los modelos un poco a las circunstancias de cada época, de cada momento” (E.11 Politikaria).

Zerbitzuaren ordutegia eta kokapena bezalakoez ere mintzatu gara adituekin, elementu baldintzatzailer honen baitan. Zentzu horretan, udal ordezkariak balioan jartzen dute Gasteizko oinarrizko gizarte-zerbitzuetako ereduak, eta zerbitzua bera gizarte-etxearen baitan kokatzea komunitarioako oso lagungarria dela adierazten digute elkarrizketa guztietan. Honen adierazgarri da hurrengo esaldia: “Yo creo que es un acierto que (los servicios sociales de base) estén en los centros cívicos y que estén a mano de las vecinas y vecinos de cada barrio” (E.9 Politikaria). Baina ikusi genuen bezala, honek ez du guztia egiten. Espazio baten kokatuta egoteak, ez du esan nahi elkarrekintza sustatzen duzula

ezta espazio horretan egote hutsa komunitarioa probesteko baliatzen ari zarenik ere. Gainera, sarritan, oinarrizko gizarte-zerbitzuetako eta baita gizarte-etxeetako egiturek edo espazio fisikoek ere ez dute laguntzen beste mota bateko lana egitera.

Lan ordutegiei buruz hitz egitean, adibidez, elkarrizketa baten jaso dugu, kasu batzuetan behintzat, planteamendu komunitarioak egiteko malgutu beharra egon beharko litzatekeela, egungo ordutegiak ez baitu bizitza komunitarioko ordutegiekin bat egiten (E.9 Politikaria). Gaur gaurkoz, goizeko ordutegia nagusitzen da 8:00tatik 15:00tara edo, momentu puntualetan, 17:00tara. Hala ere, beste kasu batean, aipatu berri dugun ordutegia aldatzeko gogoak sortu dezakeen zalaparta adierazi digu ordezkari batek:

“Hacerlo con el máximo consenso posible político y con el personal, ¿no? también sindicatos, porque tiene unas implicaciones en sus jornadas laborales muy importantes. Y bueno, al final estás modificando condiciones de trabajo, por lo tanto, es un tema complejo” (E.11 Politikaria)

Elementu honetan aipatutakoak laburbilduz, diskurtsiboki borondatea egon daitekeen arren, praktikotasunean, borondate hori bermatzeko zailtasunak daudela sumatzen da. Funtzio minimo batzuk dituen koordinatzailea izatea, oinarrizko gizarte-zerbitzua auzoko gizarte-etxean kokatu egotea edo talde profesional multidiziplinarra izatea estrategia komunitarioetarako lagungarria izan badaiteke ere, bere horretan bakarrik, ez dela nahikoa. Finean, bide horretan sakontzeko urratsak ematea, udal politikarientzat, beharrezkoa bezain konplexua da.

Artikulazio komunitarioa

Estrategia komunitarioen oinarrian dagoen elementua da artikulazio komunitarioaren elementu baldintzatzailea. Auzoan dagoen antolaketa eta oinarrizko gizarte-zerbitzuek horretan izan dezaketen integrazioa. Beste era batera esanda, elkarlana, auzoarekin batera egiten den lana, eragileekin, batik bat, baina baita herritar antolatu edo ez antolatuekin ere. Elkarrizketa guztietan agertu da ideia hau, eta ikuspegi ezberdinetatik aztertu dugu.

Aurreko elementuko kokapenaren kontua da lehengo agertu den ideia. Gasteizko kasuan oinarrizko gizarte-zerbitzuen kokapenak, printzipioz, lan hau erraztu dezakeela uste dute udal ordezkari politikoek, “Los centros cívicos son actividad comunitaria en estado puro, porque hay como una centralización de muchas áreas de interés, de zonas, que a veces, van más allá de los barrios” (E.12 Politikaria) adierazpenean ikusi daitekeen bezala. Hala ere, lerro batzuk gorago esan dugu gizarte-etxeak ondo ikusten direla, baina elkarrekintza

eta dinamika komunitarioa emateko espazio baliabideak bere horretan jartzea nahikoa ez dela gogoratu behar dugu, hori probestu egin behar baita.

Esanak esan, espazioek berebiziko garrantzia daukate artikulazio komunitarioan eta harreman komunitario zein elkarrekintzaren sustapenean. Hori dela eta, espazio horiek sortu, eta orain baino askoz gehiago sustatu eta bultzatu behar direla aipatzen dute. Hau da, espazioak komunitarioaren eraikuntzarako erabili beharraz mintzatu dira:

“Seguir creando y potenciando espacios, espacios comunes y comunitarios donde la gente se encuentre. (...) Falta ese espacio de encuentro donde compartir conversación, generar redes, confianza y apoyos mutuos. Esa es la línea que estamos trabajando, en generar espacios y contribuir a mantenerlos. En todos los barrios, en todos los sitios hay lugares en los que se trabaje, se pueda reunir la gente, incluso intergeneracional, es muy importante, que compartan saberes y que dignifique. (...) Esos espacios deberían fomentarse” (E.11 Politikaria).

Egin behar hori aldiz, beste elementu batzuek baldintzatu dezakete. Besteak beste, auzoen tamainak, ondoren ikusiko dugun bezala, artikulazioa zaildu edo erraztu egiten duela aipatu dute politikariek elkarriketetan. Esaterako, egoeraren arabera aztertuz, auzo konkretu batzuen kasuan, “habría que desdoblarse servicios sociales de base de algunos de los barrios, duplicar en varias zonas” (E.9 Politikaria) adierazi digu ordezkari politikarietako batek. Auzo batzuetan, Judimendin esaterako, oinarrizko gizarte-zerbitzuak auzo dinamikak ezagutzen ditu eta integratuago egon daitezke, baina beste auzo batzuetan ez da hori gertatzen, izan tamainagatik edo izan berezko auzoaren izaeragatik.

Honetaz guztiaz gain, oinarrizko gizarte-zerbitzuetatik, auzoekin eta eragileekin batera lan egitearen garrantzia sarritan aipatzen da. Kasu honetan, ordea, irudikatzen dutenari dagokionez, ezberdintasunak identifikatu ditzakegu politikarien artean. Kasu batzuetan, gainerako eragile formalekin eta sistemekin egiten den koordinazioa gailentzen da, betiere, norbanakoen arreta hobetzeko helburu nagusiarekin:

“El trabajo multidisciplinar e interdisciplinar es lo más importante, trabajar desde todas las áreas, desde todos los frentes con un objetivo común, que es el bienestar, en este caso de las personas”

“Trabajar en coordinación con los centros de salud, sobre todo con los servicios de salud, es fundamental, planteamos una coordinación estrecha con el sistema de salud, con el objeto de mejorar la problemática (...). El trabajo en red es fundamental” (E.11 Politikaria).

Beste kasuren baten, aipatutako eragile formalez gain, tokian tokiko eragile antolatuekin eta herritarrekin elkarrekintza sustatzeaz mintzo dira, ekintza kolektiboagoa helburu.

Gainera, lehenago arreta ereduaren elementuaren ingurukoei buruz mintzatzean jaso dugun bezala, prebentziorako baliagarria den eredu bat gura badugu, auzoko eragileekin batera egin beharreko lana dela gogorarazi digute. Gasteizen, auzo guztietan daude eragile ezberdinak, izan auzo elkarteak, izan kirol elkarteak, parrokiak edo bestelako elkarteak. Horiek ezagutu eta etengabeko harreman edo artikulazioaren bidez lan egin behar da. Gizarte-zerbitzuen ardura ere bada artikulazio eta lan mota hori egitea, dagoenetan mantentzea eta ez dagoenetan sustatzea. Nahiz eta zaila izan daitekeen komunitarioaren bidez egin behar da: “dinamizar el compromiso social y el trabajar para el cambio social, aunque es muy complicado” (E.9 Politikaria).

Halaber, gainerako auzoko zerbitzu eta baliabide publiko, formal eta informalekin elkarlanerako bideak eraikitzea garrantzitsua da. Esan digutenez, kasu batzuetan egiten den arren, ez da beti gertatzen Gasteizko oinarrizko gizarte-zerbitzuen baitan:

“La coordinación con los agentes. Ya existen muchos agentes que trabajan en los barrios y que viven en los barrios y que hacen barrio. Hace falta más coordinación, hace falta que las trabajadoras sociales tengan tiempo para conocer las asociaciones, agentes y el barrio” (E.9 Politikaria).

Aurreko adierazpenen ildo berean, komunitariorako artikulazioa ezin bestekoa dala onartzen dute, esate baterako, zaintza dinamika naturalak sortzen direlako: “las personas en los barrios, el supermercado, oye pues hace tiempo que no veo a fulanita” (E.10 Politikaria). Horri eusteko oinarrizko gizarte-zerbitzuak bide horretan jarri behar dira:

“Construir un buen servicio social, una red, una red interconectada en la que todos sean participantes, lo mismo en asociaciones, lo mismo, las asociaciones de barrio (...) esas son las verdaderas redes, como la malla de un balón. Esa es la red que hace sustentar” (E.10 Politikaria).

Udal ordezkari politikoak honen guztiaren jakitun badira ere, zailtasunak identifikatzen dituzte, adibidez, erakundeek eta eragileek dituzten denboraren erabilera ezberdina edo momentu konkretuetan, administrazioak duen zurruntasun maila. Ezbairik gabe, errealitate horrek zuzenean eragiten du oinarrizko gizarte-zerbitzuen eta herritar antolatuen arteko hartu emanean:

“Evidentemente, los servicios sociales y toda la parte institucional son un elefante. Tienen mucho valor, pero van despacio, o sea, les cuesta a veces reaccionar o adaptarse a nuevas situaciones, nuevas necesidades y muchas veces, la iniciativa social comunitaria se adelanta. Yo creo que esa dialéctica es buena, o sea que la ciudadanía organizada y estructurada vea carencias en la institución, cree herramientas concretas y luego lo que creemos es que la institución debe validar esas herramientas y darles una patena, publicarlas de alguna manera” (E.9 Politikaria).

Ikusi daitekeenez, sarritan, Gasteizko kasuan ere, oinarrizko gizarte-zerbitzuak eta erakundea orokorrean oso motel doaz, eta ondorioz, ehun sozialak aurre hartzen die. Hori onartu eta goraiatzea ordea, beste eragileei eragiteko daukaten gaitasuna eta boterea aitortzeko beste modu bat da, komunitarioako dinamika baliagarria izan daitekeena. Antzeko adierazpenak jaso ditugu beste elkarrizketa batean, baina kasu honetan, boterea partekatzea baino, helburua zerbitzu edo prestazioen enkargua partekatzea izan liteke:

“yo creo que muchas veces el papel de la sociedad civil es la detección de la realidad social, que las administraciones somos muy farragosas. La burocracia nos hace perder frescura y estar en el día a día. La sociedad civil lo bueno que tiene es que se adelanta para cuando llegué a la institución, la sociedad civil detecta entonces la función de antena social y de transmisión. A mí me parece que es la labor fundamental y la sociedad civil. Y luego ayudar a prestarles atención porque hay colaboraciones a través de convenios. Bueno, subvenciones no, pero las funciones de antena y de transmisión para mí es la clave de la sociedad civil y la gran fortaleza que tiene”.

“A veces la administración no es capaz de dar la respuesta en el momento adecuado, pues para eso está la sociedad civil que tiene menos trámites, tiene menos procedimientos ósea, es decir, eso no quiere decir que no haya una buena gestión del dinero público, pero por eso vienen los convenios para gestionar servicios con entidades del tercer sector o bien la convocatoria de subvenciones para financiar programas que ellos vemos que los hacen bien y hay una buena atención y están bien valorados. Por la ciudadanía, entonces es un trabajo en el que todos tenemos funciones, donde algunos tenemos más fortalezas que otros por la singularidad de lo que es la institución y lo que es la sociedad civil. La frescura, la cercanía a la inmediatez, esta es la sociedad civil, la potencia y la calidad de los servicios públicos, dependen las administraciones, hagamos un trabajo conjunto de mayor coordinación cada vez para garantizar que esos servicios de calidad sean buenos y sean atendidos en el menor tiempo posible para poder darles atención de calidad que necesitan las personas en nuestra ciudad” (E.12 Politikaria).

Amaitzeko, konklusio gisara artikulazio komunitarioari garrantzia ematen zaiola ikus dezakegu. Hala ere, udal ordezkariaren arabera, prozesu hauek eta baita beraien helburuak ere, oso ezberdin irudikatu, ikusi eta ulertzen direla. Batzuk, adituek aipatzen zituzten ahalduntze prozesuetarantz jotzen dute gehiago, beste batzuk, eragile formal zein informal konkretuekin egin daitekeen koordinazio eta sare lanaz mintzo diren bitartean. Edozelan ere, izan dinamika bat edo beste, lanketa komunitarioak pausuak emateko baliagarriak izan daitezkeela esan dezakegu.

Formazioa

Dimensio teknikoko elementu baldintzatzaileen artean, formazioaren elementua izan da gutxien aipatu dena elkarrizketetan. Ez zaio erreferentzia handiegirik egin. Kasu bakar batean soilik aipatu da, zenbait kasutan, gizarte-langileak eta bestelako profesionalak

esku hutsik sumatzen dutela bere burua komunitarioaren alorrean. Batez ere, tekniko-metodologikoki formazio falta sumatzen dutela aipatu digute, talde politiko honek profesionalekin egiten dituen bileretako batean identifikatu zen beharra izanik (E.9 Politikaria).

Zentzu honetan, lehenagoko elementuak aztertzean aipatu dugun bezala, udal marko bat izateak, beste gauza asko zehazteaz gain, tekniko metodologikoki ere baliabideak eskaini ditzake profesionalek izan dezaketan ezagutza hutsune horri erantzuteko.

Sistematizazioa

Azkenik, sistematizazioaren elementua, ez da bere horretan aipatu, baina zeharkakotasunez aipatu dute elkarrizketa ezberdinetan zehar. Sistematizazioaz ari garenean, bi aldaera identifikatu ditugu. Batetik, profesionalek egiten duten jardun profesionala erregistratzeko duten baliabideei erreparatzen diona, eta bestetik, egiten den lan komunitario (edo baita bestelakoa ere) sistematizatzeari, ondoren ezagutza sortu edo ezagutzera emateko.

Lehenengo adieraren kasuan, aipatzen digutenez, zerbitzuak erabat kuantitatiboki ebaluatzen dira, eta gizarte-langileen lana, emandako baliabideen eta egindako elkarrizketa zein esku-hartze zenbakiaren arabera neurtzen dira: “justificar cuántas citas he tenido, cuántos recursos he dado (...) la carga laboral, las exigencias burocráticas, etcétera, lleva a justificar mucho la parte de trabajo de por qué das este recurso, que si esta persona necesita este otro...” (E.9 Politikaria). Esaldi honen bidez, egun Gasteizko oinarritzko gizarte-zerbitzuetan zerbitzuetako profesionalen jarduna neurtzeko erabiltzen den sistematizazioak, soilik era bateko lan konkretua biltzeko aukera ematen duela ikus dezakegu. Bereziki kuantitatiboki neurgarria dena. Komunitarioaren inguruan egin daitezkeen estrategietako ekintzak, aurrez ikusi genuen bezala, kasu batzuetan, ezin dira, gutxienez, era horretara neurtu. Ezin dira zenbakiz kontatu, eta horrek, zalantzarik gabe, zaildu egiten du estrategia hauek bultzatzea.

Bestalde, bigarren adierari helduz, egiten den lan komunitarioa eta esperientziak ezagutzera emateaz aritu da elkarrizketatuetako bat. Lan hori behar beste egiten ez dela adierazi digu, eta horretara ahalegin gehiago bideratzea egokia izan daitekeela: “Todo lo que sea visibilizar para que se sepa que eso existe y animar a otras personas (...) Yo creo que, al final, lo que no conoces no existe, entonces un trabajo de información” (E.12 Politikaria).

Aipatu berri ditugun bi kasuetan, lana eta jardun profesionala sistematizatzeaz ari gara, nahiz eta adiera bakoitzak bere berezitasunak izan. Aurreko atalean aipatu dugun bezala, sistematizazioak egiten dena erregistratuz, praktikatik teoria sortzea ekarri dezake, baina baita esperientziak konpartitu ahal izatea ere. Egun Gasteizko oinarrizko gizarte-zerbitzuetan dagoen erregistratzeko sistemak, ez du ahalbidetzen planteamendu komunitarioak biltzea. Baina egin ahal izateko baliabideak sortzea modu egokia izan daiteke, horrela, egiten dena ezagutarazi daiteke eta horrek helburua bikoitza betetzen du. Lehenengoa, jendeak lan komunitarioa zer den ezagutzea, esperientziak konpartitu ahal izatea eta jardun profesionala hobetzea. Bigarrenik, aldiz, egiten dena ezagutzera emanez, estrategia komunitarioak dituzten indarguneetan zentratuz, lan mota hau bultzatzea argudiatzen laguntzen du.

“Además, el tema de la pandemia nos ha venido bien para visibilizarlo y sobre todo para mí, la clave de las instituciones es apostar por ese trabajo, visibilizarlo, colaborar (...) Yo creo que puede ser importante, ¿no? Que iniciativas en las que se visibilice ese trabajo compartido, aunque no sea muy potente, espero que esté ahí, ¿no?” (E.11 Politikaria).

Dimentsio herritarra edo lurralde dimentsioa

16. Taula: Dimentsio herritarra eta elementu baldintzatzaileak

Barne Dimentsioa	Dimentsio herritarra edo Lurralde Dimentsioa	Komunitatearen ezaugarriak
		Hirugarren sektorea
		Komunitatearen izaera eta artikulazio ardatza

Iturria: Norberak egina.

Gasteizko udalean ordezkariak duten alderdietako politikariek izandako elkarrizketetan, dimentsio herritarren inguruan ere egin dugu berba. Ez dituzte gainerako dimentsioetan besteko aipamenik egin, baina jaso dugun informazioaren lanketa egin dugu. Aipatzekoa da, ordea, hirugarren sektorearen inguruan galdetzean, orokorrean, hauek eragileen eta baliabideen zaku berean sartu dituztela adieraztea, eta ondorioz, guk azken elementuaren atalarekin bateratu dugula.

Komunitatearen ezaugarriak

Komunitatearen ezaugarrien artean, herritarrengan eta komunitateko kideengan zentratu ordez, batez ere, komunitateen edo auzoen ezaugarrietan zentratu dira. Berezi, tamainan eta dituzten udal baliabideetan.

Tamainari eta auzoen ezaugarriei dagokienez, auzo berriak handiegiak bezala izendatu dituzte. Hauetan, estrategia komunitarioak konplexuagoak bihurtu daitezkeela argudiatu dute, esaterako, sakabanatuagoak egotearren lana baldintzatu daitekeelako: “No es fácil tener el barrio en tu cabeza, de alguna manera y conocer a las personas que acuden a los servicios sociales, es muy complicado” (E.9 Politikaria). Gainera, auzo berrien kasuan, herritarren ezaugarriak ere aldatzen dira auzoko zati batetik beste zati batera, horrek lanean izan dezakeen eraginarekin. Esandakoaren adierazgarri dira politikarien hurrengo adierazpenak:

“Cuanto más crecen las ciudades, más dispersos estamos, y lo propio, lo común, es un mantra que seguimos manteniendo, pero que en las grandes ciudades, pues se va perdiendo” (E.11 Politikaria).

“La configuración de los barrios hace mucho, yo creo que los barrios igual, pues, por ejemplo, allá donde hay comercio, local, comercial, de toda la vida tradicional, personas que van al mismo comercio ahí es un poco donde se generó también un poco todo el tema de la experiencia con las farmacias y con los comercios para el tema de las mayores. (...) Entonces yo creo que los barrios igual, o sea cuanto más pequeño es el espacio, más trabajo de convivencia y de vecindad existente. A mayor localidad y más en los barrios actuales, ahora son como más impersonales. Entonces los barrios nuevos, por ejemplo, de Vitoria como Zabalgana, Salburua, incluso Lakua son barrios muy grandes, con mucha población, en el que la vecindad es más compleja” (E.11 Politikaria).

Udal baliabideei buruz, Gasteizko kasuan, gizarte-langileak udal langileak direnez eta udaleko baliabide eta zerbitzuen inguruko ezagutza dutenez, herritarrei hauen inguruko informazioa helarazten dietela diote. Modu horretara, herritarrek beren auzo eta testuinguruan izan ditzaketen baliabideak eskuragarriago sentitu ditzakete, eta ondorioz, erabilera sustatzen da, beti egiten ez den arren. Ideia hau aipatzean, aurrez espazio komunitarioen inguruko informazioa landu dugunean bezala, espazioak planteamendu edo dinamika komunitarioaren mesedetarako erabiltzea, espazioak izatea bezain garrantzitsua dela berretsi dute:

“Tenemos muchos agentes, una red de centros cívicos que está infravalorado, infrautilizada, de alguna manera, podríamos, bueno, tenemos el espacio, que es lo más caro y lo más difícil, y una vez que lo tienes hecho, aprovéchalo. (...) tienen una potencialidad comunitaria brutal, es como la plaza del pueblo antes, donde te encuentras” (E.9 Politikaria).

Erabilera ematen zaie eta jendea bertaratzen da, baina horiei ez zaie behar besteko potentzialtasun komunitarioa ateratzen, ez dira harremanak sustatzen, ez da sarea josten eta nahiz eta kirol baliabide eta zerbitzuak edo zerbitzu kulturalak izan, ez da komunitarioa indartzeko probesten. Burokratizazioak ere ez du errazten auzoko

eragileentzat espazio erabilgarri bat izatea eta dena hor instituzionalizatzeak ere freskura kendu du askotan. Hala ere, dituzten espazio libreak eskuragarriago jartzeak, artikulazio komunitarioa ahalbidetu dezake (E.9 Politikaria). Honekin aipatzekoa da, zerbitzuak eta baliabideak egotea garrantzitsua bada ere, hauek irisgarriak, irekiak, denontzako modukoak izatea ere ezinbestekoa dela.

Komunitatearen izaera eta artikulazio ardatza eta Hirugarren sektorea

Elementu honi dagokionez, dimentsio teknikoan artikulazioaren elementuan adierazitako hainbat kontu berrartu ditzakegu, baina, horretaz gain, aipatu dituzten beste batzuk gaineratuta bukatuko dugu errepassoa. Kasu honetan, Gasteizko komunitateen izaerari eta artikulazioari buruz galdetzean, antzeko erantzunak bildu ditugu. Hurrengoa esaterako, bat aipatzearren: “En Vitoria siempre ha habido un movimiento social muy importante, tiene alma social y hay un tejido asociativo muy potente “ (E.12 Politikaria).

Lehenago dimentsio teknikoen elementuak errepasatzean, konpromiso soziala eta aldaketaren aldeko lana dinamizatzeko gizarte-zerbitzuen eginbeharrak mintzatu gara. Lan hori erabat baldintzatuta dagoela ikusi dugu, eta Gasteizen ere, horrela gertatzen da auzoaren arabera eta hauen izaeren arabera: “Algunos barrios, por ejemplo, Judimendi, tienen una tradición de trabajo comunitario muy potente” (E.9 Politikaria). Horretaz gain, aurreko elementuan aipatu dugun auzoaren tamainak eta beste zenbait faktorek bultzatuta auzoen zein auzotarren izaeran aldaketak eman dira, eta egun artikulazio komunitarioa konplexuagoa bihurtu dela diote. Auzo sentimendua edo auzo horretako kide izatea da esanguratsuenetako bat, esaterako. Hurrengo baieztapenen bidez ikusi dezakegun bezala, behin hori onartuta, aldiz, badaude artikulazio eta gizarte ehun hori errazten duten eragileak:

“Ahora es un poco más complicado (a nivel comunitario), porque antes sí había un sentimiento de pertenencia al barrio, (...) las asociaciones y acciones de vecinas y vecinos, antes eran muy potentes y aunque ahora sigue siendo potente, igual está más orientado a acciones concretas. Antes estaba esa parte, un poco más, pues.. no sé.. vecinal comunitaria, no sé cómo llamarle, así que, en parte por el propio desarrollo social, pues se ha ido perdiendo un poco, entonces yo creo que ahora hay que provocarlo” (E.9 Politikaria).

“Yo creo que las zonas pequeñas con los comercios tradicionales es lo que ayudan a que eso surja como experiencias naturales” (E.11 politikaria).

Honenbestez, dimentsio honetan, informazio gutxiago jaso dugula ikus dezakegu. Lurralde dimentsioko zein dimentsio herritarreko elementuek guztiz baldintzatzen dute egin daitekeen lanketa, baina, egia da, horrek ez duela hainbeste aldatzen ordezkari

politikoen eginbeharrak. Orokorrean, Gasteizko oinarrizko gizarte-zerbitzuek, dimentsio honetan ere, baditu erraztatzaileak izan daitezkeen elementuak, adibidez, udal baliabideak edo izaera soziala. Baina ordea, baditu estrategia komunitarioak oztopatu eta gutxienez zaildu ditzaketen elementuak ere, besteak beste, auzo berrien tamaina, errealitate sozial anitzak edo gizarte ehunean ematen ari den gainbehera orokorra.

4.2.2. TEKNIKARIEN IKUSPEGITIK

Politikariekin egin bezala, oinarrizko gizarte-zerbitzuen inguruko teknikarien bitartez ere jaso gura izan dugu komunitarioaren inguruko informazioa. Zuzenen eta ziurrenik, sakonen eragin dezaketen eragileak izanik, ikuspegi osoa eduki nahi izan dugu, oinarrizko gizarte-zerbitzuetan rol ezberdinak dituztenen testigantzak jasoz. Horretarako, atal metodologikoan aurreratu dugun moduan, ardura, rol eta eginbehar ezberdinak betetzen dituzten saileko teknikariekin egon gara. Kasu honetan, hurrengo lerroetan ikusiko dugun bezala, rolaren arabera diskurtsoa aldatzen doa, ardura duten gizarte-langileen eta arreta zuzenean dihardutenen artean, batez ere. Hori horrela izanik, ezberdintasun nabarmena egon daitezkeen elementuetan, biei egingo zaie erreferentzia, elementu batzuen kasuan, beste batzuetan baino nabarmenagoa baita: “Como trabajadora social tengo una visión y como responsable tengo otra” (E.14 Teknikaria).

Kanpo dimentsioa

17. Taula: Kanpo Dimentsioa eta elementu baldintzatzaileak

Kanpo dimentsioa	Neoliberalismoa
	Egoera estrukturalak eta prekarietatea
	Indibidualismoa

Iturria: Norberak egina.

Goiko taulan ikus daitezkeen elementuek osatzen dute kanpo dimentsio hau, eta agian, zuzenean behintzat, gizarte-langileek erreferentzia gutxien egin dieten elementuak izan dira. Horregatik, guztiak multzo berean aipatuko ditugu hurrengo lerroetan. Esan beharra dago, beste elementuetan sakondu dela gehiago elkarrizketetan, gehienbat, beraien egunerokotasunean zentratu baitira elkarrizketak. Hori dela eta, egunerokotasunari erreparatzeak, ezinbestean, batez ere, dimentsio teknikoaren baitan aritzea dakar.

Teknikarien elkarrizketetan, eredu ekonomiko zein sozial *neoliberalistetatik* eratorzen diren errealitate sozial askotarikoei egin zaie erreferentzia, egungoen konplexutasuna aitortuz (E.13 Teknikaria). Prekarietatearen eta gizarte egoera estrukturalen ondorioz, pertsonen bizitzak gero eta zaurgarriagoak direla aitortu dute, eta hiri berdinean bertan, errealitate oso ezberdin eta anitzak bizi direla.

Hala ere, nagusiki, *indibidualismoaren* inguruan mintzatu dira, izan ere, estrategia komunitarioaren inguruan galdetzean, zuzen zuzenean eragiten duela baitiote.

“Somos sociedades muy individualistas. Cada una, al final, vamos muy a lo nuestro y nos cuesta mucho participar y sobre todo participar en actividades que generen un poco ese bien común o esos contextos de protección comunes. Cada vez, yo creo, que estamos más desvinculados de las procesos participativos y más mirándonos a nosotros mismos. Somos más individualistas, con lo cual eso me parece que perjudica el que se pueda crear una red comunitaria y que pueda haber esos esos contextos de participación” (E.13 Teknikaria).

Pertsonok gainera, gure artean lan egitera ohituta ez gaudela gaineratzen dute, eta beharizan komun eta kolektiboak bigarren maila batean geratzen direla. Indibidualismoaren inertziak sarritan, isolamendu sozialera eramaten gaitu, eta horrek pertsona aktibo eta kontzientziatu gutxiago egotea eragiten du. Badago oraindik antolatu eta mugitzen den jendartea, baina guxtiengoa da (E.16 Teknikaria). Zera gertatzen da dagoen sare komunitarioarekin: “la gente usa la red comunitaria de forma individual y esto es una realidad” (E.18 Teknikaria).

Pandemian zehar ordea, beste kode batzuk aktibatu direla gaineratzen dute. Besteak beste, gaiari dagokionez, sare komunitario potenteak sortu dira eta dinamika horrek gizarteak molde horietan aritzeko duen beharra islatzen dela adierazten du, zehazki, ongizate komun eta kolektiboari indarra emateko beharra. Gizartearen potentzialtasun nagusia dela aitortuz, errekeratu beharra nabarmendu dute, gizarte ehuna berreskuratzeko ahalegin berezia egin behar dela, alegia.

Dimentsio politikoa

18. Taula: Dimentsio politikoa eta elementu baldintzatzaileak

Barne Dimentsioa	DimentsioPolitikoa	Komunitarioaren kontzeptualizazioa
		Borondate politikoa- Apustu politikoa
		Marko legalak, aginduak eta planak
		Baliabideak
		Ideologia

Iturria: Norberak egina.

Marko analitikoa osatzen duten dimentsio politikoko elementuak mintzagai izan dira teknikariek izandako elkarrizketetan. Ez dira ordezkari politikoen elkarrizketetan bezain sakonean landu, baina zuzenean edo zeharka, elementu gehientsuenei egin zaie erreferentzia. Batez ere, elementu hauen arabera elementu teknikoak erabat aldatu daitezkeelako.

Kontzeptualizazioa

Egindako elkarrizketa guztietan jasotako ideia nagusienetakoa da ordezkari politikoen artean, gizarte-zerbitzuei dagokienez, dagoen ezezagutza. Ezezagutza handia dagoela onartzen dute, oso urruti sentitzen dituztela eta gainera, ez dutela gerturatzeko asmorik, gehiago ezagutzekorik (E.17 Teknikaria). Agerian geratzen da horelako baieztapenekin: “No hay un reconocimiento claro de lo que hacemos, ni de cuál es nuestra finalidad ni utilidad” (E.13 Teknikaria), “no saben lo que hacemos en nuestro día a día” (E.14 Teknikaria), “la realidad es que no tienen ni idea de cómo trabajamos ni qué hacemos” (E.15 Teknikaria).

Gizarte-zerbitzuen ezezagutza onartuta, gizarte-zerbitzuetatik egiten den edo egin daitekeen komunitarioaren inguruko ezezagutza are handiagoa da oraindik:

“Yo creo que cuando se habla de trabajo social comunitario no saben de lo que hablan. Cuando el político habla de consumo de actividades, cuando hablan de que Vitoria es una ciudad que ofrece, ofrece actividades, pero al final en lo comunitario estamos hablando de tejer redes, de vincularse, de que realmente sea un espacio” (E.19 Teknikaria).

Gainera, komunitarioa egiteak, eguneroko lanetik at, suposatzen duen denbora eta esfortzua ere ez dira ezagutzen ezta baloratzen ere. Ikusten dena emaitza da, esaterako, auzoko irratia edo argazki bidezko diagnostia, baina hori egiteak atzean daukan denbora ez da kalkulatzeko eta ondorioz, ez da baloratzen ezta kontuan hartzen ere. Komunitarioaren garrantzi soziala edo balio erantsia prozesuetan egoten da, eta hain justu, horretan antzematen da ezezagutza handiena (E.14 Teknikaria).

Ezagutza elementu garrantzitsua da ondoren brondate politikoa egon dadin eta ondorioz, komunitarioaren aldeko apustu politikoa egiteko. Beraz, ezinbesteko lotura dauka elementu honek hurregoarekin eta teknikariek ere, horrela ikusten dute: “lo primero es conocer lo que es el entramado comunitario” (E.19 Teknikaria).

Elementu honi buruz teknikarien bidez jasotakotik ondorioztatu daiteke ezezagutzak ez duela laguntzen planteamendu komunitarioak garatzen, batez ere, beste guztietan izan dezaketen eraginagatik.

Borondate politikoa-apustu politikoa

Esan bezala, aurreko elementuarekin erabateko lotura ikusten diote teknikariek borondate politikoaren edo apustu politikoaren elementu baldintzatzaileari. “Yo creo que a nivel político es necesario que haya una apuesta”, eta nahiz eta bere momentuan oso apustu garrantzitsua egin zela dioten, gaur egun gizarte-etxeen programazioan geratu dela (E.19 Teknikaria).

Teknikarien rola arabera ezberdintasunak nabari dira elementu honen inguruko pertzepzioan. Arreta zuzenetik urrutien egon daitezkeen teknikariek, hots, kudeaketan daudenek, politikarietako batzuk lana balorean jartzen dutela eta planteamendu komunitarioetarako borondatea erakusten dutela diote. Hala ere, ez da berdin gertatzen oinarrizko gizarte-zerbitzuetatik urrutien daudenekin, esaterako diputazioko politikariek edo baita udalean, baina gaian ez daudenekin eta horrek, batzuetan gauzak zaildu ditzake (E.17 Teknikaria).

Beste teknikari batzuen ustez, gizarte-zerbitzuak deserosoak dira politikarientzat. Orokorrean, gizarte-politiken departamenduan, oinarrizko gizarte-zerbitzuak “la niña fea del ayuntamiento” direla diote, bestetak beste, ez dutelako dirurik ez boturik ematen, hau da, ez direlako politikoki errentagarriak. Hala ere, beste batzuen aburuz, politikariek apustua egin ahal izateko, jendartean oinarrizko gizarte-zerbitzuak indartzeko beharra egon behar da, eskaera edo presioa eginez. Modu horretara errazagoa baita politikariek aldeko apustua egitea. Beraiek argi daukate zein izan beharko litzakeen:

“Buscar una mayor calidad de vida. Yo creo que lo comunitario genera mayor calidad de vida, entonces ese tendría que ser una de las máximas de la ejecución política” (E.13 Teknikaria).

Planteamendu komunitarioengatik apustua egiteak aldaketa handia suposatzen du oinarrizko gizarte-zerbitzuen egungo errealitatean, eta aldaketa horiek emateko ausardia behar dela aipatzen dute: “tienen que atreverse a cambiar” (E.15 Teknikaria). Aldaketa hauek, oinarrizko gizarte-zerbitzuen baitan, barrura begira zein kanpora begira ere aldaketa garrantzitsu bezain deserosoak izan daitezke. Ezinbestean, teknikarien egunerokotasunari eragiten die (gero ikusiko dugun bezala), baina baita jendearteari ere,

aktibazioa eta ahalduzkoa suposatuko lukeelako. Honenbestez, berrantolaketak bere baitan daraman pisua zein garrantzia dela eta, honen inguruko adostasun politikoa beharko litzakeela aipatu digute.

Soikik modu horretara emango dira komunitarioa ahalbidetu zein sustatzeko behar diren aldaketak era iraunkor edo jasangarrian.

Marko legalak, aginduak eta planak

Orain arte hainbat alditan aipatu dugun bezala, ezinbestekoak dira baliabide legal, tekniko eta metodologikoak eskaintzea, osterantzean, ezin baita borondatea egikaritu. Hemen ere, ikuspegi ezberdinak aurkitu ditzakegu, baina batez ere, ardura postuetan dauden teknikariek egin diote erreferentzia.

Lanean zehar esan dugu jada, 12/2008 Legeak marko komunitarioa ahalbidetzen duela, baina, 185/2015 Dekretuak, hots, Zorroak ez dituela modu berdinean bermatzen komunitarioenak diren baliabideak, ez baititu jasotzen eta jasotzen dituen lanketa oso azalekoarekin. Gasteizko udaleko oinarrizko gizarte-zerbitzuetako arduradunek, esaterako, Arabako gizarte-zerbitzuetako plana zein mapa osatzerako orduan, hauen zerbitzuetan baliabide interesgarriak diren parte-hartzeko dinamikak, inklusio soziohezitzailea etab. sartzen saiatu izan dira. Aldiz, Foru Aldundiko arduradunek, oinarrizko gizarte-zerbitzuen balio erantsi bat direla esanez, ezeztatu egin dute hauek barnbiltzeko eskaeria, beraiek, plazak dituzten baliabideak aintzat hartuko dituztelako. Adibide honekin, markoak sortzerako orduan egon daitezkeen zailtasunak ezagutarazi nahi izan dute, izan ere, oinarrizko gizarte-zerbitzuetatik gero eta urrutiago egon erakundea, gutxiago ezagutzen du, eta baloratu ere horrela egiten du. Oinarrizko gizarte-zerbitzuetako komunitarioak diskurtsiboki presentzia badu ere, ondoren praktikoki beste edozein lan lehenesten dela ikusi dezakegu:

“Todo el tema comunitario, todo el tema de prevención, participación, promoción, decían que no, que ellos necesitan recursos con plazas, números (...) todo lo que no son plazas, cuesta mucho convencer a la diputación. (...) Queríamos que apareciera lo comunitario porque hay que ponerlo en valor” (E.17 Teknikaria).

Hala ere, udalaren baitan ere markoak, arauak edo planak sortzea garrantzitsua dela aipatu dugu, izan ere, legea zein plan estrategiko orokorra, egunerokotasuneko jardute profesionaletik urrun geratzen da. Udalean behar dira horrelakoak, eta elkarrizketetan jaso dugunez, Gasteizko oinarrizko gizarte-zerbitzuak badabiltza markoa osatze bidean.

“Es importantísimo elaborar un documento marco que se está elaborando, para que de alguna manera se haga algo, es el primer paso” (E.19).

Esanak esan, jardua profesionaletik gertu egongo diren marko normatibo egokiak sortzeak planteamendu komunitarioak ezinbestekak baldintzatuko ditu eta baita hurrengo elementua bera ere.

Baliabideak

Baliabide edo marko legalez haratago, gainerako baliabideak ere bahar ditu komunitarioak. Dimentsio teknikoaren baitako elementuak aztertzen ditugunean, gehiago sakonduko dugu honetan, hala ere, esan beharra dago, teknikariek baliabideak egotea edo ez egotea politikarien erabaki garrantzitsutzat dutela. Komunitarioa harremanean eta gizarte esku-hartzean oinarritzen da, baina baliabideak eskaintzea ezinbestekoa da horretarako ere, alegia, aurrekontua ezinbestekoa da. Baliabide tekniko edo ekonomikoetatik haratago, auzoetan eta komunitateetan sortzen diren dinamikak babestu eta bultzatzeko hautua egin beharko litzateke, espazio komunitarioen bidez ahalduntzea bermatuz (E.13 Teknikaria).

Batetik, zuzeneko esku-hartzean dauden teknikarien aburuz, baliabide falta antzematen da, batez ere baliabide teknikoena, hots, giza baliabideena. Baina baita baliabide ekonomikoena ere (E.16 Teknikaria). Bestalde, kudeaketa postuetan dauden teknikariek esan digutenez esanen arabera, komunitarioa harremanean eta gizarte esku-hartzean oinarritzen denez, egun, sailak duen azpiatalik merkeena da. Gasteizek dituen baliabide komunitarioak (gizarte-etxeak, parkeak etab.) kontuan hartuta, ez du inbertsio handirik eskatzen, denboraz haratago, noski: “La parte comunitaria es la que es más económica, también toda esa parte de prevención” (E.17 Teknikaria).

Ideologia

Dimentsio politikoak barne hartzen dituen elementuetan azkena da ideologiaren elementua. Ideologiaren elementuaren baitan, hau da, agintean dagoen alderdiak, ordezkari politikoak edo taldeak izan dezakeen ideologiari buruz eta batetik bestera egon daitekeen aldeari buruz hitz egin dugu. Kasu honetan ere, ardura postuetan dauden gizarte-langileak izan dira gehien mintzatu izan direnak beraien hartu emana eta beraz, harremana gertukoagoa baita. Hala ere, Gasteizko oinarrizko gizarte-zerbitzuek, eta

sailak orokorrean, bizi izandako egoera batzuk ere mintzagai izan ditzute beste teknikari batzuk ere.

“Sí, si que hay diferencia. Yo creo que hay posturas o corrientes políticas que tienen más voluntad, pues a que esto sea como algo muy básico” (E.13 Teknikariak).

“Marcan un línea y esa línea es una decisión política (...) es lo que va encaminar la tendencia y va a marcar cuantos recursos tendrás para hacer cosas (...) entonces sí, estamos condicionados en este sentido” (E.18 Teknikaria).

“Cuando hubo que reducir, redujeron en todo lo que tiene que ver con lo comunitario, porque recortar en recursos era perder votos. Y cuando ella dijo eso, no teníamos datos para decirle que la prevención es importante y lo comunitario es prevención, pero no tienes datos...” (E.13 Teknikaria).

Azken kasu honetan, murrizketa garaian, komunitarioarekin zerikusia zuen gehiena desagertu zen, besteak beste, droga prebentzioa, matxismoaren lanketa etab. ordea, nagusien edo hurren kasuan, ez zen ezer murriztu, ongi baitzekiten bozkak galtzeko aukera zutela. Beraz, ideologikoki ikus daiteke, kasu batzuetan, ez dela lehentasuna. Honetaz gain, kontzientzia sozialaz ere hitz egin dugu elkarrizketetan, eta batzuen kontzientzia sozial murrizta agerian geratu da, horrek oinarrizko gizarte-zerbitzuetan eta teknikarien jardun profesionalen duen eraginarekin: “es muy llamativo, porque nosotras somos, bueno, hemos sufrido campañas de difamación por parte de los propios políticos, bueno, del propio alcalde de la ciudad” (E.14 Teknikaria).

Honekin guztiarekin ikus dezakegu teknikariak diotenez, ideologikoki ezberdintasun handia dagoela alderdien artean. Batez ere, hauek Gizarte-zerbitzuei ematen dieten lehentasuna eta trataerari dagokionez.

Hala ere, alderi politikoaz gaindi, pertsonen arabera ere, kontzientzia soziala, edo ideologia aldatzen dela gaineratu digute: “tiene mucha influencia el grupo político que venga, per también tiene que ver mucho la persona” (E.17 Teknikaria). Esaterako gaur egun, apustua teknikogoa da, zuzendaritzak teknikoak dira eta egiten uzten da, ordezkari politikoaren rola, beste ordezkariekin negoziatzera mugatuz.

Dimentsio politikoarekin amaitze aldera, aipagarria da teknikariak ez dute hainbeste sakondu dimentsio honetan, nahiz eta gako esanguratsu batzuk eskaini dituzten, funtsean, komunitarioan eragiten duten gakoak. Teknikarien artean gainera, argi ikusi dugu, politikariekin harreman gehien dutenen artean gaia gehiago sakondu dela, hala nola, ardura postuetan dauden teknikarien artean.

Dimentsio teknikoa

19. Taula: Dimentsio teknikoa eta elementu baldintzatzaileak

Barne Dimentsioa	Dimentsio Teknikoa	Komunitarioaren kontzeptualizazioa
		Enkargua eta apustua
		Arreta eredua
		Gizarte-langilearen ideologia eta hautu epistemologikoa
		Lan taldearen eta zerbitzuaren antolaketa
		Artikulazioa komunitarioa
		Formazioa
		Sistematizazioa

Iturria: Norberak egina.

Dimentsio teknikoaren atalarekin hasi baino lehen aipatu dugun moduan, teknikarien artean egindako elkarrizketetan rol ezberdinak dituzten teknikariak bildu ditugunez, oinarritzko gizarte-zerbitzuekin harreman ezberdina ere badute. Aurrez egin bezala, esanguratsua den kasuetan, ezberdindu egin dugu. Dimentsio politikoko elementuetan horrela izan ez bada ere, kasu honetan, dimentsio teknikoak barnebiltzen dituen elementu baldintzatzaileen inguruko informazio asko bildu dugu eta erabat interesgarria gainera.

Kontzeptualizazioa

Dimentsio politikoaren baitan ere hitz egin dugu kontzeptualizazioaren inguruan. Kasu honetan, dimentsio teknikoan elementu baldintzatzailea, era berezian, jasotzea interesgarria iruditu zaigu. Lehenengoan politikariek egiten duten kontzeptualizazioaz aritu gara, eta honetan ordea, oinarritzko gizarte-zerbitzuetako gizarte-langileek egiten dutenaz mintzatuko gara, bakoitzak bere berezitasuna izanik.

Lehenik eta behin, profesionalen artean ere, ordezkari politikoekin gertatzen den bezala, ezezagutza handia dagoela aiptazen dute. Hori bakarrik ez, ezezagutzaren ondorioz, mesfindatzak sortu izan direla. Teknikari batek aipatu duenez, bere lankideek ere jarri omen dute zalantzan sekula praktika komunitarioen bat egin duenean, lanean ote zebilen ere. Esaterako, auzokideekin harreman zuzena izateko, komunitateko dinamikaren batera hurbildu izan denean. Halaxe dio: “no sé, se desvaloriza ese trabajo” (E.19 Teknikaria). Lanen artean ere, gutxi baloratua dagoela esaten dute, estigmatizatutakoena dela “no es lo mismo, una reunión de sanidad, que una sobre temas comunitarios (E.16 Teknikaria). Edozelan ere, argi adierazten dute oinarritzko gizarte-zerbitzuak direla herritar guztiengana, planteamendu komunitarioen bidez heltzeko gizarte-zerbitzuetako esparrua:

“Los trabajos comunitarios se hacen en los sitios donde estamos más cercanos a la población y esos son los servicios sociales de base, en general” (E.15 Teknikaria).

Komunitarioaz ari garenean zertaz ari garen aipatzean, aldiz, ezberdintasunak nabarmenak dira ardura postua duten teknikarien eta ez dutenen artean. Ardura postuetan daudenek askoz argiago ikusten dute, eta askoz gehiago hurbiltzen dira, besteak beste, guk lan honetan adituen bidez sortu ditugun definizioetara. “Yo entiendo lo comunitario como las redes” aldiz, zuzeneko arretan dauden gizarte-langile askok programazioarekin lotzen dute zuzenean “nosotros si que hacemos comunitario, tenemos la programación comunitaria” (E.18 Teknikaria). Hauek egiten duten jardua profesional komunitarioa, ekintza eta tailer ezberdinak kudeatzea da, eta beraz, hori etortzen zaie gogora. Gogorarazten dute, beraiek beste zerbaitetan inplikatzeko hautu profesionala egin ezean, lan komunitarioak zama administratibo eta burokratikoak besterik ez diela eskatzen (E.14 Teknikaria). Hala ere, zuzeneko arretan dauden artean ere, badaude bestelako kontzeptualizazioak:

“El enfoque va al empoderamiento de los grupos y las personas con los medios, el asesoramiento y acompañamiento que necesitan para ser dueños de sus caminos. (...) La filosofía es esa, favorecer el cambio para que las personas sean responsables de su cambio y el trabajo comunitario y el cambio nacen desde abajo” (E.16 Teknikaria).

Ardura postuetatik ere, azken honen ildotik, beste zerbait ulertzen da eta ekintza katalogo bat ateratzea baino zerbait gehiago bezala irudikatzen da:

“El desarrollo comunitario sería activar, bueno, primero conocer, reconocer, utilizar y activar, todas esas redes que están en la comunidad, ¿no?. Bien sea por gente que participa que por entidades del tercer sector, que están ahí implícitas en la comunidad. Desde los servicios institucionales hay que activarlo y que esas redes den cobertura a las necesidades de participación que tiene la ciudadanía y de formar parte del entramado comunitario” (E.13 Teknikaria).

“Para nosotras el ayuntamiento, que es el contexto de servicios sociales locales, es el de más proximidad, que es la palabra, proximidad y observatorio privilegiado para el trabajo comunitario, ¿no? (E.17 Teknikaria).

Teknikari batek aipatu duenez, kontzeptualizazio hau, hots, profesionalak zer eta nola ulertzen duten komunitarioa da gainerako elementu guztiak baldintatuko dituena: “Creo que la definición del trabajo comunitario es el Kit de la cuestión, no es sólo trabajar para la comunidad, es más” (E.16 Teknikaria). Modu honetara teknikariak ulertzen dutenaren arabera gainerako gakoak mehatxu edo aukera bilakatu ditzake planteamendu komunitarioari dagokionez.

Enkargua eta apustua

Aurreko elementuan komunitarioaz mintzo garenean zertaz ari diren argitzen saiatu gara. Baina, orain, aldiz, hori enkargu bilakatzeko apustua egiten den ezagutu gurako genuke, politikarien kasuan egin dugun bezala, kasu honetan, ia teknikarien partetik egiten ote den jakiteko.

Apustua hori izan beharko litzakeela argi adierazten dute eta teorikoki samur ikusten da, baina teknikoki zein praktikoki zailtzen dela aitortzen dute. Orain, eredu berria eraikitzen dabilta eta dimentsio politikoan esan bezala, horretarako udal mailako markoak eraikitzea ezinbestekoa da. Gasteizko oinarrizko gizarte-zerbitzuetan ari dira berrantolaketa eta berreraikuntzan, beraz, aldaketaren emaitza izango den eredu berriaren baitan komunitarioaren aldeko apustua garbia da:

“Vamos a hacer un marco, porque yo decía, vamos a atrabajar un proceso participativo de reorganización de servicios sociales de base a futuro, pero me decían, es que no sabemos a dónde vamos. (...) Tenemos una ley de servicios sociales que otra cosa no tendrá, pero modelo de proximidad, comunitario, definición y tal, sí. Yo lo tengo muy claro, es un plan estratégico que define hacia donde vamos” (E.17 Teknikaria).

Horrela bada, udal markoak sortu daitezke, eta sortu behar dira enkargua aurrera eraman ahal izateko, egun dagoen ezezagutza eta nahasmendua argia izan dadin. Legea marko orokor bezala erabilita, hori lurreratuko duen eta irisgarriago izango den markoren falta sumatzen dugu. Teknikoki, edo zuzendaritzaren inguruan, apustua errealia eta interesgarria da, hala ere, profesionalek diote egunerokotasuneko praktikan ez dela hori eskatzen zaiena. Praktikotasunean hau da enkargu komunitarioa:

“Lo que hacemos es ofrecer una serie de actividades. Cada una de las trabajadoras sociales se convierte en referente de una de las actividades y lo que hace es presentar la actividad con la monitora. Hace un seguimiento trimestral y una evaluación final” (E.14 Teknikaria).

“Hacemos programaciones anuales” (E.18 Teknikaria).

“En los bases, que es donde se programa, muchas veces tenemos la sensación de que es copia pega, o sea que no hacemos una reflexión de parón y decimos qué es lo que hemos detectado este curso ni nada y de ahí sale la programación. (...) Ella lleva un taller allí, yo llevo otro y más talleres que llevan las demás. (...) es un copia y pega todo el rato, o sea, yo tengo esa sensación. Si ves el folleto de comunitario de este año y sacamos el del año pasado, ha cambiado la fecha” (E.16 Teknikaria).

Hori horrela izanda, enkarguaren indefinizioa dagoela esan dezakegu. Gizarte-zerbitzuen kasuan orokorrean gertatzen den bezala, esan dezakegu, hemen ere ez datorrela bat izan

beharko luketena eta errealitatean direna. Labur esanda, apustua zein izan beharko litzatekeen argi dago, baina errealitatean ez da egikaritzen. Horretarako, apustua egin behar da, apustu ziurra eta ausarta: “requiere un cambio en lo que estábamos haciendo hasta ahora, porque es todo intervencionista y de arriba a abajo, no de abajo a arriba y con poca dedicación de recursos” (E.16 Teknikaria). Gaur egun, ordea, berrantolaketarekin komunitarioa biziberritzeko apustua egin gura dela esan dugu, eta egitekoa hurrengoan izan beharko litzatekeela diote:

“Si hay una labor que tenemos los servicios sociales de base, es la de acompañar en esa potenciación de redes y hacer conocer a las personas que quieran hacer uso de las redes lo importante que son los vínculos relacionados que puedas tener en la comunidad. Que se facilite el que puedan hacer uso de esas redes, sería un poco nuestra labor. También la de generar red, acompañar en el uso de los recursos comunitarios y que tendría que ser, desde mi punto de vista, una labor bastante desde lo primario, desde lo primordial, desde lo primero (E.13 Teknikaria).

Ordea, beste profesional baten hitzetatik hori egiten denik sentitzen ez dutela eratorri dezakegu, eta oinarrizko gizarte-zerbitzuak auzoaren beharrianak ase beharko litzatekeela uste du. Aurrez aipatu den enkargu hori egin beharko litzatekeela argi dauka, baina aldiz, profesional batek hautua egin duelako bide horri ekiten badio errekonozimendurik ez dagoela aipatzen da:

“No hay un reconocimiento político y no hay un reconocimiento técnico de las propias direcciones. (...) No son conscientes de lo que conlleva desde abajo todo esto de enredarse en las redes y lo que conlleva el trabajo grupal y comunitario. Yo creo que se están generando cambios, pero muy poquito a poco. Entonces, cuando desde tu propio servicio se hace una apuesta por lo grupal y comunitario, pues es más fácil, pero es que ni si quiera hacemos formaciones vinculadas a esto” (E.19 Teknikaria).

“Todo lo que haces con la población, con las vecinas y vecinos, con las ampas... muchas veces lo que ellos demandas, no lo ven reflejado y eso genera un punto de desmotivación” (E.16 Teknikaria).

Borondatea badago, baina, praktikoki eta gizarte-langileen eguneroko jardute profesionalen, ez da guztiz egikaritzea lortzen. Ondorengo elementuetan ikusiko dugun bezala, profesionalaren hautuak ere eragiten du, baina ez da hori bakarrik. Errekonozimendu falta ere somatzen baitute komunitario egiteko hautu pertsonal eta profesionala hartu duten teknikarietako batzuk, eta baita egungo arreta eredu zein antolaketaren oztopoa ere.

Hasiera batean, enkargu praktikoan, badirudi ez dela komunitarioa sustatzen, baina aldiz, desiratzen edo bilatzen den ereduak atak irekitzen dizkigu planteamendu komunitarioak martxan jarri ahal izateko.

Arreta eredu

Arreta ereduaren baitan idetifikatu dugu zuzendaritza postuetan dauden gizarte-langileen eta zuzeneko arretan dauden arteko alderik handiena aurreko elementuarekin batera. Ikuspegiak nahiko kontrajarriak direla esan genezake. Batetik, ardua postuetatik, eredu beste bat izan behar dela, baina, kasu batzuetan, gizarte-langileak lehengoan iltzatuta daudela diote. Bestetik, zuzeneko jardun profesionalan daudenek lehentasunez erantzun beharreko enkarguari heltzearekin soilik, lan zama nahiko dutela diote. Egungo eredu nagusiki horretan oinarritzen dela gaineratzen dute, momentuko eskariei erantzutean, alegia.

Hori jakinik bada, ardua postuetan dauden teknikariek zer nahiko luketen adierazi dute batez ere arreta ereduaren elementua lantzean, nahiz eta konsiziente izan, hori ez dela egungo errealitatea. Horretarako, berrantolaketaren baitan arreta eredu eraldatzen bidean dituzten asmoak jaso ditugu, bereziki interesgarriak iruditu baitzaizkigu.

Hasteko eta behin, oinarrizko gizarte-zerbitzuetarako gura den eredu, planteamendu komunitarioagoekin bat datorrena hurrengoa da:

“Gestionar en la intervención individual, también esa parte de inclusión sociocomunitaria, de acompañamiento comunitario porque toda intervención tiene un objetivo de inclusión comunitaria. (...) Eso que son cuidados para la relación (...) no concibo la atención individual sin ese objetivo siempre de inclusión comunitaria. Esa parte de primera acogida de información y de tal que hacemos, también tiene que ver con la comunidad y tiene que ver con todas las redes de tu ciudad o de tu zona” (E.17 Teknikaria).

Harremanean oinarritzen den eredu behar da oinarrizko gizarte-zerbitzuetan, izan ere, Gasteizko Udaleko zerbitzu jakin batean egindako expedienteen ikerketaren bidez ondioztatu den ideiarik garrantzitsusena, pertsonen artean, profesionalaren harremana eta ekarpen tekniko izan dela elementu baloratuena izan da. Horrek, gizarte esku-hartzeak, hots, profesionalak egiten duen ekarpenak duen balio adierazten du, eta oinarrizko gizarte-zerbitzuen balio gorena izan behar da lotura hori. Horretarako, pertsonaren ondoan egon behar da, akonpainamendua egin eta gerturatu, hitz egin, finean loturari eta gizarte esku-hartzeari garrantzia eman. Hala ere, konziente dira ardua postuetatik, egun, hori egin ahal izateko beste nonbaitetik zama kendu behar dela, beraz, berrantolaketaren baitan buru belarri ari dira gizarte-langileei traba egiten dieten elementuak idetifikatu eta ezabatzen:

“Si queremos hacer comunitario tenemos que dejar de hacer todo lo que no nos da satisfacción. (...) Entonces vamos a ver donde está realmente el grosor de los expedientes (...) qué tiene mucha carga en lo individual y en el seguimiento de la intervención y en ese plan de cuidados que tienes que hacer. Todo lo de más que no nos aporta valor, como es la entrega de documentación y como todos los procedimientos que no tienen sentido, vamos a sacarlo para que realmente puedan ir de lo individual a lo comunitario, pero está costando” (E.16 Teknikaria).

Finean, berrantolaketaren oinarria, oinarritzko gizarte-zerbitzuei balio erantsirik ematen ez dieten, lan zama administratibo burokratikoa gutxitzea edo ezabatzea izango da, harremanean oinarritutako gizarte esku-hartzerako margina izateko. Zuzeneko arretan dagoen profesionalen batek ere gauza bera planteatzen du:

“Tenemos que desvincularnos de la tramitación de prestaciones y centrarnos un poco en ese proceso de acompañamiento a las familias, nosotras hacer lo que es un trabajo social de acompañamiento a las familias desde el vínculo que se establece. (...) algo tenemos que dejar de hacer si queremos hacer lo comunitario, porque requiere mucho tiempo” (E.14 Teknikaria).

Hala ere, gizarte-langileen artean, lan eredu horri dagokionez, sinergia historiko oso errotuak daudela aipatu dute. Egin beharrezko zama administratibo batzuk ezabatzen joan diren hienean, lanketa komunitarioa ez dela handitu diote, besteak beste, eredu honetan “comfort” egoeran daudelako (E.16 Teknikaria). Aitortzen dute baina, ez dagoela eredurik eraikita, eta horrela ez dela erraza aldaketa ematea (E.14 Teknikaria).

Aldiz, jardun profesionala zuzeneko arretan gauzatzen duten profesionalen aburuz, oinarritzko gizarte-zerbitzuetan dagoen egungo eredua, batez ere, banakako eta familiako esku-hartzean oinarritzen da, baita ardura posturen bateko teknikarien ustez ere:

“En los servicios sociales de base ha pasado un poquito, que nos hemos quedado más en la intervención individual desde dentro de los despachos y de los centros que saliendo a la vida del barrio, del contexto de la ciudad” (E.13 Teknikaria).

“Por las dinámicas que seguimos en el servicios social de base, la parte individual familiar, es lo que es la atención del día a día, entonces es la que se lleva el mayor peso” (E.19 Teknikaria).

Eskaera-baliabide binomioari erantzunez, eredu asistentzialista gailentzen da, eta Gasteizko oinarritzko gizarte-zerbitzuetan ere, gauza bera gertatzen da. Gainera, lan zama handia dago eremu honetan eta profesionalak estu dabilta honi erantzun ahal izateko.

“Una vez que entran las personas, la atención es individual familiar, donde las y los trabajadores sociales atendemos por casos, y después hacer esto de la información, derivación y puesta en marcha de recursos y demás” (E.18 Teknikaria).

“La supervivencia de la urgencia, el aviso del email, no sé qué tengo, o sea, es mucha carga” (E.14 Teknikaria).

Burokratizazio handia bizi dute profesionalak “esta todo muy burocratizado” (E.16 Teknikaria). Lan karga administratibo astunak dituzte eta egun egiten duten lan komunitarioa, hau da, programazio komunitarioa, kudeaketa lana denez, beste zama administratibo eta burokratiko bat gehiago bezala bizi dute: “lo hago porque lo tengo que hacer”, “ lo vivo como una carga, porque es un añadido para nosotras” (E.16 Teknikaria).

Eredu asistentzialista honekin, sarritan, azaleko erantzunak ematen direla adierazten dute, ez dela errora joaten. “Nos dedicamos a poner parches” (E.15 Teknikaria), “Tenemos las mesas, los despachos abarrotados, abarrotados con urgencias, con situaciones que hay que tomar decisiones inmediatas, entonces, no hay tiempo para parar” (E.16 Teknikaria) bezalako adierazpenak atera dira eta elkarrizketa gehientsuenetan jaso ahal izan ditugu. Alabaina, elkarrizketaren batean, kasu batzuetan, herritarrek ere erredu asistentzialista eskatzen dutela diote: “La gente sigue la lógica de la prescripción médica, es decir, yo tengo una necesidad y tú me tramitas” (E.14 Teknikaria).

Egun daukaten eredu erreaktiboa dela onartu eta gero, erredu prebentiboagoaren aldeko jarrera jaso ditugu: “de esta manera, no nos quedamos a la espera de que alguien tiene este tipo de problemática o tiene el otro” (E.18 Teknikaria). Badakite ordea, hori sare lanaren bidez etorri daitekeela. Hala ere, gaur egungo ereduak, egiten den sare lana, banakako esku-hartzeen hobekuntzarako egiten dela aipatzen digute: “Las coordinaciones que podemos hacer con colegios, asociaciones, reuniones y demás van mucho más enfocadas en lo que son los casos particulares que estamos interviniendo” (E.18 Teknikaria).

Edonola ere, profesionalak argi daukate ezin dela pertsona norbanako hutsa bezala ulertu, finean, bere komunitatetik eta bere loturetatik at ulertu. Ez gara pertsona isolatuak eta kolektibotasun baten parte izan ohi gara gehienetan (E.15 Teknikaria). Zentzu horretan, arreta indibidualen baitan kolektibotasuna lantzeko, betaurreko komunitarioekin begiratzeko beharra nabarmentzen dute:

“Implicarte más, rascar en lo que hacemos en lo individual para ver cómo lo podemos encauzar” (E.16 Teknikaria).

“Priorizar también lo comunitario y lo grupal como una de las técnicas de intervención que tenemos dentro de la atención de los servicios sociales de base, porque de verdad que nos hemos subyugado a lo individual. (...) Pero desde lo individual también se puede hacer” (E.13 Teknikaria).

“Hacer un trabajo comunitario y de vínculo a través del taller de castellano. Esa sería la primera parte, pero cuando ha superado es primera parte, conectarles a

nivel comunitario, pues con la excusa un poco de hacer conversación, les conectamos a nivel comunitario con los recursos que desconocen. (...) Si no lo tienes presente como trabajadora social en tu intervención individual familiar, luego es muy difícil. (...) De alguna manera, vamos a acercarnos a lo individual familiar lo comunitario, porque además, yo creo que para las familias es súper enriquecedor” (E.19 Teknikaria).

Hala ere, bai zuzeneko arretan dauden profesionalak, baita ardura postuetako teknikari batzuk ere, egungo ereduak ez duela inondik ere planteamendu komunitarioekin lan egitea lehenesten adierazten dute, nahiz eta apustua eta nahiko luketen enkargua bide horretan joan. Politikariren baten kasuan ikusi genuen bezala, banakako zein familiako arretak lehentasun osoa hartzen du:

“Lo individual ha comido tanto, siempre se ha priorizado la intervención individual, teniendo que cubrir tantas casuística, tanto ratio de atención, tanto... que ha comido todo lo demás. Entonces, mientras sigue habiendo una priorización de este modelo, lo grupal y comunitario serán residuales (...) Ahora mismo, lo comunitario está totalmente delegado pues a un segundo tercer o cuarto plano, se prioriza lo individual en la organización, entonces tenemos profesionales, por ejemplo, que están atendiendo única y exclusivamente en casos individuales” (E.13 Teknikaria).

Elementu hau aztertzen hasi garenean esan bezala, ikus dezakegu nola ez dagoen egoeraren ikuspegi bakar bat ezta nagusi bat ere. Baina, azken lerro hauetan aipatutako banakako arreta horretan ikuspegi komunitarioa txertatzearen ideia, pausu txiki garrantzitsu bat izan daiteke. Teknikarien artean, diskurtsiboki oso onartua dagoen aldaketa dirudi, baina gero ez dute hain erraz egiten. Edonola ere, urrats hori, hurrengo elementuengatik guztiz baldintzatuta egon daitekeela ikus dezakegu.

Gizarte-langilearen ideologia eta hautu epistemologikoa

Aipatu dugu aurreko elementua aztertzean, oinarrizko gizarte-zerbitzuetako profesionalen artean badaudela historikoak diren inertziak, zehazki, hainbeste kexa suposatzen dituen banakako eta familiako eredu asistentzialistara lotzen dituzten inertziak. Kasu honetan, ezberdintasunak ezberdintasun, rol ezberdinak betetzen dituzten teknikarien artean partekatzen den ideia da hau: pertsonaren hautuaren arabera erabat baldintzatu daiteke komunitarioago den lan bat egitea. Hori horrela, aldatetaren aldeko edo kontrako jarrerak profesionalaren hautu epistemologiko eta ideologikoarekin oso lotuta daude: “Al final tiene mucho que ver con la persona, con las profesionales” (E.17 Teknikaria), “la marca en la asistencia de cada una de las técnicas, marcan totalmente lo que podemos hacer en lo comunitario” (E.14 Teknikaria).

Planteamendu komunitarioek inplikazio handia eskatzen dute eta profesionalak aktiboki zein politikoki ere gehiago kokatzea eskatzen du. Maiz, idealizatu egiten da komunitarioa, baina eskatzen duen esfortzu eta inplikazioa ikustean, erresistentzia handiak ematen dira aldaketarako. Denbora askoz gehiago eskatzen dute planteamendu komunitarioek eta hori horrela izanik “lleva mucho tiempo y hay que creer en ello”. Arreta ereduak suposatzen dituen oztopoak onartuta ere, egoera berdinen aurrean, lankide batek edo horren ondokoak, jarrera kontrajarriak dituztela ikusten dute (E.13 Teknikaria). Esaterako, kasu konkretu batzuetan, oinarritzko gizarte-zerbitzuko arduradunak, komunitarioaren ardura duenak, bultzatu eta sustatuz gero, sareak eraiki daitezke, esate baterako, Gasteizko kasuan eraiki izan dira: “tiene que ver mucho con la propia figura de responsable” (E.14 Teknikaria). Urrats komunitarioak eman daitezke, baina bere hautuaren gain geratzen da eta horrela diote rol hori izandakoek:

“Supone mucho tiempo y mucha implicación. (...) Esta manera de trabajar conjuntamente, sentarnos a trabajar y hablar desde ese proceso, es mucho mas laborioso que si yo en mi despacho diseño seis actividades, hago un cartel muy mono, contrato una empresa para que lo lleve a cabo y que venga quien quiera. (...) cuando lo haces con ilusión y crees en lo comunitario, lo haces, trabajas de manera conjunta, pero claro, es un extra. (...) Me ha supuesto un desgaste personal y profesional importante, porque no es sólo eso, también es todo lo demás” (E.19 Teknikaria).

Eskatzen duen inplikazioaz haratago, badaude aurreko arreta eredu oso eroso sentitzen diren gizarte-langileak ere, eta kasu batzuetan (“el colectivo que ha protestado es minoritario”), horrelako esaldiak entzun behar izaten dituzte ereduaren aldaketa planteatzerakoan: “que estamos muy bien, estamos todo el día atendiendo, tramitando recursos, somos muy ágiles tramitando recursos, haciendo planes de intervención en lo individual y familia, hasta ahí” (E.13 Teknikaria). Eta egia esan, aldaketak beti izaten dira zailak: “todas estas cosas que son nuevas, te sacan de tu zona de comfort” (E.15 Teknikaria). Kasu hauek dauden bezala, oztopoak oztopo, badaude komunitarioa egiteko indarra daukaten eta hautua egiten duten profesionalak ere: “yo creo que hay mucho potencial y hay que visibilizarlo” (E.13 Teknikaria). Txikiak izan daitezke urratsak, baina egoera ikusita, pausu oso adierazgarriak direla uste dugu. Kasu batzuetan, oinarritzko gizarte-zerbitzuetan, eta beste batzuetan, oinarritzko gizarte zerbitzutik at dauden beste lehen mailako arretako zerbitzu jakinetan eman izan dira eredu komunitarioak.

Deserosotasunaz gain, hautu epistemologiko horren baitan ere eredu teoriko metodologikoak hautatzen ditugu gure identitate profesionala garatzerako orduan. Mundua eta gizarte ulertzeko daukaun paradigmak erabat baldintzatuko du gizarte

egoeren aurrean egin dezakegun irakurketa, izan dezakegun kontzientzia. Kontzientzia kritikoarekin irakurketa egiten denan, epe ertain luzeko ahalduntze prozesuetan sinestenda, lanean ikusi dugun bezala, eta ezberdintasun horiek antzematen direla aipatu digute (E.19 Teknikaria, E.14 Teknikaria, E.16 Teknikaria). Horrelako dinamikak egiteko hautua egindako profesional batek dio ordea, esperientzia hauek oso zailak izan arren, oso atseginak direla:

“Tienes que creer en el trabajo social comunitario, creer además, en lo que eso puede generar, el cambio, pero hay muchas compañeras que no lo tienen interiorizado como una parcela importante de su trabajo (...) Requiere un conocimiento y una implicación a medio largo plazo, no en lo inmediato. (...) La verdad es que la experiencia ha sido super positiva para mí. Ha sido quizás, en el puesto de responsable, una de las partes más gratificantes, ese trabajo en red y comunitario” (E.19 Teknikaria).

“Ya te digo que depende más de una estructura, de tu actitud hacia lo que ocurre en tu entorno” (E.14 Teknikaria).

“Generamos sistemas mucho más potentes y resilientes si invertimos en lo comunitario” (E.13 Teknikaria).

Honekin oso lotuta dago profesional bezala eraikitako boterearen ideia ere. Finean, daukagun jarrera edo ikuspegia politikoa. Boterearen kontu honek profesionalak gizartearekiko edo gizarte-zerbitzuetara gerturatzen diren pertsonetikiko duten botere harremanari egiten dio erreferentzia. Profesionalak oso barneratuta duten zerbait da, eta batzuetan ez dira horrelako ideiarekin identifikatzen, nahiz eta hitzekin agerian geratzen den. Sarritan, profesionalak pertsonak ordezkatzeko dituztela ikusten dugu, hauengatik hitz egiten dutela. Baina, aldiz, planteamendu komunitarioak kontrako norabidean doaz, hau da, pertsonak protagonista bihurtzeaz, pertsonak ahalduntzeaz. Parean daukaguna ahalduntzeko boterea hartu behar du, eta horretarako, gizarte-langileak askatu. Dinamika horretan deseroso sentitzen dira profesional batzuk, izan ere, errotuta dute oinarrizko gizarte-zerbitzuetara datozen pertsona batzuren gaitasun murriztua, eta zenbait kasutan, baita gaitasun eza ere. Horren adierazgarri dira hurrengoak bezalako adierazpenak: “los nuestros no pueden ir solos, que no van a saber llevar la documentación” (E.13 Teknikaria). Gainera, boterearen beste aldaera bat bezala irudikatu dezakegu, gizarte-langilearen ziurtasuna. Jendearen aurrean ziurtasuna eta jarrera zurrinak izateak boteretsuagoak egiten ditu profesionalak herritarren aurrean. Aldiz prozesu komunitarioak ez dira ziurrak, aldakorrak dira, elkarbanatuak diren hienean, moldagarriak direlako. Hori dela eta, ez die langileei ziurtasunik ematen, eta horrek botere harremana kolokan jartzen du:

“No estamos habituadas las trabajadoras sociales, muchas veces, prefieren seguir haciendo lo que hacen porque les da seguridad y no tiene que andar pensando más allá, ni molestarse en conocer (...) Cuando entras por la puerta con una persona, saber qué tienes que hacer. Las prestaciones que dan mucha seguridad, porque no tienes que pensarlo mucho” (E.14 Teknikaria).

“Cuidado con lo comunitario porque igual no gustan cosas (...) no nos gusta perder el control” (E.16 Teknikaria).

Profesionalaren hautuaren elementuak gako interesgarriak ematen dizkigu planteamendu komunitarioak sustatzearen edo oztopatzearen atzean egon daitezkeen arrazoiak ulertzeko. Hala ere, lehenxeago azaldu dugun bezala, badaude informazio garrantzitsua eman diezaguketen gainerako elementu baldintzatzaile batzuk ere, honekin elkarreraginean daudenak, noski, esaterako hurrengoak.

Aurrekoetan aipatu dugun antzera, kasu honetan ere horrelako zerbait gertatzen da, hots, praktikotasunean zaildu egiten dela planteamendu komunitarioak martxan jartzeko aukera. Hala ere, aldeko jarrerak testuingurua positiboagoa egiten dute eta aukera, egon badagoela, esan dezakegu.

Lan taldearen eta zerbitzuaren antolaketa

Hasieran aipatu dugunez gero, Gasteizko oinarrizko gizarte-zerbitzuetan, batez ere, gizarte-langileak daude. Halaber, taldea osatzeko psikologo bat, hezitzailea, administraria eta arduranduna daude. Honetaz gain, kale hezitzaileak ere badaude, zerbitzuetako ormetatik kanpo lan egiteaz arduratzen direnak.

Lehenago aipatu dugun bezala, elementu honetan gakoetako bat da, oinarrizko gizarte-zerbitzuetako buruak (teknikoki enkargua adierazi behar duenak) planteamenduekiko duen jarrera. Kasu honetan, jarrera oso ezberdinak aurkitu ditzakegu, eta beraz, horrek alde batera edo bestera bideratuko du komunitarioaren balantza. Are gehiago gertatzen da hau kasu honetan, izan ere, arduradunak dira komunitarioaren ardura dutenak: “¿Quién ha asumido este papel? Las responsables porque como no atendemos, nuestra gestión del tiempo es propia”. Komunitarioaren ardura nagusia, beraz, arduradunaren gain geratzen da eta gainerako lan taldeak lantzean behin egiten du ekintza konkreturen bat (E.13 Teknikaria). Hala ere, arduradunaren papera ez dago oso zehaztuta eta nahiko balioaniztuna da. Gainera, zalantzak sortzen zaizkie arduradunei. Batetik, komunitarioa sustatzeaz zein kanalizatzeaz beraiek arduratu behar badira, lan hori nola egikaritu dezaketen antolatzeke, eta batez ere, gainerako langileekin metodologia adostean (E.14 Teknikaria). “Todo lo que hacemos a nivel comunitario, en las reuniones que solemos

hacer los viernes se intenta trasladar al equipo. El tema es que no es el número uno, entonces muchas veces ni se habla. Lo ideal sería que alguna de las trabajadoras sociales se estaría implicando también en lo comunitario y también diese un poco esa visión desde la intervención individual, el tema es que no hay tiempo” (E.19 Teknikaria).

Elkarrizketa askotan jaso dugu, lan taldean, komunitarioa lehentasuntzat izango duen kide baten beharra (E.15, E.16, E.18 Teknikaria). Izan ere, oinarrizko gizarte-zerbitzuek duten balioaniztasunaren eta lan zamaren ondorioz, osterantzean, beti banakakoa gailentzen delako:

“Yo creo que en los equipos de base tendría que haber una persona que impulsase el trabajo comunitario. Donde en su mesa, el número uno fueran el trabajo social grupal y comunitario, que son los grandes olvidados. Si esto lo diluimos en las trabajadoras sociales en los servicios de base, somos polivalentes y tenemos que llegar a todo, pues al final no llegas y a lo que no llegas es a lo grupal y comunitario. (...) eso supone una figura concreta, no puede ser aún más en el día a día. Para que eso pueda sentarse y mantenerse, tiene que ser alguien que para ella sea el número uno” (E.19 Teknikaria).

“Igual podemos dejar de organizar ciertas cosas y tener una persona que sea la que genere todas esas sinergias entre lo comunitario. Dedicar el presupuesto a la contratación de un profesional que se vincula a este desarrollo comunitario, que sea el impulsor que coordine con el equipo otro tipo de visión de lo que hoy hacemos por intervención comunitaria” (E.13 Teknikaria).

“Por ejemplo, si en el base, en el equipo, tendríamos una persona dedicada a eso exclusivamente, no dejaríamos sobre la mesa los temas comunitarios, como hicimos el viernes pasado que lo dejamos otra vez sobre la mesa. (...) Para dar esa visión global, coordinar, mediar, impulsar, dinamizar... tiene que haber alguien con seguridad” (E.16 Teknikaria).

Komunitarioaren ardura lan taldearen baitan nola banatzen den edo noren gain erortzen den jakiteaz haratago, aipatu izan dugu, garrantzitsua dela, erakundearen baitan, beste talderen bat horretara bideratuta badagoen jakitea. Horiekin eraiki daitekeen harremana kontau hartuta oinarrizko gizarte-zerbitzuetako lan taldea antolatzeko. Komunitarioaren ardura duen lan talde bat egonez gero, oinarrizko gizarte-zerbitzuen enkargu komunitarioa bat edo beste izango da. Gasteizko kasuan tokiko ekipoa dago, kultura teknikaria, kirol teknikaria, oinarrizko gizarte-zerbitzuetako arduraduna eta gizarte etxeko (parte-hartzeko) teknikariaz osatua. Lan talde hau osatzen duten kideek beste egiteko batzuk dituzte, bakoitzak bere alorrean noski. Tokiko ekipoaren parte izatea, bere egitekoei gehitu zaien enkargu bat da. Hori dela eta, oinarrizko gizarte-zerbitzuetako lan taldeetan gertatu bezala, pentsatu dezakegu, hauen kasuan ere komunitarioa ez dela lehentasuna izango, ez behintzat, norbere arloan duen egitekoaren aurrean. Edonola ere,

lan talde honen egin beharra, tokian tokiko komunitarioa sustatzea da: “intentar recuperar ese fondo comunitario de los centros cívicos de los barrios, que eran espacios de encuentro y se han convertido en los últimos años en contenedores de actividades”. Tokiko ekipo hauetara ere, arduraduna joaten da eta beraz “la responsable es la que se carga con la parte comunitaria del servicio de base, mientras el resto del equipo está a la atención individual (...) lo han separado de esa manera y eso es un histórico” (E.13 Teknikaria).

Gauzak horrela, esan genezake, taldean zein taldetik kanpo komunitarioaren arduraguztia arduradunaren gain jartzen dela. Hori egitean, erretzeko arriskua dagoela kontuan hartu beharko genukeela diote profesionalak:

“Tiene una sobrecarga en su función, porque no dejas de hacer otra cosa para hacer esto, sino que tienes que buscar el hueco para que esto tenga cabida. ¿Cuántos sobreviven? Claro, puedes acabar quemado cuando se sobredimensiona. Al no haber una figura específica para hacer todo esto, nos quedamos en una pequeña intervención, pues claro, sobrepasa la capacidad de gestión que puedan tener los técnicos” (E.13 teknikaria).

Azkenik, lan taldearen osaketari eta hauen funtzioari erreparatuz, badago elkarrizketa ezberdinetan jaso dugun gai bat, plantilen ezegonkortasunaren kontua. Egurekotasuneko gora beherek sortu ditzaketen egoerez haratago, lanpostu publikoak direnez gero, lehiaketa publikoak ez dauden tartetean mugikortasun handia ematen da hutsik dauden lanpostuetan. “Hay tantos cambios de personal y el trabajo comunitario requiere ese conocimiento del barrio, es una carrera de fondo, no un sprint, así es muy difícil” (E.16 Tekniakria).

Aipatutako guztiaz haratago, badaude lan taldea eta zerbitzuaren antolaketari dagokien gako esanguratsu gehiago. Gizarte-langileek oso agenda zurrun eta estrukturatuarekin egiten dute lan, koordinazio bilerak eta hitzorduak barne hartzen dituen agenda egiturarekin (E.19 Teknikaria):

“Estamos sujetas a que tenemos que atender tantas citas a la semana, hacer estos informes (...) Tú tienes que ajustarte a tantos días de atención, tantos de gestión, tantos tal día de psicosociales y tal de reuniones, o sea que partimos de esa estructura” (E.15 Teknikaria).

Agenda horretan ordea, ez dago komunitarioarako espazio erreserbatuik:

“Las trabajadoras sociales tienen bastante con atender y sacar su trabajo adelante (...) osea que las cargas y más factores, han llevado a la lógica de la programación comunitaria que se ha quedado reducida a un mero escaparate de actividades que funcionan por si mismas” (E.14 Teknikaria).

Gizarte-langileek ez ezik arduradunak ere, komunitarioa sustatzeaz gain, beste lan asko egin behar ditu eta argi dagoena zera da: “para eso necesitas una cosa que no tenemos y es tiempo, tiempo para pensar”. Komunitarioan pentsatzeko, hots, oinarrizko gizarte-zerbitzuak diren behatoki pribilegiatua baliatuz, eskaera indibidualetatik ekintza kolektiboak sustatzea ahalbidetzeko denborarik ez dutela adierazten dute behin eta berriz (E.14 teknikaria).

“Necesitamos un momento de pararnos a pensar que es lo que estamos haciendo y no desde una ambición de decir bueno, vamos a hacer este macro proyecto, sino más desde el aterrizaje de bueno, pues cuáles son esas necesidades y diagnóstico base del barrio y qué podemos hacer. Porque así, yo creo que el cambio, cuando se trabaja un poco desde la cercanía y trabajas un poco a nivel preventivo con las vecinas y vecinos del barrio, es más fácil” (E.19 Teknikaria).

“Ahora mismo estamos en una estructura organizativa que no tenemos tiempo como reservado. Yo tengo muy claro el tiempo que le dedico a lo individual y lo tengo muy organizado, pero a lo grupal o comunitario es como si me sobra, ¿no? Y como no me sobra, pues entonces esto, llego a poco. (...) Entonces se interviene desde lo individual dejando poco espacio a otras formas” (E.13 Teknikaria).

Horretarako, oinarrizko gizarte-zerbitzuetan egin nahi duten planteamendu berriarekin asmoa honakoa da: “sacar tarea de los servicios sociales y que nos deje espacios de tiempo. (...) Ahora hemos simplificado todos los procedimientos de derivación, de activación de expedientes y etc.” (E.13 Teknikaria).

Goraxeago aipatu bezala, planteamendu komunitarioak egiteko ereduak eraiki behar dira, enkargu komunitario zehatza izan eta horretarako hausarketak sustatu. Baina errealitatean, “la incapacidad de la gestión del tiempo y la indefinición” erabat baldintzatzen dute hori (E.14 Teknikaria). Enkarguari erreparatuz, ez dago enkargu konkretua eginda, baina bi talde daudela diote: batetik, lan egiteko modu bat bezala barneratua dutenak eta bestetik, programazio hutsarekin idetifikatzen dutenak (E.13 Teknikaria).

Elementu honekin bukatzen joateko, zerbitzuaren kokapenaren eta ordutegiaren ingurukoak ere bildu ditugu, elkarrizketa gehientsuenetan mintzagai izan ditugu eta. Oinarrizko gizarte-zerbitzuetako ordutegiaren inguruan zalantza handiak sortu dira elkarrizketetan. Argi dute denbora ezberdinetan doazela erakundea eta gainerako komunitateko eragileak, baina erresistentzia handiak egon izan dira, eta daude, komunitariorako errazagoak izan daitezkeen ordutegiak sustatzeko. Horrek ez du esan nahi “que tenemos que reunirnos todas las tardes a las 20:00 con la asociación de vecinos”, kasu honetan, malgutasunari buruz ari gara (E.13 Teknikariak). Aldi berean, profesional guztiek aitortzen dute, egungo ordutegiak ez dela bateragarria planteamendu komunitarioak sustatzea.

“La dinámica es los sábados a la tarde, el viernes, porque es cuando la gente está. No puedes pretender trabajar este ámbito desde el “yo trabajo de 9 a 14h.”, porque no vas a llegar a ningún sitio. La gente trabaja y no puede más que a las 19h., entonces es cuando hay que hacer una dinámica. (...) Si tú sólo lo ves desde tu calendario y tus condiciones laborales, no vas a poder participar. Si te adentras en estos proyectos, tienes que saber un poco en qué contexto te vas a mover” (E.19 Teknikaria).

“El de mañana sólo, no es un horario para encontrarse con asociaciones” (E.15 Teknikaria).

Kokapenari buruz ere egin dugu berba, eta argi dago, oinarrizko gizarte-zerbitzuen kokapena, berez, egokia dela komunitariorako. Espazio komunitarioa den gizarte-etxeetan daude kokatuta, eremu normalizatueta. Zalantza barik, oso abiapuntu interesgarria da. Baina profesional gehienek aitortzen dute egungo programazio komunitarioaren kontsumo hutsak, ez duela dinamika komunitariorik eraikitzen: “si yendo a un centro cívico, tú entras solo a una actividad y sales solo, no has conseguido nada, es que no has hecho comunitario” (E.13 Teknikaria). Gainera, aipatu digute elkarrizketetan, sarritan, tokian toki kokatuak ez dauden gizarte-zerbitzuetako lehen mailako arretako gainerako zerbitzu batzuetan, komunitario gehiago egiten dela, paradoxikoa izan badaiteke ere.

Azken gako honetan aipatutakoa erabat lotuta dago hurrengo elementuarekin, hau da, artikulazio komunitarioaren elementuarekin. Aipatu bezala, tokian tokiko zerbitzuak izateak ez du bermatzen komunitarioa gauzatzea, izan ere, horretarako antolakuntza eta artikulazioa behar da. Harremanak behar dira eta loturak egin, mataza komunitario hori sortu behar da. Horretarako, Gasteizko Udala kasu, tokiko ekipoa bezalako egitura bat izatea ere egokia izan daiteke, baina komunitarioa sustatzea lehentasunezko lana baldin bada. Osterantzean, ez du mataza eraikitzeke gaitasunik izango.

Artikulazio komunitarioa

Aurreko elementuko azken gakoaren hari beretik tira eginez gero, ohartzen gara Gasteizko oinarrizko gizarte-zerbitzuetan bere garaian gizarte etxeen sorrerarekin eta noski, oinarrizko gizarte zerbitzuak bertan kokatzearekin lortu gura izan zena, egun bere horretan geratu dela:

“¿Qué nos ha pasado? Nos hemos quedado obsoletos. La idea y el espíritu del principio han cambiado” (E.14 Teknikaria).

“Trabajamos con la comunidad, pero no nos conocen. Nos conocen detrás de una mesa y, encima ahora, detrás de una manpara y con mascarilla. (...) No hay una

implicación, no se trabaja desde los servicios sociales, las reuniones se ven como carga” (E.16 Teknikaria).

Hala ere, Gasteizek eta bere oinarrizko gizarte-zerbitzuek, oraindik ere, lan hau egiteko erraztasunak eta zumeak dituzte (E.17, E.13, E.15 Teknikaria).

“Creo que hay una desconexión muy grande con la realidad del barrio. (...) Además creo que es muy grande, o sea, que hay un movimiento y un caldo de cultivo muy importante” (E.15 Teknikaria).

Oinarrizko gizarte-zerbitzuak komunitarioarekin artikulatzeko bitartekoak behar ditu, eta esfortzu komunitarioak horretara bideratu. Planteamendu komunitarioak egiteak nahi eta nahi ez, komunitatearekin batera egitea eskatzen du, behintzat, elkarrizketatu ditugun adituek planteatutako terminoetan zentratzen bagara. Hasteko orduan, horrelako planteamenduak eraikitzen hasten garenetik, elkarrekintzaren bidez aurrera eramane behar dira (E.16, E.13, E.14, E.19 Teknikaria). Boterea partekatu behar da auzoko eragile ezberdinen artean eta oinarrizko gizarte-zerbitzua, bat gehiago izan behar dira. Auzokideak eta eragile ezberdinak (formal, informal, publiko etab.) protagonista izan behar dute. Profesional batzuen ustez, botere hori hasieratik guztion esku egon behar da eta diagnosi partekatu on bat egiten hasten diren unetik ziurtatu beharreko dinamika da. Behar sentituak eta partekatuak jaso behar ditu, detekzio lanak egin, eta gero, prozesu bezala eraiki.

“Ese sentimiento me parece importante de pertenencia, sobre todo de colaboración, ser parte. Porque muchas veces, igual, si se hace un diagnóstico desde el servicio social de base incluso con la escuela o con el otro y luego quieres que la gente participe. Pero si no ha sido participe de ese diagnóstico, desde el principio, es difícil” (E.19 Teknikaria).

Premisa hori, gutxiago edo gehiago, baina Gasteizko udalak herritarren parte-hartze zuzena sustatzeko dituen mekanismoetan betetzen da, esaterako auzoguneetan⁴⁶. Bertan, tokian tokiko herritarrak, udal ordezkari batekin eta auzoko teknikariek biltzen dira, peridikoki, eta iradokizunak eta kexak partekatzen dituzte. Hala ere, gizarte-langileen hitzetan, bigarren mailan geratzen dira gai sozialak eta kolektiboak, bilera edo elkargune hauek, batez ere, hirigintzan, garbitasunean, segurtasunean etab. zentratzen ohi dira.

⁴⁶ Auzoguneak gizarte-etxeetako jarduketaren eremuetan antolatzen dira. Auzotarrentzako, elkarteentzako eta bestelako taldeentzako, talde politikoentzako eta gizarte-etxeetako teknikarientzako eremu irekiak dira. Auzokoak kezkatzen dituen edo interesatzen zaien gaiak jorratzen dituzte eta hobetzeko proposamenak ere egiten dituzte. Informazio gehiago: https://www.vitoria-gasteiz.org/wb021/was/contenidoAction.do?lang=es&locale=es&idioma=es&uid=2a2aed4_117e99383fd_7ff6

Honetaz gain, gizarte gaiekin gehiago lotuta, Bizan⁴⁷ (Adinekoentzat zentro soziokulturalak) sarea dago. Tokian toki hedatzen den sarea da, eta bertan zuzeneko parte-hartzea sustatzen da, ekintzak kontsumituzetik ekintzak autogestionatzerako bidea eginez. Ahalduntze prozesu bat dela esan daiteke, eta kideak beraiek dira erabakiak hartzen dituztenak eragiteko sortutako espazioen bidez. Hori horrela, kudeaketa parte-hartzailearen eredu dira.

“Yo creo que esa estrategia es buena. También dinamiza mucho la vida de los barrios porque al estar los Bizan insertos en los centro cívicos, lo que hacen es generar mucha sinergia. Son un buen punto de partida o de referencia para que pueda verse ese desarrollo comunitario a modo de diseño” (E.13 teknikaria).

Bizaneratara jendea heltzeko egiten den bidea ere garrantzitsua da, batez ere, hain aktiboak ez diren pertsonekin. Lan hori nagusien egunerokotasunera hurbilduz, elkarriketak hasiz, harremanak eraikiz eta sareak josiz egiten da. Behin hori egin ondoren, zerbitzuetara hurbiltzeko akonpainamendua egiten da, gero autoantolakuntza sustatuz.

Hala ere, profesionalak hori egin ahal izateko, auzo ezagutza sustatzeak badu garrantzia eta hau bi modu ezberdinetara ulertu behar da. Batetik, profesionalak auzoaren inguruan duten ezagutza dago, eta bestetik, auzotarren arteko elkar ezagutza, harremanetan eta loturetan gehiago oinarritzen dena, finean, kapital soziala eskuratzean. Gainera, norbanakoen arteko loturak izan daitezke edo elkarte eta eragileen artekoak.

“A veces no conocemos o no utilizamos esa red comunitaria. Para eso, para hacer uso de todos los recursos que tenemos y trabajar con esas sinergias, con esas colaboraciones (...) nos falta mucha perspectiva de salir a la calle. Se hace la mayoría de intervenciones con la gente desde los despachos, entonces muchas veces, no conoces ni siquiera la siergia del barrio, de la comunidad en la que estás. Entonces haces como un sumatorio de la problemática individual, en vez de una respuesta comunitaria y no. Debería ser más conociendo los recursos de los que dispongo, conociendo la demanda de la población y viendo la sinergia que ocurre en la comunidad, qué puede ofrecer y cómo podemos desarrollar y apoyar en el desarrollo” (E.13 teknikaria).

“Tampoco se conocen bien los recursos de los barrios, por falta de tiempo (...) falta que salgamos a la calle (...) no se puede ser trabajadora social sin entender la gente del barrio en el que trabajas” (E.16 Teknikaria).

⁴⁷BIZAN Sarea Gasteizen zahartze aktiboan nagusi da. Jendearekin elkartzeko eta parte-hartzeko lekuak dira. Egutero aurki dezakezu bertan gustu guztietarako jarduera ugari: ikastaroak, lantegiak, hitzaldiak, haurrekin eta gazteekin egiteko jarduerak, ekitaldiak, ospakizunak eta abar. Informazio gehiago:

https://www.vitoria-gasteiz.org/wb021/was/contenidoAction.do?lang=eu&locale=eu&idioma=eu&uid=u_44a0bd70_130ab4f1005_7ff5

“No se aprovechan todas las sinergias que tiene la ciudad (...) hay zonas donde está el equipo de zona trabajando en el centro cívico organizando actividades y las asociaciones, pues en otra historia, donde no hay relación con las entidades. (...) Luego hay resistencias hacia las asociaciones por historias viejas que hoy no tienen sentido. (...) probablemente estamos duplicando iniciativas” (E.17 Teknikaria).

Hau gertatzeko, pertsonen egunerokotasunera gerturatu eta bertatik eragitea gako garrantzitsuenetako dela aipatu digute, hala ere, espazioak ezinbestekoak dira eta Gasteizen hori, zentzu batean, badagoela esan dezakegu. Espazio komunitarioak daude eta auzoko eragile asko, formalak bereziki, bertan kokatzen dira, hau da, gizarte-etxeetan. Dena dela, aurreko elementuan aipatu moduan, espazioak ez badira horretarako probesten, ez dute berez, dinamika komunitariotik sortzen. Garrantzitsua da gizarte-langileak eta profesionalak jendearen egunerokotasuneko gauza txikietatik eragitea, horietara hurbiltzea eta hortik ekiten hastea, mataza sortzen hastea, alegia (E.17 Teknikaria):

“Yo creo que los centros cívicos se han quedado en espacios que aglutinan mucha actividad, pero no mucha actividad de desarrollo comunitario y de implicación de la comunidad, más allá de las puertas del centro cívico. Se enmarcan dentro de un espacio en el que la gente puede participar, puede hacer actividades. Son servicios de cercanía, pero no sé si se ha ido tanto fuera de lo que son las paredes” (E.13 Teknikaria).

Beste kasu batzuetan, toki horiek eta bertako ekintzak ez dira guztiontzat irisgarriak, eta auzoren baten espazio publiko libreak erabiltzen hasi dira jendea parteago izan dadin. Ekintzak gizarte-etxeetatik haratago ateraz, esaterako, auzoko plazatxoan eginda. Modu honetara, aniztasuna bermatu daiteke eta tokiko errealitatea islatuta ikusi.

Harremanetan oinarritutako sare komunitarioak edo gizarte ehunak sortzea beharrezkoa da, artikulaziorako eta komunitatea indartzeko: “hay que generar contextos en los que lo relacional impere” (E.13 Teknikaria). Pertsonen arteko loturak sustatu behar dira eta baita eragileen artekoak ere. Lotura horietan arreta jarri eta indartu, sustatu edo berriak sortu daitezkeen suspertu:

“Cómo me implico en ello, porque las caras son importantes, el que alguien te ponga cara, te conozca, es muy importante (...) tiene que haber un seguimiento donde las trabajadoras sociales se puedan juntan con la gente, que tengan ya una interacción, un filin o unas sinergias” (E.16 Teknikaria).

“Hay que generar redes en el barrio (...) generar redes podría romper con muchas cosas” (E.14 teknikaria).

Nolanahi ere, badago sarean egiten den lana, beste eragile batzuekin egiten dena, baina gehientsuenetan aurreko elementuan esan bezala, koordinazioan oinarritzen da, behintzat.

“No, no. Nosotros digamos que utilizamos los recursos de la red o nos coordinamos en las intervenciones individuales y familiares. (...) Recogemos lo comunitario para trabajar a nivel individual” (E.18 Teknikaria).

Alde horretatik, ezberdintasunak nabarmendu dira elkarrizketetan eta sare lan edo koordinazio hori egiten denenean, ezberdintasun handia dago eragileak formalak diren; hots, institutua, eskola edo osasun zentroa diren edo kontrara, auzoko eragile ez formalak edo mugimendu sozialak diren (E.15, E.16, E.19 Teknikaria). Askoz samurrago egiten da lehenengoaren kasuan, eta alderantziz, gehiago kostatzen da bigarrenetan, eta ondorioz, bigarren aukera hau auzo bakan batzuetan bakarrik egiten da. Kasu gehientsuenetan egiten den sare lan nagusia osasun zentroarekin egiten da, eta koordinazio hori handitu ere egin dela aipatu digute elkarrizketa ezberdinetan.

“En el fondo, se hacen amagos, hacemos una reunión interdisciplinar, aparece el centro de salud etc. Pero eso no acaba en un buen proyecto, en una buena intervención con la comunidad, se hacen cositas, pero las cositas no tienen un hilo conductor” (E.16 Teknikaria).

Tokiko errealitatera egokitutako planteamenduak egitea ezinbestekoa da. Gasteizko kasuan, horrek asko baldintzatzen du, besteak beste, auzoak edo lurraldeak hartzen duen tamainaren arabera errazagoa edo zailagoa baita gauzatzea. Toki jakin batzuetan, hauspo komunitario oso errotua dago eta horietan akonpainamendua egin behar da, beste auzo berriago batzuetan, esaterako, sustatu eta hazia jarri behar den bitartean. Helburu nagusia, aurrez aipatu dugunez, harremanak sortu, loturak indartu eta gizarte ehuna bultzatzea izango litzateke, finean, auzoko antolamendua eragitea pertsonen arteko elkarrekintzaren bidez. Bide horretan egiten den edozein pausu, bi pertsonen arteko lotura bada ere, aurrerapausua izango da. Profesionalek ere horrela ikusten dute, eta modu horretara, zeharka bada ere, beharizan indibidualen erro zein adiera kolektiboa sustatzeko aukeraz mintzo dira:

“Si esto fuese un trabajo comunitario, como debería, podríamos hacer muchas cosas con la población. (...) Tendríamos que fomentar la organización, acompañar (...) esa es la labor de enseñar y acompañar a la gente a trabajar con la gente y hacerlo nosotras también. (...) Tenemos puntos en común, es la cuestión aprender a trabajar con ellos y como no estamos habituados, eso requiere el esfuerzo de los técnicos y políticos” (E.16 Teknikaria).

Badauka honek ere bere gakoa eta teknikari batzuen aburuz, ardura komunean oinarritu eta lan txikitik hasi behar da. Txikiak diren pausuak eman gero handiagoak ematen saiatzeko. Koordinazioa edo harreman txikietatik hasi, inertziak sortu, eta gero, inertziak

joaten zara gehiago egiten. Arestian aipatu bezala, jendearekin hasieratik lan egin behar da, ahal dela, lehengo pausutik auzokideekin kontatuz. Berebiziko garrantzia hartzen du tokian tokiko diagnosa izateak, eta baita komunitateko kideak parte izango diren prozesu edo proiektu kolektiboak izateak ere, iparra marrazten laguntzen dutelako:

“La clave de ese trabajo en red es un poco el que se haga desde el reconocimiento un poco del otro, o sea a nivel institucional, a nivel formal y no formal. Cuando te sientas es más fácil poder llegar a trabajar de manera conjunta” (E.19 Teknikaria).

“La clave es que el proceso lo hemos hecho con el centro de salud, el servicio social de caritas, el proyecto Goian (proyecto socioeducativo comunitario del barrio), con Gasteiz Txiki (asociación de vecinos y vecinas), con las vecinas y vecinos y con más agentes del barrio. (...) Cada una, un poco desde su mirada, es lo que puede sumar, qué puede hacer en ese trabajo comunitario y de esta manera que llegue a las vecinas y vecinos. (...) en esta zona de confluencia me pongo en contacto con tal y tal, la idea es tal, y aunque sea una mera programación, les implico, la hacemos de manera conjunta y cada una aporta algo y ya forma parte. Aunque se trate de una mera programación, ya el proceso tiene otro objetivo. (...) Luego cada una, lo que hemos intentado también desde su ámbito, que implique un poco a los agentes más cercanos” (E.19 Teknikaria).

“Un trabajo comunitario en el que se han implicado diferentes agentes y se han diseñado redes de trabajo muy interesantes es El Pilar. Concretamente, tiene un red de trabajo súper potente, porque bueno, también hay otras figuras, están los educadores de calle que tienen una manera de funcionar muy chula, porque están muy metidos en lo comunitario y su trabajo se desarrolla desde lo comunitario” (E.14 Teknikaria)

Aipatzen den lan honetan, hau da, komun eta kolektiboari begirako antolakuntza eta eragite lan honetan, zailtasun handia dago administrazioaren zurruntasun eta denborekin eta hala bizi dute teknikariek. Komunitateek, finean, eragileek beste denbora batzuk erabiltzen dituzte. Motelagoak dira epe ertain luzerako hainbat prozesu, baina aldi berean, azkarragoak dira beharrak detektatzen eta momentuko erantzunak antolatzen. Alde batera edo bestera gertatzearen, sarritan administrazioa jokoan kanpo geratzen dela diote:

“La administración es muy lenta” (E.16 Teknikaria).

“Hay ese trabajo comunitario que no surge desde la institución, pero que precisamente por eso tiene ese valor a destacar. Ven las necesidades antes que nosotras, que no es que no tengamos que ver las necesidades antes que las asociaciones, sino que podemos hacer eco de esas necesidades y trabajar conjuntamente, ya que las asociaciones no son tan rígidas. (...) Es verdad que a veces jugamos en ligas distintas y es difícil encontrar la conexión, pero bueno, yo no creo que eso sea imposible, es cuestión de voluntad” (E.15 Teknikaria).

Aurreko guztia barnebiltzen dute, edo barnebildu beharko lukete, aurreko elementuetan aipatu ditugun tokiko ekipoek, izan ere:

“Estos equipos lo que intentan es conocer los recursos que tiene el barrio y generar actividades que involucren agentes sociales de los barrios. En coordinación con agentes sociales del barrio generar algún proyecto o algún programa que pueda vincular también a diferentes agentes que pueden estar presentes en los barrios. O sea, va un poquito más en esa línea, no solamente desarrollar actividades de los centros cívicos para fuera, para toda la población, sino también aprovechar todas esas sinergias comunitarias que se puedan dar en los barrios. (...) La filosofía que quiere imperar es también utilizar los agentes del barrio y realizar otros proyectos más de raíz comunitaria (...) Hacer actividades en el barrio, que la gente pueda participar y conocer, sobre todo dar a conocer los servicios y el entramado comunitario que pueda tener el barrio” (E.13 Teknikaria).

Hala eta guztiz ere, errealitateari erreparatuz, tokiko ekipoetan, sarritan, bakoitza berera doa eta oso logika ezberdinekin egiten dute lan. Kontzientzia sozialak piztuta, oinarrizko gizarte-zerbitzuetako arduraduna beste zerbaitetan pentsatzen egon daiteke, esaterako, kirol teknikaria ekintza kontsumo hutsean pentsatzen ari den bitartean. Auzoko beharretatik, lanketa komunitario sakonetik, diagnosi batetik abiatu ezean, egiten den lana benetan komunitatearekin egitea oso zaila bilakatzen da:

“No se utiliza porque los vecinos no lo ven como suyo. Es del ayuntamiento, porque el coordinador, la normativa etc. (...) no es un espacio de encuentro” (E.19 Teknikaria).

Aipatzekoa da, gainera, tokiko ekipo hauetara oinarrizko gizarte-zerbitzuetako arduraduna joaten dela. oinarrizko gizarte-zerbitzuetako lan taldearen izaeraren edo barne antolaketaren arabera, oinarrizko gizarte-zerbitzu batzuen kasuan, beste kideek ez dute bere zereginen artean ulertzen komunitarioa, elkarrizketaren baten ikusi ahal izan dugunez eta horrek zaildu egiten du komunitarioa sustatzeko ahalegina:

“El trabajo en red del barrio, generalmente, se hace a través del equipo de zona y en nuestro caso, a través del responsable, es la que mayor carga tiene en eso. Nosotros no vamos a las cuestiones de este tipo, no vamos a las cosas de la red ni participamos en el equipo de zona. Entonces, en el barrio, lo que es el trabajo comunitario en red se encarga el equipo de zona” (E.18 Teknikaria).

Edozein modutan, komunitarioa eta artikulazio komunitarioa kostatzen den zerbait da, nahiz eta gauza txikiak eta konketuak egiten diren. Aurreko elementu guztietan ikusi ditugu oztopatu edo lagundu ditzaketen gakoak, eta orokorrean, badirudi, ez direla lagungarriak izan Gasteizko oinarrizko gizarte-zerbitzuen kasuan komunitarioa sustatzeko aldera. Edonola ere, profesionalen diskurtsoetan ikusi ahal izan dugunez, egiten dutenek oso positiboki baloratzen dute, eta hori interesgarria da gero hedatu eta kontagiatu daitekeelako:

“Cuando entras en lo comunitario, se hace una bola también y ya se va haciendo sinergia, redes, actividades que compartimos y eso ya... no te bajas de ese carro ya, funcionas así” (E.17 Teknikaria).

Formazioa

Aurreko elementuak mamitsuagoak izan diren bezala, elkarrizketetan formazioaren gaia, zeharkakotasunez agertu den gai bat izan da.

Oinarrizko gizarte-zerbitzuetako profesionalen artean, nabarmena da formazio falta eta horrela adierazi dute elkarrizketetan. Komunitarioaren gaiaz mintzo direnean, zertaz mintzo diren ziurtasunez ez dakitela edo hiztegi komun bat ez dagoela etengabe baieztatu dute. Horrek guztiak, erabat baldintzatzen du tekniko metodologikoki jardun profesionala eta, maiz, gauzak nola aurrera eramán ez dakitela aurkitzen dira teknikariak, erremintarik gabe, alegia.

“Los técnicos decimos, sí esto es muy chulo, estoy encantada, es que mi trabajo de desarrollar lo comunitario... pero luego, habría que ver cómo articularlo con las trabajadora sociales, que es lo que yo quiero hacer en mi trabajo. (...) La pregunta es, ¿Cómo implicar en esto a las trabajadoras sociales y a la psicóloga?” (E.14 Teknikaria).

“Si me dicen, tienes que trabajar a nivel comunitario y grupal. No sé, madre mía si yo no se cómo lo puedo hacer” (E.19 Teknikaria).

Formazioak egin egiten dituzte, Gasteizko oinarrizko gizarte-zerbitzuetatik formazio interesgarriak sustatzen baitira eta gai askotan adituak diren pertsonekin egoteko aukera dute. Aldiz, komunitarioari dagokionez, ez dute formaziorik jaso eta horrek kezka sortzen du profesionalen artean. Sustatu gura den eredu aintzat hartuz, zaila da ulertzen hainbeste formazioen artean gai honen inguruko bat bera ere ez egotea. Eguneroko jardun profesionalak eraginda, praktika falta handia dago, eta ondorioz, esan dugun bezala, batez ere, ezezagutza handia dute planteamendu komunitarioak aurrera eramateko.

“Hacen mucha formación, muchas horas de formación: la entrevista motivacional, grupos de supervisión etc.” (E.17 Teknikaria).

“Pero a nivel comunitario no hacemos nada, y eso creo que ocurre porque no se entiende lo que es, no se entiende como algo más” (E.15 Teknikaria).

“Necesitamos formación. Las trabajadoras sociales vienen de trabajar de una manera muy concreta. Si esto va a cambiar, vamos a necesitar formación y eso es una responsabilidad” (E.14 Teknikaria).

“Necesitamos formación para aprender a trabajar con los agentes del barrio” (E.16 Teknikaria).

Gizarte-langintza ikasi zutenetik jasotako komunitarioaren inguruko formazio urria da daukatena, eta hori egungo errealitaterako oso erabilgarria ez dela diote elkarrizketatuetako batzuk: “Yo creo que estoy con la formación del 90, fijate tú si ha llovido” (E.15 Teknikaria).

Hala ere, lanaren antolaketaren elementuan landu dugun bezala, komunitarioak eskatzen duen geratzeko eta hausnartzeko denbora ere formazioak eskaintzen dutela uste dute. Kontzientzia garatzen lagundu eta falta den eredia sortzeko aukera bat izan daitekeela uste dute, eta horregatik, indartu beharreko zerbait dela aitortzen dute. Eredu berria sortze bidean, formazioa eta hausnarketarako espazioa, elkar ikastekoa, falta eta behar dute, batez ere, alor komunitarioari dagokionez (E.15, E.16 Teknikaria).

“Yo cada vez que voy a una formación aprendo mucho, pero siempre vengo revuelta, siempre vengo con algo de esto, de lo que estoy haciendo. Aunque sólo sea cuestionarme que hecho en los últimos años es fundamental” (E.14 Teknikaria).

Formazioak egitea komunitarioan hazia ereitea izan daiteke. Esperientziak partekatu, hausnarketa sustatu eta teknikariak motibatzeke balio baitezake. Ez da egiten, eta noski, horrek ez du laguntzen, baina aldatzea eta komunitarioaren inguruko formazioak txertatzea neurri txikia eta erraza bezain eraginkorra izan daiteke.

Sistematizazioa

Azkenik, sistematizazioaren elementua daukagu. Berebiziko garrantzia daukan elementua dela esan dugu lan honetan zehar, eta garrantzitsua da jada burututako esperientziak jaso eta sistematizatzea. Partekatzeko balio duelako, ezagutza sortzeko, hauen azterketaren bidez eta hori guztia dela eta, jasotako fruituak balioan jarri eta planteamendu komunitarioak justifikatzeko balio du.

“Hay que visibilizarlo (...) porque nos hace falta, pues poner en valor” (E.17 Teknikaria).

Analisian zehar, ordezkari politikoan atalean zein teknikarienean, justifikaziorako beharra sentitu dela aipatu dugu. Behar hori adierazi dute, batetik, ordezkari politiko batzuk, beste batzuen aurrean justifikatzeko; bestetik, ardura postuetan dauden teknikariak, ordezkari politikoan aurrean justifikatzeko, eta azkenik, baita profesional batzuk beste teknikari batzuen zein herritarren aurrean justifikatzeko ere.

“Creo que hay muchísimo comunitario que se hace y no se recoge, ni se reconoce y no se escribe” (E.17 Teknikaria).

“Te vas al paseo⁴⁸ y las compañeras me dicen ¿que te vas?. O sea, la responsable del servicios social de base y se va de paseo los miércoles a las 11. Y claro, yo me voy a trabajar, no me voy de paseo, va más allá. (...) Y no solamente eso, es que a mí me parece que desde que se trabaja a nivel comunitario en red, y se recoge, se pone en valor el trabajo que hacemos, porque esto es desde el desconocimiento” (E.19 Teknikaria).

Hala ere, gaur egun oinarrizko gizarte-zerbitzuen baitako sistematizaziorako erremintek, ez dute ahalbidetzen egiten diren esperientzia edo lan komunitarioak erregistratzea. Horretarako erreminta eraginkorrak beharrezkoak dira, osterantzean, profesionalak ez dituztelako esperientziak jasotzen. Gaur egun jardun profesionalaren erregistrorako dauden sistemek banakako eta familiako arreta jasotzeko balio dute. Hori bakarrik ez, baliabideetan oso zentratutako sistemak dira, nagusiki kuantitatiboak.

“Al igual que toda la política, en muchas situaciones, la política social ha sido con visión económica, de empresa. Es decir, una empresa que produce ladrillos y el año pasado vendió X y este año X+y va bien, es rentable. Pues ese mismo, es el sistema que utilizan los servicios sociales, claro, hasta ahora siempre hemos dicho que el rendimiento, el beneficio cualitativo es difícil de medir. El de la empresa, el cuantitativo es mucho más fácil, pero realmente existe el beneficio de las personas y además redundante en distintas áreas. Si esto se sabe, incluso puede ser más consciente de en qué hay que gastar y en que no” (E.16 Teknikaria).

Lan kualitatiboan eta parte-hartzailean oinarrizten dira orokorrean planteamendu komunitarioak, eta horrek, beste ebaluazio irizpide batzuk behar ditu. Ezin dira, baliabide kopurua neurtzen diren modu berean neurtu “tienen que entender y evaluar esa forma de trabajar” (E.15 Teknikaria).

“Me he reunido con los agentes sociales y hemos estado mirando a ver si podemos hacer algo, contándonos lo que hacemos cada una... y esto es muy útil, aunque en principio no se le vea tanta utilidad” (E.15 Teknikaria).

“Cuantas más plazas mejor sí, se apuntan las plazas, pero lo comunitario también me lleva mucho tiempo todos los días y no se registra” (E.14 Teknikaria).

“Creo que nos hace falta objetivar con detalle lo que estamos haciendo en concreto. En cada zona de servicio, con los agentes, con los otros departamentos, tener todo ese mapa encima de la mesa para ver todo el potencial que hay y decir qué entendemos hoy por trabajo comunitario. Aunque parezca increíble, es necesario a día de hoy” (E.17 Teknikaria).

Horretaz gain, garrantzitsua da komunitarioa egiteak dakartzan onurak, hau da, pertsonen ongizatean duen eragina neurtzeko edo balioan jartzeko adierazleak sortzea eta erabiltzea.

⁴⁸ Paseo saludable: Auzo konkretu batzuetan egiten den ekintza. Auzotik paseatzera ateratzen dira, auzokide batzuk eta sistema ezberdinetako zein baliabideetako profesionalak. Modu horretara, sarea eraikitzen da, harremanak egiten dira eta jendea auzoko baliabideetara gerturatzen da. Elkarrekin oso interesgarria sortzen duen dinamika da.

Komunitarioak sekulako onurak dakartza elkarrizketatutako pertsona guztien ustez, baina hori neurgarria izateko erremintarik ez dute.

“No hay un reconocimiento real, un poco de lo que aporta, del beneficio que a los vecinos y las vecinas del barrio les da este entramado y trabajo comunitario” (E.19 Teknikaria).

Zentzu honetan, badirudi Gasteizko oinarrizko gizarte-zerbitzuen kasuan, gutxienez proiektuan dauden gauzak direla, etorkizunean kontuan hartzeko gakoak direla eta egun ardura postuetan daudenak kontuan hartzen dituztenak. Nahiz eta oraindik ere, ikusi dugun bezala, profesionalak ez dituzten horrelako baliabideak eskuragarri.

“Ahora han diseñado un manual de buenas prácticas, todo un proceso de apoyo a los servicios sociales de base que va a desarrollar un equipo nuevo” (E.17 Teknikaria).

Laburbilduz, esan dezakegu, sistematizaziorako eredu erabilgarriak eta erremintak sortzea garrantzitsua dela, esperientziak jaso, balorean jarri eta horietatik ikasiz, planteamendu berriak sortzen joateko:

“Pues muchas veces también, yo creo, que lo que nos viene de otras tendencias que realmente están funcionando, no, pues aquí ahora mismo estamos en un ecosistema que a nivel europeo se están haciendo cosas que están surgiendo resultados positivos, ¿no? cuando se hacen pilotajes o cuando se aplican experiencias que tienen resultados positivos para el bienestar de la ciudadanía y que se ve, se valoran en positivo. Eso luego, siempre repercute en que la visión política sea implementar esas medidas. Entonces, bueno, pues un poco también ver lo que está ocurriendo a otros niveles o en otros contextos. Y hacer un poco copia de de de esas medidas que están dando buenos resultados” (E.13 Teknikaria)

Dimensio teknikoaren baitako elementu guztiak aztertu eta gero, hitz gutxitan bada ere, honakoa laburbilduz amaitu dezakegu. Ezazugutza handia, eta horrenbestez, formazio beharra antzematen da. Gainera, arreta eredu praktikoaren eta teorikoaren artean alde handia dago eta praktikoak ez du askorik laguntzen planteamendu komunitarioak garatzeko. Lan taldeen zein zerbitzuen antolaketan eredu aldaketak edo berriak izan daitezken gakoak behar dira. Gauza bera gertatzen da sistematizazioaren kasuan, baina guztia kontuan hartuta ere, profesionalen eta arduradunen arabera, xumeak baina aldi berean oso interesgarriak izan daitezkeen esperientzia batzuk ematen direla ikus dezakgu, eta horrek irekita uzten du komunitarioan aurrera egiteko atea.

Dimentsio herritarra edo lurralde dimentsioa

20. Taula: Dimentsio herritarra eta elementu baldintzatzaileak

Barne Dimentsioa	Dimentsio herritarra edo Lurralde Dimentsioa	Komunitatearen ezaugarriak
		Hirugarren sektorea
		Komunitatearen izaera eta artikulazio ardatza

Iturria: Norberak egina.

Politikarien ikuspegitik dimentsio hau aztertu dugunean gertatu bezala, kasu honetan ere, ez da informazio gehiegirik jaso, izan ere, dimentsio teknikoak eraman du elkarrizketen gehiengo. Edonola ere, egon dira komunitateari zenbait erreferentzia eta hurrengo lerroetan jaso ditugu.

Komunitatearen ezaugarriak

Teknikarien aburuz, komunitatearen ezaugarriek erabat baldintzatzen dute lanketa komunitarioa. Bai errealitate soziodemografikoak, dauden baliabide publiko zein bestelakoak eta egon daitezkeen beharrak. Horregatik, Gasteizko oinarrizko gizarte-zerbitzuen baitan, eredu orokorrak sortzearen beharra azpimarratu badugu ere, azpimarratzekoa da eredu moldagarriak beharko luketela izan, tokian toki egokitzeko aukera emango dutenak:

“Porque en todos los bases no tenemos los mismos perfiles, atendemos a toda la población de Gasteiz, pero es verdad, que, por ejemplo, en Ibaiondo hay mucho más de familia que en otros. Aquí, tenemos un poco de todo, pero no destacamos por nada” (E.14 Teknikaria).

Auzo handiagoetan zailagoa da printzipioz dinamikak martxan jartzea, baina Gasteizko kasuan, auzo handietan elkarte, baliabide formal zein informal eta espazio mordo bat dagoela gogorarazi dute. Beraz, alde batetik mehatxua izan daitekeena, aukera ere bihurtu daitekeela aipatzen dute (E.17 teknikaria): “En los barrios nuevos, también tienen sus particularidades y la gente puede empezar a juntarse porque tienen X necesidades que puede tener un barrio nuevo y eso hay que aprovecharlo” (E.15 Teknikaria).

Zentzu honetan, auzo berdinean oso errealitate ezberdinak aurkitu ditzaketela aipatu dute, eta honenbestez, oso beharizan ezberdinak. Horrek lanketa komunitarioa zailtzen du. Sarritan hurrengo joera egon daitekeela gaineratzen dute:

“Se hace trabajo relacionado con las problemáticas concretas (...) porque nuestra visión es la que está aquí y es una muy concreta de la gente a la que atendemos.

Esa gente, por supuesto también está en el barrio, pero también hay mucha otra y si queremos implicar a la gente, tenemos que llegar a todos” (E.16 Teknikaria).

Oso pertsona konkretuekin lan egiten da eta planteamendu komunitarioak haratago joatearen beharra nabarmentzen dute. Hala ere, adituek dioten bezala, lanketa ezberdina izan daiteke, esaterako beharrizanak ase gabe dituzten pertsona asko dauden eremuetan bestelako beharrizan batzuk dituzten pertsona gehiago dauden eremuekin alderatzen badugu. “Es verdad que a las personas es difícil hablarles de un tiempo con nosotros para hacer un taller si no tiene qué darle de comer a su bebé” (E.14 Teknikaria). Edozein modutan, ordea, zer landu egon daitekeela aipatzen da, izan ere, beharrizanak sarean erantzun behar izatetik eta aldarrikapenetik ere etorri baitaiteke parte-hartzea (E.13. Teknikaria):

“Porque no solamente es la cobertura de las necesidades básicas, las necesidades básicas, cubrir las necesidades básicas es la primera. Si alguien no tiene cubiertas sus necesidades básicas, efectivamente, no te puedes marcar otros objetivos en un primer momento de la intervención pero una vez que ya tienes ese planteamiento de necesidades básicas cubiertas, hay otras necesidades que son igualmente importantes. Por ejemplo, ese sentimiento de pertenencia a esta población que viene de origen extranjero, sin conexión, o sea, todo eso, la soledad, los problemas estructurales, o sea, hay que trabajarlo y hay que trabajar a nivel comunitario” (E.19 Teknikaria).

Beste batzuetan, profesionalen partetik saiakerak egon arren, jendeak ez du parte-hartu nahi izaten eta horrek frustrazioa eragin dezakeen arren, parte izateko ezinbesteko baldintza da nahi izatea.

“Cuesta mucho convencer de que es algo chulo. Y algunos, pues no han querido participar, pero otros han participado. Y bueno, pues se trata también de volver un poco a la comunidad” (E.17 Teknikaria).

Komunitatearen ezaugarrien artean ordea, badago komunitarioan eragin handia duen eta orain arte aipatu ez dugun beste bat. Komunitateko kideen mugikortasuna da. Komunitate askoren kasuan gertatzen da eta zaildu egiten du epe ertain luzeko prozesuak marraztea, errealtatea etengabe aldatu daitekeelako:

“Entonces, bueno, pues es verdad que eso eso dificulta el establecimiento un poco de esos vínculos estables. Es un barrio con mucha movilidad de población. Entonces, cuando empiezas a trabajar muchas veces con las familias a nivel individual, es cuando haces un poco esa conexión comunitaria” (E.19 Teknikaria).

Hirugarren sektorea

Hirugarren sektorearen elementuaren inguruan ez da askorik aipatu, izan ere, politikariek bezala, gainerako komunitateko eragile bat gehiago bezala ulertzen dute oinarrizko

gizarte-zerbitzuetako profesionalak ere. Kasu honetan ordea teknikariek ikusten dute azpimarragarria den beste gako bat era hori dela eta, elementu bat gehiago bezala jaso dugu.

Hasteko, beharren detekzioan duten azkartasuna azpimarratu dutela profesionalak eta zentzu horretan aliatu interesgarriak direla onartu dute. Honetaz gain, oinarrizko gizarte-zerbitzuetako profesionalak diotenez, hirugarren sektoreak komunitarioarekiko askoz ikuspegi garatuagoa dute. Beraien jardun profesionala, erakunde publikoarena baino askoz komunitarioagoa dela diote teknikariek, besteak beste, arreta eredu ezberdina dutelako:

“Las compañeras que vienen del tercer sector hacen un trabajo comunitario brutal en sus entrevistas, pero ¿Por qué? Porque viene y está acostumbrada a hablar con diferentes organismos de formación, con agentes de la comunidad y del barrio y entonces, les va derivando y acercando a los recursos” (E.14 Teknikaria).

Interesgarria da gako hau. Izan ere, oinarrizko gizarte-zerbitzuetara inkorporatzen diren profil profesional hauek dakartzaten inertziak probestu daitezke arreta ereduaren aldaketaren mesedetan, baina baita, antolaketa modu berriak sustatzeko ere.

Honetaz gain, hirugarren sektoreak zubi lana egin beharko lukeela diote. Aipatu bezala, detektatzeko freskotasun gehiago dutenez, azkarragoak direnez, erakundeekin etengabeko komunikazioan egon beharko lukete diagnosiak partekatzeko asmoz, esaterako:

“Aquí hay este problema, y no es problema de una persona, sino que es un problema de muchas personas. Entonces, aquí tenéis que hacer algo. (...) Recoger esa demanda colectiva comunitaria como problema y hacémosla llegar a las instituciones” (E.15 Teknikaria).

Komunitatearen izaera eta artikulazio ardatza

Azken elementu honek ere, hots, komunitate ehunaren izaerak duen antolakuntza mailak asko baldintzatu dezake oinarrizko gizarte-zerbitzuen lanketa komunitarioa. Auzo batzuetan gehiago dago, sakonagoa da eta baita indartsuagoa ere. Horrek, oinarrizko gizarte-zerbitzuak parte-hartzaile rolean jarri behar lituzkeela uste dute teknikariek. Bat gehiago bezala, sarean parte-hartzera eta dagoena sustatzera zein baliabidez hornitzera bideratu beharko lukete jardun komunitarioa. Egon ezean ordea, edo dagoena ahula bada, hori gerta dadin pizgarri lana egin beharko luke.

Gasteizko kasuan hori motibo ezberdinengatik ikusten dugu. Badaude komunitate antolatuagoak, kontzientzia gehiagoko jendea bildu delako, aktiboagoak eta parte-hartzaileagoak, bere horretan. Baina, aldiz, badaude beharizanak eraginda, historikoki, oso gizarte ehun indartsuak eta antolaketa garrantzitsuak sortu behar izan dituzten auzoak ere.

“Muchas veces, cuando hay mucha problemática hay más movimiento y se puede trabajar más” (E.15 Teknikaria).

“Hay gente y barrios que tiene esa motivación. Puede ser innato pero también trabajable. O sea, que se puede movilizar a la gente. Que hay veces que se busque transmitir las actitudes con educación, si creemos en la posibilidad de cambio, se aprende” (E.16 Teknikaria).

Parte-hartzea “germen” bat bezala ulertu daitekeela gaineratzen dute profesionalak elkarrizketetan. Gizarte ehuna sustatzea garrantzitsua dela diote, parte-hartzeak parte-hartze gehiago baitakar. Horretarako ordea, ezinbestekoa da artikulazio on bat egotea, ahal dela oinarrizko gizarte-zerbitzuen presentziarekin, noski (E.13 Teknikaria).

Teknikarietako gehienek, zentzu honetan alde bikotasunezko jarrera erresistenteak aipatzen dizkigute, bai oinarrizko gizarte-zerbitzu profesionaletatik eragileekin lan egitera, baita gizarte ehuneko eragileetatik instituzioekin lan egitera ere (E.17, E.14 Teknikaria). Zehazki, elkarrizketa batean jaso dugunaren arabera, gizarte ehun indartsua dagoen kasuetan, elkarteak eta eragileak politizatuak egon daitezke. Gasteizko auzo batzuetan ematen den errealitatea da, eta oinarrizko gizarte-zerbitzuen elkarlana markatu dezaketela aitortu du, konfrontazioak gerta daitezkeelako eta sarritan profesionalak deseroso sentitzen direla hauekin lanean:

“Hay unas asociaciones de vecinos muy potentes en los barrios, pero también están muy politizadas, incluso en un mismo barrio hay más de una asociación de vecinos porque tiene por detrás dirigentes de distintos ámbitos políticos, entonces, en vez de trabajar por la comunidad, se enfrentan entre sí” (E.16 Teknikaria).

Horretaz gain, berezko antolaketa indartsua eta lanketa komunitario duten komunitate edo auzoetan, oinarrizko gizarte-zerbitzuekin edo instituzioekin orokorrean, lan egiteko erresistentzia handiak egon daitezke (E.14 Teknikaria):

“Yo empecé a hacer cosas, a hacer un poco un acercamiento ¿no? Y en el barrio, pues de entrada hay entidades que son muy resistentes a la institución. (...) Sí que es verdad que parte de ese movimiento, o sea, está como muy confrontado con lo institucional. (...) Entonces, bueno, pues eso a la hora de poderte sentar a trabajar de manera conjunta, a veces es difícil. Pero bueno, yo creo que es un barrio que tiene ahí mucha red, muchas veces, yo creo que bueno, pues son redes que están

funcionando y que están funcionando muy bien. (...) Yo he vivido en ese proceso desde el principio cómo se genera un poco ese cambio. Pues desde el que vamos a sentarnos juntas, sí soy la responsable de servicio sociales de base, soy tal, soy trabajadora social.(...) Lo que quiero decir es, que al final, estamos trabajando en el mismo barrio y la población es la misma. Entonces, pues bueno, todo, o sea, sí que hay limitaciones, pero que al final cuando te sientas codo con codo a trabajar, ahí es cuando se puede saltar la barrera” (E.19 Teknikaria).

Dimentsio honetan jasotakoa laburbilduz, Gasteizen oso errealitate ezberdinak aurkitu daitezkeela baieztatu dugu. Hori horrela izanik, eredu komun bat eraikitzen bada ere, oinarrizko gizarte-zerbitzu bakoitzak tokian toki egokitu beharko duela argi dago, testuinguruko errealitatera egokitzeko. Modu berdintsuan, komunitariorako aukerak daudela ikus dezakegu, orokorrean, gehiago edo gutxiago bada ere, auzo guztietan horretarako aukerak agertzen direlako. Izan auzoan historikoki dagoen identitate eta gizarte sareetatik, edo berriz, auzo berriagoetan, egon daitezkeen eragileen kopuruetatik. Komunitatea bera eragile garrantzitsuen moduan eta protagonistatzat badugu, lanketa komunitarioan hutsetik ez hasteak asko lagundu dezake eraiki daitezkeen planteamendu berrietan.

4.2.3. ERAGILEEN DISKURTSOAREN IRAKURKETA KRITIKOA

Gasteizko oinarrizko gizarte-zerbitzuetako kasu azterketa honen bidez, elementuen arabera, ikerketa galdera zehatzak erantzun gura izan ditugu, ondoren, galdera nagusia erantzun ahal izateko. Beraz, komunitarioaz mintzo garenean zeri erreferentzia egiten dioten ezagutzea, oinarrizko gizarte-zerbitzuen egoeraren informazioa jasotzea eta egunerokotasuneko jardun profesionalaren inguruan egiten duten balorazioaren berri izatea dira helburu zehatzak. Hurrengo lerroetan, hauen inguruko gakoak eta hausnarketak jaso ditugu.

Orokorrean, kasu honetan, aurre landa-lanean ikusi bezala, elementuak elkarreragin etengabe daude. Hori horrela izanda, batean egiten den aldaketak beste guztietan dauka eragina. Gasteizko, lehen mailako arretaren zein oinarrizko gizarte-zerbitzuen kasuan, tokian tokiko errealitate ezberdinak daudela ohartu gara. Horrek ordea, elementuetan egon daitezkeen gora beherek nola eragiten duten ikusteko balio izan digu.

Elkarrizketatutako eragileek gizarte-zerbitzuekin duten harremanaren arabera, diskurtsoetan ezberdintasunak identifikatu ditugu. Politikarien kasuan, gehiago zentratu dira orokorrak izan daitezkeen kontuetan, teknikariak, konketuagora joan diren bitartean.

Hala ere, aipatu behar da, dinamika berdintsua jarraitu dela bi profiletan, eta kasuan kasu, beraiei dagokien dimentsioetan egin dutela ekarpen handiena, hots, ordezkari politikoak dimentsio politikoan eta teknikariek dimentsio teknikoan. Edozelan, ezberdintasun handia nabaritzen da egungo egoeraren inguruan mintzo direnean eta nahiko luketen edo diskurtsiboki defendatzen dutenaren artean. Alde hau, noski, oinarrizko gizarte-zerbitzuen egunerokotasunarekin duten harremana edo ezagutzaren arabera nabarmenagoa izan da.

Aipatu berri dugun alde hori Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren baitan orokorrean ikus daiteke, baita inguruko erkidegoetan dauden gizarte-zerbitzuetako sistemetan ere. Legeak eta marko normatiboek adierazten dutenetik errealitatean egiten denera ezberdintasun handia dago, eta hor objektuaren definizio ezarekin egiten dugu topo. Teorikoki egiten dugun objektuaren definizioa eta enkargua ez datoz bat praktikotasunarekin. Nahaste handia eragiten du informatzaile izan ditugun eragileengan. Kontzeptualizazioaren indefinizioa maila politiko zein teknikoan gertatzen eta gainera, beste elementuetan eragiten du, dena baldintzatuz.

Politikarien ikuspegiaren baitan

Behin elementu baldintzatzailen markoa erabiliz politikarien diskurtsoen bidez informazioaren lanketa eginda, zenbait kontuetan egin gurako genuke azpimarra.

Gasteizko udal ordezkari politikoak komunitarioaren inguruan mintzo direnean, ez dira zehazki adituak ari diren gauza beraz ari. Kasu honetan, politikariek programei, ekintza konkretuei eta sare zein koordinazio lanari egiten diote erreferentzia. Kasu batean izan ezik, beste guztietan, ez da ahalduz prozesuen inguruko ezer aipatzen eta ezta komunitateek beraien beharrak identifikatu eta hauei erantzuteko antolatzeaz ere. Hori horrela izanik, ez dira herritarrak agentzia politikoa eskuratzeaz ari, ezta boterea banatzeaz ere. Lerro artean horretarako asmoa egon daitekeela irakur daiteke, baina ez da azaleratzen. Segurtasun eza, beldurra edo kasuren baten, herritarrei boterea eman nahi ez izatea egon daitezke honen atzean. Izan ere, aipagarria da gainerako politikarien aurrean daukaten justifikazio beharra. Gizarte-zerbitzuen alorrean ez dauden alderdi jakin batzuetako politikariek ez dute hain begi onez ikusten oinarrizko gizarte-zerbitzuetan inbertsioa areagotzea edo aurrekontua igotzea, eta ondorioz, udal ordezkariak adierazpen lausoagoak egin ditzaketela uste dugu.

Ildo berean, diskurtsiboki bada ere, apustua egiteko nahia edo borondate politikoa badagoela, aldiz ikusi dugu, gero, ez dugu irmotasun bera ikusi hori egikaritzeko egin daitezkeen pausuetan. Honen atzean ere, gainerako udal ordezkari politikoen presioak egon daitezke. Gainerako politikariek horrelako estrategiak zalantzan jartzea ere, elementu ezberdinen arabera azaldu daiteke. Batetik, lehen esan dugun bezala, herritarrek boterea eskuratu eta eragiteko gaitasuna, hots, agentzia politikoa eskuratzearen beldurra. Kasu horretan, beraiekin bat ez datozen ekintzak egin ditzakete, aldarrikapenak areagotu daitezke, eta presio eraginkorragoa egin dezakete orokorrean mantendu nahi izaten den status quo arrakalatu. Bestetik, planteamendu hauek justizia sozialaren eta herritarren arteko parekidetasuna bermatzearen aldeko planteamenduak izaten dira. Hori horrela, onura ezberdinak atera daitezke, eta sarritan esan dugun bezala, herritar guztiak dira onuradun, aldiz, badaude, ahulenak izan daitezkeen pertsonen artean eman daitezkeen aldaketak eta ahalduntzeak ere. Honekin esan nahi duguna zera da, maiz, herritar zaurgarrienak izan daitezkeela onuradunak, eta horiek politikoki eraginkorrak izaten ez direnez, ez dira politikari batzuen lehentasunen artean sartzen. Azkenik, epe ertain luzeko planteamenduak izaten dira estrategia hauek, berehalako emaitzak ematen ez dituztenak. Politikoki ez dira beste ekintza zehatz batzuk bezain errentagarriak, hauen balorazioak edo emaitzak ez datozelako bat lau urteko agintaldien arabera osatzen diren ziklo politikoeekin. Horrenbestez, diru publikoa horrelako planteamenduetara bideratzea, legegintzaldi berean emaitzak ez badira ikusarazi behar, ez da alderdi guztietako politikarien interesekoa izaten.

Aurreko guztiaz gain, apustua eta borondatea, egon badaudela, aipatu berri dugu, aldiz, kasuren baten ikusi ahal izan dugu, lehentasunak markatu behar direnean, planteamendu komunitarioak bigarren maila batean geratzen direla. Aurrekoaren azalpenetako batzuk baliagarriak izan daitezke baieztapen honetarako ere.

Halaber, kontzeptualizazioaren gaia berrartuz, komunitarioa adiera ezberdinetan ulertzeaz gain, orokorrean, gizarte-zerbitzuen, eta horrenbestez, baita oinarrizko gizarte-zerbitzuen kasuan ere, ezezagutza handia dagoela ikusi dugu. Komunitarioaz galdetzean zerbait esan badute ere, gero, bi kasu konkretuetan izan ezik, ez dira apenas teknikoki ekarpenak egiteko gai izan. Horrek adierazten du, ez dela alorra behar beste kontrolatzen. Ezezagutza horrek adierazgarri dira elementu teknikoek kasuan, batez ere, baina baita lurralde dimentsiokoan ere. Marko analitikoko hainbat aspektu aipatu ere ez dira egin, izendatu ere ez, nahiz eta elementu batzuk estrategia komunitarioetan oso klabeak izan.

Kasu honetan, gobernuan dauden alderdien artean, posizio finkatu bat ez dagoela nabari da, eta saileko teknikarien gain uzten dutela departamenduaren dinamika, politikariak kudeaketa lanetan soilik zentratuz. Aldiz, oposizioko alderdien artean, elkarrizketatutako bi ordezkarien kasuan behintzat, ezagutza nabarmenagoa da eta gizarte-zerbitzuen zein oinarrizko gizarte-zerbitzuen alorrean postura finkatuak dituztela esan dezakegu, nahiz eta bata bestearengatik oso urruti kokatu.

Analisian zehar aipatu dugu, orokorrean behintzat, ez dela kolore politikoen araberako alde nabarmenik identifikatzen. Oinarrizko gizarte-zerbitzuetan komunitarioaren inguruan dagoen egoeraren balorazioa egitean ordea, nabarmenago geratu da hauen arteko aldea. Eskuinekoagoak diren alderdietan egiten dena oso ondo baloratua dago, eta gauza konkretu batzuetan sakondu daitekeen arren, ondo ikusten da egungo jarduna. Ezkerragokoak izan daitezkeen alderdien artean ordea, inkonformismoa handiagoa da. Gobernuan ez dagoen alderdiaren arabera asko dago egiteko, eta egiten diren gauza batzuk ondo baloratzen diren arren, bide luze baten hasiera besterik ez dela egin aipatu digute eta bidea urratzen joatea ezinbestekoa dela. Aldiz, gobernuan dagoen alderdiaren ustez gauzak ondo egiten ari dira, baina, honek ere inkonformismo handiagoa adierazi du besteek baino, besteak beste, gizarte-zerbitzuetara bideratzen den diru kantitatearen inguruan.

Laburbilduz, aipatu dezakegu, politikarien artean, baldintzatzen duten elementuen artean, baditugula oztopatzailleak izan daitezkeen elementu batzuk, baina baita bidea erraztu ditzaketanak ere. Zailtasuna izan daiteke, batetik, ezezagutza, noski, ezin baita gai baten alde lan egin zertan ari garen modu sakon batean ezagutu gabe. Bestetik, alderdi batzuetako zein gobernuko udal ordezkari batzuen aldetik horrelako apustua ezbaian jartzea, eta ondorioz, etengabeko justifikazio batean egon behar izatea.

Interesgarriak izan daitezkeen aspektuen artean, berriz, diskurtsiboki dagoen apustuaren beharra eta horretarako adostasun zein borondate politikoa aurkitu ditzakegu, nahiz eta ekintzetan ez den borondate hori bera islatzen. Bestalde, ordea, ematen ari den berrantolaketa izan daiteke mugarrria. Berrantolaketa horren bidez interesgarriak diren hainbat aspektutan hobetu daitezke, eta bidea egiten segi. Besteak beste, hizkuntza komuna osatu, enkargua komunitarioagoa zehaztu eta ezberdinen arteko koordinazioa errazteko zein balioan jartzeko kanal ezberdinak eraiki eta sustatu daitezke.

Teknikarien ikuspegiaren baitan

Teknikariekin elementu baldintzatzaileen analisia egin eta gero, badaude interesgarriak izan daitezkeen hausnarketa batzuk eta horietan jarri dugu fokua.

Lehenik eta behin, esan gura dugu, ezberdintasun handia identifikatu dugula teknikariek duten arduraren arabera. Ardura gehien dutenek harreman gehiago izan dute ordezkari politikoekin, eta beraz, dimentsio politikoaren inguruko informazio gehiago eskaini dute. Hori bakarrik ez, politikariei buruz daukaten pertzepzioa ere ez da arreta zuzenean edo bitarteko ardura postuetan egon daitezkeen teknikarien berdina. Batzuek borondatea badagoela diote, oso aginte teknikoa egiten dela, pisu handia jarriz teknikariengan. Berriz, zuzeneko arretatik gertuago daudenek politikariek ez dutela egiten dutena ulertzen diote, eta borondatea bera ere gehiago jartzen dute zalantzan. Horretaz aparte, alor teknikoan ere ardura postuetan dauden pertsonak, orokorrean, argiago daukate gizarte-zerbitzuak zer izan beharko luketen eta zein izan behar den horrantz joateko estrategiaren nondik norakoa. Arreta zuzenean dauden gizarte-langileen artean, batzuek ere argi daukate, baina ez da guztiekin gertatzen.

Elkarrizketatutako gizarte-langileen gehiengoak diskurtso nahiko eraikia daukate komunitarioaren inguruan. Hori horrela izanik, nolabait adituen elkarrizketen bidez sortu dugun komunitarioaren ideiarra hurbiltzen dira, nahiz eta kasu batzuetan ez den horrela gertatzen. Kontzeptualizazioa argi duten arren, ez dute oinarrizko gizarte-zerbitzuetako errealitatearekin identifikatzen, eta beraz, praktikoki egiten dutena ezin dute definizio horren baitan kokatu. Kasu batzuetan gainera, komunitarioaren inguruko ezezagutza nabariagoa da eta egiten duten jardun komunitarioarekin identifikatzen dute, hau da, programazio komunitario hutsarekin. Egia da, elkarrizketatu ditugun teknikarien gehiengoa, adituen definizioetara gehiago hurbiltzen dela. Baina, gure ikergaia ezagututa eta jakinda elkarrizketatuak izateko prest agertu direnez, gaiaren inguruan interesa duten profesionalak direla pentsatu dezakegu, batez ere, arreta zuzeneko kasuan elkarrizketatu ditugunak. Esanak esan, komunitarioaren inguruko hiztegi komun eta eredu baten beharra nabaritzen da. Horretarako, formazioa gakoa da eta gizarte-langileek esperientzia komunitarioak ezagutu eta gaiaren inguruko elementu tekniko metodologikoak eskuratzea urrats garrantzitsua izan daiteke.

Kontzeptualizazioan egon daitezkeen gora beherez harago, esan dugun bezala, profesionalak ez dute uste oinarrizko gizarte-zerbitzuetan egin beharko litzatekeen

lanketa komunitarioa egiten denik. Beraiek irudikatzen dutenetik oso urruti daudela dio gehiengoak: “Hacemos cosas con la comunidad, no, mejor dicho, para la comunidad y eso no es trabajo comunitario” (E.16 Teknikaria) edo “lo comunitario es algo de papel. Mejorable para llegar más a la población” (E.15 Teknikaria) bezalako adierazpenen bidez ikus daitekeenez. Beste kasu batzuetan ordea (elkarrizketatuen artean kasu bakan batzuk ezezagutza handiena nabaritu dugun profesionalen artean zehazki), ez dute beren arduratzat identifikatu lan hori, eta egiten dutenarekin gainerakoak baino konformeago agertu dira. Edozein modutan, gehiengoaren aburuz, ez da nahikoa egiten, eta elkarrizketetan zehar izan beharko lukeen eredu horri egin dizkioten aipamenak erreferentziatzat hartuta, nahiko luketenera alde handia dagoela ondorioztatu dezakegu.

Guzti honen atzean egon daitezkeen gakoak aztertzean, askotariko elementuak identifikatu ditugu. Borondate politikoaren edo baita teknikoaren artean eta, egunerokotasunean, oinarrizko gizarte-zerbitzuetan egiten den jardun profesionalaren arteko lotura enkargua da. Enkargua esan dugu objektuaren arabera eraikitzen dela, eta definizio ezak enkargua nahasten du. Ez dago oinarrizko gizarte-zerbitzuetan enkargu komunitario argirik eta hori ardura maila ezberdinetako teknikarien artean partekatzen den ideia da. Egiten dira ahaleginak enkargu hori zehaztu eta biratzeko, baina, ahaleginak ahalegin, arrazoi ezberdinak medio, ez da lortzen.

Hemen borondate politikoa sartzen da eta lehenetsi behar denean indibiduala lehenesten bada, komunitarioak indarra galtzen du, eta noski, teknikariek (edozein ardura izanda ere) erakundearen irizpideak jarraitu behar dituzte. Honetaz gain, enkargu komunitario zehatzak arreta ereduaren aldaketa ekarri beharko luke. Lehentasunak aipatu ditugun honetan, arreta eredu komunitarioago batek asistentzialismotik ihes egitea lortu beharko luke eta egungo ereduaren baitan ezin dute hori egin. Gizarte-langileak ez dira bulegotik ateratzen, jendeak deitu eta eskatzen duenaren arabera egiten dute lan, eta hauen tresna erabiliena zerbitzuak eta prestazio ekonomikoak dira. Lan taldearen zein zerbitzuaren antolaketa enkargu eta arreta eredu, aipatzen dugun eraldaketaren mesedetan jarri beharko litzateke, eta hor ere hutsune nabarmenak ikusi ahal izan ditugu. Diziiplina anitzeko lan talde indartsuak daude oinarrizko gizarte-zerbitzuetan eta tokian tokikoak dira, hala ere, ez dago komunitarioa lehentasuntzat duen profesionalik. Oinarrizko gizarte-zerbitzuetako arduraduna edo tokiko ekipoa dira gehien dabiltzanak, baina oro har, batak zein besteko profesionalek, beste hainbat egiteko dituzte eta komunitarioa

etengabe atzean geratzen da. Denbora tarterik ere ez zaio eskaintzen eta modu horretara, ikusi ahal izan dugun moduan, oso zaila da aurrera egitea.

Oztopo hauek guztiak dituzten arren, kasu batzuetan ikusi ditugu esperientzia komunitarioak, baina agian adituek definitutako horretatik urruti xamar egon daitezke. Edozein modutan ere, aurrera eramaten dira eta hori profesionalen hautu eta esfortzuari esker gertatzen da. Enkargu instituzional minimotik haratago joatea erabaki duten profesionalak ezagutu ditugu, baina hauek hainbat gako ideologiko eta epistemologiko eman dizkigute. Zuzeneko arretan dauden gizarte-langileetako asko eroso daude egungo arreta ereduan. Ez dute inplikazio estrarik izan behar. Kontzientzia kritiko falta nabaritzen dute eta gainera, profesionalak, zenbait kasutan, herritarrenganako duten botere harremanaz ere hitz egin dugu. Teknikarien diskurtsoak aztertzean, badirudi asko kostatzen zaiela erosotasun horretatik irtetea, baina batez ere, herritarrekin boterea partekatzea, hauek ahalduntze bidean jarritz. Deserosotasuna kontrola galtzearekin lotu dute profesioletako batzuk ere. Beraz, ondoriozta genezake, erresistentziarako inertzia dagoela profesionalen partetik ere.

Esanak esan, badirudi elementu instituzional edo politikoak zein teknikoak zaildu egiten dutela planteamendu komunitarioak indartzea, edo kasu batzuetan abiaraztea. Nolanahi ere, analisisian zehar hamaika bider aipatu dugun berrantolaketa prozesuan daude Gasteizko Udaleko oinarrizko gizarte-zerbitzuak. Berrantolaketa horrek arreta eredu aldaltzea ekarri dezakeela dirudi, gizarte-langileak lan karga burokratiko eta administratibotik liberatzearen bidez. Hori horrela izanda, enkargu komunitarioagoa emateko aukera irekiko da. Lan taldearen antolaketa, ez bakarrik lan taldearen konposizioari dagokionez, baizik eta egunerokotasuneko antolaketa (lehentasunak, agendaren egitura, etab.) ere aldatu dezake horrek, eta halaber, marko komunak ere sortu ditzake.

Gaur egun, teknikarien iritziz gutxi egiten da komunitarioaren alorrean: “hacemos poquísimo, muy muy poco, por no decir casi nada” (E.16 Teknikaria). Hala ere, berrantolaketaren baitan aldaketarako lehen urratsak ematen hasi daitezkeela dirudi. Garrantzitsua izango da teknikarien arteko motibazioa, hauen hautuaren arabera egon daitekeen edozein planteamendu indartu edo ahuldu baitaiteke.

Politikarien eta teknikarien baitan

Bi profilen gakoak aztertzean, ikus dezakegu, ezezagutzari erreparatuz, handiago dagoela politikarien artean. Aldea nabarmena da, izan ere, teknikariak askoz gehiago gerturaten dira adituen definizioetara. Nahiz eta gero ez diren identifikatzen edo ez duten horretarako ahalegin zein hautu profesional nahikorik nabaritzen, ahalduntzearekin zerikusi gehiago izan ditzaketen kontzeptualizazioak egiten dituzte.

Ikerketa lan honetan zehar etengabe aipatu dugun bezala, honen atzean objektuaren definizio eza dago. Ordea, objektuaren inguruko gatazkan politikariak galdu egiten dira, eta diskurtsiboki komunitarioa defendatzen duten arren, gero beste enkargu bat egiten diete gizarte-zerbitzuei, lehenetsuna jendeak bere oinarrizko beharrianak aseta izatean jarritz. Hasiera batean izan ezik, gaur egun arteko ibilbidean, eredu asistentzialista, erreaktibo eta indibidual familiarerako transformazio historikoa bizi izan dute gizarte-zerbitzuek, eta hori egun egiteko zein izaera nagusi bezala ulertzen da. Apurketa handia eskatzen du horrekin amaitzeak, bai teknikarien partetik eta baita politikarien partetik ere. Herritarrak ahalduntzeko prozesuen aldeko apustua egitea ezinbesteko premisa da, gizarte ehuna indartu eta ongizatea prebentzioaren bidez bermatu gura bada, baina honek kolokan jartzen du egonkortasun politikoa eta teknikoa.


Egun oinarrizko gizarte-zerbitzuetan dagoen komunitarioaren inguruko balorazioaren baitan, konformismo handiagoa nabaritzen da politikarien artean, baina orokorrean, komunitarioan sakondu beharra elkarrizketatutako pertsona gehienek aipatzen dute. Egungo egoera beraz, ezberdin baloratzen den arren, nahiko luketen eredutik urruti daudela jakitun dira eragileak. Hasiera batean, pilora batak besteari botako ziola pentsa genezakeen, edo hobeto esanda, bestearen gain jarriko zuela behar beste ez egitearen ardura, aldiz, kritiko agertu dira bi profilak beraien ardurarekin. Teknikariek arduraren parte handia beraien gain hartu dute, nahiz eta aitortzen duten egungo ereduak ez duela laguntzen.

Bukatze aldera, beraz, esan dezakegu, diskurtsiboki badagoela komunitarioaren aldeko apustua egiteko asmoa. Gainera, oinarrizko gizarte-zerbitzuak egun duten ereduarekin nahikoa ez dela sentipen partekatu da eta profil bakoitza kritiko agertu da, honetan duen arduraren gainean. Horrek badirudi komunitarioan sakontzeko aukeraren bat eskaini dezakeela. Bai politikoki eta baita teknikoki ere, oinarrizko gizarte-zerbitzuetan emango den berrantolaketan eta eraiki gura den ereduaren esperantza handia jarrita daukate guztiek,

konbentzituta baitaude onuragarria izango dela gizartearen ongizatearentzat, besteak beste, oinarrizko gizarte-zerbitzuak beste era batera ikusiko direlako:

“Si fuera más potente de forma real, haría también cambiar la visión que se tiene de los servicios sociales de base (...) Creo que aumenta el valor y la forma de ver y de acercarse a la ciudadanía en sus funciones de base” (E. 18 Teknikaria).

**5. ONDORIOAK: ZER GERTATZEN DA
GIZARTE-ZERBITZUEN EUSKAL SISTEMAN
KOMUNITARIOAN EZ SAKONTZEKO?**



5. ONDORIOAK: ZER GERTATZEN DA GIZARTE ZERBITZUEN EUSKAL SISTEMAN KOMUNITARIOAN BEHAR BESTE EZ SAKONTZEKO?

Ikerketa lan honek Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemari ekarpena egitea du helburu, zehazki komunitarioaren alorrean. Horretarako, gaur egun komunitarioa behar beste ez garatzeko zer gertatzen den ezagutu gura izan da, eta hurrengo lerroetan horren inguruko ondorioak azalduko ditugu.

Batetik, lortutako marko analitikoaren arabera ondorio edo hausnarketak partekatuko ditugu; bestetik, ikerketako galderak eta hipotesiak baieztatuko ditugu galdera nagusia erantzun ahal izateko. Azkenik, etorkizunera begira egon daitezkeen proposamen zein ikerketa lerroak aipatuz amaituko dugu.

5.1 HAUSNARKETAK ELEMENTUEI DAGOKIENEZ

Elementu baldintzatzaileei erreparatuz, badaude ikerlanetik abiatuta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemari buruz ondoriozta ditzakegunak.

Kanpo dimentsioa

Lehenik eta behin, kanpo dimentsioari dagokionez, hainbat dira ondorio nagusiak. Analisisian zehar ikusi dugun bezala, neoliberalismoaren olatuak dena zeharkatzen du eta gizarte egoera estrukturalak are konplexuago egin ditu. Prekarietatea zentzu zabalenean areagotu da, eta pertsonen bizitzak egunez egun zaurgarriagoak dira, batez ere, jada zaurgarriak ziren pertsonenak. Kontuan izan behar dugu prekarietateak eta indibidualismoak ezaugarritutako gizarte honetan ez dela erraza pertsonok interes kolektiboaren aldeko epe ertain luzeko konpromisoak hartzea, ezta interes kolektiboaren lehenestea ere. Ikusi ditugun prozesu komunitarioak epe horietan mugitzen dira, hainbatetan esan bezala, prozesu hauek su txikian egosten baitira, eta ezinbestean, ongizate orokorraren bila doazen prozesuak dira. Aldiz, jendeak konpromiso motzak hartzeko prestutasun handiagoa du. Hala nola, interes kolektiboaren ideia ez da hamarkada batzuk atzera zena, orokorrean, ez baita interes pertsonalen gainetik lehenesten, eta ez da lehen bezala defendatzen. Hori horrela eta gaur egun interes pertsonalengatik kolektiboagatik baino gehiago mugitzen garela ikusita, bigarrenari

garrantzia kendu gabe, biak uztartzen dituzten dinamiketan jarri behar dugu arreta. Gako hau kontuan hartzea ezinbestekoa da gizarte-zerbitzuak klabe komunitarioantz biratu nahi izanez gero. Gizartea aldatu egin da, horrek ez du esan nahi okerragoa denik, ezberdina dela baizik. Berriz, komunitarioaren munduan gabiltzanok errezeta zaharrak erabiltzen ditugu gizarte berrian, eta logikoa denez, ez dute funtzionatzen. Beste tekla batzuk jo behar ditugu, beste modu batera eragin, eta hori asmatzea zaila bezain interesgarria izan daiteke. Horren adibide garbia da, besteak beste, komunitateen eraldaketa. Berrogeita hamar urte atzera eginez gero, komunitate sendoak ikus genitzake, lotura afektiboz eta elkarrekintzaz beteak, zaintza sare naturalak osatzen zituztenak. Gaur egungo gizarte likidoan ordea, komunitate hautsiak ditugu eta hauen berreraikuntzan jarri behar dugu arreta eta indarra, herritarrak kolektibotasunaren eta sarearen indarraz jabetzeko.

Hala ere, aurrez aipatutako estrategiak martxan jartzen ditugun aldi berean, erakundeei ongizatean duten arduraren gaineko presioa egitea ezinbestekoa da. Ardura publikoa da pertsonen eskubideak eta oinarriko beharrian zein gizarte beharrianak herritar guztientzat bermatzen direla ziurtatzea, eta horren gaineko karga eta ardura ezin dira komunitatearen gain jarri. Neoliberalismoaren estrategien baitan ikusi dugu nola badagoen ardura uzte bat eta nola ematen den ardura hauek guztiak familia edo komunitatearen gain jartzeko joera. Zentzu honetan, sarritan ikusi ditzakegu beren beharrianak asetzeko elkartzen diren komunitateak, eta printzipioz, hori ez litzake negatiboa izan behar, baina, beharrian horiek giza edo gizarte eskubideen baitakoak badira, edo oinarriko beharrianak badira, ardura publikoa exijitzea ezinbestekoa da. Ezin du komunitateak erakundearen ordeko izan azken honek bere ardurak uzten dituenean.

Beharrien aurrean antolatzeak, komunitatea aktibatu zein ehuntzen joateak dinamika interesgarriak sortzen ditu, baina etorkizuneko helburua horiek beharrian egon gabe ehuntzeko apustua egitea izan beharko litzateke. Horrela, beharrianak ardura publikoa izan eta komunitateen ehundura haratago doazen dinamika erlazioaletan zentratu daiteke. Oreka hori bilatzea ere ez da erraza izaten gehientsuenetan, eta gizartearen egungo inertzien baitan kontuan izateko beste gako garrantzitsuetako bat da. Laburbilduz, batetik, muturreko edo larriak diren beharrian egoeretara heldu gabe nola egin dezakegun komunitatea beste helburu batzuekin ere antolatu dadin. Eta aldi berean,

bestetik, antolaketa komunitario hori nola mantendu instituzioari bere ardura exijitzen zaion bitartean.

Dimentsio politikoa

Bigarrenik, barne dimentsioaren baitan, dimentsio politikoan zentratzen bagara, badago zeresana hainbat elementuren inguruan.

Egindako analisiaren baitan, politikaren alorrean dagoen ezezagutzaz ohartu gara. Ezezagutza hori gizarte-zerbitzuen inguruko ezezagutza da, orokorra. Gizarte-politiken sailtan gizarte-zerbitzuen inguruan ezer gutxi dakite politikariek, horrek dakarren guztiarekin. Beste arlo batzuetan, arlo horretako profesionalak ikusten ditugu arduradun gisa, baiian ez da hori gizarte-zerbitzuak barnebiltzen dituzten sailtan gizarte arloko profesionalekin gertatzen dena. Hau da, kasu gehientsuenetan, ez dago gizarte-langile edo gizarte arloko bestelako profesionalik ardura politikoko postuetan. eta bestelako diziplina batzuetako pertsonak hartzen dute leku hori. Gizarte-zerbitzuen inguruko ezagutza eza are nabarmenago gertatzen da komunitarioaren inguruan mintzo garenean, eta honek eragina dauka.

Gaur egun gizarte-zerbitzuek dituzten gabezi eta erronkak kontuan hartuta, apustu politiko sendoak egin behar dira komunitarioan sakondu ahal izateko eta bide horretan, praktika hauek lehenetsi behar dira. Baina, noski, zaila da zerbaiten aldeko apustua egin edo lehenestea zertaz ari garen argi ez badaukagu. Diskurtsiboki bultzatzen den arren, praktikoki borondate hori ez da egikaritzen, eta ondorioz, ez zaie gizarte-zerbitzuei enkargu komunitarioak egiten. Ez hori bakarrik, sarritan, gizarte-zerbitzuak zein bertako profesionalak ez dira kontuan hartuak izaten udaletan martxan jartzen diren logika komunitarioko prozesuetan, eta hori akats handia dela deritzogu. Gizarte-zerbitzuak, politikoki ere, zerbitzu asistentzialak baino zerbait gehiago bezala ulertu behar dira, eta herrietan bizi kalitatearen eta ongizatearen zein eraldaketaren bidean eragile garrantzitsutzat ulertu.

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren baitan, udalerrri gutxitan antzematen dira horrelako apustuak. Prozesu komunitarioak prozesu estrategikoak dira, epe ertain luzekoak. Hori horrela, lau urtez gairik logika bat jarraitzen dute eta egungo politikaren edo gutxienez, politikari batzuen logikarekin talka egiten du. Salbuespenak salbuespen, legegintzaldian emaitzak emango dituzten ekintzen aldeko apustuak egiten dira, eta logika horretan, lanketa komunitarioak ez dira estrategia egokia. Beste era batera esanda, baliabideak

inbertitzen badira, baina emaitzak ordea lau urte baino gehiagoan antzematen badira, ez die balio, ez behintzat, gizartearen ongizatearen gainetik interes elektoralak jartzen dituztenei. Zentzu honetan, horrelako estrategiak udalbatza osatzen duten kolore politiko ezberdinen artean partekatuak izan beharko lukete, logika estrategikoa jarraitu ahal izateko eta lau urtez behin kolokan egoteko arriskua ez izateko.

Aipatu berri dugunari erabat lotuta daude estrategia komunitarioetarako eratzen diren marko normatiboak eta bideratzen diren baliabideak ere. Marko normatiboek dagokienez, gizarte-zerbitzuak arautzen dituzten lege nagusiak erkidegoen menpe dauden legeak dira, berriz, estrategia komunitarioak eta oinarritzko gizarte-zerbitzuak udal eskumena. Hori horrela izanik, udalek sarritan, ardura erkidegoarengan eta honen lege eta baliabideengan jartzen dute, udalek planak eta baliabideak gauzatzeko duten eskumenari erreparatu gabe. Egia da Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren baitan dagoen eskumen eta erakunde arteko nahasmenak ez duela laguntzen, baina batak zein besteak badituzte komunitarioa sustatzeko aukerak. Baliabideei dagokienez, erreferentzia egin diezaiekegu baliabide ekonomiko eta materialei, baina urrats bat emanez, baliabide tekniko eta pertsonaletan jarri gurako genuke arreta. Izan ere, marko normatibo zein baliabide material eta ekonomikoez haratago, estrategia komunitario eta erlazioaletan, ezinbestekoak dira gizarte-langile eta gainerako gizarte arloko profesionalek egiten duten ekarpen teknikoa, hau da, esku-hartzeari eta gizarte-zerbitzuei ere ematen dieten balio erantsia. Hau ezagutzea eta aitortzea ezinbestekoa da, egestura politikoetatik ere, eta balio erantsi hori gauzatzeko mandatua egin eta baliabideen bidez, hori gauzatu ahal izatea bermatu.

Bukatzeko, kolore politikoen arteko ezberdintasunari erreparatu nahi genioke. Izan ere, ikusi dugu nola diskurtsiboki badagoen komunitarioa sustatzeko kontsentsua, aldiz, ezberdintasun nabarmenak ikusi ditugu estrategia komunitarioa lehenesteko orduan. Komunitarioak eraldaketarako edo gizartearen erroan zein egesturaletan aldaketak egiteko duen gaitasuna ez da talde guztiek kontuan hartzen duten zerbait. Are gehiago, kasu batzuetan apustua argia da, komunitarioa ondo dago, baina egitekoetan azkena da, gizarte-zerbitzuak jendearen (oinarritzko) beharrezkoak asetzeko egin beharra baitu. Elkarrizketetako batean, aditu batek esaten zuen komunitarioa gaur egun kontrakultura izan daitekeela, eta hori horrela izanik, ezinbestekoa da apustu sendoak egitea, duen ahalmenean sinestea eta behar besteko bultzada politikoa ematea.

Dimentsio teknikoa

Hirugarrenik, dimentsio teknikoaren inguruan ere badaude ikerketa lan honen galderari erantzuteko interesgarriak izan daitezkeen hausnarketak.

Lan honen hasieran aipatu dugu komunitarioa dela gizarte-langintzaren baitan garapen urriena izan duen dimentsioa, eta hori bera diziplinan ez ezik lanbidean ere gertatu da. Profesionalki, orokorrean, ez da komunitarioa bideratutako jardute profesional handirik egon, eta horrek komunitarioaren inguruko ezezagutzara eraman gaitu. Egun, gizarte-zerbitzuen baitako profesionalen artean, ez dago komunitarioaren inguruko definizio ezta hiztegi komunik, horrek jardunean duen eraginarekin. Frogatuta geratu da egindako elkarrizketetan profesional bakoitzak komunitarioari buruz mintzatzean gauza ezberdinak ulertzen dituela, eta kasu askotan, adituek diotenetik urruti xamar egon daitezkeela. Hori horrela izanda, gizarte-zerbitzuak estrategia horien baitan kokatzea gura bada, aurre lanketa egitea ezinbestekoa da, baita hiztegi komuna osatzea ere. Zer da komunitarioa? Zertarako egin gura dugu komunitarioa? Nola egin gura dugu komunitarioa eta zein helbururekin? Horrelako galderak, horrelako hausnarketak egin behar dira, tokian tokiko errealitateetara egokituz. Baina hausnarketa hauek denbora eskatzen dute, eta egungo oinarritzko gizarte-zerbitzuek, bere horretan, ez dute denbora hau ahalbidetzen.

Aurreko lerroetan azaldutakoa egikaritzeko, lehen urratsa politikarrietatik eta zerbitzuetako zuzendaritzetatik datorren enkargua da. Oinarritzko gizarte-zerbitzuek, egungo inertzia dela eta, ez dute norabide aldaketa egikaritzeko apustu sendo batean oinarritzen den mandatu komunitario argia egiten ez bazaie. Mandatu horrek egin beharra ezartzeaz gain, horretarako baliabideak eskaini behar ditu. Zentzu honetan, ez gara bere horretan behintzat, baliabide ekonomikoez ari, horretarako espazio eta denboraz baizik. Jakina da, horrek ekonomikoki zein baliabide teknikoei dagokienez baduela eragina. Gainera, mandatuak komunitarioan sinesten dela eta horrela lan egitea posible dela erakutsi behar du, azken urteetan bizitako egoera latzenek egin daitekeela erakutsi dutelako.

Oinarritzko gizarte-zerbitzuetako arreta eredu eskaera-baliabide binomioan oinarritzen dela ikusi dugu. Gainera, banakako eta familiako arretan zentratzen da, egiten den lana erabat asistentzialista izanik. Baliabide ekonomiko eta materialak zein zerbitzuak kudeatzeaz arduratzen diren oinarritzko gizarte-zerbitzuen aurrean aurkitzen gara. Bere sorrerako printzipio eta helburuak (gaur egun legeak egozten dizkion egin beharrak ere)

erabat ahantziak dituztenak. Lan zama handiak dituzten oinarrizko gizarte-zerbitzuak ditugu, arreta denbora mugatuak dituztenak, erabiltzaile ratioak gainditzen dituztenak. Horrela ba, lan zama administratiboa jardun erlazionalari nagusitzen zaio, langileak burokrazian murgilduz. Dinamika hau, gizarte-langileen inertzia bihurtu da, kasu gehienetan, egiteko bakarra izatera arte. Beste egiteko modu batzuk posible direla ikusi dugu, baina korrontearen kontra joatea eskatzen dutenez, bultzada berezia behar izango dute. Honekin erabat lotuta dago oinarrizko gizarte-zerbitzu bakoitzaren antolaketa.

Kasu honetan, udalak lan zama administratiboak eta burokratizazioa arintzeko lanetan ari direla ikusten dugu, baina, administrariak lan hori egiteko kontratatzen diren bitartean lan taldeen eta eginbeharren berrantolaketa bat gertatu ezean, berriz ere lan zamak bultzatuta inertzia berean eroriko dira lan taldeak. 2011ean, diru sarrerak bermatzeko errentaren kudeaketa Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzura pasatu zenean bizi izan genuen bezala, lan zama administratibo handia kendu arren, mandatua aldatzen ez bada, errealitatean hazten jarraitzen duten beharriaz oztopatu egiten dute erlazionalagoak edo komunitarioagoak diren jardunak egitea. Ondorio gisa ikus dezakegu, beraz, esperientziak erakutsi digula, lan zama administratiboa arintzearekin batera, jarduna komunitariora biratzeko baliabideak eskaini, zerbitzuak berrantolatu, piezak mugitu eta, finean, mandatu argia beharrezkoak direla.

Esaterako, antolaketa honetan, kasu askotan, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren baitako lan taldeak multidiziplinarrak direla ikusten dugu, baina aldiz, ez da langile komunitariorik edo erreferente komunitariorik egoten lan taldeetan. Zaila da, beraz, figura hori izan gabe, eta egunero-egunero oinarrizko beharriaz ase gabe dituzten hamarnaka herritar artatzen dituzula jakinik, lan komunitarioa lehenestea. Aipatutakoaz gain, eguneroko lanaren antolaketetan, hots, agenden egituraketetan, horretarako espazioak baimendu behar dira. Pertsonak indibidualki artatzeaz haratago, gizarte-langileak sukaldeko lana egiteko espazioak beharrezkoak dituela aitortu eta hauek bermatu behar dira. Egikaritu ahal izateko agendetan leku egin behar zaie, eta egitekoen artean sartu. Ikusi dugu askotan, komunitarioak prebentzioa daroala bere baitan eta epe ertain luzera onura garrantzitsuak dakartzala, baina horrek hausnarketa lan handia eskatzen du, besteak beste, banakako eta familiako arreta ere betaurreko komunitarioekin egin ahal izateko.

Horretarako, ordea, egungo oinarrizko gizarte-zerbitzuetako langileek ez dute astirik. Komunitatearen ezagutza guztiek bermatu ezin dezaketenez, pertsona bat erreferente

izatea gako garrantzitsua dela uste dugu. Modu honetara, gainerako gizarte-langileek komunitatearen ezagutza izatea eta modu zuzenean ez bada ere, kontaktuan egotea ahalbidetu dezake. Era berean, erreferente komunitarioaren lehentasuna beti izango da komunitatea eta lan taldean komunitarioaren presentzia bermatzea ziurtatua egongo da. Antolaketaren baitan, ezinbestekoa da kokapena eta ordutegiari ere erreparatzea. Oinarrizko gizarte-zerbitzuek, nagusiki, lurralde jakin bati erantzuten diete, deszentralizatuak daude, eta kasu askotan, normalizatuak dauden azpiegitura edo eraikin publikoetan kokatzen dira. Horrek guztiak soilik, ez du ordea dinamika komunitarioa egotea ahalbidetuko, beraz, elkarrekintza sustatuko duten esku hartze zehatzak egin behar dira, baita norbanakoen eta komunitatearen arteko zubi lana egin.

Modu berean, goizeko ordutegia nagusitzen da gizarte-zerbitzuetan, eta orokorrean, bizitza komunitarioa ez da goizeko ordutegietan eraikitzen. Hori horrela, erreferente komunitarioen kasuan gutxienez, eta hein baten, gainerako langileen ordutegiak ere birpentsatu beharko lirateke. Esan gabe doa profesionalen lan baldintzak bermatu behar direla, baina gauza batek ez duela beste kentzen sinetsita gaude. Zentzu honetan, lan zama burokratiko arintzen den bitartean, erreferente komunitarioak izendatu eta hausnarketa prozesuetan murgiltzeak, politikarien apustu argiaz gain, gizarte-langileen inplikazioa eskatzen du. Hori kontuan izanik, horrelako esperientziak prestasuna duten gizarte-langileak dauden lan taldeetan abiatu daitezke eta emaitza positiboak izanez gero, esperientziak zabaltzen joan.

Gizarte-langileen hautu epistemologiko zein ideologikoak erabat baldintzatzen du aurrez aipatutako guztia. Borondate politikoa egonda ere, eta antolaketa teknikoari dagokionez behar besteko aldaketak egingo balira ere, profesionalaren hautuak erabat baldintzatu dezake jardun komunitarioa. Lan komunitarioa paradigma kritikoaren baitan kokatzen dugula esan badugu, profesional kritikoak behar dira gauzatzeko. Komunitarioa justizia sozialaren balioten oinarritzen den estrategia da, eta beraz, eraldaketa soziala sustatu gura du. Gizartean, egiturazkoak diren aldaketak bilatzen ditu, horretarako pertsonen ahalduz eta askapenean arreta berezia jarritz. Hori horrela, perspektiba horretan kokatzen diren identitate profesionalak behar dira. Aldiz, gaur egun, azaldutako inertzia medio, orokorrean gizarte-zerbitzuetako profesionalen eta herritarren artean dagoen botere harremana begi-bistakoa da. Boterea herritarrengan jartzearen aurrean profesionalen partetik egon daitekeen erresistentziak oztopatu egin dezake erabat edozein apustu komunitario. Boterearen gaia dela eta, ikusten dugu komunitarioak inplikazio

politiko handia eskatzen duela banakako eta familiako arretarekin alderatuz eta honetaz guztiaz gain, inplikazio pertsonal handiagoa ere eskatzen du. Eragileekin lan egin behar da, erakundearekin kontraesankorrak izan daitezkeen egoerak kudeatu behar dira, edo besterik gabe, komunitatearen aurrean, berdinetik berdinerara agertu behar gara, horrek suposatzen duen guztiarekin.

Balio konkretu hauek biltzen dituzten profil profesionalak sustatzeko formazioak garrantzi handia hartzen du, bai graduan zehar eta baita bizitza profesionalean zehar ere. Egiten dugun jardunaren berrikuspen kritikoa landu behar dugu, aurrez aipatutako balioetan hazten jarraitzeko. Bide honetan, egiten diren esperientzien sistematizazioa beharrezkoa da, batetik, esperientziak partekatzea dakarrelako eta bestetik erreminta teoriko, tekniko eta metodologikoak eskuratzea ahalbidetu dezakeelako. Esandako guztiaz gain, sistematizazioa ebaluatzeko pausu garrantzitsua da, eta hemen ere, ebaluazio irizpide tradizioaletatik irtetea klabea izan daiteke. Komunitarioak duen eragina neurtu eta ezagutzeko edota kapital sozialaren hazkundeak eta sendotzeak dituzten onurak erakusteko, estrategiak asmatzea beharrezkoa dugu, horretan gehiago sakondu nahi badugu.

Azkenik, artikulazio komunitarioari buruz hitz egin dugunean hainbat gako interesgarri jaso ditugu. Lanketa komunitarioak Ikerketa Ekintza Parte-hartzailearen metodologiaren baitan garatzen dira. Ildo horretan, beraz, estrategiak abian jartzea pentsatzen den momentu beretik, komunitatearekin partekatutako lana izan behar da. Diagnosi partekatua behar da, helburuen definizio konpartitua eta estrategia komuna. Horretarako, elkar ezagutza ezinbestekoa da eta helburua komunitateko eragileek oinarrizko gizarte-zerbitzuak aliatu natural gisa ikustean egon daiteke. Zentzu honetan, alde bietan ikusi izan ditugu erresistentziak. Profesionalen partetik, hasteko, botere harremanaz gain, batez ere, eragile komunitario ez formalekiko mesfidantza ikusten da, oso politizatuak direlako, posizionatuak direlako etab. Bestetik, ordea, gizarte mugimenduetatik udal langileekiko mesfidantza ere badagoela ikusi dugu. Hori horrela izanda, botere harremana irauli eta berdinetik berdinerara, elkarrekin lan eginez konfiantzazko harremana eraikitzea da gakoa. Finean, elkar ezagutzean gauzak errazago egiten direla ikusi ahal izan dugulako, helburu komunetik, norberak bere esparrutik lan egiten duenean, estrategia osatuagoak lortzen direla ikusiz.

Aurreko guztia kontuan izanik, *zer gertatzen da Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren komunitarioan behar beste ez sakontzeko?*

Galdera honen aurrean planteamendu hau egin genuen ikerketako hipotesi nagusi gisa: *Komunitarioa gai garrantzitsua da Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemari, eta hala dago jasota legerian eta arduradunen adierazpenetan. Jakina da, ordea, praktikan gutxi erabiltzen dela. Zergatik gertatzen da teoria eta praktikaren artean dagoen aldea? Gure ustez, ildo horretan ez sakontzeko arrazoi nagusia gaiaren inguruan dagoen ezjakintasuna da, eta horrek interes falta eragiten du azkenean. Hala ere, eragilearen interes jakinekin talka egin dezakeen planteamendua ere badela uste dugu.*

Askotan, ez da nahita egiten den zerbait. Alderantziz, komunitarioan eragiteko borondatea erakusten dute askotan eragile guztiek, gutxienez diskurtsiboki. Baina egiten dena oso azalekoa da, komunitarioaren adiera baxuenean kokatu daiteke. Zenbait kasutan komunitatean kokatutako ekintza solteak egiten dira, eta hori lan komunitarioa egitearekin nahasten da.

Era horretara, bestelako biderik urratzeko ezezagutza dagoelako, batetik, edo erabakimen faltagatik, bestetik, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemari ez da komunitarioan behar beste sakontzen, teoriak dioenaren kontrara.

Gure azterketa amaituta, planteamendua zentzu egokian egin zela ikus dezakegu ondorengo lerroetan.

Batetik, ezezagutza edo komunitarioa definitu ez izanaren gakoa dugu. Batzuen kasuan ezezagutza da zuzenean gertatzen dena, eta beste batzuen kasuan, zehaztu gabeko ezezagutza egon daiteke. Hiztegi komunaren faltak eta komunitarioaz ari garenean zeri buruz ari garen zehazten duen lanketa eta marko minimoa eraikita ez egotea, duda barik oztopo garrantzitsua dira komunitarioan sakontzerako orduan.

Bigarrenik, boterearen eta erresistentziaren aferarekin egin dugu topo. Hau sumatzen genuen arren, aurreikusten genuena baino garrantzitsuago bilakatu da. Diskurtsiboki esaten den arren, interes falta dago benetako apustua egiteko, herritarren ahalduntzea ez politikoki ezta teknikoki ere interesatzen ez delako. Boterea parte batek hartzen badu (herritarrek), beste parte batek, hein batean, eman edo galdu behar du (politikari zein teknikariek). Orain arte, gizarte-zerbitzuak eskema horren gainean eraiki dira, eta botere harreman hori iraultzeko erresistentzia handia daukagu. Komunitatearen ahalduntzeak, zalantzan jartzen du bai egitura politikoei baita teknikoek ere orain arte izan duten

erosotasuna. Ekintza kolektiboaren indarraren bitartez, orain arteko dinamikak zalantzan jarri daitezke eta bi eragileen kontrol galtzea eragin dezake. Honen inguruan arreta eman digun zerbait da, aztertu ditugun eragileek aldaketaren aurrean egiten duten erresistentzia aipatzean, askoz autokritikoagoak izan direla zuzeneko arretan dauden langileak, beraien erresistentzia onartuz, ardura postu edo postu politikoetan daudenak baino. Zentzu honetan, argi dago gaur egun lan komunitarioa aldarrikatzen dugunean iruditegi kolektibora datorkiguna lehenago zetorkiguna baino lausoagoa dela. Komunitarioren definizioa lausotu egin da eta eduki politikoa (boterearen ingurukoa) galdu du, zerbait teknikoagoa bihurtuz.

Hirugarren klabea, azken ideia honetatik tira eginez jaso genezake. Alde handia dago, gizarte-zerbitzuetan egin beharko litzatekeenaren (lehenago adierara edo adituek definitzen duten horretara gehiago gerturatzen den komunitarioa) eta egiten denaren artean. Gaur egun kasurik onenean egiten dena askoz teknikoagoa da lehen egin zitekeena baino, baina hala ere, egun komunitarioa, ikuspegi hutsarekin edo lauzpabost tokiko programa egitearekin lortzen da. Zentzu honetan, aztertu ditugun eragileek gizarte-zerbitzuetako jardunaren inguruan egindako balorazioaren baitan, ezberdintasunak ikusten ditugu hauen boterearen edo sistemarekin duten harremanaren arabera. Ardura postu zein postu politikoetatik egin beharko litzatekeenari egiten zaio erreferentzia, agian teorikoagoari, esan dezakegu. Ordea, zuzeneko arretan dauden gizarte-langileen diskurtsoan, egiten denaren inguruko adierazpen gehiago jasotzen ditugu, eta komunitarioaren adiera apalenetan kokatzen du gehiengoak bere jardun profesionala, nahiz eta jakin, egin beharko litzatekeena askoz gehiago dela.

Azkenik, hau guztia azaltzeko, ezinbestekoa da politikoki egiten den apustua edo borondatea. Planteamendu komunitarioak estrategikoak diren heinean, logika elektoralak jarraitzen duen lau urteetako epeez haratago doaz. Zentzu horretan, komunitarioaren helburua prozesua bera da eta ez epe ertain motzean emango dituen fruituak. Hori horrela izanda, talka egiten du politikari jakinen interesekin. Hala ere, politikarien borondateaz gaindi, argi dago, hainbatetan aipatu dugun legez, teknikarien erresistentziak edo hautuak erabat baldintzatu dezakeela edozein estrategia komunitarioa. Baina aldiz, ikusi ahal izan dugu, nola arduradun politiko eta arduradun tekniko berdinak dituzten lehen mailako arretan kokatzen diren zerbitzuen artean, oinarritzko gizarte-zerbitzua dela komunitarioan gutxien sakontzen duena. Printzipioz izan beharko litzatekeenaren aurka (bere printzipio, helburu, kokapen eta antolamenduagatik), nahiz eta zerbitzu deszentralizatuena izan eta

prebentzioa landu beharko lukeena izan, ez du zentralizatuagoak diren eta arreta sektorialagoa ematen duten zerbitzuek beste sakontzen. Buru politiko eta tekniko berdinak izanik, elementu baldintzatzaille ezberdinak, lan zama erreala, praktikotasunean gauzatzen den arreta eredu erreala eta egiten den mandatu erreala daude. Elementu baldintzatzaille horietan apustu komunitarioa ez da lehenesten, eta honek erabat oztokatzen du oinarrizko gizarte-zerbitzuen baitan komunitarioan sakondu ahal izatea.

Nolanahi ere, hipotesien kontrastean konkretatuz gero, hasiera batean uste genuen, ekintza solteak egitea komunitarioan sakontzearekin lotuko zutela. Aldiz,, ez da kasu guztietan uste errealtatean egiten dena baino gehiago egiten dutenik eta, salbuespenak salbuespen, asko dira jardun komunitario apalarekin identifikatzen direnak. Horretaz aparte, utopikoak baino, egingarriak diren ekintza jakinak deserosoak egiten zaizkiela esango genuke, boterea eta kontrola galtzea dakartelako.

Bildu ditugu beraz, ikerketa lan honetako galdera nagusiari erantzuna ematen dioten arrazoiak. Ikusi dezakegunez, hasiera batetik aipatutako gizarte-zerbitzuetako erronka nagusiekin erabat lotuta dauden gakoak dira. Paradoxikoa dirudien arren, lanean zehar azaldu dugun bezala, komunitarioa giltzarri garrantzitsua izan daiteke erronkei erantzuteko, baina aldi berean, gabezi horiek asko zailtzen dute komunitarioaren sakontze prozesua.

5.2. AURRERA BEGIRA

Ikerketa lan hau hobetu eta osatzea aldera, dimentsio herritarraren ekarpena jasotzea interesgarria izan daitekeela uste dugu eta bide horretan, etorkizunerako ikerketa ildo bezala proposatu gura dugu. Ez dugu ausaz utzi dimentsio hau ikerketa lanetik kanpo. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren baitan, gure aburuz, erantzukizun eta ardura nagusia, duten botereaz jabetuta, politikariena eta teknikariena da, eta horregatik zentratu gara bereziki bi eragile hauetan. Ikuspuntu etiko batetik gainera, ez dugu nahi izan herritarren eragina ikuspuntu kritiko batetik lantzea, ez behintzat, lehen lanketa honen baitan. Izan ere, gizarte-langileak izanik, modu batera edo bestera, sistema honen parte garen heinean, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren eraldaketaren bidean, lehen urratsaren erantzule sentitzen gara. Ondorioz, politikarien eta teknikarien diskurtsoa aztertuz sistemaren lanketa sakona egin gabe, ez dugu jaso nahi izan herritarren inpresiorik. Esan bezala, aldiz, behin ikerketa lan hau bukatuta, bigarren urratsa ematea

posible izan daitekeela uste dugu, sistemaren hobekuntzarako garrantzitsua eta ezinbestekoa delako herritarren ekarpena.

Lan guztian zehar landutakoa landu eta gero, argi geratu zaiguna da komunitarioan sakondu gura izanez gero, gutxienez, ehun eta laurogei graduko bira eman behar dugula.

Navarrok (2015) dioen bezala, paradoxikoa dirudien arren, oinarrizko gizarte-zerbitzuetan planteamendu komunitarioak egitea gure erroetara itzultzea da, esentzia berreskuratzea, lehenago egiten zenera bueltatzea, baina aldi berean, egin daitekeen planteamendu berritzaile nagusietako bat ere izan daiteke. Beraz, gure planteamendua aurreko guztiaren uztarketaren ondorioz, oinarrizko gizarte-zerbitzuetan, sakontze komunitarioa sustatzea da. Proposatzen gabiltzan sakontze komunitarioa gertatzeko, gizarte-zerbitzuen baitan, lehen mailako arreta eta bereziki, oinarrizko gizarte-zerbitzuak eremu pribilegiatu bezala ikusten ditugu, izan ere, barnebiltzen duten lurraldea klabea izango baita.

Lanean jasotako proposamen ezberdinen ildo beretik, komunitarioaren baitan sakontasun ezberdinen araberako adierazpenak identifikatu ditzakegu. Batetik, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak eta bere marko normatiboek komunitariotzat hartzen duena aurkitzen dugu, hau da, komunitate ikuspegia aplikatzea, *Community Care*⁴⁹ bezala ulertzen dena. Horrek arretaren desinstituzionalizazio batera eramaten gaitu. Pertsonak egoitzetan eta eraikin instituzionaletan artatu ordez, bere testuinguruan, komunitatean, hala nola, norbere etxean edo auzoan arreta ematean datza. Urteetan, horrela (instituzionalizazioaren bidez, egoitzen bidez etab.) lan egin izan da bai gizarte-langintzan eta baita gizarte-zerbitzuen eremuan ere. Bestetik, gizarte-langintzarena propioagoa izan daitekeen komunitarioaren adiera aurkitzen dugu, hots, garapen eta antolaketa komunitarioaren planteamenduarekin zerikusi gehiago duena⁵⁰. Ikuskera honetan, komunitatea bera subjektu politikotzat ulertzen da, eta jendearen ahalduntzean oinarritzen da. Sustapen lana da gehiago bertan planteatzen dena, guztiz harremanezkoa, komunitatean, sarean lan egitea dakarren lana, funtsean, elkarren arteko zaintzan, gertutasunean, tokian tokikoari (ekonomia, kontsumoa, komertzioak, zaintza,


⁴⁹ Fatovaren aburuz, *community care* termino erabilienetakoa izango litzateke komunitarioaz orokorrean hitz egiten denean, eta horrela definitzen du: "Se trata de enfoques o aproximaciones que subrayan la necesidad de que las políticas sociales públicas o formales no desincentiven las capacidades, recursos, vínculos y procesos que de manera más o menos natural o primaria existen en el seno de las relaciones y redes familiares y comunitarias. (...) Favoreciendo, en clave de proximidad, la permanencia de las personas en sus domicilios habituales y entornos ordinarios" (2012, 104-105.or).

⁵⁰ Ikerketa lan honetan, gizarte-zerbitzuen eremuan, planteatzen diren proposamen komunitarioetan esku-hartzeko komunitarioa edo lan komunitarioa bezala ere izendatzen dena litzake.

ingurumena...) garrantzia ematean sostengatzen dena. Bertakoa, gertukoa, tokian tokikoa baliabide bezala erabiltzean datza ikuskera honek. Gainera, azken urteetan bizi izan ditugun krisiek, lehen hain modu utopikoan ikus zitekeena, modu batera edo bestera, posible dela erakutsi digute.

Hori horrela izanik, komunitarioa definitzeko dauden bi modu ezberdinak kontuan izanda, komunitarioa continuum bat balitz bezala ulertzen dugu. Ertz batean, adiera xumeena aurkituko litzateke, hau da, ikuspegi komunitarioa, eta aurkako ertzean, zentzu sakonena egongo litzateke, gizarte-langintza komunitario purua, hots, komunitatearekin batera egiten den gizarte-langintza. Jakina da ordea, gizarte-langintza komunitario “purua” ematea gaur egungo testuinguruan eta, gehiago esanda, oinarrizko gizarte-zerbitzuen eremuan, ezinezkoa dela eta erabat utopikoa izan daitekeela. Ondorioz, legeak markatzen duen ikuspegi komunitarioa gutxieneko egiteko bezala planteatzen dugu, berrikuntzaren eta arestian aipatutako berrantolaketaren bidean, eta gizarte zerbitzuek zein gizarte konplexu honek dituen erronkei erantzun ahal izateko, komunitarioaren continuumean sakontzea proposatuz. Modu honetara, komunitateko gizarte-langintza puru edo utopikora ahalik eta gehien gerturatzea da planteamendua.

15. Irudia: Continuum komunitarioa eta sakontze komunitarioa




Iturria: Norberak egina

Continuum komunitarioaren alde batetik bestera igarotzearen prozesua *sakontze komunitarioa* bezala izendatu dugu eta hori gertatzea ahalbidetzen duena parte-hartzea da. Herritartasuna, herritar aktiboa izatea, ahaldundua eta protagonista izatera eramaten gaituen parte-hartzearen bitartez, egin dezakegu sakontze komunitarioa, hau da, utopikoa izango litzatekeen *continuum komunitarioaren* mutur horretarantz hurbilduko gaituen bidea. Horretarako, elementu baldintzatzaileetako bakoitzean, adituek aipatzen dituzten egoera optimoetarantz aurrera pausuak ematea izango da gakoa.

Une honetan gizarte-zerbitzuak dauden bezala, sakontze komunitariok izan ditzakeen zailtasun guztiak ulertuta, beharrezkoa da horren aldeko apustua. Adituetako batek (E.5 Aditua) behin eta berriz azpimarratzen du edozein sistema oso zurruna izan daitekeen arren, eta, ondorioz, eman dezakeen aldaketarekiko oso uzkurra izan arren, erakunde orok bere zirrikitua duela eta aurkitu egin behar dela aldaketa landu eta sortu ahal izateko. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak ere baditu lan egin ahal izateko bere eremuak. Ez hori bakarrik, baizik eta sistemaren diseinurako tresna gisa balio duten araudiek babestu egiten dituzte eta, are gehiago, ikuspegi komunitariotik harago joatea eta horretan sakontzea ere sustatzen dute.

Amaitzeko, termino orokorragoetan hitz eginez gero, oinarritzko gizarte-zerbitzuetarako planteatzen dugun apustu hau, gobernantza kolaboratiboaren markoan kokatu daiteke. Egun instituzioek gobernantza ereduen aldeko joera duten honetan, gizarte-zerbitzuek antolaketan duten eredu bertikaletik, eredu horizontalago batera pasatzeko espazioa agertu daiteke. Beheko irudian ikusten den bezala, ezkerreko eskema horretatik eskuineko horretara.

16. Irudia: Gizarte-zerbitzuen antolaketaren oinarriak




Iturria:Norberak egina.

Irudi honetan ikusten dugu, nola egungo antolaketa ereduan, goitik beherako dinamika dagoen. Politikariek erabaki, teknikariek erabakia gauzatu, eta berriz, herritarrak teknikariek esandakoaren hartzaille hutsak bilakatzen dira. Aldiz bigarren ereduan, diseinutik hasi eta oinarritzko gizarte-zerbitzuetako praxi arteko lana elkarlanean egitea izango litzake. Bide hau urratzea etorkizunerako beste ikerketa ildo interesgarria izan daiteke, herritarren inpresioak jasotzearekin batera. Ikerketa ekintza parte-hartzailearen

metodologiaren bidez planteamendu honetan sakontzeko, unibertsitatea izan daiteke eragile gakoetako bat. Modu honetan, oinarrizko gizarte-zerbitzuek eredu batetik bestera egin beharreko ibilbidean aholkulari rola egin dezake, eraldaketan bidelagun izanik. Hala ere, esan bezala, hau etorkizunerako aztertu beharreko ikerketa ildo posiblea da.

6. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK



6. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

Dokumentuak

- Addams, Janne. (1895). The Settlement as a Factor in the Labor Movement. In: Hull House, Residents of (Ed.), *Hull-House Maps and Papers: A Presentation of Nationalities and Wages in a Congested District of Chicago, Together with Comments and Essays on Problems Growing out of the Social Conditions*. Thomas Crowell.
<http://hist346gildedage.homestead.com/files/etexts-/hullhousemapspapers.pdf> -tik errekeratua.
- Aguilar, Manuel. (2017). Servicios Sociales comparados: Entre la beneficencia y la inversión social. In E. del Pino eta M. Rubio (Koord.), *Los Estados de Bienestar en la encrucijada* (pp. 389-404). Tecnos.
- Aguilar, Manuel. (2014). Apuntes para un replanteamiento de los servicios sociales en España. In Foessa Fundazioa (Ed.), *VII Informe sobre exclusión y desarrollo social en España 2014* (pp. 1-36). Foessa Fundazioa.
- Aguilar, Manuel. (2013). Los servicios sociales en la tormenta. *Documentación social*, 166, 145-167.
- Aguilar, Manuel. (2010). La huella de la beneficencia en los Servicios Sociales. *Zerbitzuan: Gizarte zerbitzuetarako aldizkaria*, 48, 9-16.
- Aguilar, M^a José. (2020). La relación con la comunidad. In J. Fonbuena (Koord.), *El Trabajo Social y su acción profesional* (pp. 227-250). Nau Llibres.
- Aguilar, M^a José. (2013). *Trabajo Social, concepto y metodología*. Paraninfo.
- Aguilar, M^a José. (2010). Modelos de intervención social con inmigrantes e multiculturalidad: un análisis crítico. *Inguruak*, 1, 16.
- Alayon, Noberto. (1989). *Asistencia y asistencialismo. ¿Pobres controlados o erradicación de la pobreza?*. Humanitas.
- Alemán, Carmen. (2010). Situación actual y perspectivas de los servicios sociales en España. In C. Alemán, J.M^o Alonso eta P. Fernández (Ed.), *Fundamentos de servicios sociales* (pp. 299-308). Tirant to Blanch.
- Alemán, Carmen., Alonso, Jose M^o. eta Garcia, Mercedes. (2011). *Servicios Sociales Públicos*. Tecnos.

- Alinsky, Saul. (2012). *Tratado para radicales. Manual para revolucionarios pragmáticos*. Traficantes de Sueños.
- Anaut-Bravo, Sagrario. (2019). *El sistema de servicios sociales en España*. Aranzadi.
- Ander-Egg, Ezequiel. (1982). Proceso metodológico en el trabajo social comunitario. *Revista de Servicios Sociales y Política Social*, 66, 37-61.
- Ander-Egg, Ezequiel. (1987). *La problemática del desarrollo de la comunidad*. Humanitas.
- Ander-Egg, Ezequiel. (1992). *Repensando la Investigación Acción Participativa. Comunitarios, Críticas y sugerencias*. Eusko Jaurlaritza.
- Ander-Egg, Ezequiel. (2003). *Metodología y práctica del desarrollo de la comunidad. ¿Qué es el desarrollo de la comunidad?*. Lumen.
- Arateko. (2016). Udal Gizarte-Zerbitzuen egoera Euskal Autonomia Erkidegoan. Ararteko.
- Arenas, Miguel. (2016). ¿Usuarios o ciudadanos? Intervención y participación en las políticas y servicios sociales. *Comunitania*, 11, 27-43.
- Arias, Andrés., Murillo, Fernando., Guillén, Encarna. eta Perez, Dario. (2004). La definición de los Servicios Sociales en las leyes de Servicios Sociales de “Primera” y “segunda generación” en España. *Portularia*, 4, 507-518.
- Ariño, Miren Edurne. eta Ferrán, Ana. (2009). Ikerketa- ekintza- parte hartzea. In C. Guinot (Koord.), *Gizarte lanean erabilitako metodo, teknika eta dokumentuak* (pp. 71-77). Deustuko Unibertsitatea.
- Arrieta, Felix. (2019). *El archipiélago del bienestar*. La Catarata.
- Arrieta, Elisabet. (2005). Administrazio publikoa eta parte-hartzea: Altzako Garapen Komunitario Plana (Donostia). *Uztaro*, 54, 75-84.
- Aznar, Juana. eta Azorín, Ester. (2010). Características del mercado de trabajo español actual y sus consecuencias sobre el riesgo de exclusión social. *Revista de documentación social*, 150, 63-80.
- Asociación Estatal de Directores y Gerentes en Servicios Sociales. (2022). *Índice de desarrollo de servicios sociales 2021*. Asociación Estatal de Directores y Gerentes en Servicios Sociales.
- Ballester, Marta. (2020). Acompañando equipos de servicios sociales en el impulso de modelos de intervención más comunitarios: sistematización de la

experiencia y compilación de aprendizajes. *Revista de Treball Social*, 219, 101-118. DOI: 10.32061/RTS2020.219.05

- Ballester, Marta. (2015). Intervenció comunitària i rol dels professionals als serveis socials a Barcelona (Catalunya) i Mont-real (Quebec): una anàlisi comparada. (Doktorego Tesia. Universitat de Barcelona, Katalunia). https://www.tdx.cat/bitstream/handle/10803/390949/MBF_TESI.pdf?sequence=1&isAllowed=y -tik errekueratua.
- Barba-Solano, Carelos. (2010). La nueva cuestión social en el mundo y en América Latina: más allá de la pobreza. *Reglones, revista arbitrada en ciencias sociales y humanidades*, 62, 25-44.
- Barbero, Josep Manuel. (Zuzen.). (2009). *Treball social a Catalunya: 1932-1978*. Colegi Oficial de Diplomats en Treball Social i Assistents Socials de Catalunya: Hacer.
- Barbero, Josep Manuel. eta Cortés, Ferrán. (2005): *Trabajo Comunitario, organización y desarrollo social*. Alianza.
- Barranco, Carmen. (2004). Los modelos de intervención en Trabajo Social desde las Perspectivas Paradigmáticas de las Ciencias Sociales. Introducción a los modelos críticos en lo comunitario y en la calidad de vida. *Servicios Sociales y Política Social*, 66, 9-36.
- Barreix, Juan. eta Castillejos, Simón. (1997). *Metodología método en trabajo social*. Espacio.
- Bastidas, Viviana., Holguí, Keila. eta Obando, Carol. (2020). Octavia Hill y sus aportes en el origen de Trabajo Social en la Inglaterra del siglo XIX. *Revista Trabajo Social*, 22, 203-223.
- Bauman, Zygmunt. (2003). *Comunidad. En busca de seguridad en un mundo hostil*. Siglo XXI.
- Bauman, Z. (2000): *Liquid Modernity*. Polity Press.
- Beck, Ulrich. (2006). *La sociedad del riesgo. Hacia una nueva modernidad*. Fondo de Cultura económica.
- Berasaluze, Ainhoa. eta Berri-Otxoa, Kontxesi. (2008). Gizarte Langintzaren jardute profesionala gaur egun. *Zerbitzuan*, 44, 31-37.
- Berasaluze, Ainhoa., Media, Irantzu eta Aranguren, Eurne. (2011). *Komunitateko Gizarte Langintzaren oinarri teorikoak*. UPV/EHU.

- Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiken Saila. (2021). *EAEko Gizarte zerbitzuei buruzko I.Plan estrategikoaren ebaluazioa*. Eusko Jaurlaritzza. https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/planes_ss/eu_planes/adjuntos/EVALUACION-DEL-I-PESS- EU.pdf tik berreskuratua.
- Bermejo, Lourdes. (2014). Los profesionales en el modelo de ACP. In P. Rodríguez. eta A. Vilà i Mancebo (Koord.), *Modelo de atención integral y centrada en la persona: teoría y práctica en ámbitos del envejecimiento y la discapacidad* (pp. 332-344.or). Tecnos.
- Blanco, M^a Luisa. (2019, ekainaren 14a). *Innovando en la intervención comunitaria y la gestión integrada y participada de los servicios sociales*. [Ponentzia]. Gizarte Zerbitzuen Berrikuntza eta Kudeaketako graduondokoaren itxiera jardunaldia, Gasteiz.
- Blas, Asier. (2008). *Politika eta administrazio analisirako metodologia eta teknikak*. UEU.
- Breuer, Franz. (2003). Subjectivity and reflexivity in the social sciences: epistemic windows and methodical consequences. *Forum: Qualitative Social Research Sozialforschung*, 4 (2), 25.artik.
- Bricker-Jenkins, Mary. eta Hooyman, Nancy. R. (1986). *Not for women only: Social work practice for a feminist future*. NASW.
- Bujan, Miren Karmele. (2001). “Kasu Azrteketa” metodoaren izaera: Kasu azterketaren diseinua EHUKo hainbat tesi lanetan. *Revista de psicodidáctica*, 11-12, 133-142.
- Bilbo Udala. (2013). *Plan Comunitario de Bilbao La Vieja, San Francisco y Zabala. Memoria 2013*. Bilboko Udala.
- Bilboko Udala. (2011). *Plan global comunitario de Bilbao La Vieja, San Francisco y Zabala, Segunda Fase*. Bilboko Udala.
- Bilboko Udala. (2009). *Informe sobre el mapa de situación de Bilbao La Vieja, San Francisco y Zabala*. Bilboko Udala.
- Brugué, Quim. (2022). *Organizaciones que saben, organizaciones que aprenden*. Instituto Nacional de la Administración Pública.
- Caballero Basáñez, Carlos. (2022ko uztaailaren 9a). *Cuerda Montoya, José Ángel. Auñamendi entziklopedia*. <https://aunamendi.euskotikaskuntza.eus/es/cuerda-montoya-jose-angel/ar-50697/> tik berreskuratua.

- Capilla, Andrea. eta Villadóniga, José Carlos. (2004). *Pioneros del trabajo social. Una apuesta por descubrirlos*. Erakusketa bibliografikoa, Universidad de Huelva. <http://rabida.uhu.es/dspace/bitstream/handle/10272/3040/b13438177.pdf;jsessionid=B220CD2836CD6047AD2072106244BB09?sequence=1> –tik errekueratua.
- Carbonero, M^o Antonia., Caro, Fernanda., Maestre, Joana., Oliver, Miquel Angel. eta Socias, Carlota. (2012). Reconceptualizando los servicios sociales. Recuperar el trabajo social comunitario como respuesta al nuevo contexto generado por la crisis. *Documentos de Trabajo Social*, 51, 9-25.
- Casado, Demetrio. eta Guillén, Encarna. (2001). *Manual de servicios sociales*. CSS
- Castel, Sergio. (2010). La participación ciudadana en el ámbito local: experiencias. *Revista De Estudios De La Administración Local Y Autonómica*, 312, 183–208. <https://doi.org/10.24965/reala.v0i312.9815>
- Cívicos, M^a Asunción, eta Hernández, Manuel. (2007). Algunas reflexiones y aportaciones en torno a los enfoque teóricos y prácticos de la investigación en trabajo social. *Acciones e investigaciones sociales*, 23, 25-55.
- Collins, Patricia. H. (2000). *Pensamiento feminista Negro: El conocimiento, la conciencia y la política de empoderamiento*. Routledge.
- Corbetta, Piergiorgio. (2007). *Metodología y técnicas de investigación social*. McGraw Hill.
- Corral, Lucila., Días, Sebastian. eta Sarasa, Ana. (1998). *Seguimiento de los servicios sociales comunitarios. Propuesta de un sistema de indicadores*. Siglo XXI.
- Cruells, Marta. (2012). La interseccionalidad entre las luchas por la igualdad en el 15 M; avances destacados. *Viento Sur*, 123, 54-60.
- Cruz, Angélica., Reyes, M^o José. eta Cornejo, Marcela. (2012). Conocimiento Situado y el Problema de la Subjetividad del Investigador/a. *Cinta moebio*, 45, 253-274.
- Cuenca, Mercedes. (2021). Orígenes éticos e ideológicos del Trabajo Social comunitario: la importancia de volver la vista atrás. *Revista de Treball Social*, 220, 31-49.

- Davis, Angela. (2016). *Askatasuna, etengabeko borroka bat. Ferguson, palestina eta mugimendu baterako oinarriak*. Katakarak.
- De la Red, Natividad. (1993). *Aproximaciones al trabajo social*. Siglo XXI.
- Del pino, Eloisa. eta Rubio, M^a Josefa. (2013). El estudio comparado de las transformaciones del Estado de Bienestar y las políticas sociales: definiciones, metodología y temas de investigación. In E. Del Pino eta M^a J. Rubio (Ed.), *Los Estados de bienestar en la encrucijada* (pp.27-68). Tecnos.
- Denzin, Norman K. eta Lincoln, Ivonna. (2012). *Las estrategias de la investigación cualitativa*. Gedisa.
- Departamet de Drets Socials. (2022). *Document de bases per a un marc de referència del treball comunitari als serveis socials bàsics*. Generalitat de Catalunya.
https://dixit.gencat.cat/web/.content/home/04recursos/02publicacions/02publicacions_de_bsf/11serveis_socials/documents_base_marc_referencia_treball_comunitari_serveis_socials_basics/document_bases_marc_referencia_treball_comunitari_serveis_socials_basics.pdf tik berreskuratua.
- Departament de Treball, Afers Socials i Famílies. (2021). *Pla estratègic de serveis socials 2021-2024*. Generalitat de Catalunya.
https://dretssocials.gencat.cat/web/.content/03ambits_tematic/15serveissocials/pla_estrategic_serveis_socials/Pla_estrategic_serveis_socials_catalunya_NOU/01_Plana_principal/1.-2020-12-29-Pla-estrategic-de-serveis-socials-2021-2024.pdf tik berreskuratua.
- Dominelli, Lena. (1997). *Anti-Racist Social Work*. Macmillan Press.
- Donostiako Udala. (2002). *Altza auzoa Berritzeko Ekintza Plan Integrala*. Donostia. Donostiako Udala.
- Duarte, Cory Marcela. (2017). Trabajo social comunitario: perspectivas teóricas, metodológicas, éticas y políticas. (Doktorego tesia. Universidad Complutense de Madrid, Madrid).
<https://eprints.ucm.es/id/eprint/42891/1/T38834.pdf> -tik errekeratua.
- Egin Ayllu. (2015). Las vecindades vitorianas: una experiencia histórica de comunidad popular preñada de futuro. *Empiria*, 31, 201-209.
- Escartín, M^a José. (1998). *Manual de Trabajo Social. Modelos de la práctica profesional*. Aguacilara.

- Esping-Andersen, Gosta. (1993). *Los tres mundos del Estado de Bienestar*. Institució Alfons el Magnanim.
- Europar Kontseilua. (1961). *Europako Karta Soziala*. Europar Kontseilua.
- Eusko Jaurlaritza, Enplegu eta Gizarte Politiken Saila. (2016). *Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen plan estrategikoa*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. https://www.ogasun.ejgv.euskadi.eus/r51-catpub/es/k75aWebPublicacionesWar/k75aObtenerPublicacionDigitalServlet?R01HNoPortal=true&N_LIBR=051853&N_EDIC=0001&C_IDIOM=eu&FORMATO=.pdf tik berreskuratua.
- Eusko Jaurlaritza, Enplegu eta Gizarte Politiken Saila, Estatistika Organo Berezia. (2019). *Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzaren Estatistika, Gizarte Zerbitzuen gastu publikoa 2014-2017*. https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/informes_essec/eu_def/2014-2017ko-Txostena-GZEZE-GZGP-2014-2017.pdf tik berreskuratua.
- Eusko Jaurlaritza, Enplegu eta Gizarte Politiken Saila, Estatistika Organo Berezia. (2019). *Gizarte beharrezanaren galdetgia, 2018 pobrezia*. https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/_epds_2018/es_epds2012/data/Informe%20EPDS%202018_FINAL.pdf tik berreskuratua.
- Fantova, Fernando. (2022, martxoak 16). *La acción comunitaria en el marco de las políticas sociales: significados y perspectivas* [Mezua blog batean]. <http://fantova.net/?p=3719> tik berreskuratua.
- Fantova, Fernando. (2021). *Glosario en intervención social*. [PDF fitxategia]
- Fantova, Fernando. (2021, urtarrilak 11). *Vectores de la acción comunitaria* [Mezua blog batean]. <http://fantova.net/?p=3233> tik berreskuratua.
- Fantova, Fernando. (2020, maiatzak 11). *Una teoría del cambio social (nada menos)* [Mezua blog batean]. <http://fantova.net/?m=202005> tik berreskuratua.
- Fantova, Fernando. (2020, maiatzak 4). *La comunidad, para que no nos roben nuestro miedo* [Mezua blog batean]. <http://fantova.net/?p=2959> tik berreskuratua.
- Fantova, Fernando. (2020, apirilak 27). *Garantizar la subsistencia en tiempos de emergencia* [Mezua blog batean]. <http://fantova.net/?p=2951> tik berreskuratua.

- Fantova, Fernando. (2020, martxoak 16). *Necesidad, limitaciones, potencialidades, riesgos y condiciones de las respuestas comunitarias* [Mezua blog batean]. <http://fantova.net/?p=2888> tik berreskuratua.
- Fantova, Fernando. (2020, martxoak 2). *Hacia una definición de los servicios sociales* [Mezua blog batean]. <http://fantova.net/?p=2874> tik berreskuratua.
- Fantova, Fernando. (2020). Tindran futur els nostres serveis socials després de la pandèmia del Covid-19?, 26, 10-15. <https://ajuntament.barcelona.cat/dretssocials/sites/default/files/revista/revista-barcelona-societat-26-cat.pdf> . Accessed 25 september 2020.
- Fantova, Fernando. (2019, urriak 7). *¿Estamos a tiempo de reiniciar la vida comunitaria?* [Mezua blog batean]. <http://fantova.net/?p=2714> tik berreskuratua.
- Fantova, Fernando. (2019ko ekainaren 24). Intervención social: ¿Hacerse cargo u ofrecer apoyos? [Mezua blog batean]. <http://fantova.net/?m=201906> etik berreskuratua.
- Fantova, Fernando. (2019, maiatzak 21). *¿Apostar por la comunidad?* [Mezua blog batean]. <http://fantova.net/?p=2604> tik berreskuratua.
- Fantova, Fernando. (2019). Naturaleza y esencia de los servicios sociales del futuro: el objeto a proteger y promover. In X. Pelegrí (Koord.), *El futur dels Serveis Socials* (pp.23-41). Fundació Apip-Acam.
- Fantova, Fernando. (2017, irailak 19). *El objeto de los Servicios Sociales* [Mezua blog batean]. <http://fantova.net/?p=1949> tik berreskuratua.
- Fantova, Fernando. (2014). *Diseño de políticas sociales: Fundamentos, estructura y propuestas*. CCS
- Fernandez, Tomás. eta López, Antonio. (2008). *Trabajo Social Comunitario: afrontando justos los desafíos del siglo XXI*. Alianza.
- Ferrer-Aracil, J.; Giménez-Bertomeu, V. M eta Cortés-Florín, E. M. (2022). Participación comunitaria durante la pandemia por COVID-19: un estudio exploratorio en la provincia de Alicante. Cuadernos de trabajo social, 35(2), 307-317.
- Fisher, Roger. (2005). *History, Context, and Emerging Issues for Community Practice*.
- Freire, Paulo. (1978). *Os Cristãos e a Libertação dos Oprimidos*. BASE

- Friedlander, Walter. Z. (1969). *Conceptos y métodos del servicio social*. Kapeluz.
- Foessa Fundazioa. (2019). *Informe sobre exclusión y desarrollo social en el País Vasco*. Cáritas.
- Gallardo, M^a del Castillo. (2011). *Manual de Servicios Sociales Comunitarios*. Síntesis.
- Gandarias, Itziar. (2016). De la unidad a lo común: hacia una articulación feminista de las diferencias. La experiencia de la plataforma de la Marcha Mundial de Mujeres de euskal Herria. *Universitas humanística*, 85, 361-387.
- Gasteizko Udala. (2016). *Gizarte Politiken plan estrategikoa 2016-2020*. Gasteizko Udala. <https://www.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/eu/43/72/74372.pdf> tik berreskuratua.
- Gasteizko Udala. (2000). *El ocio y los centros cívicos en Vitoria-Gasteiz*. Gasteizko Udala. https://www.vitoria-gasteiz.org/wb021/was/contenidoAction.do?idioma=en&uid=pub_45 tik berreskuratua.
- Gasteizko Udala. (2021, martxoak 20). *Gizarte Zerbitzuak*. https://www.vitoria-gasteiz.org/wb021/was/contenidoAction.do?idioma=en&uid=pub_45 etik berreskuratua.
- Gipuzoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseilua. (2018). *Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen mapa 2018-2021*. http://www.behagi.eus/files/informes/gipuzkoako_gizarte_zerbitzuen_mapa_2018_2021.pdf tik berreskuratua.
- Gizarte Langintzako Kontseilu Orokorra. (2020ko apirilak 4). *Servicios Sociales atala*. https://www.cgtrabajosocial.es/ejes_sss_inicio tik berreskuratua.
- Gizarte Langintzako Kontseilu Orokorra. (2019). *III Informe sobre los Servicios Sociales en España*. Gizarte Langintzako kontseilu orokorra. https://www.cgtrabajosocial.es/files/5de783c0056f8/ISSE_III_WEB.pdf tik berreskuratua.

- Gizarte Zerbitzuen Foru Erakundea. (2016). *Mapa de Servicios Sociales del territorio histórico de Álava 2016-2019*. <https://www.dataraba.eus/eu/ver-biblioteca-novedad/no-518610/> tik berreskuratua.
- Gizarte Langintzako Kontseilu Orokorra (Ed.) (2013). *Gizarte Langintzako Kode Deontologikoa*. <https://bit.ly/www.cgtrabajosocial.com/app/webroot/files/gipuzkoa/files/Collegio/codigo-espanol-euskera-FINAL.pdf>
- Godàs, Xavier. (2022). De las comunidades a la acción social. *Zerbitzuan*, 76, 99-108.
- Gomez, Rosa. (2010). Una Metodología de Intervención Social. Aplicación práctica de la relación de ayuda desde el método de Trabajo Social, *Documentos de Trabajo Social*, 47, 168-183.
- Haraway, Donna. (1995). *Ciencia, cyborg y mujeres. La reinención de la naturaleza*. Ediciones Cátedra.
- Harvey, David. (2003). *Espacios de esperanza*. Akal.
- Hernandez- Echegaray, Arantxa. (2019). Retos de los Servicios Sociales en España según la opinión experta en Trabajo Social. *Alternativas, Cuadernos de Trabajo Social*, 26,123-150. doi: 10.14198/ALTERN2019.26.06
- Hernández, Jesús. (2009). *Trabajo Social comunitario en la sociedad individualizada*. Nau llibres.
- Hernandez, Jesus. eta Braco, Leire. (2009). El Trabajo Social Comunitario en España: una aproximación a la historia y a la actualidad. In J. Hernandez (Konp.), *Trabajo social comunitario en la sociedad individualizada* (pp. 17-38). Nau Llibres.
- Hernandez, Jesús. (1990). *Pedagogía del ser: aspectos antropológicos y emancipatorios de la pedagogía de Paulo Freire*. Prensas Univeristarias.
- Hernández, Roberto., Fernández, Carlos. eta Baptista, Pilar. (2006). *Metodología de la investigación*. McGraw Hill.
- Ibañez, Jesús. (1992). *Más allá de la sociología. El grupo de discusión: técnicas y crítica*. Siglo XXI.
- Iruñeko Alde Zaharreko Plan Komunitarioko talde motorra (2006). PLANa, *Iruñeko Alde Zaharreko Komunitate Plana*. Iruña.

- Kisnerman, Natalio. (1998). *Pensar el trabajo social: una introducción desde el construccionismo*. Lumen.
- Jones, Owen. (2015, arazoak 22). *Salvados: Viva la clase media. No puedes enfadarte con el Gobierno por recortar, sino con el parado* [Bideo]. https://www.youtube.com/watch?v=jksq5suRYkk&list=PLn_8py9wLkw4SNPi-9T7ymWsjAneWxGvV&index=8&t=0s tik berreskuratua.
- Jaraíz, German. (2011). *Intervención social, Barrio y Servicios Sociales Comunitarios*. Foessa Fundazioa.
- Juaristi, Patxi. (2003). *Gizarte ikerketarako teknikak, teoria eta adibideak*. UPV/EHU.
- Las Heras, Patrocinio. (2019). *Trabajo Social y Servicios Sociales, Conocimiento y Ética*. Paraninfo.
- Lazar, Florin., Mihai, Anca., Gaba, Daniela., Cioanel, Alexandra., Rentea, Georgiana. eta Munch, Sarai. (2018). Romanian social workers facing the challenges of neo-liberalism. *European Journal of Social Work*. 22, 326-337. doi: 10.1080/13691457.2018.1540405
- Llena, Asun., Parcerisa, Artur. eta Úcar, Xavier. (2009). *10 ideas clave. La acción comunitaria*. Graò.
- Llena, Asun. eta Ucar, Xavier. (2006). Acción comunitaria: miradas y diálogos interdisciplinares. In Llena, Asun. eta Úcar, Xavier. (Koord), *Miradas y diálogos en torno a la acción comunitaria* (pp. 11-57.or). Graò.
- Lillo, Nieves. eta Roselló, Elena. (2004). *Manual para el trabajo social comunitario*. Narcea.
- Linderman, Eduard. (1921). *The community: An introduction to the study of community leadership and organization*. Association Press.
- Llobet, Marta. (2004). Trabajo social comunitario como una oportunidad y una estrategia para poder re-pensar, trans-formar y co-construir la organización de la atención primaria de servicios sociales. *Servicios Sociales y Política Social*, 66, 63-89.
- Llobet, Marta., Cortés, Ferrán., Alemany, Rosa. eta Ainsa, Conxa. (2004). Investigación en Trabajo Social Comunitario: la construcción de prácticas participativas. *Servicios sociales y Política social*, 66, 91-112.

- Malagon, Jose Luís. (1999). *Fundamentos del Trabajo Social Comunitario: Bases teóricas y metodológicas para la intervención comunitaria*. Aconcagua.
- Manovel, M^a Jesús. (1972). Objetivo y metodo del desarrollo comunitario en España. *Documentación Social*, 6, 27-42.
- Marbán, Vicente. (2008). *Cuadernos de debate 4. Los equilibrios del Tercer Sector, Una filosofía del pluralismo de funciones*. http://www.observatoritercersector.org/pdf/ponencias/2008_06_Cuaderno_T_S_IV.pdf etik berreskuratua.
- Marchioni, Marco. (1987). *Planificación social y organización de la comunidad*. Popular.
- Marchioni, Marco. (1983). Elementos (o apuntes) para una historia del desarrollo comunitario en España. *RTS. Revista de Treball Social*, 89, 6-9.
- Marchioni, Marco. (2001). *Comunidad, participación y desarrollo. Teoría y metodología de la intervención comunitaria*. Popular
- Marchioni, Marco. (2014). Políticas sociales y dimensión comunitaria. *Voces Inmigrantes*, 20, 10-11.
- Marchioni, Marco. (2015, azaroaren 26-27). *Desarrollo social, democracia y participación*. [Ponentzia]. I Jornadas de Participación y sociedad, Extensión Universitaria UNED, Lanzarote.
- Marco Marchioni, Marco. eta Morín, Luz. (2016). La intervención comunitaria. *Comunidad*, 2(18), 11.
- Martinez-Palacios, Jone. (2020). La interseccionalidad como herramienta analítica para la praxis crítica del Trabajo Social. *Cuadernos de Trabajo Social*, 33 (2), 379-390. <http://doi.org/gmgz8b>
- Martinez, Teresa., Díaz-Veiga, Paura., Sancho, Mayte eta Rogriguez, Pilar. (2014). *Modelo de atención centrada en la persona, Cuadernos prácticos*. Eusko Jaurlaritzza eta Matia Fundazioa. <https://www.matiainstituto.net/eu/argitalpenak/pertsonarengan-ardaztutako-arreta-eredua-koaderno-praktikoak-1-zenbakia-zertan-datza> en berreskuratua.
- Martinez, Lucia. eta Perez, Begoña. (2017). El modelo de Atención primaria de Servicios Sociales a debate: dilemas y reflexiones profesionales a partir del caso de Navarra. *Cuadernos de Trabajo Social*, 31 (2), 333-343.

- Miranda, Miguel. (2003). Pragmatismo, interaccionismo simbólico y Trabajo Social. De cómo la caridad y la filantropía se hicieron científicas. (Doktorego tesia, Universitat Rovira y Virgili, Tarragona) . http://tdcat.cbuc.es/bitstream/handle/10803/8406/tesis_completa.pdf?sequence=22 –tik errekuratua.
- Moix, Manuel. (1991). *Introducción al Trabajo Social*. Trivium.
- Morley, Crhistine. eta O´Bree, Charlie. (2021). Critical reflection: An Imperative Skill for Social Work Practice in Neoliberal Organisations?. *Social Sciences*, 97 (310), 2-17. <https://doi.org/f55s>
- Moreno, Luis. eta Mari-Klose, Pau. (2016). Bienestar mediterraneo: Trayectorias y retos de un régimen en transición. In E. Del Pino. eta M J. Rubio (Ed.), *Los Estados de Bienestar en la encrucijada*(pp. 126-145). Tecnos.
- Morín, Luz. eta Blanco Mª Luisa. (2022). Escenarios y estrategias para promover con eficacia el trabajo comunitario en tiempos de asistencialismo: en memoria de Marco Marchioni. *Servicios Sociales y Política Social*. 127, 117-130.
- Murray, George. (1960). *Organización comunitaria*. Católica.
- National Asociation of Social Workers. (1992). *NASW Standards for Social Work Case Management (Washington DC)*. National Asociation of Social Workers.
- Nazio Batuen Erakundea. (1948). *Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala*. https://www.ohchr.org/sites/default/files/UDHR/Documents/UDHR_Translations/bsq.pdf tik berreskuratua.
- Nazio Batuen Erakundeko Gizarte eta ekonomia kontseilua. (1955, uztaiaren 5-abuztuaren 5). 1. Gehigarria. *Ebazpenak, 20º Período de sesiones*, Ginebra. In: <http://www.un.org/es/comun/docs/?symbol=E/2795>
- Navarro, Belen. (2022, azaroak 13). *Una relación tóxica* [Mezua blog batean]. <https://trabajosocialytal.com/2022/11/una-relacion-toxica> tik berreskuratua.
- Navarro-Perez, J. Javier., Botija-Yagüe, Mª Mercedes. eta Martinez-Reyes, Alberto. (2018). Del acceso ala fragmentación del bienestar: Los servicios sociales de atención y desarrollo local en España. *G&DR*, 14, 3-25.

- Navarro, Silvia. (2015, martxoak 6). *En busca del fuego en la intervención social: vindicación de lo comunitario, artesanía de lo relacional* [Ponentzia]. El Servicio Social Municipal del Ayuntamiento de Bilbao, hacia un modelo más comunitario y relacional. http://www.rayuelacreactiva.com/images/stories/pdf/int_social_fuego.pdf tik berreskuratua.
- Navarro, Silvia. (2004). *Redes sociales y construcción comunitaria. Creando (con)textos para una acción social ecológica*. CSS.
- Nogueiras, Luis. (1996). *La práctica y la teoría del Desarrollo Comunitario, descripción de un modelo*. Narcea.
- Ovejas, Charo. eta Berasaluze, Ainhoa. (2019). Suposizio praktikoak gizarte langintzan: ebazpenerako diseinua. *Zerbitzuan*, 70, 111-130.
- Parra, Gustavo. (2004). Aproximaciones al desarrollo del Movimiento de Reconceptualización en América Latina. XVIII Seminario Latinoamericano de Escuelas de Trabajo Social <http://www.ts.ucr.ac.cr/binarios/congresos/reg/sllets/sllets-018-042.pdf> -tik errekueratua.
- Parra, Gustavo. (2002). Los proyectos socioprofesionales den el Trabajo Social argentino: Un recorrido histórico. In JP.Nettor (Ed.), *Nuevos escenarios y prácticas profesionales. Una mirada crítica desde el Trabajo Social*. Espacio.
- Pastor, Enrique. (2015). *Trabajo Social con Comunidades*. Universitas.
- Peña, Wilmar. (2009). El estudio de caso como recurso metodológico apropiado a la investigación en ciencias sociales. *Educación y Desarrollo Social*, 3 (2), 180-195.
- Perez-Orozco, Amaia. (2015). La sostenibilidad de la vida en el centro... ¿Y eso que significa?, In Mora, L. eta Escribano, J. (Koord.), *La ecología del trabajo: El trabajo que sostiene la vida* (pp. 71-100). Bomarzo.
- Pérez, Eulalia. (2011). El conocimiento situado. *Investigación y ciencia*, 414, 36-37
- Picó, Jodes. eta Serra, Inmaculada. (2010). *La escuela de Chicago de Sociología*. Siglo XXI.
- Pino del, Dolores. (1996). *Proyecto Docente*. Universidad de Granada.

- Plataforma de ONG de Acción Social (2012). *Diagnóstico del Tercer Sector de Acción Social*. Plataforma de ONG de Acción Social.
- Platero, Raquel. L. (2014). Metáforas y articulaciones para una pedagogía crítica sobre la interseccionalidad. *Cuadernos de Psicología*, 16, 55-72.
- Popple, Keith. (1995). *Analysing community work. Its theory and practice*. Open University Press.
- Prat, Núria. eta Simó, Núria. (2022). Mujeres transformando el espacio público de Sant Roc. ¿Qué aporta el Trabajo Social Comunitario?. *Itinerarios de Trabajo Social*, 2, 95-104.
- Ramos-Fijó, Clarisa. (2016ko urria). *Trabajo Social Comunitario desde el modelo de atención integral y centrada en la persona*. III. [Ponentzia] Gizarte Langintzako Nazioareko Kongresuan aurkeztutako komunikazioa.
- Rey, Ana María. (2015). Atención integral centrada en la persona. In C. Bartolomé., C. Bembibre. eta J. Barranco (Koord.), *Herramientas para la reflexión de la práctica de la intervención social* (pp. 205-221). El genio maligno.
- Robertis de, Cristina. eta Pascal, Henri. (1994). *La intervención colectiva en trabajo social. La acción con grupos y comunidades*. Ateneo.
- Rodríguez, M^a Dolores. (2015). Ciudadanía y participación: conceptos y realidades en Trabajo Social Comunitario. *Azarbe, Revista internacional de Trabajo Social y Bienestar*, 4, 5-12.
- Rodríguez, Pilar. eta Vilà i Mancevo, Antoni. (2014). *Modelo de atención integral y centrada en la persona, Teoría y práctica en ámbitos del envejecimiento y la discapacidad*. Tecnos.
- Rodríguez, Pilar. (2013). La atención integral y centrada en la persona. *Papeles de la Fundación Pílares para la autonomía*, 1.
- Roldan, Elena. (2009ko azaroa). Servicios sociales personales: ¿Última red o cuarto pilar?. [Ponentzia] I. Congreso de la Red Española de Política Social-en aurkeztutako komunikazioa.
- Roldan, Elena., Garcia, M^o Teresa. eta Nogués, Luís. (2013). *Los Servicios sociales en España*. Síntesis.

- Roland, Brake. (2009). Trabajo Social Comunitario. In J. Hernandez (Konp.), *Trabajo social comunitario en la sociedad individualizada* (pp. 93-103). Nau Llibres.
- Rosell, Teresa. (1994). Los grupos y el trabajo social comunitario. La situación de lo comunitario hoy. In *Actas del I Seminario Estatal de Trabajo Social Comunitario*. Instituto de Ciencias de la Educación.
- Rothman, Jack. eta Tropman, John. (1970). Models of Community Organization and Macro Practice Perspectives: Treir Mixing and Phasing. In F.M. Cox., J.L Erlich., J. Rothman. eta J. Tropman. (Eds.), *Strategies of Community Organization* (pp. 3-25). F. E. Peacock.
- Rosanvallon, Pierre. (1995). *La nueva cuestion social: Repensar el Estado Providencia*. Manantial.
- Royo, Isabel. (1997). De la Organizacion comunitaria al Desarrollo comunitario en Trabajo social: un paso, un abismo? *Revista de Servicios Sociales y Política Social*, (40), 27-42.
- Rubio, M^a Jose. eta Varas, Jesús. (2004). *El análisis de la realidad en la intervención social, Métodos y técnicas de investigación*. Editorial CCS.
- Ruíz Moreno, Beatriz. (2014). *La impronta del modelo asistencialista en la función provisora del Tercer Sector de Acción Social* [Universitat De Les Illes Balearsen egindako gradu amaierako lana].
- Ruíz Olabuenaga, J. Ignacio. (1996). *Metodología de la investigación cualitativa*. Deustuko Unibertsitatea.
- Ruiz Olabuenaga, J. Ignacio. eta Ispizua M. Antonia. (1989). *La descodificación de la vida cotidiana. Métodos de investigación cualitativa*. Deustuko Unibertsitatea.
- Sanchez, Sergio. (2020). La transformación de la solidaridad familiar desde los servicios sociales básicos en España. *Papers*, 106, 95-118.
- Sancho, Jordi. (2009). Por una reconstrucción del concepto de comunidad que sea de utilidad para el trabajo social. In J. Hernandez (Konp.), *Trabajo social comunitario en la sociedad individualizada* (pp. 55-92). Nau Llibres
- Salvador, Mar. (2019ko azaroak 19). *Hacia un nuevo modelo de servicios sociales que implique a la ciudadanía* [Ponentzia] Mesa redonda: Por un modelo de servicios sociales que implique a la ciudadanía, Madril.

- Santás, Jose Ignacio. (2022). Trabajar con la comunidad desde los servicios sociales hoy. *Documentación Social*, 11.
- Santos, Joaquín. (2012). *El cuarto pilar*. CGTS Paraninfo.
- Sarasola, José., González, Juan Manuel. eta Rioz, Alicia. (2019). La importancia del trabajo social comunitario. *Azarbe Revista internacional de trabajo social y bienestar*, 8, 81-87.
- SIIS. (2019). Revisión de tendencias, innovaciones y buenas prácticas en el ámbito de los servicios sociales. *Zerbitzuan*, 70, 6-31.
- Subirats, Joan. (2007). *Los Servicios Sociales de Atención Primaria ante el cambio social*. Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales.
- Telleria, Imanol. (2008). Los planes comunitarios de Altza (Donostia) y el Casco Viejo de Pamplona: un breve análisis comparado. In Z. Martinez eta A. Blas (Koord), *Poder político y participación = Demokrazia: ogi gogorri hagin zorrotza* (pp. 337-356). Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Travi, Bibiana. (2011). Conceptos e ideas clave en la obra de Mary Ellen Richmond y la vigencia actual de su pensamiento. *Cuadernos de Trabajo Social*, 24, 57-67.
- Twelvetrees, Alan. (1988). *Treball de Comunitat*. Portic.
- Universidad Tecnológica de Chile, Inacap, Área de trabajo social. (2021). Manual de elaboración y evaluación de Tesis de Grado Académico. Trabajo Social. Inacap. https://www.academia.edu/18983016/MANUAL_TESIS_I_II_TRABAJO_SOCIAL tik berreskuratua.
- Uribe, Joan. (2019). Rellenando espacios: hacia una ordenación de los sistemas de servicios sociales desde la respuesta a la complejidad. *Zerbitzuan*, 68, 75-90.
- Velasco, Koldobike. eta Blanco, M^a Luisa. (2020). Marco Marchioni: Trabajo Comunitario y democracia Participativa. *Documentación social*, 5,.
- Velasco, Margarita. (2018). *Desarrollo Comunitario*. Paraninfo.
- Viscarret, Juan Jesus. (2011). Modelos de intervención en trabajo social. In T. Fernández (Koord.), *Fundamentos del Trabajo Social* (pp. 293-344). Alianza.

- Viscarret, Juan Jesús. (2009). Modelos de intervención en Trabajo Social. In T. Fernández. (Koord.), *Fundamentos del trabajo social* (pp. 293-344). Alianza.
- Weil, Marie. (2005). Context and challenges for 21st century communities. In M. Weil. (Ed), *The Handbook of community practice* (pp. 3-33). SAGE.
- Weil, Marie. eta Gamble, Dorothy. (2005). Evolution, models and the changing context of community practice. In M.Weil. (Ed), *The Handbook of community practice* (pp. 117-150). SAGE.
- Wiesenfeld, Esther. (2000). The researcher's place in qualitative inquiries: unfulfilled promises?. *Forum: Qualitative Social Research Sozialforschung*, 1 (2), 30.artik.
- Zabalo, Julen. eta Moreno, Gorka. (2011). *Gizarte Zerbitzuen oinarriak*. UPV/EHU.
- Zabalo, Julen. (2008). *Gizarte- langintzarako sarrera*. UPV/EHU.
- Zalakain, Joseba. (2019). Desigualdades, exclusión y cuidados en el territorio de Euskal Herria: retos, fortalezas, consensos, disensos y posibilidades de avance. In Eusko Ikaskuntza, *Eusko Ikaskuntzaren XVIII: Kongresua, Geroa Elkar-Ekin*. (465-480). Eusko Ikaskuntza.
- Zamanillo, Teresa. eta Nogués, Luis. (2020ko maiatzak 15). Carta abierta a profesionales u políticos de los Servicios Sociales en tiempos de la Pandemia del Covid-19. [Asociación Foro SERVSOCIAL Madrid]. https://4f8bb68a-ed9b-44a6-bdf2-36b119d05fbb.filesusr.com/ugd/8f0dee_a983ce2edd584dc2a32157ef5eca0d38.pdf tik berreskuratua.
- Zamanillo, Teresa. (2018). *Epistemología del Trabajo Social. De la evidencia empírica a la exigencia teórica*. Complutense Edizioak.
- Zamanillo, Teresa. (2008). *Trabajo Social con grupos y pedagogía ciudadana*. Síntesis.
- Zamanillo, Teresa. eta Gaitan, Lourdes. (1991). *Para comprender el trabajo social*. Verbo Divino.
- Zubillaga-Herran, Nerea. eta Berasaluze, Ainhoa. (2021). Gizarte-zerbitzuak eta gizarte-langintza: zein da zein?, *Zerbitzuan*, 75, 43-55.


- Zuñiga, Martin. eta Arrieta, Felix. (2021). Analizando la función de la comunidad en el sistema de organización social de los cuidados en Euskadi. *Zerbitzuan*, 74, 65-82.
- Zuñiga, Martin. (2020). La comunidad del siglo XXI. Un marco interpretativo desde el Trabajo Social. *Cuadernos de Trabajo Social*, 33, 197-207.

Araudia

- 185/2015 Dekretua, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazioa eta zerbitzuen zorroari buruzkoa, EHAA 206.zk, 4561(2015). <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2015/10/1504561e.pdf> tik berreskuratua 3/1979
- 12/2008 Legea, abenduaren 5koa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa, EHAA 246.zk 31840 (2008). <https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2008/12/0807143a.pdf> tik berreskuratua.
- 39/2006 Legea, abenduaren 14koa, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoa, EAO 299.zk 44142 (2006). <https://www.boe.es/boe/dias/2006/12/15/pdfs/A44142-44156.pdf> tik berreskuratua.
- 15/2006 FORU LEGEA, abenduaren 14koa, Gizarte zerbitzuei buruzkoa, BOE 152.zk (2006). <http://www.lexnavarra.navarra.es/detalle.asp?r=5910855&d=1>
- 5/1996 Legea, urriaren 18koa, Gizarte Zerbitzuen, EHAA 218.zk, 17578 (1996). <https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/1996/11/9605350a.pdf> tik berreskuratua.
- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubideen Legea, EAO 80.zk (1985). <https://www.boe.es/buscar/pdf/1985/BOE-A-1985-5392-consolidado.pdf> tik berreskuratua.
- LEY 11/1984, de 6 de junio, de Servicios Sociales, BOE 149.zk (1984). <https://www.boe.es/boe/dias/1984/07/24/pdfs/A21851-21854.pdf> tik berreskuratua.
- 27/1983 Legea, abenduaren 10ekoa, Autonomia Elkarte osorako erakundeen eta bertako lurraldeetako Foruzko ihardutze-elkarteen arteko harremanari buruzkoa, EHAA 182.zk 4132 (1983). <https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/1983/12/8302316a.pdf> tik berreskuratua.

- LEY FORAL 14/1983, de 30 de marzo, sobre Servicios Sociales, BUE 148.zk (1983). <https://www.boe.es/eli/es-nc/lf/1983/03/30/14/dof/spa/pdf> tik berreskuratua.
- 6/1982 Legea, maiatzaren 20koa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa, EHAA 71.zk 1263 (1982). <https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/1982/06/8200685a.pdf> tik berreskuratua.
- 3/1979 Lege Organikoa, abenduaren 18koa, EAeko Autonomia Estatutoa, EAO 306.zk (1979). <https://www.boe.es/buscar/pdf/1979/BOE-A-1979-30177-consolidado.pdf> tik berreskuratua.
- Espainiar Konstituzioa, 1978ko abenduaren 29koa, EAO 311.zk (1978). <https://www.boe.es/legislacion/documentos/ConstitucionEUSKERA.pdf> tik berreskuratua.

7. ERANSKINAK



7. ERANSKINAK

1. Eranskina: Adituen elkarrizketen gidoia

Elkarrizketatua:

Data:

Iraupena:

Lekua:

GIDOIA:

- **SARRERA:**
 - Eskerrak eman
 - Aurkezpena
 - Tesiaren aurkezpen laburra
 - Grabatu daiteke?

- **ELKARRIZKETA:**
 - Helburua: Zuen ezagutzatik nire analisirako behar ditudan elementuak osatu, aberastu...
 - Zer ulertzen duzu gizarte zerbitzuekin lotuta.. dimentsio komunitario, ekintza komunitario edo lan komunitario gisa?
 - Gizarte zerbitzuen baitan non kokatuko zenuke dimentsio komunitarioan sakontzeko aukera? Zergatik?
 - Egungo gizartearen ezaugarriek laguntzen al dute sakontze komunitarioan?
 - Alor politikoari erreparatuz.. zeintzuk esango zenituzke direla sakontze komunitarioa emateko elementu gakoak? Edo eman beharrezko aurre elementuak?
 - Borondate politikoa: esplizitua
 - Plan, programa, legeen garapena
 - Inbertsioa: ekonomikoa, teknikoa eta baliabideena.

- Elementu horiek aldatzeko aukera dago ideologia politikoaren arabera? Zergatik? //Egingarriagoa da ideologia politiko jakinetan?
- Maila teknikoari lotuta, zerbitzua berari lotuta, arreta unitateari lotuta... zeintzuk esango zenituzke direla aurrez eman beharreko elementu edo kondizioak sakontze komunitarioa gauzatzeko?
 - Zerbitzuaren antolaketa, kokalekua, ezaugarriak..
 - Lan taldea, profesionalak, dedikazioak...
 - Gizarte Langilearen ezaugarriak, profila..
 - Komunitateko gizarte langintzan formazioa..
 - Zerbitzuak lurraldearekin eta dagoen mugimenduarekin duen elkarrekintza, PHko bideak..
- Lurraldeari erreparatuz, zeintzuk esango zenituzke direla baldintza optimoak estrategia komunitario bat abian jartzeko?
 - Biztanleriaren ezaugarri soziodemografikoak, sozioekonomikoak..
 - Auzoaren baliabideak: publikoak, elkartegintza, pribatuak...
 - Bertan dagoen ekintza kolektiboa, mugimendua, ekintza komunitarioa, gizarte antolatua..
 - Auzoaren izaera (parte hartzailea, aldarrikatzailea...), dinamika, emandako esperientziak, bizipenak...
 - Auzo/herri ikuspegia, identitatea, pertenezia sentimendua...
- Zein da 3. Sektoreak honetan jokatzen duen papera, nola ikusten duzu?
- Beste premisa edo aurrez egon beharreko elementuren bat gehituko zenuke esan ditugunei? Beste alorren bat oso kontuan hartzekoa ikusten al duzu?
- Besterik gehituko zenuke?
- **ESKERRIK ASKO!!!**
 - Norekin hitz egin dezaket honen inguruan?
 - Nire tesiaren emaitza eta lanketak zurekin konpartitu nahiko nituzke.
 - Kontaktuan egongo gara.

2. Eranskina: Politikarien elkarrizketen gidoia

Elkarrizketatua:

Data:

Iraupena:

Lekua:

GIDOIA:

- SARRERA:
 - Eskerrak eman
 - Aurkezpena
 - Tesiaren aurkezpen laburra
 - Grabatu daiteke?
 - Helburua: Gizarte-zerbitzuen dimentsio komunitarioaren inguruan daukazuen ikuspegia eta jarrera ezagutzea.

- ELKARRIZKETA:
 - **Gizarte zerbitzuen inguruko ezagutza eta ulertzeko era.**
 - Nola definituko zenituzke gizarte-zerbitzuak? Eta nola oinarritzko gizarte-zerbitzuak
 - Zer uste duzu eskaintzen diotela gizarte zerbitzuek hiriarri eta auzoei?
 - *Ze iritzi daukazu Gizarte-zerbitzuen kudeaketaren inguruan? (ematen zaion garrantzia, bideratzen den aurrekontua, baliabideak, legea etab.)*
 - *Nola baloratuko zenuke gizarte zerbitzuetatik egiten den lana?*

 - *Zer iruditzen zaizu gizarte zerbitzuetan dagoen lan egiteko modua eta arreta eredu?*
 - Zer ulertzen duzu gizarte zerbitzuekin lotuta dimentsio komunitario, ekintza komunitario edo lan komunitario gisa?
 - Gizarte zerbitzuen baitan non kokatuko zenuke dimentsio komunitarioan sakontzeko aukera? Zergatik?
 - Egungo gizartearen ezaugarriek laguntzen al dute sakontze komunitarioan?

- **Gizarte-zerbitzuetako komunitarioaren dimentsio politikoa**
 - Alor politikoari erreparatuz.. zeintzuk esango zenituzke direla sakontze komunitarioa emateko elementu gakoak? Edo eman beharrezko aurre elementuak?
 - Borondate politikoa: esplizitua
 - Plan, programa, legeen garapena
 - Inbertsioa: ekonomikoa, teknikoa eta baliabideena.

- **Gizarte-zerbitzuetako komunitarioaren dimentsio teknikoa**
 - Maila teknikoari lotuta, zerbitzua berari lotuta, arreta unitateari lotuta... zeintzuk esango zenituzke direla aurrez eman beharreko elementu edo kondizioak sakontze komunitarioa gauzatzeko?
 - Zerbitzuaren antolaketa, kokalekua, ezaugarriak..
 - Lan taldea, profesionalak, dedikazioak...
 - Gizarte Langilearen ezaugarriak, profila..
 - Komunitateko gizarte-langintzan formazioa..
 - Zerbitzuak lurraldearekin eta dagoen mugimenduarekin duen elkarrekintza, PHko bideak..

- **Gizarte-zerbitzuetako komunitarioaren lurralde/erlazio dimentsioa**
 - Lurraldeari erreparatuz, zeintzuk esango zenituzke direla baldintza optimoak estrategia komunitario bat abian jartzeko?
 - Biztanleriaren ezaugarri soziodemografikoak, sozioekonomikoak..
 - Auzoaren baliabideak: publikoak, elkartegintza, pribatuak...
 - Bertan dagoen ekintza kolektiboa, mugimendua, ekintza komunitarioa, gizarte antolatua..
 - Auzoaren izaera (parte hartzailea, aldarrikatzailea...), dinamika, emandako esperientziak, bizipenak...
 - Auzo/herri ikuspegia, identitatea, pertenezia sentimendua...

- **3. Sektorea komunitarioan**
 - Zein da 3. Sektoreak honetan jokatzen duen papera, nola ikusten duzu?
 - Lurraldean: tokiko errealitatearekin hartu-emana
 - Teknikoan: subkontrata. +

- **Gizarte zerbitzuetako dimentsio komunitarioaren balorazioa**
 - Aurreko guztia kontuan izanda, nola baloratuko zenuke egun gizarte zerbitzuetan dimentsio komunitarioaren egoera?
 - Zeintzuk esango zenuke direla dimentsio komunitarioa estankatuta egoteko edo aurrera ez egiteko oztopo nagusiak?
 - *Ze iritzi daukazu gizarte zerbitzuen kudeaketaren inguruan? (ematen zaion garrantzia, bideratzen den aurrekontua, baliabideak, legea etab.)*
 - *Nola baloratuko zenuke gizarte zerbitzuetatik egiten den lana?*
 - *Zer iruditzen zaizu gizarte zerbitzuetan dagoen lan egiteko modua eta arreta eredia?*
 - *Zer esango zenuke ematen diola dimentsio komunitarioak gizarte zerbitzuei? Eta herritarrei?*

- Beste premisa edo aurrez egon beharreko elementuren bat gehituko zenuke esan ditugunei? Beste alorren bat oso kontuan hartzekoa ikusten al duzu?
- Besterik gehituko zenuke?

- **ESKERRIK ASKO!!!**
 - Nire tesiaren emaitza eta lanketak zurekin konpartitu nahiko nituzke.
 - Kontaktuan egongo gara.

3.Eranskina: Teknikarien elkarrizketen gidioa

Elkarrizketatua:

Data:

Iraupena:

Lekua:

GIDOIA:

- SARRERA:
 - Eskerrak eman
 - Aurkezpena
 - Tesiaren aurkezpen laburra
 - Grabatu daiteke?
 - Helburua: Gizarte-zerbitzuen dimentsio komunitarioaren inguruan daukazuen ikuspegia eta jarrera ezagutzea.

- ELKARRIZKETA:
 - **Gizarte zerbitzuen inguruko ezagutza eta ulertzeko era.**
 - Nola definituko zenituzke gizarte-zerbitzuak? Eta nola oinarritzko gizarte-zerbitzuak
 - Zer uste duzu eskaintzen diotela gizarte zerbitzuek hiriarri eta auzoei?
 - *Ze iritzi daukazu Gizarte-zerbitzuen kudeaketaren inguruan? (ematen zaion garrantzia, bideratzen den aurrekontua, baliabideak, legea etab.)*
 - *Nola baloratuko zenuke gizarte zerbitzuetatik egiten den lana?*
 - *Zer iruditzen zaizu gizarte zerbitzuetan dagoen lan egiteko modua eta arreta eredia?*
 - Zer ulertzen duzu gizarte zerbitzuekin lotuta dimentsio komunitario, ekintza komunitario edo lan komunitario gisa?
 - Gizarte zerbitzuen baitan non kokatuko zenuke dimentsio komunitarioan sakontzeko aukera? Zergatik?
 - Egungo gizartearen ezaugarriek laguntzen al dute sakontze komunitarioan?

- **Gizarte-zerbitzuetako komunitarioaren dimentsio politikoa**
 - Alor politikoari erreparatuz.. zeintzuk esango zenituzke direla sakontze komunitarioa emateko elementu gakoak? Edo eman beharrezko aurre elementuak?
 - Borondate politikoa: esplizitua
 - Plan, programa, legeen garapena
 - Inbertsioa: ekonomikoa, teknikoa eta baliabideena.

- **Gizarte-zerbitzuetako komunitarioaren dimentsio teknikoa**
 - Maila teknikoari lotuta, zerbitzua berari lotuta, arreta unitateari lotuta zeintzuk esango zenituzke direla aurrez eman beharreko elementu edo kondizioak sakontze komunitarioa gauzatzeko?
 - Zerbitzuaren antolaketa, kokalekua, ezaugarriak..
 - Lan taldea, profesionalak, dedikazioak...
 - Gizarte Langilearen ezaugarriak, profila..
 - Komunitateko gizarte-langintzan formazioa..
 - Zerbitzuak lurraldearekin eta dagoen mugimendurekin duen elkarrekintza, PHko bideak..

- **Gizarte-zerbitzuetako komunitarioaren lurralde/erlazio dimentsioa**
 - Lurraldeari erreparatuz, zeintzuk esango zenituzke direla baldintza optimoak estrategia komunitario bat abian jartzeko?
 - Biztanleriaren ezaugarri soziodemografikoak, sozioekonomikoak..
 - Auzoaren baliabideak: publikoak, elkartegintza, pribatuak...
 - Bertan dagoen ekintza kolektiboa, mugimendua, ekintza komunitarioa, gizarte antolatua..
 - Auzoaren izaera (parte hartzailea, aldarrikatzailea...), dinamika, emandako esperientziak, bizipenak...
 - Auzo/herri ikuspegia, identitatea, pertenezia sentimendua...

- **3. Sektorea komunitarioan**
 - Zein da 3. Sektoreak honetan jokatzen duen papera, nola ikusten duzu?
 - Lurraldean: tokiko errealitatearekin hartu-emana
 - Teknikoan: subkontrata. +

- **Gizarte zerbitzuetako dimentsio komunitarioaren balorazioa**
 - Aurreko guztia kontuan izanda, nola baloratuko zenuke egun gizarte zerbitzuetan dimentsio komunitarioaren egoera?
 - Zeintzuk esango zenuke direla dimentsio komunitarioa estankatuta egiteko edo aurrera ez egiteko oztopo nagusiak?
 - *Ze iritzi daukazu gizarte zerbitzuen kudeaketaren inguruan? (ematen zaion garrantzia, bideratzen den aurrekontua, baliabideak, legea etab.)*
 - *Nola baloratuko zenuke gizarte zerbitzuetatik egiten den lana?*
 - *Zer iruditzen zaizu gizarte zerbitzuetan dagoen lan egiteko modua eta arreta eredia?*
 - *Zer esango zenuke ematen diola dimentsio komunitarioak gizarte zerbitzuei? Eta herritarrei?*

- Beste premisa edo aurrez egon beharreko elementuren bat gehituko zenuke esan ditugunei? Beste alorren bat oso kontuan hartzekoa ikusten al duzu?
- Besterik gehituko zenuke?

- **ESKERRIK ASKO!!!**
 - Nire tesiaren emaitza eta lanketak zurekin konpartitu nahiko nituzke.
 - Kontaktuan egongo gara.

4. Eranskina: Gasteizko gizarte-etxeen zerbitzuen laburpena

zerbitzuen laburpena resumen de servicios summary of services			Antzokia Teatro Theatre	Argibide bulegoa Oficina de información Information office	Ankeira gela Sala de ejercicio Exercise room	Askotarako gela Sala polivalente Multipurpose hall	Ekitaldi aretoa Salón de actos Assembly hall	Elkarze aretoa Sala de encuentro Meeting hall	Erakusketak Exposiciones Exhibitions	Eskalada-murua / boulderra Rocódromo / boulder Climbing wall / boulder	Familia liburategia Biblioteca familiar Family library	Gimnasio Gimnasio Gymnasium	Herritarrentzako arreta Atención ciudadana Citizen assistance	Hiri baratze ekologikoa Huerto ecológico urbano Urban organic garden	Igerilekua Piscina Swimming pool	Kafetegia Cafetería Cafeteria	Ikasteko gela Sala de estudio Study room	Kirol kanbaxa Cancha deportiva Sport courts	Kirol-jakin baterako gela Sala de modalidad deportiva Sport room	KzGunea	Lantegiak Aulas de taller Workshop classrooms	Liburutegia Biblioteca Library	Ludoteka-ludokluba Ludoteca-ludoclub Playroom-playclub	Oinarritzko Gizarte Zerbitzua Servicio Social de Base Basic social service	Padaia Pádel Paddleball	Sukaldeia Cocina Kitchen	Squasha Squash Squash		
Gizarte etxeak Centros cívicos Civic centres	ABETXUKO	945 162656 Kooperativa plaza, 8 Plaza de la Cooperativa, 8	■				■																						
	ALDABE	945 161930 Eulogio Serdán, 2	■		■	■	■												■		■	■	■	■	■		■		
	ARANA	945 161734 Aragoi kalea, 7 C/ Aragón, 7	■				■	■														■	■	■	■		■		
	ARIZNABARRA	945 162650 Ariznabarra, 19	■				■	■														■	■	■	■	■		■	
	ARRIAGA	945 161770 Francisco Javier Landaburu, 9A	■								■			■	■							■	■	■	■	■			
	EL CAMPILLO	945 161680 Santa María, 4	■		■	■		■												■		■			■			■	
	EL PILAR	945 161233 Santa María, 4	■		■	■		■	■													■	■	■	■	■		■	
	HEGOALDE	945 161880 Alberto Shormier, 10	■																		1	■	■	■	■	■		■	
	IBAIONDO	945 161813 Landaberde, 21	■		■	■	■	■	■													■	■	■	■	■	■	■	
	IPARRALDE	945 161750 Zuberora plaza, 1 Plaza Zuberora, 1	■		■	■	■	■	■													■	■	■	■	■	■	■	
	JUDIMENDI	945 161740 Judimendi hiribidea, 26 Avenida de Judimendi, 26	■			■		■	■													■	■	■	■	■	■	■	
	LAKUA	945 162630 Etxandaberren zabara, 1 Benda de los Etxandev, 1	■		■	■	■	■	■													■	■	■	■	■	■	■	
	SALBURUA	945 161637 Bratislava hiribidea, 2 Avenida de Bratislava, 2	■		■	■	■	■	■													■	■	■	■	■	■	■	
ZABALGANA	945 161630 Juan Gts, 2-4	■		■	■	■	■	■													■	■	■	■	■	■	■		
Kiroldegia Polideportivos Sport centres	ABETXUKO	945 161501 Ibaialde kalea, 3F C/ La Ribera, 3F	■	■								■																■	
	ARANALDE	945 161503 Andaluzia kalea, 16 C/ Andalucía, 16	■	■								■																	
	ARIZNABARRA	945 161511 Teodoro González de Zárate, 38	■	■							■																	■	
	ARRIAGA	945 161771 Francisco Javier Landaburu, 9A	■	■																		■	■	■	■	■			
	LANDAZURI	945 161516 Landazuri, 11	■	■																		■	■	■	■	■			
SAN ANDRÉS	945 161519 Argentina, 7	■																									■		

- 1 Tiro gela | Sala de tiro | Shooting range room
- 2 Halterofilia gela | Sala de halterofilia | Weight-lifting room
- 3 Eskrima gela | Sala de esgrima | Fencing room
- 4 Gimnasia jauzlekua | Foso de gimnasia | Gymnastics pit
- 5 Mahai-teniserako aretoa | Sala de tenis de mesa | Table tennis room

Iturria: Gasetizko Udala.

Actua como si fuera posible cambiar el mundo de manera radical

(Angela Davis)



eman fa zabal zazu

